Many types of organizations with interests in the nanotechnology business have sold us this type of technology as a synonym for job creation. The National Science Foundation forecast 2 million direct jobs in nanotechnology manufacturing and another 5 million indirect jobs by the year 2015. The company Lux Research specializing in market analysis has been even more positive and in their view by 2015 there will be 10 million new jobs related to nanotechnology. The OECD has at times cast doubt as to the reliability of these forecasts, considering the estimates made by the company Lux Research to be overly optimistic⁴⁵. The ambiguous nature of the definition of nanotechnologies and nanomaterials has also had a significant effect on calculating the amount of companies and jobs related to nanotechnology and creating precise quantitative methods used to calculate the financial impact. Indeed, the most important source of this market analysis data comes from surveys of different companies which might not be considered the most appropriate source for obtaining reliable and accurate data⁴⁶.

Yet there is little analysis to be found regarding jobs being destroyed by the nanotechnology industry. In 2005, the UN held an assembly between States from the Northern and Southern hemispheres to discuss global industrial development. During the debate on nanotechnology research, representatives from India and South Africa announced that the nanotechnology industry would directly affect the raw material exports

⁴² Ibid, 11. Statements by Lila Feiseer former IP Manager for the *Biotechnology Industry Organization*.

⁴³ PALMBERG, 2009: 34.

⁴⁴ See CHEN et al, 2013: 8.

⁴⁵ PALMBERG, 2009: 26.

⁴⁶ OECD and NNI, 2012: 16.

of developing countries. Specifically, they argued that different materials produced using nanotechnologies would replace other raw materials and the consequences would be extremely harmful for many developing countries⁴⁷. Furthermore, in 2005 the NGO ETC published a report on the impact the nanotechnology industry would have on materials such as rubber, platinum and copper. The findings leave no shadow of a doubt. In raw material-exporting States millions of jobs would be lost and their only option would be to adapt to the nanotechnology industry. In addition, many scientists now working in the Third World would go to work in the First World in order to get higher salaries⁴⁸. So according to this report, nanotechnology industries, instead of creating jobs, might actually create more unemployment. Above all, nanotechnology development might increase the economic imbalance between Northern and Southern hemispheres and widen the technological chasm even more by promoting the technology.

II.3. Some benefits of nanotechnologies and other concerns

II.3.A. Debate about the benefits of nanotechnologies

Since the very start of their development, nanotechnologies have been sold as a technological panacea to solve all types of problems in the modern world. In line with this discourse, the potential benefits of nanotechnologies are announced to us as if they were a biblical prophecy⁴⁹: some have presented them as the solution for many serious diseases, global hunger and environmental pollution. By chance (or not) a similar message regarding potential benefits was presented with biotechnology when this was presented whereby genetically modified products were announced as a technology to end global starvation. Over the years, there have been concerns about the use of GM products increasing the imbalance between the First and Third Worlds and their effects on the environment, casting great doubt on the initial allegations of the unique benefits of this technology.

From the 1960s on the famous agricultural researcher Norman Borlaug, known as the father of what is called modern agriculture or the green revolution, designed new varieties of wheat and other crops which would help to boost agricultural production in under-developed regions all over the world. Taking this idea of the green revolution as a basis, GM-based agriculture was presented as if it were a formula to bring to an end Third World hunger in the name of the green revolution. As has been mentioned earlier, far from achieving the potential benefits foreseen, in recent decades when GM-based agricultural methods have been employed there have been all types of different causes for concern. Rather than ensuring food sovereignty for under-developed regions, the monopolization of GM seeds has only increased the dependence of these regions in that they reinforce the

⁴⁷ ETC Group 2005a: 41.

⁴⁸ FOLADORI, INVERNIZZI, 2005:8

⁴⁹ Phil Bond, former member of the US Department of Commerce (with the post of under-secretary of the Department of Commerce for Technology), in a talk given at a congress held in Washington on the financials of nanotechnology. See KIMBRELL, 2009: 712.

economic imbalance between the First and Third Worlds. Furthermore, GM-based agriculture has brought concerns regarding environmental and health issues. Firstly, GM-based agriculture has accidentally contaminated non-GM crops through pollenization and this has had a negative effect on genetic diversity. Secondly, some GM products have continued to be the object of controversy and concern regarding the scientific uncertainties about their potential health risks.

As a result, if we take into consideration how these potential benefits used to promote green biotechnology (GM) in reality were not achieved, the unique potential benefits foreseen due to the application of nanotechnologies need to be studied carefully. It is necessary to find out whether the description of the potential benefits of nanotechnologies is both credible and viable or whether on the contrary the potential benefits are just a mass marketing strategy to legitimize and publicize these new technologies. In this context, some authors have tried to reject any similarities between nanotechnologies and biotechnology, arguing that they involve very different types of technologies⁵⁰. Instead of biotechnologies bringing benefits for those in need, the technology has only served to increase the profits of large corporations. However, these authors feel that the same is unlikely to happen with nanotechnologies and they argue that the benefits obtained from their development will be especially focused on the end user in the supply chain.

As mentioned earlier, nanotechnologies have been presented to society as a technology capable of solving many of the world's important problems. As occurred with biotechnology, concepts such as “green nanotechnologies” or “green manufacturing” are often used⁵¹. According to this discourse, nanotechnologies have brought with them enhanced chemical substances and industrial processes, creating less waste and reducing the use of toxic materials⁵². Furthermore, it has been stated it offers enhanced material properties (for instance, stronger materials, better, more elastic or more efficient conductors) and a solution to the ever-increasing scarcity of raw materials required to manufacture products⁵³. As well as polluting less, the technology is also useful against pollution, in other words the technology has the potential to develop devices to clean natural elements such as air, water or soil and to efficiently monitor pollution.

Today, there are 800 million people in the world with no access to clean drinking water and this tragic situation kills 5 million people every year mainly in regions in Asia and Africa⁵⁴. Essentially, there are two main sources of contaminated water: microbes and heavy metals. To counter this contamination water purification methods using filters with nanopores have been proposed (among others, filters which use carbon nanotubes). These devices are still in the research phase and some scientists believe it is possible to develop

⁵⁰ KELSO, 2003: 246.

⁵¹ These are concepts used by the OECD among others. See OECD, 2013.

⁵² FILIPPONI and SUTHERLAND, 2007: 10.

⁵³ TESHOME DEMISSIE, 2011:5.

⁵⁴ OECD, op. cit, p. 4.

them in the short term⁵⁵ whereas others believe that these water purification devices are still in the early research phase and are pessimistic about their feasibility due to the high costs involved⁵⁶. In the case of soil and underground water deposits, to counter organic and inorganic pollutants the use of ZVI (zerovalent iron), a type of steel nanoparticle, has been proposed as have silicon/titanium nanocomposites to destroy the metal pollutants in the air⁵⁷. Apart from preventing pollution, nanotechnologies enable us to monitor environmental conditions. Another line of research into this technology is to monitor water, soil or air quality and detect very precisely the pollutants using different chemical and biological biosensors⁵⁸. Today, this line of study is still in the research phase and the challenge is to see whether future development is effective and feasible.

Apart from potential applications they might bring related to protecting the environment, healthcare is seen to be one of the most interesting areas to adapt to nanotechnology. Using nanomedicine, in the future it is thought that it will be feasible to develop nanostructures and nanodevices which are able to monitor, repair, reconstruct and control the human biological system at molecular level⁵⁹. In fact it is estimated that in healthcare they will bring about a complete revolution in disease diagnostics, in therapy and in rehabilitation. In addition, nanotechnologies can also produce changes in the food supply chain. Firstly, by developing nano-pesticides to protect crops and secondly by developing applications which aim to improve food hygiene and preservation.

When speaking about the benefits of nanotechnologies, many have linked them to the idea of distributive justice whereby the basis of nanotechnologies development should not be to maximize financial profits or return on investment but rather to enable access to the potential benefits for society as a whole and especially for the societies of developing countries⁶⁰. However, since the emergence of nanotechnology development some ten years ago the intrinsic characteristics of this development have provided food for thought.

The largest volume use of nanotechnology is in the hands of large multinational companies such as BASF, Solvay and L'Oréal. The main aim of these companies is unrelated to the search for distributive justice or the general good of society and is more to do with using nanotechnology investment to increase profits and maximize return on investment. Furthermore, in view of the features of many nanoproducts and applications which have been launched to date, far from providing these potential benefits, they have become a cause for concern. Nanotechnologies continue to entail significant scientific uncertainties regarding their potential effects on the environment and exposure to humans and in the case of some nanomaterials there is also growing concern about potential negative effects on the environment or on humans⁶¹. Furthermore, the process to obtain the

⁵⁵ BARKER et al, 2008: 246.

⁵⁶ SCHUMMER, 2007.

⁵⁷ FILIPPONI and SUTHERLAND, 2007: 10; ALLHOFF et al, 2010 : 138-139.

⁵⁸ FILIPPONI and SUTHERLAND, op. cit, 11-13.

⁵⁹ BAWA and SUMMER, 2007: 882.

⁶⁰ Regarding ideas on distributive justice linked to nanotechnologies, see: TESHOME DEMISSIE, 2011.

⁶¹ Scientific uncertainty and possible risks regarding nanomaterials are outlined in Chapter 3, Section I.

potential benefits attributed to nanotechnology is both lengthy and complex and requires significant research expenditure.

Hence, in view of the lines of the nanotechnology development undertaken in recent years, rather than a clear view of the potential benefits, the end result is only further uncertainties and concerns. As in the case of the development of other new technologies, nanotechnologies have been presented as green technology to bring an end to world hunger, poverty, serious illnesses or environmental pollution whereas the harsh reality is that nanotechnology development combined with misguided strategies may only lead to greater social, economic or cultural inequality⁶². Furthermore, nanotechnologies are becoming a very complex, sophisticated and expensive technology and could be said to still be in their infancy⁶³, and the direction that nanotechnology development might take in the future is yet to be seen. Facilitating access to the technology, as it is increasingly sophisticated and expensive, for those who are most in need of its benefits (in this case those in Third World areas) can be a slow difficult process. Hence, in the case of nanotechnology firms, in real terms are the principles of financial viability and distributive justice compatible⁶⁴? So far, the answer would be no.

II.3.B. Social, economical and ethical doubts about nanotechnology development

Rapid developments in science and technology have increasingly significant effects on nature, on society and on humans. The same could be said for current nanotechnology development. Firstly, development is fast and looking to the medium to long term it is forecast to become progressively sophisticated (the development of 4th generation manufactured nanomaterials). Secondly, as nanotechnology is multi-disciplined and multi-industrial by nature its area of influence is becoming increasingly wider.

As in the past with other new technologies, the development of nanotechnologies poses some social and economical concerns, apart from the ethical issues that are explained below. The distribution of possible benefits and socio-economic concerns of nanotechnologies could be unequal (the benefits of few could be the detriment of many others) analyzed from different parameters⁶⁵:

- a) *Sectorally*. While the enterprises that have the potential to adjust to the revolution of nanotechnologies could obtain considerable profits, at the other end of the spectrum the enterprises that do not have this potential would lose competitiveness, an unbalanced situation were more jobs can be destroyed than created.

⁶² BOIDO and BALDATTI, 2012: 19.

⁶³ The Royal Society, 2004: 33-34.

⁶⁴ Meridian Institute, 2005: 18.

⁶⁵ Some points of this list, LEE, 2010: 802.

- b) *Geographically*. As was the case with biotechnologies, the world powers can make the decision to set a large portion of the nanotechnologies manufacturing industry in the developing countries. Consequently, there would be the workers of these developing countries who would suffer with higher intensity the potential risks of manufactured nanomaterials, while the world powers would benefit from the sale of these materials and products.
- c) *Between social classes*. The less purchasing power people have, the fewer opportunities to enjoy the real benefits of nanotechnologies. For instance, the access to an innovative but at the same time costly medical treatment against cancer which employs nanomaterials.
- d) *Between present and future generations*. While the exploitation of nanotechnologies can result in short and mid-term economical benefits, in a long-term this exploitation can also lead to serious and irreparable damage to the environment and health.

In addition to the social and economical concerns, the ethical concerns are becoming increasingly evident and increasingly complex. Furthermore, these ethical concerns do not encompass one specific area, and as development is heterogeneous ethical concerns are being raised in the different fields in which nanotechnologies are being implemented. In the process aimed at responsible nanotechnology governance, however, any debate and reflection on the ethical challenges is being sidelined. In the debate on the lines of nanotechnology development any ethical concerns are being ignored as many see them as a threat to innovation and the prevailing position is to exclude them from the general debate⁶⁶. As covered in Chapter 3 of this thesis⁶⁷, the ethical concerns should be granted the position they deserve in the nanotechnology governance process, along with other factors (potential risks and benefits and socio-economic factors) which should be part of the general debate, as they provide the necessary viewpoint to reflect on and decide what legitimate and beneficial objectives the evolution of this technology should have. In this chapter the aim is not to analyse the importance ethical challenges should have in the governance process but to briefly mention the most significant ethical concerns about nanotechnologies. Among others, the following ethical challenges could be highlighted.

Nanotechnologies, with the convergence of biotechnology and ICT (Information and Communication Technology), apart from curing human illnesses or injuries, have the capacity to improve human abilities or bodily properties above a "normal" level. However, exactly where this "normal" level lies is not exactly clear. For example, instead of an operation or a treatment to cure or repair a wound, pushing the boundaries and enhancing our own capacities and body properties is something which has been debated for many years⁶⁸. Looking to the future, it has been predicted that nanomedicine will bring about a revolution in illness and injury diagnoses, therapy and rehabilitation medicines and as a

⁶⁶ LEE, 2010:805-806.

⁶⁷ Exactly in the 3rd Chapter, section II.1.D.

⁶⁸ In recent decades, this type of concern has been voiced over, among other things, hormone implants, drug use in sports, and plastic surgery.

result, the fact that this type of treatment or intervention instead of "curing" will "improve" may be a cause for concern. In the field of cosmetics, due to the use of manufactured nanomaterials the innovations might also bring similar concerns within this industry.

Research into the contribution of nanotechnology improvements to human illness and the characteristics of the human body is a field of great interest to the defence sector. Even though most information regarding military applications is confidential, some defence projects have come to light such as, among others, those aiming to monitor the health of soldiers and improve some illnesses. Some examples of these applications are devices to detect fatigue in soldiers, devices to enable soldiers to go days without sleep and chips inserted into the retina to enhance night vision⁶⁹. Furthermore, as applications originally emerging as breakthroughs for military use are often later developed for civilian use, some of these lines of research might in the future be developed for civilian applications. In addition to the changes they might have to the characteristics of human beings, the defence sector is increasingly researching nanotechnologies in an aim to develop increasingly sophisticated warfare and security-based practices. Through enhanced conventional and nuclear weapons, the aim is to develop deadly stealth-based weapons and security methods⁷⁰ which are questionable from an ethical or human rights viewpoint.

In the name of security, some nanotechnology applications have the capacity to have a remarkable effect on individual privacy, and may become increasingly sophisticated in the future. The benefits offered by nanotechnologies in the future in the electronics and other similar sectors could be highly influential in exerting increased social controls and levels of security on an individual and general level. Hence, apart from ethical questions concerning the acceptability of these practices, rights regarding privacy and personal data protection could also be negatively affected⁷¹.

In terms of patents, in the last decade another common phenomenon has been the rush in nanotechnologies to patent "everything". With the criteria for determining what is or is not patentable becoming increasingly lenient some nanotechnology patents raise ethical concerns regarding Intellectual Property rights. Specifically, the ownership of some nanotechnology-related patents for manufactured nanomaterials created as a result of manipulating materials at nano-scale. Through these practices in reality it is being questioned whether natural materials are being patented, in that natural elements are not patentable.

Some authors have defended that the effects of the evolution of cutting-edge nanotechnology might put the very future of humanity at risk. Renowned scientist Eric Drexler laid out his concerns regarding the hypothetical situation in store for us as a result

⁶⁹ Information on these applications: DELGADO, 2008: 6; ALLHOFF et al, 2010: 175-176.

⁷⁰ SCHUMMER, 2007:87; DELGADO, op. cit, 6.

⁷¹ Analysis regarding potential effects that nanotechnology might have on privacy issues is presented in Chapter 6, Section VII.

of enhanced nanotechnology development in his 1986 book “Engines of Creation”⁷². Drexler presented a radical standpoint regarding nanotechnology, arguing that in the not-too-distant future by ordering atoms in a specific way intelligent nanodevices could be developed with the capacity to self-replicate (through types of 3rd and 4th Generation nanomaterials). The development of these nanodevices known as “gray goo” could lead to the creation of nanorobots which could in turn develop their own intelligence, escape from any human control and destroy the world. Drexler's predictions have provoked all types of opinions attacking his proposals.

Most scientific doctrines argue that in the short term this type of accident is impossible and consider that the idea of “gray goo” is only science fiction or is for mere entertainment⁷³. One of the strongest of Drexler's critics is renowned scientist Richard Smalley who was awarded the Nobel Prize in 1996 for the discovery of nanostructures known as fullerenes. In his words, Drexler's ideas lie outside the realms of science, in that today it is not possible to create a self-replicating intelligent machine using assemblers⁷⁴. As mentioned earlier, there are also those in favour of Drexler's theories. One of the most famous is that of Bill Joy, founder of Sun Microsystems. This author defends the theory that in the future, developments in robotics, genetic engineering and nanotechnology could produce phenomena such as “gray goo” or post-humanism, which could threaten the very existence of the human species⁷⁵.

⁷² The book “Engines of Creation” was translated to Spanish and published as “La Nanotecnología” by Gedisa publishers, 1994.

⁷³ UNESCO, 2006: 20.

⁷⁴ The argument between the scientists Drexler and Smalley became famous in the early 2000s in the USA in scientific journals (in particular in the journal *Chemical Engineering*) whereby one of them would send a public letter to the other, defending his own position while strongly criticizing the other's.

⁷⁵ See JOY, 2000.

2. KAPITULUA

ARRISKUA: KONTZEPTUAREN ETA BERE TRATAMENDU JURIDIKOAREN ANALISIA

I. ARRISKUAREN KONTZEPTUA ERAIKITZEN

Arriskua, eguneroko hizkuntzan izan dezakeen esanahi arruntaz harago, testuinguru akademikoan konplexutasun eta anbiguotasun handiko kontzeptua dela esan daiteke. Izan ere doktrina eta diziplina desberdin askotatik aztertua, definitua eta interpretatua izan da. Kontzepzio heterogeneotasun hori arriskuaren inguruko analisiak aberasteko lagungarria izan badaiteke ere, nahasmen eta eztabaida desberdinen iturri bilakatu da. Diziplina askotatik, angelu desberdinetatik aztertua izan den aldetik, gaur egun kontzeptu horren jatorri, izaera, objektu eta berezko elementuen iritzi bateratasunik ez da existitzen.

I.1. Arriskuaren jatorria eta oinarrizko elementuak

Alde batetik, arrisku terminoaren jatorriari buruzko teoria doktrinal desberdinak existitzen dira. Autore batzuen esanetan bere jatorria Antzinako Grezian erabiltzen zen *Rhiza* hitza da, arrezife inguruan itsasontziz nabigatzeak zekartzan arriskuei erreferentzia egiten zien terminoa (K.a. 750. urte ingurukoa)⁷⁶. Beste batzuen ustez latineko *rescum* hitzetik eratorri zen, “mozten duen hori” (*aquello que corta*) esanahia zuena⁷⁷. Greziarrek erabiltzen zuten *rhiza* terminoaren antzera, *rescum* hitza itsas bidaiek sorrarazten zituzten arriskuak deskribatzeko erabiltzen zen. Doktrinaren beste zati batek latin klasikoan arriskuaren parekidea den terminorik existitzen ez zela, eta errealtatean kontzeptu horren jatorria *Rizq* hitz arabiarra dela argudiatzen dute⁷⁸. Azkenik, beste egile batzuek arriskuaren terminoa italierako *riscare* hitzetik (euskaraz, “ausartu” esan nahi du) datorrela defendatu dute⁷⁹. *Riscare* terminoak, jarduera arriskutsu bat burutzeak sortu ditzakeen ondorio negatiboaz gain, arrisku horiek hartzetik halaber lortu daitezkeen ondorio positibo edo sariei ere egiten zien erreferentzia⁸⁰. Alegia, dimentsio negatiboaz gain, arriskuak dimentsio positiboa izan zezakeela ulertzera ematen zuen terminoa da.

Arriskuaren jatorriari buruzko eztabaidak alde batera utzita, arriskuaren oinarrizko ezaugarrien azterketari ekingo zaio. Espainiako Akademia Errealak arriskua honako moduan definitzen du: “*contingencia o proximidad de un daño*”. Horren arabera arriskua

⁷⁶ CARDONA ARBOLEDA, 2001: 6.

⁷⁷ ANTAR GAMBA, eta RIBEIRO DOS SANTOS: 2006; PERETTI-WATEL, 2000: 10.

⁷⁸ SERRANO MORENO, 2010: 164.

⁷⁹ GRUSZCZYNSKI, 2010: 7-8.

⁸⁰ Ibid.

kutxu negatibodun egitate bat (kaltea) gertatzeko posibilitatea (kontingentzia) edo gertutasuna da. Definizio horretatik arriskuaren kontzeptuarekin lotura duten zenbait elementu eta ezaugarri ondorioztatu daitezke.

Arriskua funtsean bi elementuk besarkatzen dute: alde batetik, arriskua eragiten duen faktore edo iturriak eta bestetik, arriskua materializatzen den kasuetan ematen den gertakariak. Arriskua eragiten duten faktoreak hiru kategoriatan banatu daitezke: izaera naturalekoak (sumendiak, uholdeak, tornadoak eta antzeko fenomeno naturalak), izaera antropogeniko edo soziala dutenak (gizakiaren jardueran jatorria duten arriskuak, esate baterako, arrisku teknologikoak) eta azkenik izaera mistoa dutenak (jatorri naturala duten faktorea izanik ere, giza jarduerak faktore horien arriskugarritasunari eragiten dietenean, esaterako, gizakiak egindako deforestazioaren ondorioz gertatzen diren lur-jauziak). Arriskua eragiten duten faktorearen izaera nolakoa izan, arriskua materializatzean ematen den gertakariaren izaera ere horrelakoa da. Izan ere, kalteak naturalak, sozialak edo mistoak izan daitezke⁸¹.

Arriskuaz hitz egiteko, bestalde, ziurtasun falta egon behar da. Izan ere, gertakari bat gauzatuko denaren edo ez denaren erabateko ziurtasuna dagoen kasuetan ez dago arriskurik. Adibidez, pertsona bat hegazkin batetik paraxutik gabe jaurtitzen bada, hil egingo dela ziurra da eta beraz ez da arriskurik existitzen⁸². Ziurtasun eza, beraz, arriskuaren ezinbesteko elementua da. Aurrerago aztertzen den bezala, doktrina korrante batzuek (korrante teknikoak kasu) arriskuaren ziurgabetasuna metodo objektiboen bidez kalkulatu daitekeen elementua dela argudiatzen dute (probabilitate, metodo estatistiko eta informazio zientifiko objektiboaren bidez); beste batzuek aldiz (arriskuaren korrante psikologiko edota sozialek), arriskuaren ziurgabetasuna parametro subjektibo konplexu eta anitzen bidez norbanakoak edota gizataldeek eraikitzen duten kontzeptua dela arrazoitzen dute.

Arriskuaren beste elementu garrantzitsu bat bere tenporaltasuna da. Arriskuaren kontzientziaren erdigunea ez da orainaldia, etorkizuna baizik⁸³. Alegia, arriskuaren eta horren ondorioz eman daitekeen gertakariaren artean etorkizunera begirako tenporaltasun harremana dago. Arriskua beraz, etorkizunean gerta daitekeen/ez daitekeenari buruzko ziurtasun eza da⁸⁴. Bestalde, arriskuaren hautematea testuinguru tenporal dinamiko bati lotuta dago⁸⁵, denborak aurrera egin ahala arrisku baten behaketatik eratorri daitekeen hautematea ere aldatuz joan baitaiteke.

⁸¹ CARDONA ARBOLEDA, 2001: 24-27, TROUWBORST, 2006: 41; BRIONES GAMBOA, 2005: 10.

⁸² HOLTON, 2004.

⁸³ BECK, 1998: 39.

⁸⁴ CARDONA ARBOLEDA, op. cit, 5. orr.

⁸⁵ MAY, 2012: 314; SERRANO MORENO, 2012: 372.

I.2. Perila eta arriskua kontzeptuen dikotomia

Espainiako Akademia Errealak perila⁸⁶ (gaztelaniazko “peligro”) eta arriskua kontzeptuei antzeko definizioak aurreikusi dizkie. Zehazki, perila horrela definitzen du: “*riesgo o contingencia inminente de que suceda algún mal*”. Hizkuntza arruntean peril eta arrisku kontzeptuak maiztasunez sinonimoak bailiran erabiltzen badira ere, esparru akademikoan bi kontzeptu horiek bereiztea garrantzitsua da. Hurrengo lerrootan beraz arrisku eta peril kontzeptuak (gaztelaniaz *peligro/riesgo*, ingelesez *danger/risk*) elkarren artean zertan eta zergatik bereizten diren aztertzen da.

Doktrinaren zati batek perila eta arriskua bereizteko bi kontzeptu horien jatorria hartzen dute oinarri: perilek jatorri naturala dute, arriskuek ordea giza jatorria⁸⁷. Interpretazio doktrinal horren arabera, giza jarduerarekin inolako zerikusirik ez duten prozesu natural hutsek (esaterako uholdeek, sumendiek edo lehorteek) sorrarazi ditzaketen kalteen kontingentzia da perila. Izaera naturala duten peril horiek kontrolatzeko gizakia zientzia eta teknologiaz baliatu izan da. Ezagutza zientifikoei eta beren aprobetxamendu teknologikoen garapenari esker, gizakiak denbora aurrera joan ahala naturaren gaineko kontrol-gaitasun gero eta garrantzitsuagoa lortu du. Hala ere, fenomeno naturalak kontrolatzeko zeregin horretan, teknologiek giza osasun, segurtasun edo ingurumenean bestelako kalte potentzial batzuk eragiteko gaitasuna ere badute. Gizakion jarduerarekin zerikusia duten kalteak gertatzeko kontingentziari (posibilitateari), esan bezala, arriskua deritzo. Kaltea eragin dezakeen iturriak giza jatorria duenez ez gaude peril baten aurrean, arrisku baten aurrean baizik.

Niklas Luhmann soziologo alemanak perila eta arriskua kontzeptuak bereizteko kalte posiblearen jatorrian arreta jarri beharrian, “sistemen teoriaren⁸⁸” ingurune/sistema (*entorno/sistema*) elementuen dikotomia ardatz hartzen du bi kontzeptu horiek elkarren artean bereizteko. Ingurune/sistema dikotomia horretan, sistema ingurunearen barnean konfiguratu da (ingurunerik gabe ezin daiteke sistemaz hitz egin). Izatez, sistema ingurunearen “konplexutasun murrizketa” operazio bezala ulertu behar da. Inguruneak mugarik ez duen bitartean, bere barnean egituratzen den sistemak muga definituak ditu, sistema eta ingurunearen artean bereizi ahal izatea posible egiten dutenak hain zuzen ere⁸⁹. Ingurunearen berezko konplexutasunari aurre egiteko asmoz sistemak aurrera eramaten duten “konplexutasun murrizketa” operazio hori, ordea, ez da konplexutasunetik sinpletasunera doan urrats soil bezala interpretatu behar. Ingurunearen konplexutasunari aurre egiteko, sistemak hura beste konplexutasun batengatik ordezkatzeko du; alegia, ezin

⁸⁶ Gaztelaniazko hizkuntzak “riesgo” eta “peligro” kontzeptuak bereizten dituen bitartean, euskaraz “arrisku” hitza erabiltzen da bi kontzeptu horien itzulpen bezala. Ikerketa lan honen helburuetarako ordea bi kontzeptu horiek elkarren artean desberdintzea ezinbestekoa denez, Euskaltzaindiaren hiztegiaren arabera Ipar Euskal Herriko euskararen ohikoagoa den “peril” terminoa erabiltzen da gaztelaniazko “peligro” terminoaren itzulpen bezala.

⁸⁷ BECK, 1998; DOMENECH PASCUAL, 2006: 152; ESTEVE PARDO, 2003b: 329-330.

⁸⁸ Ikus LUHMANN, 1998. Luhmannen hausnarketei buruzko analisi interesgarria, MARTÍNEZ GARCÍA, 2012.

⁸⁹ SERRANO MORENO, op. cit, 363. orr.

helduzko konplexutasunaren gainean (ingurunearena) sistemak ulerterrazagoa den “konplexutasun estrukturatu” bat sortzen du⁹⁰.

Ingurunea/sistema dikotomia horretan perila ingurunea da, eta arriskua aldiz, sistema. Espainiako Akademia Errealak perila eta arriskua definitzean biak hala biak “kaltearen kontingentzia” kontsideratzen dituela gogora ekarri behar da. Hain zuzen ere, perila/arriskua dikotomiaren gakoa, gizakiak “kaltearen kontingentzia” horretan eragiteko nolabaiteko aukerarik duen edo ez zehaztean datza. Peril eta arriskuaren desberdintasuna beraz, peril batek sortu ditzakeen kalte posibleen gainean gizakiak erabakiak hartzeko ahalmenaren existentzian datza; alegia, peril horri forma emateko edo egituratzeko gizakiak gaitasunik duen edo ez⁹¹. Gizakiak perilari forma emateko gaitasunik badu, perilaren (ingurunearen) konplexutasuna murrizteko gizakiak hartutako erabakiek forma ematen diote arriskuari (sistema)⁹². Ingurunearen arazo bat (perila) sistemaren arazoa (arriskua) bilakatzen den transformazio kontzeptual horrek, beti hala beti, hautapen murriztailearen logikari jarraitzen dio⁹³: perila beti konplexuagoa da horren behaketatik behatzaileak ondorioztatzen duen arriskuaren “konplexutasun estrukturatua” baino.

Niklas Luhmannen teoria horri jarraiki beraz, gizakiak peril baten gainean erabakitzeko inolako ahalmenik ez badu, hots, peril horren kalte posibleak emantzat edo inolaz ere aldatu ezinak badira, perilaz hitz egin dezakegu baina ez ordea arriskuaz. Arriskua berez ez da egitate bat, egitateak behatzeko analisi instrumentu bat⁹⁴ baizik. Arriskua ez da kaltea, kaltearen konbergentzia behatu eta tratatzeko gizakiak egiten duen eraikipena baizik⁹⁵. Arriskua beraz peril baten gainean behatzaileak egindako eraikipena da, ez ordea behaketa horren aurretik existitzen zen errealitate bat⁹⁶.

Perilen inguruan hartutako erabakiak nolakoak izan, arriskuak ere halakoak izango dira. Alegia, hartzen den erabakiaren izaeraren arabera arriskuak mota batekoak edo bestekoak izan daitezke⁹⁷. Peril baten gainean erabakitzeak (erabakirik ez hartzea ere erabakitzea da) arrisku batzuk baztertu eta beste arrisku batzuk hartzea dakar, hots, arriskuen artean erabaki behar izatea⁹⁸. Peril baten gainean erabaki bat hartzean (inolako neurririk ez hartzea barne) hartzen/baztertzen diren arriskuen arabera, kalte posibleak ere desberdinak izango dira. Azalpen hori hobeto ulertzeko adibide bat jar dezagun. Teknologia berri batek osasunean efektu kaltegarriak eragiteko gaitasuna izanik horren ustiapena debekatzea erabakiz gero, osasun kalte horien gainean arriskurik ez hartzea erabaki da. Erabaki horrek osasunaren arriskuak baztertzen baditu ere, beste arrisku mota batzuk hartzea eragiten du; esate baterako, teknologia berri horren ustiapen ezagatik galera ekonomikoak izateko arriskua.

⁹⁰ MARTÍNEZ GARCÍA, op. cit, 330-331. orr.

⁹¹ MAY, op. cit, 304-305. orr; SERRANO MORENO, op. cit, 362-363. orr.

⁹² LUHMANN, op. cit, 162. orr.

⁹³ SERRANO MORENO, op. cit, 366. orr.

⁹⁴ MARTÍNEZ GARCÍA, op. cit, 325. orr.

⁹⁵ LUHMAN, op. cit, 23. orr

⁹⁶ SERRANO MORENO, op. cit, 356. orr.

⁹⁷ LUHMAN, op. cit, 162. orr.

⁹⁸ ESTEVE PARDO, 2012: 277.

Sortutako kalteen egozgarritasun juridikoaren ikuspegitik beraz, perilaren eta arriskuaren artean bereizketa egitea ezinbestekoa da. Kaltea gertatzen den kasuan gertaera hori erabaki bat hartu izanaren ondorioa bada, zentzu hertsian sistemaren barnean kokatzen den arrisku materializatu baten aurrean gaude, pertsona edo erakunde bati/batzuei egozgarria zaiena. Sortu den kaltearen atzean inolako erabakirik hartu ez den kasuan, sistematik kanpo (ingurunean) dagoen perilari egozten zaion kaltea da, erantzukizun juridikoaren ikuspegitik aztertuta inori inputagarria ez zaion kaltea dena⁹⁹.

I.3. Ziurgabetasuna, arriskuaren berezko elementua

Jarduera, sustantzia edota egitate batek sorrarazi dezakeen kaltea eta kalte hori gertatzeko kontingentzia erabat ziurra denean ezin daiteke arriskuaz hitz egin. Izan ere, arriskuak kaltearen edo kaltearen kontingentziaren gainean gutxieneko ziurgabetasun gradu bat egotea eskatzen du. Ziurgabetasunaren nozioa arriskuaren berezko elementua da, kaltearen eta bere kontingentziaren ziurgabetasuna erabat gainditzean (ziurtasuna lortzean) arriskuak protagonismoa galtzen baitu¹⁰⁰. Ziurgabetasunaren iturri, izaera edo tipologiari buruz ordea doktrinak ez du sailkapen uniforme edo bateraturik adostu. Hurrengo lerroetan beraz, ziurgabetasunaren inguruan egin diren sailkapen desberdinen analisia egiten da.

I.3.A. Arriskuaren ziurgabetasun motei buruzko sailkapen batzuk

EBko Ingurumen Agentziak 2001. urtean hiru ziurgabetasun mota desberdindu zituen. Horretarako, kaltearen larritasun eta probabilitatearen (kontingentziaren) parametroei buruzko ezagutza zientifikoaren egoeran (ezaguna/ezezaguna) oinarritzen da¹⁰¹:

III. TAULA: Ziurgabetasun moten sailkapena, EBko Ingurumen Agentzia

Larritasuna	Probabilitatea	Arrisku egoera
Ezaguna	Ezaguna	Arrisku kuantifikagarria, neurgarria
Ezaguna	Ezezaguna	Ziurgabetasuna <i>sensu stricto</i>

⁹⁹ MARTÍNEZ GARCÍA, op. cit, 331. orr.

¹⁰⁰ BERBEROFF AYUDA, 2005: 32.

¹⁰¹ EBko Ingurugiro Agentzia, 2001: 192.

Ezezaguna	Ezezaguna	Ezjakintasuna
-----------	-----------	---------------

George Bush AEBko presidentea zen garaian bere defentsako idazkari nagusia zen Donald Rumsfeld-ek, 2002. urtean aurreko arrazoiketaren antzeko logika erabili zuen Iraken ustezko arma nuklearren edukitzaren inguruan arrisku horren ziurgabetasuna azaltzeko¹⁰²:

*There are known knowns; there are things we know that we know.
There are known unknowns; that is to say, there are things that we now know we don't know.
But there are also unknown unknowns – there are things we do not know we don't know.*

Donald Rumsfeld-ek esaldi horren bidez hiru ziurgabetasun mota desberdin zituen. Lehenengoan, ziurgabetasuna sortzen duten elementuei buruzko ezagutza osoa denean (*known knows*), gertatu daitekeen emaitzaren eta emaitza hori gertatzeko dagoen arriskuaren posibilitatea kuantitatiboki neurtzea posible da. Bigarreanean, nahiz eta sortu daitekeen emaitzari buruzko ezagutza izan, emaitza hori materializatzeko dauden kontingentzien inguruko ezagutza falta dago (*known unknowns*), alegia, hainbat elementuren ondorioz sortua izan daitekeen ziurgabetasuna existitzen da. Azkenik, erabateko ziurgabetasuna edota ezjakintasuna ere eman daiteke, arriskua gertatuz gero sortu daitekeen emaitzak duen izaeraren eta emaitza hori gertatzeko probabilitatearen inolako ezagutarik ez dagoen kasuetan (*unknown unknowns*).

Frank Knight ekonomialariak arriskuari buruz hausnartu zuen teoria klasikoaren arabera, arriskua kalkulatu ahal izateko lehenengo motatako ziurgabetasunak bakarrik dira kontuan hartu behar direnak (*known knows*), hots, ziurgabetasun neurgarri edo kuantifikagarriak soilik. Beste bi ziurgabetasun moten kasuan, kuantitatiboki ziurgabetasun neurtezinak diren neurrian, Frank Knight-en teorian ezjakintasun elementuak kontsideratzen dira eta beraz, arriskuaren kalkulutik kanpo geratu behar zirela argudiatzen zuen¹⁰³.

Bestalde, EBko Komisioak arreta printzipioaren aplikazioari buruz eman zuen “COM (2000)1 final” gomendioan, ziurgabetasun zientifikoaren bestelako sailkapen bat egituratu zuen¹⁰⁴. Komisioaren esanetan, ziurgabetasuna arrisku-analisiaren elementu kuantitatibo eta kualitatiboetan gerta daiteke. Alde batetik, arriskuaren analisia aurrera eramateko erabilitako metodologia zientifikoaren ondorioz sortutako ziurgabetasunak:

a) aukeratutako aldagaietan.

¹⁰² Donald Rumsfeld-ek eman zuen prentsaurrekoaren bideoa [2015-10-21]: <http://www.youtube.com/watch?v=GiPe1OiKQuk>

¹⁰³ DAMODARAN, 2008: 3-4.

¹⁰⁴ EBko Komisioaren COM (2000)1 final Gomendia, 5.1.4. atala.

- b) egindako neurketetan eta hartutako laginetan.
- c) erabilitako testapen edo ebaluaketa metodologietan.
- d) Kaltearen kausa eta efektuen artean existitu daitekeen harremana (kausalitate harremanaren) identifikatu eta kuantifikatzean. Izan ere, kausalitate harremanaren existentzia edo existentzia eza zientifikoki frogatzea zeregin korapilatsua izan daiteke batzuetan, kausa batek mota eta tipologia askotako efektu kaltegarriak eragin baititzake edota alderantziz (efektu kaltegarri batek faktore kausal asko edukitzea, hots, plurikausalitatea). Autore batzuek azken inguruabar hori deskribatzeko “arriskuaren konplexutasuna” kontzeptua erabiltzen dute¹⁰⁵.

Bestetik, elementu kuantitatibo horiekin batera, arriskuaren ziurgabetasunek ere elementu kualitatiboetan ere izan dezakete beren jatorria:

- a) arriskuaren analisitik ondorioztatutako datu zientifikoak berberak izanik ere, datu horien behatzaileek modu ezberdinean interpretatzen dituztenean. Esate baterako, substantzia kimiko baten datu toxikologiak berberak izanik zientzialari batzuek substantzia hori giza osasunarentzat edo ingurumenarentzat arriskutsua dela ondorioztatu dezakete, eta beste batzuek aldiz ezetz. Ziurgabetasun elementu hori deskribatzeko autore batzuek “anbiguotasun” terminoa erabiltzen dute¹⁰⁶.
- b) Arriskuari buruzko datu eta informazio garrantzitsua eskuragarri ez dagoenean.

I.3.B. “Ezjakintasuna” edo “unknown unknowns” izeneko ziurgabetasun mota

Arriskuaren ziurgabetasunari buruz azaldu berri diren sailkapen irizpide horien artean, ikuspegi zientifiko (eta juridiko) batetik kezka gehien sortzen duen ziurgabetasun mota EBko Ingurumen Agentziaren sailkapenean “ezjakintasun” bezala kalifikatzen dena da. Alegia, kaltearen larritasunari eta bere kontingentziari buruzko datu zientifiko garrantzitsuen ezagutzarik eza (*unknown unknowns*). Ziurgabetasun maila altu horren ondorioz arriskuaren benetako dimentsioak zeintzuk diren ezin daitezke definitu¹⁰⁷. Hala ere, ziurgabetasun mota hori intentsitate desberdinekoa izan daitekeenez, bi kategoriatan sailkatzen da: murriztu daitekeen ezjakintasuna (ziurgabetasun epistemologikoa) eta erabateko ezjakintasuna (ziurgabetasun ontologikoa).

Alde batetik, arrisku baten inguruko ziurgabetasuna epistemologikoa bada, ikerketa zientifikoaren bidez murriztuz joan daitekeela ulertzen da¹⁰⁸. Arriskuaren inguruan egin beharreko galderak argi badaude ere, galdera horien erantzunek orainaldian existitzen den ezagutza zientifiko eta teknikoaren arabera ezin daitezke argitu. Adibidez, arrisku bat ezin

¹⁰⁵ KLINKE eta RENN, 2002: 1085.

¹⁰⁶ Ibid: 1086. orr.

¹⁰⁷ RENN eta ELLIOT, 2011: 247.

¹⁰⁸ CHARNLEY eta ROGERS, 2011: 362-363; RENN eta ELLIOT, op. cit, 245-248. orr.; TROUWBORST, op. cit, 73. orr.

neuritu ahal izatea, neurketa hori aurrera eraman ahal izateko metodologia egokiak teknikoki garatu gabe daudelako. Orainaldian arriskuaren entitatea behar bezala ulertzea ezinezkoa bada ere, etorkizunera begira arrisku horri buruzko ezagutza zientifiko-teknikoak hazten joatea eta beraz ezjakintasun elementu horiek murriztuz joan daitezkeela estimatzen da Aurreko adibidearekin lotuz, arriskua neurtzeko metodologia egokiak garatzen diren momentutik aurrera.

Bestetik, arriskuari buruzko ezjakintasuna erabatekoa eta murriztu ezina denean ziurgabetasun ontologikoaren aurrean gaude. Arrisku baten inguruan egin beharreko galderak pentsaezinak edo gauzatu ezinak dira, eta beraz, arrisku potentzialak ere aurreikusi ezinak dira¹⁰⁹. Kasu horretan erabateko ziurgabetasun egoera horrek aldagaiz jarraituko duela estimatzen da; nahiz eta ezagutzai zientifiko-teknikoa haziz joan, ziurgabetasun ontologikoz inguratutako arriskuaren karakterizazioan ez da inolako aurrerapausorik emango.

Kasu batzuetan ordea, arrisku baten karakterizazioa egitean ziurgabetasun ontologiko bezala kalifikatu diren ezjakintasun elementuak, denbora igaro ahala haziz joan den ezagutza zientifiko-teknikoari esker, jakintzagai bihurtu daitezkeela erakutsi digu historiak. Alegia, arrisku bat inguratzen zuten ezjakintasun elementuak ziurgabetasun ontologikoak izan beharrean, errealitatean epistemologikoak zirela. Kapitulu honetan aurrerago aztertzen den amiantoaren kasuan esate baterako inguruabar hori gertatu da. Industrian masiboki erabiltzen hasi zen momentuan mineral horren arriskuei buruzko ezjakintasuna existitzen bazen ere, XX. mendea aurrera joan ahala aurrera eraman ziren ikerketa zientifikoaren bitartez mineral horren arrisku potentzialei buruzko zantzu zientifikoak gero eta esanguratsuagoak izatera igaro ziren. XX. mende-arte asbestoaren arriskuen inguruko ezjakintasuna erabatekoa izanik ere, denborak aurrera egin ahala eskuratuz joan ziren ezagutza zientifiko eta teknikoei esker asbestoaren erabileraren eta horrek osasunarentzat sortu ditzakeen kalte larrien arteko kausalitate harremana zientifikoki frogatzea lortu zen.

I.4. Arriskuaren dimentsio objektibo eta subjektiboaren inguruan errotutako korrante doktrinalak

Bere dimentsio objektibotik aztertuta, arriskua fenomeno fisikoa eta behagarria da. Zentzu horretan arriskua kuantitatiboki kalkulatu daitekeen kontzeptu estatistikoa da, arrisku-gertaera gauzatzeko dagoen probabilitate kalkuluen bidez neuritu daitekeena. Aldiz, dimentsio subjektiboa (edo kognitiboa) arriskuaren kontzepzio kualitatiboan oinarritzen da. Alegia, arrisku baten pertzepzioaren bitartez indibidualki edo sozialki egiten den eraikipena da (*el riesgo depende de quien lo observa*¹¹⁰), faktore ezberdinak kontuan hartzen dituen (besteak beste, norbanakoaren pertzepzio indibiduala, faktore sozioekonomikoak eta kultura).

¹⁰⁹ WARSHAW, 2012: 388.

¹¹⁰ SERRANO MORENO, 2010: 163.

Arriskua diziplina eta korrante doktrinal anitzetatik aztertua izan den neurrian, horietako batzuek arriskuaren balizko dimentsio bakarra objektiboa dela arrazoitzen dute. Beste batzuek ordea, arriskuak dimentsio objektiboa eta subjektiboa duela defendatzen dute (arriskuaren dimentsio batek besteak adinako garrantzia duela edota dimentsio batek besteak baino garrantzi handiagoa duela arrazoitzen dutenak). Azkenik, arriskuaren balizko dimentsio bakarra dimentsio subjektiboa dela defendatzen duen korronterik ere bada. Korrante anitz horiek arriskuari buruzko lau ikuspegi zabaletan sailkatu daitezke¹¹¹: ikuspegi tekniko edo zientifikoa, ekonomikoa, psikologikoa eta soziologikoa edo kulturala.

1.4.A. Arriskuaren ikuspegi tekniko edo zientifikoa

Ikuspegi tekniko edo zientifikoa arriskuaren dimentsio objektiboan jartzen du arreta. Korrante horren arabera arriskua behagarria, identifikagarria eta neurgarria da eta arriskua kantitate numeriko bat bailitzan egituratzen da. Arriskua errealitatean gertatzen diren egitateen behaketarako analisi instrumentu bezala konfiguratu da eta bera ebaluatzeko metodo estatistiko eta matematikoa, probabilitate kalkulua eta bestelako parametro zientifiko batzuk (esaterako datu epidemiologikoa, toxikologikoa edo ekotoxikologikoa) erabiltzen dira. Bere jatorrian, doktrina teknikoak arriskua kaltea gertatzeko probabilitate gisa definitzen zuen. Gaur egun ordea, arriskua kaltea gertatzearen balio estatistiko bidezko aurreikuspenen bidez (*statistical expectation value*) kalkulatu da kasu gehienetan. ISO estandarizazio erakundeak beste beste arrisku-analisiari buruz emandako gidaleroetan bere kalkulurako irizpide hori erabiltzen du¹¹². Arriskua kalkulatzeko probabilitate edota balio estatistikoko aurreikuspenetan bakarrik oinarrituz gero, kalteak izan dezakeen larritasunaren elementua arriskuaren kalkulutik kanpo geratzen da¹¹³. Ondorioz, arriskua kaltea gauzatzeko dagoen probabilitate edota balore estatistikoen bidez bakarrik kalkulatu beharrean, kaltearen larritasuna ere ekuazio honetan kontuan hartu beharreko elementua da:

$$\text{arriskua} = \text{probabilitatea} \times \text{larritasuna}$$

Arriskuaren formula klasiko horrek arrisku teknologikoen tratamendu juridikoarekin erlazio estua du gaur egun. Agintari eskudunek arrisku teknologikoa kudeatzean korrante teknikoaren menpekotasun aipagarria dutela esan daiteke¹¹⁴. Formula horri jarraiki, arriskua kaltea gertatzeko dagoen probabilitatearen eta kalte horren larritasunaren arabera

¹¹¹ Ikuspegi horiei buruzko analisi orokorra, CAVANILLAS MÚGICA, 2012: 444; GRUSZCZYNSKI, 2010: 8; RENN, 1998: 49-71

¹¹² ISO/IEC Guide 73/2002.

¹¹³ HANSSON, 2012: 30. Autoreak baieztapen hori azaltzeko adibide bat jartzen du. Lan istripu bidez langile bat hiltzeko probabilitatea 1.000tik 1ekoa dela esatean edota istripu nuklear bat gertatzean inguruan bizi diren 1.000 hiritar hiltzeko probabilitatea 1.000.000tik 1ekoa dela esatean, balore estatistikozko kalkuluan oinarrituz bi kasu horietan pertsona bat hiltzeko arriskua berdina da (0,001 hildako bietan). Bi kasu horietan aitzitik kaltea gertatzeko arriskuaren larritasuna intentsitate desberdinekoa da, zehazki, bigarren kasuan (istripu nuklearraren ondorioz 1000 hildako egoteko arriskua) lehenengoan (lan istripu bidez langile 1 hiltzeko arriskua) baino handiagoa da.

¹¹⁴ TROUWBORST, 2006: 27.

kalkulatzen da. Kaltea materializatzeko probabilitatea eta bere larritasuna handiak direnean, arriskua maximoa dela ulertzen da (*maximum risk*). Kontrako zentzuan, kaltea gertatzeko probabilitatea eta larritasuna txikiak direnean, arriskuak entitate nahikorik ez duela ulertzen da. Kaltearen larritasuna oso handia denean baina probabilitatea ordea oso txikia (edota alderantziz) arriskua handia dela kontsideratzen da (*great risk*)¹¹⁵. Kaltearen larritasuna izugarri handia denean, hura gertatzeko probabilitatea txikia izanik analistek probabilitate hori kalkulatu ezin dezaketenean (ziurgabetasun epistemologiko edo ontologikodun elementuen ondorioz), korrante batzuek ez dute arriskuaz hitz egiten, mehatxuaz baizik¹¹⁶.

Korrante teknikoaren arabera arriskuaren dimentsio subjektiboak ez du arriskuaren eraikipen edota estimazioan inolako paperik jokatzen, kanpoan utzi behar den elementu irrazionala baita. Alde horretatik, ikuspegi teknikoari mota askotako kritikak egiten zaizkio. Autore batzuen ustez dimentsio subjektiboa arriskuaren analistek kanpo uzteak analisi horren partzialtasuna eta arriskuaren izaera bere osotasunean ulertzeko gaitasunik eza dakar, arriskuak dimentsio objektiboaz gain dimentsio subjektiboa ere baitu¹¹⁷.

Kritika horrekin lotuta, korrante teknikoak arriskua neurtzeko defendatzen duen dimentsio objektiboak arriskua karakterizatzeko gabeziak izan ditzake. Zehazki, arriskua behatzeko erabilitako neurketa metodologiek arrisku batzuen elementu edo faktore ezberdinak egokitasunez kalkulatu eta neurtzeko gai ez izatea gerta daiteke, teknologia berri batzuen arriskuen kasuan esate baterako. Arriskuaren probabilitatea eta larritasuna ezagunak direnean (*known elements*) metodo estatistiko eta zientifikoek ez dute arriskuaren entitatea (gutxienez bere dimentsio objektiboa) kalkulatzeko aparteko arazorik planteatzen. Aitzitik, kaltearen probabilitate edo larritasunari buruz ziurgabetasun (epistemologiko edo ontologiko) elementu desberdinak daudenean (*unknown elements*)¹¹⁸, metodo estatistiko edo zientifiko konbentzionalek ez dute ziurgabetasun elementu horiek behar bezala aztertzeko gaitasun nahikorik. Arriskuaren izaera konplexua eta harekiko ezagutza maila osatugabea den kasu horietan, parametro objektiboez gain, arriskua karakterizatzeko parametro subjektiboak erabiltzea ezinbestekoa da¹¹⁹. Beraz, arriskuaren balizko karakterizazio bakarra parametro objektiboen bidez kalkulaturakoa dela esatea jarrera sinplista eta irreal da¹²⁰.

¹¹⁵ LEFEBER, 1996: 29-30.

¹¹⁶ Mehatxuarekin erkatuz gero, arriskua kaltea gauzatzeko probabilitate gehiago dituen egoera da, betiere arriskua gauzatzeko probabilitate eta ondorioen inguruko nahikoa informazioa dagoenean. Mehatxu egoeran aldiz, kaltearen larritasuna izugarri handia da, nahiz eta horren probabilitatea ezin den kalkulatu (DAMODARAN, 2008: 4.).

¹¹⁷ HANSSON, 2010.

¹¹⁸ HANSSON, 2012: 35.

¹¹⁹ Ikusi, besteak beste, NILSEN eta AVEN, 2003 edota JASANOFF, 1999.

¹²⁰ CARDONA ARBOLEDA, 2001: 34.

1.4.B. Arriskuaren ikuspegi ekonomikoa

Arriskuaren ikuspegi ekonomikoak, korrante tekniko edo zientifikoaren antzera, arriskuaren probabilitatea kalkulatzeko balio estatistikoko aurreikuspenak eta kaltearen larritasuna erabiltzen ditu. Ikuspegi ekonomikoak ordea arriskuaren ondorio negatiboek gain (kaltea) ondorio positiboak ere kontuan hartzen ditu. Arrisku-estrategien helburua beraz, arrisku batek sortu ditzakeen efektu negatiboak ahalik eta gehien murriztu eta izan ditzakeen efektu positiboak maximizatzean datza¹²¹. Ikuspegi ekonomikoak arriskua inguratzen duten kalte eta onura potentzial guztiak balore monetarioen bidez kalkulatu eta beraien artean erkatu egiten ditu, besteak beste, arriskuari buruzko kostu-onura analisiaren bitartez. Korrante horri egiten zaion kritika nagusienetako batek kalkulu monetario horrekin lotura dauka: arriskua inguratzen duten kalte edo onura posible guztiak monetarioki kalkulatzeko eta onura/kalte horien arteko erkapenetik eratorritako emaitzek arriskuaren kalkulu partziala, ez-egokia eta fidaezina irudikatzen dute¹²². Esate baterako, ingurugimenaren epe luzerako efektu potentzialak edota fauna-espezie baten desagertzea nola kalkulatu daitezke monetarioki?

1.4.C. Arriskuaren ikuspegi psikologikoa

Ikuspegi psikologikoaren barnean kokatzen diren autoreek arriskuaren bestelako ikuspegi bat defendatzen dute. Ikuspegi psikologikoak arriskua pertzepzio indibidualaren funtzio gisa ulertzen du, pertsonaz pertsona desberdina izan daitekeena. Korrante teknikoak arriskua kalkulatzeko probabilitate objektiboan oinarritzen diren bitartean, korrante psikologikoak probabilitate subjektiboa erabiltzen du. Probabilitate hori kalkulatzeko pertsona bakoitzak gertakari bat (kalte bat esaterako) gauzatuko den edo ez nola hautematen duen behatzen da, pertsona bakoitzak kalte baten kontingentziari buruz duen uste edo konfiantza graduaren bidez. Horretarako estatistika bayesiarrean oinarritutako parametro subjektibo desberdinak erabiltzen dira¹²³. Probabilitate subjektiboaren kalkulu horretan pertsona bakoitzak arriskua modu desberdin batean hautematen du beraz.

Norbanakoek arriskuaren ebaluaketa pertzeptiboa egitean faktore desberdinak hartzen dituzte kontuan, arriskuaren inguruan hautemandako intentsitatea kasuan kasu desberdina izatea eragiten dutenak:¹²⁴

- a) *Hautemangarritasuna*. Giza zentzuen bidez arrisku bat hautematea zaila den kasuetan, arriskuaren pertzepzioa altuagoa da (substantzia kimikoen arriskuak adibidez).

¹²¹ GRUSZCZYNSKI, 2010: 9 edota TROUWBORST, 2006: 26-27.

¹²² Ingurugiroan kalteak sortu ditzaketen jardura edota substantzien inguruko arrisku-analisietan kostu-mozkin analisia aplikatzearen aurkako argudioak, besteak beste: PYHÄLÄ, BRUSENDORFF eta PAULOMÄKI, 2010: 216-217 edota TROUWBORST, op. cit, 235-236. orr.

¹²³ CARDONA ARBOLEDA, op. cit, 39. orr.

¹²⁴ GRUSZCZYNSKI, op. cit, 10-11. orr

- b) *Boluntariotasuna*. Egintza bat borondatez aurrera eramaten denean (parapentean hegan egitea) egintza horren arriskuarekiko pertzepzioa baxuagoa da, inolako borondaterik gabe egiten diren egintzekin erkatuz gero (janarian dauden aditiboen arriskuak).
- c) *Kontrolatzeko gaitasuna*. Arrisku baten gaineko gero eta kontrol handiagoa izan (kotxez gidatzea) arrisku pertzepzio gero eta baxuagoa da.
- d) *arriskuaren jatorria edota kaltearen izaera*. Giza-jatorria duten arriskuak (arrisku teknologikoak esate baterako) jatorri naturala duten arriskuak baino serio edo larriagoak bailiran hautematen dira. Bestalde, arrisku bat materializatzen sortu daitekeen kaltearen larritasuna gero eta handiagoak izan, arriskuaren sentzazioa handiagoa da halaber, kalte hori gertatzeko egon daitekeen probabilitate mailarekiko independenteki.

Korronte psikologikoaren barnean autore batzuek dimentsio subjektiboaz gain arriskuak dimentsio objektiboa ere baduela arrazoitzen dute: arriskua mundu errealean objektiboki existitzen denaren eta horrekiko egiten den pertzepzioaren arteko konbinaketa da¹²⁵. Beste egile batzuek ordea, arriskua karakterizatzeko balizko dimentsio bakarra subjektiboa dela arrazoitzen dute¹²⁶. Arriskuaren erabateko subjektibotasuna defendatzen dutenen esanetan, gizakion adimenak eta lekuan lekuko kulturak ematen dio forma arriskuari, ez baita fenomeno objektibo-erreal bezala existitzen¹²⁷.

1.4.D. Arriskuaren ikuspegi soziala edo kulturala

Azkenik, korronte sozial edo kulturalak arriskua sistema sozialen baitan existitzen den elementu kualitatiboa dela argudiatzen du. Arriskua kategoria sozial¹²⁸ bat da, gizarteak ziurgabetasun egoeren aurrean egindako judizioez eraikitzen dena¹²⁹. Arriskua izaera anitz eta konplexudun interakzio sozio-kultural desberdinen ondorioz egituratzen eta negoziatzen den fenomeno da¹³⁰, gizarteak egiten duen eraikipena bezala ulertuta. Aurreko azpi-atalean azaldu den korronte psikologikoak arriskua norbanakoen pertzepzio indibidualaren emaitza dela arrazoitzen duen bitartean, korronte sozialak arriskua faktore sozial eta kultural desberdinen ondoriozko eraikipen kognitibo kolektiboa dela defendatzen du. Gizarte bakoitzak, lekuan lekuko baldintza sozioekonomiko, kultural, historiko, geografiko eta kulturalen arabera arriskuaren eraikipen sozial desberdina egiten du¹³¹. Janari transgenikoen kasuan adibidez, historikoki Estatu Batuetan eta European horiekiko existitu izan den pertzepzioa erabat desberdina izan da (Estatu Batuetan nabarmen

¹²⁵ HANSSON, 2010

¹²⁶ SLOVIC, 1999.

¹²⁷ Ibid: 690. orr.

¹²⁸ DOUGLAS eta WILDAVSKY, 1983: 6.

¹²⁹ HEIJMANS, 2001: 6.

¹³⁰ LUPTON, 1999: 29.

¹³¹ BRIONES GAMBOA, 2005: 16.

baxuagoa). Gizarteak, funtsean, beldurraren eta konfiantzaren interakzioaren bitartez eraikitzen du arriskua¹³².

Korrante sozialaren barnean ere arriskuaren dimentsio objektibo eta subjektiboaren inguruko iritzi desberdinak existitzen dira. Autore batzuek arriskuaren dimentsio objektiboaren existentzia ukatu eta berorren dimentsio bakarra subjektiboa dela arrazoitzen dute¹³³. Beste batzuek aldiz, arriskuaren probabilitate kalkuluekin batera (arriskuaren pertzepzio objektiboa) bere ulermen eta ebaluaketarako faktore sozio-kulturalak ere kontuan hartu behar direla defendatzen dute¹³⁴.

II. ARRISKUAREN ETA BERE TRATAMENDU JURIDIKOAREN BILAKAERA HISTORIKOA

Arriskua ez da aro modernoaren garaiarekin batera sortu den behaketa (edo hautemate) instrumentu bezala ulertu behar, historian zehar unean uneko gizarteetan modu desberdinetan tratatu izan baita¹³⁵. Arriskuaren hautemateak historian zehar jasan duen garapen prozesuan bi etapa nagusi bereizi daitezke: berpizkunde garaia baino lehenagokoa eta ondorengoa. Bigarren etapa horretan ere beste momentu historiko bat azpimarratu behar da: gizarte post-industrialak eta berarekin batera areagotuz doazen arrisku teknologiko berriak hain zuzen ere. Izan ere, azken hamarkadetan gero eta protagonismo handiagoa eskuratu duen arrisku kategoria berri horren tratamendu juridikoa konplexutasun nabarmeneko zeregina da, zuzenbidearen oinarritzko ezaugarriak hankaz gora jarri eta arriskuen tratamendurako erabili ohi diren mekanismo normatibo “konbentzionalen” eraginkortasuna zalantzan jartzen baitu.

Datozen ataletan beraz arrisku teknologiko berriek dituzten ezaugarri bereizgarrietan eta beren tratamendu juridikoa inguratzen duten elementu konplexuen azterketan jartzen da arreta. Analisi horretan murgildu aurretik ordea, historian zehar gizakiak arriskuak nola ulertu eta nolako tratamendu juridikoa eman dien laburki azaltzen da.

¹³² HEIJMANS, 2001: 6.

¹³³ LUPTON, op cit, 29. orr.

¹³⁴ BRIONES GAMBOA, op. cit, 14. orr.

¹³⁵ MAY, op. cit, 303. orr.

II.1. Arriskuari forma ematen: postulatu erlijiosoetatik zientziaren behapenera eta ezagutza zientifikotik arrisku teknologiko berrietara

Antzina sarraski naturalen kausak gizakiaren arrazoitzeko gaitasunetik kanpo kokatzen zirenez, kausa ezezagun eta ulertezin horien zergatiak erlijioan edota magian bilatzen ziren¹³⁶. Sortutako kalteen kausalitatea sinesmen erlijiosoekin lotzen zen eta funtsean arriskuaren kontzepzio mistiko edo jainkotiarra zen nagusi. Antzinako gizarteetan arriskuaren inguruko erabakiak jakintza tradizional, entsegu, zantzu, sinesmen eta sortutako kalteen esperientziatik ikasiz hartzen ziren. Arrisku natural horiek inguratzen zituzten kausen eta efektuen arteko kausalitate harremana identifikatzeko gizakiak zuen behaketa gaitasuna erabat mugatua zen, alegia, arrisku horiek murrizteko edo kalteak minimizatzeko ezagutza zientifiko eta gaitasun tekniko nahikorik ez zuen. Kontsekuenteki, zuzenbideak batez ere kaltea gertatu eta ondorengo faseetan jartzen zuen arreta. Hots, mekanismo juridikoak arriskua behin kalte bihurtzen zen *ex-post* momentuan aktibatzen ziren. Mesopotamiako gizarteak (3000. K.a.) eta antzinako Greziar Zibilizazioak (K.a. 750), arrisku-seguruen figura juridikoa erabiltzen zuten itsasontziei itsasoak sorrarazten zizkien kalteen ondorioak erreparatzeko mekanismo bezala¹³⁷. Itsasontziek interes tasa desberdinak ordaintzen zituzten, arrisku mailaren arabera handiagoak edo txikiagoak izan zitezkeenak. Arriskua kalte bihurtuz gero, jasandako kalteen arabera konpentsazioa jasotzen zuten.

Antzinako gizarteek arrisku naturalei orokorrean *ex-post* izaeradun tratamendu juridikoa ematen bazieten ere, Babilonia¹³⁸, Mesopotamia, Txina edo Egipto bezalako antzinako gizarteetan arriskuaren behapenetik ondorioztatutako ezagutzari eta esperientziari esker *ex-ante* motatako arrisku kudeaketa neurriak ere erabiltzen ziren. Egipton esate baterako Nilo ibaiaren ur maila neurtu egiten zuten hurrengo urtera begira jaso zezaketen uzta nolakoa izango zen kalkulatzeko helburuz¹³⁹. Ura maila batetik behera zetorren kasuetan, hurrengo urtera begira uzta urria izango zela aurreikusi eta goseteak ekidite aldera, urte horretako uztaren gaineko zergen moldaketa egiten zuten.

Berpizkunde garaiak berarekin batera ekarri zuen ideia berrien loratzeari esker, arriskuaren kontzepzio mistiko edo jainkotiar batetik arriskuaren kontzepzio zientifikora igaro zen. XVII. eta XVIII. mendeetatik aurrera garatutako probabilitate eta teoria zientifikoei esker, XIX. mendean gertatu zen iraultza industrialak eragindako arrisku berriak tratatzeko *ex ante* mekanismoak diseinatzea posible izan zen, arriskuak aurreikusi eta horiek saihestu edo ahal zen neurrian murriztea xede zutenak.

¹³⁶ BONET DE VIOLA, 2012: 4; KERVERN eta RUBISE, 1991.

¹³⁷ GRUSZCZYNSKI, 2010: 7-8; CARDONA ARBOLEDA, 2001: 5-6.

¹³⁸ Antzinako Babilonian (3200 K.a.) segurtasun falta edo ziurgabetasun maila handia zuten arriskuei buruz erabakitzeko, horren inguruan iritzia ematen zuten sasi-adituen kontsulta taldea existitzen zen, *Asipu* izenekoa. Kontsulta talde honek erabaki desberdinen arrakasta/porrota edo irabazi/galera bezalako elementuen estimazioa egiten zuen (CARDONA ARBOLEDA, op. cit, 7. orr.).

¹³⁹ Ibid.

Azken mendeetan arrisku naturalei buruzko ezagutza zientifiko-teknikoak izan duen hazkuntza progresiboaren ondorioz, XX. mendearen azken hamarkadetatik aurrera arriskuaren kontzepzioan aldaketa garrantzitsuak ekarri dituzten inguruabarrak agertu dira. Etengabeko garapen zientifikoari esker, gizakiak elementu naturalei buruz duen ezagutza maila hedatu eta jakintzagai gero eta zehatzagoak, konplexuagoak eskuratu ditu. Ezagutza zientifiko horien ustiapen teknologikoaren bidez gizakiak fenomeno naturalen arriskuak kontrolatzeko teknologia gero eta sofistikatuagoak garatu ditu, egun teknologia berri bezala definitzen direnak. Teknologia berri horiek, dagoeneko esan den bezala, arrisku kategoria berri baten sorrera bultzatu dute: arrisku teknologikoak

Teknologia berri gero eta sofistikatu eta konplexuagoek paradigma aldaketa garrantzitsu bat eragin dute. XX. mendearen azken herenetik aurrera natura ezagutu eta kontrolatzeko gaitasunaz harago, gizakiak natura biologikoa artifizialki manipulatzeko gaitasuna eskuratu du (bioteknologiari esker gizakiak landare, animalia eta gizakia beraren ezaugarri genetikoak aldatzeko gaitasuna eskuratu du). Funtsean, azken hamarkadetan gizakia *homo faber* izatetik *homo creator* eta *homo materia* izatera pasa da¹⁴⁰. Gizakiak izaki bizidunak sortu, manipulatu eta suntsitzeko potentzialtasuna duen aldetik, gaur egun gu (gizakia) gara inguratzen gaituen arriskurik garrantzitsuen¹⁴¹.

Testuinguru teknologiko berri horrek arriskuaren objektuaren aldaketa ekarri du: arrisku naturalek gizakiarengan historikoki piztu izan duten kezken aurrean, gizakiak ekoiztako arrisku teknologikoek erabateko protagonismoa eskuratu dute. Gizarteak peril naturalen mehatxutik arrisku sozialetara egin duen salto kuantitatibo hori honako esaldiaren bidez irudikatu daiteke¹⁴²: “gaur egungo gizarteak ez dago pestearen arriskuez mehatxatuta, pestiziden arriskuez baizik”. Arriskuen ebaluaketarako zientziak erabiltzen dituen metodologia konbentzionalak kasu askotan ez dira egokiak arrisku kategoria berri horien karakterizaziorako. Arrisku teknologikoen efektu potentzialei buruzko ziurgabetasun zientifikoak esanguratsuak diren testuinguru horretan, arrisku horiek materializatuz gero osasunean edo ingurumenaren sorrarazi ditzaketen efektu potentzialen hedadurak, larritasunak eta atzera-eragin kortasunak kezka berezia pizten dute. Ulrich Beck soziologo ospetsuak, arrisku teknologikoen paradigmen behaketa eta hausnarketa soziologikoa egin ostean, gaur egun bizi dugun garai historikoa “arriskuaren gizarteak¹⁴³” bezala definitu du.

Garapen zientifiko eta teknologikoaren “hausnartu gabeko efektu¹⁴⁴” edo “efektu doilor¹⁴⁵” bezala izenpetu den arrisku kategoria berri hori gizarteak ekoizten du, eta gizartearen eta inguratzen duen ingurumenaren aurka doa. Gizakiak arrisku teknologiko

¹⁴⁰ BERTOLINO, 1999: 134.

¹⁴¹ JONAS, 2001: 124.

¹⁴² ESTEVE PARDO, 2003a: 139.

¹⁴³ Gizarte arriskuaren teoria garai post-industrial modernoan du objektu eta gizarteak bere baitan kokatzen diren arriskuak ulertu eta interpretatzeko moduen interpretazio soziologikoa da. Ulrich Beck-en honako liburua ikus: *Risikogesellschaft- Auf dem Weg in eine andere Moderne* (1986). Gaztelaniara itzulita: *La sociedad del riesgo. Hacia una nueva modernidad* (1998).

¹⁴⁴ MAY, 2012: 304.

¹⁴⁵ AHUMADA CANABES, 2006: 180.

horiek hartu edo ez erabakitzeko eta arrisku horiei forma emateko gaitasuna duen neurrian, arrisku horien ziurgabetasun zientifikoak “manufakturuak” dira (*manufactured uncertainties*¹⁴⁶). Arrisku “klasikoen” puntualtasun, zehaztasun eta banakotasunarekin kontrastean, arrisku teknologiko berriek izaera global, difuso eta kolektiboa dute¹⁴⁷.

Alde batetik, arrisku teknologikoen izaera globala dutela esaten da, ez baitute muga geografikoez, ez klase sozialez (arriskuak berdin eragiten die aberats eta txiroei) ezta denbora mugez ulertzen (sorrarazitako efektu kaltegarriak gaur egungo gizartera ez-ezik hurrengo belaunaldietara hedatu daitezke). Bestalde, arrisku teknologikoen izaera difusoa eta kolektiboa dute arriskuaren kausa eta efektuen artean existitzen den kausalitate harremanaren berezko konplexutasunaren ondorioz: efektu kaltegarriak materializatzen diren momentutik gizakiak efektu horiek hautematen dituen arte igarotzen den denbora tarte gero eta handiagoa da, arrisku teknologikoen efektu kaltegarri baten atzean kausak anitz egon daitezke (plurikausalitatea) eta efektu kaltegarri horiek halaber beste arrisku batzuen kausa bihurtu daitezke (berrelikadura).

Inguruabar horien ondorioz, ezagutza teknologikoen ustiapenaren eta ustiapen horren efektuei buruz existitzen den ezagutza zientifiko-teknikoaren asimetria gero eta esanguratsuagoa bilakatzen ari da¹⁴⁸. Ezagutza zientifiko berrien aprobetxamendu teknologikoa abiadura bizian hazten doa, baina ez ordea aprobetxamendu teknologiko horrek osasunean edo ingurumenean izan ditzakeen efektuei buruzko ezagutza zientifiko-teknikoa, azken kasu horretan ziurgabetasun epistemologikoak ugariak eta gainditzeko konplexuak baitira. Arrisku teknologikoak beraz jakintza zientifiko eta teknikoaren abiadura bikoitzeko ekoizpen testuinguru horretan ulertu behar dira. Naturaren mehatxuen aurrean segurtasuna bilatzen duten teknologia berriek beraz, segurtasuna baino, gero eta segurtasun eza handiagoa eragiten dutela argudiatu daiteke¹⁴⁹.

Arrisku “klasikoen” eragin ditzaketen kalte mugatu eta definituekin erkatuz gero, arrisku teknologiko berriek eragin ditzaketen efektu negatiboen entitatea eta hedadura kalkulazina izan daiteke. Nahiz eta arrisku teknologiko horiek materializatzeko probabilitatea oso baxua izan, kalte horien larritasuna oso altua da. Zentzu horretan, arrisku “klasikoen” kalkulu zientifikorako aplikatzen den formula tradizionala (arriskua materializatzeko probabilitatea eta kaltearen larritasuna biderkatzen dituen) ez da baliagarria arrisku teknologikoen benetako entitatea kalkulatzeko orduan¹⁵⁰. Arrisku teknologikoen izaera global, difuso eta kolektiboaren ondorioz, arrisku mota horiei aplikatu beharreko *ex-ante* kontrol sistema normatiboa diseinatzea zeregin konplexua bilakatzen da. Bestalde, arrisku teknologiko horiek materializatzen diren kasuetan sorrarazitako kalteen *ex-post* erantzukizun juridikoen zehaztapena ere nabarmen zailtzen

¹⁴⁶ Ulrich Beck eta Anthony Giddens autoreek 90. hamarkadaren erdialdera landu zuten adierazpena (MAY, op. cit, 366. orr).

¹⁴⁷ AHUMADA CANABES, op. cit, 180-181. orr; ARIAS MALDONADO, 2003: 235; MAY, op. cit, 304. orr; SERRANO MORENO, 2012: 365.

¹⁴⁸ BOAVENTURA DE SOUZA, 2003: 62.

¹⁴⁹ RIECHMANN, 2005: 293.

¹⁵⁰ MAY, op. cit, 309. Orr.

da, besteak beste, arriskuaren eta kaltearen arteko kausalitate harremana frogatzeko edota kalte horiek nori inputatu erabakitzeko egon daitezkeen konplexutasunen ondorioz.

II.2. Arrisku teknologiko berrien tratamendu juridikoa: zientziaren eta zuzenbidearen arteko harreman loturak

Ezagutza zientifikoaren garapenak eta horren aprobetxamendu teknikoak zuzenbideari planteatzen dizkion erroka juridiko berrien aurrean, zuzenbideak ez du bere mekanismo juridiko tradizionalen arabera jarduten. Horren ordean, zuzenbideak arrisku teknologiko berriei eman beharreko erantzunak ezagutza zientifiko-tekniko espezializatuan bilatzen ohi ditu. Arrisku teknologikoen aurrean zuzenbideak egokitu duen menpekotasun jarrera hori “zuzenbidearen nora ez zientifiko¹⁵¹” bezala izenpetu du Esteve Pardo autoreak. Zuzenbidearen norabide zientifista horren zergatiak eta prisma juridikotik aztertuta zuzenbideari berari eragiten dizkion ahultasunak hobeto ulertu ahal izateko, aurretiaz zientziaren eta zuzenbidearen berezko ezaugarriak eta zuzenbidearen jarduteko moduaren aldaketaren arrazoiak zeintzuk diren ulertu beharra dago.

II.2.A. Zientziaren paradigma berria: teknozientzia

Zientziak funtsean errealitatearen ezagutza enpirikoa du helburu. Mendeetan zehar, ezagutza zientifikoaren garapenaren bidez errealitatearen eta egi kategoriko, objektibo eta ziurren ezagutza bilatu izan du. Hala ere, ezagutza zientifikoa garatzen eta gero eta konplexuagoa bilakatzen joan ahala, zientziaren ikur bereizgarri horren gainbehera ematen hasi zen. Zientzia egia kategoriko, objektibo eta ziurrak ematek probabilitateak ematera igaro zen. Azken hamarkadetan, bereziki teknologia berrien erroka konplexuak dezifratzeko ezintasunaren aurrean, zientziak ohikoak dituen segurtasunak eskaini baino, ziurgabetasunak ekoizten ditu¹⁵².

Duela hamarkada gutxi batzuk arte zientzia eta teknologia elkarren artean erraztasunez bereizi zitezkeen jardura eremuak ziren, bai beren helburuaren arabera, baita beren izaeraren arabera ere. Ikerketa zientifikotik eratortzen den produktu nagusia ezagutza zientifikoa den bitartean, ikerketa teknologikoaren produktua “objektu bat, egoera teknologiko bat edo funtzio zehatz bat lortzeko asmoz garatutako prozedurak¹⁵³” dira. Ikerketa zientifikoaren bitartez lortzen zen ezagutza zientifikoaren eta horren aprobetxamendu teknikoaren artean urte asko igaro zitezkeen, ezagutza zientifiko berri

¹⁵¹ Jose Esteve Pardo Bartzelonako Unibertsitatean zuzenbide administratiboko katedraduna da. 2009. urtean *El desconcierto del Leviatán: Política y derecho ante las incertidumbres de la ciencia* liburua idatzi zuen, zuzenbideak zientziarekiko zuen menpekotasun eta ahultasun harremanaren analisi landua. Bibliografian, ESTEVE PARDO, 2009.

¹⁵² ESTEVE PARDO, op. cit, 14. orr.

¹⁵³ AHUMADA CANABES, 2006: 159.

horiek teknikoki ustiatzeko zegoen gaitasun faltaren ondorioz¹⁵⁴. Zientziaren eta teknologiararen arteko korrelazioa beraz denbora tarte luzeez banatuta egon ohi zen. Bestalde, zientziaren produktua den ezagutza zientifikoa garapen sozialerako ezinbesteko ondare komuna izanagatik duen izaera publikoarekin kontrastean (ezagutza zientifikoa transmititu eta komunikatu egiten dira), teknologiek izaera pribatua dute eta ezkutatu, patentatu eta saldu egiten dira¹⁵⁵.

Zientziaren eta teknologiararen arteko gaur egungo harreman loturetan arreta ipiniz gero ordea, beren arteko bereizketa elementu klasiko horiek hutsaldu egin direla ondorioztatu daiteke. Ikerketa zientifikotik lortzen den ezagutza zientifikoa azkeneko helburu izateari utzi egin diote eta beren aprobetxamendu teknologikorako bitarteko soil bezala tratatzen dira. Beste modu batera esanda, zientziak berekoikeriarik gabeko kontenplaziozko jarduera teorikoa izateari utzi dio¹⁵⁶, ezagutza zientifikoa horien aprobetxamendu teknologikoa xede nagusia duen ezagutza ekoizpen-eredu baten mesedetan.

Zentzu horretan, ikerketa zientifikoa eta horren aprobetxamendu teknikoaren arteko inbertsioa gertatu da: hein handi batean berrikuntza teknologikoa helburuek ezagutza zientifikoen ekoizpenaren norabidea baldintzatzen dute¹⁵⁷. Zientziaren eta teknologiararen arteko konbergentzia eta elkarmenpekoitasun harreman esanguratsu hori deskribatzeko doktrinak “teknozientzia¹⁵⁸” terminoa erabiltzen du. Gaur egun garapen zientifikoa garapen teknologikora baldintzatuta dago, eta alderantziz. Ikerketa zientifikoa aurrera eramanez ahal izateko metodologia gero eta sofistikatuagoa beharrezkoak dira, garapen teknologikoa bidez eskuratzen direnak. Bestalde, berrikuntza teknologikoen ezagutza zientifikoa berrien ekoizpena ezinbestekoa dute. Egungo gizartean beraz, ez dago garapen zientifikorik garapen teknologikorik gabe, eta alderantziz (zientziaren teknifikazioaz eta teknikaren zientifikazioaz hitz egin daiteke)¹⁵⁹.

Azken hamarkadetan zientziaren garapena gero konplexuagoa eta sofistikatuagoa bilakatuz joan den neurrian, ezagutza zientifikoa ekoizpena gero eta garestiagoa bilakatzen ari da. Ikerketa zientifikoa gero eta inbertsio sendoagoa, tresneria sofistikatuagoa, esperimentazio, datu eta kontrastapen bolumen handiagoak beharrezkoak ditu. Komunitate zientifikoa baita, tradizionalki diziplina banatuetan lan egin izan duena, diziplina arteko konbergentzia gero eta estuagoa da¹⁶⁰. Zientziaren jardueraren konplexutasun eta garestitze testuinguru horretan, merkatuak irabazi ekonomikoak lortzeko

¹⁵⁴ ESTEVE PARDO, op. cit, 67. orr.

¹⁵⁵ RAMÍREZ BRICEÑO, 1991: 10.

¹⁵⁶ RIECHMANN, 2000:284.

¹⁵⁷ ESTEVE PARDO, op. cit, 70-71. orr.

¹⁵⁸ Teknozientzia kontzeptuaren lanketan sakondu zuen lehenengo egileen artean Bruno Latour soziologoa nabarmendu daiteke. Kontzeptu hori aztertzen duen liburua gaztelaniara itzulita dago: *Ensayos sobre la realidad de los estudios de la ciencia* (2001).

¹⁵⁹ AHUMADA CANABES, op. cit, 160. orr.

¹⁶⁰ ECHEVERRIA ESPONDA, 2010: 37.

aukera begietsi zuen eta progresiboki “ezagutzaren kapitalizazioa¹⁶¹” gertatzen ari da, hots, ezagutza zientifikoaren ekoizpen, bilketa eta kudeaketaren kapitalismo forma berria.

Testuinguru berri horretan, ikerketa zientifikoaren antolakuntzaren hazkuntza aipagarria gertatu da, industriaren eta enpresen sostengu garrantzitsua duena. Esteve Pardo autoreak ikerketa zientifikoak jasan duen bilakaera hori deskribatzeko “teknozientzia antolatua¹⁶²” terminoa erabiltzen du. Izan ere, testuinguru berri horrek zientziaren berezko ezaugarrien prisma aldaketa eragin du. Zientzia, duela gutxi arte egia zientifikoaren ezagutza eta horrekin lotuta gizateriaren ongizatea helburu nagusi zituen adarra bazen ere, prisma aldaketa horren ondorioz ezagutza zientifikoaren aprobetxamendu teknikoaren erabilgarritasun eta errentagarritasun ekonomikoa bezalako irizpideez funtzionatzera igaro da¹⁶³. Ikerketa zientifikoak eskuratutako prisma berri eta kapitalista horren harira, esate baterako, gaixotasun bat sendatzeko ikerketa ildoak bertan behera geratzea gerta daiteke, ikerketa horren inbertsioen amortizazioa eta errentagarritasun ekonomikoa bermatuta ez dagoen kasuetan. Berrikuntza medikoaren gaur egungo ereduak osasun publikoko interesen arabera funtzionatu beharrean interes ekonomikoei garrantzi handiagoa ematen diela salatzen asmoz, Espainian berriki “no es sano¹⁶⁴” kanpaina martxan jarri da, osasunarekin zerikusia duten erakunde desberdinek sustatu eta babestutako ekimena.

Teknozientzia antolatua eraginak ez dira ikerketa eremu pribatura mugatzen, eremu publikora ere zabaltzen dira. Teknozientzia antolatuak unibertsitate pribatu eta publikoen gaineko ikerketa ildoengan zuzeneko eragina dauka. Ikerketa ildoak erabakitzearen trukean, teknozientzia antolatuak unibertsitatei ikerketa garesti horiek aurrera eraman ahal izateko sostengu ekonomikoa ematen die. Bestalde, patenteak, ezagutza intelektualaren eskubidea eta erabilera-lizentziak arautzen dituen marko juridiko mesedegarria baliatuz, funtsa publikoekin finantzatutako ikerketa zientifikoetatik eratorritako jakintza zientifikoak ez dira maiztasunez ondare publikoaren parte izatera pasatzen. Horren ordez, diru publikoarekin finantzatutako ikerketetatik lortzen diren emaitzak jabetza pribatuko erregimenaren arabera lizentziatzen badira eta ondorioz informazio horretara sarrera ordaindupekoa bada, herritarrek ezagutza zientifiko horretara sarrera eduki nahi izanez gero informazio berberetatik bi aldiz ordaindu behar dutela interpretatu daiteke¹⁶⁵.

¹⁶¹ Kontzeptu horri buruz, ALONSO PUELLES eta ECHEVARRÍA ESPONDA, 2014.

¹⁶² Ikusi ESTEVE PARDO, op. cit, 59-97. orr.

¹⁶³ ALONSO PUELLES eta ECHEVARRÍA ESPONDA, op. cit, 22-23.orr; ESTEVE PARDO, op. cit, 72-75. orr; SALMÉN, 2006.

¹⁶⁴ Kanpaina horren web orrialdea [2015-10-23]:

<http://noessano.org/es>

¹⁶⁵ ALONSO PUELLES eta ECHEVARRÍA ESPONDA, op. cit, 32. orr.

II.2.B. Zuzenbidearen funtzionamendu klasikoaren paradigma aldaketa: arrisku teknologiko berrien tratamendu juridikoaren “norabide zientifista”

Berpizkundearekin batera loratu zen zientzia modernoaren ezaugarriak ez ziren zientzia esperimetal eta naturalen esparrura mugatu. Zientziaren metodologia zehatza, esperimental eta matematikoak zientzia sozialen eta zientzia juridikoen arreta ere bereganatu zuen¹⁶⁶. Mendeetan zehar zuzenbideak zientziaren metodologiarekiko izan duen miresmenak zuzenbidearen funtzionatzeko moduan zuzeneko eragina izan du. Estate baterako, erregela forma duten xedapen normatiboen kasuan, izatezko egitate batzuei ondorio juridiko konkretu batzuk aurreikusten zaizkie. Izatezko egitatea gertatuz gero, xedapen normatiboak ondorio juridiko konkretu batzuk aurreikusten ditu (“A” egitateak “B” ondorio juridikoa aktibatzen du). Erregelen funtzionamendu juridikoak hain zuzen ere informatikaren eremuan aplikatzen den sistema binarioaren eskema berbera jarraitzen du, erregelek bi erantzun posible eraikitzen baitituzte¹⁶⁷: zuzenbidearekin bat datorren izatezko egitatea/zuzenbidearekin bat ez datorrena.

Zientziaren kasuan ez-bezala, zuzenbidearen helburua ez da egia ontologikoa aurkitzea¹⁶⁸; alegia, zuzenbideak ez du zientziaren errealitate faktiko eta enpiriko berbera bilatzen. Zuzenbideak errealitate objektibo horren irakurmen eta interpretazio propioa egiten du, oinarrizko balio moral legalizatuen (duintasun, berdintasun, askatasun, justizia edota solidaritatea) abstrakzio ariketaren bidez bere barne logika aplikatu eta objektibotasun propioa eraikitzen du¹⁶⁹. Errealitate faktiko-enpirikoaren berezko irakurketa horretan, zuzenbideak fikzio juridikoak erabiltzen ditu¹⁷⁰, babesten dituen giza eskubide, balio edota interesen balorazioa eta balantza egiteko helburupean. Balorazio horien oinarriean zuzenbideak ziurtasunak eraikitzen ditu¹⁷¹, onartzen dituen arauketen bitartez eta baita arauketa horiek aplikatzen dituzten egintza administratibo (baimenak, lizentziak, zehapenak, etab.) eta ebazpen judizialen bitartez ere. Izan ere, segurtasun juridikoa zuzenbidearen oinarrizko, ardatzezko eta izatezko printzipioa da, zuzenbidearen funtzionamenduak berezkoa duena. Errealitate faktiko-enpirikoak planteatutako ziurgabetasunen aurrean ere, zuzenbideak egoera horri juridikoki erantzuteko betebeharra duen aldetik, ziurtasunak eraiki izan ditu.

Egitate edo ezagutzen gaineko ziurgabetasun faktiko-enpirikoek zuzenbideak babesten dituen balio, ondasun juridiko, eskubide edota interesei eragin dien neurrian, instantzia juridikoan ziurgabetasun enpiriko horiek gainditu eta beroien gainean ziurtasun juridikoak eraikitzeke mekanismoak aktibatzen dira. Inperio Erromatarraren garaitik aurrera¹⁷² zuzenbideak ziurtasunen eraikipen zeregin horretarako presuntzio juridikoen

¹⁶⁶ AHUMADA CANABES, op. cit, 24-25. orr.

¹⁶⁷ PRITTWITZ, 2012: 420; SERRANO MORENO, op. cit, 366. orr.

¹⁶⁸ ESTEVE PARDO, op. cit, 155. orr.

¹⁶⁹ LATOUR, 2004: 39.

¹⁷⁰ Fikzio juridikoei buruz, besteak beste, ikusi: SORIANO DAVILA, 2007; PÉREZ GALIMBERTI, 1995.

¹⁷¹ ESTEVE PARDO, op. cit, 154. orr.

¹⁷² Zuzenbide Erromatarrak ezagunak diren hainbat presuntzio juridiko egituratu zituen errealitate objektiboak planteatzen zizkion ziurgabetasunen gainean ziurtasun juridikoak eraiki ahal izateko, adibidez: kanpaina militar batetik itzultzen ez den soldadua, denbora epe bat igaro ostean, juridikoki hilda dagoela

instrumentua erabili izan du. Ziurgabetasun faktiko-enpirikoei erantzun juridiko bat emate aldera, zuzenbideak ziurtasunak presumitzen ditu, kontrako frogapena onartzen dutenak (*iuris tantum* presuntzioak) edo ez (*iuris et de iure* presuntzioak). Ziurtasunak presumitzean zuzenbideak inguruabar desberdinak hartu ditzake kontuan: presuntzioa esperientzian oinarritua egon daiteke (esaterako, pertsona batek hainbat egun desagerturik daramatzanean juridikoki hiltzat ematea) edota ziurgabetasun faktiko-enpirikoak ahultasun posizioan uzten duen alderdi edota ondasun juridikoa babestea izan dezake helburu¹⁷³.

Ezagutza zientifiko berrien aprobetxamendu teknologikoek esate baterako, zuzenbideak babesten dituen ondasun juridiko desberdinei eragiten diete. Zentzu horretan zuzenbideak jarduteko betebeharra dauka, hots, aipatu aprobetxamendu teknologikoen arriskuen gaineko erabakiak hartu eta neurri juridikoak onartzeko zeregina du¹⁷⁴. Hala eta guztiz ere, ikerketa zientifikoaren garapenak eta berorren aprobetxamendu teknikoak sorrarazten dituen konplexutasun eta ziurgabetasun zientifikoaren hazkuntzaren aurrean zuzenbideak duen jarduteko modua aztertuz gero, zuzenbidea bere izaeraren eta oinarrien galera sufritzen ari dela baieztatu daiteke.

Alde batetik, arrisku teknologiko berriek eragin ditzaketen kalteen larritasuna eta kalte horien erantzukizunak egozteko egon daitezkeen zailtasunak kontuan hartuta, “arrisku klasikoek” aurrean zuzenbideak diseinatutako *ex-post* neurrien (kaltea behin gertatu ostean aktibatzen direnak) eraginkortasuna mugatua da¹⁷⁵. Bestalde, arrisku teknologiko horien efektu negatiboak saihestu edo murrizteko zereginen, zuzenbideak aktibatu behar dituen *ex-ante* neurri juridikoek arrisku horien inguruan existitzen den ziurgabetasun zientifikoaren testuingurua kontuan hartu behar dute. Arrisku “klasikoek” kasuan ez bezala, zeinetan beren efektu kaltegarrien entitatea eta probabilitatea egokitasunez kalkulatu eta ulertu daitezkeen, arrisku teknologiko berrien kudeaketa neurriak beren kalteen benetako potentzialtasunari eta probabilitateari buruz jakintza zientifikoaren ezagutza maila oso baxua den testuinguru batetan erabakitzen dira.

Ondorioz, zientifikoki konprenitzen diren arrisku “klasikoei” aplikatzen zaizkien saihespen kudeaketa neurriak ez dira arrisku teknologiko berrien kasuan baliagarriak. Neurri horien ordeztu, kapitulu honetan aurrerago azaltzen den arreta printzipioan oinarritutako estrategia juridikoa aktibatzea beharrezkoa izan daiteke. Funtsean, arrisku teknologiko berriek zuzenbideak egituratu duen kaltearen paradigma (*ex-post* neurriak) eta saihespen paradigma (*ex-ante* neurriak) gaintitu egiten dute eta zuzenbidea arretaren paradigma berria aktibatzerara behartzen dute¹⁷⁶: kaltea geratu baino aurretiazko *ex-ante* neurriak hartzera, baina saihespen paradigman ez bezala, arriskuaren entitateari buruzko ezagutza erabat mugatua den testuinguru batean.

presumitzen da, horrek dakartzan efektu juridikoak aktibatuz. Bestalde, Zuzenbide Erromatarren ezkontza barneko seme-alabak senarrarenak zirela presumitzen zen, betiere umea ezkontza ospatu zenetik 180 egun pasa ostean jaiotzen bazen, edota ezkontza desagiten zenetik 300 egun baino lehen jaiotz gero.

¹⁷³ ESTEVE PARDO, op. cit, 165-170.

¹⁷⁴ LATOUR, 2004: 90.

¹⁷⁵ MAY, op. cit, 310. orr.

¹⁷⁶ BONET DE VIOLA, 2012: 5.

Arrisku teknologikoen ezagutza zientifiko-teknikoa eta pertzepzio soziala bilakatu joan ahala, instantzia publiko eskudunek arrisku horren onargarritasunari buruzko erabakiak uneoro aldatuz doan errealitate berrira egokitzen joan behar dira. Jarduera, substantzia edo teknologia (aurrerantzean J/S/T) baten arrisku teknologikoei buruz ziurgabetasun zientifikoa esanguratsua den testuinguru batean beraz, instantzia publiko eskudunek bere gainean hartutako arrisku kudeaketa neurrien arabera J/S/T hori legalki onartua egon daiteke, bere erabilera edo komertzializaziorako exijitzen zaizkion baldintza administratiboak bete ditzake (baimen administratiboa kasu), baina hala ere osasun edo ingurumenarentzat arriskutsua izan daiteke. Hots, agintari eskudunek J/S/T horren arriskuaren onargarritasunaren inguruan hartzen dituzten erabakien arabera, J/S/T horren erabilera eta komertzializazioa legalitatearen barnean egon eta aldi berean osasun edota ingurumenarentzat arriskutsua izatea gerta daiteke (agintari eskudunek J/S/T horren arriskuen ziurgabetasun zientifikodun testuinguruan erabakitzen baitute arrisku horien onargarritasuna).

Ziurgabetasun zientifikoz inguratutako arrisku teknologikoen kasuan beraz, beren arriskuen kudeaketak polizia administratiboaren jardute klasikoarekin apurtu egiten du¹⁷⁷. Polizia administratiboaren helburua legaltasunetik kanpo kokatzen diren jarduerak kontrolatu (esaterako, baimen administratiborik ez duen elikagaien salmenta publikoa), ordena publikoa mantendu eta horren aurka doazen jarduerak erradikatzea da. Arrisku teknologiko berrien kasuan ordea, beren efektu kaltegarrien inguruan dagoen ziurgabetasun zientifikoaren ondorioz, beren kudeaketa neurriak arrisku horren onargarritasunaren zehaztapan erabakietara baldintzatuta geratzen dira. Beraz, nahiz eta jarduera teknologiko bat arriskutsua izanik ere legeak jarduera hori balizkoa dela erabakitzen duen kasuetan, polizia adminsitratiboaren eskema klasikoarekin apurtu egiten du: jarduera arriskutsua izan daiteke, baina legaltasunaren barnean kokatzen den jarduera denez, polizia administratiboaren jardute-eremutik kanpo geratzen da.

Arrisku teknologiko berri horiei eskaini beharreko tratamendu juridikoan, zuzenbideari premia sortzen zaio bere estruktura eta funtzionamendu “klasikoa” errealitate faktiko-enpiriko berri horretara egokitzeko. Erronka juridiko horiei erantzuteko bere barne logikaren bidez funtzionatu eta errealitate faktiko-enpirikoa oinarri hartuta bere objektibotasun propioa eraiki beharrean, dagoeneko esan den bezala, zuzenbideak ziurtasunak ezagutza zientifikoan bilatzen ditu, ziurra izateari aspaldi utzi zion ezagutza zientifikoan alegia. Teknologia berriekin zerikusia duten marko normatiboen konplexutasun teknikoaren ondorioz, zuzenbidearen jardute-eremuaren hutsaltzea gero eta nabarmenagoa da. Zehazki, teknozientzia antolatua aldeko desplazamendu normatiboa¹⁷⁸ gertatzen ari da. Ikuspegi formal batetik aztertuta marko normatibo horiek agintari publiko eskudunek zuzenbideak aurreikusitako prozedura legalen arabera onartzen badituzte ere (lege eta erregelamendu forma emanaz), ikuspegi materialetik aztertuta, erabaki horiek teknozientzia antolatua instantzia pribatuen baitan onartzen dira. Administrazioak ere arau horiek aplikatzerako orduan, arrisku teknologiko horiekiko izan

¹⁷⁷ ESTEVE PARDO, 2003a: 146-147; 2006: 12-13.

¹⁷⁸ ESTEVE PARDO, op. cit, 101-113. orr; MAY, op. cit, 314. orr.

dezakeen jakintza mugatuaren ondorioz, arrisku horiei buruz erabakitzeko “ziurtasunen merkatura¹⁷⁹” jotzen du, hots, arrisku horiek sortu dituen eta ustez hobeto ulertzen dituen sektore pribatu teknozientifikora.

Futsean, instantzia juridikoak erronka berri eta konplexu horiek tratatzeko eta horiei buruzko erabaki eta neurri juridikoak hartzeko gaitasunik eza erakusten ari dira¹⁸⁰. Zuzenbideak bere jardute-eremuan zientziaren eta teknikaren alde egin duen desplazamendu horri buruz iritzi desberdintasunak aurkitu daitezke. Egile batzuek fenomeno juridiko hori “zientziaren eta teknikaren zuzenbidea” bezala definitzen dute, zuzenbidearen diziplinaren barne-adar autonomoa bailitzan ulertzen dute¹⁸¹. Beste autore batzuek ordea, zuzenbideak zientziaren alde egindako besterentze hori ez-legitimoa eta estrategia juridikoaren ikuspegitik aukeraketa okerrekoa dela arrazoitzen dute¹⁸². Aurreratu den bezala, Esteve Pardo autoreak fenomeno hori “zuzenbidearen nora eza zientifiko” bezala izenpetu du¹⁸³ (gaztelaniaz, *la deriva cientifista del derecho*). Zuzenbideak zientziaren eta teknikaren alde egin duen desplazamendu edo besterentze horrek eremu desberdinei eragiten die eta forma desberdinak hartzen ditu¹⁸⁴:

- a) Zientziarekin eta teknologia berriekin zerikusia duten marko normatiboetan erabiltzen diren zenbait kontzeptu juridiko, izatez zuzenbidez harago dauden eta karga zientifiko eta tekniko handia duten kontzeptu metajuridikoak dira (ingurumen zuzenbidean erabiltzen den *best available technology* kontzeptua esate baterako). Zuzenbideak kontzeptu metajuridiko horien externalizazioa egiten du eta beren definizioa aditu zientifiko eta tekniko antolatuen eskuetan uzten du (estandarizazio organo pribatu desberdinetan kasu). Besterentze horren bidez, kontzeptu metajuridiko horien definizioaz gain, kontzeptu horien interpretazioa ere komunitate zientifiko eta tekniko adituen eskuetan eta beraz instantzi publikoen eremutik at geratzea dakar. Inguruabar horren ondorioz, zientziak eta teknikak (zehazki, horien atzean dagoen teknozientzia antolatuak) kontzeptu juridiko horiek aplikatzen dituzten arauketen gaineko ildo eta norabidea baldintzatu eta aldatzeko gaitasuna dute¹⁸⁵.
- b) Karga zientifiko eta tekniko handia duten zenbait sektoreek (teknologia berriak kasu) instantzia publikoen pasibotasun normatiboa baliatuz beren jardura auto- egiten dute arautu (*self regulation* mekanismo normatiboak erabiliz). Teknologia berri baten garapeneko lehenengo urteetan zuzenbideak mekanismo juridikoak martxan jarri eta arautu bitartean, garapen teknologiko horien atzean dagoen antolakuntza da teknologia berri horren gaineko arauketa teknikoak, portaera kodeak eta antzeko neurriak onartzen dituen.

¹⁷⁹ Esteve Pardok erabilitako adiera. Besteak beste ikus ESTEVE PARDO, 2012.

¹⁸⁰ Autore batzuek zuzenbidea etorkizunera begirako arazoekin lan egiteko prestatu gabe dagoela argudiatzen dute: PRITTWITS, 2012: 420; SERRANO MORENO, 2012: 371-373.

¹⁸¹ SALMÉN, 2006.

¹⁸² LATOUR, op. cit, 108. orr.

¹⁸³ ESTEVE PARDO, op. cit, 125. orr.

¹⁸⁴ Zientziak eta teknikak zuzenbidearen jardute-eremuko gaietan izandako bereganatze horien inguruan: ESTEVE PARDO op. cit, 101-108, 125-140; SALMÉN, op. cit, 121.

¹⁸⁵ Ikus ESTEVE PARDO, op. cit, 130-131. orr.

c) Teknozientzia antolatua, instantzia politiko eta juridikoek garapen zientifikoaren gaineko erabakiak hartu behar dituztenean ere, instantzia publiko horien erabakitzeko gaitasunean zuzeneko eragina dauka. Lehenik eta behin, antolakuntza teknizientifikoa da aurrera eraman nahi dituen ikerketa zientifikoaren norabidea erabakitzen duena, erabilgarritasun eta errentagarritasun ekonomikoen irizpideen oinarripean. Beraz, instantzia publikoek erabaki behar dutenaren gainean, teknozientzia antolatua aurretiaz jada erabaki egin du. Horren ondorioz instantzia publikoek hartu behar duten erabakia hasiera-hasieratik baldintzatuta dago eta ez da autonomoa¹⁸⁶. Bestalde, arrisku-analisiaren prozeduraren barnean ere, agintari eskudunek instantzia zientifikoek egindako arrisku ebaluaketatik eratortzen diren emaitza eta ondorioen erabateko dependentzia dute arrisku horien kudeaketa neurriak konfiguratzerako orduan.

Zuzenbideak garapen teknozientifikoak sortutako konplexutasun eta ziurgabetasun zientifikoei eman beharreko erantzun juridikoak zientzian eta teknikan bilatzea erabaki du, erronka horien gaineko arauketa materiala modu esanguratsuan ezagutza zientifiko eta tekniko adituaren (eta horren atzean saretzen den antolakuntza teknozientifikoaren) eskuetan utziaz. Desplazamendu horrekin aitzitik zuzenbideak ez du garapen zientifiko eta teknologikoaren konplexutasun eta ziurgabetasunei aurre egiteko espero zuen argitasun eta ziurtasunik lortu, hau da horren eraginez zuzenbideak *boomerang* efektua jasaten baitu¹⁸⁷. Zuzenbideak hau horren ondorioz berezkoak zaizkion esparruetan izan beharko lukeen erabakitzeko gaitasuna teknozientzia antolatua interes ekonomikoen mesedetan galdu egin du. Egia kategorikoei buruzko pronuntziamentuak egitea zuzenbidearen jardute-eremutik kanpo dagoen egitatea den bezalaxe, zientziari zuzenbidearen berezkoak diren gaietan erabakitzeari utz diezaiola eskatu behar zaio¹⁸⁸.

II.3. Arriskuen onargarritasuna erabakitzeko prozedura komunitarioaren gabeziak eta horrek eragindako krisi politikoa

II.3.A. Arriskuaren onargarritasuna erabakitzen

Aurreko ataletan dagoeneko azpimarratu den bezala, gaur egun bizi garen gizarte post-industrial moderno honetan arrisku teknologiko berriek izaera global, difuso eta kolektiboa dute eta inguruabar horren ondorioz, arriskurik gabeko gizarte baten existentzia pentsaezina da. Beste modura batera esanda, egungo gizartean “zero arriskua” ez da existitzen¹⁸⁹ eta gizakiari beraz arriskuarekin elkarbizitzeko beste aukerarik ez zaio geratzen.

¹⁸⁶ Ibid, 101. orr.

¹⁸⁷ Ibid, 136. orr.

¹⁸⁸ LATOUR, op. cit, 108. orr.

¹⁸⁹ EBko Komisioak arreta printzipioari buruz emandako komunikazioan “zero arriskua” existitzen ez zela edo nekez lortu zitekeela nabarmendu zuen: COM (2000)1 final, 6.3.1. atala. Dokumentu horrez gain, doktrinak ere baieztapen berbera egiten du. Ikus ESTEVE PARDO, 2012: 275-276; JARIA I MANZANO, 2012: 391.

Gizakiak aitzitik arriskuak tratatu eta horiei forma emateko gaitasuna duen neurrian, arrisku teknologikoak zein puntutaraino onargarriak/onartezinak diren erabaki behar du. Arriskuaren onargarritasun mailaren zehaztapena beraz, teknologia arriskutsuaren erabileraren ondorioz jokoan jartzen diren ondasun juridiko, eskubide eta interes legitimoen arteko balantzan funtsa duen erabaki juridiko-baloratibo¹⁹⁰ baten bidez gauzatu behar da.

Arriskuen onargarritasun mailaren erabakiak zuzenbideak babestutako ondasun juridiko, eskubide eta interes legitimoen eragiten dien neurrian, instantzia publiko eskudunen jardute-eremuan kokatzen den erabakia da. Europar Batasunaren kasuan arrisku onargarria erabakitzea bere oinarritzko tratatuek (“jatorrizko zuzenbide komunitarioa” osatzen dutenak) legitimatzen duten agintari publikoen eskumena da; bere Estatu-kideen kasuan, konstituzionalki legitimatutako instantzia publikoen eskumenpeko gaia ere bada, jatorrizko zuzenbide komunitarioan zehaztutakoa kontutan hartuz betiere. Arriskuaren onargarritasunaren gainean instantzia publiko eskudunek hartutako erabaki desberdinen bidez arriskuari juridikoki forma eman eta “arrisku legalizatu¹⁹¹” erabakitzen dute. Arrisku legalizatu horrek ezarritako mugak gainditzen dituzten arriskuak beraz legaltasunetik kanpo kokatzen dira eta kontrako zentzuan, arrisku legalizatuaren atalasetik behera dagoen arriskua “hondar-arriskua” (*riesgo residual*¹⁹²) kontsideratzen da, hots, parametro legalen barnean dagoen eta hartatik legalki onartzen den arriskua.

J/S/T baten arriskuen onargarritasunari buruzko erabakien aspektu materialak eta formalak erabakitzeko, J/S/T horren erabileraren bidez eraginda geratu daitezkeen ondasun juridiko, eskubide edo interes legitimoak zeintzuk diren kontuan hartu behar da. J/S/T-aren arriskuen izaera eta larritasunaren arabera gizakion bizitza, osasuna, osotasun fisikoa eta ingurumena bezalako ondasun juridikoak eraginda geratu daitezke (horien babesa instrumentalizatzen duten eskubideekin batera), baita etorkizuneko belaunaldiei begira ere¹⁹³. Balantzaren beste aldean, J/S/T horien arriskuen onargarritasunari buruzko erabakiak enpresa askatasunari eta jabetza intelektualeko eskubide ekonomiko desberdinei ere eragin diezaike. Hortaz, J/S/T baten erabaki juridikoen eduki materiala zehazteko eginkizunean, J/S/T horren erabileraren ondorioz eraginda geratzen diren ondasun juridiko, eskubide eta interes legitimoak identifikatu eta elkarren artean ponderatu behar dira.

¹⁹⁰ DOMENECH PASCUAL, 2006: 316-317.

¹⁹¹ ESTEVE PARDO, op. cit, 278-279. orr.

¹⁹² JARIA I MANZANO, op. cit, 392. orr.

¹⁹³ Arriskua materializatuz gero sorraraziko lituzkeen efektu kaltegarrien larritasun eta atzerazintasunaren intentsitatearen arabera, efektu kaltegarri horiek etorkizuneko belaunaldiei ere eragin diezaiakete. Zentzu horretan, arriskuaren onargarritasunaren orainaldiko erabakiek etorkizuna baldintzatu dezaketenez, erabaki horiek hartzean etorkizuneko belaunaldiei zor zaien errespetua kontuan hartu behar da (ARAGÃO, 2010: 82; ESTEVE PARDO, op. cit, 287-288. orr; MAY, 2012: 314). Ordenamendu komunitarioan EBOEGen hitzaurreak egungo gizarteak etorkizuneko belaunaldiekiko erantzukizuna duela azpimarratzen badu ere, EBOEGen artikuluetako batek ere ez du erantzukizun betebehari hori zehazten. Espainiar Konstituzioak bere testu osoan barrena ez du etorkizuneko belaunaldien esanbidezko aipamenik eiten. Alemaniako Oinarritzko Legeak ordea bai, testu konstituzionalaren 20. artikuluaen arabera Estatuak etorkizuneko belaunaldiekiko erantzukizuna du eta zentzu horretan bizitzaren eta animalien oinarri naturalak babestu behar ditu (horri buruz, ESTEVE PARDO, op cit.).

Ponderazio jarduera horretarako bi dira aintzat hartu behar diren inguruabarrak. Alde batetik, J/S/T horren arriskuaren onargarritasuna erabakitzeke aplikatu behar den ordenamendu juridikoak ondasun juridiko, eskubide eta interes legitimo horietako bakoitzari zein nolako garrantzi juridikoa aintzatesten dien. Horietako batzuk konstituzionalki babestuta egon daitezkeen bitartean (konstituzioaren markoaren baitan ere batzuek eta besteek babes konstituzional indartuagoa/lausoagoa izan dezakete), beste batzuei babes legala aitortzea gerta daiteke, jabetza intelektualeko eskubideak babesten dituen patenteen marko legala kasu. Bestetik, arrisku legalizatuaren atalasea non kokatu behar den erabakitzeke J/S/T-aren erabilerak sorrarazi ditzakeen onurek eta arriskuek ondasun juridiko, eskubide eta interes legitimo horietako bakoitzari zein intentsitatetan eragiten dieten ere kontuan hartu behar da.

Arriskuaren onargarritasunari buruzko erabakiaren aspektu materialekin batera erabaki horrek izan behar duen forma juridikoa zehazteko, ordenamendu juridikoak eraginda geratzen diren ondasun juridiko, eskubide eta interes legitimoen garapen normatiborako aurreikusten dituen baldintza normatibo formalak kontuan hartu behar dira. Espainiako Konstituzioak arrisku teknologikoen gainean esanbidezko erreserba legalik aurreikusten ez badu ere, arrisku teknologikoen Konstituzioan oinarritzeko kontsideratzen diren ondasun juridiko eta eskubide batzuei (zehazki bizitza, osasuna eta osotasun fisikoa bezalako ondasun juridikoei eta horiek instrumentalizatzen duten oinarritzeko eskubideei) eragiten dieten neurrian, arrisku teknologiko horien erabakiaren oinarritzeko elementuek lege-erreserba inplizitua dutela interpretatu behar da¹⁹⁴. Alegia, arrisku teknologikoa onartzen den/ez den onartzen eta onartzekotan, teknologia horren ustiapena onargarria izan dadin beren ekoizleek konplitu behar dituzten oinarritzeko baldintza normatiboak (egiteko/abstenitzeko/informatzeko betebeharrak) lege bidez arautu beha direla argudiatu daiteke. Europar Batasunaren kasuan ere arrisku teknologikoen gaineko erabakiek jatorritzeko zuzenbide komunitarioan (EBT, EBFT eta EBOEG) babesten diren ondasun juridiko, oinarritzeko eskubide komunitario eta interes legitimo (besteak beste, merkatu batasuna eta merkantzien zirkulazio askea) desberdinei eragiten dieten aldetik, oinarritzeko tratatu komunitarioen mandatuz erabaki horien oinarritzeko elementuak lege mailako izaera aintzatesten zaien erregelamendu edo zuzentarau komunitarioa bezalako instrumentu normatibo bidez arautu behar dira.

Arriskuaren onargarritasunari buruzko erabakiaren oinarritzeko elementuak lege mailako arauen bidez egituratzearekin batera, arriskuaren onargarritasunaren perfila zehazten amaitzeko lege horiek erregelamendu bidezko garapen normatiboaren aldeko gaikuntza-legala egin dezakete (erregelamendu exekutibo bidezko garapen normatiboa izan daiteke, ez ordea gaikuntza legalik behar ez duten erregelamendu independenteen bidezkoa)¹⁹⁵. Legeen eta erregelamenduen bidez arrisku teknologiko baten onargarritasuna guztiz zehaztu ostean (“arrisku legalizatua” deritzona), teknologia horien erabilera edo komertzializazioari buruzko erabaki singularrak hartu behar dituzten egintza-administratiboek, eta esfera judizialera iristen diren gatazken kasuan epaileek

¹⁹⁴ ESTEVE PARDO, op. cit, 280-281. orr.

¹⁹⁵ Ibid, 292-293. orr.

ematen dituzten ebazpen judizialek, “arrisku legalizatu” horren interpretazio jarduera eramaten dute aurrera.

II.3.B. Arrisku teknologiko berriak eta arrisku-analisiaren eskema klasikoaren gabeziak

Kapitulu honen II.2. atalean azaldu den bezala, arrisku teknologiko berrien konplexutasun eta ziurgabetasun zientifikoaren ondorioz “arrisku legalizatua” erabaki eta interpretatzeko eginkizuna duten instantzia publiko desberdinek zeregin horretan zientzian eta teknikan bilatzen dute hein handi batean sostengua. Egintza-administratibo singularrei arrisku legalizatua aplikatzen jarraitzen den arrisku-analisiaren eskema klasikoak, ordea, (kapitulu honen III.2. atalean aztertzen diren arriskuaren ebaluaketa, kudeaketa eta komunikazioaren faseetan banatua), arrisku teknologiko berrien ziurgabetasun zientifikoak identifikatu, ebaluatu eta juridikoki tratatzeko ahultasun esanguratsuak ditu.

Arrisku teknologiko berrien ebaluaketarako aplikatzen diren metodologia zientifiko konbentzionalek arriskuaren aldagaiak beren osotasunean kontuan hartu eta modu egokian ulertzeko gaitasun falta izan dezakete. Kontsekuenteki, arrisku teknologiko horien kudeaketa neurriak hartu behar dituzten agintari eskudunak arrisku horiek egokitasunez ebaluatzeko gaitasun falta erakusten duen arrisku ebaluaketa zientifiko horien emaitza eta ondorioetan oinarritzen dira beren gaineko kudeaketa neurria diseinatzerako orduan. Arrisku kudeatzaileak erabakiak hartzean arrisku ebaluatzaileen gomendio edo ondorioetan oinarritzen direnez, arrisku ebaluatzaileak *de facto* arrisku kudeatzaileen posizioan jartzen dira¹⁹⁶. Zentzu horretan mendebaldeko herrialdeetan J/S/T-en arrisku teknologiko berrien aurrean zientzia arautzailearen eskema (*regulatory science*) gailentzen da, zientzia arrisku teknologikoen gaineko arauaketa erabakien euskarri nagusia bilakatu baita¹⁹⁷.

Hala eta guztiz ere, arrisku ebaluaketatik eratorritako emaitza eta ondorio zientifikoaren eta arrisku kudeaketa erabakien artean bereizketa egitea garrantzitsua da, zientziak ezin baitu arriskuaren onargarritasunari buruzko erabakirik hartu¹⁹⁸. Zientzia ez da arriskuaren inguruko erabakiak hartu behar dituen, horren ardura zuzenbideari, instantzia publiko desberdinei baitagokie¹⁹⁹. Arrisku ebaluaketatik eratorritako emaitza eta ondorio zientifikoak arriskuaren onargarritasunari buruzko erabakiei forma juridikoa emateko oinarritzeko judizio-elementu nagusi bezala funtzionatu beharrean, arriskuaren onargarritasun prozesuan elementu informatzaile, orientatzaile bezala funtzionatu behar dute; baina zientziak ez du erabaki behar, zuzenbideak baizik.

¹⁹⁶ VAS ASSELT et al, 2009: 377.

¹⁹⁷ MORRIS, 2010: 41; TODT, 2006: 23.

¹⁹⁸ KANE, 1992: 25-26.

¹⁹⁹ ESTEVE PARDO, 2003a: 142-143.

Bestalde, arrisku-analisiaren prozeduran barrena (arrisku ebaluaketa, kudeaketa eta komunikazio faseetan banatzen dena) kasu batzuetan ziurgabetasunarekiko intolerantzia²⁰⁰ jarrerak egokitu izan dira. Ziurgabetasunarekiko intolerantzia jarrera hori horrela definitu liteke: J/S/T baten arrisku-analisan parte hartzen duten erakunde, talde edo instituzioek ziurgabetasuna ez onartzea, hutsala dela adieraztea edota bere analisia saihestea, ziurgabetasuna sistematikoki eta modu kontzientean ikertu, ebaluatu eta juridikoki tratatzeko jarrera egokitu beharrean²⁰¹. Ziurgabetasunarekiko intolerantzia jarrerak ematen diren kasuetan, J/S/T horren arriskuak kudeatzeko onartzen diren neurriek ez dituzte arrisku horren ziurgabetasun elementuak kontuan hartzen eta, beraz, ez dute arriskuaren benetako izaera islatzen.

Ziurgabetasunaren intolerantzia jarrera horren adibide esanguratsuetako bat Monsanto bioteknologia enpresa erraldoiaren “NK 603” arto transgenikoari EBN komertzializatzeko baimena eman edo ez erabakitzekeo jarraitu zen arrisku-analisiaren prozeduran aurkitu daiteke. Lehenik eta behin Monsanto enpresa berak “NK 603” arto transgenikoaren arrisku ebaluaketa propioa egin zuen. Bere interes ekonomikoak babesteko asmoz, arrisku ebaluaketa horretan arto transgenikoaren arriskuei buruzko ziurgabetasun elementuak aztertu beharrean Monsanto enpresak elementu horien azterketa zientifikoa saihestu egin zuen. Monsanto egindako arrisku ebaluaketaren ostean EFSA komite zientifiko komunitarioak arto transgeniko horren arrisku ebaluaketa berri bat egin zuen. EFSAn arrisku ebaluaketa horrek Monsanto egindakoaren antzekotasun ugari islatu zituen. Izan ere, EFSAk burututako ebaluaketa zientifikoa ere arriskuaren ziurgabetasun elementuak ez ziren esanbidez aztertu eta ebaluaketatik eratorritako emaitza eta ondorio zientifikoak arto transgenikoa arriskutsua ez zela azpimarratzera mugatu ziren. Monsanto enpresak egin bezala, EFSAk ere ez zituen arto transgeniko horren arriskuaren ziurgabetasun zientifikoak behar bezala aztertu eta funtsean, Monsantoen interes ekonomikoak EFSAk egin zuen arrisku ebaluaketara transferitu zirela eta arrisku ebaluaketaren prozedura (eta ondorioz arrisku-analisi prozedura osoa) Monsantoen interes ekonomikoez kutsatuta geratu zela ondorioztatu daiteke²⁰².

Monsantok eta EFSAk “NK 603” arto transgenikoari buruz egindako arrisku ebaluaketetan ez-bezala, arrisku baten inguruan ziurgabetasun zientifikoko elementuak existitzen direnean horiek kontuan hartu eta tratatzeko zientzia zorrotz eta gardena erabili behar da: diziplina desberdinen arteko ikerketak, arriskuen inguruko abisu goiztiarren aztarnen identifikazioa, arrisku berrien efektuak behar bezala aztertzeko metodologia berrien ikerketa eta ziurgabetasuna aztertzeko eta komunikatzeko teknika egokituak garatzea garrantzitsua da. Funtsean, erabili daitekeen zientziarik onena aplikatu behar da ziurgabetasuna tratatzeko²⁰³. Arrisku ebaluaketaren prozeduran parte hartzen duten komite zientifikoek beraz ziurgabetasun zientifikodun elementuekiko duten jarrera aldatzea funtsezkoa da. Arriskuaren ziurgabetasun elementu desberdinak identifikatu behar dituzte

²⁰⁰ Ziurgabetasunarekiko intolerantzia autore desberdinek egituraturiko kontzeptua da. Ikusi FOX et al, data ezezaguna; VAS ASSELT et al, op. cit, 376-377. orr.

²⁰¹ Ziurgabetasunarekiko intolerantzia kontzeptuaren definizioa, FOX et al, op cit, 6. orr.

²⁰² FOX et al, op. cit, 5. orr; VAS ASSELT et al, op. cit, 381. orr.

²⁰³ TICKNER eta KRIEBEL, 2006: 45-46.

eta horren inguruan galdera desberdinak egin behar dituzte, besteak beste, non dago ziurgabetasuna, nolakoa da eta nola kontrolatu edo murriztu daiteke (*what is known, not known and what can be known?* galderen erantzunak bilatu behar dira). Planteamendu aldaketa hori bultzatzeak duen garrantziaz oharturik, 17 herrialde desberdinetako 85 zientzialarik arriskuen konplexutasun eta ziurgabetasun elementuak eraginkortasun handiagoz aztertzeke zientzian eman beharreko aldaketen proposamena sinatu zuten 2001. urtean²⁰⁴.

Arriskuen ebaluaketa zientifikoa burutzean ziurgabetasun zientifikoak behar bezala identifikatu eta horien informazio zientifikorik osoena lortzea arrisku kudeaketaren faserako funtsezko pausua kontsidera daiteke. Arriskuaren ebaluaketarekin batera, arrisku kudeaketa fasean ere ziurgabetasun zientifikoko elementuei tratamendu espezifikoa zor zaie. Zentzu horretan ekarpen doktrinal batek arriskuan oinarritutako arauketaren orde (*risk-based regulation*) ziurgabetasunean oinarritutako arauketa eredu (*uncertainty-based regulation*) jarraitzea proposatu du²⁰⁵. *Uncertainty-based regulation* izeneko arauketa ereduak arriskuaren ziurgabetasun zientifikodun elementuei zenbait estandar aplikatzen dizkie. Estandar horien zerrendapena irekia (ez *numerus clausus*) eta kontsentsu bidezkoa izan behar da. Alegia, arriskuaren ebaluatzaile eta kudeatzaileez gain, alderdi interesdunek (dagokion kasuetan gizartea barne) arriskuen ziurgabetasun elementuen tratamendu juridikoan aplikatu behar diren estandarrei buruzko eztabaidan parte hartu behar dute. Estandar horiek irekiak izateaz gain dinamikoak ere izan behar dira. Alegia, denbora aurrera joan ahala ziurgabetasun elementu horiei buruzko ezagutza maila ere aldatu egiten den neurrian, estandar horiek aldatu eta arrisku kudeaketa neurri desberdinak konfiguratzea beharrezkoa izan daiteke.

Aspektu zientifikoekin batera aspektu ekonomikoek ere bere pisua izan dezakete J/S/T baten arriskuen kudeaketa prozeduran. Horren adibide esanguratsuetako bat arriskuaren kostu-onuren metodoaren aplikazioa da. Kostu-onura analisiak J/S/T baten onura eta kalte ekonomiko, sozial, kultural, etiko edo ekologikoen arteko konparaketa egiten du, faktore horietako bakoitzari diruzko baliokidetasuna emanez eta J/S/T horren arriskuen kudeaketarako neurri posibleen abantaila/desabantailen konparaketa eginez²⁰⁶. Analisi horrek J/S/T-aren arriskuen eta onuren arteko oreka bilatzen du, arriskuaz babesteko neurriek onura potentzialei beharrezkoak diren mugapenak baino ez eragiteko helburuz. Teknologia berri batzuen²⁰⁷ sustapena justifikatzeko helburuz teknologia horien hastapenetan “saldu” ziren onura potentzialak, *ex post* aztertuta, “saltzen” ziren bezain onuragarriak ez izatea gerta daiteke. J/S/T baten arriskuaren kalte eta onurak balio monetarioen bidez kalkulatzek eta beren arteko konparaketa kalkulu ekonomikoen bidez egiteak arriskuaren irakurketa partziala, desegokia eta fidagaitza planteatzen du. Izan ere,

²⁰⁴ *International Summit on Science and precautionary principle, september 20-22, 2001.*

²⁰⁵ VON SCHOMBERG, 2006: 26-31.

²⁰⁶ TROUWBORST, 2006: 235.

²⁰⁷ Bioteknologiaren kasuan, bere sustapenaren onuretako bat munduan egon zitekeen gosearekin amaitzea izango zela arrazoitzen zen, gerora ikusita ziurgabea dirudiena.

zenbait arriskuren (batez ere ingurugiro arriskuen) izaera dela medio, beren estimazio ekonomikoa oso erlatiboa izan daiteke²⁰⁸:

- a) Arrisku baten onura/kalteek merkatuan edo ekoizpen prozesuetan eragin ditzaketen efektuak ekonomikoki kalkulatu daitezke. Aldiz, arrisku horiek ingurumenean eragin ditzakeen efektuen kalkulua ezin daiteke balore ekonomikoen bidez islatu. Balore ekologikoa monetarioki kalkulatzean, ez dira errealitatean balore ekologikoaren galerak edota baliabide naturalen agorrazteak etorkizunera begira eragin ditzakeen benetako kostuak kontuan hartzen.
- b) Ingurumen arrisku horiek ezin dira probabilitate distribuzio kalkuluen bidez deskribatu, naturaren elementuek berezko balorea baitute (*valor inherente*). Ondorioz, naturaren elementuen baliokidetasun monetarioko kalkuluak oso diskrezionalak izan daitezke, naturaren balioak ez baitu parekide ekonomikorik.
- c) Ingurumen kalte batzuek joera ez-linearra erakusten dute, alegia, arrisku batek ingurumenean izan ditzakeen efektuen *ex ante* kalkularen eta arrisku horrek ingurumenean eragindako efektu errealen artean desberdintasunak egon daitezke. Izan ere, naturaren portaera elementu konplexu eta aldagarrien arteko interkonexioen emaitza da, gizakion jakintza epistemologikoak bere osotasunean ulertu ezin dezakeena.
- d) Arrisku batek ingurumenean epe luzera begira eragin ditzakeen efektu atzeraezinen edo etorkizuneko belaunaldiei begira eragin ditzakeen efektuen kalkulu ekonomikoa ez dator arriskuaren errealitatearekin bat, ez du arriskuaren benetako izaera deskribatzeko edota neurtzeko balio.

Atal honetan aztertutakoa laburbilduz, arriskuaren onargarritasunaren baitan alde batetik irizpide zientifikoek eta bestetik interes ekonomikoek duten gehiegizko protagonismoa onartezina da. J/S/T baten arriskuen inguruko neurrien erabakitze prozesuan arriskuaren kontzepzio zientifiko, tekniko eta ekonomikoa dira nagusi. Ondorioz, arriskuaren onargarritasunaren eraikipen juridikoak bestelako ikuspegi baten beharra dauka.

II.3.C. Zientzia eta teknologiaren arriskuen onargarritasunari buruzko erabakiak Europar Batasunean: “defizit demokratikoaren” eta “legitimotasun faltaren” ondorioz sortutako krisi politikoa

EBko instituzioen funtzionamendu tradizionalaren ondorioz, 90. hamarkadatik amaieratik aurrera batez ere prozedura komunitarioen irekitasun, gardentasun, parte hartze publiko eta kontu ematea bezalako aspektuetan antzematen ziren gabeziek gero eta oihartzun handiagoa izan zuten, doktrinak “defizit demokratikoa²⁰⁹” edo “legitimazio

²⁰⁸ Zerrenda hori egiteko iturri desberdinak kontsultatu dira Ikusi PYHÄLÄ et al, 2010:216; TROUWBORST, op. cit, 236. orr.

²⁰⁹ MORATA, 1995: 131; PORRAS RAMÍREZ, 2014: 283-284.

hutsunea²¹⁰ bezala izenpetu duen inguruabarra. Hiritarrek EBko erakundeekiko zuten ezjakintasun eta hurbiltasun ezak eta konfiantza maila baxuak, beste ondorio batzuen artean, hauteskunde europarretan herritarrek zuten parte hartzea baxua izatea zekarren²¹¹. Bestalde, instantzia publikoen jardute-eremuan kokatu izan diren esparru batzuetan botere ekonomikoak eragiteko zuten gaitasuna gero eta nabarmenagoa izatera pasa zen. Inguruabar horrek botere publikoen jardute ahalmenaren gutxitzea, sektore publikoen pribatizazioa, marko normatibo batzuen desarautzea eta funtsean *lex mercatoria* izenekoaren gorakada progresiboa ekarri zuen²¹².

Garai hartan EBk arrisku teknologiko berri batzuekiko izan zuen kudeaketa traketsak (esaterako, hurrengo atalean aztertzen diren behi eroen pandemiaren kasuan) hiritarrek instituzio europarretan zuten konfiantza maila baxuan zuzeneko eragina izan zuen. Agintari eskudunek zientzia eta teknologiarren arrisku eta ziurgabetasunak kudeatzeko behar adinako gaitasunik ez zutenaren pertzepzio publikoa nagusi zen²¹³ eta hiritarrek teknologia berrien arauketa eta kontrol mekanismoetan konfiantza maila baxua zuten. Tradizionalki erabilitako arauketa eta teknika normatibo konbentzionalek teknologia berriek planteatutako erroka eta arazo berriei erantzuteko gabezia garrantzitsuak islatzen zituzten. Bestalde, teknologia berri batzuen sustapenaren aurrean eraiki zen erresistentzia soziala esanguratsua izan zela azpimarratu behar da (energia nuklearraren edota bioteknologiaren aurkako gizarte mugimenduak kasu).

Inguruabar horiez jakitun, maila komunitarioan 2000. urtetik aurrera gobernatzeko beste funtzionamendu irekiago, gardenago eta demokratikoago baten aldeko ekimen politiko eta normatiboak forma hartzen hasi ziren. Arrisku teknologiko berri, konplexu eta ezezagunen aurrean ere bestelako planteamendu politiko-juridikoak diseinatzea lehentasunezko zeregina bihurtu zen²¹⁴ eta zientzia eta teknologiarekin zerikusia zuten erabaki-hartze prozeduren aldaketa gertatu zuen. Esparru komunitarioan emandako erreforma garrantzitsu horien analisisian murgildu aurretik ordea (kapitulu honen III. atalean sakontzen den analisisa), hurrengo lerrootan arrisku teknologiko berrien onargarritasunari buruz instantzia publikoek hartutako erabakien (“arrisku legalizatua” deritzona) legitimotasun eta kontrol demokratikoari buruzko hausnarketa teorikoa egin behar da.

Legitimotasunaren kontzeptuak Max Weber autoreak 1922. urtean idatzitako entsegu batean²¹⁵ du bere jatorria, hiritarrek erregimen politikoen arauak eta aginduak zergatik betetzen zituzten aztergai zuena. Weberren esanetan, herritarrek erregimen politikoak

²¹⁰ LEVIDOW, 2007: 23-24.

²¹¹ TODT, op. cit, 22. orr.

²¹² ESTEBEZ ARAUJO, 2009.

²¹³ Horrela ondorioztatzen zen EBn egindako euro-barometro desberdinetan, besteak beste, 2000. urtean bioteknologiari buruzkoan (EBko Komisioa, 2000a) edota zientzia eta teknologiei buruz 2001ean egin zen euro-barometroan (EBko Komisioa, 2001).

²¹⁴ TODT, 2006: 24; INNERARITY, 2012: 43.

²¹⁵ Entsegu horren titulua “Die drei reinen Typen der legitimen Herrschaft” zen eta *Preussische Jahrbücher* izeneko aldizkariaren 187. zenbakian argitaratu zen, 1922. urtean. Hamarkada batzuk beranduago (1958. urtean) Max Weberren entsegu hori ingelesera itzuli zen “The Three types of Legitimate Rule” titulupean, *Berkeley Publications in Society and Institutions* aldizkariaren 4. bolumenaren 1. zenbakian.

diktatzen dizkien mandatuak obeditzen dituzte erregimen politiko horren legitimotasuna onartzen dutelako, hots, herritarrek erregimen politiko horren legitimotasunean sinesten dutelako. Bere entseguan zehar Weberrek identifikatutako hiru legitimazio moten artean²¹⁶, gizarte moderno honetan erregimen politikoak legaltasunean aurkitzen du bere legitimotasuna, hots, legearen inperioan²¹⁷. Weberrek beraz legitimotasuna legearekin lotzen zuen, autoritateak legearen arabera aukeratuak izatearekin eta beren jardura legean aurreikusitako forma eta prozeduren arabera aurrera eramatearekin hain zuzen ere.

Azken hamarkadetan legitimotasunaren kontzeptuari buruz hausnartu duen autore azpimarragarrietako bat Jürgen Habermas filosofo eta soziologo alemana izan da. Weberrek autoritateen izate eta jarduren legitimotasun normatiboa legean kokatzen zuen bitartean, Habermasek kontzeptzio formal hori gainditzen duen planteamendua egiten du. Habermasen esanetan arauen legitimotasun normatiboa ez da horien aspektu formalera mugatu behar (legeak aurreikusitako forma eta prozedurara), legitimotasun azterketa horretarako arauen aspektu formalez gain beren eduki materiala zein den ere kontuan hartu behar baita²¹⁸. Arauen eduki materiala gizartearen borondatearen aurka doan kasuetan, hiritarrek ez dute arau hori beraiena sentitzen eta beraz, hiritarrek arau horiei legitimotasunik ez aitortzea gerta daiteke.

Habermasek legitimotasunari buruz egindako interpretazio hori Europar Batasunaren funtzionamenduari aplikatuz gero, arau komunitarioak erabat legitimoak ez direla argudiatu daiteke. Arau komunitarioen onarpen prozeduran parte hartzen duten instituzio komunitarioak EBko Komisia, Legebiltzarra eta Kontseilua dira. Hiru instituzio komunitario horien artean herritarrek hauteskunde europarren bidez zuzenean aukeratzen duten bakarra EBko Legebiltzarra da²¹⁹. Arau komunitario gehienak prozedura legegile arruntaren bidez onartzen dira²²⁰, hots, EBko Legebiltzarrari eta Kontseiluari pisu juridiko berdina aintzatesten dien prozedura normatiboaren bidez. Legebiltzarrak eta Kontseiluak ordea ez dute prozedura legegile hori martxan jartzen duten ekimen legegileak aurkezteko eskumen normatiborik, ahalmen hori EBko Komisioari erreserbatzen zaion eskumena baita²²¹. EBko Komisia beraz, nahiz eta funtzio legegilerik ez izan, proposamen legegileak aurkezteko duen eskumen ia eskusibo horren ondorioz, lege mailako arau bat aurkeztu/ez aurkeztu erabakitze gaitasuna du eta arau horien edukia hein handi batean baldintzatu dezake. Prozedura legegile horretan EBko Komisioari eta Kontseiluari (europar herritarrek zuzenean hautatu ez dituzten instituzioei) aitortzen zaizkien eskumenak kontuan hartuta, prozedura horren ondorioz onartzen diren arau komunitarioen legitimotasuna gutxienez eztabaidagarria izan daiteke beraz.

²¹⁶ Weberrek bereizitako hiru legitimazio motak: autoritate legala, autoritate tradizionala eta autoritate karismatikoa.

²¹⁷ Horri buruz, ikus EHNERT, 2015: 49-50.

²¹⁸ HABERMAS, 1996: 73.

²¹⁹ Komisia EBren gobernu eta administrazio funtzioak egikaritzen ditu eta Kontseiluak bestalde Estatu-kide bakoitzaren gobernuak ordezkatzeko ditu.

²²⁰ Prozedura legegile arrunta EBFTren 294. artikuluan arautzen da.

²²¹ EBFT, 294.2. art.

II.3.D. Zientzia eta teknologiaren arriskuen onargarritasunari buruzko erabakien legitimazioa eta kontrol demokratikoa: gardentasun printzipioa eta parte hartze publikoaren printzipioa

Arrisku teknologiko berri baten inguruan instantzia publikoek hartzen duten erabakiaren analisira bueltatuz, hurrengo lerrootan “arrisku legalizatua” deritzon erabaki horren legitimazioa eta arrisku legalizatuaren prismatik aztertuta botere publikoek aurrera eramaten duten jardunbidearen kontrol demokratikoa areagotzen lagundu dezaketen bi printzipiotan jartzen da arreta: gardentasun printzipioan eta parte hartze publikoaren printzipioan. Zientzia eta gizartearen arteko kontratu sozial berri bat²²² egituratzeko zegoen premia jakitun, garapen teknozientifikoaren eta gizartearen arteko harremanak estutzeko asmoz azken bi hamarkadetan ekimen politiko eta legegileak progresiboki ugaritu egin dira nazioarte mailan, esparru komunitarioan eta bere Estatu-kide batzuetan. Zientziaren eta gizartearen arteko harremanen estutze helburu horretan gardentasun eta parte hartze publikoaren printzipioetan inspiratutako marko normatiboek jokatzeko duten rola ezinbestekoa da. Printzipio horiek duten paper garrantzitsua pazientek medikuntza arloan duten baimen informaturako eskubideari analogia eginez irudikatu liteke²²³.

Gardentasun printzipioaren arabera herritarrek botere publikoen (batez ere administrazioaren) eskuetan dagoen informazioa sarbide eskubidea izan dezakete. Eskubide hori bi erpinez dago osatua. Alde batetik, interes orokorreko informazioa publikoki hedatzeko jarduera-printzipioaren arabera, botere publikoek beren eskuetan duten informazioa sarbide zuzena eta erraza bermatu behar diete (informazioaren hornikuntza aktiboa). Bestetik, botere publikoen eskuetan dagoen baina zuzeneko sarrerarik bermatuta ez duen informazioaren kasuan, herritarrek dokumentazio horretara sarbidea izateko eskubidea egikaritu dezakete (informazioaren hornikuntza pasiboa).

Sarbide eskubideak baino, informazio horren difusio publikoak lehentasuna izan beharko luke²²⁴, informaziorako eskubidearen prismatik aztertuta hornikuntza aktiboa pasiboa baino bermatzaileagoa baita. Botere publikoek herritarren eskura uzten duten informazioa (hornikuntza aktiboaren edo pasiboaren bidez) gai publikoetan eta erabaki prozesuetan parte hartze publikoa bultzatzeko (informazio sarbidea parte hartze eraginkorrerako ezinbesteko aurrebaldintza da), instantzia publikoen jardunbidearen kontrol publikorako eta kontuak emateko ezinbesteko instrumentua da²²⁵, baita arrisku teknologikoen gainean agintari publiko eskudunek hartzen dituzten erabakien kasuan ere.

Agintari eskudunek arrisku teknologiko baten onargarritasunari buruz erabakitzean, bi dira planteatu daitezkeen galderak. Alde batetik, arriskuaren onargarritasunari buruzko

²²² MACNAGHTEN, 2010: 23.

²²³ House of Lords izena duen Erresuma Batuko legebiltzarreko goi ganberak, 2000. urtean zientziaren eta gizartearen arteko harremanean sakontzen zuen informe bat argitaratu zuen (House of Lords, 2000). Informe horren 5. kapituluaren 2. puntuan Peter Healey-k, garai hartan “Science Policy Support Group” erakundearen zuzendari zenak gizartearen eta zientziaren arteko harreman ideala irudikatzeke pazienteen baimen informaturako eskubideari analogia egin zion.

²²⁴ LASAGABASTER HERRARTE, 2009: 183.

²²⁵ BALLESTER MARTÍNEZ, 2011: 386.

eztabaida *how safe is safe enough?*²²⁶ (zein segurtasun maila da nahikoa seguru?) galderari erantzuna ematean zentratu daiteke, arriskuaren onargarritasuna bere segurtasunaren ebaluaketa zientifikora mugatzen duen planteamendura. Beste ekarpen doktrinal batek ordea arriskuaren onargarritasuna erabakitzeko beste galdera bati erantzun behar zaiola arazoitzen du; zehazki, *how fair is safe enough?*²²⁷ (zein justua da nahikoa segurua?) galderari.

Bigarren galderaren aldeko planteamenduei jarraiki, arriskuaren onargarritasunaren erabakia ez da arriskuaren segurtasunaren analisi zientifikora mugatu behar. Erabakia hartu eta argudiatzean, arrisku horren inguruan dagoen tolerantzia soziala ere aintzat hartu behar da. Arriskuaren onargarritasunari buruzko erabakiaren legitimotasunak beraz, bigarren galdera horren alde egitea eskatzen du. Arriskuaren ebaluaketa zientifikoaren ondorio eta emaitzen arabera arrisku teknologiko bat zientifikoki onargarria izan badaiteke ere, gizartearen baitan arrisku hori onartezina edo injustua denaren pertzepzio soziala nagusi izatea gerta daiteke. Kontsekuenteki, arrisku onargarriaren erabakian arriskuaren ebaluaketa zientifikoaz gain herritarrek arrisku horrekiko duten pertzepzio soziala ere ezinbestean ebaluatu egin behar da²²⁸.

Garapen zientifiko eta teknologikoarekin zerikusia duten arriskuen gaineko erabakiek gizarte osoari eragin diezaiekete. Gizartea teknologi berrien onuren eta arriskuen hartzaile potentziala dela kontuan izanik, printzipio demokratikoaren harira herritarrek teknologia horien onarpenari buruzko eztabaida prozesuan parte hartu eta agintari eskudunek hartzen dituzten erabakietan (finantziario, ikerketa lerroen lehentasun edota arriskuen kudeaketari buruzko erabakietan) eragiteko berezko legitimazioa daukate²²⁹. Agintari eskudunek arrisku teknologiko baten onargarritasunari buruz hartutako erabakiak, zintzotasunez hartuak izanik ere (on komuna babestuz eta ez interes partikularrak), erabaki horiek izan daitezen gizartearen berrespena behar dute. Zentzu horretan, alderdi interesdun “klasikoez” gain herritarrek ere beren kezka eta interesak entzunak eta modu justuan tratatuak izan direnaren inpresioa eduki behar dute²³⁰.

Funtsean, arrisku teknologikoen onargarritasuna (“arrisku legalizatua”) erabakitzeko prozeduran eta erabaki hori aplikatzen duten egintza-administratibo singularren prozeduretan azaldu berri diren gardentasun eta parte hartze publikoaren printzipioak optimizatzen diren kasuetan, erabakiak legitimotasunez hornitzen dira eta agintari publikoen jardunbidearen gaineko kontrol demokratikoa (agintari publikoei kontu ematea eskatzeko) erraztu egiten da²³¹. Horrez gain, parte hartze publiko eta demokratikoan

²²⁶ DARLINGTON et al, 2001 eta KANE, 1992.

²²⁷ RAYNER eta CANTOR, 1987.

²²⁸ ARAGÃO, 2010: 78-79.

²²⁹ Besteak beste, ikus ARAGÃO, op. cit, 78. orr; ARIAS MALDONADO, 2003: 237-241; BOISSON DE CHAZOURNES, 2009: 180; HILDEBRANDT, 2008: 176; TICKNER, 2002: 65.

²³⁰ NANZ eta STEFFEK, 2007: 64.

²³¹ FLEAR eta PICKERSGILL, 2012: 7; DOMENECH PASCUAL, 2006: 296-297.

oinarritutako erabaki-hartzeek sinesgarritasun eta fidagarritasun handiagoa dute²³², horrelako parte hartzerik gabe onartu diren erabakiekin erkatuz gero.

II.4. Arriskuak gizarte modernoan: XX eta XXI. mendeetan zehar zeresana ematen duten arrisku batzuei eskaintako tratamendu juridikoaren analisia

II.4.A. Alerta goiztiarrak, erabaki berantiarrak

Bizi garen mende honetan eta aurrekoan (XX-XXI) gizakiak diseinatutako J/S/T-en garapena esponentzialki asko hazi da, XX. mendearen erdialdetik aurrera batez ere. Garapen zientifiko eta teknologiko horren ondorioz ingurumenari eta osasunari kalteak eragin diezazkieketen elementu eta aldagaiak biderkatzen doaz²³³. Naturak eragindako perilei aurre egiteko helburuz garatuz joan diren teknologiek, halaber, beste arrisku berri eta askotan ezezagunak sortarazten dituzte. Teknologia gero eta sofistikatuagoak diren heinean, beren inguruko ezagutza maila gero eta konplexuagoa bihurtzen ari da eta gizakiak ingurumena eraldatzeko duen gaitasuna (batzuetan efektu konponezinekin) duela hamarkada batzuk baino askoz ere handiagoa da.

Arrisku berri horiek etorkizunera begira eragin ditzaketen efektuen ikerketari lehentasuna eman beharrean, errentagarritasun ekonomikoaren irizpidepean agindupean J/S/T horien ahalik eta komertzializazio azkarrena bilatzen da, ingurumenean edo osasunean eragin ditzaketen efektu posiblei buruzko ezagutza zientifiko osatuagoa lortu aurretik. J/S/T horien efektuen jakintza maila osatugabea izanik ere, teknologia berrien komertzializazioari lehentasuna ematen zaio.

Nazio batuen Erakundeak (NBE) berriki eman dituen datuen arabera, azken mende honetan zehar teknologia berrien ekoizpena handitu eta azkartu egin da. Aldiz, teknologia horiek eragin ditzaketen ondorioen aurrean gizartea babestu behar duten erakunde erregulatzailen jardura gutxitu egin da²³⁴. Substantzia kimikoekin ere antzeko inguruabarrak errepikatzen dira. Europako Ingurumen Agentziak (EEA) 2007. urtean argitaratutako informe baten arabera, masiboki ekoizten diren sustantzia eta nahasketa kimikoen artean, agintari publiko eskudunek substantzien kopuru totalaren %14aren besterik ez zuten beren oinarrizko informazio toxikoa eskuragarri, substantzien %65en kasuan datuak osatugabeak ziren eta substantzien %21ari buruz ez zegoen ia daturik²³⁵.

Substantzia eta teknologia berriek sorrarazi dituzten kalteak, maiztasunez, horien arriskuak behar bezala kudeatu ez izanaren ondorioz gertatu dira. Alerta goiztiarren aurrean edota arriskuen inguruan ziurgabetasun zientifiko garrantzitsua existitzen den kasuetan, interes ekonomikoak direla medio, kasu askotan J/S/T-en ustiapenarekin aurrera

²³² KLINKE, 2009: 411, DOMENECH PASCUAL, op. cit.

²³³ LAGO CANDEIRA, 2006: 996.

²³⁴ UNEP, 2012: 40.

²³⁵ EEA, 2007: 129.

jarraitzea erabaki izan da. Erabaki horren ondorioak, batzuetan, tragedia hutsak bilakatu dira (asbestoa eta BSE pandemia horren adibide dira). Beherago irudikatu den taulak azken bi mendeetan zehar arriskutsu gisa katalogatu diren substantzia eta teknologien alerta zientifiko goiztiarren eta arrisku horiez babesteko tratamendu juridiko berantiarraren konparaketa egiten da.

IV. TAULA: Alerta goiztiarretatik ikasitako lezio berantiarrak. **ITURRIA:** Taula honen datuak bi iturri desberdinetatik hartu dira: EEA, 2001; ETC Group, 2012.

J/S/T arriskutsua	Alerta goiztiarra(urtea)	Alerta berantiarra(urtea)
Tabakoa	1602	1970
Erradiazioa	1896	1928
Benzeno	1897	1977
Asbestoa	1898	1931
PCB	1899	1972
CFC	1907	1977
Halokarbonatuak	1938	1997

DES	1938	1971
Antimikrobialak	1945	1970
Sulfurodun dioxidoa	1952	1979
MTBE	1954	2000
DDT	1962	1969
TBT	1970	1982
Hormonak	1970	1982
BSE	1970	1996
GEO	1980	2003

Datozen orrietan arriskuaren kudeaketaren ikuspuntutik polemika sorrarazi duten bi kasu esanguratsu deskribatzen dira: behi eroen pandemia eta transgenikoak. Bi kasu horiez gain, langileen osasun eta segurtasunari buruzko arauketa komunitarioaren azterketa egitean (tesi honen 11. kapituluaren) amiantoaren arriskuei XX. mendean zehar eman zitzaizen tratamendu juridiko berantiarren analisia ere egiten da.

II.4.B. Behi eroen krisia

Encefalotatia Espongiforme Bovina (ingelesez, BSE) izeneko gaixotasuna, behi eroen krisiaz ere ezaguna dena, Erresuma Batuko historian zehar osasun publikoaren ikuspegitik izandako krisirik larriena izan da. Arriskuaren kudeaketaren ikuspuntutik behi eroen kasua arduragabekeria politiko larri gisa kalifikatu daiteke, arrisku potentzial serioen inguruko ziurgabetasuna egonik ere, urteetan zehar herritarrei behi haragiaren kontsumoa segurua zela behin eta berriz azpimarratu baitzitzaien.

BSE gaixotasunaren hastapenak 80. hamarkadaren erdialdean kokatzen dira. Gaixotasunaren kausa *prion* izeneko proteina arraro bat da, ardi eta ahuntzengan detektatutako agente infektioso ezohikoa. Behien pentsuak egiteko ardi eta ahuntzen hondarrak erabiltzen ziren eta 80. hamarkadan pentsu horien elaborazio prozesua aldatzearen ondorioz, *prion* proteina horrek behiengan BSE gaixotasuna eragin zuen. 1985. urtean baldintza arraroetan hil ziren hainbat behiren autopsiek BSE gaixotasunari buruzko lehenengo susmo zientifikoak azalarazi zituzten eta 1988. urterako gaixotasun horren ondorioz hildako behiak 2000 inguru zirela kalkulatu da²³⁶. Garai hartan zientzialariek gaixotasun horren arriskuen inguruko jakintza hutsune handiak zituzten, ez baitzekiten gaixotasun hori beste animalietara edo gizakietara transmititzea posiblea zen, besteak beste, elikadura katearen bitartez.

Gaixotasun horren jarraipena egiteko asmoz Erresuma Batuko gobernuak 1988. urteko apirilean *Southwood* izeneko komite zientifikoa osatu zuen. Urte horietan zehar Erresuma Batuak BSE gaixotasuna detektatzen zitzaizen behiak sakrifikatu, susmagarriak ziren behien haragi eta esnearen komertzializazioa debekatu eta ardi eta ahuntz hondarrek egindako behi pentsuaren komertzializazio nazionala debekatu egin zuen. Ulergaitza badirudi ere, Erresuma Batuak esportazioei begira ez zuen horrelako jarrera arretatsurik izan, atzerriko zenbait Estatutara 3 milioi behi abelburu eta barne merkatuan debekatu zuen behi pentsua (ardi eta ahuntz hondarrez egindakoa) esportatzen jarraitu baitzuen, besteak beste, Europar Komunitateko Estatu-kide batzuetara²³⁷.

Ikerketa zientifikoak aurrera joan ahala, BSE gaixotasuna beste animalietara transmititua izan zitekeela frogatutza geratzeaz gain (katuetara²³⁸ esate baterako), 1989.

²³⁶ GRAY et al, 2011: 67.

²³⁷ "The Independent on" Sunday egunkariak publikatutako informazioa. Iturria online [2015-10-24]: <http://www.nodo50.org/gpm/vacaslocas/04.htm>

²³⁸ GRAY et al, op. cit, 68. Orr.

urtean BSE gaixotasuna *zoonosis* gisa kalifikatu zen, hots, animalietatik gizakietara transmititu zitekeena. Gaixotasunari buruzko ezagutza mailak osatugabea eta zalantzas betetako izaten jarraitzen bazuen ere, *Southwood* komite zientifikoak 1989. urtean argitaratutako informearen arabera, gaixotasunak gizakion osasunean eraginik izateko probabilitateak hutsalak omen ziren. Hala ere, informe horren ondorioak okerrak izanez gero, komiteak BSE gaixotasunaren efektuak bereziki larriak izan zitezkeela azpimarratu zuen²³⁹. Informe horren ostean behi erraien komertzializazioa debekatu bazen ere, behietatik eratorritako beste haragi zatiak eta behi esnearen komertzializazioak bere horretan jarraitzen zuen.

1990. urtean, BSE gaixotasunaren inguruan iritzi publikoak zuen kezka gero eta handiagoa zela ikusirik, John Selwyn Gummer abeltzaintza ministroak telebista bidez mezu publiko bat transmititu zuen. Ministroak, bere alabarekin batera behi hanburgesa bat jaten zuen bitartean, behi haragiaz kezkatzeko arrazoirik ez zegoela azpimarratu zien hiritarrei, “ebidentzia zientifikoen sostengu garbian oinarrituz” (“*clear support of scientific evidences*”)²⁴⁰. Erresuma Batuko albaitaritzaren zerbitzuen arduraduna zen Keith Meldrum-ek ere antzeko adierazpenak egin zituen Europar Komunitateko Albaitaritzaren Komite Iraunkorraren aurrean. Bere ustez, BSE gaixotasuna gizakietara transmititu zitekeen froga zientifikorik ez zen existitzen²⁴¹.

Zientzialariek beraz, BSE gaixotasunaren inguruko ziurgabetasun eta jakintza hutsuneak garrantzitsuak ziren testuinguru horretan, gaixotasuna gizakientzat arriskutsua izan zitekeen frogarik ez zegoela argudiatzen zuten. Kontrako zentzuan aitzitik, ziurgabetasun testuinguru horretan behi haragiaren kontsumoa gizakion osasunarentzat segurua zenik ere ez zegoen frogatzerik. Arrisku ziurgabetasun horren aurrean, aitzitik, Erresuma Batuko agintari eskudunek haragi behiaren kontsumoa baimenduta mantentzeko erabakia hartu zuten. Hurrengo urteetan BSE gaixotasunaz kutsatutako behien kasuek etengabe gora egiten jarraitu bazuten ere, agintari publikoek gizakion osasunarentzat arriskutsua ez zen gaixotasuna zela azpimarratzen segitu zuten.

1995. urtean ordea 19 urte zituen gazte bat “Creutzfeld Jakob” izeneko gaixotasunaren bariante baten (vCJD) ondorioz hildako lehenengo giza-kasu ezaguna bihurtu zen²⁴². Zientzialariek hasiera batean BSE eta vCJD gaixotasunen arteko erlazioa ukatu bazuten ere, Erresuma Batuko gobernuak 1996. urteko martxoan bi gaixotasun horien arteko lotura onartu zuen. Hurrengo egunetan gobernuak 30 hilabetetik gorako adina zuten behien sakrifizio orokorra martxan jarri zuen (izan ere, *prion* proteinaren inkubazio epea 30 hilabetetik gorakoa zen eta beraz epe horretatik beherako behietan ez zen oraindik BSE gaixotasuna garatzen). Handik astebetera EBk Britainiako behi

²³⁹ *Report of the Working Party on Bovine Spongiform Encephalopathy, February 1989*. Informearen barnean: “*if our assessment of these likelihoods is incorrect, the implications would be extremely serious*” (informearen 1.bol, 55. orr.).

²⁴⁰ Bideoa youtuben eskuragarri dago [2015-10-21]: http://www.youtube.com/watch?v=QobuvWX_Grc

²⁴¹ EBko Legebiltzarra, 1997.

²⁴² BBC kateak “behi eroen” gaixotasunari buruz egindako kronologia ikusi[2015-10-24]: http://news.bbc.co.uk/1/hi/english/static/special_report/1999/06/99/bse_inquiry/default.stm

haragiaren esportazioen debekua ezarri zuen, 10. urte iraun zuena (EBk 2006an altxatu zuen debekua).

Arrisku kudeaketa arduragabe horren balantzea ezin okerragoa izan zen. BSE gaixotasunaren ondorioz hil ziren behien kopurua 180.000koa izan zela estimatzen da²⁴³. Bestalde, 1987-2000 urte bitartean guztira 6 milioi abere inguru izan ziren sakrifikatuak, batzuk BSE gaixotasuna zutelako, beste gehienak saihaspen neurri gisa. Gizakiei dagokienez, BSE gaixotasunaren ondoriozko lehenengo giza heriotza kasu egiaztatua 1995. urtean eman zenetik 2010. urte-arte 220 pertsona ingururen heriotza dokumentatu ziren²⁴⁴. Gaur arte gaixotasun hori sendatzeko erremediorik ez da oraindik aurkitu. Etorkizunera begira gainera, adituek vCJD gaixotasun kasuen areagotzea eman daitekeela uste dute, gaixotasun horrek gizakien gorputzean inkubazio epe luzeak izan baititzake efektuak sorrarazten hasi aurretik²⁴⁵. Atal ekonomikoari dagokionez, behi eroen krisiaren ondorioz sortutako gastuak (hildakoen familiei eta abeltzainei konpentsazioak, behi haragiaren industriari laguntzak eta kontsumitzaileak babesteko neurriak) esanguratsuak izan dira, 5,5 milioi libra ingurukoak²⁴⁶.

II.4.C. Laborantza transgenikoak: ziurgabetasuna ereiten

Bioteknologiaren, hots, ADN atalak espezie bizidun batetik bestera transferitzeko gaitasuna duten teknologiaren ikerketa zientifikoaren hastapenak 1970. hamarkadan kokatzen dira eta 1980. hamarkadatik aurrera nekazaritza eremura egin zuten salto²⁴⁷. Ezagutzen den lehenengo landare transgenikoaren kasu dokumentatua tabakoarena izan zen, 1986. urtean²⁴⁸. Organismo horien berritasuna zela medio, garai hartan beraiei buruz eskuragarri zegoen jakintza zientifikoa murrizta zen eta gizakion osasunean edo ingurugiroan izan zitzaizketen eraginei buruz ez zegoen adostasun zientifikorik, neurri handi batean gaur egun mantentzen den inguruabarra.

GEOen helburua, nekazaritza alorrean erabiltzen direnean behinik behin, landareen ADNaren manipulazio artifizialaren bidez beren erresistentzia maila handitzea da: manipulazio genetikoaren bidez landare horiek erasotzen dituzten intsektuen, gaixotasun begetalen edota herbiziden aurkako erresistentzia mekanismoak barneratzen zaizkie. Landareetan gene berri bat eransteak landareak berez dituen bestelako gene batzuk aktibatzea eragin dezake, landarearen portaera edo metabolismoa modu ezezagunean eraldatu dezaketena²⁴⁹. Animalia eta gizakion osasunean eragin ditzaketena efektuak ere kezkarriak izan daitezke. Arratoiekin eginiko hainbat esperimintutan, patata eta soja

²⁴³ GRAY et al, op.cit, 68. orr.

²⁴⁴ Ibid.

²⁴⁵ Department of Health. *Assessing the risk of vCJD transmission via surgery: an interim review*, London, 2005, 42. orr. eta hurrengoak.

²⁴⁶ *The 'recipe for disaster' that killed 80 and left a £5bn bill*, The Telegraph, 2000-10-27.

²⁴⁷ CANTLEY eta LEX, 2011: 40.

²⁴⁸ APARISI MIRALLES, 2004: 62.

²⁴⁹ Royal Society of Canada, 2001: 14-19.

transgeniko bidez 10-14 egunetan zehar elikatutako arratoien esteetan eta gibelean lesioak eman zirela frogatu zen²⁵⁰. Bestalde alergien sorrera, antibiotikoen aurkako erresistentzia eta birus edo bakterien sorreraren ondorioz gaixotasun berri eta ezezagunen presentzia eragin dezakete²⁵¹.

Transgenikoen erabileraren hastapenetatik AEBk eta EBk horiekiko erakutsi duten jarrera desberdina izan da. AEBk landare transgenikoen komertzializazioari traba handirik jartzen ez zien marko normatiboa egituratu zuen bitartean (AEBko Gobernuak elikagaien marko normatibo konbentzionala GEOentzat egokia zela ondorioztatu zuen 1986. urtean²⁵²), EBren jarrera normatiboa zorrotzagoa izan zen. Transgenikoei buruzko lehenengo arauketa komunitarioa 90/220 Zuzentaraua²⁵³ izan zen, genetikoki eraldatutako organismoen berariazko askapenari buruzkoa. Arauketa horren arabera ingurumenean askatzeko intentzioa zuten GEO guztiek aurretiaz arrisku ebaluaketa batean oinarritutako baimen prozedura espezifiko bat gainditu behar zuten. Baimena emateko eskuduna Europako Komunitateen (EEKK) Komisia zen, nahiz eta Estatu-kideei baimen prozedura horretan parte hartzeko mekanismoak eskaintzen zitzaizkien. GEOen ikerketa zientifiko eta teknologikoaren gainean EBk hamarkadetan zehar egin duen inbertsio publikoaren zifrei erreparaturaz gero, beren erabileraren aldeko apustua egin duela esan daiteke: 1982-2007 urte bitartean EEKKek lehenik eta EBk ondoren GEOen ikerketara 400 milioi euro zuzendu zituen, Estatu-kide bakoitzak eginiko inbertsioa kontuan hartu gabe betiere²⁵⁴.

GEOen inguruko lehenengo baimen komunitarioa martxan jartzeko eskaera egin zuen Estatu-kidea Frantzia izan zen, Komisiai *Novartis* enpresak ekoiztutako arto transgeniko bat baimentzea eskatu baitzion. Komisiaok beste Estatu-kideei transgeniko horri buruzko gomendioa eskatu zien eta horietatik zazpi baimena ematearen aurka azaldu ziren, transgeniko hark behar adina segurtasun berme eskaintzen ez zituenaren argudiopean²⁵⁵. Desadostasun horren aurrean eta 90/220 Zuzentarauari jarraiki, Estatu-kideen ordezkariak biltzen zituen komite bat sortu zen (*Committee 21* izenez ezaguna²⁵⁶). Komite horretan lehenik eta EBko Kontseiluaren barnean ondoren Estatu-kideen artean *Norvatis* enpresaren transgenikoari baimena eman edo ukatzeari buruzko adostasun eza errepikatu egin zenez, EBko Komisiaok gaia hiru komite zientifikori helarazi zien. 1996. urteko abenduan komite zientifiko horiek arto transgeniko barietate hori baimentzearen aldeko diktamen zientifikoa eman zutela oinarri hartuz, 1997. urteko urtarrilean EBk bere komertzializaziorako baimen komunitarioa ematea erabaki zuen²⁵⁷.

²⁵⁰ FARES eta EL-SAYED, 1998: 219-233 eta MALATESTA et al., 2002: 173-180.

²⁵¹ Besteak beste, Royal Society of Canada, 2001: 14-19.

²⁵² CANTLEY eta LEX, op. cit, 48. orr.

²⁵³ EEKKen Kontseiluaren 90/220/EEC Zuzentaraua, *on the deliberate release into the environment of genetically modified organisms*, (DOCE: 1990-05-08), 1990-04-23.

²⁵⁴ Friends of Earth Europe, 2007: 12.

²⁵⁵ VOGEL, 2003: 45.

²⁵⁶ Komite horren sorrera 90/220 Zuzentarauaren 21. artikuluan aurreikusten zen.

²⁵⁷ VOGEL, op. cit, 46. orr.

GEOak ingurugiroan askatzeak eta elikadura katean sartzeak eragin ditzaketen arriskuen inguruko informazioa osatugabea izanik eta EBk horiek baimentzearen alde egindako pausu normatiboaz jakitun, kontsumitzaile taldeek eta izaera desberdinetako erakundeek transgenikoen aurkako presioa areagotu egin zuten²⁵⁸. Hainbat Estatu-kideek transgenikoen baimentzea errezeloz ikusten zutenenez, 90/220 Zuzentarauak baimen horiek blokeatzeko eskaintzen zien ahalmen normatiboa baliatu zuten²⁵⁹: Frantziak, Austriak, Luxenburgok, Alemaniak eta Italiak EBk baimendutako arto transgenikoak beren lurralde esparruan zirkulatzearen aurkako debeku nazionalak onartu zituzten, ingurugiroan edo osasunean arriskutsuak izan zitezkeela kontsideratzeko arrazoi justifikagarriak zituztela argudiatuz. 90/220 Zuzentarauren harira Estatu-kideek GEOen baimen komunitarioaren erabaki prozeduran pisu garrantzitsua zutenenez, hurrengo urteetan EBn martxan jartzen ziren GEOen baimen prozedura oro atzera botatzea lortu zuten, hots, GEOen komertzializazioaren berandutzea (*moratoria*).

Blokeo egoera horrek munduko beste Estatuaren GEOen nekazaritza esportazioetan eragiten zituen efektu ekonomiko negatiboez kezkatuta AEBk, Kanadak eta Argentinak 2003ko maiatzean Komertzioaren Nazioarteko Erakundearen (WTO) lurralde komunitarioan ezarritako berandutze horren aurkako kexa aurkeztu zuten, inguruabar horrek komertzioari buruzko nazioarteko itun batzuk urratzen zituenaren arrazoipean²⁶⁰. Kexa horren azterketarako WTO erakundeak eztabaida panel bat sortu zuen²⁶¹. 2006. urteko irailean eztabaida panel horrek gatazkari buruzko informea argitaratu zuen, EBko Estatu-kide batzuek GEOen inguruan debeku nazionalak onartzeko erabilitako justifikazio zientifikoa funtsik gabea zela ondorioztatzen zuena.

Komertzio askatasunaren babespean, askatasun horri mugak jartzen zizkien politika arautzaile nazionalen aurkako argudioak erabili zituen panelak. GEOen inguruan zegoen ziurgabetasun zientifikoa kontuan hartu gabe, arreta printzipioaren zentzuaren aurka zioan planteamenduaren alde egin zuen: transgenikoak ingurugiroarentzat edo giza osasunarentzat arriskutsuak direla zientifikoki frogatu ezean, beren komertzializazioa debekatzeko arrazoirik ez dago. Jarrera horrekin WTOren eztabaida panelak arreta printzipioaren funtzionalitatea ukatu egin zuen, GEOen arriskuen inguruan dagoen ziurgabetasuna euren aurkako neurriak adosteko arrazoi nahikoa ez zela adieraziz. Eztabaida panel horrek Estatu-kideen jarrerak WTOren arauak urratu zituela baieztatu bazuen ere, ez zion EBri WTO arau horiek betearazteko jarraitu beharreko pausu edo neurriei buruzko gomendio zehatzik eman. Bestalde, GEOen baimentzea kasuz kasu aztertzeko EBren 90/220 Zuzentarauak araututako prozedura komunitarioa (arrisku ebaluaketan oinarritutakoa) WTO arauen aurkakoa ez zela ere ondorioztatu zuen.

²⁵⁸ BRAZELL, 2012: 109. Herritarrek bioteknologiakiko zuten pertzepzio publikoari buruz, ikus KEARNES et al, 2006: 15-24.

²⁵⁹ 90/220/EEC Zuzentaraua, 16. art.

²⁶⁰ Zehazki, EBko Estatu-kideek GEOekiko planteatutako blokeo politikak neurri sanitario eta fitosanitarioen inguruko tratatua (SPS Agreement) eta komertzio zein tarifen tratatua (GATT atzizkiez ezaguna) urratzen zituela argudiatzen zuten.

²⁶¹ *European Communities – measures affecting the approval and marketing of biotech products*. Dispute DS291.

Transgenikoen gaur egungo marko juridikoan zentratuz gero, bi arau aipatu behar dira. Alde batetik, 2001/18 Zuzentaraua²⁶², antzinako 90/220 Zuzentaraua ordezkatu zuena (GEOen berariazko askapenari buruzkoa) eta 1830/2003 Erregelamendua²⁶³, GEOen eta horien bidez ekoiztiko elikagai eta pentsuen etiketapen eta trazabilitate baldintzak arautzen dituena. Gaur egun EBn bi transgeniko moten ereipena bakarrik dago onartua. Alde batetik, Monsanto multinazionalaren *MON810* arto transgenikoa, eta bestetik, 2010. urtetik aurrera, *Amflora* patata izenekoa. EBn guztira sei Estatu-kide dira baimendutako transgeniko horiek ereiten dituztenak: Espainia (hektarea gehien ereiten dituen da, beste Estatu-kideekiko alde handiarekin gainera), Txekiar Errepublika, Portugal, Eslovakia, Errumania eta Alemania (azken horrek *Amflora* patata bakarrik ereiten du)²⁶⁴.

EBen transgenikoen ereipenak historikoki oposizio nabarmena izan badu ere, giza eta animalia kontsumorako baimenduz doazen GEOen kopurua gero eta ugariagoa da. Transgenikoak kontsumitu edo ez erabakitze gaitasuna kontsumitzaileari esleitzen zaion aukera omen da, produktuen etiketapenean osagai transgenikoen informazioa agertu behar baita. Hala ere araudiak kontsumitzaileen informaziorako eskubidea urratzen duten zenbait hutsune eta gabezia normatibo islatzen ditu, elikagai produktu bat erosterakoan zenbait kasutan ezin baitaiteke berorrek transgenikorik ez duenik ziurtatu. Izan ere osagai transgenikoa produktuaren osagai guztien %0,9 edo gutxiagokoa denean edo beste inguruabar batzuk betetzen diren kasuetan GEOen presentzia hori ez da etiketan esanbidez agertu behar²⁶⁵. Elikagai transgenikoen etiketapenari buruzko xehetasun gehiago tesiaren 10. kapituluaren ematen da, zehazki, kapitulu horren IV.5.A atalean.

XX. eta XXI. mendean alerta goiztiarren aurrean emandako erantzun juridiko berantiarrek behin aztertu ostean, hurrengo atalean arrisku teknologiko berrien onargarrtasun erabakiak hartzeko orduan zuzenbide komunitarioan ardatz elementu bezala funtzionatu beharko luketen hiru printzipioren analisia egiten da: gardentasun, printzipio demokratiko eta arreta printzipioarena.

²⁶² EBko Legebiltzarraren eta Kontseiluaren 2001/18/CE Zuzentaraua, *sobre la liberación intencional en el medio ambiente de organismos modificados genéticamente y por la que se deroga la Directiva 90/220/CEE del Consejo*, (DOUE: 2001-04-17), 2001-03-12.

²⁶³ EBko Legebiltzarraren eta Kontseiluaren (CE) 1830/2003 Erregelamendua, *relativo a la trazabilidad y al etiquetado de organismos modificados genéticamente y a la trazabilidad de los alimentos y piensos producidos a partir de éstos, y por el que se modifica la Directiva 2001/18/CE*, (DOUE: 2003-10-18), 2003-09-22.

²⁶⁴ BALTÀ ARANDES, BARÓ BASORA eta BLANCO SÁIZ, 2013: 42-47.

²⁶⁵ Ikus 1829/2003 Erregelamendua, 12.2 eta 24.2. art.

III. ARRISKU TEKNOLOGIKO BERRIEN ONARGARRITASUNA ERABAKITZEKO PARADIGMA KOMUNITARIO BERRI BATERANTZ: GARDENTASUN PRINTZIPIOA, PRNTZIPIO DEMOKRATIKOA ETA ARRETA PRINTZIPIOA

Dagoeneko aztertu den bezala, 90. hamarkadaren amaieran EBren funtzionamendu tradizionalak ondo jo zuen. Herritarrek instituzio komunitarioekiko zuten konfiantza maila oso baxua zen, hein handi batean prozedura komunitarioen irekitasun, gardentasun, parte hartze publiko eta kontu emate faltagatik. Krisi politiko hori gainditzeko helburuz, 2000. urtetik aurrera EBk ekimen desberdinak jarri zituen martxan:

- a) EBko Komisioak 2001ean gobernantza komunitario irekiago eta parte-hartzaileago baten estrategia orokorra aurkeztu zuen²⁶⁶.
- b) J/S/T-en arrisku-analisiaren eskema klasikoan ere zenbait aldaketa egin ziren. Alde batetik, EBko Komisioak arrisku ebaluaketa zientifikorako prozedurak harmonizatu zituen²⁶⁷. Bestetik, EBko Komisioak arreta printzipioaren aplikazioaren gida-lerroak aurreikusten dituen COM (2000)1 final Komunikazioa argitaratu zuen.
- c) Instituzio eta organismo komunitario desberdinen funtzionamenduaren gardentasuna eta kontrol demokratikoa indartzeko asmoz, informazio publikoaren sarbide eskubideak bilakaera normatibo esanguratsua izan du azken bi hamarkadetan zehar. Alde horretatik, jatorrizko zuzenbide komunitarioan aldaketa normatibo garrantzitsuak barneratu dira, informazio publikoaren sarbide eskubidearen egikaritzea zehazten duen zuzenbide komunitario osagarria onartzearekin batera.
- d) Gardentasun printzipioarekin harreman estuan, instituzio komunitarioen funtzionamendu parte hartzaileagoa eta demokratikoagoa helburu duten aldaketa normatibo desberdinak egin dira, bai jatorrizko zuzenbide komunitarioan, baita zuzenbide komunitario osagarrian ere. EBko Komisioak esate baterako “COM (2002)704 final” izeneko komunikazioa argitaratu zuen, prozesu legegile komunitarioen hasierako faseetan alderdi interesdun (gizarte zibil antolatua barne) desberdinak kontsultatzeko printzipio orokorrak eta oinarrizko arauak aurreikusten dituen.

III.1. Gobernutik gobernantzara, Europar Batasunaren krisi politikoa gainditzeko estrategia komunitarioa

Gobernantzaren kontzeptu garaikideak 90. hamarkadan gobernatzeko moduan (Europar bereziki) eman zen paradigma aldaketan du oinarri. Gobernantza politikoa, modernizazioaren eta horri estuki lotuta dagoen globalizazioaren erronka berriak beste modu batean gobernatzean datza. “Gobernu” adierak konnotazio juridiko formalak eta

²⁶⁶ EBko Komisioaren COM (2001) 428 final, *La Gobernanza Europea-un libro blanco* (DOCE: 2001-10-12).

²⁶⁷ Ikus EBko Komisioa, 2000b; 2003.

instituzionalak dituen bitartean²⁶⁸ (lurralde esparru, organismo publiko eta mekanismo normatibo konkretu batzuekin lotuak), gobernantzaren adierarekin gobernuaren dimentsioez harago doan gobernatzeko moduari egin nahi zaio erreferentzia²⁶⁹:

Governance refers to the formation and stewardship of the formal and informal rules that regulate the public realm, the arena in which state as well as economic and societal actors interact to make decision.

Gobernuaren jardute-eredu tradizionalarekin erkatuz gero, gobernantzaren definizio horrek bi aldaketa garrantzitsu dakartza.

Alde batetik, legegintza prozesuan parte hartzen duten aktoreen areagotzea ematen da. Tradizionalki, gobernuaren araugintza politikak aldebakartasunean zuten oinarri eta beraz arauketak alderdi interesdunen aldarrikapenak entzun edo kontutan hartu gabe onartzen ziren kasu gehienetan. Gobernantzaren ideiaren bitartez gobernuaren aldebakartasun hori gainditu egiten da eta horren ordez, araugintza prozeduran parte hartzen duten izaera anitzeko aktoreen sarea osatzen da²⁷⁰. Kasuan kasuko arauketa prozeduretan, nazioarteko edo nazioz gaindiko aktoreen edota aktore nazional, erregional edo lokalen parte-hartzea eman daiteke. Aktore publikoek ez-ezik, arauketa politika sare inter-konexionatu horretan aktore pribatuek ere hartzen dute parte, interes ekonomikoak defendatzen dituztenak edo gizarte zibilaren interes eta eskubide desberdinen alde (besteak beste, ingurugiro, langile eta kontsumitzaileen interesak defendatzen dituztenak) jarduten dutenak. Parte hartzen duten aktoreak maila eta izaera anitzekoak izateaz gain, aktoreen multi-sektorialtasun eta multi-diziplinartasuna ere gobernantza sare zabal horren berezko ezaugarria da.

Bestetik, gobernantzan erabiltzen diren instrumentu juridikoen aniztasuna eta heterogeneotasuna da nagusi. Administrazioak tradizionalki instrumentu juridiko lotesleetan oinarritutako arauketa politikari bira eman eta bestelako mekanismo arautzaileen (izaera formal/informal edo lotesle/ez-lotesledunak) protagonismoa areagotu egin du.

Gobernatzeko eredu tradizionalaren eraldaketa eman bada ere, aldaketa horiek ez dute administrazio tradizionalaren egiturapen, funtzio eta antolakuntzaren ideien apurketa suposatzen, beren egokitzapena baizik²⁷¹. Gobernatzeko moduaren paradigma aldaketa horretan, administrazioak eta orokorrean botere publikoek rol gehigarri bat eskuratzen dute: gobernantza prozesuen interakzio, eztabaida gune eta instrumentuen antolaketa eta kudeaketaren gaineko ardura²⁷². Botere publikoen ardura hori gobernantza ekimenen arrakastaren gakoetako bat da, eztabaidarako gune publiko eta demokratikoen antolaketa eta prozesuaren osotasuna behar bezala araututa egotea garrantzitsua baita guzti horren

²⁶⁸ JÁUREGUI, 2012: 43.

²⁶⁹ Definizio horren iturria, HYDEN eta COURT, 2002: 13.

²⁷⁰ TODT, 2006: 24.

²⁷¹ PRATS i CATALA, 2005: 130.

²⁷² ECHEVERRI JARAMILLO, 2010: 246-247.

emaitza den arauketaren legitimotasuna lortze aldera. Gobernantza prozesuetan jokoan dauden interes batzuen gutxiespena edo bazterketa gertatuz gero, prozesu horretatik eratorritako erabakiei izaera demokratikoa faltatzea eta beraz legitimotasunaren ikuspegitik gabeziak izatea gerta daiteke²⁷³.

Europar Batasunak 2000. urtetik aurrera “gubernutik gobernantzara” emandako estrategia aldaketa horrek 90. hamarkadan piztutako krisi politiko komunitarioa (kapitulu honen II.3.C. atalean aztertua) gainditzea zuen helburu. EBko Komisioak 2001. urtean Gobernantza Europarraren Liburu Zuria argitaratu zuen²⁷⁴, bestelako legegintza politika komunitario baten planteamenduaren oinarriak eta printzipio nagusiak jasotzen zituen. Estrategia berri horren bidez, legegintza politika komunitarioak ordura arte islatzen zuen planteamendu itxia alde batera utzi eta gobernantza parte-hartzaile, garden eta flexibleagoa diseinatzeke oinarriak ezarri ziren. Zehazki, aipatu liburu zurian legegintza politika komunitarioak jarraitu beharreko honako printzipioak zerrendatzen dira:

- a) *Irekitasuna*. EBko erakundeek eta Estatu-kideek esparru komunitarioan burutzen dituzten ekimenen inguruko komunikazio aktiboagoa eta hiritarrentzat ulerterrazagoa eraman behar dute aurrera.
- b) *Parte-hartzea*. Hiritarren parte-hartzea indartzea, arauketen lanketa prozesuari eta arauak aplikatzen dituzten egintza-administratiboei begira.
- c) *Erantzukizuna*. Esparru komunitarioan onartutako ekimen normatiboetan eta horien exekuzio egintzetan erakunde europarrek eta Estatu-kideek izan beharreko rola eta egin-beharren zehaztapena.
- d) *Eraginkortasuna*. Onartutako neurri eta politika europarrek beren helburuak betetzen dituztela ziurtatu behar da, betiere proportzionaltasun printzipioa kontuan izanda.
- e) *Koherentzia*. Onartzen diren neurri eta politika europarrak EBren corpus juridiko-politikoarekin koherenteak izan behar dira.

Gobernantza komunitarioaren elementu gidatzaile bezala funtzionatu behar duten printzipio horiekin batera, liburu zuriak gobernantza komunitarioaren oinarriko ezaugarriak ere zehazten ditu. Alde batetik, gobernantza komunitarioa legitimoa eta eraginkorragoa izateko asmoz liburu zuriak instantzia publikoen eta herritarren arteko harremanak sendotzea ezinbestekotzat jotzen du. Politika eta legegintza komunitarioen prozeduretan gizarte zibilak eta beste alderdi interesdunek parte hartu ahal izateko, liburu zuriak kontsulta publikoen eta elkarrizketen mekanismoak indartzearen alde egiten du²⁷⁵.

Bestalde, gobernantza komunitario berria proposatu baino lehen arauketa komunitarioen erabakiak ia eskusiboki adituen komiteen (bereziki zientifikoaren) diktamenetan oinarritzen ziren²⁷⁶. Liburu zuriak arauketa prozesuetan parte hartzen duten

²⁷³ PRATS i CATALA, op. cit, 144-145. orr.

²⁷⁴ EBko Komisioaren (2001) 428 final Komunikazioa.

²⁷⁵ Ibid, 13-14. orr.

²⁷⁶ TODT, op. cit, 23.

adituen kontzepzio klasiko hori gainditu eta “adituen demokratizazioaren²⁷⁷” alde egiten du. Arrisku-analisiaren eskemaren barnean esate baterako, liburu zuriak “adituen izaera” aditu zientifikoez harago doala ulertzen du. Ikuspegi zientifikoaz gain arrisku horrekin zerikusia duten bestelako elementuen ezagutza espezializatua duen edozein pertsoneri ere adituen izaera aintzatesten die, arrisku horren ikuspegi, iritzi, jarrera eta planteamendu desberdinak adierazten dituzten aktore anitzei hain zuzen ere (esaterako, diziplina desberdinetako aditu, industriaren ordezkari eta gizarte zibil antolatuaren baitan interes desberdinak defendatzen dituzten erakundeei).

Gobernantza komunitarioan nabarmendu daitezkeen beste aldaketa garrantzitsu bat araugintza politikarako erabili daitezkeen instrumentu normatiboen izaera eta tipologia aniztasuna da. Araugintza prozeduretan izaera juridiko loteslea duten instrumentu legegileak *de facto* erabili beharrean, kasuan kasu beren beharrezkotasuna eta bestelako instrumentu flexibleagoak erabiltzeko aukera normatiboak aztertzearen aldeko planteamendua egiten du liburu txuriak, hots, izaera juridiko loteslerik ez duten *soft law* izaeradun arauen edota aktore publiko eta pribatuen arteko elkarlana uztartzen duen ko-arauketa instrumentuena²⁷⁸.

III.2. Arrisku-analisisa eta bere faseak: arriskuaren ebaluaketa, kudeaketa eta komunikazioa

Esparru komunitarioan J/S/T-en arriskuen inguruko erabakiak “arrisku-analisisa” izeneko prozedurari jarraiki onartzen dira, hiru fasetan bereizten dena: arriskuaren ebaluaketa, kudeaketa eta komunikazioa.

Lehenengo bi faseek ildo kronologikoa jarraitzen dute eta bata bestearekiko desberdintzea garrantzitsua da. Lehenik eta behin, zientzialari talde batek aztergai den J/S/T-aren arriskuen ebaluaketa zientifikoa egiten du. Arrisku ebaluaketa behin amaiturik, emaitza zientifikoak eta eratorritako ondorioak diktamen zientifiko batean jaso eta arriskuaren kudeaketa aurrera eramateko ardura duten agintari eskudunei helarazi behar zaie. Agintari eskudunek, J/S/T horri buruzko arrisku ebaluaketaren ondorioak eta bestelako irizpideak kontuan hartuz, J/S/T-ak sorrarazten dituen arriskuen gaineko kudeaketa neurriak hartu behar dituzte, izaera eta intentsitate desberdinekoak izan daitezkeenak. Arrisku ebaluaketa eta kudeaketa fase horietan zehar, arriskuaren komunikazioak arrisku-analisiaren prozedurari koherentzia ematen dio. Hortaz, komunikazio betebeharrak hori arrisku ebaluaketa eta kudeaketa faseetara hedatzen da eta arrisku ebaluatzaile, kudeatzaile eta alderdi interesdunen arteko informazio eta jarrera desberdinen transmisio eraginkorra du helburu. Datozen lerroetan beraz, arrisku-analisisa

²⁷⁷ Liburu zuriaren prestaketa lanetan jardun zuen lan-talde batek honako informea argitaratu zuen: Report of the Working Group “Democratising expertise and establishing scientific reference systems”.

²⁷⁸ COM (2001) 428 final, 17-18. orr.

osatzen duten fase horien banakako analisisa egiten da. Arreta printzipioaren analisisa ordea kapitulu honen azken atalean egiten da.

III.2.A. Arriskuaren ebaluaketa

Arrisku ebaluaketa honako helburuak dituen prozedura zientifikoa da: J/S/T batek gizakiongan edo ingurugiroan kalteak eragiteko duen probabilitatea kalkulatu eta kalte potentzial horien larritasun maila zein den aztertu eta ingurumenean edo gizakiongan izan ditzakeen esposizio-bideak identifikatu eta esposizio-maila kalkulatzeko. Arrisku ebaluaketaren bitartez, arrisku horren kudeaketa erabakiak hartzeko eskumena duen agintari publikoari arriskuari buruzko informazio eta estimazio zientifikoak transmititzen zaizkio.

Maila komunitarioan arriskuen ebaluaketa aurrera eramaten duten komite zientifikoek eta agentzien aniztasuna da nagusi eta arriskuaren ebaluaketa aurrera eramateko prozedura berbera aplikatzen bazuten ere, praktikan komite zientifiko bakoitzak erabiltzen zituen metodologietan eta emaitzen interpretazioan desberdintasun esanguratsuak gertatzen ziren²⁷⁹. Ondorioz, komite zientifiko desberdinek J/S/T berberaren gainean egindako arrisku ebaluaketatik emaitza eta ondorio zientifiko desberdinak eratorri zitezkeen, arrisku ebaluaketa fasearen sinesgarritasunean negatiboki eragin zezakeen inguruabarra. Arazo horri aurre egiteko asmoz, EBko Komisioak 2000. urtean arrisku ebaluaketarako prozedura komunitarioen harmonizazioaren aldeko hautua egin zuen²⁸⁰.

Bestalde, arrisku ebaluaketarako prozeduren harmonizazioarekin bilatzen zen beste helburu garrantzitsuetako bat komite zientifikoek partetik ziurgabetasunarekiko intolerantzia jarrekin²⁸¹ amaitzean zetzan. Alegia, J/S/T baten arriskuaren ebaluaketan planteatu daitezkeen ziurgabetasun zientifikodun elementuen analisisa saihesteko jarrerak ekiditea eta horren ordez ziurgabetasun horiek identifikatu, aztertu eta arrisku ebaluaketaren ondorioetan esanbidez islatzea²⁸².

Arrisku ebaluaketaren prozedura guztira lau fasetan banatzen da²⁸³: perilaren identifikazioa, perilaren karakterizazioa, esposizio ebaluaketa eta arriskuaren karakterizazioa:

- a) Perilaren identifikazio fasean aztergai den J/S/T-ak kalterik edo kontrako efekturik eragiteko gaitasunik duen ebaluatzen da. Erantzuna baiezkoa izatekotan, kalte potentzialen deskribapen kualitatiboa eta arrisku ebaluaketaren hurrengo fasetan erabiliko diren testapen metodoen zehaztapena egiten da.

²⁷⁹ EBko Komisioa, 2003: 4.

²⁸⁰ Zentzu horretan bi dokumentu argitaratu ditu: EBko Komisioa, 2000b; 2003.

²⁸¹ Horri buruz, kapitulu honen II.3.B. atala kontsultatu.

²⁸² EBko Komisioa, 2003: 16, 76-77.

²⁸³ Ibid, 13. orr.

- b) Perilaren karakterizazioaren fasean J/S/T-aren esposizioaren eta horrek eragin ditzakeen kalteen arteko analisia egiten da, dosi-erantzun ebaluaketaren bidez (*dose-response assessment*). Dosi-erantzun ebaluaketa horien izaera kasuan kasu desberdina izan daiteke. Normalean animalien bidezko esposizio esperimentuak egiten dira, baina gizakion ikerketa epidemiologikoak ere egitea posible da. Dosi-erantzunaren ebaluaketaren xedea gizakiek J/S/T horrekiko jasan dezaketen esposizio seguruaren maila kalkulatzeko da, hots, osasunarentzat efektu kaltegarriak eragingo ez lituzkeen J/S/T-arekiko esposizio maila²⁸⁴. J/S/T baten esposizioaren eta efektuen artean jakintza osatugabea izatea edota ziurgabetasuna sortzen duen elementuak existitzea gerta daitezke, dosi eta erantzunaren arteko kausalitate harremana objektiboki frogatzeko zailtasunak sortarazten dituen inguruabarra. Testuinguru horretan, dosi eta erantzunaren arteko erlazioa egituratzeko metodo kuantitatiboek gain metodo kualitatiboak (izaera subjektibodun metodoak) aplikatzea beharrezkoa da²⁸⁵.
- c) Esposizio ebaluaketaren bidez aztergai den J/S/T-ak gizakiongan edota ingurugiroan izan dezakeen esposizioaren aldagai desberdinak aztertzen dira: esposizio-bide posible (airea, ura eta lurra) bakoitzean esposizio horren ezaugarriak, iraupena eta maiztasuna edo giza talde kalteberatan (besteak beste, haurrak, adineko jendea eta haurdun dauden emakumeak) duen esposizio maila²⁸⁶.
- d) Azkenik arrisku ebaluaketaren azken fasea arriskuaren karakterizazioarena da. Arriskuaren karakterizazioa egiteko aurreko faseetan bildutako datuak hartu behar dira kontuan. Alegia, arriskua materializatzeko probabilitate estimazioak eta arriskuak gizakion osasunean edo ingurumenean sortuko lituzkeen kalteen larritasun maila aztertu behar da (ziurgabetasun elementuak barne). Zeregin horretarako perilaren karakterizazio eta esposizioa ebaluaketa faseetan lortutako datuak elkarren artean konparatzen dira²⁸⁷.

III.2.B. Arriskuaren kudeaketa

Arriskuaren kudeaketa prozeduran agintari eskudunek aztergai den J/S/T-en arrisku posibleak saihestu, murriztu edota deuseztatzeko hartu behar dituzten neurriak identifikatu, baloratu eta erabakitzen dituzte. Arrisku kudeaketa neurriak hartu ahal izateko, aurretik burutu den ebaluaketa zientifikoaren emaitza eta ondorioak arrisku horren kudeaketarako sostengu elementu garrantzitsu bezala funtzionatzen dute. Hala ere, agintari eskudunek arriskuaren “onargarritasunaren” gaineko erabakiak hartzean inguruabar sozial, etiko edo ekonomikoak ere kontuan hartu behar dituztela ezin da ahaztu²⁸⁸. Arrisku horiek gizarteari berari eragin diezaieketen kasuetan, agintari eskudunek beren kudeaketarako erabakitzen dituzten neurriek gizarteak arrisku horrekiko adierazitako onargarritasun maila ere islatu

²⁸⁴ Esposizio maila horiek parametro desberdinen bidez adierazten dira, adibidez, *acceptable daily intake* (ADI) edo *tolerable daily intake* (NOAEL).

²⁸⁵ EBko Komisia, 2000b: 78-93.

²⁸⁶ Ibid, 65-67. orr.

²⁸⁷ Ibid: 96. orr.

²⁸⁸ CHARNLEY eta ROGERS, 2011: 364.

behar dute²⁸⁹. Arriskuaren ziurgabetasun zientifikodun testuingurua existitzen den kasuetan, agintari eskudunek arrisku kudeaketa prozeduran arreta printzipioa aplikatu edo ez, eta aplikatzekotan, zein arreta neurri onartu erabaki behar dute. Arreta printzipioari buruz EBko Komisioak eman zuen COM (2000)1 Komunikazioaren arabera, arrisku kudeaketa prozedura horiek ahalik eta gardenenak izan behar dira eta alderdi interesdunei prozedura horren fase goiztiarretan parte hartzeko aukera ahalbidetu behar zaie²⁹⁰. Bestalde, arrisku kudeaketa prozeduran erabakitzen diren neurri orok honako printzipio orokorrak bete behar ditu²⁹¹: proportzionaltasuna, diskriminaziorik eza, koherentzia, proposatutako arrisku kudeaketa neurrien onura/kostuen analisia eta arriskuaren ezagutza zientifikoaren garapena gainbegiratzea. Printzipio orokor horiek arreta printzipioaren analisia egitean aztertzen dira, kapitulu honetan aurrerago.

Ekarpen doktrinal batek²⁹² arriskuaren kudeaketa prozesua honako lau fasetan sailkatu du: arrisku ebaluaketa, aukeren ebaluaketa, erabakien inplementazioa eta erabakien monitorizazio eta berrikuspena. Fase horiek banan-banan azter ditzagun:

- a) Arrisku ebaluaketaren fasean²⁹³, azterketaren objektu den arriskuak zein talde soziali eragin diezaiokeen eta gizarteak jasan dezakeen arriskuaren onargarritasun maila zein den ebaluatzen da (ingelesez *ALOP*, *appropriate level of protection*). Arriskuaren onargarritasun maila zehazteko orotariko irizpideak hartu behar dira kontuan, irizpide objektiboak (kuantitatiboak) baina baita subjektiboak (kualitatiboak) ere. Arrisku bat zein puntutaraino onargarria izan daitekeen zehazterako orduan, arriskua jasango duen gizarteak/komunitateak arrisku horrekiko zein jarrera edo iritzi duen (arriskuaren hautemate soziala) ere kontuan eduki behar da.
- b) Arriskuaren onargarritasun mailaren arabera, bere kudeaketarako onartu daitezkeen erabaki eta neurriak ebaluatu egiten da. Neurri horiek izaera eta intentsitate desberdina izan dezakete; besteak beste, aztergai den J/S/T arriskutsuaren erabateko debekua, baimenen prozedura sistema baten bidezko onarpena, etiketapen neurriak edota J/S/T-aren gehieneko toleragarritasun mailen ezarpena. Neurri bakoitzaren egokitasuna aztertzeko, arrisku kudeaketa prozedura batzuetan neurri horiek eragin ditzaketen onurak eta kostuk (sozialak, ekonomiko eta ingurumenarekin zerikusia dutenak) termino monetariotan kalkulatu dira, dagoeneko azaldu eta kritikatu den kostu-onura analisiaren bidez.
- c) Arriskua kudeatzeko onartu daitezkeen neurri posibleen ebaluaketa behin egin ostean, aproposenak diren neurriak onartu eta martxan jarri behar dira.

²⁸⁹ ARAGÃO, 2010: 78-79; ARIAS MALDONADO, 2003: 236-241; GRUSZCZYNSKI, 2010: 25; TICKNER, 2002: 65.

²⁹⁰ COM (2000)1 final Komunikazioa, 6.2. atala.

²⁹¹ COM (2000) 1 final, 6.3. atala.

²⁹² GRUSZCZYNSKI, op. cit, 25-26. orr.

²⁹³ Ingelesez, *risk assessment* eta *risk evaluation* kontzeptuak bereizten dira. *Risk assessment*, arrisku ebaluaketaren fasea da, hots, arrisku kudeaketa baino lehenagoko fase nagusia. Aldiz, *risk evaluation*, arrisku kudeaketaren barnean kokatzen den azpi fase bat da, *risk assessment* deritzonarekiko kontzeptualki desberdina beraz. Atal honetan, *risk evaluation*-i buruz mintzo gara.

- d) Neurriak indarrean sartzen diren momentutik aurrera horien eraginkortasunaren jarraipena egin behar da. Neurrien eraginkortasuna aztertzeaz gain, denbora pasa ahala J/S/T horren arriskuen inguruko jakintza maila handitzea eta ondorioz ziurgabetasun elementuak gutxiaraztea gerta liteke. Zentzu horretan, arrisku kudeaketa neurrien berrikuspen prozesuak martxan jarri eta ezagutza zientifiko eta tekniko berrien arabera, neurri horiek mantendu edo beste neurri berri batzuez ordezkatzera erabaki daiteke.

III.2.C. Arriskuaren komunikazioa

Azkenik, arriskuaren komunikazioaren fasea arrisku ebaluaketa eta kudeaketa prozeduretan barrena eman beharreko zeharkako fasea dela esan daiteke. Aurreratu den bezala, arriskuaren ebaluatzaile, kudeatzaile eta alderdi interesdunen arteko informazioaren elkartruke interaktiboan datza²⁹⁴.

EBko Komisioak 2000. urtean argitaratu zuen informeari jarraiki, arriskuaren informazioa komunikatzean arriskuaren dimentsio objektiboa ez-ezik (arriskuarekin lotutako egitateei buruzko datu kuantitatiboak) dimentsio subjektiboa (arriskuaren hautemate eta pertzepzio sozialari buruzko datu kualitatiboak) ere kontuan hartu behar da²⁹⁵. EBko Komisioak arriskuaren komunikazioaren baitan honako aspektuak sustatzeko premia nabarmendu du²⁹⁶: arriskuari buruz transmititzen den informazioa osoa izatea, dokumentaziora sarrera publikoa bermatzea, aurrera eramaten diren eztabaiden gardentasuna, arriskuari buruz dauden alderdi, iritzi eta posizionamendu desberdinak kontuan hartzea, transmititzen den informazioaren argitasuna eta zehaztasuna eta azkenik, arriskuarekin zerikusia izan dezaketen kezka sozial, kultural eta etikoak kontuan hartzea.

EBko Legebiltzarrak ere J/S/T baten arriskuaren komunikazioan kontuan hartu behar diren lau aspektu azpimarratu ditu²⁹⁷:

- a) arrisku-analisiaren prozeduran barrena burutu diren egintzen dokumentazioa (ahal denean, sarrera elektronikoa publiko bidez bermatua).
- b) arriskuari buruzko informazioa mekanismo desberdinen bidez transmititzea (esate baterako, J/S/T horren onura eta kalte posibleei buruzko informazioa, erregistroa eta etiketapena).
- c) arrisku-analisiaren prozesuan parte hartzen duten aktoreen arteko elkarriketa eta informazioaren elkartrukea bultzatzen duten parte hartze mekanismoak.
- d) Agintari eskudunek arrisku kudeaketa erabakietan alderdi interesdun desberdinek egindako ekarpenak eta proposamenak egokitasunez kontuan hartzea.

²⁹⁴ EBko Komisioa, 2000b: 7-8. orr.

²⁹⁵ Ibid, 129-131. orr.

²⁹⁶ Ibid, 11.24. atala.

²⁹⁷ EBko Legebiltzarra, 2012: 32.

III.2.D. IRGC erakundeak proposatutako bestelako arrisku-analisia

Arrisku-analisan aditua den International Risk Governance Council (IRGC) erakunde independenteak arriskuen bestelako gobernantza eskema bat proposatzen du²⁹⁸. J/S/T baten arriskuen inguruan ziurgabetasun zientifikoko elementuak dauden kasuetan, arrisku horiek kudeatzeko ikuspegi zuzentzaile, dinamiko eta parte-hartzaile baten aldeko planteamendua egiten du. Arriskuari buruzko informazio zientifikoa kontuan hartzearekin batera, arriskuak eragindako kostu-onuren oreka sozialean eta alderdi interesdun desberdinen interakzioan oinarritutako erabakitze-prozesua proposatzen du. IRGC erakundearen arrisku-analisi proposamen hori lau fasetan banatzen da. Aurre-ebaluaketa, arrisku ebaluaketa, jasangarritasun (*tolerabilidad*) eta onargarritasun judizioak eta azkenik, arrisku kudeaketa²⁹⁹:

- a) Aurre-ebaluaketaren fasean J/S/T batek sortu ditzakeen arriskuak identifikatzen dira. Horretarako, J/S/T horren arriskuei buruzko seinale goiztiarrak detektatu eta komunitate zientifikoaren baitan J/S/T horri buruz dauden jarrera eta iritzi desberdinak aztertu behar dira.
- b) Arrisku-analisi tradizionalak ez-bezala, IRGC erakundearen arrisku ebaluaketa faseak bi azpi-fase ditu. Alde batetik, arriskuen ebaluaketa zientifikoa, eta bestetik, arriskuak planteatzen dituen kezka desberdinen ebaluaketa (arriskuari buruzko pertzepzio soziala eta arriskua inguratzen duten eragin sozio-ekonomikoak). Autoreren batek arrisku ebaluaketa fase horren antzeko proposamenak egin ditu³⁰⁰.
- c) Jasangarritasun eta onargarritasun judizio fasean, arriskuaren profila zehaztu (arriskuaren larritasuna, intentsitatea eta sorrarazitako efektuen atzeraezintasuna) eta berorren onargarritasunaren eztabaida egin behar da, arriskua murrizteko zein neurri hartu behar diren ere aztertuz.
- d) Arrisku kudeaketa fasean, arriskuak murrizteko neurriak ebaluatu, aukeratu, sustatu, beren eraginkortasuna kontrolatu (monitorizatu) eta beharrezkoa izanez gero, neurriok berrikusi eta birplanteatu egin behar dira.

²⁹⁸ IRGC, 2006.

²⁹⁹ IRGC, op. cit, 22-23. orr.

³⁰⁰ Kristin Shrader-Frechette autoreak arriskuaren ebaluaketa zabaldua proposatzen du, "prozeduralismo zientifikoa" izeneko. IRGC erakundearen eskemaren antzera, prozeduralismo zientifikoan arriskuaren ebaluaketa bi fasetan banatzen da. Alde batetik, ebaluaketa prozedurala deritzona, etika eta demokraziaren baloreetan oinarrituz egiten dena, eta bestetik, ebaluaketa zientifikoa. Ikusi SHRADER-FRECHETTE, 1991: 9.

III.3. Institutuzio komunitarioen eskuetan dagoen informaziora sarbidea izateko eskubidearen marko normatiboa

III.3.A. Informazio publikorako sarbideak instantzia normatibo desberdinetan izan duen bilakaera progresiboa

Gardentasun printzipiotik eratortzen den informazio publikorako sarbide eskubidea gai publikoetan eraginkortasunez parte hartu ahal izateko eta botere publikoen funtzionamenduaren kontrol demokratikoa egikaritzeko ezinbesteko baldintza bezala egituratzen da. Eskubide horrek azken bi hamarkadetan maila normatibo desberdinetan (besteak beste Europako Kontseilu, Europar Batasun eta Estatu mailan) bilakaera garrantzitsua jasan du. Alde horretatik, informazio publikorako sarbide eskubidea arautzen duten marko normatiboen aniztasuna da nagusi.

Europako Kontseilu mailan informazio publikorako sarbide eskubidea Europako Giza Eskubideen Hitzarmenean (EGEH) esanbidez aintzatesten ez bada ere, Europako Giza Eskubideen Auzitegiak (EGEA) EGEHen aurreikusitako beste eskubide batzuen eduki inplizitu bezala aintzatezia izan du. Administrazioek partikularrei informazio publikorako sarbidea ukatzearen ondorioz EGEAra iristen joan diren kasuetan auzitegi horren jurisprudentzia aldakorra izan da. Duela ez hainbeste arte, EGEAk sarbide eskubide horren mugapenarekin zerikusia zuten gatazka judizialak EGEHko 8. artikulua (bizitza pribaturako eskubidearen) urraperen posiblearen ikuspegitik aztertzen bazituen ere, 2006. urtetik aurrera jurisprudentzia ildo hori aldatu eta informazio publikorako sarbide eskubidea EGEHko 10. artikuluan araututako informazio askatasunaren eduki objektiboaren barnean kokatu zuen³⁰¹.

Bestalde, Europako Kontseiluak 2009an dokumentu publikoen sarbideari buruzko Hitzarmena³⁰² onartu zuen ("205. Hitzarmena" izenez ezaguna), informazio administratibora difusio publikoa eta sarbidea bermatzeko gutxieneko baldintza normatiboak ezartzen dituen³⁰³. Hitzarmen hori ordea ez da oraindik indarrean sartu, hori posible izan dadin Europako Kontseiluko 10 Estatu-kiderengatik berretsia izatea eskatzen baitu³⁰⁴, gaur egun oraindik konplitu ez den inguruabarra³⁰⁵.

³⁰¹ *Sdruzeni Jihoceské Mahky* kasuari buruz 2006ko uztailearen 10ean EGEAk emandako ebazpena izan zen ildo jurisprudentzial hori aldatzen lehena eta 2009. urtetik aurrera jurisprudentzia ildo berri hori finkatu egin zuen (besteak beste, ikus *Kennedy* kasuari buruzko EGEAren 2009ko abuztuaren 16ko ebazpena). Ordura arte, auzitegiak EGEHren 10. artikuluan aurreikusitako informazio askatasunaren jardute-eremua harreman pribatuetara mugatzen zuen eta beraz, eskubide horrek subjektu pribatuen partetik informazioa jasotzeko eskubidea soilik barneratzen zuela interpretatzen zuen, botere publikoen partetik informazioa jasotzea eskubide horren eduki materialetik kanpo utziz. Análisi horren inguruan, besteak beste, GUICHOT, 2011: 27-37.

³⁰² Council of Europe Convention on Access to Official Documents. (Tromsø, 18.6.2009). Adopted by the Committee of Ministers on 27 November at the 1042 bis meeting of the Ministers' Deputies.

³⁰³ 205. Hitzarmena, 1. art.

³⁰⁴ 205 Hitzarmena, 16. art.

³⁰⁵ Hitzarmena sinatu eta berretsi duten Estatu-kideak Europako Kontseiluaren web orrialdean kontsultatu daitezke:

Maila komunitarioan, instituzio komunitarioen dokumentuetara sarbide publikoa ahalbidetzeko lehenengo ekimen normatiboak 1992. urteko Maastricht-eko Tratatua onarpenaren ostean eman ziren. EBko Komisioak eta Kontseiluak 1993. urtean portaera kode bat³⁰⁶ onartu zuten, beren dokumentuetara herritarrek izan zezaketen sarbidea arautzen zuena. Urte horretan bertan EBko Kontseiluak bere dokumentuen sarbide publikoa arautzen zuen 93/371/CE Erabakia argitaratu zuen. Komisioak ere hilabete batzuk beranduago bere dokumentuen sarbide publikoa arautzen zuen 94/90/CECA, CE, Euratom Erabakia onartu zuen³⁰⁷. Urte batzuk beranduago EBko Legebiltzarrak beste bi instituzio komunitarioen ildo berbera jarraitu eta 97/632/CE,CECA, Euratom Erabakia argitaratu zuen, Legebiltzarraren dokumentuen sarbide publikorako erregimen normatiboa arautzen zuena.

Kontseilu, Komisio eta Legebiltzarra bezalako hiru instituzio komunitarioek herritarrei aintzatetsitako sarbide eskubide horrek, 1997. urtean sinatu zen Amsterdameko Tratatua bidez, printzipio komunitario orokorraren izaera bereganatu zuen. Zehazki, ordura arte Kontseilu, Komisio eta Legebiltzarraren erabakietan (zuzenbide komunitario osagarrian beraz) aurreikusten zen herritarren sarbide ahalmen hori EBETen 255. artikuluan esanbidez aurreikusia izatera pasatu zen (jatorrizko zuzenbide komunitarioaren parte bilakatu zen). Bilakaera normatibo horrekin koherentzian urte batzuk beranduago 1049/2001 Erregelamendu komunitarioa³⁰⁸ onartu zen, EBko Kontseilu, Komisio eta Legebiltzarraren dokumentuen difusio publikoa eta sarbide eskubidea arautzen dituen³⁰⁹.

2007. urtean sinatu zen Lisboako Tratatua bidez dokumentu publikoen sarbide eskubide horren aplikazio eremua zabaldu egin da, EBko Kontseilu, Komisio eta Legebiltzarrak gain sarbide eskubide hori gainerako instituzio³¹⁰, organo eta organismo komunitarioetara hedatu baita. Aplikazio eremu materialaren hedapen hori EBFTen 15.3 artikuluan aintzatesten da, antzinako EBETen 255. artikulua ordezkatu duena. 1049/2001 Erregelamenduaren aplikazio eremuak ordea Kontseilu, Komisio eta Legebiltzarraren eskuetan dauden dokumentuetara mugatua egoten jarraitzen du, EBFTen 15.3 artikulua zentzuarekin bateraezina den inguruabarra. Kontsekuenteki, Lisboako Tratatua onartu osteko hurrengo urteetan 1049/2001 Erregelamendua erreformatzeko berrikuspen

<http://www.coe.int/web/portal/home>

³⁰⁶ Code of conduct concerning public access to Council and Commission documents (93/730/EC). (OJ L: 1993/12/31).

³⁰⁷ Erabaki horren I. Eranskinean Komisioak eta Kontseiluak urte bete lehenago (1993) onartu zuten portaera kodea barneratu zen.

³⁰⁸ Regulation (EC) No 1049/2001 of the European Parliament and of the Council of 30 May 2001 regarding public access to European Parliament, Council and Commission document. (OJEC: 2001/5/31).

³⁰⁹ Instituzio komunitarioen aurrean egikaritu daitekeen informazio publikorako sarbide eskubideaz harago (1049/2001 Erregelamenduan arautua), Estatu-kideen artean ez da informazio publikoaren sarbideari buruzko arauketa komunitario harmonizaturik existitzen. Espainiar Estatuari dagokionez, eskubide hori honako legean arautzen da: Ley 19/2013, de 9 de diciembre, de transparencia, acceso a la información pública y buen gobierno (BOE: 2013/12/10). Informazio publikorako sarbide eskubidearen arauketa espainiarrari buruz, tesi honen 6. kapituluko III.1.C. atala kontsultatu.

³¹⁰ Instituzio Komunitarioak guztira zazpi dira (ikus EBT 13.1. art.).

prozedura martxan jarri zen³¹¹, marko normatibo hori *ex post* onartu zen EBFTen 15.3. artikulura egokitzeke asmoz. Erregelamenduaren aldaketa normatiboari buruz ospatu zen kontsulta publikoan kontsentsu maila altua³¹² lortu bazen ere, EBko Komisio, Kontseilu eta Legebiltzarraren artean gai horren inguruan dauden desadostasunen ondorioz 1049/2001 Erregelamenduak erreformatu gabe egoten jarraitzen du³¹³.

EBFTen 15.3 artikuluekin harremanean, EBOEGen 42. artikulua ere informazio publikorako sarbide eskubide hori esanbidez aurreikusi du. EBFT 15.3 artikulua eta EBOEG 42. artikulua sarbide eskubide horren titulartasunean bat egiten badute ere (europar hiritartasuna duten pertsonak eta Estatu-kideren batean beren egoitza soziala duten pertsona fisiko eta juridikoak dira eskubide horren titularrak), bata eta bestea kontraesanean sartzen dira sarbide eskubidearen aplikazio eremu objektiboari dagokionez: EBFT 15.3 artikulua arabera dokumentu publikoen sarbide eskubidea instituzio, organo eta organismo komunitario guztien aurrean egikaritu daitekeen bitartean, EBOEGen 42. artikulua eskubide horren egikaritzea EBko Legebiltzar, Kontseilu eta Komisioaren dokumentuetara mugatzen du; alegia, EBOEG 42. artikulua aplikazio eremu objektiboa 1049/2001 Erregelamenduan aurreikusitakoa da.

Lisboako Tratatu indarrean sartu zen momentutik aurrera (2009. urtean) EBOEGi oinarritzko tratatu komunitarioaren izaera juridiko berbera³¹⁴ onartzen zaio. Alde horretatik, instantzia komunitarioen dokumentuetara sarbidea edukitzeke eskubidearen izaera subjektiboa jatorrizko zuzenbide komunitariotik (EBTen 15.3 artikulutik eta EBOEGen 42. artikulutik) zuzenean eratortzen da, zuzenbide komunitario osagarriak eskubide horri aintzatetsitako izaeraz independenteki. Gardentasun printzipioaren beste islapen bat EBOEGen 41. artikuluan aurkitu daiteke, prozedura administratiboetan murgilduta dagoen pertsona orok instantzia komunitarioen partetik “administrazio ona” jasotzeko dituen eskubideetan. Eskubide horiekin batera, artikulua horrek administrazio komunitarioa bere erabakiak motibatuzera espresuki behartzen du.

Informazio publikorako sarbide eskubidearen erregimen komunitario orokorraz gain, ordenamendu komunitarioak ingurumenarekin zerikusia duen informazio publikoari estatutu juridiko espezifiko eta indartua aintzatesten dio. Ingurumena bezalako ondasun kolektiboari babes egokia eskaintzea funtsezkoa da gaur egungo eta etorkizuneko belaunaldien ongizatea bermatzeko eta pertsona orok ingurumen osasuntsu batean bizitzeko duen eskubidea egikari ahal izateko. Kontsekuenteki, ingurumenaren zaintza kolektiboa egikaritzea posible izan dadin, maila normatibo desberdinetan (nazioarte, EB eta Estatu mailan) marko normatiboaren heterogeneotasuna da nagusi, honako hiru zutabetan oinarri duena: ingurumen informazio publikora sarbidea izateke eskubidea, ingurumenarekin zerikusia duten ekimen normatiboetan eta prozedura administratibo

³¹¹ 1049/2001 Erregelamenduaren berrikuspen prozedura horretan kontsulta publikoa ospatu zen eta kontsulta horren ondorioak COM (2007) 185 final Komunikazioan kontsultatu daitezke.

³¹² PORRAS RAMÍREZ, 2014: 288.

³¹³ Komisioak guztira bi prozedura normatibo jarri zituen martxan. Lehena, EBko Komisioaren COM (2008) 229 final eta bigarrena, COM (2011) 137 final.

³¹⁴ EBTren 6.1. artikulua EBOEGi tratatuen izaera juridiko berbera aitortzen dio.

konkretu batzuetan gizarte zibilak parte hartzeko eskubidea eta ingurumenaren aurka doazen egintza publiko eta pribatuen aurrean bide judizialera jotzeko legitimazio aktiboa.

Ingurumenaren zaintza kolektiboa helburu duten hiru zutabe horiek nazioarte mailan aintzatetsi zituen lehena Rio de Janeiroko 1992. urteko Adierazpena izan zen, bere 10. printzipioan zehazki. NBE mailan urte batzuk beranduago onartu zen Aarhuseko Hitzarmenak³¹⁵ (1998) Rio de Janeiroko Adierazpenaren aldarrikapenak bere egin eta ingurumena babesteko hiru zutabe horien arauketa aitzindaria aurreikusi zuen. Aarhuseko Hitzarmenaren hiru zutabe horiek EBko Estatu-kideen barne zuzenbidean aplikagarriak izan zitezten, EBk bi zuzentarau onartu zituen. Alde batetik 2003/4 Zuzentaraua³¹⁶, ingurumen informaziorako sarbide eskubideari buruzkoa (1. zutabea) eta bestetik 2003/35 Zuzentaraua³¹⁷, ingurumenarekin zerikusia duten plan eta programen lanketa prozesuan parte hartze publikoa bultzatzeko neurriak aurreikusten dituen (2. zutabea). Instituzio komunitarioek ingurumenaren aurkako egintza publiko eta pribatuen aurrean bide judizialera jotzeko legitimazioa (3. zutabea) arautzen zuen zuzentarau proposamen bat³¹⁸ landu bazuten ere, ekimen normatibo hori azkenean ez zen onartua izatera iritsi. Espainiar Estatuak 2003/4 Zuzentaraua eta 2003/35 Zuzentaraua 27/2006 Legearen³¹⁹ onarpenaren bidez transposatu zituen. Ingurumenaren babeserako lehenengo bi zutabeez gain, 27/2006 Legean hirugarren zutabearen arauketa juridikoa ere aurreikusten da, hots, ingurumen justiziarako sarbidearena. Bestalde, 1367/2006 Erregelamendu komunitarioaren onarpenari esker Aarhuseko Hitzarmenaren hiru zutabe horiek instituzio eta organo komunitarioei ere aplikagarri zaizkie.

Hurrengo azpi-atalean informazio publikorako sarbide eskubide horrek ordenamendu komunitarioan duen eduki normatiboaren azterketa egiten da, bai marko normatibo orokorrarena (1049/2001 Erregelamendua), baita ingurumen informazioaren marko normatibo espezifikarena ere (1367/2006 Erregelamenduan arautua). Gizarte zibilak EBren bizitza politikoan parte hartzeko dituen instrumentu normatiboak ordea kapitulu honen III.4. atalean aztertzen da.

³¹⁵ Convention on access to information, public participation in decision-making and access to justice in environmental matters. Done at Aarhus, Denmark, on 25 June 1998 (The United Nations Economic Commission for Europe).

³¹⁶ Directive 2003/4/EC of the European Parliament and of the Council of 28 January 2003 on public access to environmental information and repealing Council Directive 90/313/EEC. (OJEU: 2003/2/14).

³¹⁷ Directive 2003/35/EC of the European Parliament and of the Council of 26 May 2003 providing for public participation in respect of the drawing up of certain plans and programmes relating to the environment and amending with regard to public participation and access to justice Council Directives 85/337/EEC and 96/61/EC - Statement by the Commission. (OJEU: 2003/6/25).

³¹⁸ COM (2003) 624: Proposal for a Directive of the European Parliament and of the Council on access to justice in environmental matters.

³¹⁹ Ley 27/2006, de 18 de julio, por la que se regulan los derechos de acceso a la información, de participación pública y de acceso a la justicia en materia de medio ambiente. (BOE: 2006/7/8).

III.3.B. Informazio publikorako sarbide eskubidearen arauketa komunitario orokorraren eta espezifikoen (ingurumen informazioaren gainekoa) oinarritzko edukiak

Aurreratu den bezala, informazio publikora sarbidea izateko eskubidearen erregimen komunitario orokorra 1049/2001 Erregelamenduan egituratzen da. Ingurumen informazioaren kasuan ordea sarbide eskubideak tratamendu juridiko espezifikoa (eta erregimen orokorrak baino bermatzaileagoa) jasotzen du 1367/2006 Erregelamenduaren eskutik.

Informazio publikoaren sarbide eskubidea, gogora dezagun, bi erpinez dago osatuta. Alde batetik, informazioaren hedapen publikoa botere publikoen jardura-printzipioetako bat da eta botere publikoak interes publikoak kontsideratzen diren informazio datuen zuzeneko sarbide publikoa bermatzera behartzen ditu (informazioaren hornikuntza aktiboa). Bestetik, herritarrek botere publikoei dokumentu publikoetara sarbidea izateko eskaera aurkeztu diezaiekete (informazioaren hornikuntza pasiboa), sarbide hori aurkatu dezaketen salbuespen kausa legalen bidez soilik mugatu daitekeena. Datozen lerrootan beraz informazio publikorako eskubidearen erregimen orokor eta espezifikoen oinarritzko edukiak aztertzen dira, informazioaren hornikuntza aktibo eta pasiboari buruz bataren eta bestearen desberdintasun normatiboetan arreta ipiniaz.

1049/2001 Erregelamenduaren kasuan sarbide eskubidearen titularrak europar hiritartasuna duten pertsona fisikoak eta Estatu-kideetako baten bere egoitza soziala duten pertsona fisiko eta juridikoak dira, nahiz eta erregelamenduak EBko Komisio, Kontseilu eta Legebiltzarrari eskubidearen titulartasuna beste pertsona fisiko eta juridikoei ere aintzatesteko aukera legala zabalik uzten dien³²⁰. Informazio sarbide eskubidearen aplikazio-eremu objektiboari dagokionez, 1049/2001 Erregelamenduaren kasuan sarbide hori EBko Komisio, Kontseilu eta Legebiltzarraren (aurrerantzean “instituzio komunitario” kontzeptua erabiltzen da hiru organo horiei erreferentzia egiteko) eskuetan dauden dokumentuetara mugatzen da.

1049/2001 Erregelamenduak instituzio komunitarioei beren eskuetan dituzten dokumentuetara zuzeneko sarbide publikoa ahalbidetzeko (informazioaren hornikuntza aktiborako) jardura-printzipioa bat aurreikusten du. Zuzeneko sarbide horren eraginkortasuna bermatzeko helburuz, Erregelamenduak bide elektronikoen bidezko edo instituzioek publikoaren eskura jarritako erregistroen bidezko sarbidea lehenesten du³²¹. Erregelamenduak instituzio komunitarioei “dokumentu legegileen³²²” zuzeneko sarbidea ahalbidetzea gomendatzen die (optimizazio mandatu da, ez baititu instituzio komunitarioak horretara esplizituki derrigortzen) eta posible den kasuetan zuzeneko sarbide hori beste dokumentu batzuetara hedatu dezatela eskatzen die, partikularki politika eta estrategia komunitarioen lanketarekin zerikusia duten dokumentuetara.

³²⁰ 1049/2001 Erregelamendua, 2.2. art.

³²¹ 12.1. art.

³²² Erregelamenduaren arabera, “dokumentu legegileak” egintza juridiko lotesleean onarpen prozeduran landu edo instituzio komunitarioek jaso dituzten dokumentuak dira (ikus 12.2. art.).

Erregelamenduak aitzitik EBren Aldizkari Ofizialean (ingelesez OJEU) derrigorrez argitaratu behar diren dokumentu batzuen zerrendapena ere egiten du, batzuk aipatzearen, egintza juridiko lotesle batzuk (izaera anitzekoak) eta horien onarpen prozeduran landu diren dokumentu konkretu batzuk³²³. Zerrendapen horrek *numerus apertus* izaera du, 1049/2001 Erregelamenduak instituzio komunitarioei beren funtzionamendu-erregelamenduen bidez OJEU argitaratu beharreko dokumentuen zerrenda zabaltzeko gaitasun legala onartzen baitie.

Informazioaren hornikuntza aktiboaz gain, 1049/2001 Erregelamenduaren arabera legitimatuta dauden pertsonen instituzio komunitarioei beren eskuetan dauden dokumentuetara sarbidea izatea eskatu diezaiekete (informazioaren hornikuntza pasiboa). Sarbide eskubide hori ordea ez da automatikoa, Erregelamenduan aurreikusten den salbuespen kausa formal edo materialetako bat aplikagarria den kasuetan sarbide hori mugatu baitaiteke.

Sarbide eskaerak bete behar dituen baldintza formalei dagokionez, eskaera idatziz aurkeztu behar da (Estatu-kideetan ofiziala den hizkuntzetako batean) eta instituzio komunitarioak eskatzen zaion dokumentua identifikatu ahal izateko adinako zehaztasuna izan behar du; eskatzaileak ordea ez du sarbide eskaera horren arrazoiak justifikatzeko obligaziorik³²⁴. Sarbide eskaera aurkezten den momentutik hasita 15 lan-eguneko epean eskatzaileak instituzio komunitarioaren partetik erantzunik jasotzen ez badu, isilune administratiboa negatiboa da eta eskatzaileari “baieztapen eskaera” izeneko errekurso administratiboa (instituzio berberaren aurrean) aurkezteko eskubidea ematen dio³²⁵. Eskatzaileak baieztapen eskaera hori instituzio komunitarioaren erregistroan aurkezten duenetik 15 lan-eguneko epean erantzunik jasotzen ez badu, isilune administratiboa halaber negatiboa da eta inguruabar horrek eskatzaileari EBko Herri Defendatzailearengana edo bide judizialera (EBJAra) jotzeko eskubidea ematen dio³²⁶.

Salbuespen kausa materialei dagokienez, informazio publiko batera sarbidea onartuz gero kaltetu daitezkeen interes legitimo eta eskubide desberdinak babestea dute helburu³²⁷. 1049/2011 Erregelamenduan zerrendatutako salbuespen kausen lehenengo multzoak interes publikoa (segurtasun publikoa, defentsa eta gai militarrek, nazioarteko harremanak eta EBren edo Estatu-kideen politika finantzarioa, monetarioa edo ekonomikoa) eta 3. pertsonen intimitatea (datu pertsonal bereziki) eta osotasuna babestea du helburu. Bigarren multzoan 3. pertsonen interes komertzialak (jabetza intelektuala barne), prozedura judizialak eta aholkularitza juridikoak eta ikuskaritza, ikerketa eta kontu-ikuskapenen bidez lortu nahi diren helburuak babesten dira. Azkenik, salbuespenen hirugarren multzoak instituzioen barne erabilerarako helburuz landutako dokumentuen sarbide publikoa salbuetsi egiten du, dokumentu horien publizitateak instituzio komunitarioen erabakihartze prozedura larriki kaltetu dezakeen kasuetan.

³²³ EBOEGen argitaratu behar diren dokumentuak Erregelamenduaren 13. artikuluan zerrendatzen dira.

³²⁴ 6. art.

³²⁵ 1049/2001 Erregelamendua, 7.4. art.

³²⁶ 8.3. art.

³²⁷ Salbuespen kausak Erregelamenduaren 4. artikuluan zehar arautzen dira.

Salbuespen kausen bigarren eta hirugarren multzoen kasuan, instituzio komunitario eskudunak informazio publikoaren sarbidea ukatzeak interes publikoaren ikuspegitik eragin dezaken kaltearen entitatea kontuan hartu eta albuespen kausarekin babesten den interes edo eskubide legitimoarekin ponderatu behar du. Informazio publiko horretara sarbidea onartuz babesten den interes publikoak sarbide hori ukatuz babesten den interes edo eskubide legitimoak baino garrantzi handiagoa badu, sarbide eskubidea albuespen kausari gailentzen zaio eta ondorioz, instituzio komunitario eskudunak informazio horren gainean aurkeztutako sarbide eskaera onartu behar du. Bestalde, instituzio komunitario eskudunak albuespen kausa onartzen duen kasuan, albuespen kausa horrek sarbide eskaerari bere osotasunean edo partzialki eragiten dion aztertu behar du. Onartutako albuespen kausak sarbide eskaeraren objektu diren dokumentuen zati bati soilik eraginez gero, instituzio komunitario eskudunak eskatzaileari albuespen kausaren eragin-eremutik at dauden dokumentu zatietara sarbidea ahalbidetu behar dio³²⁸.

1049/2001 Erregelamendua indarrean sartu aurretik eta ondoren, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak (EJJA) protagonismo handia izan du informazio publikorako sarbide eskubidearen zehaztapenean. Informazio publikorako sarbide eskubide komunitarioaren egikaritzea gatazkatsua dela ondorioztatu daiteke, gai horren inguruan EJJAk eman dituen ebazpen judizialak oso ugariak izan baitira³²⁹. Inguruabar hori dela medio EJJAk sarbide eskubidearen interpretazioan sakontzeko aukera izan du eta eskubide horren gaineko lerro jurisprudenzial nagusiak zehaztu ditu. Jurisprudenzia komunitarioak informazio publikorako sarbide eskubidearen interpretazio berrmatzailearen alde egin du eta sarbide hori mugatu dezaketen albuespen kausak modu murriztailean interpretatu behar direla azpimarratu du³³⁰.

Arau orokorra beraz instituzio komunitarioek eskatzaileari sarbidea onartzea izan behar da. Sarbide eskaera aurkeztzen zaion instituzio komunitarioak sarbide hori mugatzeko Erregelamenduaren 4. artikuluko albuespen kausetako bat alegatzen duenean (interes komunitarioen defentsan edo informazioaren publizitateak kaltetu ditzakeen Estatu-kideek horrela eskatuta³³¹), eskatzen zaion informazioari publizitatea emateak interes edo eskubide legitimo bat kaltetu dezakeenaren arrazoipean, instituzio komunitarioak sarbide-ukatze hori motibatuzko zeregina dauka. Alegia, dokumentu sarbide horren ukapenaren justifikazioa ezin da alegatzen den interes edo eskubide legitimoari buruzko kalte hipotetiko hutsetan oinarritu, instituzio komunitarioak sarbide horren ukapenerako

³²⁸ 4.6. art.

³²⁹ Jurisprudenzia komunitario hori aztertu duten autore batzuk: BALLESTER MARTÍNEZ, 2011: 394-396, COTINO HUESO, 2002: 11-13; GUICHOT, 2011: 335.

³³⁰ Albuespen kausen interpretazio murriztailea besteak beste honako ebazpenetan esanbidez exijitutako baldintza da: EJJA, *Sweden v Commission and others*, C-64/05 P, (2007/12/18), 66. paragrafoa; EJJA, *Sweden and Turco v Council and Commission*, joined cases C-39/05 P and C-52-05 P, (2008/8/1), 66. paragrafoa.

³³¹ 1049/2001 Erregelamendua, 4.5 art.

alegaten duen interes edo eskubide legitimoa nola kaltetuko litzatekeen zehaztasunez azaldu eta arrazoitu behar du³³².

Informazio publikorako sarbide eskubidearen erregimen komunitario orokorra alde batera utzi eta ingurumen informazio publikoaren erregimen komunitario espezifikuari heldu diezaiogun, 1367/2006 Erregelamenduaren bidez arautzen dena. Aarhuseko Hitzarmenaren ildo normatiboari jarraiki, 1367/2006 Erregelamenduak “ingurumen informazioa” zentzu zabalean interpretatzen du, kategoria juridiko horren barnean informazio tipologia anitza sartzen baitu³³³. Bestalde 1367/2006 Erregelamenduan aplikazio eremu subjektiboa zabala aurreikusten da, 1049/2001 Erregelamendua gainditzen duena. Alde batetik, sarbide eskubidearen titulartasuna edozein pertsona fisiko eta juridikori aintzatesten zaio, naziokotasun, hiritartasun edo egoitza sozialean oinarritutako inolako diskriminaziorik egin gabe. Bestetik, sarbide eskubide horren aplikazio eremua edozein instituzio eta organismoen eskuetan dagoen ingurumen informazioa hedatzen da (instituzio edo organismo horiek botere judizialak egikaritzen dituzten kasuetan izan ezik³³⁴).

Ingurumen informazioa duten dokumentuen zuzeneko difusio publikoari dagokionez, (informazioaren hornikuntza aktiboa), 1367/2006 Erregelamenduak instituzio eta organismo komunitarioei informazio horren difusio publikoa “aktiboki” eta “sistematikoki” aurrera eramatea exijitzen die³³⁵. Agintari komunitario eskudunek ingurumen informazioa publikoaren eskura jartzean, informazio hori modu progresiboan (aktiboki) eta irizpide sistematikoak erabiliz egiten dela bermatu behar dute. Informazioaren eta komunikazioaren teknologien (IKT) erabilerak informazioaren difusio publikoan abantaila ugari eskaintzen dituzte, besteak beste, informazioa modu sistematiko batean sailkatzeko (datu base informatikoen bidez esaterako), modu zabal eta eguneratuan hedatzeko eta herritarrei informazio horretara sarrera eroso eta azkarra ahalbidetzeko.

IKTen potentzialtasunez oharturik, erregelamenduak ingurumen informazioaren difusio aktibo eta sistematiko hori bitarteko informatiko eta elektronikoa erabiliz aurrera eramatea lehenesten du ((internet bidez esaterako)). Hornikuntza aktiboaren objektu izan behar duen ingurumen informazio tipologiari dagokionez, 1049/2001 Erregelamenduaren 12. eta 13. artikuluetan zerrendatzen diren dokumentuez gain 1367/2006 Erregelamenduak beste dokumentu batzuen zerrendapen osagarria egiten du³³⁶. Aplikazio eremu subjektiboaren antzera beraz, ingurumen informazioaren hornikuntza aktiboaren aplikazio eremu objektiboa 1049/2001 Erregelamenduan araututako informazio publiko orokorrarena baino zabalagoa da.

³³² EBJA, *Association de la presse internationale ASBL (API) v Commission*, T-36/04 (2007/09/12). Ebazpen horri buruz, BALLESTER MARTÍNEZ, op. cit, 396. orr.

³³³ 1367/2006 Erregelamenduaren 2.1.d) artikuluan egiten den zerrenda kontsultatu.

³³⁴ 2.1.c) art.

³³⁵ 1.1.b) art; 4.1. art.

³³⁶ 4.2. artikuluko zerrendapena kontsultatu.

Edozein pertsona fisiko edo juridikok ingurumen informaziorako sarbide eskaera egitean (informazioaren hornikuntza pasiboa) aplikatzen den prozedura 1049/2001 Erregelamenduan araututakoa bada ere, ingurumen informazioaren kasu partikularrean 1367/2006 Erregelamenduak eskaera prozedura horri zenbait ñabardura legal erantsi dizkio, sarbide eskubide horren egikaritzza bermatzaileagoa helburu duten aldaketak zehazki. Alde batetik, instituzio edo organismo batek bere eskuetan ez duen ingurumen informazio baten gaineko sarbide eskaera bat jasotzen duen kasuetan, 15 lan-eguneko gehienezko epean ingurumen informazio hori eduki lezakeen agintari publikoa (komunitarioa edo Estatu-kide batena) zein den adierazi behar dio eskatzaileari, edo sarbide eskaera hori zuzenean eskatutako ingurumen informazioa duen agintari publikoari igorri behar dio³³⁷.

Bestetik, 1049/2001 Erregelamenduan sarbide eskaerak aurkatzeko alegatu daitezkeen salbuespen kausak ingurumen informaziorako sarbide eskaerei ere aplikagarri zaizkie, beste salbuespen kausa osagarri batekin batera: sarbide eskaeraren objektu den ingurumen informazioari publizitatea emateak ingurumenari berari negatiboki eragin diezaiokeenean, (espezie arraroek ernalketarako erabiltzen dituzten lekuei buruzko informazioak esate baterako), agintari eskudunek sarbide eskaera hori aurkatu egin dezakete³³⁸. Bestalde, 1049/2001 Erregelamenduan jurisprudentzia komunitarioa izan da informazio sarbidea ukatzeko salbuespen kausak modu murriztailean interpretatu behar direla interpretatu duena. Ingurumen informazioaren kasuan ordea, salbuespen kausak modu murriztailean interpretatzeko betebeharrak normatiboa 1367/2006 Erregelamenduak esplizituki arautzen duen aspektua da³³⁹.

Lerro batzuk gorago 1049/2001 Erregelamenduaren azterketa egitean informazio sarbide eskubidea aurkatzeko alegatu daitezkeen salbuespen kasuak hiru multzo desberdinetan banatu dira. Bigarren eta hirugarren multzoko salbuespen kausei dagokionez, instituzio komunitario eskudunak ponderaketa jarduera bat egitera behartzen du arauketak, informazio publikoaren sarbidea ukatzeak interes publikoaren ikuspegitik eragin dezaken kaltearen entitatearen eta salbuespen kausarekin babesten den interes edo eskubide legitimoaren artean. Informaziora sarbidea onartuz babesten den interes publikoak sarbide hori ukatuz babesten den interes edo eskubide legitimoak baino garrantzi handiagoa badu, sarbide eskubidea salbuespen kausari gailentzen zaio eta instituzio komunitario eskudunak sarbide eskaera onartu behar du.

Ingurumen emisioei buruzko informaziora sarbidea izatea eskatzen den kasuetan, 1367/2006 Erregelamenduaren arabera informazio horri publizitatea emateak (eta beraz sarbidea onartzeak) duen interes publikoa handiagoa da informazio hori publiko egitearen ondorioz interes komertzialei (jabetza intelektuala barne) eta ikuskaritza edo kontu-ikuskapen jarduerari eragin diezaiekeen kaltea baino³⁴⁰. Ingurumen emisioei buruzko

³³⁷ 7. art.

³³⁸ 6.2. art.

³³⁹ Ikus 6.1. art.

³⁴⁰ 6.1. art.

informazioaren kasuan beraz aipatu berri diren salbuespen kausa horiek ez dira aktibagarri eta instituzio edo organismo komunitario eskudunak informazio mota horretara sarbidea onartu behar dio eskatzaileari.

III.4. Europar Batasunaren funtzionamenduaren demokratizazioa eta parte hartze publikoa

EBren funtzionamenduaren gardentasuna eta kontrol demokratikorako gaitasuna areagotzeko helburupean, bai jatorrizko zuzenbide komunitarioan baita zuzenbide komunitario osagarrian ere, aspektu horien gainean eman den bilakaera normatiboa garrantzitsua izan da. EBren funtzionatzeko ereduaren inguruan herritarren artean nagusi zen mesfidantzak eta instituzio komunitarioekiko hurbiltasun ezaren ondorioz, gardentasunean ez-ezezik, beste zutabe garrantzitsu batean sakontzea exijitzen zuen, EBren erabaki-hartze prozeduren izaera demokratikoago eta parte hartzaileago baten diseinuan hain zuzen ere.

EBren funtzionamendu demokratiko eta parte hartzaileagoa lortzeko helburuaren harira, azken urteotan jatorrizko zuzenbide komunitarioan aldaketa normatibo garrantzitsuak egin dira, bai Amsterdameko Tratatuan (1999. urtean indarrean sartu zena), bai Nizako Tratatuan (2003) eta batez ere, Lisboako Tratatuan (2009). Erreforma normatibo horien ostean gaur egun indarrean dagoen Europar Batasunaren Tratuari (EBT) arreta ipiniz gero, aspektu horiek esanbidez arautzen dituzten hainbat xedapen identifikatu daitezke. Printzipio demokratikoarekin koherentzian, maila komunitarioan erabakiak ahalik eta modu irekienean eta herritarrekiko gertukoenean hartu behar izatea instituzio eta organismo komunitarioen oinarrizko jarduera-printzipioa bihurtu da EBTn zeregin horri aintzatesten zaion garrantzia kontuan hartuta: oinarrizko tratatu komunitario horren 1. artikuluan aurreikusitako betebeharra izatearekin batera, testu normatibo beraren 10.3 artikuluan berresten den aipua da.

Datozen lerrootan egiten den analisia bi azpi-ataletan banatzen da. Alde batetik, EBko Komisioak, Kontseiluak eta Legebiltzarrak prozedura legegilean dituzten ahalmenak eta Lisboako Tratuaren onarpenaren ondoren maila komunitarioan lehendabizikoz aurreikusi den “herri-ekimen legegilea” aztertzen dira. Bestetik, gizarte zibilak eta interes desberdinak ordezkatzeko dituzten bestelako erakundeek politika komunitarioen lanketan eta egintza legegileen prozeduran parte hartzeko ordenamendu komunitarioak aurreikusten dizkien ahalmenak zeintzuk diren, eta errealitatean parte hartze hori nolakoa den aztertzen da.

III.4.A. EBko Komisioak, Kontseiluak eta Legebiltzarrak prozedura legegile komunitarioan dituzten ahalmenak eta herri-ekimen legegilearen figura juridikoa

EBren ohiko funtzionamenduak demokrazia ordezkatzailan du oinarri (EBT, 10.1 art.) eta prozedura legegile komunitarioaren baitan, egintza legegileak (zuzentarau, erregelamendu edo erabaki forma hartu dezaketenak) onartzeko funtzioa EBko Legebiltzarrak eta Kontseiluak elkarren artean partekatzen dute³⁴¹. Legebiltzarra EBko hiritarrak zuzenean ordezkatzeko dituen instituzio komunitario bakarra da (bost urtero ospatzen diren hauteskunde europarren bidez³⁴²); Kontseiluan ostera, Estatu-kide bakoitzaren gobernuko ordezkariak hartzen dute parte.

Kontseiluak eta Legebiltzarrak partekatzen duten funtzio legegilean tradizionalki lehenengo instituzio komunitarioari bigarrenari baino botere legegile handiagoa aintzatetsi izan bazaio ere, Amsterdam, Niza eta batez ere Lisboako Tratatuak EBko Legebiltzarrari ahalmen legegile handiagoa aitortu diote. Jatorrizko zuzenbide komunitarioak jasan dituen erreforma normatibo horien ondorioz, egintza legegileen onarpen prozeduran EBko Kontseiluari eta Legebiltzarrari pisu paritarioa onartzen dien “prozedura legegile arrunta³⁴³” (antzinako “ko-erabaki” prozedura legegilea zena) izenekoaren aplikazio eremua progresiboki zabaltzen joan da eta prozedura legegile komunitarioen artean lehenetsiena izatera igaro da (besteak “prozedura legegile bereziak” dira)³⁴⁴.

EBko Komisioak egintza legegileen onarpenean eskumenik izan ez badu ere, prozedura legegileak martxan jartzen dituzten ekimen legegileak aurkezteko eskumen ia eskusiboa³⁴⁵ instituzio komunitario horrena da. Prozedura legegileei hasiera ematea beraz, kasu ia guztietan EBko Komisioak ekimen legegilea aurkeztera baldintzatuta dago, hori egin ezean ezingo baita egintza legegile baten onarpen edo erreformarako prozedura legegilerik martxan jarri. Alde horretatik, EBko Komisioak ekimen legegileak aurkezteko duen eskumen ia eskusibo horrek funtzio legegilearen gainean erabateko garrantzia du, hiru arrazoi desberdin direla medio³⁴⁶: lehenik eta behin, EBko Komisioari arlo konkretu batean jarduera legegileari hasiera emateko unea erabakitzeko boterea ematen dio; bigarrenik, ekimen legegilearen aurkezpenaren bidez EBko Legebiltzarrari eta Kontseiluari beren jarduera legegileari alde aurretiazko mugak jartzen dizkio, hots, beren funtzio legegilearen jarduera-markoa aurrez erabakitzen die (zer arautu dezaketen eta zer ez);

³⁴¹ EBT, 14.1 art; 16.1 art.

³⁴² EBko hiritartasuna duen pertsona orok EBko Legebiltzarrerako sufragio aktiborako eta pasiborako dauka (hauteskundeetan legebiltzarkide bezala aurkezteko edo legebiltzarkideak hautatzeko eskubidea) Estatu-kide bakoitzeko nazionalak eskubide hori egikaritzeko duten baldintza berberetan eta sufragio unibertsal, libre, zuzeneko eta sekretuaren bidez (EBOEG, 39. art.).

³⁴³ EBFT 289.1 art. Prozedura legegile arruntaren arauketa: EBFT, 294. art.

³⁴⁴ Lisboako Tratatua indarrean sartu ostean jatorrizko zuzenbide komunitarioan aurreikusten diren oinarri juridikoen artean laurogeita bost prozedura legegile arruntaren bidez garatu behar dira, prozedura berezien bidez (gehienetan Kontseiluari eta kasu bakan batzuetan Legebiltzarrari pisu legegile handiagoa onartzen dieten prozedurak) garatu behar diren hogeita hamabi oinarri juridikoekin erkatuta (ikus UGARTEMENDIA ECEIZABARRENA, 2010: 6-7).

³⁴⁵ Jatorrizko zuzenbide komunitarioan kontrakoa adierazi ezean, egintza legegileak EBko Komisioaren ekimen legegilearen aurkezpenaren bidez soilik onartu daitezke (EBT, 17.2 art.).

³⁴⁶ UGARTEMENDIA ECEIZABARRENA, op. cit, 10. orr.

azkenik, oinarri juridiko bakoitzari bere garapen legegilerako prozedura zehatz bat aurreikusten zaion aldetik (arrunta edo berezien artean bat), EBko Komisioak ekimen legegilea aurkezteko zein oinarri juridikotan funtsatzen den erabakitzean, halaber, zein prozedura legegile jarraitu behar den erabakitzen du.

EBko Komisioak ekimen legegileak aurkezteko botere ia absolutua duen eta Kontseiluak eta Legebiltzarrak funtzio legegilea partekatzen duten eskema horretan, Lisboako Tratatuak zuzenbide komunitarioan “herri-ekimen legegilea” lehenbiziz barneratu zuen (EBT 11.4 art.), 211/2011 Erregelamenduaren³⁴⁷ bidez arautu eta zehaztu den instrumentua. Herri-ekimen legegileari esker, EBko hiritarrei gutxienez lau Estatu-kide desberdinetan banatutako milioi bat sinadura baino gehiago³⁴⁸ lortzen dituzten proposamen legegileak Komisioari aurkezteko ahalmena aintzatesten zaie. Arrazoi geografikoak direla medio EB bezalako erakunde batean sinadurak fisikoki biltzeko egon daitezkeen zailtasun nabarmenak aintzat hartuta, 211/2011 Erregelamenduak herri-ekimen legegileen sinadurak paperean edo elektronikoki jasotzeko aukera aurreikusten du³⁴⁹, azken kasuan, internet bidez “online” jasotzen diren sinadura elektronikoen bilketaren bidez.

Europar Batasuna bezalako nazioz gaindiko erakunde baten funtzionamenduaren baitan, ekarpen doktrinal batek herri-ekimen legegilea bezalako instrumentuak demokrazia ordezkatzailearen “instituzio osagarri³⁵⁰” gisa funtzionatu dezakeela arrazoitzen du. Optimismo horretatik urrun ordea, herri-ekimen legegile baten arrakasta ez da 211/2011 Erregelamenduan aurreikusitako baldintza normatibo guztien betearazpena mugatzen. Izan ere, ez oinarritzko tratatu komunitarioek ezta 211/2011 Erregelamenduak ere ez dute Komisioa juridikoki behartzen herri ekimen-legegile bat aurkeztu eta prozedura legegile komunitarioa martxan jartzera.

Herri-ekimen legegile batek aztergai dugun erregelamenduak exijitutako baldintza normatibo guztiak bete ostean, erregelamenduaren arabera EBko Komisioari aurkeztu behar zaio eta instituzio komunitario horrek bere erregistroan publikatu behar du³⁵¹. Horrekin batera, EBko Komisioak herri-ekimenaren antolatzaileak entzun behar ditu eta antolatzaileek halaber, EBko Legebiltzarrean herri-ekimenari buruzko entzunaldi publikoa ospatu dadin eskatu dezakete. Fase guzti horiek behin ospatuta eta betiere Komisioari herri-ekimena aurkezten zaionetik hiru hilabeteko epe barnean, Komisioak herri-ekimen legegileari buruzko azken ondorio politiko eta juridikoak jasotzen dituen komunikazio bat emititu behar du, herri-ekimenarekin aurrera jarraitu edo ez erabakiz eta erabaki horren arrazoiak argituz. Funtsean beraz, nahiz eta herri-ekimen legegilea aurkezteko exijitzen

³⁴⁷ Regulation (EU) no 211/2011 of the European Parliament and of the Council, of 16 February 2011, on the citizens’ initiative. (OJEU: 2011/3/11). Erregelamendu horren sakoneko analisia, COTINO HUESO, 2011.

³⁴⁸ Herri-ekimen legegileak EBko hiritartasuna duten pertsonak besterik ezin sinatu ditzakete, zehazki, EBko Legebiltzarrerako hauteskundeetan bozkatzeko gutxieneko adina dutenek. Gutxienez lau Estatu-kide desberdinetan lortu behar den milioi bateko sinadura horien artean, 211/2011 Erregelamenduak Estatu-kide bakoitzean gutxieneko sinadura kopuru bat lortzea exijitzen du (7. Art.). Erregelamenduak bere I. Eranskinean Estatu-kide bakoitzarentzat gutxieneko sinadura kopuru desberdina aurreikusi du.

³⁴⁹ 2011/2011 Erregelamendua, 5.2 art.

³⁵⁰ COTINO HUESO, op. cit, 331. orr.

³⁵¹ Jarraian azaltzen den prozedura 2011/2011 Erregelamenduaren 10. eta 11. artikuluetan arautzen da.

diren baldintza normatibo guztiak bete, azken instantzian EBko Komisia da ekimen legegile hori aurkeztu edo ez erabakitzeko ahalmena duena. Hiritarren interesak ordezkatzan dituen EBko Legebiltzarraz harago, erabaki-hartze komunitarioaren funtzionamenduaren gainean hiritarrek zuzeneko ahotsa izateko atea ireki diezazkien instrumentuak (herri-ekimen legegilea) zeregin horretan kale egiten du, herritarren ahotsa Komisiaoren diskrezionaltasunera erabat baldintzatuta geratzen baita.

III.4.B. Instituzio komunitarioen ekimen politiko eta legegileen lanketan gizarte zibilari eta ordezkaritza-erakundeei aintzatetsitako parte hartze eskubidea

Jatorrizko zuzenbide komunitarioak EBko hiritarrei bizitza komunitarioan parte hartzeko aurreikusten dien beste bidea ekimen politiko eta legegileen onarpen prozeduretan parte hartzeko duten eskubidea da. EBTren arabera, instituzio komunitarioek hiritarrei eta orotako interesak ordezkatzan dituzten erakundeei beren iritzia eman eta elkartrukatu ahal izateko bide egokiak ahalbidetu behar dizkiete (EBT, 11.1 art.). Autoreren batek hiritarrei eta ordezkaritza-erakundeei EBTez aintzatesten dien ahalmen legal hori “adierazpen askatasun kualifikatu” bezala definitu du³⁵². Bestalde, instituzio komunitarioek ordezkaritza-erakundeekin eta gizarte zibilarrekin elkarrizketa irekia, gardena eta aldizkakoa mantendu behar dute (EBT, 11.2 art.) eta Komisiaok alderdi interesdunekin kontsulta publiko zabalak ospatu behar ditu (EBT, 11.3 art.).

Jatorrizko zuzenbide komunitarioan aurreikusitako xedapen horiek EBko Komisiaok 2001. urtean argitaratutako Liburu Zurian dute beren jatorria, dokumentu horretan gobernantza komunitario eredu ireki eta parte hartzaileago bat bultzatzeko oinarrizko printzipio eta baldintza orokorrak definitu baitziren. Liburu Zuriaren helburu nagusietako bat gobernantza komunitarioaren lanketan alderdi interesdunekin aldizkako kontsulta publikoak ospatzea, aldizkako elkarrizketak mantentzea eta gizarte zibilari erabaki prozeduretan inplikatu eta parte hartzeko aukera eraginkorrak aurreikustean zetzan.

Bizitza komunitarioan parte hartzeko ahalmen legal horri esker, EBko hiritarren interesak ordezkatzan dituen Legebiltzarrekin batera, instituzio komunitarioen eta gizartearen arteko beste interakzio modu batzuei bide eman zitzaion. Alde batetik, interes desberdinak ordezkatzan dituzten organo aholku-emaile instituzionalizatuen bidez, esate baterako, talde ekonomiko eta sozial anitzen interesak ordezkatzan dituen Komite Ekonomiko eta Sozialaren edo lurralde komunitarioko toki erakundeen interesak ordezkatzan dituen Erregioen Komitearen bidez³⁵³. Bestetik, herritarrek zuzenean edo

³⁵² ARAGÃO, 2010: 81.

³⁵³ EBko Komisiaok Komite Ekonomiko eta Sozialarekin eta Erregioen Komitearekin lankidetzako protokoloak sinatu zituen, organo aholku-emaile instituzionalizatu horiekin zuten hartu-emana estutu eta gobernantza komunitarioan zuten papera dinamikoagoa izateko helburuz (ikus EBko Komisiaoren COM (2002) 277 final, 7. orr.).

beren interesak ordezkatzen dituzten GKE desberdinen³⁵⁴ bidez (beste ordezkaritza-erakunde interesdunekin batera) EBren ekimen politiko eta legegileen prozeduretan parte hartu dezakete, elkarrizketa eta kontsulta publikoen ospakizunaren bidez. Hurrengo lerroetan azken parte hartze mota horri heltzen zaio.

III.4.B.a. EBTren 11.3 artikulua arabera EBko Komisioak kontsulta publiko zabalak deitzeko duen mandatu orokorra arautzen duen COM (2002) 704 final Komunikazioa

Gobernantza komunitario berri batetarako zutabeak finkatzen zituen Liburu Zuria argitaratu eta urte batera, EBko Komisioak zutabe horietako baten arauketan sakondu zuen, parte hartze publikoarenean hain zuzen ere. Zehazki, Komisioak kontsulta publikoak ospatzeko oinarritzko printzipio eta baldintza orokorrak arautzen dituen COM (2002) 704 final Komunikazioa argitaratu zuen. Instituzio komunitario batek politika baten inguruan inolako erabakirik hartu baino lehen alderdi interesdunen partetik gai horren inguruan ekarpenak lortzeko erabiltzen diren prozedurak dira kontsulta publikoak, politika horri forma emateko helburuz ospatzen direnak³⁵⁵.

Kontsulta publikoetan parte hartzea interes desberdinak ordezkatzen dituzten erakundeetara (industria edo langile sindikatuak esate baterako) edo GKEtara mugatu beharrean, Komisioak kontsulta publikoen interpretazio inklusiboaren alde egin zuen. Ondorioz, ordezkaritza-erakundeez gain edozein pertsona fisiko eta juridikori kontsulta horietan parte hartzeko legitimazioa aurreikusten zaie³⁵⁶. Komisioak hala ere, arrazoi praktikoak direla medio, kontsulta publiko horretan parte hartzeko legitimotasuna zentzu hertsian alderdi interesdunak direnei mugatzeko ahalmena erreserbatzen du³⁵⁷.

COM (2002) 704 final Komunikazioak Komisioak ospatutako kontsulta publikoak arautzen ditu, esfera komunitarioaren baitan kontsulta publikoak ospatzeko instantzia komunitariorik aipatzen dena. Izan ere, kontsulta publikoak eraginkorrak izan daitezkeen ekimen legegileen fase goiztiarretan ospatu behar dira, azkeneko erabakian eragina izateko gaitasuna oraindik existitzen den momentuan. EBko Komisioak prozedura legegile komunitarioari hasiera ematen dieten proposamen legegileak aurkezteko duen eskumen ia eskusiboa duenez, kontsulta publikoak EBko Komisioak proposamen legegilea lantzen duen momentuan ospatzen da, Legebiltzar eta Kontseiluari proposamena aurkeztu baino

³⁵⁴ EBko Komisioak GKE-en izaera eta ezaugarri nagusiak aztertzen dituen komunikazio bat argitaratu zuen, zehazki, COM (2000) 11 final Komunikazioa. GKEak hiritar kategoriatan batzuen (esate baterako elbarrien, umeen edo kontsumitzaileen) interesen ordezkaritza edo interes orokorreko gai batzuen (ingurumena, animalien ongizatea) defentsa egikaritzen duten erakunde erabat heterogeneoak dira. Hala ere, GKE-en artean existitzen den heterogeneotasun horren barnean inguruabar komun batzuk identifikatu daitezke: ez dituzte onura pertsonalak bilatzen, helburu komun baten defentsa baizik; erakunde horien kide izatea borondatezkoa da eta instantzia publikoekiko (Gobernuekiko eta edozein agintari publikoekiko) eta botere ekonomikoarekiko independenteak dira.

³⁵⁵ EBko Komisioaren COM (2002) 704 final, 14. orr.

³⁵⁶ Ibid, 10. orr.

³⁵⁷ Ibid.

lehenagoko momentuan. Modu horretan, EBko Legebiltzarrari eta Kontseiluari proposamen legegilea igorri aurretik Komisioak dagoeneko ordezkartza-erakundeen eta gizarte zibilaren posizionamendu eta ekarpenak entzun eta aintzat hartu dituela presumitzen da.

EBren ohiko funtzionamendua demokrazia ordezkartzailean oinarritzen dela kontuan hartuta (EBT, 10.1 art.) kontsulta publikoaren bidez alderdi interesdunek egindako ekarpenak funtzio legegilea duten Legebiltzar eta Kontseiluaren erabaki-hartzeen elementu osagarri bezala funtzionatu behar dute, inolaz ere funtzio legegile horren elementu ordezkartzaile bezala. Hortaz, prozedura legegilean alderdi interesdunek ahotsa izan dezakete, ez ordea bozka eskubiderik³⁵⁸.

Kontsulta publikoak ospatzean Komisioak jarraitu behar dituen printzipio orokorrak Liburu Zurian gobernantza komunitario berri bat bultzatzeko aurreikusten diren printzipio berberak dira: parte hartzea, irekitasuna, erantzukizuna, eraginkortasuna eta koherentzia³⁵⁹. Kontsulta publikoak ahalik eta modu zabalenean eraman behar dira aurrera, bereziki kontsulta publiko hori proposamen legegile baten prozeduraren baitan ospatzen denean (*parte hartzea*). Kontsulta publikoaren deialdia egiten den momentuan kontsultari buruzko informazio publiko zabala transmititu behar da: zein aspektu kontsultatzen diren, kontsulta nori zuzentzen zaion (kontsulta zuzentzen zaien alderdiak zehaztu behar dira), kontsulta nola eramango den aurrera, eta behin prozedura legegilea amaitu eta instituzio komunitario eskudunak erabakia hartzean, erabaki horretan kontsulta publikoan egindako zein ekarpen kontuan hartu/baztertu diren esanbidez adierazi eta arrazoitu behar da (*irekitasuna eta erantzukizuna*). Dagoeneko adierazi den bezala, kontsulta publikoak prozedura legegilean ahalik eta fase goiztiarrean ospatu behar dira, azken erabakian eragiteko gaitasuna dagoenean, kontrako zentzuan kontsulten izate-arrazoien galera emango bailitzake eta (*eraginkortasuna*). Azkenik, Komisioak kontsulta publikoak ospatzen dituen kontsulta hori antolatzeke ardura duten azpi-departamentuek beren zeregina modu garden eta koordinatuan aurrera eramaten dutela gainbegiratu behar du (*koherentzia*).

Printzipio orokor horiekin zuzeneko harremanean, COM (2002) 704 final Komunikazioak kontsulta publikoak aurrera eramateko oinarritzko arau batzuk aurreikusten ditu³⁶⁰:

- a) Lehenik eta behin kontsulta publikoa deitzen duten komunikazioak argiak eta laburrak izan behar dira eta kontsultarekin zerikusia duen beharrezko informazio guztia transmititu behar dute.
- b) Bigarrenik, EBko Komisioak kontsulta publikoaren ekitatea bilatu behar du. Horretarako, Komisioak kontsultan parte hartu dezaketen aktoreak definitzean alderdi

³⁵⁸ Ibid, 4-5. orr. EBko Legebiltzarrak hausnarketa bera egin du honako dokumentuan: A5-0399/2001, *on the Commission White Paper on European Governance*.

³⁵⁹ Ibid, 15-18. orr.

³⁶⁰ Ibid, 19-22. orr.

interesdun guztiek kontsultan egokitasunez parte hartzen dutela eta beren iritzia entzunarazteko gaitasuna dutela bermatu behar du.

- c) Hirugarrenik, kontsulta publikorako deialdiak egiteko bitarteko materialei dagokionez, Komisioak kontsulten deialdi publikoak internet bidezko sarrera puntu bakar batean³⁶¹ komunikatzen ditu, kontsultei publizitatea emateko beste bitarteko tradizionalagoen erabilera posiblea (prentsa oharrena esaterako) baztertu gabe.
- d) Laugarrenik, kontsulta publikoen ospakizunerako iraupena prozesu horren bidez ekarpen egokiak jasotzen direla bermatzeko adinakoa izan behar da, betiere erabaki-hartzeen prozedurak exijitzen duen azkartasunari negatiboki eragin gabe. Bi aspektu horien arteko oreka bilatzeko EBko Komisioak kontsulta publikoen 8 asteko gutxieneko iraupena aurreikusi du, urgentzia kasuetan murriztu daitekeena.
- e) Azkenik, EBko Komisioak kontsulta publikoan parte hartu duten alderdi interesdunei beren ekarpenak jaso eta aztertu dituela jakinarazi behar die. Alde batetik, ekarpenak jaso izanaren agiria (gaztelaniazko *acuse de recibo*) igorri behar die kontsultan parte hartu duten aktoreei. Bestetik, kontsulta publikoa ospatu ostean, Komisioak aurkeztutako proposamen legegilean (testu normatiboaren arrazoien azalpenean) edo komunikazioan, kontsulta publikoa nola egin den, horren emaitzak zeintzuk diren eta kontuan nola hartu dituen (edo ez) azaldu eta arrazoitu behar du.

COM (2002) 704 final Komunikazioak kontsulta publikoak ospatzeko arautzen dituen printzipio eta baldintza orokor horien eduki materialarekin ados egonda ere, arau horri egiten zaion kritikarik nagusienak onartua izan den forma juridikoarekin du zerikusia. Izan ere, jatorrizko zuzenbide komunitarioak (zehazki EBTren 11.3 artikulua) Komisioari alderdi interesdunekin kontsulta publiko zabalak ospatzeko ezartzen dion oinarritzko mandatuareb edukiak zehazteko, mandatu horren hartzailea den Komisioak berak efektu juridiko loteslerik sorrarazten ez duen komunikazioa bezalako instrumentu bat erabiltzea erabaki du. Borondatezko instrumentu baten bidez onartu izanagatik, kontsulta publikoen arauketaren eduki materialen betearazpen ezak ez du inolako efektu juridikorik sorrarazten³⁶². Komunikazioaren instrumentuak ez du gaitasunik EBTren 11.3 artikuluan Komisioari aurreikusten zaion oinarritzko jarduera-printzipio horren edukiak errespetatzen direla bermatzeko, Komunikazioaren edukien konplimendu faltak ez baitu efektu juridikorik sorrarazten, ezta bide judizialek arau hauste hori salatzeke aukerarik irekitzen ere.

Bestalde, EBTren 11.3 artikulua aurreikusitako mandatu orokorraren hartzailea den EBko Komisia bera da mandatu horren edukien zehaztapen normatiboa egin duena (Komisioaren ko-arauketa kasu baten aurrean gaude beraz). Bestalde, oinarritzko mandatu horren garapen normatiborako komunikazioa bezalako instrumentua erabili da, funtzio

³⁶¹ Zehazki honako web orrialdean [2015-02-05]: ec.europa.eu/yourvoicel

³⁶² Kontsulta publikoen printzipio eta baldintza orokorrak arautu aurretik Komisioak alderdi interesdun desberdinak kontsultatu zituen. Alderdi kontsultatuek gehien kritikatu zuten inguruabarra, kontsulta publikoen arauketa materialekin zerikusia duten aspektuez harago, arauketa horretarako erabilitako forma izan da, izaera juridiko loteslerik ez duen komunikazioa bezalako instrumentua (ikus COM (2002) 704 final, 9. orr.).

legegilea duten EBko Legebiltzar eta Kontseiluari mandatu horren eduki normatiboen zehaztapenean parte hartzeko ahalmenik aintzatesten ez dien instrumentu normatiboa hain zuzen ere.

Laburbilduz, EBren 11.3 artikulua EBko Komisioari zuzendutako jardueraprintzipio horren eduki normatiboa Komisioak berak zehaztu izanak eta zeregin horretarako komunikazioa bezalako borondatezko instrumentua erabili izanak, artikulua horren eraginkortasunari negatiboki eragiten dio eta funtsean, EBTK Komisioari egiten dion oinarrizko mandatu horren hutsaltzea dakar. EBren 11.3 artikulua 2009. urtean Lisboako Tratatuaren indarrean sartzearekin batera aplikagarri bihurtu zen bitartean, azpi-atal honetan aztergai izan dugun COM (2002) 704 final Komunikazioa, dokumentuaren zenbakiak adierazten duen bezala, 2002. urtekoa da. Alde horretatik, EBko Komisioak kontsulta publiko zabalak ospatzeko duen zeregina 2009. urtetik aurrera jatorrizko zuzenbide komunitarioan aurreikusi eta beraz oinarrizko jardueramandatu bihurtu den neurrian, EBren kontsulta publikoen arauketa oinarrizko betekizun horren harira eguneratu egin behar da eta kontsekuenteki, juridikoki loteslea den mekanismo normatibo baten bidez arautua izatera igaro beharko litzateke.

III.4.B.b. 1367/2006 Erregelamenduaren arabera ingurumenarekin zerikusia duten plan eta programen lanketan instituzio komunitarioek parte hartze publikoko fasea deitzeko duten betebeharra

Aurreko atalean aztertutakoa gogora ekarriz, instituzio komunitarioek beren eskuetan duten informaziora herritarrek duten sarbide eskubidea erregimen normatibo orokor eta berezi batez dago egituratua. Sarbide eskubide horren erregimen orokorra 1049/2001 Erregelamenduak arautzen duen bitartean, 1367/2006 Erregelamenduak ingurumen informaziorako sarbide eskubideari marko normatibo espezifikoa aurreikusi dio. Ikuspegi materialetik aztertuta, sarbide eskubideari erregimen bereziak erregimen orokorrak baino izaera bermatzaileagoa aitortzen dio. Ingurumenarekin zerikusia duten plan eta programen lanketan (beren prestaketa, aldaketa eta berrikuspen prozeduretan) gizarte zibilak parte hartzeko duen eskubideak, 1367/2006 Erregelamenduan batez ere kontsulta publikorako forma hartzen duenak, aurreko azpi-atalean azaldu den EBko Komisioaren kontsulta publikoen arauketa orokorrak (COM (2002) 704 final Komunikazioak) baino berme gehiago eskaintzen ditu.

1367/2006 Erregelamenduak eta COM (2002) 704 final Komunikazioak kontsulta publikoetan parte hartzeko aintzatesten duten legitimazioan eta aspektu materialetan arreta jarriz gero, bata eta bestearen artean ez da desberdintasun esanguratsurik hautematen. Ingurumenarekin zerikusia duten plan eta programen lanketan parte hartu dezakeen publiko legitimatua zein den, plan eta programa bakoitzaren izaeraren arabera instituzio komunitarioek kasuz kasu erabaki behar duten kontua da³⁶³. Bestalde, kontsulta publikoen

³⁶³ 1367/2006 Erregelamendua, 9.2 art.

deialdien berri ematen duten iragarpenak argiak izan behar dira (instituzio komunitarioek parte hartzeko modalitateei eta onartu nahi den programa edo planari buruz beharrezkoa den informazio guztia transmititu behar dute) eta iragarki publiko edota formatu elektronikoen bidez egin daitezke³⁶⁴.

Ingurumen plan eta programen kasuan ere parte hartzeko publikoko faseak 8 astetako gutxieneko epea izan behar du, urgentziazko kasuetan edota publikoak dagoeneko plan edo programa horri buruz bere ekarpenak egiteko aukera izan duen kasuetan murriztu daitekeen epea³⁶⁵. Azkenik, instituzio komunitario eskudunek plan edo programa horren gaineko erabakia hartzean parte hartze publikoko fasean egin diren ekarpenak behar bezala kontuan hartu dezaten exijitzen die araudiak, erabakia hartzeko arrazoiak eta inguruabarrak azalduz eta parte hartze publikoaren faseari buruzko informazioa ezagutaraztera emanez³⁶⁶.

III.4.B.c. Parte hartze publikoa instituzio komunitarioen politika eta legegintza prozeduretan: berme teorikoetatik gabezia praktikoetara

Gobernantza komunitario garden eta parte hartzaileago baterako Liburu Zuria argitaratu zenetik hamarkada bat baino gehiago igaro den momentu honetan, herritarrek eta gizarte zibil antolatuek erabaki komunitarioetan duen influentzia mailak oso baxua izaten jarraitzen du. Gizarte zibileko erakundeei edota hiritarrei ekimen politiko edo legegileen lanketa prozeduran parte hartu eta beren ikuspuntu eta iritziak plazaratzeko ordenamendu komunitarioak mekanismo formal eta informal desberdinak aurreikusten baditu ere³⁶⁷, beren interesak kasu gehienetan ez dira prozesu horien amaieran onartutako erabaki edo neurrietan islatzen.

Izan ere, legediak gizarte zibilari araugintza prozesuaren hasierako faseetan bere iritzia ezagutarazi eta ekarpenak egiteko aukera legala eskaintzen badio ere, ekarpen horiek ez dute prozesuaren amaieran, erabakitze-faseetan eragiteko gaitasunik erakusten³⁶⁸. Autore batek, EBk osasun, ingurugiro, kontsumitzaileen interes, gai sozial edota merkataritzara bezalako gaiekin zerikusia zuten hainbat araugintza prozesuren azterketa egin ostean, gizarte zibilak araugintza komunitarioko prozesuetan duten parte hartzea *nothing but consultation*³⁶⁹ dela ondorioztatu du: kontsultatua bai, baina ez ordea kontuan hartua.

³⁶⁴ Ikus 9.3 art.

³⁶⁵ 9.4 art.

³⁶⁶ 9.5 art.

³⁶⁷ Espainiar Estatuan ingurumen informaziorako sarbide eskubidea, parte hartzea eta justizia sarbidea 27/2006 Legean arautzen da, 2003/4 eta 2003/35 zuzentarauen transposizio araua dena. 27/2006 Legeak eskaintzen duen diskrezionaltasun normatiboa baliatuz, ingurumenarekin zerikusia duten plan eta programa batzuk instantzia administratiboetan onartu beharrean lege bidez onartzen dira, alderdi interesdunek plan edo programa horien erabakitze prozeduran parte hartzeko gaitasuna nabarmen mugatzen duen instrumentu normatiboaren bidez hain zuzen ere (horri buruz, ikus CUBERO MARCOS, 2014).

³⁶⁸ ESTÉVEZ ARAUJO, 2009:19.

³⁶⁹ KRÖGER, 2008.

Ekimen politiko eta legegile komunitarioei buruzko parte hartze prozeduretan azken hamarkadetan nabarmendu den beste arazoetako bat interes taldeek erabaki-hartze prozeduretan duten pisu asimetrikoa da³⁷⁰. Nahiz eta EBko Komisioak alderdi interesdun guztiekin aldizkako elkarrizketak edukitzeko eta kontsulta publikoan alderdi interesdunen parte hartze ekitatiboa bermatzeko betebeharrak legala izan, praktikak beste errealitate bat erakutsarazten digu: Komisioaren politika eta legegintza proposamenen edukien gainean interes ekonomikoen ordezkari-erakundeek bestelako alderdi interesdunek (besteak beste sindikatuek, GKE-ek edo gizarte zibilak) baino eragin-botere nabarmen handiagoa dute.

Inguruabar horrez jakitun, EBko Komisioak 2008an ordezkari-erakundeen gardentasuna bilatzea xede zuten bi neurri onartu zituen: lobby-en erregistro komunitarioa eta kode deontologiko bat. Kode deontologiko horrek EBko Komisioarekin harremanak mantentzean ordezkari-erakundeek bete behar dituzten printzipio orokorrak arautzen ditu. Ordezkari-erakundeek erregistroan izena emanaz gero kode deontologikoaren edukiak konplitzeko konpromisoa beregain hartzen dute. Hala eta guztiz ere, erregistroa eta kode deontologikoa beste behin erabat hutsalak bihurtu dira, borondatezko erregistro baten aurrean baikaude. Kode deontologikoan aurreikusitako printzipio orokorren aplikazioa saihesteko beraz, ordezkari-erakundeek erregistroan izena ez ematearekin nahikoa dute. Lobby komunitarioen benetako gardentasuna bultzatzeko helburuz sortu zen ALTER-EU izeneko GKE-en arteko aliantzak inguruabar hori gogor salatu du eta 2015eko maiatzean gutun baten bidez Komisioari erregistro hori derrigorrezkoa egin zezala eskatu zion³⁷¹.

Atal honetan azaldutakoa laburbilduz, zuzenbide komunitarioan aurreikusitako parte hartze mekanismo juridikoek ez dute gizarte zibilaren interesak azken erabaki politiko eta legegileetan kontuan hartzeko gaitasun nahikorik erakusten. Ondorioz, herritarrek ez dute EBren bizitza demokratikoan modu erreal, aktibo eta eraginkorrean parte hartzen. Parte hartze publikoko fase horien helburua, funtsean, beste bat dela esan daiteke: gizarte zibilari ekimen politiko eta legegileen prozeduretan parte hartu ahal izateko mekanismo formalak aurreikusiz, prozedura horien amaieran instituzio komunitarioek hartzen dituzten erabaki

³⁷⁰ Hirurogeita hamargarren hamarkada arte interes desberdinak ordezkatzeko dituzten erakundeek (ingeles lobby deituak) jardura eremua batik bat Estatu-kideetan zentratzen bazen ere, EBren eskumenak areagotuz joan ahala Komisioa eta Kontseiluaren instituzio komunitarioen inguruan (erabaki-hartze komunitarioetan eskumen nagusiak zituzten instituzioak ziren, EBko Legebiltzarraren kaltetan) interesen ordezkari-erakunde gero eta antolatua egituratuz joan zen. "Lobbying" praktikek azken hamarkadetan EBn bizi izan duen hazkuntza bilakaera hori ordea asimetrikoa izan da: industria eta jardura ekonomiko desberdinen interesak ordezkatzeko dituzten lobby-en presentzia eta Komisioaren politiketan eragiteko gaitasuna nabarmen handiagoa da sindikatuek, interes desberdinak babesten dituzten GKE-en eta gizarte zibil antolatua osatzen duten bestelako erakundeek dutena baino. 70-90. hamarkada bitartean maila komunitarioan gertatzen ziren "lobbying" praktikei buruz ikus MORATA, 1995.

³⁷¹ ALTER-EU aliantzak Komisioari igorritako gutuna guztira 113 GKE-ek sinatu dute. Gutuna online eskuragarri dago, honako web orrialdean [2015-11-10]: <http://alter-eu.org/sites/default/files/documents/ALTER-EU%20Timmermans%20NGO%20letter%2011.5.15.pdf>

materialen legitimotasuna justifikatzea eta erabaki horien erantzukizun politiko posibleak mugatzea³⁷².

III.5. Ziurgabetasun zientifikoaren inguruetako arrisku larriak kudeatzeko mekanismo normatiboa: arreta printzipioa

III.5.A. Printzipioaren garapen normatiboa

Arreta printzipioaren sorrera zehazterako orduan iritzi batasunik ez badago ere, bere jatorria Estatuaren barne ordenamenduan kokatzen dela baieztatu daiteke. Autore askok 70. hamarkadako Alemanian kokatzen dute³⁷³. Zehazki, 1974. urteko emisioen aurkako lege federalean (*Bundesemissionschutzgesetz* izeneko) *Vorsorgeprinzip* izeneko printzipioa onartu zen, garai hartako kutsadurak sortutako euri azidoak hondatzen zituen Alemaniako basoak babestera zuzendua zegoena. Printzipio horren onarpenak ingurumen edo osasunaren arrisku potentzial larri edo itzulezineko egoeretan egikaritu zitekeen akzio publiko baten sorrera eragin zuen³⁷⁴. Beste autore batzuek ordea arreta printzipioa urte batzuk lehenago sortu zela arrazoitzen dute, Suediako 1969. urteko ingurumen legean hain zuzen ere³⁷⁵. Azkenik, doktrinaren beste zati batek printzipio horren jatorria Estatu Batuetako epaileek osasun, ingurumen edo segurtasunari buruzko gatazketan emandako erabaki judizialen bidez denboran zehar egituratzen joan zen kontzeptua da, Europan printzipio horren inguruan eman ziren lehenengo ekimenekin erkatuta, horiek baino lehenagokoa³⁷⁶.

Nazioarteko zuzenbidearen esparruan arreta printzipioa juridikoki 80. hamarkadaren erdialdera aintzatetsi zen lehenengoz, Iparraldeko Itsasoaren Lehenengo Nazioarteko Konferentzian (1984). Itsaso horren kutsadura emisioen arriskuei buruzko ezagutza nahikoa ez zegoela arrazoituz, arriskuak ekiditeko zenbait neurri hartu ziren³⁷⁷. Nazioarte mailan lehenengoz aurreikusia izan zenetik 30 urte inguru igaro diren honetan, arreta

³⁷² FLEAR eta PICKERSGILL, 2012: 8-9, FLEAR eta VAKULENKO, 2010: 661.

³⁷³ Besteak beste, ikusi, EMBID TELLO, 2010: 119, ESTEVE PARDO, 2004: 205, BAHONA, 2004: 250, LAGO CANDEIRA, 2006: 996.

³⁷⁴ BAHONA, 2004:50.

³⁷⁵ Lege honen arauketak ingurugiroarentzat arriskutsuak kontsideratzen ziren jarduerak seguruak zirela frogatzearen karga jardueren arduradunei esleitzen zien. Ondorioz, jarduerak kaltea sortzeko arriskua izanez gero, Suediako agintari eskudunek babes neurriak adostu edota jarduera bera debekatzeko gaitasuna zeukatzen. Ikusi BEYERLING eta MARAUHN, 2011: 47-48.

³⁷⁶ ASHFORD, 2002: 128.

³⁷⁷ Tratatu hauez gain, arreta printzipioa hainbat nazioarteko tratatutan aurreikusi zuen urte horietan zehar: Ozono Kaparen Babesari buruzko Vienako Konbentzioan (1985), gai berdinari buruzko Montrealgo Protokoloan (1987), Iparraldeko Itsasoaren Bigarren Nazioarteko Konferentzian (1987) Dibertsitate Biologikoari buruzko Hitzarmenean (1992) edota Aldaketa Klimatikoaren inguruko Hitzarmen Markoan (1992) aipatzen da.

printzipioa ingurumena edota osasuna babestea helburu duten nazioarteko tratatu garrantzitsuenetan espresuki aurreikusitako printzipioa dela esan daiteke³⁷⁸.

Printzipio horren edukien eta elementuen interpretazioa urteak aurre egin ahala bilakatuz joan da, batik bat 90. hamarkadan adostu ziren nazioarteko adierazpen desberdinen bidez. 1990. urteko Bergeneko Deklarazioan arrisku larri eta itzulezinen aurrean, nahiz eta arrisku horren frogapen zientifikoa erabatekoa ez izan, agintariei babes neurriak hartzeko mandatu zuten³⁷⁹. Ingurugiro eta Garapenari buruzko Nazio Batuen 1992. urteko konferentzian (Rio de Janeiroko konferentzia bezala ezagutua) arreta printzipioaren nazioarteko definizio bat adostu zen. Definizio horren arabera, ingurumena babesteko helburuz Estatuek beren gaitasunaren arabera arretaren irizpidea modu zabalean aplikatu behar dute. Kalte larri edo itzulezinezkoa gertatzeko arriskua egonez gero, ezagutza zientifiko osorik eskuragarri ez edukitzea ezin da ingurumenaren degradazioa saihesteko neurri eraginkorren adostea atzeratzeko arrazoi bezala erabili³⁸⁰.

Rio de Janeiroko Deklarazioaren ostean, Wingspread-eko Adierazpenak (1998) eta EBko Komisioaren COM (2000)1 Gomendioak aparteko garrantzia izan dute printzipio honen egiturapenean. Wingspread-eko Adierazpena Estatu Batuetako eta Kanadako zientifiko, filosofo, jurista eta erakunde ekologista batzuek printzipio horren inguruan egindako gogoeta desberdinen emaitza da. COM (2000)1 Komunikazioa aldiz, Maastrichteko Tratatuaren bidez Europar Batasunean barneratutako arreta printzipioa definitu eta estrukturatzeko EBko Komisioak emandako gomendioa da. Wingspread-eko Adierazpenak arreta printzipioaren ikuspegi bermatzaileagoa egituratzen du, COM (2000)1 Gomendioak aldiz, printzipioaren interpretazio kontserbatzaileagoa egiten du³⁸¹.

Europar Batasunean arreta printzipioa Maastrichteko Tratatuarekin batera aurreikusi zen. Zehazki EBFTren 191.2 artikuluan aurreikusten da, ingurumenaren babesarekin zerikusia duten beste oinarritzko printzipioekin batera. Artikulu horri jarraiki Europar Komunitatearen ingurumen politika arreta printzipioan, saihaspen akzioan, ingurugiroan sortutako kalteen zuzentze printzipioan (ahal izanez gero, kaltearen iturrian bertan) eta kutsatzen duenak ordaintzen du printzipioan oinarritu behar da. Artikulu horrekin batera arreta printzipioa EBFTren beste hainbat artikulurekin batera ulertu behar da. Alde batetik, EBFTren 11. artikuluan aintzatesten den integrazio printzipioaren harira arreta printzipioa ingurumenaren babeserako jarraitu beharreko politiken eta egintza komunitarioen

³⁷⁸ Arreta printzipioa esanbidez aurreikusten duten nazioarteko tratatu garrantzitsuenen zerrendapena honako dokumentuan egiten da: GEE, 2013: 648-649 (27.1. taula).

³⁷⁹ 1990. urteko Bergeneko Deklarazioaren 7. paragrafoa.

³⁸⁰ Rio de Janeiroko 1992ko Ingurugiro eta Garapenari buruzko Nazio Batuen Deklarazioaren 15. artikulua, gaztelaniazko bertsioan: *Con el fin de proteger el medio ambiente, los Estados deberán aplicar ampliamente el criterio de precaución conforme a sus capacidades. Cuando haya peligro de daño grave o irreversible, la falta de certeza científica absoluta no deberá utilizarse como razón para postergar la adopción de medidas eficaces en función de los costos para impedir la degradación del medio ambiente.*

³⁸¹ Wingspread-eko Adierazpenaren arabera, jarduera batek osasun edo ingurumenarentzat kaltea sorrarazi dezakeela uste bada arreta neurriak onartu behar dira, nahiz eta kausa-efektu erlazio zientifikoa guztiz frogatuta ez egon. Komisioaren 2000/1 Gomendioaren arabera aldiz, arreta printzipioa aktibatzekeo jarduera arrisksuaren eta sorrarazi daitekeen kaltearen artean kausalitate harremana egon behar da, nahiz eta kausalitate hori ondorioztatzen duen ebaluaketa zientifikoa erabatekoa ez izan.

definizioan barneratu beharra dago, garapen sostengarria lortze aldera³⁸². Tratatu horren 168. eta 169. artikuluei jarraiki ingurumenaz gain osasunaren babesera ere Europar Batasunaren politika guztiek kontuan hartu behar duten zeregina da.

Artikulu horrekin harremanean, arreta printzipioaren aktibazioa ez da ingurumenaren babesarekin lotutako gaietara mugatu behar, osasunaren babesera ere hedatzen da. Maastrichteko Tratatuaren onarpenarekin batera arreta printzipioa lehenengoz aurreikusi zen momentuan bere aplikazioa ingurumena babestera mugatzen bazen ere, 1999. urteko Amsterdameko Tratatuaren ostean printzipio horren aplikazio eremua gizakion osasunera ere hedatu zen³⁸³. Tratatu komunitarioez gain arreta printzipioa arauketa komunitario sektorialetan ongi erroturik dagoen printzipioa da, besteak beste, kontsumo produktuen arauketa desberdinetan³⁸⁴ eta ingurumenaren babeserako marko normatiboan³⁸⁵.

III.5.B. Printzipioaren izaera eta ezaugarriak

Arreta printzipioa arriskuen ziurgabetasun zientifikoko egoeren aurrean zuzenbideak eman beharreko erantzunei argitasuna eskaintzeko helburuz sortu zen, zuzenbideak planteatutako postulatu juridikoen eskema klasikoa (kausalitate harremanean eta ziurtasunean oinarritutakoa) gainditzen duen printzipio bezala³⁸⁶. Arrisku potentzialen ziurgabetasun egoera horietan arreta printzipioak zuzenbidearen bestelako erantzun bat proposatzen du, arrisku eta kalte potentzialei aurre hartzean funtsa duena³⁸⁷. Arriskuen ziurgabetasun eta globaltasunak eragiten duen konplexutasunari aurre egiteko funtsa duen printzipioa izanik, bizi garen arrisku gizarte globalizatua kudeatzeko diseinatu den mekanismo normatiboa da arreta printzipioa. Arreta printzipioaren definizio, izaera, barne elementu edota interpretazioari buruzko iritzi adosturik ez da existitzen gaur egun, esfera politiko eta doktrinalean bere egiturapenak eztabaidagai izaten jarraitzen baitu.

³⁸² EMBID, 2010: 158.

³⁸³ BAHONA, 2004: 254.

³⁸⁴ Arreta printzipioa produktu desberdinen arauketa sektorialetan esanbidez aurreikusi den printzipioa da, batzuetan arauketa bertan, beste batzuetan arauketa hitzaurreetan. Beste askoren artean, arreta printzipioa honako arauketa aurreikusten da: substantzia, prestakin eta artikulu kimikoei buruzko 1907/2006 Erregelamenduan, bioziden komertzializazioari 528/2012 Erregelamenduan, Kosmetikoen 1223/2009 Erregelamenduan, Elikagaien segurtasun komunitarioaren printzipio orokorrei buruzko 178/2002 Erregelamenduan edota aparatu elektrikoei eta elektronikoei buruzko 2011/65 zuzentarauan.

³⁸⁵ Arreta printzipioa aldiz, uraren, airearen, hondakinen, istripu arriskutsuen eta IPPC sistemari buruzko arau desberdinetan aplikagarria da, batzuetan esanbidez, bestetan zeharka. Uraren eta hondakinen arau komunitarioek arreta printzipioa espresuki aurreikusten dute, 2000/60 zuzentarauko 11. eta 44. kontsiderazioetan (ura), 2008/98 zuzentarauko 30. kontsiderazioan eta 4.2.3 artikuluan (hondakinak). Airearen babesari buruzko 2008/50 zuzentarauak arreta printzipioa ez du esanbidez aipatzen. Hala ere, zuzentarauak ingurugiroaren babes altua eskaintzen duten neurriak sustatzea dauka helburu gisa. IPPC sistemari buruzko 2008/1 zuzentarauak ere ez du printzipioaren aplikazio orokorra esanbidez aurreikusten, nahiz eta IV. eranskinean eskuragarri dauden teknika onenak aukeratzeko orduan arreta printzipioa kontuan izan behar dela aipatzen den. Istripu arriskutsuen inguruko 96/82 zuzentarauak ere ez du arreta printzipioa esanbidez aurreikusten. Hala ere, zuzentarauan zehar arreta eta saihepen izaera duten neurri asko arautzen dira.

³⁸⁶ LAGO CANDEIRA, 2006: 996; GONZÁLEZ VAQUÉ: 1999; BERBEROFF AYUDA, 2005: 27.

³⁸⁷ BOISSON DE CHAZOURNES, 2009: 166-167.

III.5.B.a. Arreta printzipioaren izaera normatiboari buruzko iritzi aniztasuna

Nazioartean eta barne zuzenbidean onartu diren tratatu eta arau desberdinek arreta printzipioaren inguruan egiten duten egiturapenari kasu eginez gero, bere definizio uniforme eta adosturik ez dagoela ondorioztatu daiteke (zenbait autorek arreta printzipioaren 19 formulazio desberdin identifikatu dituzte³⁸⁸). Kontzepzio anitz horien abstrakzio azterketa bat eginez gero ordea, arreta printzipioaren oinarrizko edukari buruzko honako definizioa proposatu daiteke: J/S/T batek osasun edo ingurumenean kalte esanguratsuak eragin ditzakeenaren arrazoizko zantzuak daudenean baina eskuragarri dagoen informazio zientifikoa hori frogatzeko nahikoa ez denean, ziurgabetasun zientifiko garrantzitsuak daudenean edota adituen artean arrisku horri buruzko iritzi bateraturik ez dagoen kasuetan, ezagutza zientifikoa osatu dadin itxaron beharreak kalte potentzial horiei aurre egiteko *ex ante* neurriak onartzean datza³⁸⁹.

Hala eta guztiz ere, arreta printzipioaren aplikaziorako kalte potentzialek izan behar duten gutxienezko entitatearen, existitu beharreko ziurgabetasun mailaren edota onartu behar diren arreta neurriei buruzko irizpide uniformetasunik ez dago³⁹⁰. Ordenamendu juridiko bakoitzak arreta printzipioari aintzatesten dion izaeraren arabera garrantzi desberdina izan dezake J/S/T baten arrisku ziurgabeen kudeaketa erabakietan. Printzipio horri normatiboki aintzatesitako garrantziaren arabera, arrisku kudeaketa prozeduraren baitan agintari eskudunek arreta printzipioa kontuan hartu behar izatea betebeharr juridikoa izan daiteke, eta beste kasu batzuetan ordea hautazkoa³⁹¹.

Arreta printzipioaren izaeraren aniztasun hori nazioarte mailan, esparru komunitarioan eta Estatuaren barne ordenamendu juridikoan printzipioari aintzatesten zaion kontzepzio desberdintasunean islatzen da. Nazioarteko esparruan, arreta printzipioa ingurumenaren babesarekin zerikusia duten nazioarteko instrumentu normatibo askotan aurreikusten da, bai *soft law* baita *hard law* izaera dutenetan. Autore batzuek eta UNESCO berak arreta printzipioa nazioarteko zuzenbidearen ohitura bihurtu dela³⁹² arrazoitzen dute (eta ondorioz juridikoki loteslea den nazioarteko zuzenbidearen printzipioa). Beste autore batzuek aldiz, nazioarteko printzipio orokorraren izaera aintzatesteko beharrezkoa den nazioarteko aintzatespena eta kontsentsua falta zaizkiola argudiatzen dute³⁹³.

³⁸⁸ SANDIN, 1999.

³⁸⁹ Besteak beste, PLAZA MARTÍN, 2006: 329; GRUSZCZYNSKI, 2010:160.

³⁹⁰ Arreta printzipioaren definizio edukien desberdintasunak hautemateko, ikusi: Rio de Janeiroko 1992ko Ingurugiro eta Garapenari buruzko Nazio Batuen Deklarazioaren 15. artikulua (kapituluaren 7. oin-oharra ikusi), Wingspread-eko Adierazpenean edota EBko Komisioaren COM (2000)1 Gomendioan eginiko formulazio desberdinak edota doktrinak egituraturiko definizioak (besteak beste, ikusi VON SCHOMBERG, 2006: 36-37).

³⁹¹ Arie Trouwborstek arrazoitzen duenaren arabera, Estatuak arreta printzipioa aplikatzeko eskubidea edota betebeharra izan dezakete, J/S/T batek sorrarazi ditzakeen kalte potentzialen larritasun intentsitatearen arabera. Kalte potentzialak esanguratsuak direla ondorioztatuz gero, Estatuak arreta printzipioa aplikatzeko eskubidea izango du. Aldiz, kalte potentzialak larriak edota atzeraezinak direla ondorioztatzen den kasuetan, Estatuak arreta printzipioa aplikatzeko betebeharra daukatela ulertzen du autoreak.

³⁹² SADELEER, 2003: 130 edo TROUWBORST, 2006: 8. UNESCOren kasuan, UNESCO 2005: 51-52.

³⁹³ MCGINNIS, 2003.

Esparru komunitarioari dagokionez, doktrinaren zati garrantzitsu batek zuzenbide komunitarioaren printzipio orokor bezala kalifikatu du³⁹⁴. Izan ere erakunde komunitarioek, EBko oinarrizko tratatuek, arauketa sektorial komunitario desberdinek eta jurisprudentzia komunitarioak³⁹⁵ esanbidez eta zabalki onartzen duten printzipioa da arretarena. Ludwig Krämer autorearen esanetan ordea arreta printzipioak eta EBFren 191.2. artikulua dute efektu juridiko zuzenik sorrarazi beharrean, politika komunitarioarentzako zeregin orokorren izaera dute eta kontsekuenteki, arrisku kudeaketaren prozeduraren baitan autoreak ez die indar loteslerik aintzatesten³⁹⁶. Beste autore batzuek arreta printzipioa zuzenbide komunitarioaren prozesu-printzipio edota administrazio onaren printzipio bezala³⁹⁷ ere kalifikatu izan dute. Oinarrizko tratatu komunitarioekin batera arreta printzipioa arauketa komunitarioa sektorialetan esanbidez aurreikusi eta arautzen den neurriak arau juridiko idatziaren izaera ere badu³⁹⁸.

Estaturen barne zuzenbidearen kasuan arreta printzipioaren egiturapen ezaugarriak eta aintzatespen juridikoa heterogeneotasun normatiboaren sinonimo da. Frantzia eta Alemanian esate baterako printzipio horrek izan duen ibilbidea eta bertako ordenamendu juridikoek eskaintzen dioten aitorten juridikoa esanguratsua da. Alemaniaren kasuan arreta printzipioa ez zen nazioarteko zuzenbidetik inportatu, 70. hamarkadaren erdialdetik aurrera Alemaniako barne zuzenbideak arreta printzipioaren iturburua den *Vorsorgeprinzip* ingurugiro printzipioa normatiboko aurreikusi baitzuen. Frantzia, nahiz eta arreta printzipioaren jatorria komunitarioa izan, printzipioari balio konstituzionala aitortzen zaio³⁹⁹.

Arreta printzipioaren aplikaziorako bete behar diren baldintzen inguruan ere ikuspegi desberdinak bereizi daitezke. Alde batetik, arreta printzipioaren aplikazioa perilean oinarritu behar dela defendatzen dutenak. Bestetik, arreta printzipioaren aplikaziorako arriskuan oinarritutako ikuspegia egokitu behar dela irizten dutenak. Azkenik, printzipio bat izan beharrean, arreta teknika legal bat dela argudiatzen dutenak:

a) *Perilean oinarritutako arreta printzipioaren ikuspegia*. Arreta printzipioaren bertsio gogorrena da. Arreta printzipioan oinarritutako neurriak aktibatzeke, J/S/T baten inguruan ziurgabetasun elementuak sorrarazten dituzten arriskuak identifikatze hutsarekin nahikoa da. Alegia, arreta printzipioaren neurriak arrisku horri buruzko ebaluaketa zientifikoaren ondorioei itxaron behar izanik gabe hartu daitezke. Ikuspegi

³⁹⁴ Beste askoren artean: ARAGÃO, 2010: 73; BERBEROFF AYUDA, 2005: 25; GONZALEZ VAQUÉ, 2005: 119; MOURE, 2013: 29; RUIZ-JARABO COLOMER, 2005: 81.

³⁹⁵ Lisboako Tratatu indarrean sartu ondoren (2009) Auzitegi Orokorra (gaztelaniaz, *Tribunal General*) ordezkatu duen EBJaren Lehenengo Instanziako Auzitegiak (LIA), 2002. urtean eman zuen *Artegodan* sententzian arreta printzipioa zuzenbide komunitarioaren printzipio orokorra zela baieztatu zuen, baita 2003. urteko *Solvay Pharmaceuticals* kasuari buruzko sententzian ere. Ikusi: LIA (EBJA) *Artegodan GmbH and others vs. Commission*, T-74/00, (2002-11-26), 184. paragrafoa eta LIA (EBJA) *Solvay Pharmaceuticals vs. Commission*, T-392/02, (2003-10-21), 121. paragrafoa.

³⁹⁶ KRÄMER, 1999: 91-93.

³⁹⁷ GONZALES VAQUE, 2005a:101; 2005b: 119.

³⁹⁸ BERBEROFF AYUDA, 2005: 26.

³⁹⁹ Arreta printzipioak Alemania edo Frantzia duen egiturapenari buruz sakonago: EMBID TELLO, 2009: 130-136.

horren arabera arreta neurrien aplikazioaren helburua “zero arriskua” lortzea izan behar da. Praktikan, “zero arrisku” hori bermatzeko neurririk egokiena J/S/T hori debekatzea da, modu horretan ez baitu inolako arriskurik sortarazteko gaitasunik izango. EBko Komisioaren⁴⁰⁰ eta autore batzuen aburuz gaur egun bizi garen gizarte moderno eta teknologiko honetan “zero arriskua” lortzea ezinezkoa da⁴⁰¹, arrisku anitz, heterogeneo eta batzuetan ezezagunez inguratutako arrisku gizarte batean bizi baikara.

- b) *Arriskuan oinarritutako arreta printzipioaren ikuspegia*. Arreta neurriak hartu aurretik J/S/T baten arriskuen ebaluaketa egin behar da. Ebaluaketa burutu ostean, arriskuen ziurgabetasun elementuak identifikatu eta kalte potentzialen larritasunaren eta entitatearen arabera, arreta printzipioan oinarritutako neurriak aktibatu daitezke. EBren “COM(2000)1 final” gomendioa arreta printzipioaren interpretazio horrekin bat dator.
- c) *Arreta, teknika legal soil bat bailitzan ulertzen dutenen ikuspegia*. Doktrinaren gutxiengo batek arreta, printzipioa izan beharrean, J/S/T-en arriskuen ziurgabetasun elementuak tratatzeko agintari eskudunek erabili dezaketen teknika legala dela interpretatzen du⁴⁰². *Precautionary principle* deitu beharrean, *precautionary approach* bezala definitzen dute eta beraz, arretari printzipio normatiboaren izaera ukatzen diote⁴⁰³. Arreta neurrien aplikazioa kostu eta onuren analisisira lotuta geratzen da eta neurriok aktibatzeke exijitzen den arrisku maila handiagoa da arreta printzipio bezala ulertzen denean baino⁴⁰⁴.

III.5.B.b. Eztabaida doktrinala: arreta printzipioari egiten zaizkion kritikak eta kritika horiei emandako erantzunak

Arreta printzipioari buruzko interpretazio desberdinekin batera, zenbait korrante doktrinalek printzipio horren izaera, egiturapen edota aplikagarritasunari buruzko kritikak egin dituzte. Datozen lerroetan beraz, autore desberdinek eginiko kritika nagusiak eta horien kontra-argumentu bezala erabilitako argudioak aztertzen dira. Arreta printzipioari egiten zaizkion kritika nagusienak hurrengoak dira:

⁴⁰⁰ EBko Komisioak arreta printzipioari buruz eman zuen COM (2000) 1 final gomendioan “0” arriskua nekez existitu daitekeela arrazoitu du, edozein J/S/T-k arrisku bat eragiten baitu, intentsitate handiagoa edo txikiagoa izan dezakeen arriskua.

⁴⁰¹ Besteak beste: ESTEVE PARDO, 2003b: 333-335; DOMENECH PASCUAL, 2006: 305-307; DÍAZ DE TERAN VELASCO, 2007: 2-3.

⁴⁰² *Precautionary approach* deritzonaren alde, beste askoren artean: MAJONE, 2002; WELSH eta ERVIN, 2006 edo ALLHOFF, LIN eta MOORE, 2010. Beste autore batzuek aldiz, *precautionary principle* eta *precautionary approach* kontzeptuak berdinak bailiran erabiltzen dituzte, desberdintasunik egin gabe beraiekiko (adibidez, BIRNIE et al, 2009).

⁴⁰³ BERBEROFF AYUDA, 2005: 34.

⁴⁰⁴ Ibid; LAGO CANDEIRA, 2006: 997.

- a) Printzipioaren edukia osatzen duten elementuak zehaztugabeak dira, ez dute uniformetasunik eta inkoherenteak dira. Ondorioz, agintari eskudunek arrisku kudeaketa neurriak diseinatzeko diskrezionaltasun maila handia aitortzen dien printzipioa da⁴⁰⁵.
- b) Printzipioak diskriminazio politikak sustatzen ditu⁴⁰⁶.
- c) Printzipioa ez da balore eta ezagutza zientifikoetan oinarritzen. Are gehiago, arreta printzipioa aplikatzean zientzia bera arbuiatu egiten da. Printzipioa arriskuaren inguruko irizpide zientifikoak kontuan hartu gabe aktibatu daiteke eta arrisku-analisiaren baitan zientziak izan behar duen rola bazterrarazi egiten du⁴⁰⁷.
- d) Aurreko kritikarekin erkatuz gero, José Esteve Pardok arreta printzipioari kontrako zentzuan egiten dio kritika. Autore horren esanetan arreta printzipioaren aktibazioa indarrean dagoen araudiaren salbuespen neurria da, araudi horren aplikazioa suspentsio egoeran geratzen baita. Salbuespen neurri horiek arrisku potentzialaren inguruko ziurgabetasun zientifikoa argitzen den artean mantentzen direnez, salbuespen egoera horrekin noiz amaitu zehazteko gaitasuna zientziari esleitzen zaio. Beraz, Este Pardoren esanetan arreta printzipioaren aktibazioaren bitartez zientziari zuzenbidearen gaineko salbuespen egoera deklaratzeko gaitasuna aitortzen zaio⁴⁰⁸.
- e) Arreta printzipioa berrikuntzaren, garapen teknologikoaren eta ikerketa askatasunaren aurka jarduten duen mekanismoa da; ondorioz, garapen ekonomikoari negatiboki eragiten dio⁴⁰⁹.

Kritika horiek banan-banan aztertu ditzagun. Autore batzuek arreta printzipioari kritikatzeko dioten uniformetasun-eza edota malgutasun hori, printzipioak berezkoa duen ezaugarri bezala interpretatu behar da. Arreta printzipioaren juridikoki aurreikusten den testuinguru legal, instituzional eta soziopolitikoaren arabera desberdina modu ezberdin batean konfiguratu da⁴¹⁰. Uniformetasun-eza eta malgutasun hori arreta printzipioaren funtzionaltasunerako beharrezko aurre-baldintza da, testuinguru eta izaera orotako arriskuak kudeatu ahal izateko ezinbesteko baldintza⁴¹¹. Arreta printzipioari falta zaion uniformetasun hori, gainera, kasuan kasuko J/S/T-aren arriskuen kudeaketa prozeduran definitzen da. Hots, arreta printzipioa aplikatzen den arrisku kudeaketa prozesu bakoitzean, arriskua inguratzen duten inguruabar faktiko-enpiriko espezifikoaren arabera, printzipioaren izaera eta aplikazio baldintzak interpretatu eta zehaztu egiten dira⁴¹².

Arreta printzipioaren izaera malgua eta dinamikoa denez, kasuan kasuko J/S/T-en arriskuen ezaugarrietara eta denbora pasa ahala arrisku horri buruz (eta inguratzen duten ziurgabetasun elementuei buruz) lortzen den informazioa uneoro egokituz doan printzipioa da. Arauketa juridiko konbentzionalek segurtasun juridikoa eskaintzeko

⁴⁰⁵ BODANSKY, 1991: 43; COZAR ESCALANTE, 2005 edota HARRIS eta HOLMS, 2002.

⁴⁰⁶ COZAR ESCALANTE, 2005.

⁴⁰⁷ POTTAJE, 2007; MORRIS, 2010 edo HOLMS eta HARRIS, 1999.

⁴⁰⁸ ESTEVE PARDO, 2009: 147.

⁴⁰⁹ COZAR ESCALANTE, op. cit; HARRIS eta HOLMS, 2002.

⁴¹⁰ FISHER, 2009: 23.

⁴¹¹ JORDAN eta O'RIORDAN, 1999: 18.

⁴¹² Ibid: 18. orr.

helburuz planteamendu juridiko zurrinak eta estatikoak egiten dituzte. Logika normatibo horren ondorioz, J/S/T-en marko normatiboen egiturapenak geldoak izan ohi dira, nahiz eta J/S/T horren arriskuei buruzko ezagutza zientifiko-teknikoa modu azkarragoan aldatzen joan. Arreta printzipioak beraz zuzenbidearen arauketa zurrin eta estatikoen logika normatiboarekin apurtu eta bestelako planteamendu bat egiten du, kasuan kasuko arriskuen ziurgabetasunen ezaugarrietara hobeto egokitzen den tratamendu juridiko flexiblea eta irekia⁴¹³ hain zuzen ere. Funtsean, ziurgabetasun elementuz inguratutako arriskuen aurrean, arrisku horren kudeaketan parte hartzen duten agintari eskudunei neurri egokiak egituratzeko baliabideak eskaintzen dizkion printzipioa da arretarena⁴¹⁴.

Ondorioz, arreta printzipioaren aplikazioaren bitartez legearen izaera zurrin eta estatikoari flexibilitatea eta dinamikotasuna eskaintzen dizkien bestelako planteamendu juridikoa eramaten da aurrera, arrisku potentzial ziurgabeak kudeatzeko unean-uneke ezagutza zientifikora egokitzen doana⁴¹⁵. EBko Komisioaren COM (2000)1 Gomendioak arreta printzipioaren aplikazioari buruzko irizpide finkoak eta zurrinak ezartzen dituzenez, COM (2000)1 Gomendia arreta printzipioaren uniformetasunik eza horren aurka joan litekeela arrazoitzen duen autorerik bada⁴¹⁶. Izan ere, kasuan kasuko arrisku kudeaketa prozesuaren berezitasunetara egokitzen diren irizpide dinamiko eta moldagarrien planteamendua egin beharrean, Komisioaren gomendioak arrisku kudeaketa prozeduran arreta printzipioaren irizpide konkretu batzuen aplikazioa proposatzen du.

Arreta printzipioari egiten zaion beste kritiketako bat diskriminazio politikak sustatzen dituela da. Alegia, konparagarriak eta antzeko ezaugarriak dituzten J/S/T-en arriskuen artean, printzipioak erabaki arbitrarioak eta bata bestearekiko desberdinak diren erabakiak onartzea (edota alderantziz, ezaugarri desberdinak dituzten arriskuekiko erabaki berberak hartzea) ahalbidetzen omen du. Argudio horren aurka ordenamendu juridiko desberdinek diskriminazio ezaren printzipioa aurreikusten dutela azpimarratu behar da. Ordenamendu komunitarioan esate baterako, diskriminazio ezaren printzipioak arreta printzipioa aplikatzean kontuan hartu behar den azpi-printzipio bezala funtzionatzen du⁴¹⁷. Horrelako egoerarik ematen ez dela bermatzeko, arreta printzipioaren aplikazioaren kasuan kasuzko azterketa egin behar da. Arreta printzipioa aplikagarria den arrisku kudeaketa prozedura bakoitzean, diskriminazio ezaren printzipioarekin batera gardentasun eta parte hartze printzipioak ere kontuan hartu behar dira⁴¹⁸ (kapitulu honetan aurrera aztertzen diren beste printzipio batzuekin batera). Izan ere, arreta printzipioak berezkoa duen malgutasunak gardentasun eta parte hartze printzipioarekin interakzioan jardutea ahalbidetzen dio arriskuaren onargarritasunaren zehaztapenean⁴¹⁹. Zuzenbide komunitarioaren prismetik aztertuta beraz, arreta printzipioaren aplikazioa

⁴¹³ Besteak beste, BOISSON DE CHAZOURNES, 2009: 165; LAGO CANDEIRA, 2006: 996.

⁴¹⁴ FISHER, 2009: 25.

⁴¹⁵ ELLIS, 2006: 462.

⁴¹⁶ FISHER, op. cit, 38. orr

⁴¹⁷ Ikusi COM (2000)1, 6.3.2. atala.

⁴¹⁸ LUIZ BONAMIGO, 2010: 269 eta UNESCO, 2005: 42.

⁴¹⁹ BOISSON DE CHAZOURNES, op. cit, 179-180.

diskriminatzailea ez izateko beharrezko berme prozesalak aurreikusten direla arrazoitu daiteke.

Bestalde, arreta printzipioaren eta zientziaren arteko harremana areriotasunean oinarritzen dela kritikatzeko duen autorerik ere bada. Ikuspegi doktrinal horren arabera arreta printzipioa aplikatzean zientziaren aurka jotzen da. Interpretazio horren aurka, arreta printzipioak zientzia sendoaren beharra duela azpimarratu behar da⁴²⁰. Alegia, zientziaren zeregina arriskuaren ebaluaketa prozeduran bere ziurgabetasun elementuak behar bezala identifikatu, aztertu eta horiei buruzko informazio osoa lortu eta transmititzea izan behar da.

Zentzu horretan, komite zientifikoek arrisku baten inguruan egon daitezkeen ziurgabetasun elementu desberdinak identifikatu eta galdera desberdinak planteatu behar dituzte; esaterako, non dago ziurgabetasuna, nolakoa da eta nola kontrolatu edo murriztu daiteke?. Arrisku kudeaketa prozeduraren arrakasta, hain zuzen ere, ziurgabetasun elementu horiei buruzko informazio zientifikorik zorrotzena eta osoa lortzera baldintzatuta dago. Izan ere, informazio zientifiko hori erabat lagungarria da arreta neurrien ildo zehazterako orduan. Ikerketa zientifiko arreta printzipioaren harira egokitu beharreko neurrien egiturapenean lagungarria izan dadin, ebaluaketa zientifikoaren hurrengo aldaketak proposatu dira⁴²¹:

- a) Ikerketa zientifikoaren bidez J/S/T horren inguruan eskuragarri dagoen jakintza maila handitu eta ziurgabetasunak murrizteko helburura bideratutako planteamendu zientifiko berritzaileak eta osagarriak garatu behar dira.
- b) Ikerketa zientifiko horien harira lortutako aurkikuntzak publikoki komunikatu behar dira, ikergai den J/S/T horren arriskuen izaera eta tamainaren inguruko arrazoipen eta hausnarpen publikoak ere bultzatze aldera.
- c) Ikerketa zientifiko horiek, nola ez, jokoan dauden interes kontrajarriekiko modu independenteenean aurrera eramatea funtsezkoa da.

Mendebaldeko Estatuetan J/S/T-en arrisku-analisi eskemaren baitan “zientzia arautzailearen” jarrera hartu izan da askotan. Hots, arriskuen inguruko ziurtasuna bilatze aldera, arrisku kudeatzaileek arriskuen inguruko erabakien sostengua zientzian bilatzen dute, arriskuen ebaluaketa zientifikoan alegia. Zentzu horretan, arriskuaren ebaluaketa zientifikoetik eratorritako emaitza eta ondorio zientifikoek arrisku kudeaketaren erabakietan oinarritzeko elementu erabakitzaile bezala funtzionatzen dute. Zientziaren eta arrisku ebaluaketaren rola, arrisku kudeaketa prozeduraren baitan arriskuen inguruko informazio osoa eskaintzea izan behar da. Hala eta guztiz ere, zientzia ezin da arrisku

⁴²⁰ Baieztapen horren aldeko azalpena, besteak beste, GRANDJEAN, 2013.

⁴²¹ Ibid: 239. orr.

kudeaketa prozeduran agintari eskudunek hartzen dituzten erabakien ispilu bihurtu. Arrisku kudeaketa erabakiek politikoak izan behar dute, ez ordea zientifikoak⁴²².

Aurreko kritikaren beste muturrean, Esteve Pardo autoreak arreta printzipioari bestelako kritikak egiten dizkio. Zehazki, autore horren aburuz printzipio horrek indarrean dagoen arauketa juridikoa suspentsio egoeran utzi eta egoera horri buruzko erabakitze gaitasuna jakintza zientifikoaren instantzietara transferitzen du. Esteve Pardok egiten duen deskribapen horretan, arreta printzipioak, printzipio gisa baino, mekanismo edo instrumentu juridiko gisa jarduten du. Aitzitik, Esteve Pardok egiten duen interpretazio murriztaile hori ez dator arreta printzipioaren izaera aniztasunarekin bat. Arreta printzipioak ez du inguruabar konkretu batzuk betetzen direnean aktibatu daitekeen instrumentu juridiko bezala soilik funtzionatzen; horrekin batera, eta are modu garrantzitsuagoan, ordenamendu juridiko komunitarioaren eta botere publikoen jardutearen gaineko printzipio inspiratzaile gisa ere jarduten du.

J/S/T baten arriskuen arabera arreta printzipioa aktibatzeke aurrebaldintzak betetzen diren kasuetan, arreta printzipioaren aktibazioak ez du zertan esan nahi indarrean dagoen ordenamendu juridikoaren gainean salbuespenezko neurriak onartu behar direnik. Horren ordean, ordenamendu juridikoak berezkoak dituen barne aldaketa prozedura formalak erabili behar ditu, arreta printzipioaren zentzuari jarraiki, J/S/T horrek planteatzen dizkion arrisku esanguratsu eta ziurgabe horiek egokitasunez tratatzeko mekanismo normatiboak aurreikusi ahal izateko. Arretak printzipio normatibo gisa funtzionatzen duenean ez da indarrean dagoen arauketaekin apurtzen. Apurketa normatibo horren ordean, arreta printzipioak arriskuen ziurgabetasun testuinguru horri tratamendu juridiko egokia eman ahal izateko arauketa juridikoaren aldaketa bultzatzen du, ordenamendu juridikoak aurreikusitako prozedura legal formalen bidez betiere.

Zuzenbide komunitarioaren printzipio inspiratzaile bezala funtzionatzearekin batera, Esteve Pardok azpimarratzen duen bezala arreta printzipioak instrumentu juridiko bezala ere jardun dezake. Indarrean dagoen araudiak J/S/T baten arrisku potentzialen aurrean osasun eta ingurumenaren babes maila altua bermatzeko gaitasunik erakusten ez duen kasuetan, arreta printzipioak osasuna edo ingurumena babesteko arrazoietan oinarrituz araudi hori suspentsio egoeran uzteko gaitasuna du, baita araudi horietan oinarrituz emandako egintza administratiboak ere (produktu bat komertzializatzeko baimena adibidez). Suspentsio egoera hori, hain zuzen ere, marko normatibo horrek osasuna eta ingurugiroa babesteko jatorrizko zuzenbide komunitarioak exijitzen duen babes maila altua eskaintzeko gaitasunik erakusten ez duelako gertatzen da. Salbuespen egoera hori deklaratu edo altxatzeko erabakia agintari publikoena da eskusiboki, nahiz eta informazio zientifikoan oinarri izan dezakeen erabakia izan.

Arreta printzipioari egin zaion beste kritika garrantzitsu bat garapen teknologikoa oztopardatzeko diseinaturik dagoen printzipioa dela da. Arreta printzipioaren oinarritzko helburua etorkizun seguruago bat bultzatzea da. Arreta printzipioak etorkizun ziurgabeari

⁴²² ELLIS, 2006: 451.

aurre hartzea du helburu, etorkizunera begirako garapena zentzuzkoa eta arretatsua izan dadin. Arreta printzipioaren aplikazioa ez da garapen zientifiko eta teknologikoaren aurka doan mekanismo bezala ulertu behar, etorkizunera begira mundu seguruagoa lortzea helburu duen eta tentuzko garapena proposatzen duen mekanismoa baizik. Beste modu batera esanda, arreta printzipioak, garapen sostengarriaren printzipioarekin harremanean, garapen zientifiko eta teknologikoa gizartearen beharren zerbitzupean jartzea eta garapena neurtua, eztabaidatua eta adostua izatea du helburu⁴²³.

Garapen eredu hori posible izan dadin, arrisku potentzial ziurgabedun J/S/T bat onartu aurretik, horren alternatiba seguruago, garbiago edo merkeagorik eskuragarri dagoen aztertu behar da. Ordenamendu juridikoetan ingurumena edo osasuna bezalako ondasun juridikoen babeseraren oinarritzko eskubideen bidez instrumentalizatzen den bitartean, berrikuntza teknologikoaren kasuan, enpresa askatasunarekin izan dezakeen harremanaz harago, ez da horrelako eskubiderik legalki aintzatesten. Oinarritzko eskubideen azpi-sistemaren prisma teorikotik aztertuta garapen teknologikoaren garapena ingurumenaren eta osasunaren ondasun juridikoen babesera makurtu egin behar bada ere⁴²⁴, praktikan ez da hori gertatzen. Kapitalismo basatian oinarritutako mundu globalizatu honetan, berrikuntza teknologikoa geldiezina eta saihestezina bailitza tratatzen da askotan; beste modu batera esanda, inplizituki onartzen den eskubidea bailitza tratatzen da.

⁴²³ BONET DE VIOLA, 2012:7.

⁴²⁴ Arrisku teknologikoek osasunean edo ingurumenean eragin ditzaketen efektu kaltegarriak buruz ziurgabetasun zientifikoa dagoen kasuetan, arrisku horiei buruz erabaki bat edo bestea hartzeak zein eskubide konstituzionalak eragiten dien aztertu eta horien arteko ponderaketa egin behar da (ESTEVE PARDO, 2012: 280-284). Arrisku teknologikoen kasuan balantzaren alde batetan ingurumen, osasun eta bizitza bezalako ondasun juridikoak babesten dituzten eskubide konstituzionalak daude, etorkizuneko belaunaldiei zor zaien errespetuarekin batera. Balantzaren beste aldean berrikuntza teknologikoa kokatzen da, enpresa askatasunaren bidez babestu litekeena. Espainiar Konstituzioaren kasuan ondasun juridiko horien babeseraren instrumentalizatzen duten eskubideen izaerari kasu eginez gero, balantzaren alde batetan dauden bizitzarako eskubideak eta osotasun fisikorako eskubideak (EK 15. art.) oinarritzko eskubide konstituzionalen izaera dute. Ingurugiro osasuntsu batez gozatzeko eskubidearen (EK 45. art.) kasuan Espainiar Konstituzioak politika sozial eta ekonomikoen printzipio zuzentzailearen izaera onartzen badio ere (oinarritzko eskubidearen izaerarik ez beraz), ingurumenaren ondasun juridikoa kaltetzeari oinarritzko eskubideen bidez babesten diren bestelako ondasun juridikoak ere arriskuan jarri daitezkeenez (osasuna esate baterako), ingurumenaren babes konstituzionala ez da gutxietsi behar. Bestalde, etorkizuneko belaunaldien babeserak ez du EKn inolako esanbidezko aintzatespenik jasotzen. Balantzaren beste aldean, enpresa askatasuna (EK 38. art.) eskubide konstituzionala izanik ere, ez zaio oinarritzko izaerarik aintzatesten. Balantzaren alde batetan eta bestean kokatzen diren ondasun juridikoen (eta horien babeseraren instrumentalizatzen duten eskubideen) ponderaketa eginez gero, garapen teknologikoa osasun, bizitza eta ingurumena bezalako ondasun juridikoen babesera makurtu behar dela interpretatu daiteke.

III.5.B.c. Arreta printzipioaren eta kostu-onura analisiaren arteko harremana arrisku kudeaketa prozeduraren baitan

Doktrinan eztabaidagai den beste gai bat arrisku kudeaketaren prozedura batzuetan egiten den arriskuen kostu-onura analisiaren eta arreta printzipioaren arteko harremana da. J/S/T baten arriskuak kudeatzeko neurririk aiposena ebaluatzean, zenbait kasutan, proposatzen diren neurri bakoitzaren onura eta kostuen analisi ekonomikoa egiten da. Horretarako proposatzen diren neurri bakoitzaren onura eta kostu sozial, ekonomikoa eta ingurumenarekin zerikusia dutenak termino monetariotan kalkulatu dira. J/S/T baten arrisku-analisi prozesuan izaera desberdineko ziurgabetasun elementuak daudenean, zein da arreta printzipioak eta kostu-onura analisiak jokatu duten rola, eta, zein da bi mekanismo horien arteko harremana? Doktrinak galdera horrekiko planteamendu desberdinak egiten ditu:

- a) Arrisku baten inguruan ziurgabetasun zientifikoko elementuak existituz gero, arrisku kudeaketa prozeduran arreta printzipioa aplikatu behar da eta ez aldiz kostu-onura analisia. Beraz, arreta printzipioak kostu-onura analisia ordezkatu egiten du⁴²⁵.
- b) Kostu-onura analisiak gaitasuna du arriskuen ziurgabetasun eta konplexutasun egoeretan hartu beharreko neurrien egokitasuna aztertzeke. Arreta printzipioak erabaki diskrezionaltasuna sustatu du eta ez du arrisku kudeaketa prozeduran erabaki konplexuak hartzeko balio⁴²⁶.
- c) Arrisku baten ziurgabetasun elementuek kostu-onura analisiaren fidagarritasunean eragin dezakete. Beraz, ziurgabetasun elementuei aurre egiteko, arreta printzipioak kostu-onura analisiaren mekanismo osagarri bezala jardun behar du⁴²⁷.
- d) Arriskuen ziurgabetasun elementuak tratatzeko eta arreta neurrien proportzionaltasuna neurtzeko, kostu-onura analisia arreta printzipioaren aplikazioaren mekanismo integrala da. Kasu horretan kostu-onura analisiak arreta printzipioaren mekanismo integral bezala funtzionatu du⁴²⁸.

Kostu-onura mekanismoak arrisku baten kudeaketa neurriekin zerikusia izan dezaketen kalte edo onurak balio monetarioen bidez kalkulatu eta horien arteko konparaketa kalkulu ekonomikoetara bideratu du. Konparaketa ekonomiko horren bidez eztabaidagai den J/S/T-ak epe laburrera izan ditzakeen irabaziei lehentasuna ematen zaie, epe luzera begira ingurunean eragin ditzakeen kalteak ez baitira behar bezala kontuan hartzen⁴²⁹. Elementu naturalen balioa termino ekonomikoaren bidez adierazteak jaso ditzakeen kritikez gain, kostu-onura analisiak ez du arriskuen ziurgabetasun elementuak behar bezala aztertu eta tratatzeko gaitasunik. Arriskuen ziurgabetasun elementuak termino

⁴²⁵ PYHÄLÄ, BRUSENDORFF eta PAULOMÄKI, 2010:216-217.

⁴²⁶ HAHN eta SUNSTEIN, 2005.

⁴²⁷ ALLHOFF, 2009: 23-24.

⁴²⁸ Planteamendu hau Europako Kimikoen Industria kontseiluak (CEFIC) egin zuen 1995. urtean. European Chemical Industry Council, 1995.

⁴²⁹ Ingurugiro elementuak balore ekonomikoaren bidez adierazteak gabezia anitz ditu, kapitulu honetako orrian adierazten direnak.

ekonomikoen bidez adierazteak arriskuen irakurketa desegokia eta fidagaitza besterik ez du suposatzen, gehienetan interes sozio-ekonomikoen aldeko irakurketa.

Arreta printzipioaren izate-arrazoia ordea, arriskua inguratzen duten ziurgabetasun zientifikoko elementuak tratatzea da. Kostu-onura mekanismoak ez bezala, arreta printzipioak ziurgabetasun egoeran ingurumen eta osasuna eraginkortasunez babestera zuzendutako neurriak egokienak zeintzuk diren aztertzen ditu, horretarako ingurumena eta osasuna ardatz hartuta. Arrisku konkretu bati aplikatu behar zaizkion arreta neurriak erabakitzerako orduan, EBko Komisioaren COM (2000)1 Gomendioak eta EBJAren jurisprudentzia komunitarioak⁴³⁰ neurri horiek proportzionalak izan behar dutela azpimarratzen dute. Hots, saihestu nahi den kaltea eraginkortasunez saiheste aldera, arreta neurrien izaera murriztailea helburu hori lortzeko beharrezkoa dena izan behar da, ez gehiago. Arreta printzipioan oinarritutako neurrien proportzionaltasun analisia egitea beraz arreta printzipioaren berezko baldintza normatiboa da. Arreta neurrien proportzionaltasuna bilatzeko beraz, arreta printzipioaren aplikazioa erabakitzean ez dago kostu-onura analisirik egiteko premiarik, ponderaketa jarduera hori arreta printzipioa aplikatzean kontuan hartu behar den proportzionaltasun printzipioaren bidez egiten baita.

III.5.C. Printzipioaren aplikazioa erabakitzeko arriskuaren inguruan kontuan hartu behar diren elementuak: kaltearen eta ziurgabetasun zientifikoaren entitatea

J/S/T baten arrisku kudeaketa prozeduran arreta printzipioa aplikagarria den edo ez erabakitze aldera, bi dira aztertu beharreko elementuak. Alde batetik, J/S/T horrek sorrarazi dezakeen kalte potentzialen larritasuna. Bestetik, J/S/T horren inguruan dauden ziurgabetasun elementuen entitatea.

III.5.C.a. Kalte potentzialaren entitatea

Kaltearen jatorriari dagokionez, arreta printzipioa izaera gizatiarra (gizakion sortutako jarduerak, produktuak, teknologiak) edota mistoa (hondamendi naturalak izanik ere, gizakiaren efektuen ondorioz eragindako kalteak direnean, besteak beste, efektu klimatikoa edo deforestazioa) duten kalte potentzialei zaie aplikagarri. Jatorri natural hutseko kalte potentzialen aurrean berez aplikagarria bada ere, izaera naturaleko kalteak askotan saihestezinak dira (adibidez, erupzio bolkanikoak edota lurrikarak) eta ondorioz, kasu horietan arreta printzipioaren aplikazioa eraginkorra ez izatea gerta daiteke⁴³¹.

⁴³⁰ LIA (EBJA), denak batera prozedura judizial berean aztertutako hainbat kasuri buruzko epaia, 2002-11-26koa, 186. parr. (elkartutako kasuak: T-74/00, T-76/00, T-83/00, T-85/00, T-132/00, T-137/00 eta T-141/00).

⁴³¹ TROUWBORST, 2006: 41-42.

Kalte potentzial horiek izan behar duten entitateari dagokionez, arreta printzipioa esanbidez arautzen duten nazioarteko tratatu gehienek printzipio hori aktibatzeke kalte potentzialak larria edota atzeraezina izatea eskatzen dute⁴³². Larritasunaren eta atzeraezintasunaren kontzeptu horiek interpretagarriak dira, nazioarteko tratatuek eta tratatu horiek interpretatu behar dituzten organoen lerro jurisprudentzialek ez baitute kontzeptu horiei buruzko definizio edo irizpide zehatzik ematen. Inguruabar horren ondorioz, kalte potentzial baten larritasun edo atzeraezintasun maila zehaztea eztabaida iturri izan daiteke arreta printzipioa kasu espezifiko bati aplikagarri zaion edo ez erabakitzerako orduan. Jatorrizko zuzenbide komunitarioaren arabera edozein ekimen politiko eta legegile diseinatzean agintari eskudunek osasun publikoaren eta ingurugiroaren babes maila altua bermatzeko oinarritzko mandatua duten aldetik⁴³³, mandatu horrek kalte baten larritasun edo atzeraezintasun graduaren zehaztapenean kontuan hartu beharreko ezinbesteko irizpide interpretatibo bezala funtzionatzen du.

Doktrinaren esanetan kalte bat larria dela kontsideratzen da sortzen dituen eragin negatiboak garrantzitsuak direnean⁴³⁴ edota bere dimentsio geografikoa (adibidez, kalte potentzialaren efektuak Estatu baten mugetatik harago doazenean) edo kaltearen efektuen iraunkortasun maila (hurrengo belaunaldietara hedatzen dena) handia denean⁴³⁵.

Aldiz, kaltea atzeraezina dela ulertzen da osasunean edo ingurumenean eragindako kalteak erreperatu ezinak edota berriztaezinak direnean⁴³⁶. Kalteen atzeraezintasun hori ordean ezin da literalki interpretatu. Izan ere, ikuspegi zientifiko batetik aztertuta zenbait kalte denbora tarte luzeak igarotzean erreparagarriak izan daitezke: kutsatzaile bioakumulagarriek eragindako kalteak adibidez, nahiz eta astiro, denbora tarte luzean erreparatu egiten dira. Sorrarazi daitezkeen kalte potentzial gehienak faktikoki erreparagarriak izan daitezkeela kontuan izanik (ehunka edo milaka urtetan bada ere), arreta printzipioaren aplikaziorako exijitzen den kalteen atzeraezintasun hori ezin da modu literalean interpretatu; horren ordean, epe luzera begira erreparatu ezin daitezkeen kalteek legediak exijitzen duen "atzeraezintasun" irizpide hori konplitzen dutela interpretatu behar da⁴³⁷.

Arreta printzipioaren aplikazioa J/S/T batek osasunean edota ingurumenean sorrarazi ditzakeen kalte larri edo atzeraezinen kasura mugatu beharrean, zenbait autorek bestelako irizpide gehigarri batzuk ezartzen dituzte. Arie Trouwborst egileak arreta printzipioa kalte esanguratsuei ere aplikagarri zaiela defendatzen du (*significant harm*). Autore horrek arreta

⁴³² Besteak beste, Rio de Janeiroko 1992ko Ingurugiro eta Garapenari buruzko Nazio Batuen Deklarazioaren 15. artikuluan (*cuando haya peligro de daño grave o irreversible*), NBE-aren Aldaketa Klimatikoari buruzko Konbentzio Markoaren 3. artikuluan (*cuando haya amenaza de daño grave o irreversible*) edota EBko COM (2000)1 Gomendioaren 5.1.2. atalean (*la gravedad del impacto de un peligro sobre el medio ambiente o sobre la salud de una población dada, incluida la magnitud del posible daño, su persistencia, reversibilidad y efectos posteriores*)

⁴³³ Ikusi EBFTaren 153. art. (langileen babesa), 168. art (osasun publikoaren babes maila altua), 169. art (kontsumitzaileekiko babes maila altua) edota 191. art (ingurugiroaren babes maila altua).

⁴³⁴ LUIZ BONAMIGO, 2010: 97.

⁴³⁵ TROUWBORST, 2006: 56-57.

⁴³⁶ LUIZ BONAMIGO, op. cit, 97. orr.

⁴³⁷ TROUWBORST, op. cit, 60-62. orr.

printzipioa aurreikusten duten zenbait tratatutan kontzeptu hori esanbidez aurreikusten dela arrazoitzen du⁴³⁸. Autoreak “kalte esanguratsua” zein nolako kaltea kontsideratu behar den zehazten ez badu ere, kalte larria baino maila baxuagoan kokatzen den kalte mota dela argudiatzen du. Beraz, J/S/T batek ingurumenarentzat edota osasunarentzat kalte esanguratsua eragin badezake eta arreta printzipioa aplikatzeko bete behar diren bestelako baldintzak konplitzen badira, autore horren esanetan arreta printzipioa aplikagarri bihurtzen da. Kaltea larria edota atzeraezina den kasuetan Estatuak arreta printzipioa aplikatzeko betebeharra badute ere, kaltea esanguratsua denean (eta beraz kalte larri edota atzeraezinaren intentsitate iristen ez denean) Estatuak arreta printzipioa aplikatu edo ez erabakitzeko ahalmen fakultatiboa dutela arrazoitzen du. Alegia, kaltea “esanguratsua” den kasuetan Estatu-kideek arreta printzipioa aktibatzea edo ez erabakitzeko diskrezionaltasuna daukate⁴³⁹.

Arreta printzipioaren inguruan UNESCOk 2005. urtean argitaratutako informe batean⁴⁴⁰, kalte larri eta atzeraezinen kontzeptuak erabili beharrez, “moralki onartezina den kaltearen⁴⁴¹” kontzeptua erabili zuen. Kontzeptu berri horrek kaltearen larritasun eta atzeraezintasun kontzeptuak baino aplikazio eremu objektibo zabalagoa dauka. UNESCOren arabera, hurrengo kasuetan kaltea moralki onartezina dela kontsideratu behar da: gizakion osasunari edo ingurumenari eragindako kalteak gizakion bizitzarentzat edo osasunarentzat mehatxua eragiten dutenean, kalte larria edota atzeraezina denean, orainaldiko edo etorkizuneko belaunaldientzat injustua denean edota eragindako pertsonen giza eskubideak behar bezala kontuan hartzen ez direnean⁴⁴².

Autoreren batek ere arreta printzipioaren aplikazioa kalte larri edo atzeraezinen presentziara mugatu behar ez dela arrazoitzen du. J/S/T baten arriskuen dimentsio objektiboaz harago, gizarteak arrisku horrekiko duen pertzepzio soziala kontuan hartuta (arriskuaren dimentsio subjektibo soziala alegia) arrisku hori gizartearentzat toleraezina edo injustua bada, kasu horietan ere arreta printzipioa aktibagarria izan beharko litzateke⁴⁴³.

⁴³⁸ Significant harm kontzeptua, besteak beste honako tratatuetan aipatzen da esanbidez: *Ministerial Declaration of the Sixth Trilateral Governmental Conference on the Protection of the Wadden Sea*, 3. parrafoan (1991. urtekoa) edota Biodibertsitateari buruzko Konbenioaren 9. parrafoan (1992. urtekoa).

⁴³⁹ TROUWBORST, 2006: 63.

⁴⁴⁰ *Informe del grupo de expertos sobre el principio de precaucion* (UNESCO, 2005).

⁴⁴¹ Gaztelaniazko bertsioan, *daño moralmente inaceptable*.

⁴⁴² UNESCO, 2005: 14 (2. koadroa).

⁴⁴³ ARAGÃO, 2010: 78-79.

III.5.C.b. Arriskuaren ziurgabetasun zientifikoaren entitatea

Kalte potentzialek izan behar duten entitatearekin batera, J/S/T baten arriskuaren inguruan ziurgabetasun zientifikoa existitzea arreta printzipioa aktibatzeke nahitaezko elementua da.

Hala ere, Arie Trouwborst autorearen ustez J/S/T baten arriskuak kudeatzeko arreta printzipioa aplikatzea edo ez sorrarazi daitekeen kalte potentzialen arabera erabakitzen da; autorearen esanetan, arrisku potentzial horri buruz egon daitezkeen ziurgabetasun zientifikoko elementuak ez dira arreta printzipioa aktibatu ahal izateko ezinbesteko irizpide bezala interpretatu behar. Bere esanetan arreta printzipioak arrisku kudeaketa neurriak onartzea exijitzen du ziurgabetasuna egon arren, baina ez ziurgabetasunaren ondorioz⁴⁴⁴. Nahiz eta literatura juridikoan arreta printzipioa ziurgabetasunarekin lotzen den eta saihaspen printzipioa (*principio de prevención*) arrisku zurrekin, praktikan bi printzipio horien arteko nahasmena ematen da. Alde batetik, zenbait tratatutan arreta eta saihaspen printzipioak elkar nahasturik agertzen dira, ez dira elkarren artean bereizten. Ondorioz, saihaspen printzipioa nazioarteko ingurugiro zuzenbidearen printzipio orokor bezala egituratzen bada ere, arreta printzipioa baino irmotasun normatibo gutxiago dauka. Bestalde, Estatu gehienek praktikan arreta printzipioa saihaspen motatako neurri oro onartzeko mekanismo orokor bezala erabiltzen dute, ziurtasun zientifikoa egon ala ez. Ondorioz, arreta printzipioa ziurgabetasun edota ziurtasun zientifikoa dagoen kasuetan aplikatzen den neurrian, autorearen iritziz ziurgabetasun zientifikoa ezin daiteke arreta printzipioa aktibatzeke *conditio sine qua non* kontsideratu⁴⁴⁵.

Arreta printzipioaren funtsezko elementua kontsideratu edo ez, ziurgabetasun zientifikoaren inguruan honako baieztapena argi dago: J/S/T baten arriskuen inguruan ziurgabetasun zientifikoa dagoen kasuetan, egoera hori ezin daiteke arreta neurriak ez hartzeko arrazoi bezala erabili. Alegia, ziurgabetasun zientifikoa arreta neurririk ez hartu edota neurrian onarpena atzeratzeko aitzakia gisa ezin daiteke erabili⁴⁴⁶. Kapitulu honen hasieran aztertu den bezala, J/S/T baten ziurgabetasun elementuek orotariko izaera izan dezakete⁴⁴⁷.

Alde batetik ziurgabetasun kuantitatiboko elementuak (arriskuaren kontzepzio objektiboa kontuan hartzen dutenak) egon daitezke, hots, metodo zientifikotik eratortzen diren ziurgabetasun edo jakintza hutsuneak: aukeratutako aldagai, egindako neurketa,

⁴⁴⁴ *According to these provisions, the precautionary principle demands action in spite of uncertainty, not because of it* (TROUWBORST, op. cit, 92-93. orr).

⁴⁴⁵ Teoria horren arrazoipena, TROUWBORST, op. cit, 92-95. orr.

⁴⁴⁶ Baieztapen hori Rio de Janeiroko 1992. urteko Adierazpenean egiten da, 15. artikuluan: *Cuando haya peligro de daño grave o irreversible, la falta de certeza científica absoluta no deberá utilizarse como razón para postergar la adopción de medidas eficaces en función de los costos para impedir la degradación del medio ambiente*. EBn ere ildo berdina jarraitzen da, COM (2000)1 Gomendioaren sarrearen 5. atalak horrela baitio: *Frente a un riesgo inaceptable, una situación de incertidumbre científica o la inquietud de la población, los políticos están obligados a encontrar respuestas, por lo que deben tener en cuenta todos estos factores*.

⁴⁴⁷ Ziurgabetasunari buruzko analisi sakonagoa kapitulu honen I.3. atalean egiten da.

ateratako lagin, erabilitako modelo zientifiko edota kausalitate harremanaren identifikazio eta kuantifikazio zailtasunek eragindakoak⁴⁴⁸. Bestetik, ziurgabetasunak ere izaera kualitatiboa eduki dezake. Alde batetik, adituek arrisku-analisi batetik ondorioztatutako datu eta emaitza berei buruz arriskuari buruzko ondorioz desberdinak ateratzen dituztenean. Bestetik, gizarteak arrisku batekiko duen jakintza maila baxua arriskuaren ziurgabetasun elementua ere kontsideratu daiteke.

Zuzenbide komunitarioak arriskuan oinarritutako arreta printzipioaren ikuspegia aplikatzen du. Alegia, arretazko neurriak adostu aurretik J/S/T baten arriskuen eta horien ziurgabetasun elementuen ebaluaketa zientifikorik osoena egitea beharrezkoa da⁴⁴⁹. J/S/T baten inguruan ziurgabetasun zientifikoko elementuak egonik ere, arrisku ebaluaketa ahalik eta osoena izateko ahaleginak egin behar dira. Arrisku ebaluaketa aurrera eramatean aztertzen den arriskuari buruzko ziurgabetasun elementuak identifikatzen direnean, ziurgabetasun elementu horien gradua eta arrisku potentzialen entitatea zehazteko ahal diren ahalegin guztiak egin behar dira, eskuragarri dagoen informazio zientifikoa erabiliaz horretarako⁴⁵⁰. Alegia, ziurgabetasun elementuak tratatzeko arrisku ebaluaketak zientzia ahalik eta zorrotzenaren beharra du, ziurgabetasun elementuekiko jakintza ahalik eta handiena lortze aldera. Hala ere ziurgabetasun zientifikoa oso handia den kasuetan ebaluaketa zientifiko hori egokitasunez egitea ezinezkoa izatea gerta liteke. Kasu horietan existitzen den ziurgabetasun handiaren ondorioz ebaluaketa zientifikorik egitea posible ez bada ere, J/S/T horren arriskuen ondoriozko kalte potentzialen larritasun edota atzeraezintasun graduaren arabera, arreta printzipioan oinarritutako neurriak hartzea beharrezkoa izan daiteke⁴⁵¹.

Arreta printzipioan oinarritutako neurriak aktibatzeke kalte potentzialek izan behar duten entitateaz gain, arrisku horiek espezifikokoak, konkretuak izan behar dira, ezin dira abstraktuak izan. Hortaz, J/S/T baten arriskuen inguruko ziurgabetasun elementuak daudenean, arreta neurriak aktibatzeke J/S/T-ak arrisku espezifikokoak eragin ditzakeenaren arrazoizko zantzuak egotea beharrezkoa da. Ziurgabetasun zientifikodun testuinguru batean, arriskuak abstraktuak izan beharrean zein kasutan kontsidera daitezke espezifikokoak? Komisioaren (2000)1 Gomendioaren arabera, kalte potentzial baieztatuen kasuan, ziurgabetasunik ez dagoen heinean, saihaspen printzipioa aplikatu behar da. Aldiz, arrisku potentzialen inguruan komunitate zientifikoaren baitan desadostasuna edo ziurgabetasun zientifikoa dagoenean edota arriskua guztiz frogatu, bere anplitudea kalkulatu edota bere efektuak erabat zehaztu ezin direnean, arriskua nolabait “identifikagarria” den kasuetan arreta printzipioa aplikagarria da. Hots, arreta printzipioa “arrisku potentzialen hipotesia” dagoenean (gaztelaniaz *hipótesis de riesgo potencial*) aktibatu daiteke, arriskuak abstraktuak izan beharrean espezifikokoak direla kontsideratzeko

⁴⁴⁸ COM (2000)1, 5.1.4. atala.

⁴⁴⁹ COM (2000)1 Gomendioaz gain (5.1.2. atalean), ebaluaketa zientifikorik osoena egitearen eskakizuna jurisprudenzia komunitarioan ezarri den eskakizuna da. Besteak beste, ikusi *Monsanto vs Italia C-236/01*, 2003-09-09, 107. parr.

⁴⁵⁰ COM (2000)1 Gomendioaren sarrerako 4. atala eta 5.1.2. atala.

⁴⁵¹ COM (2000)1 Gomendioaren 5.1.2. atala: (...) *Antes de decidir si se invoca o no el principio de precaución debe realizarse una evaluación de riesgos, siempre que sea posible.*

zantzuak daudenean⁴⁵². Praktikan hala ere, kalte potentzial abstraktu eta espezifikoek arteko muga hori ez da batere argia eta interpretaziorako tarte asko uzten du.

Aurreko ideiarekin lotuz, arreta printzipioa ezin da arrisku hipotetiko, susmo, suposizio edo zurrumurru hutsetan oinarritu, EBJAren jurisprudentziak askotan azpimarratu duen bezala⁴⁵³. Horren ordezkari jurisprudentzia komunitarioak arreta printzipioa aplikatzeko honako irizpideak erabili izan ditu⁴⁵⁴: arriskua hipotesi hutsa ez izanik erabat frogatu ez denean, datu zientifiko erabakigarriak daudenean, nahikoa dokumentatua dagoenean edota eskuragarri dauden datu zientifikoetan oinarritu denean. Irizpide jurisprudentzial horiek arreta printzipioa aplikatu ahal izateko “ziurgabetasun legitimoa” zein den erabakitzen dute⁴⁵⁵. Irizpide jurisprudentzial horiek ordea zehaztugabetasun maila handia dute eta beraz, arrisku kudeaketa prozesuan parte hartzen duten agintari eskudunei diskrezionaltasun maila handia aintzatesten diete arreta printzipioan oinarritutako neurriak aktibagarriak diren edo ez erabakitzerako orduan⁴⁵⁶.

III.5.D. EBko Komisioaren COM (2000)1 final Gomendioaren arabera arreta neurrien onarpen prozesuan agintari publiko eskudunek kontuan hartu behar dituzten printzipioak

J/S/T baten arriskuek aurreko atalean azaldutako baldintzak betetzen dituztenean (kaltea eta ziurgabetasunak izan behar duten entitateari buruzkoak), agintari publiko eskudunek arreta printzipioan oinarritutako neurriak hartzeko eginkizuna dute. Arrisku kudeaketa prozeduraren eskema klasikoari eta eskumen banaketaren logikari jarraiki, botere publikoen artean administrazioa da J/S/T baten inguruan arreta printzipioaren azterketa eta aplikazioaren erabakian protagonismo nagusia eskuratzen duena⁴⁵⁷. Hala ere, botere legegileak eta judizialak ere rol garrantzitsua jokatu dezakete arreta printzipioaren aplikazioan.

Alde batetik, botere legegilea da arreta printzipioan oinarrituriko neurriak legalki konfiguratzeko eskumena duena, neurri horiek erregelamendu izaera duten arauen bidez onartzen diren kasuetan izan ezik. Bestetik, botere judizialak administrazio publikoak martxan jarritako arreta neurrien gaineko legaltasun kontrola egiteko gaitasuna dauka⁴⁵⁸. Epailerek izatez arreta neurriekin zerikusia duten aspektu juridikoen gaineko kontrol

⁴⁵² COM (2000)1, 5.1. atala; EMBID TELLO, 2009: 146; ikusi *Monsanto vs Italia C-236/01*, 2003-09-09, 109. parr.

⁴⁵³ Ikusi besteak beste, EBJAren honako jurisprudentzia: *Alpharma Inc. v Council of the European Union, T-70/99*, 2002-09-11, 156. eta 165. parr.; *Monsanto vs Italia, C-236/01*, 2003-09-09, 106. parr.; *Commission of the European Communities v Kingdom of Denmark, C-192/01*, 2003-09-23, 49. parr.; *Commission of the European Communities v French Republic, C-24/00*, 2004-02-05, 56. parr.

⁴⁵⁴ Besteak beste, ikusi LIA (EBJA) *Pfizer Animal Health SA vs Council, T-13/99*, (2002-09-11), 144 eta 146. parr.

⁴⁵⁵ EMBID TELLO, op. cit, 164. orr.

⁴⁵⁶ Ibid.

⁴⁵⁷ Arreta printzipioaren jarduera eremu klasikoa zuzenbide administratiboa da: ESTEVE PARDO, 2005: 208-210; PÉREZ ALONSO, 2012: 410.

⁴⁵⁸ Arreta neurrien kontrol judizialaren inguruan, besteak beste: EMBID TELLO, 2010: 221-235; BERBEROFF AYUDA, 2005: 38; DOMENECH PASCUAL, 2006: 286.

judiziala egikaritzen dute: eskumena, arreta neurriak onartzeko jarraitutako prozeduraren legaltasun azterketa edota jokoan egon daitezkeen oinarrizko eskubideak errespetatzen direla kontrolatzea. Epaileek halaber neurrien egokitasun materialaren azterketa ere egin dezakete, arreta neurriak onartu ziren momentuan eskuragarri zegoen informazioa oinarri hartuta, neurriok arbitrarioak izan ziren edo ez erabaki baitezakete.

Arreta neurrien nondik norakoak erabakitzerako orduan, agintari publikoek diskrezionaltasun maila handia dute. Hots, agintari publikoek arrisku onargarritasunaren/onartezintasunaren maila zehazteko eta horren arabera zein nolako arreta neurriak onartu behar diren erabakitzeko ahalmen normatiboa dute. Esparru komunitarioan hala ere diskrezionaltasun marjina hori erregelatua dago, arreta neurriak egituratzean COM 2000/1 Gomendioan aurreikusitako printzipio eta jarraibideak errespetatu egin behar baitira⁴⁵⁹: gardentasun eta parte hartze printzipioak, eraginkortasun printzipioa, proportzionaltasun printzipioa, diskriminazio ezaren printzipioa, koherentziaren printzipioa, frogaren kargaren inbertsioa eta azkenik, arreta neurriak onartu ostean berrikusten joateko betebeharra.

Arreta printzipioak gardentasun eta parte hartzearen ideiekin harreman estua dauka. Giza osasunarentzat edo ingurugiroarentzat arriskutsuak izan daitezkeen produktuen kasuan industriak lehiakortasun ekonomikoaren izenean egikaritzen duen sekretutasun informatiboa nahitaez murriztu beharra dago. Ondorioz, J/S/T baten arrisku-analisi prozesuaren baitan, J/S/T horren ekoizleak modu gardenean jokatu behar du, arrisku-analisan jarduten duten aktore desberdinei (arrisku ebaluaketa eta kudeaketan jarduten dutenei) beharrezkoa den informazioa ahalbidetuaz⁴⁶⁰. J/S/T baten ekoizleez harago, gardentasun printzipioak arrisku-analisiaren prozedurari berari ere eragiten dio. Arrisku-analisiaren prozeduraren baitan agintari publiko eskudunek aurrera eramaten dituzten jarduerak publiko egin behar dituzte (besteak beste, arrisku ebaluaketa zientifikoaren txostena eta arriskuak murrizteko proposatutako neurriak). Bestalde, J/S/T horrekiko onura eta arriskuez gain, herritarrei kezka etiko, sozio-ekonomiko eta giza eskubideekin zerikusia dutenei buruzko informaziora ere difusio edo sarbide publikoa bermatu behar zaie.

Arrisku-analisi prozedura, gardena izateaz gain, parte hartzailea ere izan behar da. Teknologia berriek esate baterako gizartearen osotasunari eragiten diete; gizartea da teknologia horien onura eta kalte potentzialen subjektu pasiboa (ingurugiroarekin batera noski). Kontsekuenteki, arrisku-analisi prozeduraren baitan alderdi interesatu orok parte hartzeko legitimazioa duela kontuan hartuz, prozeduran aztergai den teknologia berri baten eraginak gizarte osora hedatzen diren kasuetan, parte hartze publiko eta zabalaren premia inoiz baino esanguratsuagoa bihurtzen da. Gaur egun gizarteak zientziaren eta teknologiaren garapenaren ondorioz eratoritzen diren onura eta arriskuak jasaten baditu ere,

⁴⁵⁹ Zerrendaturiko printzipio eta jarraibide hauetako gehienak COM (2000)1 Gomendioak barnertzen baditu ere, beste batzuk doktrinak egituratutakoak dira, neurrien eraginkortasun printzipioa esate baterako (honen inguruan, ikusi TROUWBORST, 2006: 147-149).

⁴⁶⁰ UNESCO, 2005: 39.

ez du garapen horren erabakietan eraginkortasunez parte hartzeko gaitasunik. Egoera horri buelta emate aldera, J/S/T-en arrisku-analisiaren baitan parte hartze publikoa kontuan hartu beharreko funtsezko elementua bilakatu behar da, J/S/T baten arrisku onargarritasunaren eztabaida demokratikoa gauzatuz. Arrisku kudeaketaren fasean arreta neurriak egituratu eta erabakitzera orduan beraz, parte hartze publikoaren egikaritzatik eratorritako posizionamendu eta iritzi desberdinek ere rol garrantzitsua jokatu behar dute.

Arreta printzipioaren aplikazioaren harira onartutako neurriek, bestalde, eraginkorrak izan behar dute. Neurriak eraginkorrak dira arreta printzipioaren aplikazioaren bitartez lortzea espero den emaitza gauzatera zuzentzen direnean, hots, neurri horien egikaritzaren bitartez desira den emaitza lortzea gerta daitekeenean. Arreta neurriak eraginkorrak izan daitezten kasuan kasuko zirkunstantzia espezifikoetara egokitu behar dira, kasuan kasuko J/S/T-aren arriskuen ziurgabetasun elementuetara, sortu ditzakeen kalte potentzialen izaerara (ingurugiroari edota osasunari eragin diezaiokete) eta kalte horien intentsitatera (kalte esanguratsu, larri edo atzeraezina) eta. Arreta neurri horiek eraginkortasunik izan ezean arreta printzipioaren aplikazioak zentzua galduko luke; hortaz, neurrien eraginkortasuna arreta printzipioaren *conditio sine qua non* dela esan daiteke⁴⁶¹. Arreta printzipioaren COM (2000) 1 gomendio komunitarioan neurrien eraginkortasun baldintza horri buruzko esanbidezko aipamenik ez da egiten; bai aldiz Rio de Janeiroko 1992ko Adierazpenean (15.art)⁴⁶² edota zenbait Estaturen barne ordenamenduetan arreta printzipioari buruz aurreikusitako arauketetan⁴⁶³.

Eraginkortasun baldintza horren kontra-balantzan, arreta neurriek proportzionalak izan behar ere. Arreta printzipioaren aplikazioaren bitartez lortu nahi den emaitza lortzeko beharrezko neurriak hartu behar dira, baina ez beharrezkoa dena baino intentsitate handiagoa dutenak (arreta neurriek ez dute zero arriskua bilatzen⁴⁶⁴). Jurisprudenzia komunitarioan arabera, espero den emaitza lortzeko aukeratu daitezkeen neurri eraginkorren artean, saihestu nahi den kaltea eraginkortasunez saihesteko izaera murriztaile gutxiena (adibidez, interes ekonomikoekiko) duten neurriak onartu behar dira⁴⁶⁵. Proportzionaltasunaren balantza hori espero den kaltearen entitatearen arabera desberdina da. Kaltearen larritasun edota atzeraezintasuna esanguratsua den kasuetan, neurrien proportzionaltasunaren oreka horretan neurri zorrotzagoak onartzea arrazoituta dago⁴⁶⁶.

Bestalde, neurrien proportzionaltasunaren balantza aurkitzea zeregin konplexua izan daiteke. Izan ere, kasuan kasuko J/S/T-en arriskuen eta sorrarazi ditzaketen kalte potentzialen inguruko ziurgabetasun elementuen ondorioz arrisku edota kalte potentzialen

⁴⁶¹ TROUWBORST, 2006: 147.

⁴⁶² Ingurugiro eta Garapenari buruzko Nazio Batuen Deklarazioa (1992) 15. art: (...) *la falta de certeza científica absoluta no deberá utilizarse como razon para postergar la adopción de medidas eficaces en función de los costos para impedir la degradación del medio ambiente.*

⁴⁶³ Frantzia, Kamerun edota Massachusetts-eko arauketa batzuetan. Arauketa hauei buruzko datu gehiago, TROUWBORST, op cit, 148. orr.

⁴⁶⁴ COM (2000)1 Gomendia, 6.3.1.

⁴⁶⁵ Besteak beste, EBJaren Lehenengo Instantziako Auzitegiaren (LIA) 2002-11-26ko ebazpena kontsultatu: Joined Cases T-74/00, T-76/00, T-83/00 to T-85/00, T-132/00, T-137/00 and T-141/00, 186. parr.

⁴⁶⁶ ROGERS, 2001: 8.

inguruko ezagutza osatugabea da⁴⁶⁷. Hartatik, arreta neurri eraginkor posibleen artean zein aplikatu zalantzaz betetako zeregina izan daiteke. Egoera partikular horietan desira den emaitza lortzeko izaera murriztaile desberdina duten arreta neurrien arteko aukeraketan zalantzak egonez gero, zuhurtziaren aldeko jarrera egokitu eta izaera murriztaile handiagoa duten neurriak hartu behar dira: *in dubio, pro natura*⁴⁶⁸ (*et homo*).

Arreta neurrien proportzionaltasunaren bilaketan zenbait elementu hartu behar dira kontuan. Alde batetik, arreta neurriak epe laburrerako arrisku edo kalte potentzialak murriztera zuzentzeaz gain, epe luzera gerta daitezkeen efektuak murriztea ere helburu izan behar dute. Kontsekuenteki, epe laburreko efektuez gain epe luzera begirakoak ere arreta neurrien proportzionaltasunaren azterketa egitean aintzat hartu behar dira. Bestetik, proportzionaltasun azterketa horretan J/S/T arriskutsu horren alternatiba bideragarriak existitzen den, (arrisku gutxiago eragin, seguruagoak izan eta kostu altuegia ez duten J/S/T-rik dagoen) eta horrela izatekotan, hura ordezkatu dezakeen aztertu behar da⁴⁶⁹.

Arrisku kudeaketa prozeduran onartu daitezkeen arreta neurrien proportzionaltasun analisia egitean, arreta neurriak hartzeak edo ez hartzeak (alegia, akzioak edota akziorik ezak) eragin ditzakeen abantaila eta desabantailen azterketa ere egin behar da. Aurreko azpi-ataletan jada azaldu den bezala, proportzionaltasun analisi hori kutxu ekonomiko nabaria duen kostu-onura analisiaren bidez eramaten da aurrera. UNESCOk proposatutakoari jarraiki, kostu-onura analisi hori egitean arriskua inguratzen duten faktore ezberdinak kontuan hartu beharko lirateke, faktore horiek modu zabalean ulertuta betiere: besteak beste, maneiatzen diren arreta neurrien eraginkortasuna, neurri horiek herritarrengan izan dezaketen onargarritasun maila eta arreta neurriak hartzeak/ez hartzeak izan ditzakeen ondorio moralak⁴⁷⁰. Egokia eta bideragarria den kasuetan, analisi horrek kostu-onura ekonomikoen analisia ere barneratu dezakete. Hala ere, EBko COM (2000)1 Gomendioan argi adierazten den bezala, osasun publikoari lotutako betebeharrekin kontsiderazio ekonomikoek baino pisu gehiago izan behar dute arreta neurriak diseinatu eta erabakitzerako orduan⁴⁷¹.

Arreta neurriek bete beharreko proportzionaltasun printzipioarekin harreman estuan, neurrien diskriminazio ezaren printzipioa ageri da. Printzipio horren arabera, antzekoak eta konparagarriak diren egoerei ezin dakieke tratamendu desberdina eskaini, eta alderantziz, elkarrekiko desberdinak diren egoerei ezin dakieke tratamendu berdina eman, tratamendu diskriminatzaile hori objektiboki justifikatuta dagoen kasuetan izan ezik⁴⁷². Arreta neurrien diskriminazioa saiheste aldera, arreta neurrien erabakitze prozesuan berme prozesalak egon badaudela esan daiteke. Izan ere, arreta neurrien erabakitze prozesua gardentasun eta parte

⁴⁶⁷ COM (2000)1 Gomendia, 6.3.1.

⁴⁶⁸ TROUWBORST, op. cit, 149. orr.

⁴⁶⁹ Epe luzerako efektuak eta J/S/T alternatiboak arreta neurrien proportzionaltasun analisian barneratzeko beharra COM (2000)1 Gomendioan galdatzen diren betekizunak dira, 6.3.1. atalean zehar. Honez gain, ikusi

⁴⁷⁰ UNESCO, 2005: 14.

⁴⁷¹ COM (2000)1, 6.3.4. atala.

⁴⁷² Ibid, 6.3.2. atala eta UNESCO, 2005: 50.

hartze printzipioei jarraiki aurrera eramaten den neurrian, arreta neurri horiek gardenak, kontsentsuatuak eta ez-diskriminatzaileak izateko bermeak areagotu egiten dira.

Arreta neurriek bestalde koherentzia izan behar dute. Kasu konkretu bati aplikatzen zaizkion arreta neurriek antzeko ezaugarriak dituzten edo antzeko planteamenduak jarraitu diren kasuetan onartutako arreta neurriekiko koherenteak izan behar dira⁴⁷³. Hots, arreta printzipioa aplikatu den antzeko egoeretan kontrakotasun edo bateraezintasunik ez egotea da printzipio horren helburua. Zeregin horretarako ordenamendu juridikoaren printzipio orokorren, arreta printzipioari aplikagarri zaizkion printzipioen (azpi-atal honetan aztergai ditugunak) eta horiek aplikatzean egiten diren judizio partikularren artean ezin daiteke kontrakotasunik eman⁴⁷⁴. Funtsean beraz, aplikagarri diren printzipioen arteko eta horien aplikazioaren ondorioz eginiko judizio partikularren arteko koherentzia mantendu behar da.

Arreta printzipioaren aplikazioaren baitan gatazka sorrarazten duen elementuetako bat frogaren kargarena da. Arriskutsua izan daitekeen J/S/T baten kasuan nork du frogaren karga? J/S/T-a segurua al da kontrakoa frogatzen ez den artean? edo alderantziz, J/S/T-a arriskutsua dela kontsideratu behar al da berorren ekoizleak kontrakoa frogatzen ez duen artean?

Duela zenbait hamarkada-arte, ingurugiro edo osasun publikoko politiken baitan produktuen segurtasunaren aldeko presuntzio normatiboa egituratzen zen. Tradizionalki, arriskuaren existentziari buruzko frogarik eduki ezean, agintari publikoek ezin zuten jarduera, substantzia edo produktuen aurkako neurririk onartu. Arau orokor bezala beraz, J/S/T-ak arriskutsuak ziren frogatu ezean legalki seguruak zirela presumitzen zen. Denborak aurrera egin ahala eta horrekin batera ezagutza zientifiko eta teknikoa handituz zihoan neurrian, bere momentuan segurutzat jotzen ziren zenbait J/S/T errealitatean arriskutsuak zirela zientifikoki frogatzen zen. Ondorioz, J/S/T-en arriskuen ziurgabetasun zientifikoko testuinguruan J/S/T horien segurtasunaren alde egiten zen presuntzio normatibo orokor horrek bere zentzua galdu egin zuen.

Gaur egun beraz segurtasunaren presuntzio normatibo klasiko hori gainditu egin da eta J/S/T baten kasuan arreta printzipioa aplikatzeko baldintzak betetzen diren neurrian, J/S/T horren ekoizle edo arduradunarena da bere erabilera segurua frogatzeko karga duena. Hots, frogaren karga arrisku potentzialak sortzen dituen alderdira igarotzen da eta J/S/T hori segurua dela edo arriskuaren onargarritasun maila “arrisku legalizatuaren” parametroen barnean kokatzen dela frogatzeko eginkizuna dauka. Arreta printzipioari buruzko Wingspread-eko Adierazpenean frogaren kargaren inbertsio orokorra aldarrikatzen bada ere⁴⁷⁵ (J/S/T arriskutsuaren ekoizle edo arduradunarena izanik frogaren zama), Komisioaren COM (2000)1 Gomendioaren esanetan frogaren kargaren inbertsio

⁴⁷³ COM (2000)1, 6.3.3. atala.

⁴⁷⁴ LUIZ BONAMIGO, 2010: 119-121.

⁴⁷⁵ Wingspread-eko Adierazpenaren 2. premisan.

hori ez da automatikoa izan behar, kasuan kasu aztertu beharrekoa baizik⁴⁷⁶. Komisioaren gomendioak aditzera ematen duenez, merkaturatzeko aurretiazko baimen prozedura aplikatzen ez zaien J/S/T-en kasuan, agintari eskudunak dira frogaren karga nori dagokion zehaztu behar dutenak. Alegia, agintari eskudunek frogaren karga erabiltzaile edota kontsumitzaile erakundeena den (arriskutsua dela frogatzeko karga) edota J/S/T horren sustatzaile edo ekoizleena den (segurua dela frogatzearena) erabaki behar dute. Komisioaren planteamenduaren aurka, EBko Legebiltzarrak⁴⁷⁷ eta UNESCOk⁴⁷⁸ frogaren kargaren inbertsio sistematikoaren aldeko jarrera azaldu dute.

Industriak, bere interes propioen defentsan, osasun publikoarentzat edota ingurugiroarentzat arriskutsuak izan daitezkeen J/S/T-en inguruko informazioa agintari eskudunei ezkutatu izan dio zenbait kasutan⁴⁷⁹. Hori dela eta, frogaren kargaren inbertsioak egia ezagutarazteko mekanismo gisa jardun dezake⁴⁸⁰, J/S/T horien arrisku eta kalte potentzialen inguruko informazio gardentasuna bultzatuz. Zientzia eta berrikuntza abiadura handian garatzen doan neurrian eta teknologia gero eta konplexuago eta sofistikatuagoak merkaturatu ahala, sorrarazi ditzaketen kalte potentzialak kontrolatzea gero eta zeregin konplexuagoa bihurtu daiteke. Berrikuntza faktore horiek sorrarazi ditzaketen arrisku potentzialak maneiatu eta kontrolatze aldera beraz, frogaren kargaren inbertsioa segurtasuna bilatu eta mantentzeko mekanismo aproposa izan daiteke⁴⁸¹.

Arreta neurriak J/S/T baten arriskuen ziurgabetasun zientifikoarekin harreman estuan daudenez, J/S/T horrekiko ezagutza zientifikoa eta teknikoa osatzen joan ahala arreta neurriak ere ezagutza berri horietara egokitu egin behar dira. Beraz, arreta neurriak behin behinekoak eta dinamikoak direla baieztatu daiteke⁴⁸², J/S/T horren ziurgabetasun zientifikoaren existentziari eta ezagutza garapenaren ildoari lotuta dauden neurriak baitira. Ezagutza zientifikoa osatuz joan ahala, J/S/T horrekiko arriskuaren karakterizazioa ere definitzen joan daiteke. Jakintza berrien harira beraz, arreta neurriak berrikusi eta horiek aldatu edo kentzea erabaki daiteke⁴⁸³. Ezagutza zientifiko berrien harira arriskuak baieztatu eta jakinak edo identifikagarriak bilakatzen diren kasuetan, arreta printzipioan baino, neurri horiek saihaspen printzipioan oinarrituak egotera pasatzen dira.

⁴⁷⁶ Komisioaren COM 2000/1 Gomendia, 6.4.atala

⁴⁷⁷ Ikusi EBko Legebiltzarra, 2012: 60.

⁴⁷⁸ UNESCO, 2005: 24.

⁴⁷⁹ MONSANTO nazioarteko empresa kimikoak 100 urte baino gehiagoko historian ekoiztutako produktu desberdinen arriskuen inguruko informazioa ezkutatu izan du. Besteak beste, PCB materialaren arriskuen berri 1937. urtean jakin bazuen ere, informazio hau ezkutatu egin zuen, PCB materialen erabilera mundiala sustatuz. Honako dokumentua ikusi: Drinker CK, Warren MF, Bennett GA: The problem of possible systemic effects from certain chlorinated hydrocarbons. *Journal of Industrial Hygiene and Toxicology*, Vol. 19, No. 7. 1937, 283-99. orr.

⁴⁸⁰ LUIZ BONAMIGO, 2010: 127.

⁴⁸¹ Ibid: 128.orr.

⁴⁸² BERBEROFF AYUDA, 2005: 30.

⁴⁸³ COM (2000)1 Gomendia, 6.3.5. atala.

III.5.E. Arriskuak kudeatzeko onartu daitezkeen arreta neurri posible batzuk

Arreta printzipioaren aplikazioaren harira onartu daitezkeen neurrien tipologia eta izaera anitza izan daiteke, ez da neurri zehatz batzuetara mugatzen⁴⁸⁴. J/S/T arriskutsuen ekoizpena, erabilera, komertzializazioa edo esposizioa intentsitate desberdinean mugatzen duten neurri legal lotesleetatik hasita, efektu juridikorik sorrarazten ez duten (eta beraz EBJAren kontrol jurisdikzionaletik kanpo dauden) gomendio edo erabakietara. Izan ere COM (2000) 1 Komunikazioak ez du arreta printzipioaren aktibazioaren harira agintari eskudunek onartu behar dituzten arreta neurrien zerrendapenik egiten. Arreta neurrien kasuistika eta izaera dena delakoa izan badaiteke ere, neurri horiek betiere osasun, ingurumen eta segurtasunaren babes maila altua bermatzeko eraginkorrak izan behar dira eta aurreko atalean aztertu diren printzipio orokorrak errespetatu behar dituzte.

Arreta neurrien artean gogorrena J/S/T baten debekua (osoa edo partziala) da, arreta printzipioaren aurka daudenek sutsuki kritikatzten duten neurria. Kasu batzuetan erabateko debekua J/S/T-aren arriskuei erantzuteko neurri proportzionala ez izatea gerta badaiteke ere, beste kasu batzuetan, kalte potentzialak oso larriak edo atzeraezinak direnean, hartu daitezkeen neurri bakarra dela azpimarratu du Komisioak⁴⁸⁵.

Bestalde, EBFT 191.2 artikulua babes-klausula (edo salbagoardia-klausula) izeneko aurreikusten du, arreta printzipioan oinarri duena⁴⁸⁶. EBFT 191.2 artikulua, intentsitate handiagoan (erregelamendu bidez) edo baxuagoan (zuzentarau bidez) arauketa komunitario harmonizatua duten J/S/T-en kasuan, arauketa komunitario horietan salbagoardia-klausula esanbidez aurreikustea exijitzen du. Marko normatibo komunitario horietako bakoitzean babes-klausularen edukia normatiboa desberdina izan badaiteke ere, klausula horren arauketan zenbait ezaugarri komun identifikatu daitezke. Babes-klausula Estatu-kideek J/S/T baten aurka aktibatu dezaketen klausula normatiboa da. J/S/T baten ustiapena, erabilera edota komertzializazioa parametro legalen barnean badago ere (J/S/T horrek legalki exijitutako baldintzak konplitzen ditu), klausula aktibatu duen Estatu-kideak hura osasunarentzat edo ingurumenarentzat arriskutsua izan daitezkeenaren arrazoizko susmoak ditu. Estatu-kideak babes-klausularen aktibazioaren bidez bere lurralde esparruan J/S/T horren erabilera edo komertzializazioaren aurkako behin-behineko neurriak hartzen ditu, EBko Komisioari eta beste Estatu-kideei jakinarazi behar dizkienak. Komisioak ahalik eta azkarren neurriok justifikatuak diren edo ez erabaki behar du. Komisioak Estatu-kideak J/S/T horren erabilera edo komertzializazioaren aurka onartutako neurriak justifikatuak direla erabakitzen badu, mugapen neurri horien aplikazio eremua esparru komunitariora hedatzeko aldaketa normatiboak martxan jarri behar ditu. Aitzitik, Estatu-kidearen mugapen neurriak arrazoituak ez direla erabakiz gero, kasu horretan Komisioak Estatu-kideari J/S/T horren mugapen neurriak indargabetzeko eskatu behar dio.

⁴⁸⁴ Ibid, 5.2.2. atala.

⁴⁸⁵ Ibid, 6.3.1. atala.

⁴⁸⁶ Ikus URRUTIA LIBARONA, 2008:271-277.

Arreta printzipioaren harira onartu daitekeen beste neurri bat komertzializazio baimen administratiboa da. Alegia, J/S/T baten ekoizleak baimen prozedura batean zehar hura segurua dela edo sorrarazi dezakeen arriskua onargarria dela frogatzeko karga dauka. Baimen sistemaren ordez aplikatu daitekeen beste arreta neurri bat J/S/T-aren testapena da, baimen prozedurarena baino intentsitate baxuagokoa den neurria. Kasu horretan J/S/T-aren ekoizleak hura testatu egin behar du eta testapenaren datuak agintari eskudunari jakinarazi behar dizkio.

Azaldu berri diren neurriez gain, arreta printzipiotik eratortzen diren neurriak izaera anitza izan dezaketean aldetik, bestelako neurri batzuk azpimarratu daitezke⁴⁸⁷:

- a) J/S/T arriskutsua debekatu eta alternatiba bideragarriengatik ordezkatua izatera pasatzea, alternatiba horiek osasun edo ingurumenean arrisku txikiagoak eragiten dituztenean eta ekonomikoko bideragarriak diren kasuetan.
- b) Poluzioa saihesteko edo produkzio garbiagoa lortzeko helburuz, poluzio iturrian aplikatzen diren BEP (*Best Environmental Practices*) edo BAT (*Best Available Technologies*) teknika motak. Hala ere, J/S/T baten ziurgabetasun elementuak direla eta, kasu batzuetan arriskuak saihesteko alferrikako teknikak izan daitezke.
- c) Arreta printzipioaren harira, J/S/T baten arriskuen ziurgabetasun testuingurua existitzen den kasuetan, J/S/T horri aplikagarri zaizkion esposizio segurtasun-marjinak zabaldu egin behar dira, kontsumitzaileen eta langileen osasuna babesteko helburuz.
- d) Arreta printzipioak J/S/T-en arriskuen inguruko ezagutza zientifiko-teknikoaren ekoizpenarekin eta jakintza horien difusio publikoarekin ere harreman zuzena du. Ondorioz, agintari eskudunek J/S/T baten efektu arriskutsu potentzialei buruzko infomazioa publikoki eta modu zabalean difunditzea eta J/S/T horren inguruko ezagutza zientifikoa handitzeko helburuz ikerketa programa desberdinak publikoki finantzatzea ere arreta neurriak kontsideratu daitezke.

⁴⁸⁷ Neurri horiei buruz, ikus TROUWBORST, op. cit, 165-179. orr; PYHÄLÄ et al, 2010: 218-220.

3. KAPITULUA

NANOMATERIAL MANUFAKTURATUEN BIZITZA ZIKLOA, ARRISKUA ETA TRATAMENDU JURIDIKOA

I. NANOMATERIAL MANUFAKTURATUEN EZAGUTZA ZIENTIFIKOA: BEREN EZAUGARRIAK, BIZITZA ZIKLOA ETA ARRISKUAK

I.1. Nanomaterial manufakturatuen ezagutza zientifikoaren ezaugarriak: konplexutasuna, ziurgabetasuna eta anbigotasuna

Nanomaterialei buruzko ezagutza zientifiko-teknikoa konplexutasun bereziko kontua da, material horiek berezkoak dituzten ezaugarriak direla medio. Tamaina konbentzionaleko materialekin erkatuz gero, nano-eskalan materialen partikulek “efektu kuantikoa” izeneko jasaten dute eta beren propietate fisiko-kimikoak aldatu egin daitezke. Material berdinak eskala konbentzionalan eta nano-eskalan elektrizitate eroankortasun, elastikotasun, sendotasun edota erreaktibotasuna bezalako propietate desberdinak izan ditzake. Propietate aldaketa horiek, besteak beste, nanomaterialen (eko)toxikotasunean, bioiraunkortasunean edo beste partikulekin izan dezaketen interakzioan eragina izan dezakete.

Nanomaterialak ingurumenarekin esposizioan sartzen direnean, beren portaera ere tamaina konbentzionaleko partikulak dituzten materialekiko desberdina da. Nano-eskalan dauden partikulek grabitazio ezaugarri desberdinak dituzte⁴⁸⁸ (denbora gehiago mantentzen dira airean), garraiatzeko mugikortasun handiagoa dute eta material desberdinekin kontaktuan sartzen direnean zeluletan barneratzeko erraztasun handia daukate⁴⁸⁹. Beste materialekin kontaktuan sartzen direnean, nanomaterialek beren egituraren eta propietate fisiko-kimikoetan aldaketa konplexuak jasan ditzakete⁴⁹⁰. Nanomaterialen ulermen zientifikoari konplexutasuna erantzen dion beste ezaugarri bat dosi-erantzunaren arteko erlazioa da. Izan ere, nanomaterial manufakturatuen dosi eta erantzunaren arteko erlazioa ez-linearra denaren zantzuak daude, kausalitate harremanaren zehaztapena nabarmen zailtzen duen erlazioa⁴⁹¹. Nanomaterialek portaera ez-linearra dutela esatean, kausa batek hainbat efektu sortu ditzakeela, edota efektu bat hainbat kausaren ondorio izan daitekeela (plurikausalitatea) esan nahi du. Horrez gain, nanomaterialen efektuak beren esposizioa jasaten denetik epe luzera azalarazi daitezkeen neurrian, kausa eta efektuen arteko harremanaren loturak identifikatzea zeregin nekeza bihurtu daiteke.

⁴⁸⁸ DELGADO, 2006: 36.

⁴⁸⁹ HUNT eta RIEDIKER, 2011: 13.

⁴⁹⁰ OWEN et al, 2009: 370-371.

⁴⁹¹ HUNT eta RIEDIKER, op. cit, 21. orr.

Bestalde, nanomaterialen kopuru aniztasunak eta beren propietate heterogeneotasunak ere nanomaterialen ulermenari konplexutasuna eransten dio. “Nanowerk” web orrialdean esate baterako, 2493 nanomaterial manufakturatzen zenbatu daitezke⁴⁹². Nanomaterial mota bakoitzaren barnean halaber azpisailkapenak ere egin behar dira, elkarren artean konparatuz gero nanomaterial azpi-mota bakoitzak bere ezaugarri bereizgarriak baititu. Funtsean beraz, beren propietateen heterogeneotasuna kontuan hartuta nanomaterial bakoitza mundu bat dela esan daiteke. Propietate aniztasun eta heterogeneotasun hori dela medio, komunitate zientifikoa orokorrean ados dago beren propietateak ezagutzeko modu bakarra nanomaterial bakoitzaren kasuan kasuko ebaluaketa (*case by case evaluation*) egitean datzala baieztatzean⁴⁹³.

Nanomaterial manufakturatuek berezkoak dituzten konplexutasun elementu horiekin batera, beren komertzializazioa etengabe haziz doala kontuan izan behar da, eta horrekin batera, nanomaterial manufakturatuek ingurumenean eta gizakiongan duten esposizioa. Nahiz eta nanoproduktuak merkaturatzen hasi zirenetik dagoeneko hamarkada bat baino gehiago igaro den, nanomaterialek gizakiongan zein ingurumenean duten esposizioari eta (eko)toxikotasunari buruzko informazioak ziurgabetasunez jositako jakintza eremua izaten jarraitzen du. Nanomaterial manufakturatuen ikerketa zientifiko espezifikoa egiten hasi direnetik 15 urte baino gehiago igaro badira⁴⁹⁴ ere, material horien propietate, portaera eta efektuei buruz eskuratutako ezagutza zientifikoak hutsunez beteta egoten jarraitzen du. Komunitate zientifikoaren baitan nanomaterial manufakturatuen segurtasunaren inguruan eskuragarri dagoen jakintza maila baxua dela onarturik dagoen errealitatea da⁴⁹⁵.

Nanomaterialek ingurumenean eta osasunean izan dezaketen esposizio eta efektuen inguruan existitzen den ezagutza zientifiko baxuaren arrazoietakoa bat ezaugarri horiek neurtzeko erabiltzen den metodologia zientifikoan datza. Izan ere, metodologia zientifiko konbentzionalek ez dute nanomaterialen propietate berezi eta konplexuak kontuan hartzen dituzten parametroetako asko kontuan hartzen. Kontsekuenteki, nanomaterial manufakturatuei metodologia zientifiko konbentzionalak aplikatzetik eratortzen diren emaitza zientifikoak osagabeak eta fidagaitzak izan daitezke, bai ikerketen emaitzak interpretatzerako orduan, baita ikerketak elkarren artean konparatzeko ere⁴⁹⁶. Nanomaterialen propietate heterogeneotasunaren ondorioz (nanomaterial bakoitza mundu bat da), nanomaterial desberdinen inguruan egindako ikerketa zientifikoaren datuak elkarren artean konpara-ezinak izaten dira kasu gehienetan. Hortaz, estandarizazio metodo kuantitatibo eta kualitatiboan eta karakterizazio parametroen (esaterako partikulen disolbagarritasuna edo aglomerazioa) konparazio irizpideen falta dago⁴⁹⁷. Bestalde, nanomaterialen esposizio eta dosimetriari buruzko informazio eta datu hutsuneak ere ugariak dira. Langileen esposizio eta dosimetriari buruzko ikerketak anitzagoak izan dira;

⁴⁹² Honako web orrialdea ikusi [2015-11-15]: <http://www.nanowerk.com/nanomaterial-database.php>

⁴⁹³ Ikusi EBko Legebiltzarra, 2012: 35. EBko Komisioak, halaber, COM (2012)572 Final komunikazioan nanomaterialak kasuan kasu ebaluatu behar zirela nabarmendu zuen.

⁴⁹⁴ EBko Legebiltzarra, op. cit, 34. orr.

⁴⁹⁵ YOKEL eta MACPHAIL, 2011: 3-4.

⁴⁹⁶ Beste askoren artean: OWEN et al, 2009: 371; STOKES, 2013: 4; HUNT eta RIEDIKER, 2011: 9. EBko Legebiltzarra: op. cit, 34. orr; HUNT eta RIEDIKER, op. cit, 9. orr.

⁴⁹⁷ HUNT eta RIEDIKER, op. cit, 9. orr.

aldiz, kontsumitzaile eta ingurumenaren kasuan aspektu horiek gutxiago ikertu dira⁴⁹⁸. Nanomaterialen manufakturatuek ingurugiroan duten portaera ulertu eta ikertzeko zailtasunak direla medio (ingurumen esposizio-eskenatoki posibleak simulatzeko zailtasun ugari existitzen dira), beren ekotoxikologia neurtzeko metodo aproposak garatzea erabat konplexua izaten ari da eta nanomaterialek ingurumenean duten esposizioari buruz orain arte lortu diren datuak oso urriak dira⁴⁹⁹.

Ondorioz, eskala konbentzionaleko materialei aplikatzen zaizkien metodologia zientifikoak eta parametroak analogia sinplearen bitartez nanomaterialei aplikatzea erabaki arriskutsutzat kalifika liteke⁵⁰⁰. Nanomaterialen manufakturatuen karakterizazio, esposizio eta arriskuaren ebaluaketarako erabiltzen diren metodologiak nanomaterialei buruzko informazio baliagarria eskaintzeko existitzen diren gabezia horiek ikusita, bestelako metodo batzuen garapena funtsezkotzat jotzen da. Besteak beste, esposizioa neurtu eta ebaluatzeko metodoak, gizakion osasunaren monitorizaziorako metodoak, nanomaterialen propietateetara egokitzen diren analisi kimikoak edota dosimetria metodologia espezifikokoak⁵⁰¹. Komunitate zientifikoak gainera ziurgabetasun testuinguru esanguratsu hori epe labur-ertainera begira mantendu egingo dela aurreratu du⁵⁰². Testuinguru horretan, EBko Komisioak nanomaterialen esposizioa eta arriskuak identifikatu, monitorizatu eta ebaluatzeko metodologia egokien garapenerako fase desberdinak dituen programazioa diseinatu du, 2015-2025 urte bitartean landuko dena⁵⁰³.

Nanomaterialen manufakturatuei buruzko ziurgabetasun zientifiko horiek, halaber, komunitate zientifikoaren baitan desadostasunak eragiten dituzte material horien arriskuak ebaluatzeko erabili beharreko metodoen inguruan, baita metodo horietatik ondorioztatutako datu eta emaitzen interpretazioaren inguruan ere. Hortaz, nanomaterialei buruz anbigutasun zientifikoko elementu anitz daude: nanomaterialen testapenerako erabili beharreko sistemetan⁵⁰⁴, dosi-erantzuna ikertzeko modeloen inguruan⁵⁰⁵, nanomaterialen nomenklatura eta terminologia komuna zehazterako orduan⁵⁰⁶ edota beraien propietateen eraldaketa, erreaktibotasuna edota toxikotasunari buruzko datuak interpretatzean⁵⁰⁷.

Atal honetan zehar nanomaterialen manufakturatuen propietate, portaera eta efektuen inguruan existitzen den konplexutasun, ziurgabetasun eta anbigutasun zientifiko hori deskribatzeko Ana Garcia Hom egileak honako metafora erabili zuen, gaztelaniatik euskarara itzuli dena:

⁴⁹⁸ EBko Legebiltzarra, op. cit, 34-35. orr.

⁴⁹⁹ OWEN et al, op. cit, 371. orr.

⁵⁰⁰ LEE, 2010: 817.

⁵⁰¹ Nanomaterialen manufakturatuen inguruan dagoen metodologia faltaren eta garatzeko premia handiena duten metodologiaren zerrendapena kontsultatzeko, ikusi: HUNT eta RIEDIKER, 2011: 10-14.

⁵⁰² Besteak beste, Royal Commission on Environmental Pollution: 2008: 54-55; WIESNER et al, 2006: 4343.

⁵⁰³ Ikus EBko Komisioa, 2013.

⁵⁰⁴ BATLEY eta McLAUGHLIN, 2010: 5.

⁵⁰⁵ KUEMPEL et al, 2012: 495.

⁵⁰⁶ GIEZER, 2011: 263.

⁵⁰⁷ JAFAR eta HAMZEH, 2013: 86.

Nanoteknologien kasuan gaur egun oraindik ez dakigu zeri egiten diogun aurre. Bidean zein arrisku aurkituko dugun ez dakigu zehazki eta horrek arriskuen inguruko analisi zehatz bat egiteko jarduna oztopatzen digu. Hortaz, iluntasunezko bidezidor batetik goaz, maparik gabe, momenturo eguneratzen doan iparrorratz baten laguntzarekin⁵⁰⁸.

I.2. Nanomaterial manufakturatuen bizitza zikloa eta esposizio-bideak

I.2.A. Orokorrean


Nanomaterial manufakturatuen ekoizpenak azken hamarkadan izan duen gorakadaren ondorioz, material horiek gizakiongan eta ingurumenean duten esposizio maila ere haziz doa. Nanomaterialekiko esposizioa beren bizitza zikloaren edozein faseetan eman daiteke: nanomaterialen eta nanoproduktuen manufakturazioan, nanoproduktuak erabiltzean eta beren hondakinak kudeatzean. Nanomaterialen eta nanoproduktuen ekoizpen faseetan, industria mota desberdinetako langileak dira nanomaterialekin kontaktuan sartzen direnak (arnas, larruazal edo digestio aparatuaren bidez), besteak beste, euren ekoizpen, manufakturazio, paketatze eta garraioa bezalako jardueretan. Langileekin batera, prozesu horietan nanomaterialek ur, aire edo lurrera isurpenak izan ditzakete eta beraz, ingurumen esposizioa ere ematen da. Ingurumen esposizio horren ondorioz gizakiek nanomaterialekiko zeharkako esposizioa jasan dezakete, esate baterako, ingurugirora askatutako nanomaterial manufakturuak ur emari edangarrietan edota elikadura katean barneratzen direnean.

Nanoproduktuak ekoitzi ostean beroiek merkaturatzen hasten diren momentutik aurrera kontsumitzaileak ere material horiekiko esposizioan sartzen dira. Produktuaren izaera eta kontsumitzaileak produktuarekiko egiten duen erabileraren arabera, esposizio-bideak ere desberdinak izan daitezke: arnas, larruazal edota liseri aparatuaren bidezko esposizioa jasan dezakete. Bestalde, nanoproduktuen kontsumoaren bidez ingurugiroarekiko esposizioa ere gertatzen da, eta ingurugiroaren bitartez, gizakion zeharkako esposizioa halaber.

Azkenik, nanoproduktuen bizitza zikloaren amaieran, beren hondakinak kudeatzean, hondakinen tratamendu prozesu desberdinetan (esaterako, nanoproduktuen berrerabilpen, birziklapen eta errausketan) parte hartzen duten langileak ere nanomaterialekiko esposizioan sartu daitezke. Langileekin batera, hondakin kudeaketan nanomaterialek ur, aire edo lurrera ere isurpenak emititzen dituzte, ingurumenarekin esposizioan sartuz. Azaldu berri diren esposizio-bide horiek hurrengo grafikoan irudikatzen dira.

⁵⁰⁸ GARCIA HOM, 2012: 263.

I. GRAFIKOA: Nanomaterialen bizitza zikloa eta esposizio-bideak



1.2.B. Esposizioa gizakiongan

Aurreko grafikoan irudikatutakoari jarraiki, nanomaterialak gizakiekin kontaktuan sartzeko hiru esposizio-bide daude: arnas aparatua, larruazala eta digestio aparatua.

Arnastutako nanopartikulak, beren tamaina, forma eta konposaketa kimikoaren arabera, biriketako eremu desberdinetara iritsi daitezke, trakeatik bronkioetara, alboetara edo bronkioloetara igaroz. Partikulen tamaina hain txikiak izanik antigorputzek zailtasunak dituzte horiek detektatzeko eta askotan ez dira gorputzetik kanporatuak izaten, ehunei erantsita geratzen baitira eta sistema kardiobaskularraren funtzionamendu okerra eragin dezakete⁵⁰⁹. Kasu batzuetan nanomaterialen konposaketa kimikoa aldatu egiten da eta ondorioz beren propietateak osasunarentzat are kaltegarriagoak bihurtu daitezke⁵¹⁰.

Azal bidezko esposizioak berebiziko ardura sortzen du, bereziki industria kosmetikoak gero eta gehiago erabiltzen dituen nanomaterialen enbriogenez ondorioz. Industriaren esanetan kosmetikoetan erabiltzen diren nanopartikulak ez dute larruazala zeharkatzeko gaitasunik eta ondorioz ez dira odol zirkulaziora iristen. Ikerketa zientifiko desberdinek ordea baieztapen hori ñabarduraz betea dagoela azpimarratu dute. Larruazalean zauririk egonez gero (oso txikia izanik ere), bertatik 7000 nanometroko tamaina-arte partikulak barneratu daitezkeela frogatu da⁵¹¹. Bestalde, kosmetikoetan erabiltzen diren nanomaterial ohikoenak dioxidodun titanioa eta zink oxidoduna dira. Dioxidodun titanioak nano-eskalan larruazaleko epidermisa zeharkatzeko gaitasuna du eta ilearen folikuloetan barneratu daiteke⁵¹². Epidermisa gaundituta nanomaterialak zirkulazio aparatua iritsi daitezke eta bertatik, edozein organotara: burmuinera, biriketara, bihotzera edo giltzurrunetara⁵¹³.

Nanomaterialak gizakiekin kontaktuan sartzeko hirugarren esposizio-bidea digestio aparatua da. Nanomaterialen enbriogenez erabiltzen dituzten elikagaien komertzializazioa mundu mailan handituz badoa ere, digestio aparatuen bidezko esposizioaren bidez nanomaterialak izan dezaketen biotoxikotasuna espezifikoki aztertu duten ikerketa zientifiko oso gutxi egin dira⁵¹⁴. Hala ere, partikulak hain txikiak izanik urdaileko paretatik zelulek azkarrago garraiatzen direla frogatuta dago⁵¹⁵ eta behin zirkulazio aparatua iristean, nanopartikulak edozein organotara garraiatuak izan daitezke eta inguruabar horrek eragin ditzaketen kalteak (gaur egun behinik behin) ia erabat ezezagunak dira.

⁵⁰⁹ DELGADO, 2007:53.

⁵¹⁰ Ken Donaldson zientzialariak eginiko adierazpenen iturria: KIRBY, A., *Tiny particles threaten brain*, BBC News, 2004ko urtarrilak 8.

⁵¹¹ OBERDORSTER, 2005.

⁵¹² DELGADO, op. cit, 54. orr.

⁵¹³ OBERDORSTER, op. cit.

⁵¹⁴ Horri buruz, ikus NIOSH, 2009.

⁵¹⁵ AIDANKO, 2010: 31.

Nanomaterialekiko esposizioan sartzeko probabilitate handienak dituzten gizaki taldeak bi dira. Alde batetik, nanomaterialekin kontaktuan sartzen diren langileak, nanomaterialen bizitza zikloaren fase desberdinetan zehar (nanomaterial eta nanoproduktuen manufakturazioan edota nano-hondakinen prozesuetan esate baterako). Bestetik, nanoproduktuak behin merkaturatzean, kontsumitzaileek eskuratu ditzaketen neurrian, beraiekiko esposizioa ere esanguratsua izan daiteke. Nanoproduktuen ekoizpen eta komertzializazioa gero eta handiagoa izanik ere, langile edota kontsumitzaileek nanomaterial manufakturatuekiko duten esposizioari buruzko datuen falta esanguratsua da.

Tesiaren 11. kapituluan azaltzen den bezala, nanomaterialek duten bizitza zikloa bere fase guztietan zehar monitorizatzeko mekanismo administratiboak falta dira. Europar Batasunean (EB) esate baterako, hornikuntza katean barrena informazioa transmititzeko erabiltzen diren mekanismoek (segurtasun datuen fitxa esaterako) ez dituzte hornikuntza katean parte hartzen duten aktoreak nanomaterialen informazio espezifikoaren esanbidez transmititzera behartzen, nanoproduktuen erregistro eta inbentario komunitarioak falta dira eta nanoproduktuen derrigorrezko etiketapena produktu mota batzuetara mugatua dago. Analisi hori ordea ez da hurrengo lerrootan lantzen, tesiaren 11. kapituluan baizik.

1.2.C. Esposizioa ingurumenean

Gizakiekin batera, nanomaterial manufakturatuek beren bizitza zikloan zehar ingurumenarekin kontaktuan sartzeko esposizio-bide asko existitzen dira⁵¹⁶. Tamaina handiagoko partikulekin erkatuz gero, nanomaterialen partikulek ingurumenean azalerazten dituzten portaera konkretu batzuk desberdinak dira. Nanopartikulak denbora luzez mantentzen dira airean eta lurrera erortzea denbora gehiago kostatzen zaie, kasu batzuetan egunak edo asteak egon baitaitezke airean “zintzilik”⁵¹⁷. Airean ez-ezik nanomaterialek lurlean ere propietate berezi batzuk azalerazten dituzte. Beren tamaina txikia dela eta, lurlean dauden beste partikula batzuegatik xurgatuak izan daitezke, partikula artean nahasteko erraztasuna dute eta beraz, lurlean zehar azkarrago hedatzeko erraztasuna dute⁵¹⁸. Gaur egun erabiltzen diren nanomaterial manufakturatuek batzuk biodregadaezinak diren aldetik, material horiek lurlean metatzen joango dira.

Gaur egun, tamalez, nanomaterialdun produktuen bizitza zikloari buruzko datu eta ezagutza falta nabarmena dagoela jada azpimarratu da. Nanomaterialen propietate eta ezaugarriak zientifikoki ulertzeko dauden zailtasunekin batera, ekoizten diren eta produktuetan erabiltzen diren nanomaterialen identifikazioa eta monitorizazioa erraztera zuzendutako mekanismo administratiborik ez da existitzen. Nanoproduktuen informazio faltaren testuinguru horretan, ingurumen eremu desberdinak babestea helburu duten

⁵¹⁶ BREGGIN eta PENDERGRASS, 2010: 355.

⁵¹⁷ AITKEN et al, 2004.

⁵¹⁸ ALLHOFF et al, 2010: 161.

zuzentarau komunitarioek nanomaterialen berezitasunetara egokitu gabe jarraitzen dute, tesi honen 12. kapituluaren sakontzen den analisia.

Nanomaterialen manufakturatuen erabiltzen diren produktuen arabera ingurumenean izan dezaketen esposizio-bideak desberdinak dira⁵¹⁹. Nanomaterialak kosmetikoetan edo margoetan erabiltzen diren kasuetan, produktu horien bizitza zikloan zehar urarekin esposizioan sartzeko probabilitatea handia da. Produktu kategoriatan horietan erabilitako nanomaterialen manufakturatuen %95ak ur hondakinetan amaitu dezakeela kalkulatu da. Ibilgailuen erregaietan erabiltzen direnean ordea, nanomaterialak airera isurtzen dira. Plagizidetan erabilitako nanomaterialen kasuan, produktuen bizitza zikloan zehar ingurugiro eremu desberdinekin sartu daitezke kontaktuan, lurarekin eta urarekin batez ere.

Nanomaterialen manufakturatuen erabiltzen diren produktu kategorien bizitza zikloarekin batera, nanomaterialak produktuetan duten erabileraren ezaugarrien arabera ingurumenarekiko esposizio maila ere desberdina da⁵²⁰. Ingurumenarekin esposizioan sartzeko probabilitate baxua nanomaterialak produktu solidoen barnean erabiltzen direnean gertatzen da (produktua apurtzen edo degradatzen ez den neurrian betiere). Aldiz, nanomaterialak produktu solidoen azaleran erabiltzen direnean, esposizio maila handiagoa izango dute eta nanomaterialen partikulek produktutik askatzeko duten gaitasuna kontuan hartu behar da. Nanomaterialen manufakturatuen likido edo emulsioetan erabiltzean ingurumenarekiko esposizioan sartzeko probabilitatea esanguratsua da. Azkenik, ingurugiroarekiko esposizio mailarik altuena nanomaterialen manufakturatuen modu soltean erabiltzen direnean ematen da.

Nanomaterialen manufakturatuen ingurumenean duten esposizio iturririk handiena produktuen bizitza zikloan zehar sortzen dituzten hondakinek osatzen dute⁵²¹. Alde horretatik, hondakinen tratamenduaren inguruan existitzen diren ezjakintasun eta ziurgabetasun zientifikoak esanguratsuak dira:

- a) Hondakinen arauketa komunitarioak nanomaterialen tratamenduari buruzko mekanismo espezifikoak onartzeko bidean, nanomaterialen hondakin korronteei buruzko informazio espezifikoak lortzea ezinbestekoa da. Gaur egun ordea, ez da nano-hondakin mota, kantitate edo ezaugarriei buruzko daturik eskuragarri⁵²².
- b) Hondakinak suntsiarazteko errausketaren metodoa erabiltzen den kasuetan helburua kaltegarriak diren sustantziak deuseztatzean datza, ahal den neurrian errausketaren bidez aireratzen diren sustantzia arriskutsuen emisioa murriztuz. Nanomaterialen manufakturatuen kasuan aitzitik, errausketaren bidez suntsiaraziak izateko zein baldintza bete behar diren ez dago argi. Horretarako, nanomaterial bakoitzaren propietate teknikoetan jarri behar da arreta, errausketa jasan ostean degradatu egiten

⁵¹⁹ Iturria: SENJEN, 2009 (EEB).

⁵²⁰ GANZLEVEN et al, 2011: 13(MILIEU eta AMEC).

⁵²¹ Ibid.; xiii.

⁵²² Ibid.

diren edo tximiniatik gas emisioen bidez irteten diren argitzeko. Karbonozko nanotutuek esaterako, oso tenperatura altuetan ere egonkor mantentzeko gaitasuna dutela frogatu da⁵²³ eta horren ondorioz, errausketa metodo konbentzionalen bidez material horiek ez suntsiaraztea gerta liteke. Bestalde, errausketa prozesuaren ostean sustantziak tximiniatik irteten direnean, nanomaterialen eta partikula finen artean bereizketa egiteko metodologiak falta dira⁵²⁴.

- c) Nanomaterial manufakturatuen erabiltzen dituzten produktu kategoria batzuek beren bizitza zikloaren amaieran birziklapen prozesua bezalako balorizazio prozesuak jasaten dituzte. Birziklapenaren eta nanomaterial manufakturatuen arteko harremanari buruzko jakintza zientifikoa ezdeusa da ordea, horren inguruko ikerketa zientifikoak oso urriak baitira⁵²⁵ eta beraz, birziklapen metodologiak aplikatzean ingurugirora nanomaterial manufakturatuen kantitate aipagarriak askatzeko arriskua egon daiteke⁵²⁶.
- d) Ur eremuekin esposizioan sartzen diren nanomaterial manufakturatuen kasuan, ur hondakinen tratamendurako egun existitzen diren arazketa prozesuek nanomaterialak ingurugiroarekiko esposizioan (eta gizakiarekin ere, ur edangarriaren bidez) sartzea eragozteko egokiak ez direnaren arrazoizko zantzuak daude⁵²⁷.
- e) Nanomaterial manufakturatuek ingurumenean zehar izan dezaketen garraio edota helmugari dagokionez, ingurumen zuzenbide komunitarioa osatzen duten arauak sustantzia kutsatzaileen inguruan aurreikusitako monitorizazio metodologiaren parametroak hein handi batean ez dira nanomaterialen detektapen eta jarraipenerako erabilgarriak (besteak beste, sustantzia kutsatzaileen masan oinarritutako monitorizazio parametroa)⁵²⁸.

I.3. Nanomaterial manufakturatuen arriskuak gizakiongan eta ingurumenean

Dagoeneko azpimarratu den bezala, nanomaterial manufakturatuek osasunean edota ingurumenean eragin ditzaketen efektuei buruzko jakintza maila osatzeke eta berauek neurtzeko metodologia aproposak garatzeke daude. Aitzitik, gehien erabiltzen diren nanomaterialen buruzko zenbait ikerketa zientifiko argitaratu dira. Jarraian zerrendatuko diren nanomaterialen kasuan, eskala konbentzionalen islatzen ez dituzten propietateak direla medio, beren erreaktibotasun maila nabarmen handitzen da. Ondorioz, nanomaterial horietako batzuen kasuan osasunean eta ingurugiroan eragin ditzaketen efektu kaltegarriak buruzko zantzu zientifikoak gero eta esanguratsuagoak dira. Jarraian, kezka berezia sortzen

⁵²³ Iturria: HANSEN, BAUN, 2012: 374. Datu hau, hala ere, honako ikerketatik eratorri da: CATALDO, *A study on the thermal stability to 1000 °C of various carbon allotropes and carbonaceous matter both under nitrogen and in air*. Fuller Nanotub Car N 20(4): 293–311.orr, 2002.

⁵²⁴ Health Council of the Netherlands, 2011: 26.

⁵²⁵ Nanomaterialen birziklapenari buruz, ikusi: SENJEN, 2009: 12 (EEB), Health Council of the Netherlands, op. cit.20, MUDGAL et al, 2011:104 (BIO Intelligence Service).

⁵²⁶ GANZLEVEN et al, 2011: 42 (MILIEU eta AMEC).

⁵²⁷ Health Council of the Netherlands, op. cit, 32. orr eta MOTZER, data ezezaguna.

⁵²⁸ BREGGIN eta PENDERGRASS, 2010: 359.

duten nanomaterial horiei buruz eskuragarri dagoen ezagutza zientifikoa laburpen eta azalpen taula baten bidez azaltzen dira:

- a) Merkatuan saltzen diren nanoproduktuen artean batzuek fullenero izeneko nanomaterial manufakturatua erabiltzen dituzte, karbonozko material mota bat alegia. Nanomaterial horren arriskuen inguruan egin diren ikerketa zientifikoen emaitzak ez dira batere positiboak. Fulleneroek (zehazki C60 tipokoek) *black bass* espezieko arrainen burmuineko ehunetan lesio larriak eragiten dituzte⁵²⁹. Bestalde, *Daphnia Magna* izeneko krustazoen hilkortasun tasa asko hasten da C60 motatako fullenero eta dioxido titaniodun nanopartikulekin esposizioan egonez gero⁵³⁰. Fullenero mota horrek, halaber, mikrobioen hazkuntza eta arnasketa eragozten du.
- b) Karbonozko nano-tutuak grafeno xaflaz kiribildutako estrukturak dira eta beren propietate elektriko, termiko eta mekanikoen ondorioz potentzial handia dute. Amiantoaren zuntzekiko dituzten antzekotasunak direla medio, gizakion biriketan eragin ditzaketen kalteez gain (nanomaterial mota horrek kantzeraren sustatzaile izateko gaitasuna duela frogatu da⁵³¹), bestelako izaki bizidunetan ere kalteak eragiteko gaitasuna dute. Alde batetik, arrain eta krustazoei arnas bideetan arazoak sorrarazten dizkie eta beren hilkortasun tasa handitu egiten da. Bestalde, landareengan ere eragina dute; ikerketa zientifiko batean, karbonozko nano-tutuekin esposizioan egon zen arrozaren loratze-garaia hilabete bat atzeratu egin zen eta arroz haziaren tamaina normalean baino txikiagoa izan zen⁵³².
- c) Zilarra ere nano-eskalan erabiltzen den materiala da. Nano-zilarraren propietate antibakterianoak direla medio, besteak beste, ur tratamenduko sistemetan, jantzigintzan, garbigailu eta hozkailuetan edo medikuntzan erabiltzen hasia da. Nano-eskalan zilarrak eskala konbentzionalean baino propietate toxiko handiagoak dituenez, uretan bizi diren arrain eta izaki ornogabeei kalteak eragiteko gaitasuna du. Zehazki, zebra arraienen enbrioietan eginiko esperimentuetan material horrek beren malformazioa eta heriotza eragin zuen⁵³³.
- d) Titaniodun nano-dioxidoa, beste aplikazio batzuen artean, kosmetikoetan, eguzki kremetan edo ibilgailuen pintoretan erabiltzen den nanomaterial manufakturatua da. Zilarraren antzera, titaniodun nano-dioxidoak ere propietate antibakterianoak ditu. Horrez gain titaniodun nano-dioxidoak beste metal mota batzuk xurgatzeko gaitasuna

⁵²⁹ OBERDÖRSTER, 2004: 1058-1062

⁵³⁰ LOVERN eta KLAPER, 2006: 1132-1137

⁵³¹ Nano-tutu eta gizakion osasunari buruz egin diren ikerketen datuak, besteak beste, MILLER, 2008: 3 (Friends of the Earth Australia).

⁵³² SENJEN, 2009: 16 (EEB). Ikerketaren iturria: LIN, S., et al., *Uptake, Translocation, and Transmission of Carbon Nanomaterials in Rice Plants*. *Small*, 5(10): 1128-1132, 2009.

⁵³³ SENJEN, 2009: 19 (EEB). Ikerketaren iturria: LEE, K.J., et al., *In Vivo Imaging of Transport and Biocompatibility of Single Silver Nanoparticles in Early Development of Zebrafish Embryos*. *ACS Nano*, 1(2): 133-143, 2007.

du, hots, erakarpen elektrostatiko handia dauka. Ondorioz, metal arriskutsuak xurgatu eta garraiatu ditzake, oso toxikoa den kadmioa esate baterako⁵³⁴.

- e) Zink nanoxidoa elektrizitatearen eroale gisa edo kosmetiko eta ibilgailuen pinturetan erabiltzen den nanomaterial manufacturatua da. Bere inguruan egin diren ikerketa zientifikoek arrinetan malformazioak eta arazo kardiobaskularrak sorrarazi eta zizareen hazkuntza eta ugalketan eragiten duela frogatu da⁵³⁵.

V. TAULA: nanomaterial batzuen arrisku zantzuei buruzko ikerketa zientifikoak

Materiala	Ikerketa	Aurkikuntza
Karbonozko nano-tutuak (CNT)	Muller et al, 2005 ⁵³⁶ .	Arratoietan <i>in vivo</i> eginiko ikerketetan nano-tutuen kantitate garrantzitsua iritsi zen biriketaraino, inflamazioa, fibrosia eta granulomak sortuz.
Karbonozko nano-tutuak (CNT)	Li et al, 2007 ⁵³⁷ .	Arratoietan <i>in vivo</i> eginiko ikerketetan, bihotzekoak edota burmuin infartoak eragin ditzakeen plaka arterialaren garapen azkartua eragin zuten nano-tutuek eta arratoien bihotzetako ADNare ere kaltetu zuten.

⁵³⁴ Ibid: 23. Ikerketaren iturria: TAKEDA, K., et al., *Nanoparticles Transferred from Pregnant Mice to Their Offspring Can Damage the Genital and Cranial Nerve Systems*. Journal of Health Sciences, 55(1): 95-102orr, 2009.

⁵³⁵ Ibid: 24. Ikerketen iturria aldiz: BRAYNER, R., et al., *Toxicological impact studies based on Escherichia coli bacteria in ultrafine ZnO nanoparticles colloidal medium*. Nano Letters, 6: 866–870. orr, 2006 eta WANGA, H., R.L. WICKA, and B. XING, *Toxicity of nanoparticulate and bulk ZnO, Al2O3 and TiO2 to the nematode Caenorhabditis elegans*. Environmental Pollution, 157(4): 1171-1177. orr, 2009.

⁵³⁶ Muller J, Huaux F, Moreau N, Misson P, Heilier J-F, Delos M, Arras M, Fonseca A, Nagy J, Lison D. Respiratory toxicity of multi-walled carbon nanotubes. *Toxicology and Applied Pharmacology*, 207(3). 2005: 221-231. orr.

⁵³⁷ Li Z, Hulderman T, Salmen R, Chapman R, Leonard S, Young S-H, Shvedova A, Luster M, Simeonova P. Cardiovascular Effects of Pulmonary Exposure to Single-Wall Carbon Nanotubes. *Environmental Health Perspectives*, 115(3). 2007: 377-382. orr.

Materiala	Ikerketa	Aurkikuntza
Karbonozko nano-tutuak (CNT)	Poland et al, 2008 ⁵³⁸	Asbestoaren antzeko formak dituzten nano-tutuek asbestoaren antzeko portaera azalerazten dute. Arratoien barrunbe abdominalean txertatutako nano-tutuek asbestoak bezalako efektuak sortu zituen, 7 eguneko <i>in vivo</i> ikerketa batean
Pareta anitzeko karbonozko nano-tutuak (MWCNT)	Erdely et al, 2013 ⁵³⁹ .	Arratoien MWCNTen arnas bidezko esposizioaren ondorioz, biriketako inflamazioa, biriketako tumoreak, fibrosia edota disfuntzio kardiobaskularrak bezalako gaitzak eragin zizkien arratoiei.
Pareta anitzeko karbonozko nano-tutuak (MWCNT)	Sargent et al, 2013 ⁵⁴⁰ .	Arratoiekin eginiko <i>in vivo</i> ikerketa batean MWCNT nanomaterialak kantzerraren sustatzaileak direla frogatzen duen lehenengo laborategi esperimentua da.

⁵³⁸ Poland C, Duffin R, Kinloch I, Maynard A, Wallace W, Seaton A, Stone V, Brown S, MacNee, Donaldson K. Carbon nanotubes introduced into the abdominal cavity of mice show asbestos like pathogenicity in a pilot study. *Nature Nanotechnology*, 3. 2008: 423–428. orr.

⁵³⁹ Aaron Erdely, Matthew Dahm, Bean T Chen, Patti C Zeidler-Erdely, Joseph E Fernback, M Eileen Birch, Douglas E Evans, Michael L Kashon, James A Deddens, Tracy Hulderman, Suzan A Bilgesu, Lori Battelli, Diane Schwegler-Berry, Howard D Leonard, Walter McKinney, David G Frazer, James M Antonini, Dale W Porter, Vincent Castranova and Mary K Schubauer-Berigan. Carbon nanotube dosimetry: from workplace exposure assessment to inhalation toxicology. *Particle and Fibre Toxicology*, 10 (53). 2013.

⁵⁴⁰ LM Sargent, DW Porter, D Lowry, L Battelli, K Siegrist, ML Kashon, BT Chen, D Frazer, L Staska, AF Hubbs, W McKinney, M Andrew, S Tsuruoke, M Endo, V Castranova and SH Reynolds. Multi-walled Carbon Nanotube-induced Lung Tumors. *The Toxicologist* 130:A457. 2013.

Materiala	Ikerketa	Aurkikuntza
Pareta anitzeko karbonozko nano-tutuak (MWCNT)	Mercer et al, 2013 ⁵⁴¹ .	Arratoietan <i>in vivo</i> eginiko ikerketa batean MWCNTak arnas aparatuen bidez biriketara iritsi eta hortik pleurara, arnas aparatuko muskuletara, gibelera, giltzurrunetara, bihotzera eta burmuinera garraiatu eta pilatu egin ziren. Esposizioa egun gutxi batzuetakoa izan bazen ere, MWCNT partikulak esposizioa eman zenetik urtebetera ere gorputzeko organo desberdinetan detektatu dira.
Fulleneroak (Nano C-60)	Oberdórster, 2004 ⁵⁴² .	<i>Black bass</i> espezieko arrainen burmuineko ehunetan lesio larriak eragiten dituzte.
Fulleneroak (Nano C-60) eta titaniodun nano-dioxidoa	Lovern eta Klaper, 2006 ⁵⁴³ .	<i>Daphnia Magna</i> izeneko krustazoen hilkortasun tasa asko hasten da C60 motatako fullenero eta dioxido titaniodun nanopartikulen esposizioak jasanez gero.
Titaniodun nano-dioxidoa	Takeda et al, 2009 ⁵⁴⁴ .	Titaniodun nano-dioxidoak dituen propietate erakartzaileak direla eta, metal arriskutsuak xurgatu eta garraiatu ditzake, oso toxikoa den kadmioa esate baterako
Titaniodun nano-dioxidoa	Gruden eta Mileyeva-Biebesheimer, 2009 ⁵⁴⁵ .	Bakterientzako (onak zein txarrak izan daitezkeenak) bereziki arriskutsua da titaniodun nano-dioxidoa, dosi oso txikietan ere.

⁵⁴¹ Robert R Mercer, James F Scabilloni, Ann F Hubbs, Liying Wang, Lori A Battelli, Walter McKinney, Vincent Castranova and Dale W Porter. Extrapulmonary transport of MWCNT following inhalation exposure. *Particle and Fibre Toxicology*, 10 (38). 2013.

⁵⁴² Oberdorster, E. Manufactured nanomaterials (fullerenes, C60) induce oxidative stress in the brain of juvenile largemouth bass. *Environmental Health Perspectives Journal*, 112. 2004: 1058-1062. orr.

⁵⁴³ Lovern, Sarah eta Klaper, Rebecca. *Daphnia Magna* Mortality When Exposed to Titanium Dioxide and Fullerene (C60) Nanoparticles. *Environmental Toxicology and Chemistry Journal*, 25. 2006.

⁵⁴⁴ Takeda, K; Suzuki, KI; Ishihara, A; Kubo-Irie, M; Fujimoto, R; Tabata, M; Oshio, S; Nihei, Y; Ihara, T; Sugamata, M. Nanoparticles Transferred from Pregnant Mice to Their Offspring Can Damage the Genital and Cranial Nerve Systems. *Journal of Health Sciences*, 55(1). 2009: 95-102. orr.

⁵⁴⁵ Gruden, CL, Mileyeva-Biebesheimer, O. *Microbiological fate of nanoparticles commonly found in personal care products*. 2009.

Interneten online: <http://oasys2.confex.com/acs/237nm/techprogram/P1236352.HTM> (2013-11-08).

Materiala	Ikerketa	Aurkikuntza
Zink nano-dioxidoa	Wanga et al, 2009 ⁵⁴⁶ .	Arrainetan malformazioak edota arazo kardiobaskularrak edota zizareen hazkuntza eta ugalketan eragina izan dezakeela frogatu da.
Nano-zilarra	Yang et al, 2009 ⁵⁴⁷ .	Janariarekin kontaktuan dauden materialetan erabiltzean, nanozilarra janarira migratu eta bere ADNra lotu zen. Nanozilarraren ondorioz ADNak erreplikatzeko gaitasuna galtzen du.
Nano-zilarra	Lee et al, 2007 ⁵⁴⁸ .	Zebra arraienen enbrioietan eginiko esperimentuetan hauen malformazioa eta heriotza eragiten dute.
Nano-zilarra eta nano-urrea	Archer, 2008 ⁵⁴⁹ .	Osasun osagarrietan erabilitako koloide gisa, bihotzeko paretaren ahultasuna eta zirkulazio aparatua funtzionamendu txarra eragiten dute.
Metal oxidodun nanopartikulak	Mortensen et al, 2008 ⁵⁵⁰ .	Metal oxidodun nanopartikulek larruazalaren bitartez filtratzeko gaitasuna dute, bereziki larruazala kalteturik edota eguzkiarengatik erreta dagoen kasuetan
Nano-metalak	Rogers et al, 2008 ⁵⁵¹ .	Giza odolean dauden antioxidatzaileen gaitasuna nabarmen murriztu dezake.

⁵⁴⁶ WANGA, H., R.L. WICKA, and B. XING. Toxicity of nanoparticulate and bulk ZnO, Al₂O₃ and TiO₂ to the nematode *Caenorhabditis elegans*. *Environmental Pollution*, 157(4). 2009: 1171-1177. orr.

⁵⁴⁷ Yang W, Shen C, Ji Q, An H, Wang J, Liu Q, Zhang Z. Food Storage Material Silver Nanoparticles Interfere with DNA Replication Fidelity and Bind with DNA. *Nanotechnology* 20 (8). 2009.

⁵⁴⁸ Lee KJ, Nallathamby PD, Browning LM, Osgood CJ, Xu XH. In Vivo Imaging of Transport and Biocompatibility of Single Silver Nanoparticles in Early Development of Zebrafish Embryos. *ACS Nano*, 1(2). 2007: 133-143. orr.

⁵⁴⁹ S. Archer. Dilated Cardiomyopathy and Left Bundle Branch Block Associated with Ingestion of Colloidal Gold and Silver Is Reversed by British antiLewisite and Vitamin E: The Potential Toxicity of Metals Used as Health Supplements. *Canadian Journal of Cardiology* 24 (5). 2008: 397-399. orr.

⁵⁵⁰ Luke J. Mortensen, Gunter Oberdörster, Alice P. Pentland and Lisa A. DeLouise. In Vivo Skin Penetration of Quantum Dot Nanoparticles in the Murine Model: The Effect of UVR. *Nano Letters* 8 (9). 2008: 2779-2787. orr.

⁵⁵¹ Rogers EJ, Hsieh SF, Organti N, Schmidt D, Bello D. A High Throughput In Vitro Analytical Approach to Screen for Oxidative Stress Potential Exerted by Nanomaterials Using a Biologically Relevant Matrix: Human Blood Serum. *Toxicology In Vitro* 22 (6). 2008:1639-1647. orr.

II. NANOTEKNOLOGIEN ARRISKUEN ONARGARRITASUNA ZEHAZTEKO PROZESUA

II.1. Itsaso zabal eta ilunari begira: nanoteknologiak ebaluatzen

Nanoteknologiak, orain arte jakintza zientifikoaren mugetatik at mantendu diren eremuak konkistatuz doazen teknologia berriak dira. Materialak nano-eskalan manipulatu lortu daitekeen ustiapen teknikoari buruzko ezagutza zientifiko berriak abiadura bizian ekoizten badoaz ere, ustiapen tekniko horrek osasunean eta ingurumenean eragin ditzakeen efektuen inguruko ezagutza zientifikoak baxua eta ziurgabetasunez bete izaten jarraitzen du. Nanoteknologiaren ezagutza zientifikoaren garapenean beraz abiadura bikoitzeko hazkuntzaz hitz egin daiteke: nanomaterialen ustiapen teknikoari buruzko ezagutza zientifiko-teknikoaren garapen azkarraren aurrean, ustiapen horren efektu kaltegarri buruz eskuragarri dagoen ezagutza oso mugatua da eta ezjakintasun elementuz bete dago.

Hurrengo orrietan, lehenik eta behin, ezagutza zientifikoaren garapen asimetriko horren kausa garrantzitsuenak identifikatzen dira. Ondoren, ziurgabetasun zientifikoko testuinguruan nanomaterialen manufakturatuen arrisku potentzialen ebaluaketa zientifikoa aurrera eramateko komunitate zientifikoak egin dituen proposamenak aztertzen dira. Azkenik, nanoteknologiaren arriskuaren onargarritasun erabakiak hartzean, arriskuaren ebaluaketa zientifikoaz gain, aurrera eraman beharko litzatekeen beste ebaluaketa mota bat nabarmendu nahi da: nanoteknologiaren garapenarekin zerikusia duten kezka sozio-ekonomiko eta etikoen ebaluaketa.

II.1.A. Ziurgabetasun zientifikoaren zergatiak ulertzen: nanomaterial manufakturatuen ezagutza zientifiko asimetrikoa eragin duten hiru kausak

Nanomaterial manufakturatuek eragin ditzaketen efektu kaltegarrien inguruan eskuragarri dagoen ezagutza zientifiko baxuaren kausa nagusia beren propietate, portaera eta efektuen konplexutasunean datza, kapitulu honen I. atalean aztertu dena. Material konbentzionalekin erkatuz gero nanomaterial manufakturatuek dituzten propietate fisiko-kimiko desberdinek eta portaera ezaugarri bereziek, material horiek gizakiongan zein ingurugiroan izan dezaketen esposizio, efektu eta horien arteko kausalitate harremana identifikatu, ebaluatu eta tratatzeko konplexutasuna eragiten dute.

Material konbentzionalak identifikatu eta beren segurtasuna ebaluatzeko erabiltzen diren metodologia zientifiko konbentzionalak ez dute gaitasun tekniko nahikorik nanomaterial manufakturatuen berezko parametro espezifiko batzuk kontuan hartu eta ebaluatzeko. Aurreko atalean aipatu den bezala, nanomaterialen esposizioa eta arriskuak egokitasunez eta zehaztasunez identifikatu, monitorizatu eta ebaluatzeko metodologia

espezifiko aproposak garatzeak luze jo dezakeela estimatzen da⁵⁵². Nanomaterial manufakturatuek identifikatu eta ebaluatzeko metodologia zientifikoek erakutsitako ahultasun horrek material horien propietate, portaera eta efektuen inguruan ziurgabetasun zientifiko epistemologikodun (jakintza zientifikoaren garapenaren bidez murriztu daitekeen ziurgabetasuna) eta ontologikodun (murriztu ezin daitekeena) elementuak esanguratsuak izatea dakar, komunitate zientifikoaren baitan aplikatu beharreko metodologiaren eta lortutako emaitzen inguruan desadostasunak eta interpretazio desberdinak eragiten dituen inguruabarra (anbiguotasun zientifiko alegia).

Nanoteknologiaren ezagutza zientifiko asimetriko horren bigarren kausa finantziarioa da. Zehazki, instantzia pribatu eta publikoek alde batetik nanomaterialen propietateen ustiapen tekniko eta bestetik ustiapen horren efektu kaltegarriak ikertzeari eskaintzen dioten inbertsio ekonomikoak erabat desorekatua da. Industria nanoteknologikoak egiten duen inbertsio pribatuarekin batera, munduko Estatu eta nazioarteko erakunde batzuek ere nanoteknologiaren ustiapenaren ikerketara inbertsio publiko sendoak bideratu dituzte azken hamarkadan⁵⁵³. Inbertsio pribatuek erabilgarritasun tekniko eta errentagarritasun ekonomikoaren maximizazioa bezalako irizpideen logikari jarraitzen diete. Aitzitik, instantzia publikoek, nanoteknologiaren garapen arduratsua eta ongizate komunera bideratutako ikerketa eredia bultzatzea oinarrizko helburu izan beharko balute ere, ezagutza zientifikoaren garapen asimetriko horretan zuzeneko zerikusia dute. Europar Batasunak esate baterako, urtero batz besterik ez da nanoteknologiaren osasun, ingurugiro edo segurtasunean eragin ditzaketen arriskuen ikerketara zuzentzen⁵⁵⁴.

Ezagutza zientifiko asimetriko horretan identifikatu den hirugarren kausak nanomaterial manufakturatuei buruzko informazioaren ekoizpena eta informazio horren komunikazio gardena eta zabala bermatzeko zereginean dauden oztopo normatiboekin du zerikusia. Alde batetik, ikuspegi juridiko batetik aztertuta industria nanoteknologikoak ekoizten dituen produktuak seguruak direla bermatzeko eginkizuna badu ere, nanomaterial manufakturatuen ziurgabetasun zientifikodun testuingurua nagusi den momentu honetan, ordenamendu juridikoak nanomaterial manufakturatuen efektu kaltegarrietan ez ikertzera bultzatzen duten instrumentu juridikoak existitzen dira, esate baterako, ziurgabetasun zientifikoko egoeran nanoproduktu batek eragindako kalteen ondorioz sorrarazitako ingurumen erantzukizunetatik eta erantzukizun zibiletatik salbuetsita geratzea posible egiten duen “garapenaren klausula⁵⁵⁵”. Beste alde batetik, industria nanoteknologikoak ekoizten dituen nanomaterial eta nanoproduktuen propietate, portaera eta efektuei buruzko informazio zientifiko aipagarria eduki badezake ere, informazio hori kasu askotan ez diete agintari eskudunei transmititzen; hots, ezagutza zientifikoa existitzen da, baina ez dago

⁵⁵² Esan bezala EBko Komisoak 2015-2025 urteetan zehar landuko duen nanomaterialen ebaluaketa metodologiaren garapenerako programaketa egituratu du. Ikus EBko Komisioa, 2013.

⁵⁵³ Nanoteknologiaren inbertsio pribatu eta publikoen datuak tesi honen 1. Kapituluan aztertzen dira, II.2.A. atalean.

⁵⁵⁴ OECD eta NNI, 2013: 22.

⁵⁵⁵ Garapenaren salbuespen klausula hori besteak beste EBko ordenamendu juridikoan aurreikusten da. Klausula hori tesiaren 11. kapituluan (III.5 atalean) eta 12. kapituluan (II.8 atalean) aztertzen da.

eskuragarri. Alde batetik, industria nanoteknologikoak ordenamendu juridiko desberdinek sekretu industrialari eta jabetza intelektualeko eskubideei aintzatesten dieten babes juridiko zabala baliatzen dute horretarako. Bestetik, nanomaterial manufakturatuei beren bizitza zikloan aplikatzen zaien *corpus* juridikoa osatzen duten pieza normatiboetako asko ez dira nanomaterialen berezitasunetara egokitu eta ondorioz, kasu askotan nanomaterialen eta nanoproduktuen ekoizleek ez dute material horien informazio espezifikoak agintari eskudunei transmititzeko betebeharrak normatiborik.

II.1.B. Nanomaterial manufakturatuek ebaluatzean ziurgabetasun zientifikoarekiko intolerantzia jarrerak ekiditeko planteamenduak

Nanomaterial manufakturatuei buruz existitzen den ezagutza zientifiko asimetrico horren kausa nagusiak behin aztertuta, material horien arrisku potentzialei buruz existitzen den ziurgabetasun zientifikoko testuinguru horri ebaluaketa zientifikoaren fasean heldu eta murrizteko planteamenduak aztertzen dira. Nanomaterialen inguruko ezagutza zientifikoak inguratzen duten ziurgabetasun elementuak tratatzerako orduan, iraganean teknologia berri batzuekin jarraitu diren planteamendu okerrez ikastea beharrezkoa da.

Teknologia berri batzuen arrisku potentzialei buruz ziurgabetasun zientifikoak existitzen zen kasu batzuetan, ziurgabetasun elementu horiek ulertu eta zehazteko planteamendu zientifikoen ordean, ziurgabetasun elementuekiko intolerantzia jarrerak nagusitu dira⁵⁵⁶. Alegia, ziurgabetasun elementuak sistematikoki eta tentuz ikertu eta tratatu beharrean, arrisku-analisiaren baitan parte-hartzen duten aktore desberdinek (arriskuaren ebaluaketan baina baita kudeaketan ere) ziurgabetasun elementu horiek ez onartu, hutsalak direla adierazi edota beren sakoneko analisia saihesteko jarrerak egokitu dituzte. Arriskuen ebaluaketa zientifikorako prozedura komunitarioak harmonizatzeke helburuz EBko Komisia 2000. urtetik aurrera martxan jarri zuen estrategian, ziurgabetasun elementuekiko intolerantzia jarrera horiek ekidin eta horiek identifikatu eta ahalik eta modu osoenean aztertzeke gidalerroak finkatu ziren⁵⁵⁷.

Bestalde, munduko 17 herrialdeetako 85 zientifikok ikerketa zientifiko gardenagoa bultzatzeko helburupean 2001ean nazioarteko proposamen bat argitaratu zuten⁵⁵⁸, nanomaterial manufakturatuen ebaluaketa zientifikoari erabat aplikagarriak zaizkien gidalerroak aurreikusten dituenak.

Alde batetik, nanomaterialen arriskuak eta ziurgabetasun zientifikoak ebaluatzean ahalik eta zientziarik zorrotzena eta gardenena aplikatu da, nanomaterialen kasuan kasuko ziurgabetasun elementuei buruzko galderak planteatu (non dago ziurgabetasuna, nolakoa da eta nola kontrolatu edo murriztu daiteke), eskuragarri dauden metodologia eta tresna

⁵⁵⁶ Ziurgabetasunaren intolerantzia kontzeptuari buruz gehiago jakiteko, honako dokumentuak ikusi: FOX et al., data ezezaguna eta VAS ASSELT et al., 2009: 376-377.

⁵⁵⁷ Honako dokumentuetan: EBko Komisia, 2000b; 2003.

⁵⁵⁸ Proposamena: *International Summit on Science and precautionary principle, september 20-22, 2001*.

zientifikoak ziurgabetasun faktore horiei erantzuteko gaitasunik duten aztertu, eta posible den neurrian, galdera horiei erantzuteko erabili daitekeen zientziarik onena aplikatu behar da.

Bestetik, nanomaterialen arriskuak ebaluatzean diziplina desberdinen arteko ikerketa zintzoa eta koordinatua bultzatu behar da, arrisku horiei buruzko ezagutza zientifikoaren kalitatezko ekoizpenean lagundu dezakeen inguruabarra. Nanomaterialen manufakturatuen kopuru aniztasuna eta beren propietateen heterogeneotasuna kontuan hartuta, existitzen diren nanomaterial guztien gaineko ikerketa ekimenak aldi berean martxan jartzeak lan karga itzela suposatzen du. Hortaz, nanomaterialen ikerkuntzan lehentasunak markatzea garrantzitsua izan liteke, nanomaterial erabilienak eta arrisku potentzial esanguratsuenak eragiten dituztenen ikerketei preferentzia emanez⁵⁵⁹.

II.1.C. Nanomaterial manufakturatuen arriskuak ebaluatzeko proposatu diren metodologiak: "Life Cycle Assessment" (LCA) ebaluaketa modelo eta metodologia analitikoak

Autore batzuek nanomaterial manufakturatuen segurtasun ebaluaketa fasean, arrisku-analisiaren modelo tradizionalarekin batera, LCA ebaluaketa modelo aplikatzea proposatzen dute, nanomaterialen konplexutasun eta ziurgabetasunak modu egokiagoan ebaluatu eta konprenitzeko balio dezakeenaren argudiopean⁵⁶⁰. Beste autore batzuek ostera, nanomaterialen ezaugarri bereziak kontuan hartuta, LCA modelo aplikatzea aukera aproposa den edo ez xehetasunez eta sakontasunez azterti beharreko kontua dela azpimarratzen dute⁵⁶¹.

Arrisku-analisi eta LCA ebaluaketa modeloek, biek hala biek, J/S/T baten bizitza zikloan oinarritutako ikuspegia aplikatzen dute, nahiz eta modelo bakoitzean bizitza zikloa ulertzeko modua desberdina den. Arrisku-analisiaren modeloak substantzian zentratutako ebaluaketa egiten duen bitartean, LCAk, substantzian baino, produktuan oinarritutako bizitza zikloaren ebaluaketa egiten du (produktuaren lehengaien ekoizpenetik hasi eta produktu horren hondakinen kudeaketararte).

Bestalde, nanomaterialen jakintzaren inguruko konplexutasun eta ziurgabetasun elementuek luze joko dutela jakinda, nanomaterialen arriskuen ziurgabetasun testuinguru horretan beren ebaluaketarako metodologia analitikoak aplikatzea gomendatzen duten ekimen publiko eta pribatuak ere ugarituz doaz⁵⁶². Europar Batasunak metodologia analitikoan oinarritutako arrisku ebaluaketa proposamenik egin du.

⁵⁵⁹ MORRIS et al, 2011: 76.

⁵⁶⁰ Nanomaterialen arrisku ebaluaketa arrisku-analisi eta LCA modeloen arteko konbinaketa gauzatzearen alde: HIDALGO et al, 2013; MORRIS et al, 2011.

⁵⁶¹ BEAUDRIE, 2013: 8; HISCHIER eta WALSER, 2012: 279-280.

⁵⁶² Besteak beste, Suitzako Gobernuak egituratutako *Precautionary Matrix for Synthetic Nanomaterials* deritzona, edota Kanadako *Nano Risk Framework* izeneko metodologia analitikoak.

Zehazki, EBko Komisioak 2014an emandako orientazio gida batean⁵⁶³ enplegatzaleei lan eremuan nanomaterialen manufakturatuen arriskuak ebaluatzeko metodologia analitikoan oinarritutako prozedura bat jarraitzea gomendatzen die. Metodologia analitikoaren izaerari dagokionez, ziurgabetasun zientifiko maila altua duten arriskuei aplikatzen zaien metodologiak dira eta arriskuak espezifikoki eta zehaztasunez ebaluatu baino, beren inguruko informazio praktikoa eta kategorizatua lortzeko parametroak aplikatzen dituzte. Nanomaterialen manufakturatuen kasuan metodologia analitikoak kezka sortzen duten “eremu beroak” identifikatzeko, arrisku posibleen *ranking*-a egiteko (arrisku handia, normala, txikia) eta arriskuen minimizaziorako intentsitate desberdineko kudeaketa neurriak proposatzeko baliagarriak izan daitezke. Aitzitik, LCA modeloarekin gertatzen den antzera, eskuragarri dauden metodologia analitiko desberdinen artean nanomaterialen berezitasunetara hobekien egokitzen diren metodoak erabakitzeko orduan ere doktrinaren baitan ez dago adostasunik⁵⁶⁴.

II.1.D. Nanomaterialen segurtasun ebaluaketa zientifikoaz harago: ekonomiko, sozial eta etikoen ebaluaketa

Teknologia berriek eragin ditzaketen arriskuen onargarritasunari buruzko eztabaidan, tradizionalki jarraitu diren eskemen xedea *how safe is safe enough?* (zein segurtasun maila da nahikoa seguru?) galderari erantzutea da⁵⁶⁵. Alegia, teknologia berri baten onargarritasunari buruzko erabakiak berorrek planteatu ditzakeen arriskuen inguruko eztabaidara mugatu da. Autore batzuek ordea teknologia berrien onargarritasuna erabakitzeko beste galdera bati erantzun beharko litzaiokeela defendatzen dute: *how fair is safe enough?* (zein justua da nahikoa segurua?). Izan ere, teknologia berri batek eragin ditzakeen arriskuen eta segurtasunaren inguruko auziaz harago, teknologia berri horrek planteatzen dituen kezka sozio-ekonomiko eta etikoek ere (aurrerantzean, E/S/E kezkek) bere onargarritasun erabakietan behar besteko pisua izan beharko lukete⁵⁶⁶.

Beraz, nanoteknologiaren arriskuen onargarritasuna zehazteko zereginetan, zientzia arautzaile bezala definitu daitezkeen jarrera hori gainditu egin behar da. Nanoteknologiaren arriskuen onargarritasun erabakiak ezin dira zientzialariek burututako arrisku ebaluaketatik lortutako emaitzen eta teknologia horien onura potentzialen arteko ponderaketara soilik mugatu. Nanomaterialen manufakturatuek osasunean edo ingurumenean eragin ditzaketen arrisku potentzialen ebaluaketa zientifikoarekin batera, nanoteknologiaren arriskuen onargarritasuna erabakitzeko eztabaidan beste elementu osagarri batzuk ere ebaluatu behar dira: nanoteknologiaren garape ereduak pizten dituen E/S/E kezkek (giza eskubideen urraperen potentzialekin zerikusia duten kezkez ahaztu gabe) hain zuzen ere.

Marko komunitarioan arreta jarritz gero, berrikuntza teknologikoak dakartzan onuren kontra-balantza bezala erabiltzen den elementu bakarra arriskuarena da. Agintari

⁵⁶³ EBko Komisioa, 2014b. Orientazio gida hori tesiaren 11.kapituluan, II.3.B.b azpi-atalean aztertzen da.

⁵⁶⁴ BEAUDRIE, op. cit, 9. orr.

⁵⁶⁵ DARLINGTON et al, 2001 eta KANE, 1992.

⁵⁶⁶ LACOUR, 2011; LEE, 2010.

komunitario eskudunek, teknologia berri baten arriskuen inguruko informazio zientifikoa argitaratzearekin batera, teknologia berri horren onurei eta E/S/E kezkei buruzko informazioa argitaratzen dute. Hala ere, berrikuntza teknologikoez planteatu ditzaketen E/S/E kezkei buruzko informazioa praktikan ez da teknologia berrien erabakietan kontuan hartzen edo ez zaie behar besteko garrantzirik aitortzen (bioteknologien kasuan esate baterako)⁵⁶⁷. Alde horretatik, teknologia berrien garapenaren inguruan onartzen diren erabakiek duten ikuspegia mugatua eta partziala da. Erabaki horiek arrisku/onura eztabaidara mugatzeak teknologia horien garapenean interes ekonomikoak dituzten alderdiei egiten zaie mesede⁵⁶⁸.

International Risk Governance Council (IRGC) erakunde independenteak ordea bestelako arrisku-analisi prozedura alternatibo bat proposatzen du, teknologia berrien gaineko erabakietan E/S/E kezkek izan beharko luketen pisua kontuan hartzen duena. Erakunde horrek proposatutako arrisku-analisi modeloan E/S/E kezkek arrisku ebaluaketaren fasean ebaluatu behar dira, baina bi ebaluaketa desberdinetan⁵⁶⁹: alde batetik, arriskuen ebaluaketa zientifikoa, eta, bestetik, arriskuen inguruko pertzepzio publikoa eta teknologia berriaren garapenak planteatzen dituen E/S/E kezka desberdinen ebaluaketa. E/S/E kezken ebaluaketan, adituek izan dezaketen iritziaz gain, herritarrek teknologia horrekiko duten pertzepzioa eta iritzia ere jaso egin behar da, parte-hartze printzipioa bermatu nahi bada.

Nanoteknologien garapenaren kasuan ere doktrinak E/S/E kezka desberdinak identifikatu ditu⁵⁷⁰, teknologia mota horren garapenak giza eskubideen ikuspegitik planteatzen dituen erroka garrantzitsuekin batera⁵⁷¹. Agintari eskudunek nanoteknologien arriskuen onargarritasunari buruz hartzen dituzten erabakiak legitimoak izan daitezten, kezka horiek behar bezala ebaluatu eta erabakietan kontuan hartzea funtsezkoa da. Horrez gain, nanoteknologien arriskuen onargarritasunari buruzko erabakiak legitimoak izan daitezten erabakitze-prozedura gardentasun eta parte hartze publikoko printzipioetan oinarritu behar da. Azken analisi hori hurrengo atalean sakontzen da.

⁵⁶⁷ LEE, op. cit, 799. orr.

⁵⁶⁸ Ibid.

⁵⁶⁹ IRGC, 2006: 22-23.

⁵⁷⁰ Tesiko 1. kapituluaren III.3.B azpi-atalean.

⁵⁷¹ Tesiko 6. kapituluaren nanoteknologien eta giza eskubideen arteko harremanaren analisi sakona egiten da.

II.2. Nanoteknologien itsaso zabal eta ilunean igeri egiteko oinarrizko printzipioak: gardentasuna, parte hartze publikoa eta arreta

II.2.A. Nanoteknologien “arrisku legalaren” eraikipena eta bere kontrol demokratikoa

Nanoteknologien garapenak gizarteari ekar diezazkiokeen onura posibleen kontra-balantza bezala, teknologia horiek osasunean edo ingurumenean eragin ditzaketen arrisku potentzialek ziurgabetasun zientifiko garrantzitsu batez inguratuta jarraitzen dute, nanoteknologien garapenean planteatu daitezkeen E/S/E kezkak ahaztu gabe. Testuinguru horretan, nanoteknologien arriskuen onargarritasun maila nola zehaztu behar den ez da aho-batasuneko kontua⁵⁷².

Industriaren ordezkari, kontsumitzaileen elkarte, langileen sindikatu eta bestelako GKE-ek, nanoteknologien garapenean izan ditzaketen interesen arabera, teknologia horien inguruan existitzen den ziurgabetasun zientifikoa modu desberdinean interpretatzen dute. Interes ekonomikoen defentsan, industria nanoteknologikoak ziurgabetasun testuinguru hori nanoteknologien garapena eta berrikuntza oztopatzeko elementu bezala erabili ezin daitekeela argudiatzen duen bitartean, osasuna eta ingurumena babesten duten GKE, sindikatu eta bestelako erakundeek, ziurgabetasun testuinguru horrek nanoteknologien erabilera eta komertzializazioa mugatzeko neurriak hartzea bultzatzen duela defendatzen dute.

Bestalde, gizarteak nanoteknologiekiko duen iritzi publikoa oraindik egituratzeko dagoen elementua da, teknologia horien hastapenetatik hamarkada bat baino gehiago igaro bada ere herritar xumeek nanoteknologiekiko duten ezagutza maila oso baxua baita eta ezjakintasun publikoak arau orokorra izaten jarraitzen baitu. 2010. urtean eginiko euro-barometro batean parte hartu zuten hiritarren %54ak nanoteknologien inguruan inoiz entzun ez zutela erantzun zuten⁵⁷³ eta munduko beste lurraldeetan egin diren inkestetan ere antzeko datuak ondorioztatzen dira (AEBn eta Japonian esate baterako⁵⁷⁴). Funtsean, nanoteknologien garapenarekin bilatzen den interes komuna zein den oraindik zehazteke dagoen parametroa da⁵⁷⁵.

Bioteknologien garapenean burututako iraganeko akatsak ez errepikatzeko asmoz, gizarteak nanoteknologiekiko duen pertzepzio publikoaren karakterizazioa egitea ezinbesteko zeregina bihurtu da⁵⁷⁶. Nanoteknologiei buruzko pertzepzio publikoa aniztasun eta konplexutasun handiko elementua bada ere, orokorrean herritarren artean nanoteknologiekiko jarrera anibalenteak sumatzen dira eta bi alde (positiboa eta negatiboa) dituen ezpata berbera bailiran ulertzen dute⁵⁷⁷. Nanoteknologiekin zerikusia duten ikerketa lerro eta produktu potentzialen inguruan galdetzean, herritarren erantzunak

⁵⁷² SCHOMBERG, 2010: 10.

⁵⁷³ EBko Komisia, 2010a.

⁵⁷⁴ EU-OSHA, 2012: 12.

⁵⁷⁵ EHNERT, 2015: 46.

⁵⁷⁶ KEARNES et al, 2006: 15; MACNAGHTEN 2010: 24

⁵⁷⁷ MACNAGHTEN et al, 2010:

ez dira sinpleki positibo edo negatiboak izaten, parte hartzaileek erabaki bat edo bestea hartzeak izan ditzakeen abantailak eta desabantailak ere azpimarratzen baitituzte. Bestalde, herritarrek gai honetan botere publikoekiko eta industriarekiko konfiantza maila baxua erakusten dute orokorrean⁵⁷⁸. Botere publikoekiko herritarrek duten konfiantza falta hori J/S/T batzuen gainean iraganean jarraitutako arrisku kudeaketa politika publiko traketsen esperientziak sorrarazten duen bitartean, industriak nanoteknologiaren kasuan, nanomaterialen ustiapen seguruan arreta jarri beharreau ustiapen horretatik erator daitezkeen interes ekonomikoak lehenetsiko dituenaren pertzepzio publikoa esanguratsua da⁵⁷⁹.

Teknologia berrien arriskuaren onargarrtasun maila zehazteko prozeduran tradizionalki “zientzia arautzailea” (*regulatory science*) izeneko eskema jarraitu izan da: arrisku ebaluatzaileen ondorio eta gomendio zientifikoek botere publiko eskudunek arrisku onargarria erabakitzeko oinarrizko euskarri eta faktore erabakigarri bezala funtzionatu izan dute. “Zientzia arautzailearen” eskema tradizionaletik aztertuta, nanomaterialen manufakturatuen inguruan existitzen den ziurgabetasun zientifiko esanguratsua teknologia horien arriskuaren onargarrtasuna definitzeko oztopo faktore bezala jardun dezake. Nanomaterialen arrisku ebaluaketa zientifikoetatik ondorioztatutako arriskuaren estimazio eta karakterizazioa oso opakua eta gardentasunik gabea izatea gerta daiteke, bai nanomaterialen arrisku kudeatzaileentzat, baita publikoarentzat ere⁵⁸⁰. Zentzu horretan, nanoteknologiaren arriskuaren onargarrtasuna zehazteko jarraitu beharreko prozeduran “zientzia arautzailea” bezalako eskema zaharrak gainditu egin behar dira.

Ziurgabetasun zientifikoa, nanoteknologiaren arriskuaren onargarrtasuna edo “arrisku legalizatua” erabakitzeko eragozpen faktore bezala ulertu beharreau, “arrisku legalizatuaren” eraikipen kolektiborako aukera irekitzen duen faktore bezala ulertu behar da (ziurgabetasuna oztopo izan beharreau, produktiboa bihurtzea⁵⁸¹). Nanoteknologiaren ziurgabetasun zientifikoak ikuspegi juridikotik eragiten dituen erronken aurrean, beren “arrisku legalizatua” erabakitzeko prozesuan galdera desberdinei erantzun behar zaie. Zehazki, erabakitze-prozesu horren elementu subjektiboa (nork erabaki behar du? nork parte hartu behar du erabakitze prozesuan?), prozedura elementua (zein nolako erabaki-hartze prozedurak artikulatu behar dira?) eta elementu objektiboa (erabakia hartzean zein balore, ondasun juridiko, eskubide eta interes legitimo daude jokoan eta elkarren artean nola ponderatu behar dira?).

Alde horretatik, nanoteknologiaren “arrisku legalizatua” erabakitzea zeregin bikoitzeko jardura bihurtzen da. Nanoteknologiaren arrisku potentzialak, E/S/E kezkek eta onura posibleak tentuz aztertu, ebaluatu eta karakterizatzearekin batera, arriskuaren onargarrtasunaren erabakitze prozeduratik ondorioztatzen den “arrisku legalizatuak”, legala ez-ezik legitimoa ere izan behar du. Industria, langile, kontsumitzaile, ingurumena

⁵⁷⁸ KEARNES et al, 2006: 76-78.

⁵⁷⁹ MACOUBRIE, 2005: 4.

⁵⁸⁰ MORRIS, 2010: 60.

⁵⁸¹ LAURENT, 2010: 78-80.

eta bestelako interes batzuen defentsan diharduten erakundeez gain, nanoteknologiaren onura eta kalte potentzialen subjektu hartzailea gizartea ere baden neurrian, beste alderdi interesdunekin batera herritarrei ere “arrisku legalizatuaren” eraikipen prozesuan parte hartzeko baliabide materialak (nanoteknologiari buruzko informazio publikoa) eta prozedurazkoak (parte hartzeko formatuak) ahalbidetu behar zaizkie.

Hurrengo azpi-atalean nanoteknologiaren informazio publikora sarbidea izateko eskubideak eta parte hartze publikoak nanoteknologiaren “arrisku legalizatuaren” legitimotasuna eta kontrol demokratikoa bermatzeko duten garrantzia aztertzen da. Kapituluarekin amaitzeko, agintari eskudunek nanomaterialen manufakturatuen arriskuak kudeatzean kontuan hartu behar duten arreta printzipioa aztertzen da, ziurgabetasun zientifikoaren inguruetako arrisku larriak existitzen direnean arrisku horiek kudeatzeko aktibatu behar den printzipioa.

II.2.B. Nanoteknologiari buruzko informazioa, gardentasun printzipiotik eratortzen den informazio publikorako sarbide eskubidearen ikuspegitik aztertuta

II.2.B.a. Nanoteknologiari buruzko informazioaren komunikazioak duen garrantzia

Nanomaterialen manufakturatuen propietate, portaera eta efektuen inguruan existitzen den ziurgabetasun zientifikoa esanguratsua izanik, nanomaterialen arrisku potentzialak ahalik eta hobekien ulertu eta forma emateko ziurgabetasunarekiko intolerantzia jarrerak ekidin eta ezagutza zientifiko eta teknikoaren ekoizpena bultzatu behar da, kapitulu honetan lehenago azpimarratu den bezala. Nanoteknologiaren arriskuak ulertu, forma eman eta “arrisku legalizatua” eraikitzeke zereginean ordea, ezagutza zientifiko berrien ekoizpen jarduerarekin batera nanoteknologiaren informazioaren komunikazioa ere ezinbesteko instrumentua da⁵⁸². Beste teknologia berri batzuen esperientzia negatiboetatik ikasita, informazioaren transmisioa ez da aldebakarrekoa izan behar, instantzia publiko eskudunen eta alderdi interesdun guztien (gizarte zibila barne) arteko norabide anitzeko transmisio interaktiboa baizik⁵⁸³. Komunikatzen den informazio emaria ahalik eta zintzo, zabal, garden eta objektiboena izan behar da eta jarraian zerrendatzen diren betebeharrak eta eskubide desberdinen elementu instrumental bezala jardun behar du.

Agintari komunitario eskudunek nanoteknologiarekin zerikusia duten ekimen politiko eta legegileak egituratzen dituztenean, informazioaren transmisioa funtsezkoa bilakatzen da ekimen horiek jatorrizko zuzenbide komunitarioan exijitutako osasun eta ingurumen babes maila altua bermatzeko eginkizunean. Informazioaren komunikazio horretan, alde batetik industria nanoteknologikoaren eta agintari publiko eskudunen arteko elkartrukeak

⁵⁸² FERRIEUX, 2008: 36.

⁵⁸³ MANTOVANI eta PORCARI, 2010: 40; WIDMER et al, 2010: 25-26. Bioteknologiaren gaineko iraganeko esperientziak industriak transmititutako aldebakarreko informazio emariak gizartean teknologia horrekiko konfiantza eza sorrarazten dutela erakutsi dute.

eta bestetik instantzia publiko desberdinen arteko barne-transmisioak duen garrantzia nabarmendu daiteke.

Bestalde, kontsumitzaile, langile eta pazienteek nanoteknologiaren inguruan informazioa jasotzeko eskubidea dute, bai beren osasuna eta segurtasuna babesteko, baina baita nanomaterialen erabileraren gainean modu arrazoitu eta kontzientean erabaki ahal izateko ere: kontsumitzaileek nanoproduktu bat kontsumitu edo ez eta pazienteek nanomaterialak erabiltzen dituen tratamendu mediku bat modu informatuan baimendu edo ez erabakitzeko (pazienteak baimen informaturako duen oinarritzko eskubidea egikaritu ahal izateko).

Azkenik, gardentasun printzipiotik eratortzen den informazio publikorako sarbide eskubideak (EBT 15.3 art; EBOEG 42. art.) herritarrei instituzio komunitarioek beren eskuetan dituzten dokumentuetara sarrera izatea ahalbidetzen die. Informazio publikoaren transmisio hori nanoteknologiaren arrisku legalizatua eraikitzeke eta horren betearazpena publikoki kontrolatzeko oinarritzko instrumentua da.

Hurrengo lerrootan hain zuzen ere nanoteknologiaren informazio transmisioarekin lotutako azken aspektu hori lantzen da. Langile, kontsumitzaile eta pazienteek nanoteknologiaren inguruan duten informazio eskubidea eta hura egikaritzeko agintari publikoek aktibatu behar dituzten mekanismo administratiboak tesi honen beste kapitulu batzuetan sakontzen dira⁵⁸⁴.

II.2.B.b. Nanoteknologiari buruzko informazio publikoa, dokumentu publikoen sarbide eskubideari buruzko arauketa komunitarioaren aplikaziopean

Alde batetik, informazio publikorako sarbide eskubideak nanoteknologiaren “arrisku legalizatua” eraikitzeke prozesuan alderdi interesdunek (gizarte zibila barne) eraginkortasunez parte hartu ahal izateko aurrebaldintza bezala funtzionatzen du. Gardentasun printzipiotik eratortzen den eskubide hori parte hartze publikorako printzipioaren ezinbesteko baldintza bezala ulertu behar da, nanoteknologiaren informazio emariaren areagotzea eta horren transmisio zabala eta eraginkorra ahalbidetu ezean, alderdi interesdunek eta batez ere herritarrek (nanoteknologiakiko duten ezjakintasun maila esanguratsua kontuan hartuta) nekez hartu baitezakete parte teknologia horien onargarritasunari buruzko erabaki-hartze prozesuan. Informazio publikorako sarbideari esker beraz, herritarrak nanoteknologiaren inguruko hausnarketa eta iritzi propioak eraikitzeke gai izan behar dira.

Bestetik, informazio sarbideak botere publikoen funtzionamenduaren gardentasuna bultzatu eta horren kontrol demokratikoa ahalbidetzen du. Instantzia publikoek

⁵⁸⁴ Nanoteknologiaren eta langile eta kontsumitzaileen arteko harremana tesiko 11. kapituluan eta nanomedikuntza tratamenduen pazienteen baimen informaturako oinarritzko eskubidearen ikuspegitik eragiten dituzten erronkak 6. kapituluko VI.2 azpi-atalean aztertzen dira.

nanoteknologien “arrisku legalizatua” aplikatu eta interpretatzen dutenean arriskuaren parametro legalak betetzen eta betearazten dituztela publikoki kontrolatzeko, eta horrela ez den kasuetan, instantzia horiei erantzukizun eta kontu emateak eskatzeko instrumentu bezala funtzionatzen du informazio publikorako sarbide eskubideak.

Hurrengo kapituluetan sakontzen den bezala, nanoteknologien estrategia politiko-juridikoaren oinarritzko egiturapena EBk beregain hartu duen gaia da. Alde horretatik, hurrengo lerrootan instituzio komunitarioek beren eskuetan duten nanoteknologien dokumentaziora herritarrek duten sarbide eskubideari buruzko xehetasunak aztertzen dira.

Zuzenbide komunitarioan informazio publikorako sarbide eskubidea erregimen orokor (1049/2001 Erregelamenduak arautzen duena) eta espezifiko (1367/2006 Erregelamendua) batez dago egituratua, ingurumen informazio publikorako sarbide eskubideari tratamendu juridiko berezia aurreikusten baitzaio. Bi erregimen komunitario horiek elkarren artean konparatuz gero, informazio sarbide eskubidearen egikaritzaren ikuspegitik erregimen espezifiko orokorra baino bermatzaileagoa da, Aarhuseko Nazioarteko Hitzarmenaren zentzuarekin bat eginez ingurumen informazioari estatutu juridiko indartuagoa aintzatesten baitzaio (eskobidearen aplikazio eremu subjektibo zabalagoa da eta bere egikaritzarako berme gehiago aurreikusten zaizkio). Sarbide eskubidearen erregimen komunitario orokor eta bereziaren analisisa ordea tesi honen 2. kapituluan (III.3.B. azpi-atalean) egin denez, hurrengo lerrootan ez dira eduki normatibo horiek berriro errepikatzen, nanoteknologien informazioaren ikuspegitik azpimarragarriak diren aspektu normatiboak besterik ez.

1367/2006 Erregelamenduak “ingurumen informazio” kontzeptuaren interpretazio zabala egiten du. Kontsekuenteki, informazio kategoria horretan eduki anitz barneratzen dira. Jarraian azaltzen diren baldintza normatiboak betetzen diren kasuetan, nanomaterial manufakturatuei buruz instituzio komunitarioek beren eskuetan duten dokumentazioa “ingurumen informazioa” kategorian sartu eta 1367/2006 Erregelamenduaren aplikazio eremupean kokatu daiteke. Substantzia, hondakin, emisio edo isurpena bezalako faktore batek (beste batzuek gain ⁵⁸⁵) Erregelamenduan zerrendatutako ingurumen elementuetako bati ⁵⁸⁶ eragin diezaioketen kasuan, faktore horri buruzko informazioa “ingurumen informazioa” kontsideratu behar da.

Nanomaterial manufakturatuek substantzia kimikoak dira izatez, beren bizitza zikloan zehar ingurumen eremu desberdinetara emisio eta isurpenak egin ditzakete eta beren bizitza zikloaren amaieran hondakinak bihurtzen dira. Aurreko parrafoan azaldutakoari jarraiki beraz, nanomaterial manufakturatuek (edo nanomaterial hori erabiltzen duen produktu batek) bere bizitza zikloan zehar Erregelamenduan zerrendatutako ingurumen elementuetako bati eragiteko gaitasuna duenean, horrekin zerikusia duen informazioari “ingurumen informazioaren” estatutu juridiko espezifiko

⁵⁸⁵ 1.artikuluko d) ataleko ii) azpi-atalean zerrendatutako faktoreak.

⁵⁸⁶ 1367/2006 Erregelamenduaren 1.d)i) artikuluan zerrendatutako ingurumen elementuak: atmosferari eta airea, ur eremuak, lurzorua, lurra, paisaia eta espazio naturalak.

aplikatu behar zaio, sarbide eskubidearen ikuspegitik erregimen orokorrak baino berme gehiago eskaintzen dituen. Kasu horietatik kanpo nanomaterial manufakturatuei buruz instituzio komunitarioek duten informazioaren sarbide eskubidea 1049/2001 Erregelamenduaren erregimen orokorraren arabera egikaritu behar da.

Informazio publikorako sarbide eskubidea bi dimentsio desberdinek egituratzen dute, informazioaren hornikuntza aktiboak eta pasiboak hain zuzen ere. Instituzio komunitarioek beren eskuetan duten interes orokorreko informazioa publikoki hedatzeko mandatua dute (informazioaren hornikuntza aktiboa). Legediak instituzio komunitarioak informazio kategoriatzuk publikoki hedatzera derrigortzen baditu ere (besteak beste, egintza juridiko lotesleak OJEU-n argitaratu behar dira), beste informazio mota batzuen kasuan beren difusio publiko hori ez da derrigorrezkoa, instituzio komunitarioei zuzendutako optimizazio mandatu gisa funtzionatzen duen jardura-printzipioa baizik. Hortaz, instituzio komunitarioen eskuetan dagoen baina zuzeneko sarrera publikorik bermatuta ez duen informazioa kontsultatu ahal izateko, herritarrek dokumentazio horretara sarbidea izateko eskaera aurkeztu dezakete (informazioaren hornikuntza pasiboa). Agintari eskudunek sarbide eskaera hori ukatu edo informazio datu batzuetara mugatu dezakete 1049/2001 Erregelamenduan zerrendatzen diren salbuespen kausetako bat aplikagarria den kasuetan (eskutzen den informaziora sarbidea onartzeak 1049/2001 Erregelamenduan zerrendatutako interes legitimo edota eskubideren bat kaltetu dezakeenean).

Nanoteknologiaren garapenarekin zerikusia duten inguruabarretan arreta ipiniz gero, garapen horren zenbait ezaugarri nabarmendu daitezke: etengabe garatuz eta sofistikatuz doazen teknologia berriak dira (progresiboki nanomaterial eta nanoproduktu berriak ekoitzi, erabili eta komertzializatzen dira), ziurgabetasun zientifiko handiz inguratuta jarraitzen dute eta herritarrek beraiekiko duten ezjakintasun mailak esanguratsua izaten jarraitzen du. Ezaugarri horiek kontuan edukita, nanoteknologiarekin zerikusia duen informazioaren difusio publikoak lehentasuna izan beharko luke, sarbide eskubidearen ikuspegitik aztertuta informazioaren hornikuntza aktiboa pasiboa baino bermatzaileagoa baita. Difusio publikoaren bidez, instituzio komunitarioek nanoteknologiari buruz beren eskuetan duten corpus informatiborik zabalena jarri beharko lukete publikoaren eskura. Marko normatiboari jarraiki informazioaren difusio publiko hori "aktiboa" izan behar da, hots, instituzio komunitarioek nanoteknologiari buruz duten informazioa modu progresibo eta eguneratuan hedatu behar dute. Bestalde, informazio hori irizpide sistematikoak erabiliz hedatu behar da eta edozein herritarrek informazio horretara sarbide zuzena, erraza eta eroso izan dezan baliabide material informatiko eta elektronikoak lehenetsi (internet bidezko sarrera esate baterako) behar dira.

Instituzio komunitarioek publikoki hedatzen duten informazioaren esferatik kanpo kokatzen diren nanoteknologiari buruzko dokumentazioaren kasuan, horietara sarbidea ez da zuzeneko eta beraz, esfera horretatik kanpo dagoen informazio publikoa kontsultatu nahi duenak instituzio komunitario eskudunari sarbide eskaera bat aurkeztu behar dio. Instituzio komunitarioen ikuspegitik aztertuta, kasu horretan ez dute informazioaren hornikuntza aktiborik egiten, pasiboa baizik. Legedi komunitarioaren arabera sarbide

eskaeren aplikazio eremu objektiboak instituzio komunitarioek beren eskuetan duten informazio guztia barne hartzen du, informazio horren jatorria edozein izanik ere. Instantzia publikoek gain, pertsona pribatuek ekoizitako informazioa ere, instituzio komunitarioen eskuetan dagoen kasuetan, sarbide eskubidearen objektu izan daiteke. Interpretazio horren harira, nanomaterial edo nanoproduktuen ekoizleek prozedura administratibo baten pean instituzio komunitarioei transmititutako dokumentuak ere, instantzia publiko horien eskuetan dauden neurrian, informazioaren hornikuntza pasiboaren aplikazio eremu objektiboaren barnean kokatzen dira.

Industria nanoteknologikoak agintari publikoei transmititutako informaziora sarbidea bermatzeak nanoteknologien “arrisku legalizatuaren” kontrol publikoarekin zuzeneko zerikusia du. Nanomaterial edo nanoproduktu bat erabili edo komertzializatu ahal izateko “arrisku legalizatuaren” parametroak errespetatzen dituen aztertu eta erabakitzea botere publikoen eskumenpeko jarduera bada ere (prozedura administratiboaren bidez egikaritzen dena), informazio horretara sarbidea duen edozein pertsona fisiko edo juridikok (GKE-ek, adituek, herritar xumeek) kontrol jarduera hori parametro legalen arabera egiten dela gainbegiratzeko gaitasuna eskuratzen du. Alegia, informazio horretara sarbidea duten pertsonak industria nanoteknologikoak “arrisku legalizatu” horren parametroen pean jarduten duen, eta horrela izan ezean, agintari eskudunek legea betearazten duten kontrolatzeko gaitasuna dute, “arrisku legalizatuaren” parametroak errespetatzen ez direnean agintari eskudunei erantzukizunak eskatu eta kontuak ematea ahalbidetzen duen kontrol publikoa hain zuzen ere. Nanomaterialen manufakturatuen arriskuen eta arrisku horiek ebaluatzeko metodologia eta testapenen inguruan existitzen den ziurgabetasun zientifiko esanguratsua kontuan edukia, kontrol publikoaren funtzio horrek are garrantzia handiagoa eskuratzen duela ondorioztatu daiteke.

II.2.B.c. Nanoteknologien informazio publikorako sarbide eskubidearen egikaritza oztopatu dezaketen inguruabarrak

Nanoteknologien “arrisku legalizatu” publikoki kontrolatzeko baliagarria izan daitekeen informazioaren hornikuntza pasiboak ordea arazo juridiko desberdinekin egiten du topo. Esan den bezala, sarbide eskubidearen aplikazio eremu objektiboak, printzipioz, instituzio komunitarioek beren eskuetan duten informazio guztia barne hartzen du. Kontrako zentzuan organo komunitarioen eskuetara iritsi ez den industria nanoteknologiaren informazioa sarbide eskubidearen aplikazio eremutik kanpo kokatzen da.

Datozen kapituluetan aztertzen den moduan, nanomaterialei beren bizitza ziklo osoan zehar aplikagarri zaien corpus juridiko komunitarioa egokitzen fasean dago momentu honetan. Marko normatibo sektorial batzuetan nanomaterialekin zerikusia duten aldaketa normatibo espezifikoak onartu dira (elikagai produktuak, kosmetikoak eta biozidak), beste marko normatibo batzuen kasuan arauketa horiek nanomaterialei nola

aplikatu behar zaizkien argitzea helburu duten gidalerroak argitaratu dira (esate baterako produktu kimikoen eta langileen segurtasun eta osasunarekin zerikusia duten arauketa komunitarioen kasuan), eta beste marko normatibo komunitario gehienetan ez da nanomaterialekin zerikusia duen inolako aldaketa edo argibide normatibo espezifikorik onartu.

Testuinguru horretan, industria nanoteknologikoa produktuen arauketa sektorial batzuetan nanomaterialei buruzko informazio datu espezifikoko batzuk agintari komunitarioei transmititzera behartuta dago; beste batzuetan, nanomaterialen informazio hori transmititzea gomendatzen zaio (gidalerroen kasuan); azkenik, nanomaterialetara egokitu ez diren marko normatibo konbentzionalen kasuan, araudiek ez dute nanomaterialen informazioaren transmisioari buruzko inolako esanbidezko xedapenik aurreikusten. Kapitulu honetan lehenago adierazi den bezala, nanoteknologiaren ezagutza zientifiko eta teknikoan existitzen den asimetriaren kausetako bat industria nanoteknologikoak botere publikoei nanomaterialei buruz informazio ahalik eta gutxien transmititzeko egokitu duen jarrera da (sekretu komertzialaren eta jabetza intelektualeko eskubideen defentsaren argudiopean).

Nanomaterialen arrisku potentzialen inguruan existitzen den ziurgabetasun zientifikoa esanguratsua dela kontuan hartuta, industria nanoteknologikotik agintari eskudunetara material horiei buruzko informazio emaria zabala eta gardena izatea ezinbesteko baldintza da, bai jatorrizko zuzenbide komunitarioak exijitzen duen osasun eta ingurumen babes maila altua bermatzeko, baita nanoteknologiaren “arrisku legalizatuaren” parametroak errespetatzen direla publikoki kontrolatu ahal izateko ere. Alde horretatik, nanomaterialei aplikagarri zaien corpus juridiko komunitarioan baldintza horren betearazpena zuzendutako aldaketa normatiboak egin behar dira, industria nanoteknologikoak lurralde komunitarioan ekoitzi, erabili eta komertzializatzen dituen nanomaterial eta nanoproduktuei buruzko informazioa agintari komunitario eskudunei transmititu behar izatea arau orokorra bihurtu dadin.

Nanomaterial edo nanoproduktuak objektu dituzten prozedura administratiboen joan-etorrian agintari komunitarioek industria nanoteknologikoaren partetik jasotzen duten informazioa, behin agintari publikoen eskuetan dagoen momentutik aurrera, sarbide eskubidearen egikaritzea eremupean kokatzen den informazioa bihurtzen dela aurreratu dugu dagoeneko. Informazio horretara sarbidea ukatu edo mugatu ahal izateko legedi komunitarioan zerrendatzen diren salbuespen kausa materialen artean bat nabarmendu behar da: sekretu komertzialaren eta jabetza intelektualeko eskubideen babesean funtsa duen salbuespen kausa. Nanoteknologiak berrikuntza teknologiko sofistikuaren sinonimo diren aldetik, beren ikerketa eta ustiapenaren atzean dagoen industriaren baitan sekretismoa da nagusi eta ez du agintari eskudunei transmititzen dion informazioa inolaz ere ezagutza publikoaren esferara igarotzerik nahi. Hortaz, industria nanoteknologikoak agintari eskudunei transmititutako informazioa herritarrek aurkezten dituzten sarbide eskaeren aurrean, industriaren helburu nagusia agintari eskudunek sarbide eskaera horiek ukatu edo mugatzea da. Sekretu komertzialaren eta jabetza intelektualeko eskubideen

salbuespen kausa helburu hori erdiesteko legedi komunitarioak industria nanoteknologikoari eskaintzen dion instrumentuetako bat da.

Esparru komunitarioan nanomaterialak eta nanoproduktuak ekoitzi, erabili edo komertzializatu ahal izateko kasuan kasu aplikagarri zaien prozedura administratiboaren arabera, industria nanoteknologikoak agintari eskudunei informazio bolumen eta tipologia desberdina transmititu behar dio. Prozedura administratibo batzuetan (baimen prozeduretan esate baterako) nanomaterial edo nanoproduktuek arrisku ebaluaketa bat jasaten dute agintari eskudunen partetik. Arrisku ebaluaketa hori egin ahal izateko ekoizleak agintari eskudunei nanomaterial edo nanoproduktuaren propietate, portaera eta efektuei buruzko zenbait informazio datu transmititu behar dizkie eta agintari eskudunek arrisku ebaluaketa egiterako orduan informazio datu horiek kontuan hartu behar dituzte.

Nanomaterial manufacturatuaren propietate, portaera eta efektuen inguruan existitzen den ziurgabetasun zientifiko-teknikoko testuingurua kontuan edukita, nanoteknologien “arrisku legalizatuaren” kontrol funtzioa egikaritzeak are garrantzi handiagoa eskuratzen du. Prozedura administratibo horietan nanoteknologien “arrisku legalizatuaren” parametroak errespetatzen diren publikoki kontrolatu ahal izateko, informazioaren sarbide eskubidearen aplikazio eremu objektiboa agintari eskudunek egindako arrisku ebaluaketetara ez-ezik nanomaterial edo nanoproduktuen ekoizleak agintari eskudunei aurkeztutako jatorrizko informazio zientifikora hedatu behar da. Sarbide eskubidearen egikaritzari esker GKE-ek, aditu zientifikoek eta beste edozein pertsonak, nanomaterial edo nanoproduktu baten ekoizleak agintari eskudunari transmititu dion informazio zientifikoaren egiazkotasuna eta informazioa lortzeko ekoizleak erabili dituen metodologia zientifikoaren egokitasuna gainbegiratu eta kontrolatu dezakete. Informazio horretara sarbidea ukatu edo mugatu eta horrekin batera “arrisku legalizatuaren” kontrol funtzioaren egikaritzea oztopatu dezakeen instrumentu normatiboa, dagoeneko aztertu den bezala, sekretu komertzialaren eta jabetza intelektualeko eskubideen babeserako salbuespen klausula da⁵⁸⁷.

II.2.C. Nanoteknologien “arrisku legalaren” legitimazioa: parte hartze publikoaren printzipioa

Nanoteknologien garapenak sorrarazi ditzakeen onura eta kalte potentzialek gizarte osoari —gaur egungo eta etorkizuneko belaunaldiei— eragin diezaieketen neurrian, gizartea nanoteknologien garapen prozesuaren funtsezko elementua bihurtzen da. Hori dela eta, nanoteknologiei buruz adosten diren erabakiak, beste alderdi interesdunekin batera,

⁵⁸⁷ Produktu kimikoen kasuan, produktu horien ekoizleak agintari eskudunei transmititutako informazioaren gainean sarbide publikoko eskaera aurkeztean sortzen diren arazoak aztertu dituzte autore batzuek (DULONG DE ROSNAY eta MAXIM, 2012). Produktu kimikoen ekoizleak salbuespen klausula hori argudiatzen dute prozedura administratiboan agintari eskudunei transmititutako informazio zientifikora 3. pertsonen sarbidea ukatu edo mugatzeko. Praktika administratiboan, agintari komunitario eskudunek sarbide eskubidea ukatu edo informazio datu batzuetara mugatzen dutela nabarmendu du autoreak.

herritarren parte-hartze aktiboa bermatuz hartu behar dira. Baldintza horren konplimendua nanoteknologiaren garapen legitimo eta arduratsurako ezinbesteko premisa da, nanoteknologiaren gobernantza sinesgarritasun eta fidagarritasun handiagoz hornitu (herritarren konfiantza areagotzen lagundu dezake) eta onartutako nanoteknologia ekimen eta arauketa neurrien gaineko erantzukizun posibleak zehaztu eta argitzeko balio baitu⁵⁸⁸. Nanoteknologiaren arriskuen onargarritasun maila erabakitzekeko prozesuan ez zaio “*how safe is safe enough?*” galderari erantzun behar, “*how fair is safe enough?*” galderari baizik. Nanoteknologiaren “arrisku legalizatua” eraikitzekeko prozesuan lehenengo galderari erantzutera mugatuz gero (aditu zientifikoekiko erabateko dependentzia duen “zientzia arautzailearen” eskema jarraituz gero), ikuspegi zientifiko batetik onargarria kontsideratzen den arriskua, ikuspegi sozial batetik gizarteak onartezina edo injustua kontsideratu dezake eta beraz, arriskua legala izan daiteke baina ez ordea legitimoa.

Europar Batasunak (EB), 2004. urtetik aurrera nanoteknologiaren estrategia politiko-juridikoaren oinarritzko egiturapena beregain hartu zuen⁵⁸⁹. Estrategia horri hasiera eman eta hurrengo urteetan nanoteknologiaren aspektu ekonomiko, sozial, etiko eta legalei buruz hausnartzeko proiektuak finantzatu zituen, aditu eta alderdi interesdun desberdinekin batera herritarrak gai horiez informatu, nanoteknologiak zuten pertzepzioa karakterizatu eta beren parte hartze publikoa instrumentalizatzeko formatuak ikertu eta proposatzea ere helburu zutenak: Nanologue (2005-2006), NanoBio-Raise (2006-2007), Nanoplat (2009), The FramingNano project (2008-2010), ObservatoryNANO (2008-2010) proiektuak eta SNAP (2009-2010) kontsulta publikoa⁵⁹⁰. Bestalde, nanoteknologiaren garapenaren fase goiztiarrean (2004-2008 bitartean) agintari publikoek, kontsulta erakundeek eta mundu akademikoak herritarren iritzia publikoa karakterizatzeko asmoz, 60 deliberamendu prozesu baino gehiago antolatu zituzten mundu mailan⁵⁹¹.

Hurrengo kapituluan aztertzen den moduan, EBko Komisia, jatorrizko zuzenbide komunitarioak aitortzen dizkion eskumenak baliatuz, nanoteknologiaren estrategia politiko eta juridikoaren lerro nagusiak erabakitzen dituen instituzio komunitarioa bihurtu da. Gobernantza irekiago, gardenago eta demokratikoagoa bultzatzeko jatorrizko zuzenbide komunitarioan eta baita zuzenbide osagarrian ere progresiboki onartu diren aldaketa

⁵⁸⁸ Horri buruzko ekarpen doktrinalak: BERTRAND, 2012; EHNERT, 2015; FLEAR eta PICKERSGILL, 2013; JOLY eta KAUFMANN, 2008; KEARNES et al, 2006; MACNAGHTEN et al, 2010; MANTOVANI eta PORCARI, 2010; NANO ACTION, 2008

⁵⁸⁹ EBk ikerketa eta teknologiaren garapenean eskumen normatibo komunitarioak dituela (EBT, XVIII. Titulua kontsultatu) baliatu du maila komunitarioan nanoteknologiaren strategiaren gidaritza egikaritzeko. Estrategia horren lehenengo gidalerroak EBko Komisioren COM (2004) 338 final Komunikazioan zehaztu ziren.

⁵⁹⁰ Kontsulta publikoak nanoteknologiaren 2010-2015 bitarteko akzio plana (SNAP) zuen hizpide. Kontsulta horri buruz tesiko 4. kapitulua, II.1.A azpi-atala.

⁵⁹¹ STØ et al, 2010: 54. Munduan zehar AEBn, EBn, Alemanian, Australian, Danimarkan, Erresuma Batuan, Frantzia, Katalunian, Suitzan, edo Zelanda Berrian nanoteknologiari buruz herritarren deliberamendu prozesu ekimen desberdinak ospatu dira. Ekimen horiei buruzko informazioa honako dokumentuetan ere kontsultatu daiteke: GAVELIN et al, 2007; LAURENT, 2011; MACOUBRIE, 2005; MANTOVANI eta PORCARI, 2010.

normatiboen artean⁵⁹², EBT 11.3 artikulua EBko Komisioari ekimen politiko eta legegileetan alderdi interesdunekin kontsulta publiko zabalak ospatzeko mandatua ezartzen dio, Komisioak berak COM (2002) 704 final Komunikazioaren bidez arautu duena.

Prozedura legegile komunitarioan EBko Komisioak ekimen legegileak aurkezteko eskumen ia eskusiboa duenez, Komisioak alderdi interesdunekin ospatu behar dituen kontsulta publikoak ekimen legegile horien lanketa fasean ospatzen dira, funtzio legegilea duten Legebiltzarrari eta Kontseiluari proposamen legegile hori aurkeztu baino lehenagoko fasean alegia. EBko Komisioa nanoteknologiaren estrategia juridiko-politikoaren gidalerro nagusiak ematen dituen instituzio komunitarioa denez, nanoteknologiarekin zerikusia duten ekimen legegileetan (prozedura legegilearen hasierako fasean) Komisioak ospatzen dituen kontsulta publikoek berebiziko garrantzia jokatzen dute. Nanoteknologiaren erabakien gaineko parte-hartze prozesuaren independentzia eta neutraltasuna bermatzeko helburuz ordea, ekarpen doktrinal batzuek parte-hartze prozesuaren egituraren eta antolatzearen gaineko ardura erakunde independenteen eskutan utzi beharko litzatekeela argudiatzen dute, nanoteknologiaren inguruan aldeko edota kontrako interesik ez duten eta parte-hartze prozesuetan adituak diren erakundearen ardurapean hain zuzen ere⁵⁹³.

Esparru komunitarioan nanoteknologiari buruzko parte hartze publikoko prozesuak Komisioak edo erakunde independente batek antolatzearen eztabaidaz harago, datozen lerroetan nanoteknologiaren “arrisku legala” legitimoa ere izan dadin bere erabakitze prozesuan aurrera eramane behar den parte hartze publikoak izan behar dituen ezaugarri nagusiak azpimarratzen dira. Horretarako, Komisioaren kontsulta publikoak arautzen dituen COM (2002) 704 final Komunikazioaren oinarriko printzipioak hartzen dira kontuan, ekarpen doktrinal desberdinekin batera.

Nanoteknologiaren “arrisku legalizatua” eraikitze prozesuan, parte-hartze publikoko ekimenean, lehenik eta behin, erabat inklusiboak⁵⁹⁴ izan behar dute. Parte-hartze ekimen horiek nanoteknologiaren garapenean aldeko edo kontrako interesak dituzten alderdien heterogeneotasuna kontuan hartu behar dute: industria nanoteknologikoaren ordezkariak, langile sindikatuak, kontsumitzaileen eta ingurumenaren GKE-ak, gizarte zibileko bestelako erakunde interesatuak eta prozesu horretan parte hartu nahi duten hiritar xumeak. COM (2002) 704 final Komunikazioak exijitzen duen moduan⁵⁹⁵, Komisioak ospatzen dituen kontsulta publikoaren antolatzaileek parte-hartzea modu ekitatiboan aurrera eramaten dela gainbegiratu behar dute; hots, alderdi interesdun guztiek kontsultan egokitasunez parte hartzen dutela eta beren iritzia entzunarazteko gaitasuna dutela bermatu behar dute.

Legitimotasunaren prisma aztertuta, nanoteknologiaren garapenean hasierako faseetan ematen den parte-hartze publiko goiztiarra da eraginkorra, teknologia horien

⁵⁹² Instituzio komunitarioen “defizit demokratikoa” tesiko 2. kapituluaren II.3.C azpi-atlean aztertzen da. Bestalde, EBk bultzatutako gobernantza berriak eragin dituen aldaketa normatiboen sakoneko analisia 2. kapituluaren III. atalean zehar egiten da.

⁵⁹³ Friends of Earth Australia, 2008: 3; STØ et al, 2010: 66.

⁵⁹⁴ COM (2002) 704 final, 10. orr.; STØ et al, op. cit.; WIDMER et al, 2010.

⁵⁹⁵ COM (2002) 704 final, 5. orr.

gida lerro nagusiak erabaki ostean ematen den parte-hartze berantiarrekin erkatuz gero⁵⁹⁶. Botere publiko eskudunek ekimen legegile edo politiko bati buruzko erabaki garrantzitsuenak hartu ostean ospatzen den parte-hartze prozesua (goitik beherako parte-hartzea) ez da inolaz ere eraginkorra, herritarrei ekimen politiko edo legegile horietan benetan parte hartzeko aukera oztopatu egiten baitzaie eta horrek eszeptizismo publikoa besterik ez baitu eragiten⁵⁹⁷. Ondorioz, parte-hartze publikoak ez du goitik beherakoa izan behar, behetik gorakoa (*upstream engagement*) baizik. Parte-hartze prozesu horiek nanoteknologien garapenaren hasierako faseetan eta behetik gora ospatzearekin batera, denboran zehar dinamikoak eta jarraikorak izan behar dira. Gaur egun lehenengo eta bigarren belaunaldietako nanomaterialak garatzen ari diren bitartean, hurrengo hamarkadetan hirugarren eta laugarren belaunaldietako nanomaterialak garatzea espero da. Nanoteknologien “arrisku legalizatuak” etorkizunera begira teknologia horiek sortu ditzaketen erronka eta egoera berriei ere erantzun behar dien neurrian, sortuz doazen erronka berrien inguruan ere parte-hartze ekimen publikoak ospatu behar dira.

Nanoteknologien garapenaren estrategia politiko eta juridikoaren gaineko ardura EBk bere gain hartu badu ere, horrek ez du zertan esan nahi parte-hartze ekimenak maila komunitarioan soilik ospatu behar direnik. Nanoteknologien arauketaren gaineko pisua EBn kokatzen bada ere, Estatu-kide mailan eta maila erregionalean ere parte-hartze ekimenak ospatzea garrantzitsua da, Europar Batasuneko gizartearen ahotsa ahalik eta modu zabalean entzuna izan dadin. Parte-hartze prozesuen dimentsio geografikoa oso zabala den kasuetan, baliabide informatiko eta elektronikoen erabilera prozesu horietan parte hartzea errazteko ezinbestekoa izan daiteke⁵⁹⁸ (online formatuan aurrera eramaten den parte hartzea).

Kontsulta publiko tradizionalaz gain, parte-hartze ekimenak ospatzeko beste formatu mota batzuk erabili daitezke, besteak beste, eztabaidarako elkarguneak, herritarren epaimahaiak, tailerrak, kontsentsua bilatzeko konferentziak, entzunaldi publikoak (*public hearings*), arau osatze negoziatua edo mediazio teknikak. Parte-hartze ekimena aurrera eramateko formatua edozein dela ere, ekimen hori noiz ospatuko den, parte hartzearen eztabaida-objektua zein den eta parte hartzearen bidez zein helburu lortu nahi diren alde aurretik zehaztu eta publizitate zabala eman behar zaie (zeregin horretan baliabide informatiko eta elektronikoen erabilera lehenetsi behar da)⁵⁹⁹. Alderdi interesdunei eztabaidagai den objektuari buruzko informazioa parte hartzea ospatu baino lehenago transmititu behar zaie, beren iritzi eta planteamendu propioak lantzeko gaitasuna izan dezaten. Parte hartze prozesuan barrena alderdi interesdunek eztabaida objektuaren inguruan duten jarrera azaltzeko, beste alderdien planteamenduak entzuteko, eztabaidatzeko eta adostasun puntuetara heltzeko aukera eraginkorra izan behar dute.

⁵⁹⁶ LEE, 2010: 819.

⁵⁹⁷ KEARNES et al, 2006: 71.

⁵⁹⁸ STØ et al, op. cit.

⁵⁹⁹ COM (2002) 704 final; LEE, op. cit.

Prozedura legegile komunitarioetan barrena alderdi interesdunek parte-hartze prozesuen bidez beren ahotsa entzuna izateko eskubidea badute ere, lege horien onarpenean ez dute bozka eskubiderik⁶⁰⁰ Izan ere, Europar Batasunaren funtzionamendua demokrazia ordezkatzailan oinarritzen denez, erabaki horiek hartzeko legitimazioa funtzio legegilea egikaritzen duten EBko Legebiltzar eta Kontseiluarena da (erregelamendu izaera duten arauen kasuan EBko Komisioak horiek onartzeko eskumena ere badu). Ondorioz, parte-hartze ekimenetatik eratorritako ondorio, emaitza eta adostasun puntuak nanoteknologien inguruan Komisioak, Legebiltzarrak edota Kontseiluak onartzen dituzten arauketetan behar adinako pisua aitortzea legitimotasunaren prismatik aztertuta aukerarik idealena bada ere, instituzio komunitarioek arauen onarpenean horiek kontuan ez hartzea posible dute. Horrela izatekotan, hori bai, instituzio komunitarioek erabaki hori hartu izanaren arrazoiak esanbidez adieraztera behartuta daude.

Azken eskenatoki horretan, nanoteknologien “arrisku legalizatuak” behar adinako legitimotasunik ez izatea gertatu daiteke, parte-hartze prozesuaren ekarpenei entzungor egiten zaien neurrian. Komisioak, Legebiltzarrak eta Kontseiluak inguruabar hori bereziki kontuan eduki beharko luketela azpimarratu daiteke, bioteknologia bezalako teknologia berrien inguruan iraganean konfiguratu diren gobernantza komunitarioen kasuan herritarrek teknologia horiekiko zuten iritzia ez baitzen behar bezala entzun eta kontuan izan, eta horrek, jakina den bezala, teknologia horren aurkako presio soziala areagotzea besterik ez baitzuen eragin. Gizarteari bere osotasunean edota zati garrantzitsu bati eragin diezaiokeen teknologia berri baten “arrisku legalizatuak” zehaztean gizartearen ahotsari behar zaion garrantzia aitortu ezean, egitate horrek “arrisku legalizatuaren” deslegitimazio faktore bezala funtzionatzen duela ez dago zalantzarik, teknologia horren garapenean oztopo-faktorea bihurtuz.

Legitimotasunaren prismatik aztertutako nanoteknologien gobernantza komunitarioaren kasu partikularrean beren “arrisku legalizatuak” konfiguratzerako orduan zein nolako parte hartze publikoa aurrera eramane den, eta legitimotasunaren perspektibatik parte hartze horretan sumatu daitezkeen gabeziak zeintzuk diren ez dira kapitulu honetan aztertzen, hurrengo kapituluan baizik, gobernantza komunitarioan onartu diren ekimen politiko eta legegileen analisia egitean hain zuzen ere⁶⁰¹. Hurrengo azpi-atalean, nanoteknologien “arrisku legalizatuak” behin zehaztu ostean, nanomaterialen herakortzearen ziurgabetasun zientifikoko entitatea eta osasunean zein ingurumenean eragin ditzaketen kalteen entitatea kontuan hartuta, arrisku potentzial horiek kudeatzeko aktibatu behar den arreta printzipioaren analisia egiten da.

⁶⁰⁰ Ibid, 4-5. orr. EBko Legebiltzarrak hausnarketa bera egin du honako dokumentuan: *A5-0399/2001, on the Commission White Paper on European Governance*.

⁶⁰¹ Zehazki, 4. kapituluaren II.1 azpi-atalean.

II.2.D. Nanomaterialen fabrikatuen “arisku legalizatua” kudeatzen: arreta printzipioa

Gardentasun eta parte hartze publikoaren printzipioekin batera, arreta printzipioak nanoteknologiaren arriskuen kudeaketan zeregin garrantzitsua jokatu behar du. Arreta printzipioaren izaerari buruzko iritzi aniztasuna existitzen bada ere, bere xedea bat eta bakarra dela esan daiteke: ziurgabetasun zientifikoko elementuz inguratutako arriskuen kasuan, ingurugiroan edo osasunean kalte larriak edo atzeraezinak izan daitezkeenaren arrazoizko kezka edo zantzuak dauden neurrian, arrisku potentzial horiei aurre egiteko helburua duen mekanismoa da, ziurgabetasun zientifikoko testuinguru hori ezin baitaiteke arreta neurririk ez hartu edota neurri horien onarpena atzeratzeko —jakintza zientifikoa areagotu arte— aitzakia gisa erabili. Kapitulu honen lehenengo atalean aztertu den bezala, nanomaterialen fabrikatuen esposizio eta efektuei buruz existitzen den ziurgabetasun zientifikoko esanguratsuekin batera, ikerketa zientifikoko gero eta gehiago dira nanomaterialen batzuen gaineko kezka adierazten dutenak, alegia, gizakion gorputzean eta ingurugiroan kalte larriak eta atzeraezinak eragiteko arrazoizko zantzuak daudela aditzera ematen duten ikerketa zientifikokoak.

Zentzu horretan, arreta printzipioak nanoteknologiaren arrisku kudeaketan bete behar duen rola inguruko eztabaida doktrinalean iritzi aniztasuna da nagusi. Nahiz eta doktrinaren gehiengoak arreta printzipioa nanomaterialen fabrikatuen arriskuak kudeatzeko kontuan hartu beharreko printzipio bezala ikusi⁶⁰², doktrinaren gutxiengo batek nanomaterialen printzipio hori aplikatu beharko ez litzaiekeela defendatzen du⁶⁰³ (doktrinaren zati horrek arreta printzipioaren izaera bera ere kritikatu du). Azpi-atal honetan, EBren marko juridiko komunitarioan arreta printzipioari eskaintzen zaion izaera eta ezaugarriak aintzat hartuta, nanomaterialen fabrikatuen arrisku kudeaketa prozesuan printzipio hori aplikatua izateko aurrebaldintzak betetzen diren aztertu, eta horrela izatekotan, arreta neurriek zein izaera izan behar duten aztertzen da.

II.2.D.a. Arreta printzipioa zuzenbide komunitarioan: nanomaterialen fabrikatuei printzipioa aplikagarri zaien erabakitzeko kontuan hartu behar diren inguruabarrak

Aurreko kapituluaren eginiko azterketaren harira, arreta printzipioa EBren marko juridikoan ongi errotutako printzipioa da. Jatorrizko zuzenbide komunitarioan⁶⁰⁴, EBko Komisioaren COM (2000)1 Final Gomendioan, kontsumozko produktu eta ingurumen

⁶⁰² Nanomaterialen fabrikatuen arrisku kudeaketa neurrien egiturapenean arreta printzipioa aplikatzearen alde azaldu diren autoreen kopurua esanguratsua da, batzuk aipatzearen: BEAUDRIE, 2013; FERRIEUX, 2008; LACOUR, 2011; MIELKE, 2012; NGARIZE et al, 2013; THRONE-HOLST eta STØ, 2008; TRISOLINO, 2010. Bestalde hainbat GKE, sindikatu eta kontsumitzaileen elkarte ere nanoteknologiari arreta printzipioa aplikatzearen alde azaldu dira, besteak beste: ACTU, 2009; AITKEN et al, 2009 (IOM erakundea); ETC Group, 2010, 2012; ETUC, 2010; Friends of Earth Australia, 2007; GANZLEBEN et al, 2011 (MILIEU eta AMEC erakundeak); IRGC, 2007; IUF, 2007; OSTIGUY et al, 2009 (IRSST erakundea); SAICM, 2010; The Royal Society, 2004.

⁶⁰³ Besteak beste, TESHOMÉ DEMISSIE, 2008; DUPUY eta GRINBAUM, 2004 edo MARCHAT eta SYLVESTER, 2006.

⁶⁰⁴ EKET 174. art eta EBFT 191.2. art.

arauketa komunitario desberdinetan eta EBJAren jurisprudentzian esanbidez jaso eta interpretatzen den printzipioa da arretarena. Arauketa politika komunitarioek ingurugiroaren eta osasunaren babes maila altua bermatzeko eginkizuna duten aldetik⁶⁰⁵, aztergai dugun printzipioa helburu horien lorpenerako funtsezko berme mekanismoa da.

Printzipio horrek ordenamendu komunitarioan duen izaera normatiboari buruzko iritzi batasunik existitzen ez bada ere⁶⁰⁶, arreta printzipioaren funtsa bat eta bakarra dela esan daiteke: konplexutasun, ziurgabetasun edo anbiguotasun elementuez inguratutako J/S/T-en kasuan, ingurugiroan edo gizakion osasunean kalte larri edo atzerazinak eragin ditzaketenaren arrazoizko kezka edo zantzuak daudenean, arrisku potentzial horiek intentsitate handiagoan edo txikiagoan murrizten dituzten aurretiazko neurriak onartzea. Inguruabar horiek betetzen dituen J/S/T baten aurrean juridikoki inolako akziorik hartze ezak suposatuko lukeen kalte edota arriskuaren tamaina kontuan izanik, ziurgabetasun testuinguru horretan arreta printzipioa aplikatuz segurtasunaren aldeko planteamendua onartzean datza (ingelesez, *to err on the safe side*⁶⁰⁷).

Arreta printzipioaren eta nanomaterial manufakturatuen arteko harremana nolakoa izan behar den zehazte aldera, kasu partikular honetan arreta printzipioa aktibatzeke baldintzak betetzen diren edo ez aztertu behar da. Printzipio hori aplikagarri izan dakien, nanomaterialek sor ditzaketen kalteen inguruan “arrazoizko oinarridun kezka zientifikoak” egon behar dira (*reasonable grounds of concerns*).

Arrazoizko oinarridun kezkaren kontzeptuak arriskuaren probabilitate eta posibilitatearen arteko muga kokatzen du⁶⁰⁸ arreta neurriak aktibatu edo ez erabakitzeke irizpidea. Arreta printzipioa nanomaterialei aplikagarri izan dakien beraz, euren arriskuek gutxieneko entitate bat izan behar dute, ezin dira (jurisprudentzia komunitarioari jarraiki) arrisku hipotetiko, susmo, suposizio edota zurrumurru hutsetan oinarritu⁶⁰⁹. Nanomaterial manufakturatuen arriskuak ezin dira abstraktuak izan, espezifikotasun eta konkretutasun maila nahikoa izatea funtsezkoa baita arreta printzipioa aplika dakien⁶¹⁰. Bestela esanda, nanomaterialen arrisku potentzialen inguruan desadostasun zientifikoa edota ziurgabetasuna existitzen den kasuetan, arrisku horiek zientifikoki guztiz frogatu ezin badira ere, arrisku potentzial horiek entitate larria dutenean eta nolabait identifikagarriak

⁶⁰⁵ Ikusi EKET 6. art. eta EBFT 168. art.

⁶⁰⁶ EBJAk eman dituen sententzia batzuetan zuzenbide komunitarioko printzipio orokor gisa definitu izan du (besteak beste, LIAS (EBJA) *Artgodan GmbH eta beste batzuk vs. Komisioa*, 2002-11-26, 184. paragrafoa eta LIAS (EBJA) *Solvay Pharmaceuticals vs. Komisioa*, 121. paragrafoa, 2003-10-21.). Bestalde, zenbait autorek EBren baitan arreta printzipioa entitate edo garrantzi apalagoa duen mekanismoa bailitzan interpretatzen dute, zehazki, politika komunitarioen egiturapenean zehar eginbide orokorrak zehazten dituen printzipio (KRÄMER, 1999: 91-93) edo zuzenbide komunitarioaren prozesu-printzipio (GONZALES VAQUE, 2005:101.) bezala.

⁶⁰⁷ NGARIZE et al, 2013: 132-133.

⁶⁰⁸ TROUWBORST, 2006: 117.

⁶⁰⁹ Ikusi besteak beste, EBJA-ren honako jurisprudentzia: *Alpharma Inc. v Council of the European Union*, T-70/99, 2002-09-11, 156. eta 165. parr.; *Monsanto vs Italia*, C-236/01, 2003-09-09, 106. parr.; *Commission of the European Communities v Kingdom of Denmark*, C-192/01, 2003-09-23, 49. parr.; *Commission of the European Communities v French Republic*, C-24/00, 2004-02-05, 56. parr.

⁶¹⁰ COM (2000)1 Gomendioa, 5.1. atala; EMBID TELLO, 2009: 146; ikusi *Monsanto vs Italia C-236/01*, 2003-09-09, 109. parr.

direnean, arreta printzipioa aktibagarria dela interpretatu behar da. Arrisku abstraktu eta konkretuen arteko muga hori ordea praktika judizialean ez da batere argia izaten.

Nanomaterialek sorrarazi ditzaketen kalteen inguruko kezka arrazoizkoak diren edo ez erabaki ahal izateko beraz, nanomaterialen ezagutzaren baitan dagoen ziurgabetasunaren mailari eta nanomaterialen kalte potentzialek duten larritasun eta konkretutasun mailari buruzko analisisa egin behar da. Aurretik ordea arreta printzipioa nanomaterialei aplikatzea kritikatzeko duten ekarpen doktrinalak aztertzen dira.

II.2.D.b. Arreta printzipioa nanomaterialen manufakturatuei aplikatu behar ez zaiela defendatzen dutenen ikuspegi doktrinala

Nanomaterialen manufakturatuei arreta printzipioa aplikatu behar ez zaiela arrazoitzen dutenen esanetan, printzipio horren aplikazioak nanoteknologiaren garapenaren aurka joatea dakar, garapen horren izoztea alegia⁶¹¹. Nanomaterialen arriskuen inguruko informazioa orokorrean espekulazio sakonetan oinarritzen omen da eta alde horretatik, nanomaterialen arriskuak hipotetikoak eta zehaztugabeak direla argudiatzen dute⁶¹². Bestalde, arreta printzipioa ziurgabetasun egoeratan aplikatzen den zakarrontzi juridiko eta etiko gisa funtzionatzen duen baliabide intuitibo gisa definitzen dute batzuek⁶¹³, arrisku kudeaketaren baitan hartu beharreko erabaki zailak saihesteko erabiltzen dena⁶¹⁴. Ondorioz, arreta printzipioa bere baitan ahula dela eta nanoteknologiaren arauketarako marko juridiko koherenterik eskaintzen ez duela arrazoitzen dute.

Arreta printzipioa aplikatzearen ordez, hura kritikatzeko dutenek nanoteknologiaren arauketarako bestelako proposamenak egiten dituzte. Egile batzuek arauketaren jarraikako ebaluaketa izeneko metodologia (jatorrizko kontzeptua, *methodology of ongoing normative assessment*) aplikatzea proposatzen dute⁶¹⁵. Metodologia horri jarraiki, nanomaterialen inguruan ematen diren gertaeren eta arauketaren jarraikako ebaluaketa egin behar da. Nanoteknologiaren garapenari automatikoki mugak ezarri baino, beraren garapenaren eta komertzializazioaren gaineko uneoroko zaintza eta ikerketa proposatzen dute (*going ahead but remaining alert*⁶¹⁶). Nanoteknologiaren garapen eta komertzializazioarekin zerikusia duen gertaera negatiborik eman ezean beraz, ez da beraien aurkako inolako neurririk onartu behar.

Beste autore batzuek oster, nanoteknologiaren kontrol normatiborako neurri espezifikorik egituratzeko oraindik goizegi dela irizten dute⁶¹⁷, nanomaterial

⁶¹¹ TESHOMÉ DEMISSIE, op. cit, 342. orr

⁶¹² MARCHAT eta SYLVESTER, op. cit, 718. orr.

⁶¹³ TESHOMÉ DEMISSIE, op. cit, 343. orr.

⁶¹⁴ MARCHAT eta SYLVESTER, op. cit.

⁶¹⁵ Metodologia hori proposatzen dute: DUPUY eta GRINBAUM, 2004. Nanoteknologiari metodologia hori aplikatzearen alde, TESHOMÉ DEMISSIE, op. cit, 344-346. orr.

⁶¹⁶ TESHOMÉ DEMISSIE, op. cit, 345. orr.

⁶¹⁷ MARCHAT eta SYLVESTER, op. cit, 718. orr.

manufakturatuei buruz dagoen gehiegizko ziurgabetasuna ikusita eta orain arte kalte esanguratsu jakinik sortu ez dutenaren argudiopean. Alegia, nanomaterialen arriskuen inguruko erabateko frogapen zientifikorik oraindik ez dagoenez, material horien gainean *hard law* arauketarik ez onartzea eta *laissez faire* jarrera normatiboa onartzea planteatzen dute. Orokorrean, nanomaterialei arreta printzipioa aplikatu behar ez litzaiekeela arrazoitzen duten autoreen jarrera azalekoa eta sinplista izan ohi da eta kritika horiek arreta printzipioaren benetako izaerari erreparatu gabe eta printzipio hura nanomaterialei aplikatzeko bete behar diren elementuei buruzko sakoneko azterketarik gauzatu gabe egiten dira⁶¹⁸.

II.2.D.c. Arreta printzipioa nanomaterial manufakturatuei aplikatu ahal izateko bete behar diren inguruabarren analisia: kaltearen eta ziurgabetasun zientifikoaren entitatea

Nanomaterial manufakturatuen arriskuak kudeatzeko agintari eskudunek arreta printzipioa aplikagarri den erabakitzeko, beste edozein J/S/T-ri bezala, beren arriskua inguratzen duten bi elementuren analisia eraman behar dute aurrera: nanomaterial manufakturatuen ziurgabetasunaren eta ingurumenean edota (gizaki edo animalien) osasunean sorrarazi ditzaketen kalteen entitatea. Bi elementu horien entitatearen arabera, nanomaterial manufakturatuen arrisku potentzialek jatorrizko zuzenbide komunitarioak exijitzen duen ingurumen eta osasun babes maila altua kolokan jartzen duten erabaki behar dute agintari eskudunek, eta horrela izatekotan, arrisku horri aurre egiteko arreta printzipioan oinarritutako zein neurri mota aktibatu behar diren. Nanomaterial manufakturatuen arriskuen ziurgabetasunaren eta kalte potentzialen entitatea banan-banan aztertu ditzagun.

Arreta printzipioaren nazioarteko aintzatespena ekarri zuen Rio de Janeiroko Adierazpenaren 15. artikuluari jarraiki, ziurgabetasun zientifikoa ezin daiteke arreta neurririk ez hartu edota neurri horien onarpena atzeratzeko aitzakia gisa erabili. Kontsekuenteki, arreta printzipioa nanomaterialei aplikatzea kritikatu eta horren ordez beren erabilera eta komertzializazioaren gainean *laissez faire* izaera duen politika jarraitzea defendatzen duten proposamen doktrinalek Adierazpenaren 15. artikuluekin bete-betean egiten dute talka.

Kapitulu honen I.1. azpi-atalean aztertu den bezala, nanomaterial manufakturatuen propietate, portaera eta efektuak zientifikoki ulertzeko existitzen den konplexutasunak beren ezagutza zientifikoaren inguruan ziurgabetasun maila esanguratsua izatea eragiten du. Nanomaterial manufakturatuen propietateak oso heterogeneoak dira (nanomaterial bakoitzak berezko propietateak islatzen ditu, beste nanomaterialekiko desberdinak direnak)

⁶¹⁸ Doktrinaren zati batek arreta printzipioa kritikatzeko erabiltzen dituen ohiko argudioak eta argudio horiek aurkatzeko erabiltzen diren arrazoiak tesi honen 2. kapituluaz aztertzen dira, zehazki, III.5.B.b. azpi-atalean.

eta material horien kopurua gero eta handiagoa da (gutxienez 2500 nanomaterial manufacturatu dokumentatu dira⁶¹⁹). Nanomaterial manufacturatu bakoitzak propietate, portaera eta efektu desberdinak azalerazi ditzakeenez, EBko corpus zientifikoak⁶²⁰ nanomaterial manufacturatu bakoitza kasu kasu ebaluatzea gomendatzen dute, Legebiltzarrak eta Komisioak⁶²¹ ere partekatzen duten estrategia.

Kapitulu honetan dagoeneko azpimarratu den bezala, nanomaterial manufacturatu ebaluaketa eta testapenerako erabiltzen diren metodologia zientifiko konbentzionalek ez dute gaitasun tekniko nahikorik material horien parametro espezifiko garrantzitsu batzuk kontuan hartzeko. Hartatik, ez dute nanomaterialen karakterizazio, esposizio, monitorizazio, dosimetria edo (eko)toxikologia modu aprobean neurtzeko balio. Nanomaterialen parametro espezifikoak egokitasunez neurtzeko metodologia zientifiko espezifikoak garatzeke dauden momentu honetan beraz, inguruabar horrek nanomaterialen propietate, portaera eta efektuen inguruko ziurgabetasun kuantitatiboa handia izatea dakar, epe labur-ertainera begira mantendu egingo den ziurgabetasuna⁶²².

Ziurgabetasun kuantitatibo horrekin batera, nanomaterialen ezagutza konplexutasunak ziurgabetasun kualitatiboa ere sorrarazten du adituen artean: komunitate zientifikoan ez dago aho-batasunik nanomaterialen ebaluaketarako zein metodologia zientifiko aplikatu behar diren eta ebaluaketa horien emaitza zientifikoak nola interpretatu behar diren erabakitzean. EBko Komisioak arreta printzipioaren aplikaziorako COM (2000)1 Komunikazioan gomendatutako gidalerroei jarraiki, printzipio horren aplikazioa erabakitzeko aurrealdintzetako bat nanomaterial manufacturatuaren propietate, portaera eta efektuen inguruan existitzen diren ziurgabetasun elementuen inguruan ebaluaketa zientifikorik osoena egitea da, ebaluaketa hori egitea faktikoki posiblea denean betiere (ziurgabetasun zientifikoa oso handia den kasuetan, ebaluaketa zientifikoa egitea ezinezkoa izatea gertatu liteke)⁶²³.

Nanomaterial manufacturatuaren konplexutasunaren ondorioz beren arriskuen ziurgabetasun kuantitatibo eta kualitatiboek gaur egun duten entitatea esanguratsua dela behin ondorioztatuta, arreta printzipioa nanomaterialei aplikagarria zaien erabakitzeko aztertu behar den bigarren aspektua material horien kalte potentzialen entitatea da. COM

⁶¹⁹ *Nanowerk* izeneko datu basean dokumentatu diren nanomaterial manufacturatuaren web orrialdean. [2015-11-15]: <http://www.nanowerk.com/nanomaterial-database.php>

⁶²⁰ EBko corpus zientifikoak osatzen duten komite zientifiko (SCENIHR, SCCS) eta agentzia komunitarioen (EFSA, ECHA, EEA, EU-OSHA) desberdinek nanomaterialei buruz emandako gomendio zientifikoei buruz, tesiaren 4. kapituluko III.2 atala kontsultatu.

⁶²¹ Honako dokumentuak ikusi: EBko Legebiltzarra, 2012: 35; EBko Komisioaren COM (2012)572 Final Komunikazioa.

⁶²² EBko Komisioak esate baterako nanomaterialen ebaluaketarako metodologia egokiak garatzeko fase desberdinetan banatutako programazioa diseinatu, 2015-2025 urteetan zehar garatuko dena (ikus EBko Komisioa, 2013).

⁶²³ COM (2000)1 Gomendioa, 5.1.2. atala. Jurisprudenzia komunitarioaren baitan, besteak beste, *Monsanto vs Italia C-236/01*, 2003-09-09, 107. parr.

(2000)1 Gomendioan ezarritako irizpideei⁶²⁴ eta jurisprudentzia komunitariorri jarraiki, nanomaterial manufakturatuei arreta printzipioa aplikatu ahal izateko beren kalte potentzialek larriak edo atzeraezinak izan behar dute. Kalteen larritasun eta atzeraezintasunaren kontzeptuak definitzeko argibide juridiko nahikorik ez dagoenez (aruketa juridiko komunitarioak ezta jurisprudentziak ere ez dute kontzeptu horiek nola interpretatu behar diren behar bezala definitu), interpretazio zeregin horretarako doktrinak egin dituen ekarpenei jaramon egingo zaie.

Nanomaterial manufakturu batek eragin ditzakeen kalte potentzialak larriak direla kontsideratu ahal izateko, osasunean edo ingurumenean efektu negatibo garrantzitsuak eragin ditzakeenaren eta efektu horien dimentsio geografiko (Estatuen mugak gainditzen dituen adibidez) edo iraunkortasun handia izan daitekeenaren arrazoizko zantzuak egon behar dira. Bestalde, nanomaterialen kalteak atzeraezinak direla kontsideratuko da, osasun edota ingurugiroan sorrarazi ditzaketen kalteez errekuiperatzeko denbora tarte oso luzea denean⁶²⁵. UNESCO erakundeak, hala ere, arreta printzipioa aplikatzeko kalte potentzialek izan behar duten izaera zientifikoaz harago doan interpretazioa egiten du, kezka moralak eta etikoak ere arreta printzipioaren aplikazio eremuan barne hartzen dituen irakurketa proposatzen baitu.

UNESCOren planteamenduari jarraiki, izaera zientifikodun kalteetan zentratu beharrean, arreta printzipioaren aplikaziorako elementuak betetzen diren aztertzerakoan nanomaterial manufakturatuek eragin ditzaketen “kalte moralen” kontzeptuak kasuistika zabalagoa hartzen du kontuan. UNESCOren arabera, nanomaterialen kalteak moralki onartezinak kontsideratu behar dira gizakion bizitza edo osasuna mehatxuan jartzen dutenean, kalteek entitate larria edo atzeraezina dutenean, orainaldiko edo etorkizuneko belaunaldientzat injustuak direnean edo pertsonen giza eskubideak kaltetzen dituztenean⁶²⁶. UNESCO erakundeak kaltearen eta arreta printzipioaren aplikazioaren baitan eginiko interpretazio zabal hori, hala ere, ez da EBren ordenamendu juridikoan ezta jurisprudentzia komunitarioan jarraitzen den interpretazioa. Beraz, datozen lerroetan eginiko analisisa nanomaterialek eragin ditzaketen kalte potentzialen larritasun eta atzeraezintasunaren azterketara mugatzen da.

Kapitulu honen I.2 eta I.3 ataletan aztertu den bezala, nanomaterialen esposizioak giza osasunean eta ingurumenean eragin ditzakeen efektu kaltegarriak buruzko ezagutza zientifiko baxuak kezkarako arrazoi nahikoa eskaintzen du. Gizakion gorputzari dagokionez, nanomaterialek arnas edo digestio aparatuen bidez (baita zauriak dituen larruazalaren bidez) zirkulazio aparatura iristeko erraztasun handia dute eta handik edozein organotara iritsi eta eransteko gaitasuna dute. Ingurumenean ere, nanomaterialak airean, uretan edota lurtean zehar garraiatu eta beren esposizioa eremu geografiko anitzetara

⁶²⁴ Gomendioaren 5.1.2. atala: *la gravedad del impacto de un peligro sobre el medio ambiente o sobre la salud de una población dada, incluida la magnitud del posible daño, su persistencia, reversibilidad y efectos posteriores*

⁶²⁵ Kalteen atzeraezintasuna ezin daiteke zentzu literario eta absolutuan interpretatu, kalterik larrienak ere ehunka, milaka urte igarota erreparatu egin baitaitezke (TROUWBORST, 2006: 60-62).

⁶²⁶ UNESCO, 2005: 14 (2. koadroa).

hedatu daiteke. Nanomaterial ez organikoek islatzen dituzten propietate bioakumulagarriak direla eta, gorputzeko organo eta ingurugiro eremu desberdinetara hedatu eta pilatu egin daitezke eta epe ertain-luzera begira pilaketa horrek eragin ditzakeen biotoxikotasun eta ekotoxikotasun efektuei buruzko informazioa oso urria da.

Bestalde, kapitulu honen lehenengo atalean zerrendatutako ikerketen emaitzak aztertuz gero⁶²⁷, nanomaterial manufacturatu batzuen esposizioaren eta gizakion gorputzean edota ingurugiro eremu desberdinetan izan dezaketen pilaketaren ondoriozko kalteen larritasunaren eta atzeraezintasunaren inguruko arrazoizko zantzuak daudela baieztatu daiteke. Fullenero edota karbonozko nano-tutuen kasuan esate baterako, zenbait adituk nanomaterial hauen askapenaren ondoriozko efektuak atzeraezinak izan daitezkeela argudiatzen dute⁶²⁸. Nanomaterial askoren ikerketa zientifikoetatik eratorritako datuak eta emaitzak aztertuz gero, arreta printzipioa aplikagarri izan dadin nanomaterialen arriskuei eskatzen zaien identifikagarritasun eta konkretutasun baldintzak betetzen direla baieztatu daiteke. Berebiziko kezka sortzen dutenen artean, besteak beste, karbonozko nano-tutu, nano-titaniodun dioxido, nano-zilar⁶²⁹, nano-burdin oxido eta nano-zink oxidoaren⁶³⁰ esposizioak eragin ditzakeen kalteak nabarmendu daitezke.

Nanomaterial manufacturatuen propietate fisiko-kimiko, portaera eta efektuen inguruan ziurgabetasun zientifiko maila handia existitzen dela eta nanomaterial manufacturatu batzuek sorrarazi ditzaketen efektu larrien inguruan zenbait ikerketa zientifikok arrisku potentzial konkretu eta identifikagarriak azalerazi dituztela kontuan hartuta, nanomaterial manufacturatuen kasuan jurisprudentzia komunitarioak arreta printzipioa aktibatzeke eskatzen duen “arrazoizko oinarriaren kezka” (*reasonable grounds of concern*) baldintzarekin konplitzen dela ondorioztatu daiteke. Beraz, nanomaterial manufacturatuen arriskuek EBren arauketa juridikoan eskatzen den gizakion osasunaren eta ingurugiroaren babes maila altua bermatzeko helburua kolokan jar dezaketen neurrian, arreta printzipioa aktibatzeke funtsezko elementuak betetzen direla baieztatu daiteke.

II.2.D.d. Nanomaterial manufacturatuen arriskuak kudeatzeko arreta neurrien izaera eta tipologia

Nanomaterial manufacturatuen arriskuak kudeatzeko zereginean arreta printzipioa aplikatzeko aurrebaldintza komunitarioak betetzen direla behin ondorioztatuta, arreta neurrien bitartez bilatzen diren helburuak zeintzuk diren zehaztu beharra dago. Arreta neurrien oinarriko helburua, nanomaterial manufacturatuen propietate, portaera eta efektuen inguruan ziurgabetasun zientifiko esanguratsua existitzen den momentu honetan, material horien arrisku potentzialen aurrean osasun eta ingurumenaren babes maila altua bermatzeko gai den sistema normatiboa egituratzea izan behar da. Babes maila altua

⁶²⁷ Kapitulu honen I.3. ataleko taula kontsultatu.

⁶²⁸ HANSEN et al, 2013: 544.

⁶²⁹ AITKEN et al, 2009: 143.

⁶³⁰ The Royal Society, 2004: 83.

bermatzearekin batera, arreta neurriek nanomaterialen manufakturatuen ziurgabetasun maila gutxiaraztea ere helburu izan behar dute. Alde horretatik, agintari publikoek eginkizun horretara bideratutako ikerketa zientifikoak bultzatu behar dituzte, inbertsio publiko gehiago bideratu eta industria nanoteknologikoa mota horretako ikerketak aurrera eramatera juridikoki derrigortuz. Horrekin batera, arreta neurriek nanomaterialei buruz eskuragarri dagoen informazioaren emaria areagotzea izan beharko lukete helburu, informazio hori osasun eta ingurumena babesteko baliagarria izatearekin batera, nanomaterialen esposizioa jasan dezaketen pertsonen (langile, kontsumitzaile eta medikuntza eremuan pazienteak) informazio eskubidea bermatze aldera.

Nanomaterialen parametro berezitasunak egokitasunez kontuan hartzeko gai diren arrisku ebaluaketa metodologiak garatzeke dauden momentu honetan, ikerketa zientifiko horiek diziplina arteko elkarlanean eta koordinazioan oinarritu behar dira. Bestalde, ikerketa zientifiko horiek nanomaterialen ziurgabetasunak eta efektu posibleak identifikatu eta ahalik eta sakonen aztertzen dituen zientziarik zorrotzena aplikatu behar dute. Nanomaterialen manufakturatuen ziurgabetasuna murriztu eta ezagutza zientifiko berriak ekoiztearekin batera, esan bezala, arreta printzipioan oinarritutako sistema normatiboaren azken helburua nanoteknologiaren inguruan ekoizten den informazioa alderdi desberdinen artean (gizartea barne) modu garden eta zabalean komunikatzen dela bermatzea izan behar da. Agintari publiko komunitarioek hiru helburu horiek erdiesteko diseinatu behar duten sistema normatiboa egituratzerako orduan, EBko Komisioaren COM (2000)1 Gomendioaren arabera edozein arreta neurri errespetatu behar dituen printzipioak honakoak dira⁶³¹: gardentasun eta parte-hartze printzipioak (kapitulu honen aurreko ataletan sakondu direnak), eraginkortasun printzipioa, proportzionaltasun printzipioa, neurrien diskriminazio ezaren eta koherentziaren printzipioa, frogaren kargaren inbertsioa eta hartutako neurriekiko berrikuspena.

Nanomaterialen arriskuen kudeaketan arreta printzipioa aplikatzearen alde azaldu diren artean, autore batzuek arreta printzipioaren “bertsio leuna” aplikatu eta beraz *soft law* izaeradun instrumentuetan oinarritutako estrategia normatiboa proposatzen dute⁶³². Planteamendu horrek hala ere ez du arreta neurrien aplikazioaren bidez bilatzen diren oinarritzko helburuen eraginkortasuna bermatzen. Tesiko beste kapituluetan sakontzen den bezala, agintari publiko eskudunek industria nanoteknologikoak ekoiztutako nanomaterial eta nanoproduktuei buruzko informazio espezifiko eskatzeko borondatezko ekimen normatiboak martxan jarri dituzten kasuetan (gidalerroak edo portaera kodeak esate baterako), informazio hori transmititzera legalki derrigortuta ez dagoenez, industria nanoteknologikoak orokorrean botere publikoei ahalik eta informazio gutxien transmititzeko jarrera egokitu du. Nanomaterialen arrisku potentzialen aurrean *soft law* instrumentuetan oinarritutako sistema normatibo batek ez du jatorritzko zuzenbide komunitarioak exijitzen duen osasuna eta ingurumenaren babes maila altua eraginkortasunez bermatzeko gaitasun nahikorik eskaintzen.

⁶³¹ Arreta neurriek bete beharreko printzipio horiei buruz tesiko 2. kapituluak, III.5.D atala kontsultatu.

⁶³² FERRIEUX, 2008: 18-20; TRISOLINO, 2010: 21

Industria nanoteknologikoak informazioa borondatezko moduan transmititzea helburu duten *soft law* proposamenen eraginkortasun mugatua kontuan hartuta, sistema normatibo horren egiturapenean izaera loteslea duten derrigorrezko neurrien aldeko planteamendua egin beharra dago. Alegia, industria nanoteknologikoak agintari eskudunei nanomaterialen manufakturatuen arrisku potentzialei buruz garrantzizko informazioa transmititzera behartzen dien *hard law* neurri normatiboak jarri behar dira martxan. Informazioaren derrigorrezko transmisioan oinarritutako sistema horretan *soft law* neurriek *hard law* neurriekiko izaera osagarria eduki behar dute; hots, *hard law* neurriak osatu eta industria nanoteknologikoari betebeharrak horien konplimentua argitu eta zehazteko laguntza mekanismo bezala funtzionatu behar dute⁶³³.

Nanomaterialen arrisku potentzialak kudeatzeko derrigorrezko arreta neurriak hartzearen alde azaldu diren autore eta erakundeek izaera eta intentsitate desberdina duten neurriak proposatu dituzte: nanomaterialen ekoizpen eta komertzializazioaren berandutzea⁶³⁴ (erabatekoa edo zenbait sektoretara mugatua), marko komunitarioan substantzi arriskutsuei aurreikusten zaien arauketa baldintza zorrotzak analogiaren bitartez nanomaterialeri ere aplikatzea⁶³⁵ (horretarako nanomaterialak substantzia arriskutsu bezala sailkatuz), nanomaterialen bizitza zikloan zehar langileak eta kontsumitzaileak informatzeko eta nanomaterialen emisioen esposizioaz babesteko neurriak hartzea (batzuk nabarmentzearen, nanomaterialen eta nanoproduktuen erregistro eta inbentario publikoak, nanomaterialen erabilera segururako informazioa hornikuntza katean barrena transmititzeko fitxak eta nanoproduktuen derrigorrezko etiketapen unibertuala)⁶³⁶ eta ingurugimen isurpenak kontrolatzeko neurriak onartzea⁶³⁷.

Neurri horietako bakoitzaren bidez bilatzen den helburua dena delakoa izanik ere (osasunari edota ingurumenari babes maila altua bermatzea, nanomaterialen propietate, portaera eta efektuei buruzko ezagutza zientifikoaren ekoizpena bultzatzea edo ezagutza berri horien informazioa modu garden eta zabalean komunikatzea), neurriek bilatzen duten helburua lortzeko eraginkorrak eta proportzionalak izan behar dute. Alegia, helburu horiek eraginkortasunez betetzeko gaitasuna duten intentsitate desberdina duten neurriak egituratzea posible izanez gero, balantzaren beste aldean kokatzen diren industria nanoteknologikoaren interes eta eskubide ekonomikoari intentsitate baxuenean eragiten dieten neurriak jarri behar dira martxan. Hori bai, neurriak betiere eraginkorrak izan behar dira bilatzen den helburuaren konplimenturako.

Nanomaterialen manufakturatuek eragin ditzaketen arrisku potentzialen zantzuen aurrean osasunaren eta ingurugiroaren babes maila altua bermatzeko oinarritzko helburuari

⁶³³ Nanomaterialen eta *soft law* zein *hard law* arauketaren inguruko analisisia 4. eta 5. kapituluetan zehar sakontzen da.

⁶³⁴ ETC Group taldeak (ETC, 2010) esate baterako, nanoteknologiaren ekoizpen eta komertzializazioaren berandutze orokorra galdatzen du. Beste erakunde batzuek, sektore batzuetan nanomaterialen ekoizpen eta komertzializazioaren berandutza galdatzen dute, nekazaritzan zein elikagaietan (Friends of Earth, 2008; IUF, 2007) edota kosmetikoetan (Friends of Earth, 2006) besteak beste.

⁶³⁵ LACOUR, 2011: 440-445; NGARIZE et al, 2013: 132; PONCE DEL CASTILLO, 2010: 21.

⁶³⁶ Friends of Earth Australia, 2007; ETUC, 2010; NANO ACTION, 2008; MARCHANT et al, 2008.

⁶³⁷ GANZLEBEN et al (MILIE eta AMEC), 2011: 19.

dagokionez, egun existitzen diren nanomaterialen manufakturatuen kopuru aniztasuna eta beren propietateen heterogeneotasuna (nanomaterial bakoitza mundu bat da) kontuan hartuta, material horien artean batzuek osasun edota ingurumenarentzat intentsitate desberdineko efektu kaltegarriak izan ditzakete eta beste material batzuk arriskutsuak ez izatea gertatu daiteke. Inguruabar hori kontuan izanik, EBko corpus zientifikoak gomendatzen duen bezala nanomaterial manufakturatuko bakoitza kasuz kasu ebaluatu behar da.

Ebaluaketa zeregin horrek ordea dagoeneko azpimarratu den arazo batekin egiten du topo: nanomaterialen segurtasuna ebaluatzeko gaur egun erabiltzen diren metodologia zientifiko konbentzionalek ez dute nanomaterialen esposizio eta arriskuen informazio egoki eta zehatzik eskuratzeko balio. Hori dela eta, nanomaterialen ebaluaketarako metodologia espezifikoak garatu, baliozkotu eta estandarizatu artean, nanomaterial bakoitzarekiko esposizio mota eta atalase seguruak/arriskutsuak zeintzuk diren ezin daiteke zientifikoki zehaztu. Ziurgabetasun zientifikoko testuinguru horretan beraz, osasunaren eta ingurugiroaren babes maila altuaren helburu komunitarioa eraginkortasunez bermatzeko, nanomaterialen esposizioa mugatzen duten neurriak diseinatzea beste irtenbiderik ez dago.

Nanomaterial manufakturatuen esposizioa termino seguruetara mugatzeko zeregin horretan erabili daitekeen arreta neurri garrantzitsu bat nanomaterial eta nanoproduktuen baimen sistema orokorra izan daiteke, material horien segurtasun ebaluaketara baldintzatutako baimen sistema hain zuzen ere. Sistema horrek nanomaterialen bizitza zikloaren osotasuna hartu behar du kontuan eta nanomaterial eta nanoproduktuak ekoizti, erabili eta komertzializatu ahal izateko *ex ante* gainditu beharreko derrigorrezko aurrebaldintza gisa funtzionatu behar du. Nanomaterialen inguruan dagoen ziurgabetasun zientifikoaren aurrean zuzenbideak ziurtasunak eraiki behar ditu eta hortaz, baimen prozedura sistema horretan presuntzio juridikoen formula erabili behar da. Frogaren kargari dagokionez, baimen prozedura horretan bi dira aukera posibleak: nanomaterialen edo nanoproduktuen segurtasuna frogatzearen karga industria nanoteknologikoarena izatea, edo alderantziz, agintari eskudunek nanomaterial edo nanoproduktu horiek arriskutsuak direla frogatzeko karga izatea.

Nanomaterial manufakturatuei buruz existitzen den ziurgabetasun zientifiko handia kontuan hartuta, nanomaterial eta nanoproduktuen erabilera eta komertzializazio seguruaren inguruan informazio zientifikoa ekoizteko betebeharra duen alderdia industria nanoteknologikoa dela ondorioztatu daiteke. Alde batetik, nanomaterial manufakturatuei buruz existitzen den ezagutza zientifiko asimetrikoaren erantzule nagusia industria nanoteknologikoa da, nanomaterialen ustiapen teknikoak ikertzerako inbertsio sendoak egin baditu ere, ustiapen tekniko horren erabilera segurua eta efektu negatiboak ikertzeari ez dio behar adina inbertsiorik eskaini. Nanomaterialen arrisku potentzialen inguruan gaur egun existitzen den ziurgabetasun zientifikoaren erantzule nagusia izatearekin batera, industria nanoteknologikoari aspektu horien gaineko ezagutza aditua (*expertise knowledge*) aintzatesten zaio. Kontsekuenteki, baimen prozeduran industria nanoteknologikoa da

nanomaterial eta nanoproduktuen erabilera eta komertzializazio segurua frogatzeko karga izan behar duena.

Proposatzen den baimen sistema normatibo hori nanomaterialen arriskuen *iuris tantum* presuntzioaren bidez⁶³⁸ egituratu behar da. Alegia, nanomaterialen arriskuei buruzko ziurgabetasun testuingurua kontuan hartuta, baimen prozedura batean nanomaterial edo nanoproduktu bat arau orokor bezala arriskutsua dela presumitzen da eta baimen eskatzaileak kontrako frogaren bidez presuntzio hori apurtzeko eginkizuna izan behar du. Arriskuaren *iuris tantum* presuntzio hori nanomaterialei kasuz kasu aplikatu behar zaie eta beraz, arrisku zantzurik ez duten nanomaterialen kasuan ez zaie presuntzio hori aplikagarri izan behar. Arriskuaren *iuris tantum* presuntzioa aplikagarria den kasuetan, nanomaterial edo nanoproduktuaren baimen eskatzailea izan behar da hura arriskutsua ez dela frogatu edo bere erabilera segururako proposamenak aurkeztu behar dituen, hots, arriskuaren *iuris tantum* presuntzioa hausteko zama edo eginkizuna duena.

Presuntzio normatibo horren bidez frogaren karga nanoteknologiaren industriari transmititzen zaionez, industria hori ekoizten dituen nanomaterial eta nanoproduktuen segurtasunari buruzko ikerketa zientifikoak bultzatzera eta lortutako emaitzen informazioa agintari publikoei transmititzera behartzen duen formula juridiko baten aurrean gaude⁶³⁹. Bestalde, potentzialki arriskutsuak diren nanomaterialen manufakturatuen kasuan martxan jarri daitekeen beste arreta neurrietako bat arrisku maila baxuagoa duten ordeko substantziengatik ordezkatzera izan daiteke, ordezkapen hori egiteko bideragarria den kasuetan betiere⁶⁴⁰.

Lehenago aipatu den bezala, nanomaterialen manufakturatuen heterogeneotasun eta propietate aniztasuna dela eta, material horietako batzuk osasun edo ingurumenarentzat kaltegarriak izan daitezke, beste batzuk ez ordea. Material arriskutsuen eta ez-arriskutsuen arteko tratamendu juridiko berezia bultzatu ahal izateko, material horien ezagutza zientifikoa progresiboki haziz joatea ezinbestekoa da (ziurgabetasun elementuak murriztea alegia). Ezagutza zientifikoa haziz joan ahala, etorkizun batean nanomaterialen arteko sailkapen kategoria desberdinak antolatzea posible izan liteke: arrisku potentzial larriak azalarazten dituztenena (gaur egungo ezagutza zientifikoaren arabera, beste material batzuen artean karbonozko nano-tutuak, nano-titaniodun dioxidoa, nano-zilarra, nano-burdin oxidoa edo nano-zink oxidoa), entitate baxuko arrisku potentzialak islatzen dituzten nanomaterialena eta azkenik, eginiko ikerketa zientifiko zorrotzen arabera, arrisku potentzialen zantzurik planteatzen ez dituzten nanomaterialena.

Sailkapen irizpide horiei jarraiki nanomaterialen manufakturatuen bakoitzari aurreikusten zaion arrisku profilaren arabera, *iuris tantum* presuntzio hori apurtzea errazagoa edo zailagoa izan daiteke. Ziurgabetasun zientifikoaren testuingurua nagusi izanik ere, eskuragarri dagoen ezagutza zientifikoaren arabera arrisku potentzialen zantzurik planteatzen

⁶³⁸ Kontzeptu horri buruz, RENN and ELLIOTT, 2011: 242.

⁶³⁹ HANSEN et al, 2013: 547.

⁶⁴⁰ Ibid, 546. orr.

ez dituzten nanomaterialen kasuan ingurumenean edo gizakiengan izan dezaketen esposizioak ez du hainbesteko kezkarik sortzen eta beraz, industria nanoteknologikoari nanomaterial horien erabilera eta komertzializazio segurua frogatzea errazagoa izan dakieke. Aldiz, arrisku potentzial kezkagarriak planteatzen dituzten zerrendan barneratutako nanomaterialen kasuan, *iuris tantum* presuntzio hori apurtzea zailagoa da (frogapenaren baldintzak zorrotzak izan behar dira) eta material horien erabilera eta komertzializazioa baimendu daitezkeen kasuak murriztu izan behar dira. Produktu bati erantsitako nanomaterial batek arrisku potentzial larriak eragin ditzakeenean, produktuaren bizitza ziklo osoan zehar (ekoizpenetik hasi eta produktuaren hondakinen tratamendu prozesuak barne) nanomaterial arriskutsu horrek gizakiekin edota ingurumenarekin inolako esposiziorik izango ez duela bermatu beharko luke baimen eskatzaileak.

Atal honetan zehar mahai gainean jarri diren arreta neurriek nanomaterialen propietate, portaera eta efektuen inguruan eskuragarri dagoen ezagutza zientifikora baldintzatuta daude. Nanomaterialen buruzko ziurgabetasun zientifikoa murriztuz eta ezagutza zientifikoa areagotuz joan ahala beraz, arrisku potentzial batzuk baieztatu eta beste batzuk ezeztatzen joango direla pentsa daiteke. Agintari eskudunek nanomaterialen ezagutza zientifikoa haziz doan neurrian arreta neurriak berrikusteko zeregina dute. Jakintza berrietan oinarrituz, agintari eskudunek arreta neurri bat bere horretan mantentzea, aldatzea edo indargabetzea erabaki dezakete. Nanomaterialen kalteak zientifikoki frogatuz geratzen diren kasuetan, aplikatzen zaion neurriak arreta printzipioan oinarrituta egoteari utzi (ziurgabetasun zientifikorik gabe arreta printzipioa ez da aktibagarri) eta saihaspen printzipiotik eratortzen den neurria izatera pasatzen da.

EU NANOTECHNOLOGY RISK GOVERNANCE: ANALYSIS OF INITIATIVES

I. OVERVIEW OF NANOTECHNOLOGY RISK GOVERNANCE

Ordenamendu komunitarioan, duela urte gutxi indarrean sartu den EBOEGek giza duintasunari eskaintzen dion garrantzia eztabaiaezina da. EBOEGen 1. kapituluaren tituluak giza duintasunari lotutako eskubideak zerrendatzen ditu, eta eta 1. artikuluan esanbidez jasotzen da. EBOEGen duen kokapen pribilegiatu horren harira, giza duintasunak Alemaniako ordenamendu juridikoan duen goreneko babesarekin alderatu daitekeela arrazoitu da¹⁰⁶². Alde batetik, Estatu-kideen tradizio konstituzionalean errotua, giza duintasuna (EBTren 6.3 artikulua zentzuari jarraiki) zuzenbide komunitarioaren printzipio orokor bezala egituratzen dela defendatzen da¹⁰⁶³, zuzenbide komunitarioaren “klausula orokor purua” den balio bezala¹⁰⁶⁴. Bestalde, giza duintasunaren aurkako ustezko bortxaketak EBJAren aurrean zuzenean salagarriak direnez, giza duintasunak eskubide subjektiboaren izaera ere eduki dezake¹⁰⁶⁵. Hala ere, EBJAk eztabaida hori alde batera utzi du eta Estatu-kide bakoitzak giza duintasunari buruz duen kontzeptzio desberdinak maila komunitarioan babesteko duten gaitasuna aitortu die¹⁰⁶⁶; hots, Estatu-kideen sistema konstituzional bakoitzak giza duintasuna modu desberdinean egituratzeko duten ahalmena onartu du. Atal honen hasieran aurreratu bezala, Europako Kontseilu mailan, GEEHn ez da giza duintasunaren berriazko aipamenik egiten. Hala ere, bere interpretatzaile gorena den EGEAk hitzarmenaren printzipio esentzial bezala¹⁰⁶⁷ kalifikatu du eta giza duintasunak GEEHn aurreikusitako eskubide desberdinekin duen lotura jurisprudenzialki onartu egin du¹⁰⁶⁸.

¹⁰⁵⁶ MARÍN CASTÁN, op. cit, 6; VON MÜNCH, 2009: 111.

¹⁰⁵⁷ Oinarrizko Legearen 79.3. artikuluari jarraiki.

¹⁰⁵⁸ *BVerfGE* 45, 187 (227).

¹⁰⁵⁹ *BVerfGE* 93, 266 (293).

¹⁰⁶⁰ *BVerfGE* 1, 332 (343).

¹⁰⁶¹ Frantziako Kontseilu Konstituzionalaren 1994ko uztailaren 24ko Erabakian (Décision n° 94-343/344 DC du 27 juillet 1994 “principe de sauvegarde de la dignité de la personne” bezala aldarrikatu zen arte, giza duintasun terminoa ohore eskubidearen sinonimo antzera erabiltzen zen (JORION, op. cit, 199. orr). Giza duintasunak Frantziako legegintzan eta Kontseilu Konstituzionalaren jurisprudenzian izandako garrantziari buruz, atal honen I.1.E azpi-atala ikusi.

¹⁰⁶² GUTIERREZ GUTIERREZ, 2012: 99.

¹⁰⁶³ VON WALTER, 2005.

¹⁰⁶⁴ MARÍN CASTÁN, 2007: 7.

¹⁰⁶⁵ MAUBERNARD, 2003. Autore honen ustez, asmakuntza bioteknologikoei buruzko C-377/98 Kasuan EBJA-k Holandako gobernuak giza duintasunari buruz egindako salaketak aztertu egin zituenez, giza duintasunaren aurkako bortxaketak EBJA-ren aurrean salatzeako eskubide subjektiboa existitzen da.

¹⁰⁶⁶ Zehazki, C-36/02 kasuan (Omega izenez ezaguna), 2004ko urriaren 10eko EBJAren ebazpenean.

¹⁰⁶⁷ EGEA, *Affaire Bryan c. Royaume-uni : arrêt du 22 Novembre 1995*.

¹⁰⁶⁸ Beste askoren artean, giza duintasuna hitzarmenaren 7. artikuluaekin (“ez dago zigorrik legerik gabe”, aipatu berri den *Bryan c. Royaume-Uni* kasuan, 1995-11-22) eta 3. artikuluaekin (tortura, tratu krudel

II.1.B.b. Giza duintasunaren ezaugarriak eta autonomia pertsonalarekin eta giza eskubideekin duten konexio genetikoa

Doktrinan eta ordenamendu juridikoetan giza duintasunaren interpretazio aniztasuna nagusi bada ere, orokorrean bere izaera absolutua defendatzen duen kontzeptio iusnaturalista da nagusi, giza duintasuna gizakiaren berezko ezaugarri bezala definitzen duen ikuspegi dogmatikoa alegia¹⁰⁶⁹: gizakiaren berezko ezaugarria izanik, zuzenbideak positibatu baino lehenagokoa da eta hurrengo ezaugarriak ditu:

- a) giza duintasuna aldaezina da, norbanakoaren egoera pertsonala (AKE 120/1990, 4. o.j.) edo momentu historiko bakoitzean erasan dezaketen arrisku eta mehatxuen izaera dena delakoa izanik ere¹⁰⁷⁰.
- b) xedaezina da, merkataritza eremutik kanpo baitago eta norbere gorputza ezin baita irabazi ekonomikoak lortzeko objektu bezala erabili (AKE 212/1996, 8. o.j.).
- c) edozein estatutu juridikok bermatu behar duen “minimum” bortxa-ezina da (AKE 120/1990, 4. o.j.), agintari publikoek, 3. pertsonak eta duintasunaren titularrak den norbanakoak berak ere errespetatu beharrekoa.
- d) gizaki izatearen berezko ezaugarria izanik, utziezina da, ezin zaio uko egin.
- e) ez du proportzionaltasun azterketarik onartzen, ordenamendu juridikoen balio gorenen eta oinarritzko eskubideen jatorritzko elementua izanik, horien gaitetik kokatzen da eta ondorioz ezin da giza duintasunaren eta beste balio edo eskubideen arteko ponderaziorik egin.

Izaera absolutu horri jarraiki, oinarritzko eskubide guztiek duintasunean aurkitzen dute beren existentziaren funtsa edo izate-arrazoia. Giza duintasuna, beraz, giza eskubideen onarpenaren justifikazioa da¹⁰⁷¹ eta beren ulermenerako, perfektionamendurako eta garapenerako interpretazio balio bezala funtzionatzen du¹⁰⁷².

edo iraingarrien praktiken debekuaren eta duintasunaren lehenengo sententzia, *Kudla c. Polonia*, 26-10-2000) lotu ditu.

¹⁰⁶⁹ Beste askoren artean: FERNÁNDEZ SEGADO, 1995: 59; GONZÁLEZ PÉREZ, 1986:81; MOUTOUH, 1999: 167; PÉREZ LUÑO, 1984:115; SÁNCHEZ GONZÁLEZ, 2006: 24. Bere jatorri naturalarekin batera, gizakiaren baldintza antropologiko eta kulturalen isla ere badela interpretatu izan da, naturaren eta kulturaren arteko batura dela eta, gizakia pertsona bihurtzen duen balio bezala (BERTOLINO, 1999: 136). Azkenik, erlatibismo kulturalako korranteek izaera gizatiar natural hori ukatu eta giza duintasuna gizakiok bata bestearen bizitzaren onartzetik eratoritzen den eraikipen kultural hutsa dela arrazoitzen dute (CASSIERS, 2003; HERRERA FLORES, 2005.). Aitzitik, Espainiako AKren jurisprudentzia kontraesankorra da. Hasiera batetan, atal honetan askotan aipatu den 53/1985 ebazpenetik izaera absolutu hori ondorioztatu badaiteke ere, hamarkada bat beranduago eman zuen 150/1994 ebazpenean giza duintasunaren aurreikuspen konstituzionalak ez du inolako eraikipen dogmatikotik suposatzen (4. o.j.). Bestalde, doktrinaren zati batek giza duintasunaren izaera absolutu hori ukatu eta eraikipen kulturalaren emaitza dela argudiatzen dute: CASSIERS, 2003; HERRERA FLORES, 2005.

¹⁰⁷⁰ Alemaniako Oinarritzko Legeak positibizatu zuen momentu historikoan giza duintasunaren aurkako aurrekari historikoa erregimen nazionalsozialistaren triskantza izan bazen ere, gaur egun eta etorkizunera begira giza duintasunaren aurkako mehatxu esanguratsuenetakoa teknologia berri gero eta sofistikatuen erabilera arduragabea da.

¹⁰⁷¹ MARÍN CASTÁN, 2002: 7.

¹⁰⁷² OEHLING DE LOS REYES, 2011: 172; BENDA, 1996: 121.

Eskubide guztiek, beren izaera dena delakoa ere, giza duintasunetik eratortzen den atal autonomoa da, eta guztiek batera, giza duintasunaren ondare komuna osatzen dute¹⁰⁷³.

Bestalde, giza duintasunaren eta eskubideen konexio genetiko¹⁰⁷⁴ horretan beste elementu bat hartu behar da kontuan: autonomia pertsonalaren oinarrizko balioa. Norberak bere bizitza proiektua askatasunez, aukera berdintasunean eta besteekiko errespetuan garatzeko ahalmenean datza, norbanakoak bere bizitzarekiko duen autodeterminaziorako gaitasunean. Alegia, autonomia pertsonalaren oinarrizko balioa norbere pertsonaren gobernantza libre eta subiranoaren¹⁰⁷⁵ oinarria da eta gizaki orok bere pertsonalitatea libreki osatzeko gaitasunean datza.

Norbere pertsonalitatearen garapen dinamiko eta askedun prozesu horretarako, gizakia berezkoak zaizkion eskubideen egikaritzaz baliatzen da. Alde horretatik, giza eskubideen egikaritza autodeterminazio prozesu pertsonal horren isla da eta azken horrek bere izate-arrazoia giza duintasunean aurkitzen du¹⁰⁷⁶. Askatasun pertsonalaren oinarrizko nukleo gaindiezina den aldetik, giza duintasunak autodeterminazio pertsonalerako prozesu horretan norbanakoak egikaritzen dituen eskubideen gutxieneko eduki murriztu ezina osatzen du¹⁰⁷⁷, inolako ponderaketarik onartzen ez duen eskubideen nukleo absolutua. Espainiar Estatuaren kasuan, Konstituzioak aurreikusten dituen eskubideen banakotasun eta zehaztasuna EKren 10.1. artikuluan jasotako giza duintasuna eta pertsonalitatearen garapen librearen balioen ondorio zuzena da¹⁰⁷⁸.

Norbanakoa komunitate baten kide den aldetik, norbanakoak bere autonomia pertsonalaren zati bat kolektibotasunaren interes orokorren alde sakrifikatu behar du. Lagapen hori indibiduoaren eta kolektiboaren interes legitimoen arteko orekan oinarritu behar da¹⁰⁷⁹. Ordenamendu sozial eta ekonomiko justuaren eta bizikidetzako kolektibo eta ordenatuaren bilaketan, norbanakoen autodeterminazio gaitasuna ezinbestekoa den neurri-arte soilik izan daiteke mugatua. Izan ere, helburu kolektiboaren bilaketa horretan autonomia pertsonalaren oinarrizko nukleoaren langa gaindituz gero, norbanakoaren duintasuna urratu egiten da. Bizi garen Estatuak, Soziala eta Demokratikoa izatearekin batera Zuzenbidezkoa ere baden aldetik, zuzenbidearen eta hura aplikatzen duten botere publiko desberdinen ardura da norbanakoen eta kolektiboaren interesen artean oreka jartzea.

¹⁰⁷³ Ibid, 122. orr.

¹⁰⁷⁴ JIMÉNEZ CAMPO, 2009: 184.

¹⁰⁷⁵ RODOTA, 2010: 62.

¹⁰⁷⁶ Ikuspegi filosofikotik, giza duintasunaren eta autonomia indibidualaren arteko harreman hori Immanuel Kanten ideien ondorioa da (DORN GARRIDO, 2011:74). Espainiar Konstituzioaren kasuan, autonomia pertsonalaren balioa Alemaniako Oinarrizko Legearen 2. artikulutik inportatu da. Oinarrizko Legearen 2.1 artikuluan aurreikusten den autonomia pertsonalaren eta 1.1. artikuluan jasotako giza duintasunaren arteko berezko loturari buruz, ikus BENDA, 1996: 123. Autonomia pertsonalaren balioaren lehenengo aipamen juridikoa, aitzitik, lehenagokoa da: AEBtako 1776ko Independentzia Deklarazioan, gizaki orok zoriontasuna bilatzeko zuen eskubidea aurreikusten zen (DÍEZ-PICAZO, 2008:71).

¹⁰⁷⁷ Auzitegi Kontituzionalak, hala ere, 53/1985 ebazpenean egindako baieztapen hori erlatibizatu egin du, giza duintasunetik eskubide oro eratortzen ez dela baiteritzo. Interpretazio horren arabera, oinarrizko eskubideen mugapen edozein mugapenek ez du automatikoki esan nahi giza duintasuna urratzen denik (ikus AKE 120/1990, 3.o.j.).

¹⁰⁷⁸ FERNANDEZ SEGADO, 1995: 55.

¹⁰⁷⁹ BENDA, 1996: 119-120.

II.1.C. Giza duintasunaren berezko zehaztugabetasunetik ondorioztatu dakioken gutxieneko eduki absolutua

Diziplina eta korrante desberdinetatik edaten duen inperatibo filosofiko edo deontologikoa izanik, giza duintasuna hautematea errazagoa da definitzea baino, esparru moraletik juridikora transposatzean bere definizio eta edukien zehaztugabetasuna nabarmena baita¹⁰⁸⁰. Jatorri estrajuridikoa duen giza duintasunaren balioak, bere oinarrian, giza duintasunaren araberako tratua eskatzen du. Arrazoiketa zirkular edo tautologiko horrek, giza duintasunaren edukiaren zehaztapenean lagundu baino, bere zehaztugabetasuna berretsi egiten du. Alegia, lausotasun hori giza duintasunaren berezko ezaugarria da. Beraz, eduki juridiko positibo eta zehatzez hornitzea ezinezko logikoa da, horrek giza duintasunaren ideia-izaera-galera eragin eta kontzepturik gabeko nozio batetara baigaramatza¹⁰⁸¹. Izaera zehaztugabe hori giza duintasunaren berezko ezaugarria izan beharrean, doktrinaren zati batek azken hamarkadetan izan duen garapen normatibo eta jurisprudenzialaren ondorioa dela deritzo¹⁰⁸². Hots, lausotasun horren benetako kausa duintasunaren inperatibo filosofikoa eduki juridikoz hornitzeko egindako alferrikako saiakeran kokatzen dute.

Giza duintasunaren zehaztugabetasun hori, bere babes eraginkorrerako faktore kaltegarria izan beharrean, elementu onuragarria izan daiteke. Zehaztugabetasun horrek giza duintasunari zuzenbide positiboaren eta jurisprudenziaren bitartez garaian garaiko egoera historiko desberdinetara egokitzeko elastikotasuna ematen dio¹⁰⁸³. Hala ere, lausotasun hori ezin da termino absolutuetan ulertu. Giza duintasunak intolerantzia etikoaren atalase¹⁰⁸⁴ bezala funtzionatzen duen aldetik, eskaintzen zaion tratamendu juridikotik bere nozio komun¹⁰⁸⁵ edo gutxieneko eduki absolutu bat¹⁰⁸⁶ ondorioztatu daiteke. Giza duintasunaren gutxieneko eduki horren isla Kantek bere garaian egindako hausnarketan aurkitu dezakegu. Kanten aburuz, gizakia ezin daiteke objektu bezala tratatu, gizakia helburua baita bere baitan; hartatik, gizakiak ez du preziorik, duintasuna baizik¹⁰⁸⁷. Giza duintasunaren gutxieneko edukia horrela ulertu daiteke beraz: gizaki orok, izaki arrazional, berdin eta libre gisa, norberarekiko eta bere ingurunearekiko harremanean bere jokamoldea zehazteko duen gaitasunaren aurka doazen tratuen debekua¹⁰⁸⁸; zehazki, gizakia objektuaren mailara makurtu, bere degradazioa eragin edota behe mailako kategoriakoak bailiran tratatzen dituzten egintzena¹⁰⁸⁹. Duintasunaren aurka doazen egite

¹⁰⁸⁰ JORION, 1999: 215; MARÍN CASTÁN, 2007: 1; PEREZ TRIVIÑO, 2007: 114-115; VON MÜNCH, 2009: 116.

¹⁰⁸¹ JIMÉNEZ CAMPO, 2009: 182.

¹⁰⁸² MAUBERNARD, 2003: 487; SÁNCHEZ GONZÁLEZ, 2006: 26.

¹⁰⁸³ GUTIÉRREZ GUTIÉRREZ, 2004: 335; JORION, op. cit, 215. orr.; MOUTOUH, 1999: 166-167; PÉREZ TRIVIÑO, op. cit, 123. orr.; SOLOZÁBAL ECHEVARRÍA, 2006: 16.

¹⁰⁸⁴ JIMÉNEZ CAMPO, op. cit, 181. orr.

¹⁰⁸⁵ MARIN CASTÁN, op. cit, 1. orr.

¹⁰⁸⁶ DORN GARRIDO, op. cit, 83-84. orr.

¹⁰⁸⁷ KANT, 1994: 47-48.

¹⁰⁸⁸ Ikusi AKE 192/2003, 7. o.j.

¹⁰⁸⁹ BENDA, 1996: 121; CANEDO-PARIS, 2008: 981; DORN GARRIDO, op. cit, 85. orr.; JORION, op. cit, 216-217. orr.; LENOIR, 1996; MATHIEU, 1999: 98; PIERRE-EGEA, 1997: 353; PRIETO ÁLVAREZ, 2005: 170.

edo ez-egiteek gizakien arteko bereizkeria eragiten dute, “lehen mailako diskriminazio”¹⁰⁹⁰ bezala definitu izan dena: bereizkeria hori ez da pertsonen egoera konkretu edo portaera objektiboetan oinarritzen (kasu horietan berdintasun eskubidearen aurkako diskriminazioaz hitz egin behar da), beren identitate pertsonalean edo kolektibo baten partaide izatean baizik.

Giza duintasunaren esentzia edo gutxieneko eduki hori, EBOEGeko I. Kapituluaren¹⁰⁹¹ eta ekarpen jurisprudenzial desberdinetan hauteman daiteke; besteak beste, Europako Kontseilu mailan¹⁰⁹², Alemanian, Frantzian¹⁰⁹³ eta Espainian¹⁰⁹⁴. Alemaniako AK-k, esate baterako, Estatuaren egintzek norbanakoen giza duintasuna urratu duten edo ez erabakitze “formula-objektu” izenez ezagutzen den aldagaia erabiltzen du. Aldagai horrek hala ere, irizpide objektiboarekin batera (norbanakoa objektu bezala tratatu izana) irizpide subjektiboa ere eskatzen du, hots, botere publikoek urrapena kontzienteki egin izana¹⁰⁹⁵. Hala ere, giza duintasuna urratzeko Alemaniako AK-k eskatzen duen irizpide subjektibo hori ez da giza duintasunaren berezko izaerarekin bateragarria. Giza duintasunak izaera absolutu eta objektiboa du eta hartatik, subjektu aktiboaren intentzioaren existentzia ezin da giza duintasuna urratzen den edo ez erabakitze baldintza bezala ulertu¹⁰⁹⁶.

Irizpide horretaz harago, giza duintasunaren gutxieneko edukia berezkoak zaizkion eskubideen urraketen kasuistikaren bitartez hauteman daiteke. Aurreko azpi-atalean aipatu bezala, giza duintasuna autonomia pertsonalaren bidez adierazten da, norbanakoak bere pertsonalitatea libreki garatzeko beharrezkoak dituen eskubideen egikaritzaren bidez. Ikuspegi tradizional liberalek, pertsonalitatearen garapen libre hori askatasun baliotik eratoritzen ziren eskubide tradizionalekin lotzen duten, eskubide zibil eta politikoekin alegia. Liberalismoaren arabera, norbanakoari Estatuaren jardueratik erreserbatutako eremua zenbat eta hobeto bermatu, gero eta askatasun eta beraz duintasun gehiago izango

¹⁰⁹⁰ TUGENDHAT, 1997: 358. Ideia horren azalpena, JIMÉNEZ CAMPO, op. cit, 181. orr.

¹⁰⁹¹ EBOEGen I. Kapituluak “giza duintasuna” du izena eta bere bost artikuluetan giza duintasunaren edukia “minimum” murrizteza hautematen da: bizitzarako eskubidea (2.art), integritate pertsonalerako eskubidea, biologia eta medikuntzaren garapenarekin zerikusia duten praktika batzuen debekua barne (3.art), tortura, tratu krudel eta iraingarrien debekua (4.art) eta esklabutzaren eta derrigortutako lanen debekua (5.art).

¹⁰⁹² EGEAren aitzindaria zen “Comisión Europea de los Derechos Humanos” izenekoak, 1973. urtean emandako erreportaje batean, tratu laidogarria emateak, norbanakoaren egoera edo ospearen makurtzeak (norberaren eta besteen begitan) edo objektu bezala tratatzeak giza duintasuna urratzen zuela adierazi zuen (*Commission Européenne des Droits de l’Homme, Asiatiques d’Afrique Orientale contre Royaume-Uni*, 14-12-1973).

¹⁰⁹³ Esate baterako, ipotxen jaurtiketaren ebazpen ezagunean (*Conseil d’Etat, décision du 27 octobre, 1995*).

¹⁰⁹⁴ Espainiako AK-k pertsonaren instrumentalizazio-ezaren inperatibo hori argudiatu izan du ebazpen batzuetan. Ikus AKEE 53/1985, 11. o.j; 91/2000, 7. o.j; 181/2004, 13. o.j.

¹⁰⁹⁵ Alemaniako AK-k erabilitako “formula-objektu” aldagai horri buruz, beste askoren artean, ikus 1970eko abenduaren 15eko ebazpena, 1970 –2 BvF 1/69, 2 BvR 629/68 y 308/69.

¹⁰⁹⁶ Alemaniako AK-ren ebazpen horrek, Geller, Von Schlabrendorff eta Rupp izeneko magistratuen boto partikularra izan zuen, giza duintasunaren degradazioa eman dela erabakitze irizpide objektiboa kontuan hartzearekin nahikoa dela eta beraz, irizpide subjektibo hori soberan dagoela arrazoitu baitzuten. Azken ideia horrekin koherentzian, ikus GONZÁLEZ PÉREZ, 1986: 112-114, EZQUERRA ESCUDERO, 2011: 46; GUTIÉRREZ GUTIÉRREZ, 2005: 30.

du bere existentzia libreki egituratu ahal izateko¹⁰⁹⁷. Zuzenbidezko Estatu Sozial eta Demokratikodun forma duen gaur egungo gizarte modernoan, liberalismoaren prismatik defendatutako interpretazio indibidualista horrek bere zentzua galdu egin du. Norbanakoaren autodeterminazio librea ezin daiteke pertsonaren potentzialtasun fisiko eta moralekin soilik lortu. Pertsonalitatearen garapen libreak ikuspegi zabalagoa exijitzen du, potentzialtasun fisiko eta moralekin batera potentzialtasun kultural, ekonomiko eta sozialen garapena ere ezinbestekotzat jotzen da¹⁰⁹⁸. Beraz, norbanakoak Estatuaren laguntzarekiko menpekotasuna du komunitatean bizitzetik eratortzen zaizkion eskubide eta betebeharrak egikaritu eta kasu batzuetan bere oinarritzko premiak asebate ahal izateko¹⁰⁹⁹. Alde horretatik, askatasun balio tradizionalaz gain, giza duintasunetik berdintasuna eta justizia bezalako balioak ere eratortzen dira¹¹⁰⁰. Eskubide zibil eta politikoekin batera, eskubide ekonomiko eta sozialak ere giza duintasunaren isla dira.

Idea hori Espainiako Konstituzioari aplikatuz gero, pertsonalitatearen garapen libreak I. Tituluan aurreikusitako eskubide oro (III. Kapitulukoak barne) kontuan hartzea eskatzen du¹¹⁰¹ (giza duintasunaren interpretazio formalista eta hartatik murriztailea egin beharrean¹¹⁰²), nahiz eta eskubide bakoitzak giza duintasunarekin duen lotura intentsitate desberdinekoa edo mailakatua izan. Espainiako AKren jurisprudentziak ostera, giza duintasunaren eta oinarritzko eskubide guztien arteko erabateko identifikazio hori ukatu egin du, bere ustez eskubide oro ez baita duintasunetik eratortzen¹¹⁰³. AK-k giza duintasunaren eduki negatiboaren identifikazioa egiten du, berarengandik eratortzen diren eskubideen murrizketa kasuetan ukitu ezin daitekeen “minimum bortxa-ezina” edo nukleo esentzialarena¹¹⁰⁴. Eduki negatibo horrez harago, AK-k ez du giza duintasunaren eduki positibo bateraturik identifikatu. Beraz, oinarritzko eskubide bakoitzak giza duintasunarekin izan dezakeen lotura eskubidearen eduki eta izaeraren azterketan¹¹⁰⁵, hots, eskubide horien urrapenei buruzko jurisprudentzian bilatu behar da.

Aitzitik, AK-k oinarritzko eskubide batzuek giza duintasunarekin lotura estua edo sendoa dutela nabarmendu du; zehazki, bizitza eta osotasun fisikorako zein moralerako eskubideek (15.art) eta “bereziki pertsonalak” kontsideratzen diren eskubideek: adierazpen eta erlijio askatasunek (16.art) eta ohore, intimitate pertsonal zein familiar eta irudirako

¹⁰⁹⁷ BENDA, 1996: 118.

¹⁰⁹⁸ FERNÁNDEZ SEGADO, 2006:460.

¹⁰⁹⁹ BENDA, 1996: 119.

¹¹⁰⁰ Pertsonalitatearen garapen librerako askatasun eta berdintasun balioan oinarri dituzten eskubideak beharrezkoak dira (JORION, op. cit, 219-221. orr, PASCUAL LAGUNAS, 2009: 84-86, PRIETO ÁLVAREZ, op. cit, 157. orr.). Espainiako Konstituzioko 1.1 artikuluan jasotako goreneko balioekin loturan, justizia eta bake soziala ere giza duintasunetik eratortzen dira (DORN GARRIDO, op. cit, 82. orr; FERNÁNDEZ SEGADO, 2006: 459-460; MARÍN CASTÁN, op. cit, 5. orr; NUEVO, 2004: 44; Alemaniako Oinarritzko Legearen analisisian, BENDA, 1996:122).

¹¹⁰¹ FERNÁNDEZ SEGADO, op. cit, 476-47. Orr, GONZÁLEZ PÉREZ, 1986: 98.

¹¹⁰² Garrido Falla autoreak giza duintasunetik I. kapituluko eskubideak (15-29 eta 30. artikulua barne) besterik eratortzen ez direla interpretatu zuen (GARRIDO FALLA, 1985: 187).

¹¹⁰³ Ikus AKE 120/1990, 3.o.j.

¹¹⁰⁴ AKE, 120/1990, 4.o.j.

¹¹⁰⁵ Ikus AKE 236/2007, 3.o.j.

eskubideek (18.1.art)¹¹⁰⁶. Giza duintasunarekin lotura estua duten eskubide horiez gain, AK-k historian zehar garatu duen jurisprudentzian giza duintasunak beste eskubide batzuekin duen lotura adierazi du: berdintasun eskubidea, jaiotza, arraza, sexu, iritzi edo sinesmenetan oinarritutako diskriminazio jarreraren debeku bezala (14.art, AKEE 144/1990, 5.o.j; 214/1991, 8.o.j.), askatasun eta segurtasunerako eskubidea (17.art, AKE 144/1990, 4.o.j.), datu pertsonalen babeserako eskubidea (18.4.art, AKE 254/1993, 6.o.j.), bilerak egiteko (21.art), elkartzeko (22.art) eta hezkuntzarako (27.1.art) eskubideak (guztiak batera, AKE 236/2007, hurrenez hurren, 6, 7 eta 8.o.j.), babes judizial eraginkorrerako eskubidearen eduki desberdinak (24.art, AKEE 99/1985, 2.o.j; 150/1991, 4.o.j; 55/1996, 8.o.j; 95/2003, 4.o.j; 123/2004, 3.o.j.), familiaren babeserako (39.1.art), osasunaren babeserako (43.art) eta etxebizitza duin zein egokiaz gozatzeko (47.art) eskubideak (guztiak batera, AKE 158/1993, 3.o.j.). Konstituzioan eskubide bezala egituratzen ez bada ere, AK-k pertsonen ondarearen gaineko erabateko enbargatzea giza duintasunaren aurka doan egintza bezala kalifikatu du, pertsona orok gutxieneko bizitza kalitate bat izateko beharrezkoa duen “minimum ekonomiko” hori giza duintasunaren balioarekin lotuz (AKEE 113/1989, 3.o.j; 16/1994, 4. o.j; 181/2000, 9. o.j.).

II.1.D. Duintasuna, gizakiaren berezko ezaugarri bezala. Titulartasunaren eremu tenporalari eta dimentsio kolektibo posible bati buruzko hausnarketak

Aurreko azpi-atalean aipatu diren Konstituzio eta giza eskubideen testu normatiboen azterketatik, giza duintasunaren titulartasuna gizakiaren ideiarekin lotzen dela ondorioztatu daiteke. Autoreren batek, aitzitik, duintasuna bizitza kontzientea duen izaki orori aurreikusi behar zaiola defendatzen du¹¹⁰⁷. Duintasuna, gizaki izate hutsagatik, berezkoa zaigun balio intrintsekoa¹¹⁰⁸ da eta gizakiaren ezaugarri propioa izanik, subjektu eta pertsona gisa bere osotasunean babesten du, entitate korporal bezala¹¹⁰⁹. Bere titulartasuna gizaki edo pertsonaren ideiarekin lotzen da, ez ostera hiritartasunarekin. Giza duintasuna pertsona natural guztiei modu orokorrean aurreikusten zaie¹¹¹⁰ (pertsona juridikoei ostera ez¹¹¹¹), beren egoera zeinahi dela ere, estatutu juridiko orok bermatu behar duen “minimum”

¹¹⁰⁶ Giza duintasunaren eta aipatutako eskubideen arteko lotura, besteak beste, AKEE 107/1984, 3.o.j; 53/1985, 3.o.j.

¹¹⁰⁷ FRANKENA, 1986: 165-166.

¹¹⁰⁸ Espainiako Auzitegi Konstituzionalak ere azpimarratu duen ezaugarria: AKE 53/1985, 8. o.j: “(...) *valor espiritual y moral inherente a la persona* (...)”.

¹¹⁰⁹ MOUTOUH, 1999: 166.

¹¹¹⁰ AKE 53/1985, 8. o.j: “*La dignidad está reconocida a todas las personas con carácter general* (...)”.

¹¹¹¹ Auzitegi Konstituzionalak pertsona juridiko pribatuek ohore eskubidea dutela adierazi du (AKE 139/1995, 6. o.j.), pertsona juridiko horren partaide diren subjektuen interesak defendatzeko mekanismo bezala. Hala ere, sententzia berdinean beste oinarritzko eskubide batzuen eta hartatik giza duintasunaren titulartasuna ukatu egiten die (4. o.j: “*las personas jurídicas no pueden ser titulares del derecho a la vida, del derecho a la integridad física, ni portadoras de la dignidad humana*”). Alemaniako Estatuan, giza duintasuna oinarritzko eskubide bezala konfiguratzeko mekanismo bezala erabili izan da (ikusi VON MÜNCH, 2009: 113; DÍEZ-PICAZO, 2008: 71).

aldaezina¹¹¹² baita. Beraz, duintasunean oinarrituz ezin da Estatu bateko hiritarren eta atzerritarren artean inolako bereizketarik egin¹¹¹³, ezta askatasun gabetze zigorra betetzen ari diren pertsonen kasuan ere.

Duintasuna gizakiaren berezko propietatea dela behin argitu ostean, bere eremu tenporala azter dezagun: giza duintasuna zentzu hertsian bizitzarekin lotzen da, edota kontrari, jaio baino lehenagoko edota hil ondorengo egoeretara hedatzen da? Biologia eta medikuntzaren praktika batzuek giza duintasuna urratu dezakete. Izan ere, Espainia eta EBn gizakion gorputzeko edozein elementuren patrimonializazioa, giza duintasunarekin bateraezina den praktika kontsideratzen da. Duintasunak gizakion gorputzeko elementu ororen gaineko babes juridikoa eskaintzen du, jaio aurretiko fase biologikoetan (enbrioiak eta fetuak), bizirik, edo hil ondorengo egoeretan¹¹¹⁴, eta ondorioz elementu guzti horien irabazi-asmodun erabilera eta patentagarritasuna debekatuta dago¹¹¹⁵. Espainiako AK-k emandako jurisprudentziaren arabera, egoera horietan giza duintasunaren balioa operagarria da, baina baieztapen horrek ez du esan nahi giza duintasunaren onarpenarekin batera egoera horietan eskubideen titulartasunik aitortzen denik¹¹¹⁶. Alemaniaren kasuan, pertsona hil ondoren giza duintasunak ez du bere gorputzaren gaineko babes soilik eskaintzen, baita norbere pertsonaren aurka egindako akusazio faltsuen gainean ere¹¹¹⁷ (Espainiar Estatuaren kasuan urrapen hori ohore eskubidearen bidez babesten da¹¹¹⁸).

¹¹¹² AKE 120/1990, 4. o.j: “(...)la dignidad ha de permanecer inalterada cualquiera que sea la situación en que la persona se encuentre (...) constituyendo, en consecuencia, un “minimum” inalterable que todo estatuto jurídico debe asegurar (...)”.

¹¹¹³ Beste kontu desberdin bat honakoa da: Giza duintasunetik eratorzen diren eskubideen arteko konexio mailaren arabera, Konstituzioaren I. Tituluan jasotako eskubideen artean atzerritarrei zeintzuk aurreikusten zaizkien, eta zeintzuk ordea hiritarrei eskusiboki erreserbatzen zaizkien (horri buruz, ikus AKE 107/1984; 236/2007).

¹¹¹⁴ BENDA, 1996: 121; VON MÜNCH, 2009: 113.

¹¹¹⁵ Espainiako AKE 212/1996, 8. o.j: “Aclarado, sin embargo, que la Ley no prevé la donación sino de embriones o fetos muertos o, en todo caso, no viables (o de estructuras biológicas procedentes de los mismos cuya muerte ya ha sido constatada, art. 6), tal reproche carece totalmente de sustento desde el momento en que esta singular «donación», al igual que la de órganos humanos regulada en la Ley 30/1979, o incluso la del cadáver de una persona, no implica en modo alguno la «patrimonialización», que se pretende, de la persona, lo que sería desde luego incompatible con su dignidad (art. 10.1 C.E.), sino, justamente, la exclusión de cualquier causa lucrativa o remuneratoria, expresamente prohibida por el art. 2. d) de la Ley”. EBJAK ere, asmakuntza bioteknologikoen babes juridikoari buruzko 98/44 Zuzentarauaren inguruan 2001ko urriaren 9an emandako ebazpenean (*Países Bajos/Comisión, Asunto C-377/98*), bere 71. atalean, enbrioiaren patentagarritasuna duintasunaren aurkako egintza zela azaldu zuen: “El respeto de la dignidad humana queda, en principio, garantizado por el artículo 5, apartado 1, de la Directiva, que prohíbe que el cuerpo humano, en los diferentes estadios de su constitución y de su desarrollo, pueda constituir una invención patentable”.

¹¹¹⁶ Abortuaren eztabaidaren harira, Espainiako AK-k “jaiotzera doana” edo “nasciturus-a” EK-ko 15. artikuluan aurreikusitako bizitza eskubidearen titularrak ez dela eman du aditzera, 15. artikulua babespean kokatzen den ondasun juridiko konstituzionala baizik, botere publikoen partetik babestu beharrekoa (AKE 53/1985, 6 eta 7. o.j.). Alemaniako AK-k sorkuntzatik 14 egun pasa direnean giza bizitza existitzen dela eta, “nasciturus-ak” duintasuna duela adierazi du, nahiz eta duintasun horrekiko kontzientziarik ez izan eta bere kabuz babesteko gaitasunik ez eduki. Alemaniako AK-k ordea, ez du argitu “nasciturus-a” giza duintasunaren eskubide subjektiboaren titularrak den edo ez (ikus VON MÜNCH, op. cit, 112. orr).

¹¹¹⁷ VON MÜNCH, op. cit, 113. orr. Alemaniako AK-ren ebazpena, BverfGE, vol. 30, p. 194, itzulia: “Sería incompatible con el mandato de garantía constitucional de ileśividad de la dignidad del hombre, que es la base de todos los derechos fundamentales, si el hombre, cuya dignidad le corresponde en virtud de su ser

Titulartasunaren analisiarekin amaitzeko, pertsona fisiko bakoitza modu indibidualean babesten duen balioa izatearekin batera, doktrinaren zati batek giza duintasunak norbanakoaz gaindiko dimentsiorik ere baduela argudiatzen du¹¹¹⁹. Ordena politiko-sozialaren berezko balioetako bat izanik, giza duintasunak gizarteko kolektibo sozial, kultural edo erlijiosoen berezko ezaugarri, tradizio edo balioen diskriminazio jarrerak eragozteak izan behar du helburu, gizartearen gutxieneko moral etiko-publiko gisa jarduten duen balioa ere badela interpretatuz¹¹²⁰. Medikuntza, biologia eta orokorrean teknologia berriek gizakion arrazarengan eta giza-ezaugarrietan eragin ditzaketen aldaketek arazo juridiko-etiko garrantzitsuak planteatzen dituzte. Gizakiaren berezko ezaugarriak manipulatzeko gaitasuna duten teknologia berrien erabilera posibleen aurrean, giza duintasunak etorkizuneko belaunaldien gizatasunari eta gizateriaren ongizateari eragin diezaieketen interbentzio indibidualen debekua dakar¹¹²¹. Alde horretatik, giza duintasunaren berezko izaera indibidualistarekin batera, autore batzuek giza duintasuna gizateriari bere osotasunean dagokion meta-printzipioa dela arrazoitzen dute¹¹²². Filosofia komunitaristan funtsa duen ikuspegi horri kritikak egin zaizkio, giza duintasun eta eskubideen jatorri historiko indibidualistaren aurkako interpretazioa izatearekin batera, gizateriaren izenean norbanakoen giza duintasun eta autonomia pertsonalaren aurka doazen neurriak hartzea ahalbidetu dezakeen interpretazio arriskutsua dela argudiatuz¹¹²³. Duintasunaren dimentsio indibidual eta kolektiboaren arteko oreka mantentzea ezinbestekoa denez, duintasuna inolako moral publiko maximorik inposatzeko tresna bilakatu ez dadin, Estatuak duintasunetik eratortzen den gutxieneko moral etiko-publiko hori babesteko erabakiak alde aurretik zehaztutako irizpide batzuen arabera hartu beharko ditu¹¹²⁴.

como persona y que se traduce en una pretensión de respeto general, pudiera ser desacreditado y humillado también tras su muerte. Por consiguiente, las obligaciones que impone el art. 1.1 de la Ley Fundamental, que proporcionan protección al individuo frente a ataques a su dignidad, no terminan con la muerte”.

¹¹¹⁸ Ikus AKE 231/1988, 4. o.j.; AKE 190/1996, 2. o.j.

¹¹¹⁹ Giza duintasunaren ikuspegi kolektibo horren aurka, besteak beste, JORION, 1999: 231-233; VON MUNCH, cit, 114. orr.

¹¹²⁰ Ikuspegi honi buruz, besteak beste, DORN GARRIDO, 2011: 75-76; EVANS, 2009: 94; PASCUAL LAGUNAS, 2009: 69-70; PRIETO ALVAREZ, 2005: 157.

¹¹²¹ Gizakiaren manipulazio genetikoaren eragiten duten interbentzioek esaterako, interbentzioa jasan duten pertsonarekin batera, bere etorkizuneko senideen konposaketa genetikoaren aldaketa dakarte.

¹¹²² EDELMAN, 1997: 187; THOUVENIN, 2001: 118.

¹¹²³ JORION, op. cit, 231-233.

¹¹²⁴ DORN GARRIDO, 2011: 88-89. Autoreak, aurreikusi beharko liritekeen irizpideen proposamena egiten du (89-92. orr).

II.1.E. Giza duintasuna bermatzea Estatuaren jardutearen eta edozein erlazio sozialen ezinbesteko baldintza da

I.1.E.a. Estatuak partikularrekin eta partikularrek beren artean duten harremanen baldintzazko elementua da

Giza duintasuna ordena konstituzionalaren oinarri edo balio gorenetakoa kontsideratzen den aldetik, funtzio hirukoitza daukala esan daiteke¹¹²⁵:

- a) Ordena politikoaren eta botere publikoen jardueraren legitimazio funtzioa dauka. Beraz, giza duintasunak ordenamendu juridikoaren eta botere publikoen jardunaren gainean legitimotasun-kontrol bezala jarduten du.
- b) Sustapen funtzioa, ordenamendu juridikoaren artikulazioa eta botere publikoen jarduna giza duintasuna aintzat edukiz eta pertsonalitatearen garapen librerako baldintzak bermatuz egituratu behar baita.
- c) Funtzio hermeneutikoa, giza duintasunak ordenamendu juridikoan jasotako arau desberdinen gainean (eskubideak barne) interpretazio irizpide bezala jarduten baitu.

Hiru funtzio horien ondorioz, giza duintasunak Estatuaren funtzionamenduaren gainean duen efektua bikoitza da: norbanakoen duintasuna errespetatzea, baina baita babestea ere¹¹²⁶. Alde batetik, giza duintasunak Estatuaren funtzionamenduaren muga bezala jarduten du: botere publikoek giza duintasunaren aurka doazen neurriak hartzetik abstenitzeko betebeharra dute. Estatuak ezin ditu legeak aitortzen dizkion eskumenak baliatu pertsonak (norbanako edo kolektibo bateko kide bezala) dituen ezaugarri identitarioak oinarri hartuta arbitrarioki tratatzeko, beren giza duintasuna urratzen duen “lehen mailako diskriminazioa¹¹²⁷” dena. Bestetik, duintasunak Estatuaren jardutearen elementu gidatzaile bezala jardun behar du. Botere publikoak giza duintasunaren aurka doazen egoerei aurre egin eta saihesteko neurriak hartzera behartuta daude; besteak beste, botere publikoek norbanakoei beren existentzia materialerako funtsezkoak zaizkien gutxienerako baldintzak (prestazio izaerakoak) bermatu behar dizkie. Kontrako kasuan, norbanakoak bizitza duina izateko ezinbestekoak diren prestazio horiek botere publikoei eskatzeko eskubide publiko subjektiboa izan beharko luke¹¹²⁸.

¹¹²⁵ Funtzio horien identifikazioa: RUIZ-GIMÉNEZ CORTÉS, 1997:58-59; PASCUAL LAGUNAS, 2009: 22.

¹¹²⁶ Botere publikoen gainean giza duintasunak eragiten duen efektu bikoitz horri buruz, besteak beste: BENDA, 1999:JORION, op. cit, 201-209. orr; OEHLING DE LOS REYES, op. cit, 176. orr; SOLOZÁBAL ECHEVARRÍA, 1995: 2490-2491.

¹¹²⁷ TUGENDHAT, 1997: 358, in: JIMÉNEZ CAMPO, op. cit, 181. orr. Lehenago azaldu dena gogora ekarriz, giza duintasuna urratzen duen diskriminazio hori norbanakoaren identitate pertsonalean edo kolektibo baten partaide izanagatik egiten den alde aurretiko balorazio desberdintasunean du oinarri. Adibide bat jartzearen, Giza Genomari eta Giza Eskubideei buruzko Adierazpen Unibertsalean pertsonak beren ezaugarri genetikoetan oinarrituz diskriminatzeak beren duintasuna urratzen duela adierazten da (6. art.). Aldiz, berdintasun printzipioaren urrapena eragiten duen diskriminazioek pertsonen egoera konkretu edo portaera objektiboetan dute oinarri (egoera berdinean dauden pertsonak, desberdin tratatzea).

¹¹²⁸ Alemaniar Estatuan gutxienerako baldintza horiek bide judizialek eskatzea posiblea da (BENDA, 1996: 126) giza duintasuna oinarritzko eskubide gisa egituratzen baita. Espainiar Estatuan ordea, giza duintasuna

Hala ere, giza duintasuna ez da operagarritasuna ez da Estatuaren jarduera-esferara mugatzen; botere publikoei ez-ezik, giza duintasuna bermatzeak pertsona pribatu edo partikularren arteko harremanei ere eragiten die¹¹²⁹. Horren adibide dira, legedi penal, zibil edota lan arlokoan besteak beste, giza duintasunaren aurkakotzat jotzen diren egintzen aipamenak¹¹³⁰. Pertsona pribatuen arteko harremanetan bakarrik ez, giza duintasunak norbere autonomia pertsonalaren gainean ere mugak ezartzen ditu. Horren isla, norbere gorputzari kalteak eragiteko askatasunik eza (somasokismoa debekaturik dago) edota irabazi ekonomikoak lortzeko helburuz, norbere gorputza objektua bailitzan erabiltzea¹¹³¹.

II.1.E.b. Alemania, Espainia eta Frantziako ordenamendu juridikoek giza duintasunari eskaintzen dioten eraginkortasun juridikoa

Estatu bakoitzak giza duintasunari izaera eta babes mekanismo desberdinak aurreikusten dizkio. Horren ondorioz, Estatur-Estatu giza duintasunak eraginkortasun juridiko desberdinez gozatzen du. Laburki bada ere, hiru kasu desberdinen aipamena egiten da, zehazki, Alemania, Espainia eta Frantziarena.

Alemanian giza duintasuna Konstituzioaren benetako printzipio sortzailea¹¹³² da. Oinarrizko Legearen 1.1 artikuluan jaso, xedapen konstituzional aldaezina da, bai legegilearentzat, baina baita konstituziogilearentzat ere¹¹³³. Alemaniako AK-k, balio objektibo xedaezin¹¹³⁴ bezala kalifikatzearekin batera, oinarrizko eskubide subjektiboaren izaera aurreikusi dio¹¹³⁵ eta ondorioz, babes helegitearen objektu izan daiteke¹¹³⁶. Berme judizial horri esker, giza duintasuna gatazka judizial batzuen erabakien “*ratio decidendi*” izan da eta efektu praktikoak sorrarazi ditu¹¹³⁷.

balio konstituzionala besterik ez da, eta ez du berezko subjektibotasunik. Beraz, Espainiar Estatuan norbanakoaren existentziarako funtsezkoak diren gutxienezko prestaziorik jaso ezean, horiek botere publikoei eskatu ahal izateko beste bide batzuk jorratu behar dira. Tratu ez-duin horrek oinarrizko eskubiderik urratzen badu, bide judizialek jo daiteke prestazio horien asebetetzea eskatzeko.

¹¹²⁹ Ikus FERNÁNDEZ SEGADO, 1995: 103; JORION, op. cit, 209-215. orr.

¹¹³⁰ Kode Penaleko (10/1995 Lege Organikoa) 208. artikuluan, norbere duintasuna urratu dezaketen irainak zigortzen dira. Kode Zibilean (1889ko Errege Dekretua) oinordekotza erregimenean, oinorderik gabe uzteko kausa “ez-duinak” zerrendatzen dira (756. art.). Langileen Estatutuan (1/1995 Dekretu Legegilea), langileen duintasunaren errespetua eskubide laboralen artean zerrendatzen da (4.e) art.) eta enpresariak lan jarduera zuzendu eta kontrolatzeko duen ahalmenaren muga bezala jarduten du (18, 20 eta 39. art.).

¹¹³¹ Horri buruz, lehenago aipatu den “ipotxen jaurtiketa” kasu famatua kontsultatu: Conseil d’Etat, décision du 27 octobre 1995, “*Commune de Morzang sur Orge*” (kasuari buruz, ikusi FRYDMAN, 1995).

¹¹³² MARÍN CASTÁN, op. cit, 6; VON MÜNCH, 2009: 111.

¹¹³³ Oinarrizko Legearen 79.3. artikulua ikusi.

¹¹³⁴ BVerfGE 45, 187 (227).

¹¹³⁵ BVerfGE 93, 266 (293).

¹¹³⁶ BVerfGE 1, 332 (343).

¹¹³⁷ Zentzu horretan, Alemaniako AK-k 2006ko otsailaren 15ean emandako ebazpen ezaguna aipatu daiteke (BVerfG, I. BvR 375/05 vom, 15.2.2006), bertan AK-k Alemaniako Aire Segurtasunari buruzko Legearen 14.3 artikulua duintasunaren aurkakoa zela erabaki baitzuen. Artikulu horrek Alemaniako armadari bidaiari zibilak dituen hegazkin komertzialak lurrera botatzeko ahalmena ematen zien, hegazkin horiek bahitu eta jaurtigai bezala erabiltzeko asmoa zegoen kasuetan. Alemaniako AK-k artikulua hori bidaiari zibilen giza duintasunaren (1.1 art.) eta bizitza eskubidearen (2.2 art.) aurka zihoala ebatzi zuen. Alemanian giza

Espainiar ordenamendu juridikoan, giza duintasuna Konstituzioaren 10.1 artikuluan jaso eta ordena politikoaren eta bake sozialaren oinarri bezala definitzen da¹¹³⁸. Konstituzioaren I. Tituluan aurreikusi izanak irmotasun konstituzionala ematen badio ere, giza duintasunari ez zaio oinarritzko eskubidearen izaerarik aurreikusi. Ondorioz, Espainiako AK-k babes helegitearen objektu autonomoa ezin izan daitekeela adierazi du, modu partzialean baizik: ustez urratua izan den oinarritzko eskubidearen kasuan babes helegitea aurkeztean, giza duintasuna eskubide horren elementu interpretatzaile bezala alegatu daiteke¹¹³⁹. Alemaniako kasuan ez bezala, Espainiako AK-ren jurisprudentzian giza duintasunak ez du gatazka judizialen ebazpenean funtzio erabakigarriarik jokatzen, salbuespen bakan batzuetan izan ezik¹¹⁴⁰. Ondorio juridiko praktikoak sorrarazteko baino, giza duintasuna ebazpen judizialen argudio juridikoei pisu gehiago emateko elementu enfatiko eta erretoriko huts bezala erabili du AK-k¹¹⁴¹. Beste modu batera esanda, AK-k giza duintasuna “estilo klausula”¹¹⁴² bailitzan tratatu du: jurisprudentziaren bidez oinarritzko eskubide batzuk giza duintasunetik eratoritzen direla adierazten du, baina erlazio hori adierazteaz harago, giza duintasunak ez du gatazka horien ebazpenetan inolako garrantzirik jokatzen, ez du ondorio praktikorik sortzen.

Frantziar Estatuaren kasuan, giza duintasuna ez da bere Konstituzioan berariaz jasotzen. Hala ere, giza duintasunak garapen jurisprudentzial eta legegile¹¹⁴³ esanguratsua izan du eta “*principe constitutionnel de sauvegarde de la dignité de la personne humaine*”¹¹⁴⁴ bezala kalifikatua izan da. Espainian ez-bezala, Frantziako Kontseilu Konstituzionalaren jurisprudentzian giza duintasunak paper garrantzitsua jokatu du, bai eskubide pertsonal eta eskubide ekonomiko zein sozialen babesean¹¹⁴⁵. Hala ere, giza duintasuna Konstituzioan esanbidez jasota ez egoteak posizio ahul batean kokatzen du. Giza duintasunak ez du konstituzioan esanbidez jasotzeak eman diezaiokeen irmotasunaz gozatzen, eta kontsekuenteki, Kontseilu Konstituzionalak giza duintasunari buruz orain

duintasunak jokatzen duen paperari buruz, ikus, besteak beste, OEHLING DE LOS REYES, 2011; PEREIRA-MENAUT eta PEREIRA SÁEZ, 2014; VON MÜNCH, 2009.

¹¹³⁸ AKE 120/1990, 3.o.j.

¹¹³⁹ AKE 57/1994, 3.o.j.

¹¹⁴⁰ Giza duintasunak funtsezko garrantzia jokatu du pertsonen ondarearen gaineko erabateko enbargatzea debekatu eta duintasunez bizitzeko pertsona orori bermatu behar zaion minimum ekonomikoaren babesean (ikus AKEE 113/1989, 3.o.j; 16/1994, 4. o.j; 181/2000, 9. o.j.). Bestalde, AK-k giza duintasuna elementu interpretatzaile bezala erabili du atzerritarrak zein eskubide konstituzionalen titularrak diren edo ez zehazterako orduan (ikus AKE 236/2007).

¹¹⁴¹ JIMÉNEZ CAMPO, op. cit, 184. orr.

¹¹⁴² GUTIÉRREZ GUTIÉRREZ, 2012: 98; PEDRO SERNA, 1999: 147.

¹¹⁴³ Beste askoren artean, alor penalean (norbere gorputzaren aurkako lesioen debekua), arlo zibilean (Kode Zibilarren II. Tituluak “*du respect de l'être humain*” du izena) eta bioetikarekin lotura duten lege desberdinetan.

¹¹⁴⁴ Kontseilu Konstituzionalak 1994ko uztailaren 24an hartutako erabakian (*Décision n° 94-343/344 DC du 27 juillet 1994*).

¹¹⁴⁵ Ipotxen jaurtiketari buruzko ebazpen ezagunean (Conseil d'Etat, décision du 27 octobre 1995, “*Commune de Morzang sur Orge*”), giza duintasuna ordena publikoaren parte dela eta bere titularraren baimena izanik ere, guztiz xedaezina dela adierazi zen (ikus FRYDMAN, 1995). Maizterraren kalerapen kasu batzuetan indar poliziala erabiltzea giza duintasunaren eta ordena publikoaren aurkako izan daiteke (horri buruz, ikus BIOY, 2010; LE GARS, 2011) eta espetxe-erregimenean ostera, giza duintasunak ordena publikoaren muga bezala funtzionatzen du (MOLINER-DUBOST, 2008).

arte eman duen interpretazio jurisprudenzial bermatzailea aldatzeko eta giza duintasunaren aurka doazen interpretazioak egiteko gaitasuna dauka¹¹⁴⁶.

II.2. Giza eskubideen teoria eta ezaugarri orokorrak

II.2.A. Eskubideen adiera desberdinak, iusnaturalismoaren eta iuspositibismoaren ikuspegitik aztertuta

Eskubideak, botere menderatzailearen aurrean perspektiba indibidual batetik botere horri mugak jarri eta askatasun esfera batzuk onartzeko helburuz aldarrikatutako formula filosofiko-juridikoak dira¹¹⁴⁷. Beren bilakaera historikoan zehar, eskubideak iusnaturalismoaren eta iuspositibismoaren korrante juridiko anitzetatik arrazoituak izan dira. Iusnaturalismoaren doktrina tradizionalari jarraiki, eskubideek zuzenbide naturalean aurkitzen dute beren oinarria, gizakia “natura egoeran” (*estado de naturaleza*) bizi zeneko garaian. Alde horretatik, gizaki orok gizaki izate hutsagatik askatasun berberak eta aldaezinak ditu, Estatuaren eta zuzenbide positiboaren sorrera baino lehenagokoak direnak, eta beraz, edozein sistema positiboren gainetik kokatzen diren balio moral unibertsalak direnak¹¹⁴⁸. Gizartean bizitzearen ondorioz, norbanakoen eskubideen egikaritzak beste pertsonen eskubideen egikaritzari eragin diezaiokeenez, norbanakoen artean akordio soziala¹¹⁴⁹ lortzea beharrezkoa zen: gehiengoaren borondatearen alde, norbanako bakoitzak bere askatasunaren zati bati uko egin eta horrela Estatu Naturaletik Estatu Zibilera igarotzea.

Iuspositibismo tradizionalak, alabaina, zuzenbide naturalaren postulatu horiek ukatu egiten ditu. Gizakien eskubideak ezin dira egoera naturalean berez existitzen diren eskubide absolutu bezala ulertu; horren ordez, eskubideak gizakiak sortutako ordenamendu juridikoan idatziz jasotzen direnaren arabera ulertu behar dira¹¹⁵⁰. Estatu da eskubideak positibizatu, edukiz hornitu eta beren babeserako berme juridikoak aurreikusten dituen eta alde horretatik, eskubideak ezin dira Estatuaren antolakuntzarik eta zuzenbide positiborik gabe ulertu.

Historia garaikidean onartutako eskubideen lehenengo adierazpenak ezaugarri iusnaturalistak zituzten adierazpen liberalak izan ziren, XVII. mendearen amaierako

¹¹⁴⁶ Hausnarketa horri buruz ikus: JORION, op. cit, 208; OEHLING DE LOS REYES, 2011: 176.

¹¹⁴⁷ BASTIDA et al, 2004: 13.

¹¹⁴⁸ Korrante iusnaturalistaren teoriak gogorren kritikatu dituzten autore anitzen artean, Norberto Bobbio aipatu daiteke. Bere esanetan ez da inolako moral absoluturik existitzen eta kontsekuenteki eskubideak ez dira absolutuak, historiko-erlatiboak baizik (BOBBIO, 1991:57). Giza eskubideak, funtsean, historian zehar gradualki eta kontsentsuaren bidez sortzen joan dira. Beren jatorrian eskubide unibertsal gisa jaiok izan baziren ere, beren egikaritzaren osorako zuzenbideak positibatzea ezinbestekoa dute (BOBBIO, 1991: 68).

¹¹⁴⁹ Akordio sozialaren hastapen teorikoak Thomas Hobbesenak izan ziren (*Leviatan*, 1651), hamarkada batzuk beranduago John Lockek garatu zuena (*Dos ensayos sobre el gobierno civil*, 1690).

¹¹⁵⁰ Iuspositibismo tradizionalaren autore garrantzitsu batzuk: Hans Kelsen eta piramide normatiboa, Hart eta lehen mailako zein bigarren mailako arauen sistema, eta Norberto Bobbio eta eskubideen oinarri historiko zein kontsentsu bidezkoa.

Inglaterrako *Bill of Rights* (1689), Estatu Batuetako *Virginia Declaration of Rights* (1776) edo Frantziar Iraultza Burgesen ostean onartutako *Déclaration des droits de l'homme et du citoyen* (1789) Adierazpenen artikulua irakurtzetik ondorioztatzen den bezala. Frantziako adierazpenaren hitzaurrean gizonaren eskubideak “natural, besterendu ezin eta sakratu” bezala deskribatzen dira. Adierazpenaren 4. artikulua araberan, egoera naturaletik gizarte zibilera pasatzean, norbanakoen eskubide naturalek gehiengoaren borondatearen alde jasan behar dituzten mugapenak lege bidez besterik ezin daitezke aurreikusi¹¹⁵¹. Aztarna iusnaturalista horiekin batera, aitzitik, Frantziar Eskubideen Adierazpenak iuspositibismoak defendatzen duen planteamendu normatiborik ere egiten du, bere 16. Artikuluan zehazki: “eskubideen bermeak eta botereen banaketa finkatu gabe dituen gizarteak, ez du Konstituziorik¹¹⁵²”.

Eskubideen lehenengo adierazpen liberal horietatik hasi eta gaur egun arte Europako tradizio juridiko desberdinek eskubideen teorizazioaren harira planteamendu desberdinak egin dituzte. Alemaniako Zuzenbide Publikoko Eskolak, XIX. mendearen erdialdetik aurrera, “eskubide publiko subjektiboak” teoria garatu zuen, Georg Jellinek jurista alemana erreferente nagusia izan zuena. Eskubide publiko subjektiboak Estatuaren eta norbanakoaren elkarrekotasun harremanaren testuinguruan soilik ulertzen dira; kontsekuenteki, eskubide horiek ez dute eraginkortasunik partikularren arteko harremanetan¹¹⁵³. Eskubideen existentziaren oinarria Estatu bera da, gizakiei pertsonalitate juridikoa eta eskubideen titularra den subjektuaren izaera onartzen baitie¹¹⁵⁴. Estatu-norbanako harreman bertikal horretan, eskubideak Estatuaren boterea mugatzen duten eta botere publikoen aurrean erreklamatu daitezkeen ahalmenak dira.

Norbanakoek Estatuarekin zuten posizioaren arabera, Jellinekek lau estatus subjektibo desberdin identifikatu zituen¹¹⁵⁵. Estatuak duen *imperium* boterea dela eta, bere arauak jaso eta bete behar dituen subjektu pasiboa (*status subjectionis*); norbanakoen borondatearen autonomia eremua, Estatuak oztopatu ezin zezakeena (*status libertatis*); norbanakoek Estatuari prestazio zehatz batzuk eskatzeko boterea ematen ziena (*status civitatis*) eta azkenik, norbanakoek Estatuaren egiturapenean aktiboki parte hartzeko zuten gaitasuna (*status activae civitatis*). Gaur egun oinarrizko eskubideen sistemek dituzten ezaugarriekin erkatuta, doktrinak Jellinekek proposatutako lau estatus horiek murrizak

¹¹⁵¹ 4. art: “La libertad consiste en poder hacer todo lo que no perjudique a los demás. Por ello, el ejercicio de los derechos naturales de cada hombre tan sólo tiene como límites los que garantizan a los demás Miembros de la Sociedad el goce de estos mismos derechos. Tales límites tan sólo pueden ser determinados por la Ley”. Adierazpena interneten itzulita dago, honako web orrialdean: [2015-07-07].
http://www.conseil-constitutionnel.fr/conseil-constitutionnel/root/bank_mm/espagnol/es_ddhc.pdf

¹¹⁵² 16. art: “Toda sociedad en la cual la garantía de los derechos no está asegurada ni la separación de poderes establecida, no tiene Constitución”. Ikus JIMÉNEZ CANO, 2004: 34.

¹¹⁵³ Zuzenbide naturalaren arabera gizaki orok gizaki izate hutsetik askatasun berberak ditu eta beraz, eskubide naturalak gizaki berdinen arteko harremanean dute oinarria, eskubide publiko subjektiboek ez bezala.

¹¹⁵⁴ ANSUATEGUI ROIG, 1991: 28.

¹¹⁵⁵ Jellineken “*Sistema de los derechos públicos subjetivos*” (1892) lanean garatuak. Estatus desberdin horiei buruz, besteak beste, ALEXY, 1993: 247-260; ANSUATEGUI ROIG, op. cit, 28-31. orr; BASTIDA et al, op. cit, 20. orr.

direla argudiatu du eta horiek osatzeko, beste estatus gehigarri batzuk proposatu ditu¹¹⁵⁶: eskubide sozialak barne hartzen dituen *status positivus socialis*, eskubideek egun dituzten berme sistema subjektiboei erreferentzia egiten dien *status activus processalis* eta askatasun informatikoa eta norbanakoen autodeterminazio informatiboa uztartzen dituen *status de habeas data*.

Eskubide publiko subjektiboen doktrina alemanaren modu paraleloan, XIX. mendearen erdialdetik aurrera baita ere, doktrina frantsesak Zuzenbidezko Estatu Liberalaren ideiarekin lotuta “askatasun publikoen” adiera erabili zuen. Eskubide publiko subjektiboek bezala, askatasun publikoek Estatu-norbanako elkarrekikotasun harremanean aurkitzen zuten beren oinarria. Alde horretatik, iusnaturalismotik baino iuspositivismoaren planteamenduetatik hurbilago dagoen teoria da¹¹⁵⁷. Askatasun publikoek, Estatuaren jardueraren muga gisa norbanakoei autonomia indibidualaren esfera bat onartzen zieten, botere publikoek oztopatu ezin zezaketena. Eskubide publiko subjektiboen antzera, askatasun publikoen teoriak eskubideen adiera mugatua erakusten du, norbanakoei askatasun baliotik eratortzen diren eskubideak soilik onartzen baitzitzaizkien¹¹⁵⁸ (eskubide sozialei ez zitzaaien eskubideen izaera onartzen). Espainiako Konstituzioaren I. Tituluko II. Kapituluaren I. atala “*Derechos fundamentales y libertades públicas*” izenburupean onartu bazen ere, askatasun publikoaren adierak ez du inolako substantibitatearik. Beraz, kontzeptu hori EKn literalki jaso izana termino linguistiko soil bezala kalifika daiteke, norbanakoei askatasun edo autonomia esfera bat erreserbatzen dieten oinarrizko eskubideei erreferentzia egiten diena¹¹⁵⁹.

Eskubideen beste teoria esanguratsuetako bat pentsamendu anglosaxoietatik XX. mendearen erdialdetik aurrera defendatu den “eskubide moralen” adiera da (ingelesez *moral rights*), bere sustatzaile nagusia Ronald Dworkin filosofo Estatu Batuarra duena¹¹⁶⁰. Eskubide moralek “oinarrizko moralean” dute beren sustraia, zuzenbide positiboaren aurretiazkoa dena eta horren gainetik dagoena. Eskubide moralak Estatuaren aurrean lortutako “lorpenak” bailiran ulertzen dira; kutxu iusnaturalista duen adiera da beraz. Eskubide moralak eskubide legalekin batera existitzen dira eta bi eskubide mota horien artean talka gertatuz gero, lehenengoak bigarrenei gailentzen zaizkie. Dworkinen aburuz, zuzenbidea ez da legeez eta aurrekari judizialez osatutako sistema normatibo soil bezala ulertu behar, autoreak politika eta morala ere zuzenbidearen osaketaren oinarrizko elementu gisa ulertzen baititu. Alde horretatik, epaileek gatazka judizial konkretu bakoitzean zuzenbidea aplikatzean, eskubide eta balio moralek (egiturapen normatibo printzipialista dutenak) epaileen erabaki-hartzeen elementu gidatzaile bezala jardun behar dute¹¹⁶¹.

¹¹⁵⁶ Doktrinak identifikatutako estatus gehigarri horiei buruz, ALEXU, op. cit, 248; PÉREZ LUÑO, 1987: 59.

¹¹⁵⁷ ANSUATEGUI ROIG, op. cit, 51-52. orr.

¹¹⁵⁸ CRUZ REYES, 2010: 68.

¹¹⁵⁹ DÍEZ PICAZO, op. cit, 40-41. orr.

¹¹⁶⁰ Bere lanen artean, *Taking Rights Seriously* (1977).

¹¹⁶¹ PECES-BARBA, 1995: 34-35

Gaur egun erabiltzen diren beste adiera garrantzitsuetako batzuk, giza eskubide eta oinarrizko eskubideenak dira. Funtsean, bi adiera horien artean dagoen desberdintasuna, horietako bakoitza aurreikusi eta babesten den ordenamendu juridikoaren aplikazio eremua da: giza eskubideak nazioarte mailan dira operagarriak eta oinarrizko eskubideak, aldiz, barne ordenamendu juridikoetan. Giza eta oinarrizko eskubideak instantzia juridiko desberdinetan jasota egon izanak, ordea, ez du zertan eskubide desberdinez mintzo garenik esan nahi, beraien elementuen artean komunikazioa ematen baita¹¹⁶². Alde batetik, giza eta oinarrizko eskubideek oinarri hartzen dituzten balioak berberak edo oso antzekoak dira, eta bestetik, eskubideen babes nazioartera hedatzearen joera gero eta esanguratsuagoa da. Giza eta oinarrizko eskubideen komunikazioaren adibiderik esanguratsuenetakoa Europak eskubideen babesari eskaintako instantzia juridiko desberdinen sistema da, barne ordenamendu juridikoetan aurreikusitako eskubideak nazioarteko giza eskubideen tratatuen, EGEHren eta EBOEGren eskubideen arabera interpretatzen baitira (Espainian EKren 10.2 artikularen aginduz). Europan behinik behin, giza eskubide edo oinarrizko eskubideez hitz egitean ordenamendu juridiko desberdinek (nazioarte mailan, erregio mailan edo barne ordenamenduan) babestutako eskubide berberen aurrean gaudela ondorioztatu daiteke hortaz¹¹⁶³.

Perez Luño eta Eusebio Fernandezek alde batetik (“iusnaturalismo deontologiko”¹¹⁶⁴, bezala definitzen den korrante doktrinaletik), eta Peces-Barba egileak bestetik (“iuspositivismo zuzenduaren” prismatik), giza eskubideen oinarrizko dimentsioei buruz egindako hausnarketa teoriko-juridikoek, nahiz eta korrante juridiko desberdinetatik defendatutako planteamenduak izan, antzekotasun garrantzitsuak erakusten dituzte¹¹⁶⁵: giza eskubideek oinarri morala dute eta beren babeserako positibatuak izatea ezinbestekoa dute. Autore horietako bakoitzak zentzu horretan egin dituen ekarpenak laburki azter ditzagun.

Historikoki giza eskubideen eta eskubide naturalen terminoek elementu garrantzitsuak izan dituzte komunean; biek hala biek gizaki izate hutsagatik unibertsalak diren eskubideei egiten diete erreferentzia. Perez Luñok giza eskubideen eta eskubide naturalen arteko elkarrekikotasun harreman hori nabarmentzen du. Bere esanetan, giza eskubideak giza duintasun, askatasun eta berdintasun balioen arabera, momentu historiko bakoitzean osatzen doazen gaitasunen multzoa dira, babestuak izateko nazioarte eta barne ordenamendu juridikoetan positibatzea beharrezkoa dutenak¹¹⁶⁶. Autoreak proposatutako definizio horrek giza eskubideen izaeraren bi dimentsio nagusiak bateratzen ditu, alegia, giza eskubideen sustrai etikoak beren bokazio juridikoarekin, edo bestela esanda, giza

¹¹⁶² DÍEZ PICAZO, op.cit, 40. orr.

¹¹⁶³ Ibid.

¹¹⁶⁴ Iusnaturalismo deontologikoaren arabera zuzenbide naturala zuzenbide positiboaren “izan beharra” da, ordenamendu juridikoak oinarri hartu behar duen moralitatea. Zuzenbide positiboak beraz bere osaketan zuzenbide naturalaren postuluak beregain hartuz jardun behar dutela defenditzen du iusnaturalismo deontologikoak. Hori egin ezean aitzitik, doktrina honek ez dio zuzenbide positiboari bere eraginkortasun juridikoa ukatzen. Iusnaturalismo ontologikoa (iusnaturalismoaren doktrina tradizionala) ordea jarrera esentzialistagoa defendatzen du: zuzenbide naturala zuzenbidearen “izatea” da; zuzenbide positiboak zuzenbide naturalen postuluarekin bat etorri ezean, ezin da zuzenbidea kontsideratu.

¹¹⁶⁵ JIMÉNEZ CAMPO, 2004: 44-45.

¹¹⁶⁶ PEREZ LUÑO, 1995a: 48 eta 1995b: 46.

eskubideen oinarriak eskatzen duen exijentzia iusnaturalista eta beren egikaritzarako beharrezkoa duten positibazio eta babeserako teknikak¹¹⁶⁷. Antzeko ikuspegi batetik, Eusebio Fernandez autoreak giza eskubideak funtsean eskubide moralak direla defendatzen du¹¹⁶⁸. Alde batetik, giza eskubideei “moralaren” kalifikatzailea, beren oinarri etikotik eta giza duintasunetik eratorritako exijentzia historikotik datorkie. Bestetik, “eskubide” adierak, giza eskubideek beren babeserako ordenamendu juridikoetan barnertzeko duten premia adierazten du.

Giza eskubideen adiera erabili beharrean, Gregorio Peces-Barba egileak “oinarrizko eskubideak” terminoa erabiltzea nahiago du. Egile honen “teoria trialista” izenekoaren arabera eskubideek dimentsio etiko, juridiko-positibo eta soziala dute¹¹⁶⁹. Dimentsio etikoaren arabera, oinarritzko eskubideak “pretentsio moral justifikatuak” dira, bizitza duin batez hitz-egin ahal izateko funtsezkoak diren balioetatik eratortzen direnak. Ondorioz, gizaki orori gizaki izate hutsagatik oinarritzko eskubideak berezkoak zaizkigu eta izaera unibertsala, zatiezina, besterendu ezina eta preskriba ezina dute (justifikazio moralik gabe, ez dago oinarritzko eskubiderik). Oinarritzko eskubideak eraginkortasunez babestu ahal izateko, aitzitik, dimentsio juridiko-positiboaren beharra dute: ordenamendu juridikoan aurreikusi ezean, ezin daiteke oinarritzko eskubideez hitz egin. Dimentsio etiko eta juridiko horiekin batera, oinarritzko eskubideen kontzepzio integral batek beste hirugarren dimentsio bat kontuan hartzea eskatzen du, dimentsio soziala hain zuzen ere: eskubideen egikaritzan garaian garai existitzen diren faktore sozial, ekonomiko eta kulturalak kontuan hartu behar dira. Planteamendu trialista horri jarraiki, oinarritzko eskubideak errealitate sozial bezala ulertu behar dira, testuinguru historiko bakoitzeko faktore sozial, ekonomiko eta kulturek oinarritzko eskubideen eraginkortasunean lagundu edo oztopatu baitezakete.

Giza edo oinarritzko eskubideen definizio horien aurrean, konstituzionalismo “zurruna” edo “bermatzailea”¹¹⁷⁰ defendatzen duen Luigi Ferrajoli iuspositibista italiarrak oinarritzko eskubideei buruz egindako definizio formala aipatu behar da¹¹⁷¹. Autore horren esanetan, oinarritzko eskubideak gizakiek dituzten estatus desberdinen arabera unibertsalki dagozkien eskubide subjektiboak dira; hots, pertsona, hiritar edota jarduteko gaitasuna duten pertsona bezala, arau juridiko positiboek aitortzen dizkieten itxaropen positiboak (prestazionalak) edo negatiboak (lesiorik ez sufritzeko). Oinarritzko eskubideen inguruan Luigi Ferrajolik egiten dituen planteamendu desberdinak II.2.D azpi-atalean azaltzen dira.

¹¹⁶⁷ PÉREZ LUÑO, 1995a: 51.

¹¹⁶⁸ Eusebio Fernández, in: JIMÉNEZ CANO, 2004: 35.

¹¹⁶⁹ Teoria trialista horri buruz, PECES-BARBA, 1995: 109-112.

¹¹⁷⁰ Ferrajolik defendatzen duen konstituzionalismo bermatzaileak autore honen aburuz gaur egungo konstituzionalismoan gailentzen den eredu printzipialistaren uestezko gabeziak gaintzea du xede. Ferrajolik proposatutako eredu konstituzionalaren ezaugarri nagusietako batzuk honakoak dira (ikus FERRAJOLI, 2011). Alde batetik, moralak eta zuzenbidearen arteko bereizketa zurruna defendatu eta beraz objetibismo moralak kritikatu du. Bestetik, operatzaile juridikoek (epaileak barne) zuzenbidea aplikatzean duten diskrezionaltasun marjinararen erabateko murrizketaren aldekoa da. Horretarako, printzipioetan baino erregelaren forma hartzen duten arauen egiturapenaren aldeko hautua egiten du, Konstituziotik eta bertan jasotako oinarritzko eskubideetatik hasita ordenamendu juridiko osora hedatu behar dena. Planteamendu horren bidez, erregelak elkarren arteko subsuntzioa errazten dute, operatzaile juridikoen partetik erabaki diskrezionaltasuna dakarren ponderazio jardueraren aurrean.

¹¹⁷¹ FERRAJOLI, 2010: 37.

II.2.B. Giza eskubideen garapen normatibo-historikoaren ezaugarriak

Azpi-atal honetan barrena giza eskubideek historia garaikidean zehar izan duten garapen historikoaren ezaugarriak laburki aztertzen dira. Peces-Barbaren dimentsio hirukoitzaren teoriarekin bat eginez, giza eskubideak testuinguru historiko bakoitzean existitzen diren faktore sozial, ekonomiko eta kulturalen arabera ulertu behar dira. Baldintza historikoak aldatuz joan ahala, ordenamendu juridikoetan aurreikusitako oinarritzko balioak berrinterpretatu egiten dira garai historiko bakoitzeko inguruabar berrietara egokitzeko. Faktore sozial, ekonomiko edo kulturalen aldaketek momentu jakin baterarte estaldura juridikorik behar ez zuten ondasunak juridikoki babesteko premia sortu dezakete. Bestalde, estaldura juridikoa duten ondasunak izanik ere, inguruabar berriek beren babes eraginkorrerako mekanismo juridikoak birplanteatzea eragin dezakete. Alde horretatik, baldintza historikoak aldatuz joan ahala garai historiko desberdinetan oinarritzkotzat jo diren balio juridikoak areagotuz joan dira eta beren berrinterpretatzeak, halaber, printzipio eta giza eskubide berrien sorrera eragin du. Giza eskubideak “ernaldu” ziren momentu historikoaren arabera, belaunaldietan sailkatzen dira.

Giza eskubideak historia garaikidearekin batera ernaldu ziren, iraultza burgesak inspiratu zituen pentsamendu arrazionalistaren fruitu bezala. Lehenengo belaunaldiko giza eskubideak, dagoeneko aipatu den bezala, erregimen absolutisten aurka altxatu ziren aldarrikapen liberaletan dute jatorria, Ingalaterran hasi (*Bill of Rights*, 1689) eta mende bat beranduago Amerika eta Frantziako iraultzen ondorioz onartu ziren eskubideen adierazpenetan islatuak, hurrenez hurren *Virginia Declaration of Rights* (1776) eta *Déclaration des droits de l'homme et du citoyen* (1789). Pentsamendu liberal indibidualistaren zentzuari jarraiki, eskubideen adierazpen horietan askatasunaren oinarritzko baliotik eratorritako eskubideak onartu zitzaizkien norbanakoari: Estatuaren jardueraren aurrean norbanakoari autonomia esfera bat bermatzea helburu zuten eskubide zibilak, baita Estatuaren boterea mugatu eta bere antolakuntza politikoan parte hartzeko eskubide politikoak ere.

Estatu Liberalen demokratizazio gradualaren eta XIX. mendeko iraultza industrial eta gizarte borrokaren ondorioz piztutako pentsamendu humanista eta sozialista bezalako faktoreek, zuzenbidezko Estatu liberalak Estatu sozialak bilakatu zireneko prozesuari hasiera eman zieten¹¹⁷². Askatasunaren balioan funtsa zuten eskubide zibil eta politikoei, berdintasunaren baliotik eratortzen diren eskubide sozial, ekonomiko eta kulturalen katalogoa erantsi zitzaien, bigarren belaunaldiko eskubide gisa ezagutzen direnak. Bilakaera horri hasiera Mexikoko (1917) eta Weimarreko (1919) Konstituzioek eman bazioten ere, bigarren belaunaldiko eskubide horiek mendebaldeko Estatuetakoa Konstituzioetan gradualki barneratuak izan zitezten II. Mundu Gerraren osteko garairarte itxaron behar izan zen.

¹¹⁷² Besteak beste, ikus DÍEZ PICAZO, op. cit, 35. orr; MURILLO DE LA CUEVA, 2004: 78-79; PÉREZ LUÑO, 1987: 56; 2012: 1010.

Gero eta mundu globalizatuago batean, 70. eta 80. hamarkadatik aurrera gizateriari eragiten dioten erronka eta premia desberdinen kontzientziazioaren gorakadaren ondorioz, solidariotasunaren¹¹⁷³ balioan funtsa duten hirugarren belaunaldiko giza eskubideen onarpen progresiboa eman zen. Eskubide horiek, faktore sozioekonomiko eta kultural aldakorren erronka berrien aurrean (garapen teknologiko azkarra barne) aurreko bi belaunaldietako eskubideak osatzen dituzte. Norbanakoek indibiduo gisa dituzten eskubide batzuen birplanteamendua¹¹⁷⁴ eragitearekin batera, hirugarren belaunaldiko eskubide gehienek interes kolektibo eta difuso¹¹⁷⁵ desberdinak artikulatzeko mekanismo bezala jarduten dute, norbanakoek kolektibo bateko kide bezala dituen interes supraindividualak babesteko. Batzuk aipatzearen: herrien autodeterminazio librerako eskubidea, ingurugiro osasuntsurako eskubidea, gutxiengo taldeak babesteko eskubideak, kontsumitzaile eta erabiltzaileen eskubideak, bakerako eskubidea¹¹⁷⁶ eta memoria historikorako eskubidea¹¹⁷⁷.

¹¹⁷³ De Lucas autoreak solidaritatearen balioa gizateriak dituen premia komunen existentziaren ondorioz sortutako eskubide eta betebeharren kontzientzia bateratu bezala definitzen du (DE LUCAS, 1993: 29).

¹¹⁷⁴ Autodeterminazio informatiborako eskubidea esate baterako, informatikak ahalbidetu duen datu pertsonalen tratamendu automatizatuaren aurrean norbanakoari bere datu pertsonalekiko autodeterminazio edo autonomia gaitasun bat erreserbatzeko helburuz aurrekusi den eskubidea da, egitate horren aurrean intimitate eskubide klasikoaren egikaritzak ez baitzion norbanakoaren pribatutasunari behar adinako babesa eskaintzen.

¹¹⁷⁵ Interes difusoak kolektibitate baten inguruan bateratzen diren subjektuen pluraltasun determinatu edo determinagarri bati maila berebean dagozkien interes edo egoera juridikoak dira (interes plurisubjektiboak ere deituak), jabetzan hartzea edo eskusiboki erabiltzea posible ez den ondasun juridikoen gainekoa (GARCÍA HERRERA, 1991: 21).

¹¹⁷⁶ 2012. urtean NBERen erakundearen baitan lan-talde bat osatu zen bakerako eskubidea onartzen duen nazioarteko adierazpen proiektu baten lanketa aurrera eramateko eginkizuna duena. Bakerako eskubideari buruz idatzi duten egile desberdinen artean Carlos Villán Durán nabarmendu daiteke, eskubide horren analisiari ikerketa anitz eskaini baitzizkio. Argitaratutako publikazioen artean, besteak beste, ikus VILLÁN DURÁN, 2013; 2014.

¹¹⁷⁷ Memoria historikorako eskubidea titulartasun indibidual eta kolektiboa duen hirugarren belaunaldiko eskubide kulturala da (CABEZAS DEL FIERRO, et al, 2013: 160). Katastrofe historiko handien ondorioz gertatutako giza eskubideen bortxaketa masiboen ondoren, iraganari buruzko ezagutzaren beharra areagotu egiten da etorkizunaren eraikipenean (ikus RICOEUR, 2006). Izan ere, memoriak identitatearen eraikipena dakar, eta alderantziz, memoriarik gabe identitatearen galeraren aurrean gaude (CABRERA SUAREZ eta LIZANDRO ALFONSO, 2013: 176). Iragana aldatu ezin bada ere, iraganean gertatutako sarraskien gaineko egia, justizia eta konponketarik ezean, iraganak bukatugabea, injustua eta mingarria izaten jarraituko du (MANJÓN-CABEZA OLMEDA, 2012: 2). Memoria historikorako eskubidea beraz, elkarrekiko menpekoak edo osagarriak diren hiru eskubidez osaturik dago: egiarako eskubidea, justiziarako eskubidea eta konponketarako eskubidea. Biktimek familiek egitateak eta horien egileak ezagutzeko duten eskubidearen dimentsio indibidualarekin batera, egiarako eskubideak gizartea titularra duen dimentsio kolektiboa ere badu. Estatuak gizarteari gertatutako sarraskiei buruzko egia ezagutarazteko betebeharra du, iragana gogora ekarriz ahaztua ez izan eta etorkizunean berriro errepika ez dadin. Nazioarteko zuzenbide humanitarioaren eremuan, gerrako espetxeetan hildako pertsonen buruzko eskubideak aintzatesten dituen Ginebrako hirugarren Konbentzioari (1949) hamarkada batzuk beranduago protokolo gehigarri bat erantsi zitzaion (1977), familiei beren senitartekoen egonlekua ezagutzeko eskubidea aintzatesten ziena. NBEk 2006an indarrez desagerrarazitako pertsonen babesari buruzko Konbentzioa onartu zuen (gaztelaniaz, *Convención internacional para la protección de todas las personas contra las desapariciones forzadas*), biktimek duten egiarako, justiziarako eta konponketarako eskubideak esanbidez jasotzen dituen. Espainiar Estatuak aipatutako Konbentzioa berretsi eta memoria historikorako 52/2007 Legea onartu badu ere, testu normatibo hori oso kritikatu izan da (beste askoren artean, FARPÓN, 2010; NOGUERA FERNÁNDEZ, 2013; RODRÍGUEZ ARIAS, 2008), jasotzen dituen neurrien artean ez baitira biktimek duten egiarako eta justiziarako eskubideak aintzatesten: ez du egiarako Komisionari sortzen eta 46/1977 Amnistia Legearen atzeraeraginkortasunaren ondorioz ez du sarraski horien egileak judizialki jazartzeko neurriarik arautzen.

XX. mendearen amaieran eta XXI. mendearen hasiera honetan teknologia berrien eta norbanakoen arteko harremanak gero eta garrantzitsuagoak bihurtzen ari da. Teknologia berrien garapena etengabea izaten ari den testuinguru honetan, doktrinaren zati batek giza eskubideen laugarren belaunaldi baten sorrera gertatzen ari dela argudiatzen du. Alde batetik, IKTen hazkuntzaren ondorioz norbanakoek eskubide “tradizionalak” (informazio eskubidea, adierazpen askatasuna edo pribatutasuna babesten duten eskubideak) mundu fisikoaz harago doan mundu birtualean ere egikaritzen dituzte. Zentzu horretan, ziberespazioak norbanakoen arteko interrelazio formatu berriak eraiki ditu; autore batzuen ustez inguruabar horrek balio, printzipio eta giza eskubide berrien sorrera dakar¹¹⁷⁸. Bestetik, biomedikuntzaren aurrerapenak norbere identitate genetikoak ezagutu eta gizakion berezko natura manipulatzeko gaitasun teknikoak ahalbidetu dute. Doktrinaren zati batek identitate genetikoarekin lotura duten eskubide espezifikoek sorrera defendatzen du¹¹⁷⁹. Doktrinaren baitan, ordea, giza eskubideen laugarren belaunaldiaren sorrerari buruz ez dago kontsentsurik. Autore batzuek belaunaldi berri eskubiderik sortzen ez dela defendatzen dute, aurreko hiru belaunaldietako eskubideen adierazpen berrien aurrean baizik¹¹⁸⁰. Eskubide berrien, edota aitzitik, eskubide “zaharren” adierazpen berrien aurrean ote gauden, kapitulu honen III.2 atalean sakontasun gehiagoz aztertzen da.

II.2.C. Giza eskubideen positibazio, orokortze, nazioartera hedatze eta espezifikazio prozesuak

Giza eskubideek izan duten bilakaera historikoan zehar, lau prozesu nagusi nabarmendu daitezke: giza eskubideen positibazioa, orokortzea, nazioartera hedatzea eta espezifikazioa.

Positibazio prozesua historian zehar aldarrikapen edota balio moral bezala ulertzen ziren giza eskubideak idatzizko testu normatiboetan jasotzean datza; bestela esanda, giza eskubideak zuzenbidearen mundura barneratzea¹¹⁸¹. Positibazioa historian zehar gauzatzen doan prozesu dinamiko gisa ulertu behar da: garaian garai positibizatzen joan diren giza eskubideen belaunaldiak momentu historiko bakoitzean egindako hausnarketa prozesuen eta aldarrikapenen emaitza izan eta izaten ari dira¹¹⁸².

Testu normatibo batean idatziz jaso eta komunitate bateko indibiduo guztiei beroien titulartasuna aitortzeak (berdintasun formalak) ez du eskubide horren egikaritza

Bestalde, konponketarako eskubidea (neurri ekonomiko eta sinbolikoez osatua) modu partzialean onartzen da eta biktimek eskatu ezean ez da ofizioz aktibatzen.

¹¹⁷⁸ Beste batzuen artean, ACATA ÁGUILA, 2011; BERNARDÍ GIL; 2005; BUSTAMANDE DONÁS, 2010; DEL RÍO SÁNCHEZ, 2009; ORTEGA MARTÍNEZ, 2004; VICENTE DOMINGO, 2009. Zentzu honetan, Robert Gelmanek 1997an *The Declaration of Human Rights in Cyberspace* izenekoa argitaratu zuen. Bertan, ziberespazioarekin zerikusia duten eskubideak zerrendatzen dira.

¹¹⁷⁹ Beste batzuen artean, ROMEO CASABONA, 2002a; VALDEZ, 2013.

¹¹⁸⁰ Iritzi horren alde, besteak beste, ÁLVAREZ GONZÁLEZ, 2011; MORENTE PARRA, 2011; PÉREZ LUÑO, 2014; REBOLLO DELGADO, 2000; RODOTA, 2010.

¹¹⁸¹ DE ASÍS ROIG, 2011: 20.

¹¹⁸² IGLESIAS GARZÓN, 2011: 5

unibertsalik bermatzen. Orokortze prozesua, beraz, giza eskubideen errealizazio juridiko abstraktutik konkretura pasatzean datza¹¹⁸³: ikuspegi formaletik pertsona guztiei aitortutako giza eskubideen baina momentu jakin bat arte beraiez gozaterik posible izan ez duten indibiduo eta kolektiboek beren egikaritzea posible egitea. Giza eskubideen orokortze prozesu horren isla izan dira, besteak beste, sufragio aktiboa (bozkatzeko eskubidea) emakumeei ere aintzatestu izana, edota eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalen konkista progresiboa. Positibazio prozesua bezala, giza eskubideen orokortze prozesua denboran luzatzen den prozesu dinamikoa da ere, orainaldian eta etorkizunean ere gertatzen jarraituko duena.

Nazioartera hedatzearen prozesuak II. Mundu Gerraren sarraskiaren ondorengo urteetan izan zuen abiapuntua; gerraren ostean, oinarrizko eskubideak barne ordenamendu bakoitzaren logika normatibora mugatu beharrean, nazioarteko mekanismoen bidez giza eskubide unibertsal bezala babesteko premia agerian geratu zen. Ondorioz, data horretatik aurrera beren babeserako nazioarteko erakunde desberdinak sortu dira (II. Mundu Gerraren ondorengo urteetan, NBE eta Europako Kontseilua sortu ziren) eta nazioarteko tratatuen onarpen progresibo eta etengabekoa eman da, nazioarteko zuzenbide publikoaren arabera funtzionatzen dutenak: Estatu bati nazioarteko tratatu bat aplikagarri izan dakion, aurretik Estatuak tratatua sinatu eta berrestea ezinbestekoa da. Prozesu horri esker, giza eskubideen berme sistema Estatuaren subiranotasun eskusiboaren mugetatik harago hedatu zen, zentzu prozesalean eta materialean. Alde batetik, giza eskubideen ustezko urrapenen aurrean barne zuzenbideak norbanakoari eskaintzen dizkion berme mekanismoez gain, Estatuaz gaindiko nazioarteko instantzietara jotzeko ahalmena eskaintzen zaio. Bestetik, giza eskubideen oinarrizko eduki irizpideen komunikazioa ematen hasi zen, nazioarteko zuzenbidetik Estatuaren barne zuzenbidera eta alderantziz.

Azkenik, espezifikazio prozesua¹¹⁸⁴ giza eskubideek jasaten duten zehaztapen prozesua da, eskubideen titulartasunean edota edukian elementu edo inguruabar berrien existentzia eta konkretzioa eragiten duena. Eskubideen titulartasunaren espezifikazioa kolektibo zehatz batzuen alde onartzen joan diren eskubideetan islatzen da; adibidez, generoaren arabera (emakumearen eskubideak) bizitza fase desberdinen arabera (haurtzaroko edo zahartzaroko eskubideak) edota norbanakoek duten osasun egoeraren arabera (gaixoen eta ezgaitasun fisiko edo psikikoak dituzten pertsonen eskubideak). Eskubideen edukiaren espezifikazio prozesua, ostera, inguruabar eta mehatxu berrien ondorioz giza eskubide batek bere edukian edo berme mekanismoetan jasan ditzakeen aldaketei egiten die erreferentzia. Ondasun juridiko zehatz bat urratu dezakeen mehatxu berrien aurrean esaterako, ondasun juridiko hori babesten duen eskubidearen berme mekanismoak birplanteatu eta berregituratzea beharrezkoa izan daiteke.

¹¹⁸³ DE ASÍS ROIG, op. cit, 36.

¹¹⁸⁴ Giza eskubideen espezifikazio prozesua Norberto Bobbiok teorizatu zuen aurrena, giza eskubideen titularren espezifikazioaren inguruan (BOBBIO, 1991: 109-110). Peces-Barba autoreak espezifikazio prozesua, eskubideen titularrez gain, eskubideen edukian eta berme mekanismoetan ere ematen dela arrazoitu zuen (PECES-BARBA, 1995: 182-195).

II.2.D. Giza eskubideak sailkatzeko beste irizpide batzuk

Giza eskubideen belaunaldi historikoen eta bilakaera normatibo horretan jasan dituzten prozesu desberdinez gain, giza eskubideak beste irizpide batzuen arabera sailkatu daitezke.

Beren funtzioen izaeraren edo babesten dituzten ondasun juridikoen arabera, giza eskubideak zibilak, politikoak eta sozial, ekonomiko eta kulturalak izan daitezke eta interes indibidualak (eskubideen I eta II. belaunaldiak) edo supraindibidualak (III. belaunaldiko eskubideak) babestea dute helburu. Eskubide zibilek norbanakoari jardute edo autonomia eremu bat aitortzea dute xede, Estatuak eragotzi edo interferitu ezin dezakeen esfera. Eskubide politikoek, hiritarrek Estatuaren kudeaketa demokratikoan eta gai publikoetan parte hartzeko instrumentu gisa jarduten dute. Eskubide sozial, ekonomiko eta kulturalak, ordea, egikaritu ahal izateko botere publikoen jarduera positiboa beharrezkoa dute.

Sailkapen klasiko horren aurrean, Luigi Ferrajolik oinarritzko eskubideen beste sailkapen bat proposatzen du¹¹⁸⁵, bi azpi-multzotan banatutako lau eskubide kategoriaz osatutakoa: eskubide zibilak, politikoak, askatasun eskubideak eta eskubide sozialak. Lehenengo bi eskubide kategoriak, politikoak eta zibilak, “botere-eskubide” edo “autonomia-eskubideak” dira eta, hurrenez hurren, esfera publikoan eta pribatuan egikaritzen dira. Eskubide politiko edo zibilak egikaritzeko, norbanakoei jarduteko gaitasun politikoa edo zibila izan behar dute eta eskubide horien egikaritzak efektu juridikoak sortzen ditu (esan bezala, esfera publikoan eta pribatuan hurrenez hurren). Askatasun eskubideak eta eskubide sozialak, ordea, “itxaropen-eskubideak” dira. Askatasun eskubideek norbanakoei askatasun esfera bat onartu eta botere publikoei esfera horretan interferitzeko debekua ezartzen dieten bitartean (itxaropen negatiboa), eskubide sozialek botere publikoei prestazio betebeharrak dakarzkiete (itxaropen positiboa), eskubide horien egikaritzarako ezinbestekoa den baldintza.

Azaldu berri den sailkapen irizpidearekin lotuta, eskubideek beren titularrei eskaintzen dizkieten ahalmenen izaeraren arabera, defentsa edo prestazio eskubideak izan daitezke (“prestazioaren” adiera hori zentzu zabalean ulertuta¹¹⁸⁶), botere publikoek eskubideekiko lotura harreman horretan jarduera negatiboa edo positiboa sorrarazten dieten arabera. Eskubide zibilek norbanakoari botere publikoen esku-hartzetik babestutako askatasun esfera bat bermatzen diotenez, tradizionalki defentsa eskubide gisa ulertu izan dira, botere publikoei jarduera negatiboa (interferentziarik eza edo abstentzio jarrera) exijitzen dietenak. Eskubide politiko eta eskubide sozial, ekonomiko eta kulturalak, aitzitik eskubide prestazionalak dira: beren egikaritzea posible izan dadin botere publikoen partetik jarduera positiboa ezinbestekoa dute. Eskubide politikoak egikaritu ahal izateko botere

¹¹⁸⁵ FERRAJOLI, 2010: 104-105.

¹¹⁸⁶ Robert Alexy botere publikoen edozein jarduera positibo eragiten duten eskubideak prestazionalak bailiran ulertzen ditu (ALEXY, 1993: 419-502). Beste sailkapen batzuetan, aitzitik, Alexy prestazional bezala sailkatzen duen eskubideen kategoria bitan banatu eta guztira hiru eskubide kategoria sailkatzen dira: defentsa eskubideak, parte hartze eskubideak (eskubide politikoak barne hartzen dituenak) eta prestazio eskubideak (besteak beste, DÍEZ PICAZO, op. cit, 43-44. orr.).

publikoei prozedura eta antolakuntza betebeharrak sortzen zaizkie; esate baterako, sufragio aktibo edo pasiborako eskubidea egikaritzeko aurretiaz hauteskunderen prozedura arautu eta antolatu egin behar da. Eskubide sozial, ekonomiko eta kulturalen kasuan ere botere publikoen akzio positiboa beharrezkoa da (arauak onartu, jarduera administratiboak aurrera eramane edo egintza faktikoak burutu), beren egikaritzea sustatzeko (“prestazioa” zentzu hertsian ulertuta) edo babesteko.

Hala ere, defentsa eta prestazio eskubideen inguruan azaldu berri den sailkapen hori ezin da termino absolutuetan ulertu. Eskubideen dimentsio sozialaren ondorioz, eskubide guztiek, neurri handiagoan edo txikiagoan, beren asebetetzeko botere publikoei betebeharrak negatibo eta positiboak sorrarazten dizkiete¹¹⁸⁷. Eskubide zibilek, botere publikoei posizio negatibo edo abstentzio jarrera bat mantentzea exijitzeaz gain, eskubide horiek eraginkortasunez babesteko botere publikoen jarduera positiboa ere ezinbestekoa dute (osotasun fisikorako eskubidearen kasuan esate baterako, botere publikoek eskubide horren aurkako egintzak arautu eta pertsegitu behar dituzte). Eskubide sozialen kasuan, beren asebetetzeko botere publikoen jarduera positiboa ezinbestekoa izanik ere, beren egikaritzea eraginkorrek aldi berean botere publikoen interferentziatik salbuetsitako autonomia esferen aintzatespena beharrezkoa izan dezakete (osasuna babesteko eskubideak, esate baterako, botere publikoei osasun publikoaren aurka doazen erabakiak hartu edo jarduera publikoak aurrera eramatek abstentitzeko betebeharrak negatiboa ezartzen die¹¹⁸⁸).

Beste sailkapen irizpide bat eskubideak aintzatesten dituzten arauen egiturapen normatiboan datza. Sailkapen horren arabera, eskubideak erregela edo printzipio normatibo bezala egituratzen dira. Erregelaren egitura duten arauen kasuan, ondorio juridiko zehatz batzuk izateko egitate batzuekin lotzen dira. Alegia, izateko egitatea gertatuz gero, arauak ondorio juridiko batzuk aurreikusten ditu (“A” egitateak “B” ondorio juridikoa aktibatzen du). Printzipioek, aitzitik, zentzu teknikoan ez dute izateko egitate eta ondorio juridikorik¹¹⁸⁹. Horren ordez, printzipioek beren enuntziatu normatiboan aldarrikatzen duten balio edo ondasun juridikoaren optimizazio mandatu gisa jarduten dute: existitzen diren aukera anitzen artean, printzipio normatiboak babesten duen balio edo ondasun juridiko hori ahalik eta neurri handienez betetzen duen interpretazioa egin behar da¹¹⁹⁰.

Erregela bezala egituratzen den giza eskubiderik egon badago ere¹¹⁹¹, gehienek printzipio egitura dute. Alde horretatik, giza eskubideek ahalik eta neurririk handienez

¹¹⁸⁷ ANSUATEGUI ROIG: 1991: 53-54; DOMENECH PASCUAL, 2006: 71-72; MUÑOZ MACHADO, 2011: 334-336; PRIETO SANCHÍS, 2000: 20-21.

¹¹⁸⁸ FIGUEROA GARCÍA-HUIDOBRO, 2013: 298.

¹¹⁸⁹ DÍEZ PICAZO, op. cit, 46. orr.

¹¹⁹⁰ ALEXY, op. cit, 86. orr.

¹¹⁹¹ Espainiako EKren 17.2 artikulua esate baterako askatasun pertsonalerako eskubidearen baitan jasotzen den atxiloten gehienezko iraunaldiak erregelaren egiturapena jarraitzen du: “Epai aurreko atxilotzea, egintzak argitzeko hertsiki behar den denboratik gora ez da luzatuko eta, hirurogeita hamabi ordu barruan, atxilotua askatua izango da edo auzitegi agintarien eskuetan jarria”. Kasu horretan, izateko egitatea 72 orduko gehienezko atxiloteta epea da, eta ondorio juridikoa, atxilotuaren askapena edo epailearen aurrera pasaraztea.

bete behar diren optimizazio mandatu bezala dihardute. Kasu konkretu batean egitura printzipialista duten eskubideen arteko talka ematen denean (adierazpen askatasuna eta ohorerako eskubidearen artean adibidez), beraien artean zein nagusitzen den erabakitzeke ponderaketaren teknika aplikatu behar da. Eskubideen talka horretan elkar kontrajartzen diren optimizazio mandatu horien artean zein lehenetsi behar den erabakitzeke, gatazka inguratzen duten inguruabar desberdinak kontuan hartu eta proportzionaltasun printzipioa aplikatu behar da: eskubide bat besteari gailenduko zaio, baina garaitua izan den eskubidea ezin da neurritz kanpo mugatu. Erregelen kasuan, ordea, enuntziatu normatibo bakoitzak bere izatezko egitate eta ondorio juridikoak zehazten dituen aldetik, bi erregelen arteko talka ematen bada erregela batek bestea subsumitu egiten du. Bi erregela desberdinek ezin dute izatezko egitate berberaren aurrean bi ondorio juridiko desberdin aurreikusi. Erregela bat besteari gailendu behar zaio nahitaez: erregela bat balizkoa izango da eta bestea baliogabea.

Luiji Ferrajolik oinarrizko eskubideek duten gehiegizko egitura printzipialista kritikatu eta bere konstituzionalismo bermatzailearen teoriaren harira, oinarrizko eskubideen “arauketa indartsua” defendatzen du; hots, eskubide konstituzionalak normatiboki erregela bezala egituratzearen aldeko hautua egiten du¹¹⁹². Autore honen aburuz, oinarrizko eskubideak talkan sartzen direnean eskubideak printzipio gisa egituratuta egoteak dakarren nahitaezko ponderaketa jarduerak operatzaile juridikoei (oinarrizko eskubide horiek arautu behar dituen botere legegileari, edota gatazka konkretuak ebatzi behar dituen botere judizialari) diskrezionaltasun marjina handiegia ematen die zein eskubide zeini eta zein gradutan gailentzen zaion erabakitzeke. Aitzitik, erregela bezala egituratuz gero, egoera konkretuetan gertatzen diren eskubideen arteko talkak subsuntzio bidez erabakiko lirateke; inguruabar horrek operatzaile juridikoen diskrezionaltasuna erabat murriztuko luke. Erregelen aldeko hautapen normatibo horrek, hala ere, eskubideen artean eman daitezkeen talka posible guztiak aurreikusi eta zehaztea eskatzen du, hots, eskubideen egikaritzaren muga konkretuak eta muga horien salbuespen kasuak (“mugen mugak¹¹⁹³”) ere erregela bidez jasotzea, ikuspegi juridiko errealista batetik erabat konplexua izan daitekeen zeregina¹¹⁹⁴.

Eskubideen sailkapen irizpideen analisiarekin amaitzeko, datozen lerrootan eskubideen titularren izaeraren arabera egiten den sailkapena azaltzen da. Giza eskubideak bokazio indibidualarekin jaio baziren ere, ordenamendu konstituzionaletan pertsona juridiko pribatuei ere oinarrizko eskubide batzuen titulartasuna onartu egiten zaie, beren

¹¹⁹² FERRAJOLI, 2011: 48-52.

¹¹⁹³ Ibid. Ferrajolik Luis Prieto Sanchésekin erabilitako “mugen mugak” terminoa erabiltzen du eskubideen erregela mota horien edukia azaltzeko. Esate baterako, informazio eskubidea arautzen duen erregelan intimitaterako eskubidearekin talkan sartzean dituen mugak aurreikusi behar dira, eta aldi berean, pertsonai publikodun izaera duten pertsonen kasuan informazio eskubidea arautzen duen erregelak intimitate eskubide horren egikaritzea nola mugatzen duen zehaztu behar du.

¹¹⁹⁴ *Doxa, Cuadernos de Filosofía del Derecho* aldizkariaren 34. zenbakia Luigi Ferrajoliren konstituzionalismo bermatzailearen teoriaren inguruko eztabaida doktrinala da. Autore gehienek Ferrajolik egiten dituen planteamenduak kritikatzeko dituzte, besteak beste, oinarrizko eskubideak normatiboki erregela bidez egituratzearen aldeko hautua.

interesak defendatzeko instrumentu gisa erabiltzeko¹¹⁹⁵. Bestalde, botere konstituziogileak, edo azken horren habilitazioari esker botere legegileak, Estatu horretako nazionalen zein eskubide erreserbatu konfiguratzeko ahalmena dute. Hautapen normatibo horrek, ordea, giza duintasunaren oinarritzko balioarekin erlazio zuzena duen gaingaitu ezinezko muga bat errespetatu behar du¹¹⁹⁶: pertsonen pertsona izate hutsagatik berezkoak dituzten eskubideen (pertsonalitate eskubideen) titulartasuna ezin da nazionala izatearen baldintzara egotzi, giza duintasunaren aginduz, edozein ordenamendu juridikok eskubide horien titulartasuna pertsona guztiei onartu behar baitie.

Luigi Ferrajolik, bestalde, oinarritzko eskubideen titulartasunari buruzko beste sailkapen formal bat proposatzen du¹¹⁹⁷. Sailkapen horrek, eskubideak oinarritzkoak diren edo ez erabakitzeke, ez du eskubide horien bidez bermatzen diren ondasun juridiko edo balioen naturari erreparatzen, beren unibertsaltasunari baizik. Hots, autoreak jarraian azaltzen diren eskubide kategoriak oinarritzkotzat jotzen ditu, eskubide kategoriatik bakoitzeko titularrak kontsideratzen dituen subjektuen kuantifikazio unibertsalagatik (kategoria horietako bakoitzean barneratutako subjektu guztiak titularrak izateagatik). Sailkapen horretarako, norbanakoek izan ditzaketen hiru estatus desberdinen arabera (pertsona, hiritar edo/eta jarduteko gaitasuna duten norbanako gisa) eskubideen bereizketa bikoitza egiten du. Alde batetik, pertsonalitatearen eskubideak (pertsona guztiei dagozkien) eta hiritarren eskubideak. Bestetik, lehen mailako eskubideak (pertsona guztienak) eta bigarren mailakoak edo instrumentalak (jarduteko gaitasuna duten pertsonenak soilik). Norbanakoen estatusen eta eskubideen bereizketa bikoitz horren irizpideen baturatik, guztira lau eskubide kategorien sailkapena egiten du:

- a) Giza eskubideak: pertsona izate hutsagatik norbanako guztiei dagozkien lehen mailako eskubideak (pertsonalitatearekin zerikusia duten eskubideak)
- b) Eskubide publikoak: hiritarren titulartasunera mugatutako lehen mailako eskubideak. Italiako Konstituzioa aipatuz, autoreak lanerako eskubidea eta lurralde nazionalen barrera libreki mugitu eta bizitokia zehazteko eskubideak aipatzen ditu.
- c) Eskubide zibilak: jarduteko gaitasuna duten pertsona guztien bigarren mailako eskubideak.
- d) Eskubide politikoak: jarduteko gaitasuna duten hiritarren bigarren mailako eskubideak.

¹¹⁹⁵ Espainiar Estatuaren kasuan AK-k pertsona juridiko pribatuei oinarritzko eskubide desberdinen titulartasuna aitortu die, besteak beste, babes judizial eraginkorrerako eskubidea (AKEE 53/1983; 34/1994); bizilekuaren bortxa-ezintasuna (AKE 137/1985) edo ohorerako eskubidea (AKE 183/1995). Pertsona juridiko publikoei oinarritzko eskubideen titulartasuna onartzea oinarritzko eskubideen jatorritzko izaera edo espirituaren aurka joango litzateke, oinarritzko eskubideak botere publikoen jardueraren aurrean norbanakoei erreserbatzen zaizkien instrumentuak baitira (DÍEZ PICAZO, op. cit, 143. orr.). Hala eta guztiz ere, AK-k pertsona juridiko publikoei babes judizial eraginkorrerako oinarritzko eskubidearen titulartasuna aintzatetsi egin die, prozesu judizialean alderdi bezala jarduteko eta prozesu judizialean gerta litezkeen urrapenen aurrean babesa eskatzeko duten gaitasunaren ondorioz (AKE 99/1989, 3. o.j.).

¹¹⁹⁶ Espainiar Estatuaren kasuan ikus AKE, 236/2007.

¹¹⁹⁷ FERRAJOLI, 2010: 39-41.

II.2.E. Oinarrizko eskubideen dimentsio bikoitza: subjektiboa eta objektiboa

Azpi-atal honetan giza eskubideek barne ordenamenduaren ikuspegitik aztertuta duten dimentsio subjektibo eta objektiboaren analisisa egiten da. Beraz, ez da giza eskubideen adiera erabiliko, oinarrizko eskubideen adiera baizik.

Ikuspegi liberal tradizionalan, oinarrizko eskubideak defentsa eskubide soilak ziren. Eskubideen dimentsio subjektiboak beren titularrei Estatuaren aurrean askatasun edo autonomia esfera bat onartzen zieten, botere publikoek errespetatu eta eskurik sartu ezin zezaketen eremua. II. Munduko Gerratearen ostean mendebaldeko herrialdeetan errotuz joan ziren sistema konstituzionalak, askatasun balioan sustraitzen zen prisma liberal indibidualista hori gainditu eta berdintasun balioaren garrantzia aintzat hartzen zuten Zuzenbidezko Estatu Demokratiko eta Sozial gisa egituratuz joan ziren. Oinarrizko eskubide sozialen aintzatespena ekartzearekin batera, Estatu-norbanako harremanaren kontzepzio politiko eta juridiko tradizionalarekin apurtu zen. Estatuaren izate-arrazoia norbanakoak dira; hots, Estatua da gizakiarentzat existitzen dena, eta ez alderantziz. Gizakia, bere duintasuna eta oinarrizko eskubideak beraz ordenamendu juridiko-konstituzionalaren legitimazio elementu izatera igaro ziren, botere publikoen eta zuzenbidearen jardueraren elementu gidatzaile eta aldi berean mugatzaileak¹¹⁹⁸.

Estatu-norbanako harremanaren kontzepzio aldaketa horrek botere publikoek oinarrizko eskubideekiko zuten “abstentzio” betebeharraren eskema gainditzea eskatzen zuen: Estatua, eskubideen dimentsio subjektiboa errespetatu eta ez urratzeko rol pasiboa izatetik, beren babes eta sustapenean zeregin aktiboa izatera pasatzea. EKren 9.2 artikulua araberan “botere publikoei dagokie inguruabar zehatzak sustatzea, gizabanakoaren eta berak osatzen dituen taldeen askatasuna eta berdintasuna benetakoak eta eragingarriak izan daitezen; oztopoak kentzea, horiek haien osotasunean eragotzi edo zailtzen badute; eta herritar guztien parte-hartzea erraztea bai bizitza politikoan, baita ekonomia, kultura eta gizarte-bizitzan ere”. Zentzu horretan, EKn aurreikusitako oinarrizko eskubide batzuek botere publikoei beren sustapen eta babeserako zeregin konstituzional zehatzak eragiten dizkiete. Esate baterako, askatasun pertsonalerako eta informaziorako oinarrizko eskubideek, hurrenez hurren, botere legegilea “habeas corpus” prozedura (EK 17.4 art.) eta erakunde publikoen menpeko gizarte-komunikabideen antolakuntza eta parlamentu-kontrola (EK 20.3 art.) lege bidez arautzera behartzen dute, hezkuntzarako oinarrizko eskubide sozialak (EK 27. art.) botere publikoei bere sustapen eta babeserako betebeharrak positibo desberdinak agintzen dizkien bezala.

Beren dimentsio subjektiboaz gain, alabaina, Konstituzioan jaso eta aitortzen diren heinean oinarrizko eskubideek dimentsio objektibo bat ere badute. Oinarrizko eskubideen dimentsio subjektiboak beren titularrei estatus-juridiko konstituzional bat aitortzen die, egoera konkretuetan ahalmen eta pretentsio zehatzak aurrera eramane eta exijitzea ahalbidetzen diena¹¹⁹⁹; beren dimentsio objektiboaren arabera, ordea, oinarrizko

¹¹⁹⁸ BERTOLINO, 1999: 135; DÍEZ-PICAZO, 2008:70; OEHLING DE LOS REYES, 2011: 143.

¹¹⁹⁹ DÍEZ PICAZO, op. cit; 63. orr.

eskubideak ordena estatal demokratikoaren oinarri espiritual eta materialak dira¹²⁰⁰ eta hortaz, ordenamendu juridikoaren oinarritzko balio-objektibo gisa jarduten dute.

Oinarritzko eskubideek duten dimentsio bikoitz horri buruzko lehenengo hausnarketa doktrinalak Alemaniako Weimarko Errepublikaren garaian eman baziren ere¹²⁰¹, I. eta II. Mundu Gerren osteko garai-arte itxaron behar izan zen teoria konstituzionalaren ikuspegitik oinarritzko eskubideen dimentsio objektiboari bultzada juridikoa emateko. Zentzu horretan Alemaniako Auzitegi Konstituzionala izan zen lehenengo harria jarri zuena, *Lüth-Urteil* izeneko kasuaren inguruan 1958ko urtarrilaren 15ean eman zuen ebazpen entzutetsuan¹²⁰². Botere konstituziogileak eskubideak Oinarritzko Legean aurreikustean, defentsa eskubideak izatearekin batera (dimentsio subjektibo klasikoa) “balio objektiboen ordena gisa” egituratzeko erabakia hartu zuen, “ordenamendu juridikoaren esfera guztietara hedatzen zen balizko erabaki konstituzionala”.

Oinarritzko eskubideen dimentsio bikoitz horri buruz Alemaniako AK-k egindako ekarpen jurisprudenzial garrantzitsu hori Espainiako AK-k bere egin zuen 80. hamarkadatik aurrera eman zituen ebazpen desberdinetan; esanguratsuenen artean, AKEE 25/1981, 53/1985 eta 245/1991. Ebazpen horien letrari jarraiki, oinarritzko eskubideak, beren titularrei estatus juridiko jakin bat edo askatasun eremu bat bermatzearekin batera, ordenamendu objektiboaren oinarritzko elementuak ere badira, giza elkarbizitza justu eta baketsu baterako marko bezala egituratzen direnak; historikoki Zuzenbide Estatuan irudikatuak, orain ordea Zuzenbidezko Estatu Sozial eta Demokratikoan¹²⁰³ (EK 1.1 art.). Ondorioz, dimentsio objektibo horrek oinarritzko eskubideen babes eta sustapen eraginkorren adiera singularra (dimentsio subjektiboa) gainditzea dakar¹²⁰⁴, Konstituziogilearen erabakiz oinarritzko eskubideak balio sistema osoaren adierazpen juridikoak bilakatu baitira, egiturapen juridiko eta politikoa bere osotasunean informatzen dutenak¹²⁰⁵. Oinarritzko eskubideek, ordena juridiko-objektiboa osatzen duten adar guztien osagai estrukturalak izanik, oinarritzko eskubideen indarra beren titularren partetik pretentsio subjektiborik existitzen ez diren eremuetara hedatzen dute; testuinguru horretan, dimentsio objektiboak garrantzi berezia eskuratuko luke oinarritzko eskubide edo balio bat hutsik geratuko litzatekeen eremuetan beren defentsarako supostuak ezarriko ez balira¹²⁰⁶.

Oinarritzko eskubide bakoitzaren eduki eta ezaugarrien arabera, dimentsio subjektiboa eta objektiboa eskubide bakoitzean maila altuagoan edo txikiagoan¹²⁰⁷ islatzen badira ere, bi dimentsio horiek eskubidearen fisionomian betiere presente daude: konstituziogilearen erabakiz dimentsio objektiboa oinarritzko eskubideen berezko

¹²⁰⁰ VILLACORTA MANCEBO, 2011: 85.

¹²⁰¹ Kantsutatu HESSE, 1996.

¹²⁰² *BverfGE7*, 158. Ebazpen honen gaztelaniazko laburpena honako web orrialdean:

<http://www.palermo.edu/cele/libertad-de-expresion/jurisprudencia/pdf/luth.pdf> [2015-07-03].

¹²⁰³ AKE 25/1981, 5. o.j.

¹²⁰⁴ AKE 245/1991, 5.o.j.

¹²⁰⁵ AKE 53/1985, 4. o.j

¹²⁰⁶ Ibid.

¹²⁰⁷ DÍEZ-PICAZO, op. cit, 63-64. orr.

dimentsioa bilakatu da, dimentsio subjektiboaren alderdi bereiztezin¹²⁰⁸ bezala. Dimentsio objektibo hori aintzatetsi izanak oinarritzko eskubideen nolabaiteko birkalifikatzea¹²⁰⁹ dakar, beren estatusaren sendotze esanguratsua eragin baitu. Zehazki, beren dimentsio objektiboaren ondorioz oinarritzko eskubideek “irradiazio efektua¹²¹⁰” edo indar hedakorra dute, Konstituzioan aintzatetsitako oinarritzko balio eta printzipio objektibo gisa ordenamendu juridiko osora eta norabide guztietara hedatzen baitira. Zuzenbide publikora ez-ezik, oinarritzko eskubideak zuzenbide pribatuko adar guztietara irradiatzen dira. Esfera publikotik pribatura egindako hedapen-salto horretan subjektu partikularrak ere eraginda geratzen dira: eraginkortasun bertikalarekin batera (Estatu-partikularren artekoa) oinarritzko eskubideei *drittwirkung* edo eraginkortasun horizontala (partikularren arteko harremanetan) ere onartzen zaie, EKren 9.1 eta 10.1 artikuluen zentzuari jarraiki¹²¹¹.

Ordenamendu juridiko bakoitzak oinarritzko eskubideen dimentsio objektiboa urratzen duten egintzen aurka jotzeko mekanismo anitzak aurreikusten ditu. Espainiar Estatuaren kasuan, Konstituzionaren organo interpretatzaile gorena den Auzitegi Konstituzionalak botere legegilearen partetik eskubideen dimentsio objektibo hori urratzen duen jarduera legegilea ordenamendu juridikotik kanporatzeko legitimotasuna dauka, mekanismo judizial desberdinen bidez (konstituzio-kontrakotasun helegitea, zalantza eta babes helegitea) aktibatzen den legeen konstituzio-kontrakotasun kontrolaren bitartez.

III. GIZA DUINTASUNA ETA GIZA ESKUBIDEAK, TEKNOLOGIA BERRIEN IRAULTZAREN TESTUINGURUAN

III.1. Teknologia berrien eta giza duintasunaren arteko harremana

Teknologia berrien zenbait erabilerek arriskuaren tratamendu juridikoaren perspektibatik planteatzen dituzten erronka garrantzitsuekin batera, giza duintasunaren eta eskubideen ikuspegitik ere zeresana ematen dute. Europar Estaturen konstituzionalismoan giza duintasunaren positibizazioa bultzatu zuen testuinguru historikoa erabat aldatu eta garai historiko bakoitzean bere aurkako mehatxu eta lesioek forma desberdinak hartu baditzaikete ere, giza duintasuna gizakiaren existentziari lotuta dagoen oinarritzko balioa da, denboran zehar aldaezina¹²¹². Datozen orrien helburua, beraz, hurrengoa da: gaur egun

¹²⁰⁸ BLASCO SOTO, 2001: 160-161.

¹²⁰⁹ TOTE MARTÍNEZ, 2006: 271.

¹²¹⁰ Oinarritzko eskubideen “irradiazio efektua” Konrad Hesse jurista alemanak erabilitako terminoa da, oinarritzko eskubideek zuzenbide pribatuan eragiten dituzten efektuak azaltzeko erabili zuena. Zehazki, Espainian 1995. urtean argitaratu zen autore honen hurrengo lanean: *Derecho Constitucional y Derecho Privado*, Civitas.

¹²¹¹ EK 9.1 art: “*Herritarrak* eta botere publikoak Konstituzioaren eta antolamendu juridikoaren gainerako arauen menpe daude”. EK 10.1 art: “Pertsonaren duintasuna, hari dagozkion eskubide ukiezinekoak, nortasunaren hazkunde librea, lege begirunea eta *besteekiko eskubideak* ordenu politikoa eta giza bakearen oinarriak dira”

¹²¹² BENDA, 19996: 126; OEHLING DE LOS REYES, 2011: 151.

erabiltzen diren teknologia berriek duintasun balioari nola eragiten dioten eta ikuspegi juridikotik mehatxu horiei nola erantzun zaien aztertzea.

III.1.A. Teknologiaren garapenak eragindako paradigma aldaketa: natura ulertu eta kontrolatzetik, gizakia manipulatu eta kontrolatzera

Historian barrena naturak gizakiari planteatutako erronka eta arrisku desberdinei buruzko ezagutza zientifikoa eskuratuz joan ahala, arrisku natural horiek kontrolatu eta aurre egiteko helburuz garatu izan du gizakiak teknologia. Bilakaera historiko horretan gizakia *homo faber*¹²¹³ bihurtu da: teknologiaren garapen progresibo eta etengabeari esker gizakia bere ingurunearen gaineko gero eta kontrol handiagoa lortzen joan da. Tradizionalki, aplikazio teknologikoei gizakiak naturatik babestea zuten helburu; naturak gizakiari eragiten zizkion mehatxuak kontrolatzera eta kalteak ekiditera bideratzen ziren. Denboraren poderioz, garapen zientifikoaren aprobetxamenduaren ondorioz sortutako teknologia berrien sofistikazio eta konplexutasunaren areagotzeak paradigma aldaketa garrantzitsu bat eragin du: teknologia berriek gizakiek naturarekin, gizakiek elkarren artean eta gizakiak bere buruarekin dituen harremanen transformazioa eragin dute¹²¹⁴.

XX. mendearen azken herenetik aurrera natura ezagutu eta kontrolatzeko gaitasunez harago, gizakiak bioteknologiari esker natura bera artifizialki manipulatzeko trebezia eskuratu, *homo faber* izatetik *homo creator* izatera pasa da¹²¹⁵. Bestalde, jakintza zientifikoaren hazkundeak eta berari lotutako garapen teknologikoak duela gutxi arte ezezaguna zitzaigun ikerketa ildo berri bat zabaldu du: gizakia teknologia berrien objektua bihurtu da. Teknologia berriek gizakiak inguratzen dituen kanpo dimentsioari (gizakion biziguneei, elementu naturalei) eragiteaz gain, barne dimentsioari eragiteko gaitasuna dute: bizitzaren osotasunari (jaio, bizi eta hiltzeko moduei) eta gizakiek berezkoak dituzten ezaugarriari. Izan ere, zenbait teknologien garapenaren poderioz (bioteknologiak edo nanoteknologiak kasu), gizakiak bere natura biologikoa manipulatzeko trebezia eskuratu du¹²¹⁶: gizakia *homo-materia*¹²¹⁷ bihurtu da.

Paradigma aldaketa horren eragile nagusietako bat duela hamarkada batzuk gertatu zen ADNaren aurkikuntza izan da, hots, izaki bizidun bakoitzak historian zehar belaunaldiz belaunaldi transmititutako informazio genetikoa bere osotasunean biltzen duen molekularena. Gizakien zelula bakoitzak 23 kromosoma pare ditu eta kromosoma bakoitza ADN molekula bat da. Giza genoma gizakion gorputzeko zelula bakoitzean biltzen den material genetiko hereditarioa da, norbanako bakoitzaren kasuan bakarra eta berdingabea

¹²¹³ *Homo faber* terminoa autore desberdinek erabili izan dute, Karl Marxek (El Capital, 1867), Max Frischek (Homo Faber nobela, 1957) esate baterako, bere ingurunea erreminten bidez kontrolatzeko gaitasuna duen izakia definitzeko erabiltzen dena. Berriki, BERTOLINO, 1999: 134.

¹²¹⁴ PÉREZ LUÑO, 2012: 1010

¹²¹⁵ BERTOLINO, cit, 134. orr.

¹²¹⁶ BENDA, 1996: 135-138; BYK, 2011; ESTEVE PARDO, 2009: 38-42; FERRER, 2005: 174; RODOTA, 2010; 58-59.

¹²¹⁷ BERTOLINO, op. cit, 134. orr.

dena (biki monozigotikoen kasuan ezik)¹²¹⁸. Gizabanako bakoitzaren paregabetasunaren isla izatearekin batera, ADN molekulek informazio genetiko hereditarioa bere osotasunean biltzen dute, alegia, giza espezieak historian zehar izan duen bilakaerari buruzko informazio genetikoa. Alde horretatik, UNESCOk giza genoma gizateriaren ondarea eta giza-familia osatzen dugun kide guztion oinarrizko batasunaren eta dibertsitatearen funtsa dela deklaratu du¹²¹⁹, aurrerago aztertzen den bezalaxe.

Gizakiaren ezaugarri genetikoek aurkikuntzak, ezagutza horretan oinarritutako aplikazio teknikoek hazkuntza eta sofistikazioa ekarri du. Ikuspegi terapeutikotik aztertuta, bioteknologiak gizakien gaixotasun hereditarioei, jatorri mikrobianoa duten gaixotasunei, organismoen funtzionamenduaren desoreka biokimikoei edota organoen birsorkuntzari onura esanguratsuak eskaini ditzakeen teknologiak dira¹²²⁰. Hala ere, osasunaren prismatik eskaini ditzaketen abantailez gain, giza ADNaren informazio genetikoak beste interes mota batzuk piztu ditu: merkatuaren logikari jarraitzen dioten interes pribatuak. Izan ere, giza genomak bere barnean gordetzen duen informazio genetikoa oso baliagarria izan daiteke helburu industrial eta komertziala duten produktu edo metodo produktiboen diseinatzerako orduan.

Bioteknologiarekin batera, azken hamarkadetan informazioaren eta komunikazioaren teknologien (aurrerantzean IKT) garapen azkarra gertatzen ari da: informazioaren jasotze, tratamendu eta hedapenaren teknifikazio eta automatizazioa gero eta esanguratsua da. Informazioa tratatzeko gizakiak eskuratu duen gaitasun horrek “informazioaren gizartean” bizitzera bultzatu gaitu, edo bestela esanda, “fitxategien, sailkapenaren eta zaintzaren¹²²¹” aroan. Azken urteotan norbanakoen informazio pertsonalaren gaineko interesa nabarmen hazi da, bai interes ekonomikoek bultzatzen dituzten ente pribatuen partetik, baita botere publikoen partetik ere. Horren emaitza: orotako informazio pertsonala mundu osoko datu base desberdinetan zehar sakabanatuta dago, pertsona bakoitzaren identitate globalaren alderdi txiki bat besterik islatzen ez duena.

Bioteknologiak eta IKTek gizakia ulertzeko moduaren aldaketa ere badakarte. Erabilera teknologiko horiek, pertsonaren birplanteamendua dakarte. Dimentsio fisiko klasikoaz harago, norbanakoei dituzten ezaugarri genetiko bakar eta berdingabeek gizakia *hiritar bioetiko*¹²²² bezala defendatzeko premia sortu du. IKTen ikuspegitik, plano fisiko “tradizionalaz” gain norbanakoei beren oinarrizko eskubideak plano birtualean ere egikaritzen dituzte, pertsona beraren bikoizketa¹²²³ (plano fisiko eta birtualaren artekoa) dakarrena. Pertsona fisikoak izatearekin, *pertsona numeriko* eta *birtualak*¹²²⁴ ere bihurtu gara. Interpretazio horren harira, teknologien erabilera arduragabeak pertsonen

¹²¹⁸ Giza genoma, gene, ADN edo kromosoma bezalako kontzeptu zientifikoei buruz, besteak beste, ROMEO CASABONA, 2002b: 1-2.

¹²¹⁹ UNESCO, *Declaración Universal sobre el Genoma Humano y los Derechos Humanos* (1997), 1. art.

¹²²⁰ ROMEO CASABONA, 2002a: 285; 2003: 45.

¹²²¹ RODOTA, op. cit, 63. orr.

¹²²² ROMEO CASABONA, 2002a: 292.

¹²²³ DÍAZ REVORIO, 2008:104.

¹²²⁴ RODOTA, op. cit, 59. orr.

erredukzionismo eta deskonposatzea¹²²⁵ eragin dezake. Norbanako bakoitza izaki arrazional eta libre bezala tratatu beharrean, aztergai ditugun teknologia berriek norbere identitatearen eta autodeterminazio gaitasunaren ukapena ekarri dezakete, pertsonak helburu zehatz batzuk lortzeko beharrezkoak diren objektu soil bezala tratatuz. Datu pertsonalen (horien artean datu genetikoak) atzean dauden interes gero eta garrantzitsuagoak, esate baterako, *gure datuak gara* edo *gure ADN-a gara* bezala tratatzea bultzatu dezake, pertsona bakoitzak gizaki bezala duen pertsonalitate eta duintasunaren erabateko hutsaltzea ekar lezakeen inguruabarrak. Pertsonak beren datu genetiko edo informazio pertsonalaren arabera murriztuak izan daitezkeen egoera posible horiez jakitun, arauketa normatibo desberdinek horrelako jarrerak debekatu egiten dituzte¹²²⁶. Datozen orrietan, bioteknologiak alde batetik eta IKTeak bestetik giza duintasunaren ikuspegitik eragin ditzaketen erronkak identifikatu eta ikuspegi normatibo batetik beroiei nola erantzuten zaien azaltzen da.

III.1.B. Giza duintasuna, bioteknologiaren erabileraren ikuspegitik

Kapitulu honen hasieran azaldutakoari jarraiki, duintasuna gizabanako orok, pertsona gisa, berezkoa duen ezaugarria da. Giza duintasunak, beraz, pertsonen gorputzaren ere aintzat hartzen du: giza gorputza ezin da “zerbait” bezala tratatu, “norbait” bezala baizik¹²²⁷. Giza duintasunak pertsonen gorputzaren osaketa genetikoa ere babesten du, norbanako bakoitzaren identitate indibidualaren ezaugarri bereizgarria dena¹²²⁸. Norbanakoen ezaugarri genetikoek giza duintasunarekin duten harremanaren intentsitatearen arabera, hiru korrante doktrinal desberdinu daitezke, jarraian azaltzen direnak.

¹²²⁵ FERRER, 2005: 172; RODOTA, cit.

¹²²⁶ Giza genoma eta eskubideen UNESCOren Hitzarmenaren arabera, giza duintasunak norbanako bakoitzaren izaera propioa eta aniztasuna errespetatzea eskatzen du, norbanakoak beren ezaugarri genetikoetara ez murriztearekin batera (2.a art.). Estatu mailan, datuen babeserako lege organikoak (DBLO) datu pertsonalen tratamendutik hiritarren pertsonalitatearen balorazioan oinarri duten egintza administratiboak edo erabaki pribatuak hartzea galarazi egiten du, eta erabaki horiez eraginda geratzen diren hiritarrek berau aurkatzeko eskubidea dute (DBLO, 13.2 art.).

¹²²⁷ TALAVERA FERNÁNDEZ, 2004: 249.

¹²²⁸ Giza duintasunaren eta identitate pertsonalaren arteko harreman hori biomedikuntzaren erabilerari buruz onartu diren arau desberdinetan hauteman daiteke, besteak beste Europar Kontseilu mailan onartutako *Convenio sobre Derechos Humanos y Biomedicina* (1997) izenekoaren 1. Artikuluan: “*Las partes en el presente Convenio protegerán la dignidad y la identidad de todo ser humano (...)*”, edo Espainia mailan, 14/2007 Legearen 1.1 artikuluan: “*Esta Ley tiene por objeto regular, con pleno respeto a la dignidad e identidad humanas (...)*”.

III.1.B.a. Gizakion ezaugarri genetikoaren eta giza duintasunaren arteko harremana: doktrinaren hiru korranteak

Gizakiak berezkoak dituen inperfekzio eta urritasunak, horiek gainditzen saiatzeko gaitasun potentzial naturalekin batera, giza duintasunaren eta gizatasunaren berezko elementuak direla¹²²⁹ interpreta liteke. Norbanako bakoitzak berezkoak dituen inperfekzio natural horiek eraldaketa genetikoaren bidez artifizialki gainditzeko edozein interbentzio beraz, logika horri jarraiki gizakiaren berezko gizatasun eta duintasunaren aurkakoak kontsideratzen dira, gaixotasun genetikoak sendatze helburu dutenak barne¹²³⁰. Postura hori defendatzen dutenen artean, *Dignitarian Alliance* izeneko korrantea aipatu daiteke. Tradizio filosofiko, erlijioso eta politiko desberdinak (esate baterako, katolikoak, kantiarrak edota komunitarianismoaren jarraitzaileak) biltzen dituen korrante horrek, giza duintasunak autonomia indibidualaren muga hertsitu gisa jardun behar duela defendatzen du, eta beraz, teknologia berrien erabileraren muga bezala (*human dignity, as constraint of new technologies*¹²³¹). Testuinguru horretan, korrante kontserbatzaile horren helburua honakoa da: teknologia berrien laguntzaren bidez gizakion gorputzean gauzatzen diren hainbat praktika debekatzea (terapia genetikoez gain, abortua, eutanasia edo lagundutako suizidioa).

Jarrera doktrinal horren beste muturrean utilitaristak kokatzen dira, posthumanismoaren defendatzaileak¹²³². Mugimendu horrek gizakion gorputz, adimen edota gaitasunen hobekuntza artifiziala defendatzen du, alegia, gizakiak espezie bezala dituen gabezia genetiko eta biologikoak gainditu eta perfekzio egoera batera eraman ditzakeen hobekuntza. Korrante horren esanetan, autonomia indibidualaren balioa guztiz libre eta xedagarria da. Gizaki orok norbere hautapen propioa libreki egin ahal izateko gaitasuna du eta beste gizakiek hautapen hori errespetatzeko betebeharra dute (*human dignity, as empowerment of new technologies*¹²³³).

Korrante utilitaristak planteatutako interpretazio horri kritika desberdinak egin dakizkioke. Autonomia pertsonala, duintasun balioaren adierazpena izanik, ezin daiteke balio guztiz libretzat kalifikatu, interes kolektiboek, giza duintasunaren balioak berak eta beste pertsonen eskubideekiko errespetuak mugatu egiten baitute. Giza duintasuna, gizakiok berezkoa dugun aldetik, gizaki izatearen ideiarekin lotu beharra dago halaber; alde horretatik, uko egin ezin dakioken oinarritzko balioa da. Utilitaristek defendatzen duten giza hobekuntzak gizakion berezko ezaugarri naturalen aldaketa dakar, duintasunaren ukalezintasun baldintza horrekin apurtzen duen gizakion

¹²²⁹ BENDA, 1996: 125.

¹²³⁰ BENDA, op. cit, 135. orr; LAHALLE, 2003: 453-454. Terapia genetikoaren kasuan, azken autore horren aburuz helburu legitimo batek (gaixotasun bat sendaraztea) ez du jatorriz txarra den egintza bat on bihurtzen.

¹²³¹ BROWNSWORD, 2004: 215; 2011: 434-435.

¹²³² Gizakion garapen eugenetikoa defendatzen duten posthumanisten artean Peter Sloterdijk filosofoa aipatu daiteke. Gizakion eta makinaren arteko bereizketa defendatzen duen ikuspegi humanistaren aurrean, autore honek gizakiaren existentzia bermatzeko makinaren eta gizakien arteko elkarrekikotasun harremana beharrezkoa dela arrazoitzen du. Autore honen ideiei buruz, besteak beste, VÁSQUEZ ROCCA, 2005.

¹²³³ BROWNSWORD, op. cit.

instrumentalizazioa¹²³⁴. Norbanakoek beren identitate pertsonala jatorrizko naturaltasuna duen gorputz baten gainean eraiki behar dute. Kontrako kasuan beraz, gorputz baten gainean eraikitzen den identitate artifiziala ezin da naturala kontsideratu. Identitate artifizial hori giza duintasunaren esentziaren aurka doa¹²³⁵. Bestalde, gizabanakoen gorputzasunaren jatorrizko naturaltasun horren eraldaketek, duintasunaren dimentsio indibidualaz gain, duintasunak izan dezakeen zentzu kolektiboari ere eragiten dio. Espezie bereko izaki autonomo bezala norbanakoek duten duintasuna harreman sozialak berdintasun plano batean aurrera eramateko ezinbesteko baldintza da: bata besteari gizaki bezala zor diogun aintzatespenaren oreka elementua da¹²³⁶. Norbanakoen gorputzasunaren ezaugarri genetiko edo biologikoen hobekuntza artifizialak beraz, harreman sozialak berdintasunean aurrera eramateko eta gizateriaren parte garen kide bezala elkarri (eta hurrengo belaunaldiei¹²³⁷) zor diogun errespetuaren baldintzarekin apurtzea dakar¹²³⁸. Azkenik, norbanakoen jatorrizko gorputzasunaren ezaugarri naturalen aldaketa artifizialek etorkizuneko belaunaldien osasunean izan ditzaketen efektu kaltegarriak buruzko ziurgabetasun zientifikoa da nagusi. Alde horretatik, giza duintasunaren balioaren eta arreta printzipioaren prismatik aztertuta, hurrengo belaunaldiengan aldaketa genetikoak eragin ditzaketen tratamendu genetikoak debekatu egin behar dira¹²³⁹.

Dignitarian Alliance korronteak eta doktrina utilitaristak giza duintasun eta autonomia pertsonalen inguruan egiten duten muturreko interpretazioen aurrean, ingeniariak eta giza duintasunaren arteko harremana ezin daiteke beltz edo zuriz margotu. Horren ordez, ingeniariak genetikoaren erabilera kasu konkretu bakoitzean jokoan dauden interes eta ondasun juridikoen analisia egin behar da. Kasu batzuetan, duintasunaren balioaren zentzuak zenbait praktika guztiz debekatzea dakar. Beste batzuetan aitzitik, praktika horiek aurrera eramatea posible izan daiteke, duintasunari nola eragiten dioten aztertu eta praktika horren egikaritzan duintasuna errespetatua izan dadin zein neurri juridiko egokitu behar diren hausnartu ostean. Giza bioteknologiari buruzko arauaketa normatiboaren kasuan, erdibideko jarrera hori onartu dela ikusi daiteke. Hala eta guztiz ere, merkatuaren interes ekonomikoek arauaketa horren egiturapenean eragin (negatibo) garrantzitsua izan dute, hurrengo lerrootan azaltzen den bezala.

¹²³⁴ MORENTE PARRA, 2011: 45.

¹²³⁵ RODOTA, 181-182.

¹²³⁶ Jürgen Habermas filosofoaren arrazoiketa da, honako testutik eratorritakoa: ZURRIARAIN, 2005.

¹²³⁷ Teknologia berrien, giza duintasunaren eta etorkizuneko belaunaldien inguruko planteamendu horri buruz, EVANS, 2009: 94.

¹²³⁸ Utilitaristek planteatzen duten giza hobekuntzak gizakien arteko desberdintasun egoerak eragingo lituzke, hots, hobetutako eta hobetu gabeko gizakien artean diskriminazio egoera anitz emango lirateke.

¹²³⁹ MATHIEU, 1999:106. Ingeniaritza genetikoaren eta arreta printzipioaren inguruan Romeo Casabonaren monografia ikusi (ROMEO CASABONA, 2004).

III.1.B.b. Giza duintasuna eta bioteknologien marko normatiboaren oinarriko edukiak

Azken hamarkadetan garatu diren bioteknologiak izaki bizidunen misterio genetikoak ulertu eta manipulatzeko gaitasun teknikoa gero eta handiagoa dute, helburu terapeutiko, komertzial edo industrialerako aplikazioetan emaitza dutenak. Giza bioteknologien garapenak duintasunaren prismatik planteatu ditzakeen erronkez jakitun, maila geografiko desberdinetan barrena teknologia horien erabilerari buruzko *corpus* normatiboa egituratzen joan da, indar juridiko loteslerik ez duen NBERen UNESCO erakundeak 1997an onartutako Giza Genoma eta Giza Eskubideak Adierazpen Unibertsaletik hasita¹²⁴⁰. Giza duintasuna bioetikaren inguruan egituratzen doan corpus normatibo horren printzipio matrize edo fundatzailea¹²⁴¹ da. Datozen lerrootan beraz, giza duintasunaren babesaren ikuspegitik bioteknologien erabileraren inguruan eraikitako arauketa normatiboaren eduki garrantzitsuenen azalpena egiten da.

Dagoeneko adierazi den bezala, zelulen ADNak edo giza genomak gizaki bakoitzaren informazio hereditario osoa gordetzen du bere barnean: espezie bezala gizateri osoak partekatzen dugun informazio genetikorik oinarritzakoa. Alde horretatik, UNESCOren Adierazpen Unibertsalaren esanetan giza genoma giza espeziearen, aniztasun genetikoaren eta berezkoa dugun duintasunaren oinarria da; hots, “gizateriaren ondarea” da, nahiz eta jarraian “zentzu sinbolikoan” ñabardura eransten den¹²⁴². Giza genoma gizateriaren ondarea “zentzu sinbolikoan” dela adierazteak, giza genomaren zehaztugabetasun kontzeptuala dakar: zentzu sinbolikoaz harago, gizateriaren ondarea al da ala ez? Nire erantzuna baiezkoa da, giza genomak giza espezie bezala ditugun ezaugarri genetikoei eta gure jatorri komunari buruzko informazioa gordetzen baitu bere barnean. Gizakion berezko duintasunak, dimentsio indibidualetik harago, gizateria bere osotasunean barne hartzen duen meta-printzipio¹²⁴³ gisa jarduten du. Giza espeziearen partaide gisa norbanako bakoitzak bere gorputzean gordetzen duen ondare genetiko horrek duintasunarekin duen harreman hori aintzat hartuta, giza genomari eragin diezaioketen erabileretan duintasunaren ponderaezintasun, bortxa-ezintasun eta xedaezintasun ezaugarriak kontuan hartu behar dira. Horren ondoriorik esanguratsuenetakoa giza genomaren patentagarritasunaren debekua izan beharko litzateke. Hala ere, giza genomaren atzean dauden interes pribatuek bultzatuta, aurrerago azaltzen den bezala,

¹²⁴⁰ UNESCOren Adierazpen Unibertsalaz gain (1997), NBEk giza klonazioari buruzko hitzarmena onartu zuen 2005ean. Europar Kontseilu mailan Giza Eskubide eta Biomedikuntzaren Hitzarmena (1997) eta urtebete beranduago (1998) onartutako hitzarmen horren protokolo gehigarria aipatu daitezke, ernalketa helburuetarako giza klonazioa debekatzen duena. Europar Batasunean, duela urte gutxi indarrean sartu den EBOEGek 3. artikuluan giza bioteknologiak zerikusia duten zenbait erabilera espresuki debekatzen ditu. Espainiar Estatuak giza bioteknologiak zerikusia duten praktikei buruz onartu dituen arauen artean bi aipatu daitezke: 14/2006 Legea, lagundutako giza-ernalketa teknikei buruzkoa, eta 14/2007 Legea, ikerketa biomedikoari buruzkoa.

¹²⁴¹ MATHIEU, 2001a: 697-698.

¹²⁴² UNESCOren Adierazpen Unibertsala, 1. art: “*El genoma humano es la base de la unidad fundamental de todos los miembros de la familia humana y del reconocimiento de su dignidad intrínseca y su diversidad. En sentido simbólico, el genoma humano es el patrimonio de la humanidad*”.

¹²⁴³ THOVENIN, 2001: 113; EDELMAN, 1997: 187.

aruketa normatibok debeku absolutua izan beharko litzakeen hori (patentagarritasuna) debeku erlatibo bezala egituratzen den.

Kapitulu honen II.1 atalean azaldutakoa gogora ekarriz, norbanakoen identitate pertsonalean funtsa duten diskriminazioak giza duintasunaren aurkakoak kontsideratzen dira, 1. mailako diskriminazio bezala definitu direnak. Ideia horrekin lotuta, ezaugarri genetikoak norbanako bakoitzak duen identitate pertsonalaren paregabatasunaren berezko elementuak direnez, norbanakoen ezaugarri genetikoetan funtsa duten diskriminazioak 1. mailakoak kontsideratzen dira. Zentzu horretan, giza bioteknologiari buruzko aruketa normatibo desberdinek giza duintasunaren aurkako praktika diskriminatzaile horiek berariaz debekatzen dituzte¹²⁴⁴.

Ingeniaritza genetikoak, bestalde, gizakien klonazio artifiziala posible egiten du; hots, giza geneak kopiatzea. Zehazki, bi giza klonazio desberdinu daitezke: ernalketa helburuz egindako klonazioa eta helburu terapeutikodun klonazioa. Ernalketa klonazioa gizaki bat bere osotasunean klonatzean datza, pertsona baten kopia artifizial bat eraikitzean. Aitzitik, klonazio terapeutikoan pertsona baten zelulak edo ehunak klonatu egiten dira tratamendu terapeutikoetan edo organoen birsorkuntzan erabiltzeko helburuz. Terapia genetiko horiek somatikoak edo germinalak izan daiteke. Terapia somatikoaren kasuan, gaixo dagoen pertsonarengan egindako aldaketa genetikoak ez dira hurrengo belaunaldietara transmititzen; terapia germinalen kasuan bai ordea. Giza bioteknologiaren marko normatibo desberdinek aho-batasunez debekatzen dituzte ernalketa helburuz egindako giza klonazioa¹²⁴⁵, klonazio terapeutiko germinala¹²⁴⁶, jaiotzera doazen pertsonen sexu aukeraketa¹²⁴⁷ edo pertsonen hautaketa¹²⁴⁸, edozein praktika eugenetikoko barne hartuta. Debeku horiek ikusita, ordenamendu juridiko guztiek korrante utilitaristek defendatzen dituzten praktika genetikoak duintasuna urratzen dutela interpretatzen dute.

Benetako gatazka, ordea, klonazio terapeutiko somatikoaren kasuan gertatzen da. Giza Klonazioari buruzko NBEren 2005eko Adierazpenak (ez du indar juridiko loteslerik) klonazio tipologia ororen erabilera debekatzen du¹²⁴⁹, beren helburua edozein izanik ere, klonazio terapeutiko somatikoaren barne. Zentzu horretan, NBEko Adierazpenak egiten duen giza klonazioaren debeku osoak gaixotasun genetikoaren tratamendu terapeutikoari ateak itxi egingo litzakioke, aldaketa genetikoek (nahiz eta somatikoak izan) giza duintasuna urratzen dutela ulertuta. Giza duintasunaren interpretazio zurrin hori *Dignitarian Alliance* izeneko korrontean bildu daitezkeen mugimendu desberdinek babesten dutena da. Europar

¹²⁴⁴ Ikusi UNESCOren Adierazpena, 6.art; Europar Kontseiluaren Hitzarmena, 11. art; 14/2007 Legea, 6. art.

¹²⁴⁵ NBE mailan, UNESCOren 1997ko Adierazpen Unibertsala, (6. art.) eta NBEren giza klonazioari buruzko 2005eko Adierazpena. Europar Kontseiluan, 1998ko protokolo gehigarrian (1. art) . Europar Batasunean, EBOEGen (3.2 art.) eta Espainia mailan, 14/2006 Legean (1.3 art.).

¹²⁴⁶ UNESCOren 1997ko Adierazpen Unibertsala, (24. art.), Europar Kontseiluaren biomedikuntzari buruzko 1997ko Hitzarmena (13. Art.), EBOEG (3.2 artikulua praktika eugenetikoko debekatzen ditu) eta Espainia mailan patenteen 11/1986 Legeak (5.1.b) art.).

¹²⁴⁷ Europar Kontseiluaren biomedikuntzari buruzko 1997ko Hitzarmena, 14. art.

¹²⁴⁸ EBOEG, 3.2 artikulua 2. puntua: “*la prohibición de las practicas eugeneticas, y en particular las que tienen por finalidad la selección de las personas*”.

¹²⁴⁹ Ikus Declaración de las Naciones Unidas sobre la Clonación Humana (2005).

Kontseilu, Europar Batasun edo Espainia mailan giza bioteknologiaren erabilera arautzen duten testu normatiboek, aitzitik, ez dute klonazio terapeutiko somatikoa debekatzen: terapia genetiko somatikoak norbere gorputzean eragiten dituen aldaketa genetikoek pertsonaren berezko identitatea eta duintasuna urratzen ez dutela interpretatu dute, hurrengo belaunaldietara transmititzen ez diren aldaketa genetikoak izanik, gizateriaren titulartasuneko den giza genoma ukitua geratzen ez delako. Gaixotasun genetiko larria duen pertsona baten kasuan esate baterako, bere bizitza babesteko helburuz gaixotasun hori sendatzeko gorputzean egindako aldaketa genetikoek giza duintasuna urratzen ez dutela arrazoitu daiteke, aldaketa genetiko horiek hurrengo belaunaldietara ez baitira transmititzen.

Helburu terapeutikoetarako egindako ikerketa genetikoetan enbrioak erabiltzen direnean, enbrioak gizakiak bihurtzeko potentzialtasuna dutela kontuan hartu behar da. Kontsekuenteki, pertsona bihurtzeko potentzialtasuna galdu duten enbrioekin soilik ikertu daiteke¹²⁵⁰; Espainiar Estatuaren kasuan, lagundutako giza ernalketatik soberan geratzen diren enbrioekin, horien jabeek dohaintzan ematen dituzten kasuetan¹²⁵¹.

Gizakien gorputzasuna beren identitate pertsonalaren berezko osagaia izanik, giza duintasunaren errespetuak gizakien gorputzeko edozein atalen xedaezintasuna dakar. Alegia, gorputzeko atalen irabazpidezko erabilera debekatua¹²⁵² dago, giza genomarena barne¹²⁵³. Giza genomari buruzko arauaketa tentuz aztertuz gero, ordea, giza bioteknologiaren atzean dauden interes pribatuak eta merkatuaren logika giza genomaren xedaezintasun baldintza horri gailendu egin zaiola ondorioztatu daiteke. Giza genoma zuzenean patentagarria ez bada ere, patenteen arauaketa komunitarioak (98/44 Zuzentaraua) eta estatalak (11/1986) giza genomatik eratorritako informazioa zeharkako moduan patentatzea ahalbidetzen dute, giza duintasunaren xedaezintasun baldintza hori ustez urratzen ez den modu batetan. Patenteen arauaketa komunitario eta estatalak giza gorputza patentatu ezina dela xedatzen dute, bere eraketa eta garapenaren fase desberdinetan, gorputzeko elementuetako baten aurkikuntza edota gene baten sekuentzia osoa edo partziala barne¹²⁵⁴. Giza genomaren irabazpidezko erabileraren debekuarekin bat datorren arau hori, ordea, beste arau batekin batera interpretatu behar da, duintasunaren ikuspegitik eztabaidagarria dena: bere ingurune naturaletik isolatutako materia biologikoa edo prozedura tekniko baten bidez ekoizitakoa, nahiz eta egoera naturalean jada existitu, patentagarria da¹²⁵⁵. Giza genomatik eratorritako informazio hori patentatu ahal izateko,

¹²⁵⁰ Auzitegi Konstituzionalak duela ia bi hamarkada adierazi zuen bezala (AKE 212/1996, 8. o.j.), ikerketa zientifikorako dohaintzan ematen diren enbrioak hilda egon behar dira edo gizaki bihurtzeko bideragarritasuna galduta izan behar dute (*no viables*).

¹²⁵¹ Ikus 14/2006 Legea.

¹²⁵² Ikus Europar Kontseiluaren biomedikuntzari buruzko 1997ko Hitzarmena (21. art.) edo EBOEG (3.2 art.).

¹²⁵³ UNESCOren 1997ko Adierazpen Unibertsala, 4. art.

¹²⁵⁴ 98/44 Zuzentaraua (5.1 art.) eta 11/1986 Legea (5.4. art.).

¹²⁵⁵ 98/44 Zuzentaraua (5.2 art.) eta 11/1986 Legea (5.4. art.).

informazio genetiko hori betiere aplikazio industrial zehatz bat lortzera bideratu behar da, patentean zehaztu beharko dena¹²⁵⁶.

Patenteen arauketa horiek eraikitzen duten logikari jarraituz, giza genoma (ADNa) bere egoera naturalean ez da patentagarria: aurkikuntza bat da, ez da asmakuntza bat. Hala ere, giza gene bat prozedura tekniko baten bidez bere inguruetik isolatzea lortzen denean edota prozedura tekniko baten bidez ekoizten den momentutik aurrera, naturaren deskribapena izateari utzi eta elementu artifiziala bihurtzen dela interpretatzen du araudiak, aurkikuntzaren esparrutik asmakuntzaren eremura salto egitea ahalbidetuz. Argudio horri jarraiki, giza genoma pertsona bakoitzaren indibidualtasunaren iturria eta beraz duintasunaren oinarri ontologikoa bere “habitat naturalean” dagoenean kontsideratzen da soilik, genotipoak (informazio genetikoa) eta fenotipoak (ingurugiro zehatz batetan genotipoak eskuratzen duen adierazpena) norbanakoen gorputz barnean elkari eragiten diotenean¹²⁵⁷. Behin giza gorputzetik ateratzerakoan genotipoaren eta fenotipoaren arteko elkarrekotasun harreman hori galdu egiten da, hots, giza genoma duintasunaren oinarri ontologikoa kontsideratzeko derrigorrezko harremana desagertu egiten da (genotipo-fenotipo). Izan ere, giza genoma gorputzetik atera eta isolatzean ADNaren genotipoa besterik ez da mantentzen. Arrazoiketa hori oinarri hartuta beraz, patenteen arauketak giza genomatik eratorritako informazio genetikoan oinarritutako aplikazio industrialek giza duintasuna urratzen ez dutela eta beraz patentagarriak direla argudiatzen du.

Patenteen legeak egiten duen interpretazio hori kritikagarria eta erabat pragmatikoa da. Giza genomaren barnean gordetako informazio genetikoa norbanako bakoitzaren paregabatasunaren eta giza espezie bezala komunean dugun ondare genetikoaren adierazpena izanik, giza duintasunak informazio genetiko horren gainean inolako irabazpidezko jarduerarik aurrera ez eramatea exijitzen du. Ondorioz, giza genomaren kasuan, patenteen arauketak, ponderaezina den giza duintasunaren balioa hutsaltzearen kontura jabetza intelektualeko eskubideak babesten ditu, industria bioteknologikoaren interes pribatuen mesedetan.

III.1.C. Giza duintasuna, IKTen erabileraren ikuspegitik

Norebere pertsonalitatearen garatze prozesuan, norberak bere identitate propioa askatasun osoz eraikitzeke ahalmena izan behar du. Zentzu horretan, gizabanako bakoitzaren informazio pertsonala norebere identitatearekin zerikusi zuzena duen alderdi konkretua bat da, norebere pertsonalitatearen alderdi desberdinak adierazten dituen informazioa baita. Funtsean, gizabanakoek norebere identitatearekin zuzenean konektatuta dagoen alderdi hori kontrolatu eta bere gainean erabakitze gaitasun edo autonomia izan behar dute, autonomia pertsonalaren eta azken instantzian giza duintasunean adierazpen

¹²⁵⁶ 98/44 Zuzentaraua (5.3 art.) eta 11/1986 Legea (5.4. art.).

¹²⁵⁷ TALAVERA FERNÁNDEZ, 2004: 250-252.

gisa¹²⁵⁸. Informazio pertsonala norbanakoen pertsonalitatearen eta identitatearen parte den aldetik, gizabanako bakoitzaren gorputz fisikotik bereizita dagoen “gorputz elektronikoa¹²⁵⁹” bezala definitu daiteke. Azken hamarkadetan IKTek izan duten garapenaren ondorioz, informazio pertsonalaren jasotze, tratamendu eta transmisioaren teknifikazio eta automatizazioa izugarri hazi da. Informazioak erabateko garrantzia eskuratu duen gizarte batean bizi garen neurrian (informazioaren gizartean), orotariko interesek bultzatuta informazio pertsonalaren jasotze, tratamendu eta transmisio masiboa eta globala gertatzen da.

Alde batetik, interneten eta IKTen aurrerapenak ziber-espioitzaren garai oparo bati bide eman diote¹²⁶⁰. Azken urteetan ezagutzera eman diren espioitza kasuen ezaugarriak ikusita, George Orwell idazleak duela mende erdi baino gehiago idatzi zuen “1984” nobelan irudikatutako fikziozko Estatu zelatariaren zantzuak egun bizi dugun errealitatearekin gero eta gehiago datoz bat. Estatu desberdinetako zerbitzu sekretuek, segurtasun nazionalaren izenean, hiritarren mugimenduen uneoroko geolokalizazioa edota sare digitalarekin konektatuta dauden dispositibo bidez pertsonen arteko komunikazioen edukiak eta bestelako informazio pertsonalak monitorizatzeko gaitasuna dute. Halaber, zerbitzu sekretu nazionalak jarduera horiek kasu batzuetan sektore pribatuaren konplizitatearekin eramaten dituzte aurrera. “PRISM” izeneko espioitza programan esate baterako, AEBko gobernua *Microsoft, Apple, Google, Facebook* eta *Yahoo* bezalako enpresa zibernetiko erraldoien erabiltzaileen datu pertsonalak erabili zituen espioitza helburuetarako¹²⁶¹.

EBko Legebiltzarrak 2014ko martxoan argitaratu zuen informe batean¹²⁶² inguruabar horiek salatu egin zituen. Edward Snowden CIAko langile ohiak filtratutako informazioan eta peritu desberdinei enkargatutako informean oinarrituz, EBko Legebiltzarren informea AEBk eta EBko zenbait Estatu-kidek segurtasun nazionalaren eta terrorismoaren aurkako borrokaren izenean europar hiritarren gauzatutako espioitza masiboa gogor kritikatu du. Estatu horien inteligentzia-zerbitzuek mundu mailako irismena duten zaintza-sistema teknologiko oso aurreratu eta konplexuak erabiltzen dituzte. Zentzu horretan, zaintza masibo horiek inolako susmorik izan gabe edota inolako bereizketarik egin gabe eramaten dira aurrera, puntako teknologia horiek mundu osoko hiritarren komunikazioak jaso, bildu eta aztertu eta komunikazioen eduki-datueta edo kokapen-datueta sarbidea ematen baitiete¹²⁶³.

¹²⁵⁸ ABERASTURI GORRIÑO, op. cit, 265. orr.

¹²⁵⁹ RODOTA, 2010: 62.

¹²⁶⁰ LANZ RAGGIO eta LÓPEZ ALFRANCA, 2015: 142.

¹²⁶¹ Besteak beste, *The Guardian* egunkarian argitaratu zen [2015-06-18]:

<http://www.theguardian.com/world/2013/jun/06/us-tech-giants-nsa-data>

¹²⁶² Resolución del Parlamento Europeo, de 12 de marzo de 2014, sobre el programa de vigilancia de la Agencia Nacional de Seguridad de los EE.UU., los órganos de vigilancia en diversos Estados miembros y su impacto en los derechos fundamentales de los ciudadanos de la UE y en la cooperación transatlántica en materia de justicia y asuntos de interior (2013/2188(INI)).

¹²⁶³ EBko Legebiltzarren aipatutako ebazpena, 1. ondorioa.

Segurtasun nazionalak eta terrorismoaren aurkako borrokak ezin du inoiz ezaugarri horiek dituen espioitza programa masiborik justifikatu, zaintza sekretua, ez-selektiboa eta kasu askotan legearen aurkako dena. Zaintza mota horrek ez du inolako orekarik gordetzen balantzaren beste aldean kokatzen diren hiritarren oinarritzko eskubideekiko (pribatutasun eskubideak bereziki), segurtasunaren izenean eskubideek jasaten duten mugapenak ez baititu proportzionaltasun printzipioaren beharrezkotasun eta *sensu stricto* proportzionaltasun azpi-printzipioak inolaz ere betetzen¹²⁶⁴. Espioitza masibo horiek, gainera, legitimoak ez diren beste helburu batzuetarako ere erabiltzen dira (erabilera desbiderapena beraz), espioitza politiko eta ekonomikodun helburuetarako zehazki¹²⁶⁵.

Beste alde batetik, informazioaren gizarte honetan datu pertsonalen interes eta erabilera komertziala biderkatu egin da. IKTen garapen azkarrak enpresei pertsonen kontsumo perfil gero eta osatuagoak egituratzeko gaitasuna eman die. Norbanakoen profil digital osatu horiek lortzeak, gainera, enpresei kosteak aurreztu diezazkieke, kostu handiagoa duten merkatu azterketa gutxiago egitea ahalbidetzen baitie¹²⁶⁶. Ikuspegi komertzialetik datu pertsonalek duten garrantzia hain da handia, non enpresek beren erabiltzaileen datu pertsonalei buruz dituzten datu-baseen tamainak eta informazio kopuruak enpresa horien merkatu balioan zuzeneko eragina duten¹²⁶⁷. Sare sozialetan norbere zaletasun, iritzi edota jardueri buruzko informazioa beste erabiltzaileekin partekatzean, edota internet bidez nabigatzean IPak uzten duen arrastoak ikuspegi ekonomikotik oso errentagarria den informazio pertsonala eskaintzen die enpresei, nahiz eta datu pertsonalak babesten dituen marko normatiboaren aurkakoak izan daitezkeen praktika komertzialak izan¹²⁶⁸. Bestalde, giza duintasunak norbanakoen identitate pertsonalarekin eta horren alderdi diren datu pertsonalekin duen harremana kontuan izanik, informazio pertsonala irabazi ekonomikoak lortzeko objektu bezala erabiltzea giza duintasunaren xedaezintasun ezaugarriaren aurkako praktika dela arrazoitu daiteke¹²⁶⁹.

Norbanakoen autonomia pertsonala hirugarren pertsonen eskubideei edo komunitatearen interes orokorrei eragin diezaikekeen heinean mugatu egin badaiteke ere, mugapen horiek ezin dute autonomia pertsonalaren oinarritzko nukleoaren langa gainditu, giza duintasunak babesten duen gutxieneko edukia alegia. Segurtasun helburuak eta helburu komertzialak asebetetzeko asmoz, munduko hiritarrek beren pribatutasun esferan jasaten duten esku sartze horiek beren informazio pertsonalaren gainean izan beharko luketen jardute-gaitasunaren ukapena, eta funtsean, beren autonomia pertsonalaren erabateko hutsaltzea dakarte. Inguruabar horiek norbanakoen existentzia pertsonalaren eremuari eta giza duintasunari negatiboki eragiten diete¹²⁷⁰. Gizabanakoek beren

¹²⁶⁴ Ebazpenaren 5-6. ondorioak

¹²⁶⁵ 7. ondorioa.

¹²⁶⁶ SERRANO MAÍLLO, 2006: 226.

¹²⁶⁷ BARINAS UBIÑAS, 2013: 37.

¹²⁶⁸ 2015eko apirillean 25.000 erabiltzailek facebook sare sozialaren aurkako salaketa kolektiboa aurkeztu zuten Vienako auzitegi batean, beren datu pertsonalak legez kanpo erabili eta datuok AEBko Segurtasun Nazionalerako Agentziaren "PRISM" zaintza-programan erabiltzeagatik. Auzi horren ebazpena ikusteke dago oraindik, baina ez bairik gabe, EB mailan ondorio garrantzitsuak izan ditzakeen ebazpena da.

¹²⁶⁹ Datu pertsonalen xedaezintasunari buruz, ikus SCHWARTZ, 2004.

¹²⁷⁰ BENDA, 1996: 131-132; BROWNSWORD, 2011: 437-438; FERRER, 2005: 179; RODOTA, 2010: 58.

pertsonalitatearekin zerikusia duen informazioa nori, nola eta noiz transmititu erabakitzeke izan beharko luketen gaitasuna galdu dute: informazio pertsonala titularraren baimenik eta kasu askotan beren ezaguerarik gabe erabiltzen da, maiztasunez legitimoak ez diren helburuetarako. Oinarrizko eskubideen gutxieneko edukiak giza duintasunarekin eta beraz azken horren bortxa-ezintasunarekin duen zuzeneko lotura kontuan hartuta, eskubideen nukleo esentziala ukitu ezinezko eremua da, inolako ponderaketarik onartzen ez duena. Aztergai ditugun kasuetan ordea, norbanakoen bizitza pribatuaren esfera babesten duten eskubideen oinarrizko nukleo hori segurtasunaren eta beste interes batzuen mesedetan sakrifikatzen da, giza duintasunaren ikuspegitik onartu ezin daitekeena. Funtsean, praktika horietan parte hartzen duten botere publiko eta pribatuek norbanakoen identitate pertsonalaren adierazpen zuzena den informazio pertsonalaren erabateko instrumentalizazioa egiten dute, betiere esku-artean duten helburua asebetetzeko asmoz.

III.2. Oinarrizko eskubideak teknologia berrien iraultzaren testuingurupean

Oinarrizko eskubideen ikuspegitik aztertuta erronka garrantzitsuenak eragiten dituzten teknologia berri mota nagusiak bi dira. Alde batetik ADNaren aurkikuntzaren ostean etengabe haziz joan diren bioteknologiak eta bestetik, IKTak. Atal honetan, lehenik eta behin bi teknologia berri mota horiek oinarrizko eskubideen egikaritzari nola laguntzen dieten edo kontrari zein oztopo planteatzen ditzaketen laburki aztertzen da; jarraian, oinarrizko eskubideen teoria orokorraren harira teknologia berri horien erronkei nola erantzun behar zaien hausnartzen da; azkenik, herritar eta administrazio publikoaren arteko harremanaren eta parte hartze politikorako eskubideen prisma aztertuta IKT teknologiek eskaini ditzaketen onura posibleen analisisa egiten da.

III.2.A. IKTek eta bioteknologiak oinarrizko eskubideengan eta zuzenbidearengan dituzten eraginaren azalpen orokorra

Alde batetik, giza genomaren aurkikuntzari esker bioteknologiak izan duten bilakaeraren ondorioz, gizakion natura genetikoa ikertu eta manipulatzeko gaitasun tekniko berriak etengabe garatuz doaz, besteak beste, tratamendu genetiko eta manipulazio genetikorako aukeren biderkatzea, enbrioien bidezko ikerketa zientifikoa, gizakien klonazioa edota umeen sexua aukeratzeko ahalmen teknikoak. Bestetik, IKTek orokorrean eta internetek bereziki, hartu-eman sozialen jarduera esparrua mundu globalera hedatu eta “mikrokosmos digital” baten sorrera eragin du, muga fisiko, distantzia eta autoritate zentralik ezagutzen ez duen ziberespazioa¹²⁷¹. Web 1.0 bertsio estatiko eta ez parte-hartzaitetik, erabiltzaileen parte hartze aktiboa eta interakzio soziala ahalbidetu duen Web

¹²⁷¹ PÉREZ LUÑO, 2002: 104.

2.0 bertsio dinamikora emandako saltoari esker, erabiltzaileak interneteko edukien produzitzaile eta kontsumitzaile bihurtu dira aldi berean; hots, “protsumitzaile¹²⁷²”.

Gizakiekiko harremanean, bioteknologiak ate berri asko ireki dituzte eta osasunaren ikuspegitik aztertuta onura garrantzitsuak izan ditzaketela ez da zalantzan jartzen. Baina aldi berean, irekitako ate berri horiek giza duintasun, autonomia pertsonal, askatasun eta berdintasun balioak eta osotasun pertsonal, intimitate, autodeterminazio informatibo, pazientearen autonomia edota berdintasun eskubideak berrinterpretatu eta birplanteatu behar izatea eragiten dute.

IKTei esker norbanakoek beren oinarrizko eskubideak dimentsio fisikoaz harago doan mundu birtualean ere egikaritzen dituzte eta ondorioz, informazio eskubide (EK 20.1.d) art.) eta adierazpen askatasunaren (EK 20.1.a) art.) egikaritzarako sekulako instrumentuak bihurtu dira. Norbanakoek mundu digitalean informazioa modu azkar, erraz eta librean komunikatu eta jaso dezakete. Bai esfera pribatuan baina baita publikoan ere, informazio publikoaren publizitate aktiboa, berrerabilpena edota fitxategi eta erregistro publikoetara sarbide eskubidea (EK 105.b) art.) modu elektronikoa gauzatzea posible egiten dute. Administrazio eta herritarren arteko harremanaz harago, IKTak eremu judizialean ere oso baliagarriak izan daitezke kudeaketa judizialaren sofistikatzea lortu eta instantzia prozesal desberdinen eraginkortasuna areagotzeko, azken finean, norbanakoen babes judizial eraginkorrerako eskubidearen (EK 24. art.) egikaritzan efektu positiboak izan ditzakeen faktorea¹²⁷³. Bitarteko digitalek, bestalde, parte hartze politikorako eskubidearen (EK 23.1 art.) bestelako egikaritza-formatu berri, parte hartzaileago eta erosoagoak egituratzea ahalbidetzen dute, kapitulu honen III.2.C. azpi-atalean aztertzen den bezala.

Bestalee, adierazpen askatasun eta informazio eskubideen egikaritza digitalak beste giza eskubide batzuen gozamenurako elementu instrumental gisa jarduten du halaber¹²⁷⁴: hezkuntza eskubide, (EK 27. art.), kulturarako sarbide eta zientzien onurez gozatzeko eskubide (EK 44. art.) edota biltzeko eta elkartzeko eskubideena (hurrenez hurren EK 21. eta 22. art.). Horiez gain, bestelako eskubide eta eduki konstituzional multzo zabal batek, formatu digitalean egikaritzean, efektu positiboak izan ditzakete¹²⁷⁵: berdintasun eskubideak (EK 14. art.), jabetza eskubideak eta enpresa askatasunak (hurrenez hurren EK 33. eta 38. art.), ondarearen kontserbazioak (EK 46. art.) gazteriaren parte hartzeak (EK 48. art.), elbarri fisiko zein psikikoen integrazioak eta pertsona adinduen ongizateak (EK 49. eta 50. art.) edota kontsumitzaile zein erabiltzaileen interes eta eskubideek (EK 51. art.).

Eskubide askoren egikaritza optimizatzeke baliagarriak izatearekin batera, IKTek eta partikularki internetek ondasun juridiko, interes legitimo eta oinarrizko eskubideen

¹²⁷² BOWMAN eta WILLIS, 2003: 9. Ingeleseko “*prosumer*”, *producer* eta *consumer* kontzeptuen baturatik eratorritako hitz-jokoa.

¹²⁷³ Horri buruz ikus PÉREZ LUÑO, 2012.

¹²⁷⁴ Frank La Rue NBEren adierazpen askatasunaren berri emaila bereziak interneti buruz egindako informea ikusi, NBE, 2011: 22. atala.

¹²⁷⁵ BERNARDÍ GIL, 2005: 229.

aurkako erasoen efektuak eta irismen maila multiplikatzea ere badakarte¹²⁷⁶; norbanakoen pribatutasun esfera desberdinak babestea helburu duten intimitaterako eskubide, autodeterminazio informatiborako eskubide eta irudi eskubidearengan negatiboki eragin dezakete, baita ohore eskubidearengan ere. IKTen bidez manipulazio informatiborako aukerak ere biderkatu egiten dira¹²⁷⁷. Giovanni Sartoriren aburuz, IKTen bidezko (e)demokrazia eta (e)administrazioak informazio publikoaren fluxuen areagotze kuantitatiboa badakarte ere, ez da berdina gertatzen hiritarren ezagutza kualitatiboan: hiritarrek IKTen erabileraren bidez ez dute beren jakintza maila ezta beren gaitasun kritikoa lantzen, horren deuseztapena baizik¹²⁷⁸.

Teknologia berrien erronkak juridikoki kodifikatzeko premiak, halaber, inflazio edo ugaritasun normatiboa¹²⁷⁹ ekarri du. Teknologia berrien arauketek izaera teknikoa, konplexua eta hizkuntza juridiko askotan nahasia erabiltzen dute. Inguruabar horrek zuzenbidearen funtsezko printzipioa den ziurtasun juridikoari (EK 9.3 art.) negatiboki¹²⁸⁰ eragiten dio. Arauen hartzaile diren herritar xumeek arau tipologia horiekiko duten jakintza maila normalean baino baxuagoa izateaz gain, operatzaile juridiko desberdinek ere (botere legegileak, administrazioak eta botere judizialak) arazoak dituzte konplexutasun bereziko arau aniztasun hori egokitasunez ezagutu eta aplikatzerako orduan¹²⁸¹. Teknologia berriekin zerikusia duten arauen konplexutasun teknikoak, halaber, zuzenbidearen jardute-eremuaren hutsaltzea ere eragiten du, teknozientzia antolatua aldeko desplazamendu normatiboaren¹²⁸² bitartez. Arau horietako asko agintari publiko eskudunek lege edo erregelamendu forman onartzen badituzte ere (zuzenbidearen prozedura arauen arabera beraz), ikuspegi materialetik arau horien edukiek maiztasun handiz ezagutza zientifiko eta teknologikoari men egin eta estandarizazio erakundeek (askotan izaera pribatua dutenak, ISO kasu) ezarritako baldintza teknikoak barneratzen dituzte.

III.2.B. IKTen eta bioteknologien erronka teknologikoak, oinarrizko eskubideen teoria orokorraren ikuspegitik

III.2.B.a. Faktore teknologikoen eta oinarrizko eskubideen dimentsio sozialaren arteko harremana

Oinarrizko eskubideen dimentsio hirukoitzari buruz kapitulu honen II.2. atalean azaldutakoaren harira, oinarrizko eskubideen hiru erpinez osatutako kontzepzio integrala gogora ekar dezagun. Alde batetik, eskubideen izate-arrazoia edo justifikazio morala;

¹²⁷⁶ PÉREZ LUÑO, 2002: 105.

¹²⁷⁷ MURILLO DE LA CUEVA, 2004: 87-88.

¹²⁷⁸ SARTORI, 1998 (dokumentu honetan aztertua: PÉREZ LUÑO, 2014: 498-499). Egileak egindako analisi hori IKTen benetako hedapena baino lehenago kokatzen da eta bere kritikak bereziki telebistaren fenomenoari zuzentzen dizkio.

¹²⁷⁹ BYK 2003: 365.

¹²⁸⁰ PÉREZ LUÑO, 2012: 1016.

¹²⁸¹ Ibid.

¹²⁸² Horri buruz ikusi ESTEVE PARDO, 2009: 101-113.

bestetik, eskubideek beren babes eraginkorrerako ezinbestekoa duten dimentsio juridikoa, eskubideak ordenamendu juridikoetan positibatu eta beren berme sistema normatiboa egituratzea xede duena. Bi dimentsio klasiko horiei eskubideen dimentsio soziala erantzen zaie: testuinguru historiko bakoitzean, oinarritzko eskubideei eragiten dieten inguruabar ekonomiko, sozial eta kulturalak eskubideen egikaritzarako oztopo edo laguntza faktore gisa jardun dezakete edota ordura arte juridikoki babesten ez ziren ondasunak bermatzeko premia sortu eta “betiko” eskubideen adierazpen berriak edo eskubide berriak onartzea bultzatu dezakete. Dimentsio sozial horren isla eskubideek testuinguru historiko bakoitzaren errealitate aldakorrera egokitze berezkoa duten dinamikotasunean hauteman daiteke. Alegia, iraultza burgesen hastapenetatik hasita gaur egun bizi garen informazioaren gizartera arteko fase historiko desberdinetan etengabe aldatuz joan diren faktore sozioekonomiko eta kulturalen aurrean onartu diren giza eskubideen hiru belaunaldien garapen normatiboan.

Teknologia berriek jardute-eremu berriak irekitzen diote zuzenbideari orokorrean eta oinarritzko eskubideen azpi-sistema normatiboari partikularki, teknologia horiek erabiltzen hasi baino lehen arauketa juridikoaren objektu izatea behar ez zuten espazioak. Garapen zientifiko eta teknologikoekin zerikusia duten aurkikuntza eta asmakuntzek, natura ulertu eta kontrolatzetik gizakia manipulatu eta kontrolatzeko gaitasun teknikoa garatu dute. Teknologia berrien etengabeko garapen horrek, uneoro eta abiadura bizian aldatzen ari den errealitatearen paradigmatara eramanez gaitu, gizakion kanpo eta barne dimentsioari eta hartueman sozialerako moduei gero eta modu esanguratsuegi eraginez. Ondorioz, faktore zientifiko eta teknologikoek eskubideen teoria orokorraren ikuspegitik erronka garrantzitsuak dakartzate, eskubideen titulartasun, egikaritza forma eta berme sistemen hausnarketara eta birplanteamendura bultzatzen dutenak. Errealitate teknologiko aldakorraren eta oinarritzko eskubideen arteko doikuntza zeregin hori, aitzitik, eskubideen sustraietatik hasi behar da; alegia, oinarri azkenekoak diren funtsezko balio konstituzionalen eta horietatik eratorritako ondasun juridikoen hausnarketa eta berrinterpretazio jardueratik. Uneoro aldatuz doan errealitate teknologiko baten aurrean gaudela kontuan izanik, prozesu dinamiko horren emaitza oinarritzko eskubideen eguneratze koherente eta zentzuduna izan behar da, operatzaile juridiko desberdinen partetik errealitate horren etengabeko zaintza juridikoa¹²⁸³ burutzea exijitzen duena. Bestalde, prozesu horrek etorkizunera begirako ikuspegi normatiboa izatea eskatzen du, hori ezean, erronka teknologiko berriei anakronismo konstante batera kondenatutako mekanismo juridiko desegokien bidez erantzun beharko baitzaie.

IKT eta bioteknologiak bezalako teknologia berrien garapenak, konstituzionalismoaren ikuspegitik antzeko aurrekari normatiborik ez duten erronka berriak eragin ditu¹²⁸⁴. Europa mailan, giza bioteknologiari buruzko aipamen konstituzional esplizituak orain dela ez hainbeste urte onartu dira. Besteak beste, Suitzako

¹²⁸³ GARZÓN VALDÉS, 2003:32.

¹²⁸⁴ DÍAZ REVORIO, 2008: 89.

Konstituzioan¹²⁸⁵ (1999. urtekoa) eta Portugaleko Konstituzioan¹²⁸⁶ (1997. urteko erreforma konstituzionalean). Konstituzio horiek identitate eta pribatutasun genetikoarekin zerikusia duten esanbidezko enuntziatu normatiboak aurreikusi dituzte, duela gutxi indarrean sartu den EBOEGen antzeko zentzu normatiboan¹²⁸⁷. Espainiako Konstituzioan, alabaina, ez da teknologia berriei buruzko inolako erreferentzia normatiborik aurreikusten, askatasun informatiboari buruzko aipamen konstituzionalaz (EK 18.4 art.) aparte. Urritasun konstituzional horren ondorioz, bioteknologiaren eta oinarritzko eskubideen arteko harremanaren iturri juridikoak “zuzenbide konstituzional ez idatzian¹²⁸⁸” bilatu behar dira; hots, nazioarteko hitzarmen desberdinetan eta GEEA, EBJA eta Espainiako AKren jurisprudentzian.

Inguruabar horrek, aitzitik, ez du zertan esan nahi teknologia berriek oinarritzko eskubideen ikuspegitik eragindako erronka berriei eman beharreko erantzunak konstituzioaren berariazko erreforma beharrezkoa dutenik¹²⁸⁹ (erantzun horiek oinarritzko eskubideen garapen legalaren bidez eman daitezke) edota balio konstituzional berrien aintzatespena beharrezkoa denik: balio tradizionalen berrinterpretazioaren bidez (bereziki duintasun, berdintasuna, askatasuna eta justiziaren balioen bidez), teknologia berriek eragindako erronka berriei estaldura juridiko-konstituzionala nola eman hausnartu eta erantzunak egituratzea posible da¹²⁹⁰. Alegia, ordenamendu juridiko-konstituzionalaren oinarritzko balio tradizionalak balizkoak dira, horiei buruzko hausnarketa abiapuntu bezala hartuta, erronka teknologikoek zein printzipio normatibo orokorri eta ondasuni eragiten dieten aztertzeko, juridikoki ondasun berriak babesteko premiarik dagoen edo ez erabakitzeke, eta azken finean, “betiko” oinarritzko eskubideen adierazpen berriak (eskubidearen titular, eduki material edo berme sistemen aldaketa dakartenak) edo aldiz benetako eskubide berriak juridikoki aintzatesteke.

Romeo Casabona egileak, aitzitik, giza bioteknologiaren eremuan balio juridiko berriak eraikitzea beharrezkoa izan daitekeela argudiatzen du¹²⁹¹, nahiz eta balio berrien egiturapen teoriko-normatibo horretan teknozientzia antolatuaeren interes boteretsuen ondorioz balioen erlatibizazioa gertatu daitekeela ere ohartarazten duen. Zentzu horretan, balio berri horiek kasu bakoitzean portaera egokia zein izan behar den erabakitzeke azkeneko oinarri interpretatibo-deontologiko bezala jardun beharrean, garapen tekno-

¹²⁸⁵ Suitzako Konstituzioak 119 eta 120. artikuluetan barrena ingeniariaritzaren genetikoarekin lotutako praktiken egikaritzaren debekuen arauak luzea aurreikusi du.

¹²⁸⁶ Portugaleko Konstituzioaren 26.3 artikulua horrela dio: “*La ley garantiza la dignidad personal y la identidad genética del ser humano, en concreto en la creación, desarrollo y utilización de las tecnologías y en la experimentación genética*”. Iturria: ROMEO CASABONA, 2002a: 292.

¹²⁸⁷ Gogoratu, EBOEGek bere 3. artikuluan giza bioteknologiaren zerikusia duten zenbait erabilera espresuki debekatzen ditu.

¹²⁸⁸ DÍAZ REVÓRIO, op. cit, 89. orr.

¹²⁸⁹ HOEREN eta RODENHAUSEN, 2008: 155-156.

¹²⁹⁰ DÍAZ REVÓRIO, op. cit, 94. orr.; MURILLO DE LA CUEVA, op. cit, 92. orr.

¹²⁹¹ ROMEO CASABONA, op. cit, 284. orr.

zientifikoaren premiei mesede egiten dieten legitimazio elementuak bezala tratatzea saihestu behar da¹²⁹².

III.2.B.b. Eskubide “teknologikoak”, oinarrizko eskubideen espezifikazio prozesuaren prismetatik aztertuta

Doktrinaren zati batek “eskubide teknologiko” eta “eskubide bioteknologiko” bezalako adierak erabiltzen dituzte premia konkretu batzuei erantzuten dieten uestezko eskubide berriei erreferentzia egiteko, atal honetan aurrerago aztertzen den bezala. Eskubide berriez hitz egin ahal izateko, ordea, sortu berri diren eskubideen eta “betiko” eskubideen arteko muga zehatzak eta adierabakarrekoak marratu behar dira, kasu askotan konplexutasun teoriko handia izan ohi duen zeregina¹²⁹³. Benetako eskubideen, edota aitzitik, “betiko” eskubideen adierazpen berrien aurrean gauden aztertu ahal izateko, kapitulu honetan dagoeneko aipatu den espezifikazio prozesuan oinarritutako analisisia egin behar da. Analisi horren arabera, teknologia berriek planteatutako erronken aurrean honakoa erabaki behar da: juridikoki babesteko premia sortu duen ondasun berri baten aurrean gauden, edota aitzitik, dagoeneko juridikoki babesten den ondasun baten gaineko mehatxu edo sustapen aukera berrien aurrean gauden. Lehenengo kasuan, espezifikazio prozesu “sendoa” gertatzen da eta benetako eskubide berri baten sorrera dakar; bigarrenean ostera, “betiko” eskubideen titular, eduki material edo berme mekanismoen gaineko espezifikazio prozesu “leun” batez mintzo gara, “betiko” eskubideen adierazpen berriak eragiten dituen¹²⁹⁴.

Teknologia berrien eta giza duintasunaren arteko harremana aztertzean nabarmendutakoa gogora ekarriz, IKTen eta giza bioteknologiaren erabilerek eskubideen titulartasunaren dimentsio berriei buruzko gogoetak pizten dituzte. IKTen erabileraren bidez norbanakoek beren oinarrizko eskubideak bi plano desberdinetan egikaritzaren dituzte: plano fisikoan eta hura gainditzen duen plano birtualean. Ondorioz, norbanakoak bere pertsonalitatea bi plano desberdin horietan garatzen duenez, pertsona beraren bikoizketa¹²⁹⁵ eman eta pertsona fisikoak izatearekin batera, *pertsona numeriko* eta *birtuala*¹²⁹⁶ ere bihurtzen da. Bioteknologiaren kasuan, norbanakoek dituzten ezaugarri genetiko bakar eta berdingabeek gizakia *pertsona bioetiko*¹²⁹⁷ bezala defendatzeko premia sortu dezakete. Teknologia berrien ondorioz, beraz, norbanakoek beren pertsonalitatearen garapena eta oinarrizko eskubideen egikaritzea plano fisiko “tradizionalaz” harago doazen dimentsio berri batzuetan eramaten dute aurrera. Hala eta guztiz ere, horrek ez du esan nahi eskubideen titulartasunari dagokionez aplikazio eremu subjektiboaren benetako

¹²⁹² Ibid.

¹²⁹³ DÍAZ REVORIO, 2009: 180; PÉREZ LUÑO, 2014: 471.

¹²⁹⁴ Oinarrizko eskubideen espezifikazio prozesu “sendo” eta “leunari” buruz, ikus MORENTE PARRA, 2011: 200-201.

¹²⁹⁵ DÍAZ REVORIO, op. cit, 104. orr.

¹²⁹⁶ RODOTA, 2010: 59.

¹²⁹⁷ ROMEO CASABONA, op. cit, 292. orr.

zabalkuntzarik gertatzen denik: pertsonalitatearen garapena eta eskubideen egikaritzea dimentsio desberdinetan egikaritzen bada ere, eskubideen titularrak berberak izaten jarraitzen dute, hots, norbanakoak.

Giza genomaren kasuan, norbanako bakoitzaren paregabetasunaren isla izateaz gain, ADN molekulek beren barnean giza espezieak bere historian zehar izan duen bilakaerari buruzko informazio genetiko hereditarioa osotasunean biltzen dute eta ondorioz UNESCOk giza genoma gizateriaren ondare sinbolikoa deklaratu du¹²⁹⁸. Giza genoma beraz gizateriaren (oraingo eta etorkizunekoaren) ondasun kolektibo komuna den aldetik, biomedikuntzarekin zerikusia duten praktiken kasuan pertsoneri ez-erik oraindik jaiotze ez direnei ere babes juridikoa eskaintzen zaie: ikerketa-gai diren giza enbrioiei eta baita etorkizuneko belaunaldiei ere. Giza eskubideen kontzeptzio indibidualista tradizionalaren arabera eskubideen titulartasuna norbanakoena bada ere, horrek ez du esan nahi eskubideen bidez norbanakoek soilik beren interes indibidualak egikaritu eta babesten dituztenik. Norbanakoei dimentsio indibidualaz harago doan dimentsio kolektibo hori (gizateria kasu honetan) eskubideen egikaritze indibidualaren bidez babesteko gaitasuna aitortzen zaie, pertsona oro gizateriaren kide den heinean beste gizakiekiko duen lotura genetikoa oinarri hartuta¹²⁹⁹. Bestalde, eskubideen titulartasuna pertsona izatearen baldintzari lotuta dago, jaiotzerako momentuan lortzen den pertsonalitateari alegia¹³⁰⁰. Pertsona potentzialak (enbrioak eta etorkizuneko belaunaldiak kategoriatan horren barnean ulertuta) zentzu hertsian pertsonak ez diren aldetik eskubideen titularrak ezin kontsidera badaitezke ere, horrek ez du esan nahi giza genomaren ondare kolektibo horren harira kobertura eta babes legalik eman ezin zaienik¹³⁰¹, zuzenbideak babesten dituen ondasun juridiko bezala ulertuta.

Oinarrizko eskubideak urratzen dituzten subjektuen kasuan, teknologia berrien testuinguru honetan Estatuak eskubideen subjektu urratzaileak izatera pasa dira. Eskubideen urrapen publiko horiek ez dira hainbeste egiteen bidezkoak¹³⁰², ez-egiteen ondoriozkoak baizik: erroka zientifiko eta teknologiko berrien aurrean Estatuak oinarrizko eskubideen berme sistemak egokitasunez ez egituratzeagatik edota eskubideen babesera bideratutako ekimen normatiborik ez onartzeagatik (pasibotasun edo zuhurtziagabekeria normatiboa). Botere publikoek eskubide konstituzionalak babesteko mandatu konstituzionala duten neurrian, ez-egite horiek eskubideen dimentsio-objektiboa urratzen dute. Teknologia berrien hedapenak orokorrean zuzenbideari eta aztergai dugun kasu konkretu honetan oinarrizko eskubideen berme sistemari erroka eta mehatxu berriak planteatzen dizkienez, botere publikoek eskubideak errespetatu, babestu eta sustatzeko duten mandatura gogoan izan eta administratzaile gorenaren (*stewardship*) rola egikaritu

¹²⁹⁸ UNESCO, *Declaración Universal sobre el Genoma Humano y los Derechos Humanos* (1997), 1. art.

¹²⁹⁹ BYK, 2003: 376;

¹³⁰⁰ Espainiako Kode Zibilaren 29 eta 30. artikuluen arabera.

¹³⁰¹ MATHIEU, 2001: 700. Autoreak etorkizuneko belaunaldien interes legitimoen babesean bioteknologiaren praktiken kasuan arreta printzipioaren egikaritzak duen berebiziko garrantzia nabarmentzen du.

¹³⁰² Nahiz eta botere publikoen egiteen ondorioz gertatutako eskubideen urrapen kasu esanguratsurik ere baden, esate baterako, Estatuak (AEB buru) pertsona fisiko eta juridikoen gainean interes anitzen harira gauzatzen duten espioitza masibodun kasuak. Horietako batzuk kapitulu honen III.1.C atalean laburki azaltzen dira.

behar dute¹³⁰³, bai Estatu mailan, baita nazioarte mailan ere. Bestela esanda, botere publikoen zeregina teknozientzia antolatua botere pribatu eta batzuetan kontrolaezinaren aurrean kontra-balantza bezala jardutea izan behar da, teknologia berriek planteatutako eskubide urrapen posibleen aurrean oinarritzko eskubideen berme sistemak eskaintzen dituen mekanismoen mugak eta ahuleziak aztertu eta beroiek berregokitzea.

IKT eta giza bioteknologiak oinarritzko eskubideen titulartasunean eragiten dituzten efektuak behin aztertuta, “eskubide teknologiko” edota “eskubide bioteknologiko” horien atzean, espezifikazio prozesua oinarri hartuta, benetako eskubide berrien sorreraz hitz egin daitekeen, edota aitzitik, “betiko” eskubideen eduki materialaren eremua zabaltzen duten adierazpen berrien aurrean gauden aztertu behar da. Yolanda Gómez Sánchezen esanetan, “eskubide teknologikoak” bilakaera zientifikoaren eta teknikoaren ondorioa dira; bioteknologiarekin giza bizitzak eskuratu duen estatutu juridiko berriarekin zerikusia duten eskubideak alde batetik, eta IKTetatik eratorritako eskubideak bestetik¹³⁰⁴. Antonio-Enrique Pérez Luño egilearen iritziz, ordea, oinarritzko eskubideak egikaritzen diren ingurune teknologikoaren markoarekin nahastu egiten dira¹³⁰⁵. Gakoa ez da gizarte teknologiko honetan teknologia berriekin lotutako eskubide berriak sortzea, baizik eta oinarritzko eskubideen teoria oinarri hartuta, inguruabar teknologiko horiei juridikoki nola erantzun behar zaien hausnartzea. Espezifikazio prozesuaren harira, kasu gutxi batzuetan juridikoki babesteko premia duen ondasun berri baten aurrean egon gaitezke, eskubide berrien sorrera bultzatuko duena; baina beste kasu gehienetan, “betiko” eskubideen eduki materiala zabaltzen edo berregituratzen duten adierazpen berriak dira.

III.2.B.c. Eskubide “teknologiko” batzuen azterketa: eskubide berriak edo “betiko” eskubideen adierazpen berriak?

Dagoeneko azpimarratu denez, eskubide berri baten sorrerari aintzatespen juridiko zabala (giza eskubide baten nazioarteko onarpenera esate baterako) eman aurretik, eskubide horren izate-arrazoia (babesten duen ondasun juridikoa eta azkeneko oinarri dituen funtsezko balioak) zehaztu eta lotura harremanak izan ditzakeen “betiko” eskubideen arteko desberdintasunak eta mugak ongi definitzea ezinbestekoa da, hausnarketa eta interpretazio juridiko-teoriko sakon eta konplexuaren emaitza izan ohi dena. Datozen lerroen helburua ordea ez da “eskubide teknologiko” berrien edo eskubide “zaharren” adierazpen berrien aurrean gauden justifikatzeko arrazoiketa teoriko landua egitea (luze joko lukeen zeregina), eskubide berrien aldarrikapen normatibo edo doktrinal zehatz batzuen atzean eskubide berririk sortzeko benetako premiarik sumatzen den, edo aitzitik, “betiko” eskubideen bidez babestu daitezkeen egitateak diren laburki aztertzea baizik. Lehenik eta behin IKTen erabilerarekin lotutako eskubide berrien aldarrikapen batzuk

¹³⁰³ Rogerd Brownsword eta Thérèse Murphy irakasleek landutako kontzeptua, botere publikoek giza eskubideekiko egokitu behar duten berme posizioari buruzkoa. Ikus MURPHY, 2009: 36.

¹³⁰⁴ GÓMEZ SÁNCHEZ, 2004b.

¹³⁰⁵ PÉREZ LUÑO, 2014: 472.

aztertzen dira: autodeterminazio informatiborako eskubidea (dagoeneko ez hain berria), internetera sarrera izateko eskubidea eta IKTekin zerikusia duten beste eskubide espezifiko batzuei buruzko ekarpen doktrinalak. Bigarrenik, bioteknologiak medikuntza eremuan erabiltzean planteatzen diren eskubide berriak: identitate genetikorako eta intimitate genetikorako eskubidea.

Kapitulu honen VII.1.C. azpi-atalean sakontzen den bezala, informatikaren garapenak 80. hamarkadatik aurrera datu pertsonalen tratamenduaren automatizazioa teknikoki posible izatea eragin zuen. Kontsekuenteki, norbanakoek beren datu pertsonalen gainean izan beharreko autonomia bermatzeko premia juridikoa sortu zen, intimitaterako eskubide “klasikoak” bere titularrari eskaintzen dizkion ahalmen negatiboekin soilik asebetetzea posible ez zen premia. Ondorioz, datu pertsonalei ondasun juridikoaren izaera onartu eta beren babesa instrumentalizatzeko autodeterminazio informatiborako eskubidea aintzatetsi zen, datu pertsonalak modu espezifikoan babestu eta titularrari horiekiko benetako autonomia gaitasuna ahalbidetzeko asmoz. Autodeterminazio informatiborako eskubidea, datu pertsonalak legearen arabera tratatzen direla kontrolatzeko ahalmen negatiboez ez-ezik, titularrari bere datuen gaineko xedatze gaitasuna aitortzen dioten ahalmen positiboez (*habeas data* izenekoak) osatzen den eskubidea da.

Informazioaren gizartean bizi garen honetan, internet bezalako sare digital globala oinarrizko eskubide anitzen egikaritzea sustatzen duen instrumentu elektronikoa funtsezkoa bilakatu da. Alde horretatik, interneten erabilerak plano fisikoaz harago doan plano birtualean norbanakoek beren eskubideak askatasunez eta berdintasunean egikaritzeko aukera ireki du, beren pertsonalitatea plano birtualean ere garatzeko aukera ematen duena. Frank de la Rue NBEren adierazpen askatasunaren berriemaile bereziak 2011. urtean argitaratu zuen informearen¹³⁰⁶ arabera, internetera sarrera izateko aukera eraginkorrik ez dagoenean (herrialde eta pertsona txiroen kasuan) edo sarrera hori posible izanik ere arrazoi desberdinak direla medio normatiboki debekatu egiten denean¹³⁰⁷, askatasun eta berdintasunaren oinarrizko balioak eraginda geratzen dira. Ondorioz beste oinarrizko eskubide batzuen artean adierazpen askatasuna, informazioa jaso eta transmititzeko eskubidea eta hezkuntza eskubideen egikaritzea plano fisikora mugatuta geratzen dira. Oinarrizko eskubide horiek “plano digitalean” egikaritzeko aukerarik ez izateak eskubideen egikaritzea libre eta erreala hutsaltzen duenez, interneterako sarrera juridikoki babestutako ondasuna kontsideratua izatera pasa, eta NBEren planteamenduekin ados, interneten sarrerarako eskubidea giza eskubide berria bailitzan aintzatesteko argudio juridiko nahikoa egon daiteke: botere publikoak pertsonen duten interneterako sarrera ez oztopatu (abstentzio betebeharra) eta sarrera unibertsala sustatzeko politikak egokitzea bultzatzen dituen (jarduteko betebeharra) eskubidea.

¹³⁰⁶ *Report of the Special Rapporteur on the promotion and protection of the right to freedom of opinion and expression, Frank La Rue*. Aurrerantzean, NBE, 2011.

¹³⁰⁷ Frantziak eta Erresuma Batuak interneten bidez burututako jabetza intelektualeko eskubideen aurkako egitateak zehapen desberdinen bidez zigortzen dituzte, horien artean, interneteko konexioaren mozketaren bidez. Ikus NBE, 2011: 49-50. atalak.

IKTen etengabeko garapen eta hedapenaren harira, doktrinaren zati batek interneten sarrerarako eskubideaz harago doazen “eskubide teknologikoak” aldarrikatzen ditu. Besteak beste, IKTetara sarrera unibertsalerako edo inklusio digitalerako eskubidea, gizateriarentzako garrantzitsua kontsideratzen den informaziora sarrera izateko eskubidea, komunikazio publiko eta pribaturako bitarteko teknikoetara sarrera izateko eskubidea, eta kontsulta herritarrak bitarteko elektronikoen bidez ospatzeko eskubidea (“e-erreferenduma”)¹³⁰⁸. Eskubide horien eduki materialean sakondu gabe, aldarrikapen horiek errealitatean eskubide “klasikoen” egikaritzea forma berriei egiten diete erreferentzia, beste batzuen artean, adierazpen askatasun, informazioa jaso eta transmititzeko eskubide, artxibo eta erregistro publikoetara sarbidea izateko eskubideari edota parte hartze politikoarekin zerikusia duten eskubideei. Egikaritzea forma berri horiek ez dute oinarritzko eskubide berririk sortzen. Horren ordeaz, eskubide “klasikoen” eduki materiala zabaltzen duten adierazpen berriak dora¹³⁰⁹. Hori bai, eskubideen eduki materialaren adierazpen berri horien aurrean, kasuan kasuko eskubidearen berme sistemek aurreikusitako mekanismo juridikoak egokiak diren hausnartu, eta behar izanez gero, mekanismo berriak arautu behar dira.

Azken hamarkadetan giza bioteknologiak izan duten etengabeko garapenaren ondorioz, gizakion natura genetikoa manipulatzeko gaitasun teknikoak gero eta sofistikatuagoak dira. Praktika genetiko horien artean, instantzia normatiboek aho-batasunez debekatzen duten¹³¹⁰ ernalketa helburuzko klonazioak egitea teknikoki posible izan liteke, ezaugarri genetiko ia berberak¹³¹¹ dituen izaki berri bat sortu dezakeena. Legeak debekatzen dituen praktika posible horien aurrean, doktrinaren zati batek

¹³⁰⁸ Beste batzuen artean, ikus BUSTAMANTE DONÁS, 2010; GÓMEZ SÁNCHEZ, 2004b; LÓPEZ LÓPEZ eta SAMEK, 2009; ORTÉGA MARTÍNEZ, 2004. IKTetarako sarbiderako “eskubide teknologikoen” artean Javier Bustamante Donás egileak bi eskubide mota desberdintzen ditu, “bitarteko eskubideak” eta “meta-eskubideak”. Lehenik eta behin bitarteko eskubideak bermatu behar dira, hots, meta-eskubideen egikaritzea errealia posible egiten duten bitarteko teknikoak eduki ahal izateko eskubideak (bitarteko eskubideen zerrendapena, BUSTAMANTE DONÁS, op. cit, 5. orr.). Egileak gizarte teknologiko honetan meta-eskubideek norbanakoen errealizazio pertsonal osoago baten lorpenean lagundu dezaketela badio ere, ez ditu meta-eskubide horiek zertan ditzaten zehazten.

¹³⁰⁹ Francisco Javier Díaz Revoriok IKTetarako isilbidezko eskubide konstituzionalaren existentziaren inguruko analisia egiten du (DÍAZ REVORIO, 2009: 182-183). IKTak egungo gizartean oinarritzko eskubide anitzen egikaritzarako ezinbesteko instrumentu bilakatu direnez, nahiz eta IKTen sarrerarako eskubide konstituzional autonomorik ez existitu, oinarritzko eskubideekin duten lotura estu horrek bi ondorio juridiko dakartza. Alde batetik, IKTetara sarrera izateko eskubidea oinarritzko eskubide konstituzional batzuen eduki materialen parte bihurtzen da, eskubide horien dimentsio negatiboan. Botere publikoek eta partikularrek ezin dute, besteak beste, adierazpen askatasuna edota komunikazioen sekretutasunerako eskubidea plano digitalean egikaritzea oztopatu (abstenitzeko betebeharra). Bestetik, IKTen sarrera eskubideak alderdi prestazionala ere baduela defendatzen du, eskubide konstituzional desberdinen dimentsio juridiko-objektiboan barneratzen dena, baina ez ordea beren edukietan. Alegia, Konstituziotik ez da oinarritzko eskubide horien egikaritzarekin lotuta IKTen sarrera eskatzeko inolako eskubide subjektiborik eratortzen, botere publikoei eskubide horiek egikaritzea sustatzeko helburuz ekimen politiko eta normatiboak egituratzeko mandatu konstituzional orokor bat baizik.

¹³¹⁰ NBE mailan, UNESCOren 1997ko Adierazpen Unibertsala, (6. art.) eta NBERen giza klonazioari buruzko 2005eko Adierazpena. Europar Kontseiluan, 1998ko protokolo gehigarrian (1. art) . Europar Batasunean, EBOEGen (3.2 art.) eta Espainia mailan, 14/2006 Legean (1.3 art.).

¹³¹¹ Izan ere pertsona baten ezaugarri genetikoak %100 klonatzea teknikoki ezinezkoa da. Beraz, ezaugarri genetiko “substantzialki” berberak dituen izaki baten sorrera da ingeniari giza genetikoak posible egiten duena (DE MIGUEL BERRAIN, 2008: 262).

oinarrizko eskubide berri baten sorrera¹³¹² defendatzen du: nortasun genetikorako eskubidea. Eskubide horrek ondare genetiko indibiduala izeneko ondasun juridikoaren babesa instrumentalizatzen omen du, (duintasun eta askatasun balioetatik eratoritzen den ondasuna) pertsonalitatearen garapen librearekin lotura zuzena duena. Genetikoki norbera izateko, eta beraz, beste pertsonetikiko ADN substantzialki desberdina (eta originala) izateko eskubide subjektiboa da.

Identitate genetikorako eskubideak norbere nortasunaren garapen librearekin duen lotura-harremana oinarri hartuta, Alemaniako ordenamendu juridikoak aintzatesten duen nortasun pertsonalerako oinarritzko eskubidearen (Alemaniako Oinarritzko Legearen 2.1 artikuluan jaso) adierazpen berri bat kontsidera liteke. Espainiar Konstituzioan, ordea, nortasunaren garapen librea balio eta printzipio konstituzional gisa dago aintzatestia, ez oinarritzko eskubide gisa. Egitate horrek, hala ere, ez du zertan esan nahi identitate genetikorako oinarritzko eskubide konstituzional autonomo bat aintzatesteko premia juridikorik sortzen denik. Vanesa Morente Parra egileak kasu horretan juridikoki babestu beharreko ondasun berririk sortzen ez dela arrazoitzen du. Horren ordean, ondare genetiko indibidualerako ondasuna, errealitatean, norbere gorputzaren gaineko bortxa-ezintasun ondasun juridiko “klasikoaren” dimentsio fisiko, moral eta psikologiaren zehaztapen bat dela argudiatzen du¹³¹³, osotasun pertsonalerako eskubidearen bidez babesten dena beraz. Alde horretatik, identitate genetikorako eskubidea osotasun pertsonalerako eskubidearen oinarritzko nukleoan barneratzen den eduki konkretu bat kontsideratzen du; hori bai, identitate genetikokoak berezkoak dituen berezitasun eta konplexutasun elementuak direla eta, bere babeserako berme juridiko espezifikokoak egituratzea beharrezkoa da¹³¹⁴.

Informazio genetikoren¹³¹⁵ kasuan ere antzeko testuinguru batean aurkitzen gara. Giza genomak pertsona bakoitzaren ezaugarri genetiko hereditarioei buruzko informazioa gordetzen du, norbanakoaz gaindiko dimentsioa duena: informazio genetikokoak ez ditu soilik norbanakoaren banakotasun genetikoki buruzko datuak gordetzen, baita odol-lotura duten familia-kideei buruzko informazio genetikoa ere. Odol-loturadun familia-kideez gain, norbanakoen datu genetikokoak arbasoei, eta azken muturrean, giza espezieari buruzko informazio genetikoa ezagutzea ahalbidetzen dutenez, informazio genetikokoak duen izaera tridimentsionala¹³¹⁶ da: indibiduala, familiarra eta unibertsala. Norbanakoaz gaindiko dimentsioa duen informazio genetikoko hereditario hori oso baliagarria izan daiteke, besteak beste, norbanakoen eta familia-kideen gaixotasun genetikokoak tratatu ahal izateko edota bi

¹³¹² DE MIGUEL BERIAIN, op. cit, 270-271. orr; DÍAZ REVORIO, 2009: 137-140; RODRÍGUEZ DRINCOURT, 2002: 145.

¹³¹³ Identitate pertsonala bi alderdik osatzen dute, alderdi materialak eta immaterialak. Alde batetik alderdi materialak norbanakoaren itxura fisiko eta fenotipikoa babesten du. Bestetik, alderdi immaterialak norbere pertsonalitateari egiten dio erreferentzia eta alderdi hori osotasun psikologiko eta moralaren berezko elementua da. Identitate pertsonalaren alderdi material eta immateriala beraz osotasun pertsonalerako dimentsio fisiko, psikologiko eta moralaren bidez babesten dira (MORENTE PARRA, 2011: 418-419).

¹³¹⁴ Ibid, 432. orr.

¹³¹⁵ 29. Artikuluko Lan-taldeak informazio genetikoren eta datu pertsonalen tratamendua arautzen duen 95/46 Zuzentarauari buruzko analisi normatiboa egin zuen 2004. urtean. Ikus ARTICLE 29 Data Protection Working Party: 2004.

¹³¹⁶ DE MIGUEL SÁNCHEZ, 2007: 2.

pertsonen ADNaren azterketaren bidez familia-kideak diren edo ez genetikoki ziurtatzeko (aitatasun frogaren bidez esaterako). Informazio genetiko horrek norbanakoen eta familia-kideen osasun egoerari eta gaixotasun posibleei buruzko informazioa ematen duenez, osasun arazoiez harago doazen helburuetarako erabili daiteke; esate baterako, informazio genetikoan oinarritutako diskriminazio jarrerak bultzatu ditzaketen datu genetikoaren tratamenduetarako (pertsona bat lanpostu batetarako hartu/ez hartu erabakitzeko; seguru konpainiek aseguratu batekin kontratatu/ez kontratatu erabakitzeko).

Informazio genetikoak duen indibiduoaz gaindiko dimentsioaren ondorioz, norberak bere datu genetikoak ezagutuz aldi berean odol-loturadun familia-kideen informazio pertsonalera sarbidea du (familia-kideen osasun informazioa esate baterako), 3. pertsona horien intimitate eta autodeterminazio informatiborako eskubideei eragiten dien inguruabarra. Alde horretatik, norbanakoak bere informazio genetikoaren ezagutu aurretik odol-loturadun familia-kideek sarbide hori baimendu duten kasuetan ez da eskubideen talkarik gertatuko, bai ordea familia-kideek baimena ematen ez duten kasuetan¹³¹⁷. Horrela izanez gero, kasu konkretu bakoitza inguratzen duten inguruabarren eta talkan sartzen diren ondasun juridikoen ponderaketa jardueran zein eskubide zein neurritan gailentzen den aztertu behar da. Norbanakoak informazio genetiko horretara sarbidea izatea bere osasuna babesteko ezinbesteko elementua den kasuetan, odol familia-kideen intimitaterako eta autodeterminazio informatiborako eskubideek norbanako horren osasuna babesteko eskubidearen alde amore eman behar dute¹³¹⁸.

Nortasun genetikorako eskubidearen harira egindako arazoiketa juridikoa oinarri hartuta, informazio genetikoaren kasuan ere espezifikazio prozesu leun baten aurrean gaude. Ez da ondasun juridiko berririk, eta beraz, informazio genetikoaren babesteko oinarritzko eskubide berririk aintzatezteko beharrik sortzen. Informazio genetikoak bere berezitasun propioak baditu ere, funtsean intimitate eta autodeterminazio informatiborako eskubideek babesten dituzten ondasun juridikoen zehaztapena da. Informazio genetikoaren erabilerak intimitate eta autodeterminazio informatiboaren eduki materialen espezifikazioa eragiten badu ere, espezifikazio hori leuna da: informazio genetikoaren eskubide horien eduki materialaren adierazpen berria da, informazio mota horren berezitasuna aintzat hartuta, hori bai, berme mekanismo espezifikokoak arautzeko premia izan dezakeena.

III.2.C. IKTen eta oinarritzko eskubideen arteko harremana eremu publikoan: administrazio eta demokrazia elektronikoa

Datozen lerrootan, herritarrei botere publikoekiko harremanaren baitan aitortzen zaizkien eskubideen egikaritzan IKTek eskaini ditzaketen abantaila posibleen analisia

¹³¹⁷ ABERASTURI GORRIÑO, 2011: 696.

¹³¹⁸ Ibid.

egiten da. “Demokrazia elektronikoaren” kontzeptua zentzu zabalean¹³¹⁹ ulertuta, alde batetik herritarrek administrazioarekiko harremanean informazio publikoa jasotzeko eta fitxategi zein erregistro administratiboetara sartzeko duten eskubidea aztertzen da. Bestetik, parte hartze politikorako eskubideetan IKTen ekarpen posibleak zeintzuk diren eta prisma juridikotik zein tratamendu ematen zaien analisatzen da.

III.2.C.a. Demokraziaren eta IKTen arteko harreman konstituzionala

Askatasun informatikoari buruz Espainiako Konstituzioan egiten den aipamen soilaz harago (EK 18.4 art.), testu konstituzionalak ez du botere publikoen eta norbanakoen arteko harreman publikoaren baitan IKTek duten funtzioari buruzko argibide gehiagorik ematen. Eraginkortasun, gardentasun, parte-hartze eta pluralismoaren ikuspegitik botere publikoen eta herritarren arteko harreman elektronikoak eskaini ditzakeen abantailak oinarri hartuta, autore batzuen iritziz botere publikoek demokrazia, parte hartze eta gobernu elektronikoa ezartzeko “printzipio juridiko-konstituzional objektiboa¹³²⁰” dute.

Interpretazio juridiko horren arabera, hurrengo xedapen konstituzionalek demokraziaren funtzionamenduaren modernizazioa eskatzen dute, formatu elektronikoak ahalbidetu dezakeena: EK-ko hitzaurreko “demokrazia aitzindaria” adierak, EKren 9.2 artikulua arabera botere publikoek bizitza politikoan parte hartzeko oztopoak kendu eta parte hartzea sustatzeko duten mandatu objektibo konstituzionalak, eta azkenik, oinarrizko eskubide desberdinen dimentsio objektiboak¹³²¹. Jurisprudentziak ere kasuren batean¹³²² administrazio elektronikoa posible egiten duten instrumentuak onartzeko komenigarritasuna esanbidez aipatu du. IKTek informazio eta parte hartze publiko zein politikorako eskubide konstituzional desberdinen egikaritzari eragiten badiete ere, demokrazia elektronikoa sustatzeko neurriek eskubide konstituzional horien dimentsio objektiboarekin dute zerikusia. Zentzu horretan, IKTek eskubide konstituzionalen egikaritzarako elementu instrumental bezala jarduten dutenez eta eskubideen dimentsio subjektiboari eragiten ez dieten heinean, beren garapen normatiborako lege erreserbarik ezartzen ez dela interpretatu daiteke¹³²³.

¹³¹⁹ Lorenzo Cotino Huesok e-demokrazia bezalako kontzeptua bozka elektronikoaren analisisira mugatzen duen doktrina kritikatu egiten du eta administrazio eta herritarren arteko harremana ere demokrazia elektronikoaren ereduaren barnean defendatzen du (COTINO HUESO, 2007: 78-80).

¹³²⁰ Planteamendu horren alde, besteak beste, BERNARDÍ GIL, 2005: 229-230; COTINO HUESO, op. cit, 86. Orr; GARCÍA ACOSTA, 2007; PÉREZ LUÑO, 2014: 497.

¹³²¹ Eskubide esanguratsuenen artean, sufragio aktibo eta pasiborako eskubidea (EK 23. art.), eskaera eskubidea (EK 29. art.), adierazpen askatasuna (EK 20.1.a art.), informazio eskubidea (EK 20.1.d art.), hezkuntzarako eskubidea (EK 27. art.), herritarren entzunaldi eskubidea, interesdunak izan daitezkeen xedapen administratiboen lanketa prozeduran zuzenean edota beren interesak ordezkatzen dituzten erakunde legalen bidez (EK 105.a art.) eta herritarrek fitxategi eta erregistro administratiboetara duten sarrera eskubidea (EK 105.b art.).

¹³²² Ikus AGE, Administrazioarekiko 7. Auzi Gela, 2009-01-21eko ebazpena, 4. o.j.

¹³²³ COTINO HUESO, 2012: 31-32.

IKTei esker eta horien artean interneteko konexioa funtsezko ardatz hartuta, afera publikoak norberak bere etxetik aurrera eramateko aukera irekitzen da, *living room democracy*¹³²⁴ gisa definitu daitekeena. Ongi erabiliak eta egituratuak, IKTek sistema politiko demokratikoa hobetzeko potentzialtasun teknikoa dute. Aktore publiko desberdinen arteko jakintzen elkar-transmisioan, kudeaketan eta organo kolegiatuen funtzionamenduan (deliberamendu eta erabaki hartzeetan) lagungarriak dira¹³²⁵. Herritarrei dagokienez, afera publiko eta politikoetan formatu digitalean parte hartzeko ateak irekitzen zaizkie; esate baterako, prozesu administratiboetako fase desberdinetan elektronikoki parte hartzeko edota bozka zein erreferendum elektronikoen bidez beren eskubide politikoak egikaritzeko.

III.2.C.b. Formatu elektronikoa, administrazio publikoaren eta herritarren arteko harremanaren baitan: egiturapen eta garapen normatiboaren analisia

Administrazio publiko elektronikoa ez da jarduera administratibo berbera modu eraginkorragoan gauzatzera mugatu behar. Egungo gizartean administrazioaren eta herritarren arteko harremanean, azken horiek inoiz baino gehiago erlazio horren erdigunea dira¹³²⁶. IKTek zentzu horretan informazio eta parte hartze publikorako herritarrek dituzten eskubideen egikaritzaren eraginkorrak ahalbidetu dezakete. Formatu elektronikoi esker, herritarrek informazio publikoa jasotzeko dituzten eskubideak “datu ireki” edo *open data* izeneko gardentasun politikaren logikaren arabera aurrera eramatea posiblea da. Alde batetik, administrazio publikoek garrantzi publikoa duen informazioari publizitate aktiboa eman behar diete, informazioa beren egoitza elektronikotan *online* eta berrerabiliak¹³²⁷ izan daitezkeen moduan eskegiz. Bestetik, herritarrei fitxategi eta erregistro administratiboaren informazioarako sarbide eskubidea formatu elektronikoa egikaritzeko aukera eskaini behar zaie. *Open data* bi eskubide horien egikaritzarekin elkar erlazionatuta dago: administrazio publikoek informazioari gero eta publizitate edo difusio aktiboagoa eman, teorikoki herritarrek fitxategi eta erregistro administratiboetara duten sarbide eskubidea gero eta intentsitate maila baxuagoan egikaritu beharko lukete, eta alderantziz¹³²⁸. Beraz, informazio publikorako sarrera hori informazioaren publizitate aktiboaren printzipioaren aplikazioaren bidez egokitasunez bermatzen den neurrian, herritarrek duten sarrera eskubidea aktibatzeak kasu askotan ez luke zentzurik izan behar¹³²⁹.

¹³²⁴ MURILLO DE LA CUEVA, 2004: 87.

¹³²⁵ COTINO HUESO, op. cit, 84-85. orr.

¹³²⁶ ABERASTURI GORRIÑO, 2011:64.

¹³²⁷ Datuen berrerabilpenak besteak beste administrazio publiko, bestelako erakunde publiko edota diru publikoarekin finantzatu diren proiektuei buruzko informazioa *online* eskegi ostean datu horietara pertsona orok aukera berdintasunean eta modu irekian informazio hori eskuragarri izateko eskubidean datza, denbora pasa ahala ere informazioak eskuragarri egon beharko baitu, ahal den neurrian modu eguneratuan. Administrazio publiko estatalaren kasuan besteak beste, ikus informazio publikoaren berrerabilpenari buruzko 1495/2011 Errege Dekretua.

¹³²⁸ VILLORIA, 2014: 9.

¹³²⁹ LASAGABASTER HERRARTE, 2009: 183-184.

90. hamarkadaren hasieran onartutako Administrazioaren 30/1992 Prozedura Legeak administrazio burokratiko formalista iraungi eta jarduera administratiboaren teknifikazio eta modernizazioan teknologia berrien aldeko apustua egiten zuen¹³³⁰. Lege horrek administrazio publikoei beren jardueran teknika eta bitarteko elektronikoa, informatikoa eta telematikoen erabilera sustatzeko mandatu orokor bat egiten die¹³³¹. Lege horren aplikazioaren hastapenetatik bi hamarkada pasatxo igaro diren honetan, administrazio elektronikoa buruz corpus normatibo zabala onartu da eta bere baitan bi lege nabarmendu daitezke. Alde batetik, 11/2007 Legeak hiritarrek zerbitzu publikoetara duten sarbide elektronikoa arautzen du eta administrazio elektronikoa “ahal izatetik” administrazioaren “betebeharrera” igarotzea du xede¹³³². Bestetik, Gardentasun, Informazio Publikorako Sarbide eta Gobernu Onari buruzko 19/2013 Legeak, informazio publikoari administrazio publikoek eman beharreko publizitate aktiboa eta Konstituzioaren 105. artikulutik eratortzen zen sarbide eskubidea¹³³³ (eskubide konstituzional horri garapen legegilea emateko mandatuari behingoz konplimendua eman zaio) arautzen ditu. Lege horrek, administrazio publiko eta zuzenbide publikoari modu batera edo bestera lotetsita dauden pertsona juridiko desberdinei¹³³⁴ beren egoitza elektronikoetan (beren web orrialdeetan) zein informazio publiko¹³³⁵ argitaratu behar duten zehazten du. Informazioa modu argian, egituratuan, ulergarrian eta berrerabiltzeko moduan¹³³⁶ argitaratu behar dute eta herritarrei informazio horretara doako sarrera¹³³⁷ bermatu behar zaie.

Botere legegileak administrazio elektronikoa ezartzeko erronka normatiboari aspaldi heldu bazion ere, Espainian urte hauetan zehar eman den garapen normatiboak ez du administrazioaren funtzionamendu konbentzional edo klasiko batetik benetako administrazio elektronikoa sendo eta lehentasunezko batetara igarotzea ahalbidetu. Demokrazia eta administrazio elektronikoen sustapena prozesu konplexua izaten ari da, IKTen eta zuzenbidearen ezaugarriek moldaketa hori zaildu egiten baitute. IKTak etengabe berritzen, aldatzen eta transformatzen doazen teknologiak dira, ikuspegi teknikitik konplexutasun handikoak (beren erabileran trebetasuna lortzeko heziketa beharrezkoa izan daiteke), segurtasunaren ikuspegitik ez behar adina seguruak eta ikuspegi ekonomiko batetik inbertsio koste altuak dakartzatenak¹³³⁸. Zuzenbideak, ordea, aldaketa teknologiko

¹³³⁰ Ikus 30/1992 Legearen hitzaurrea.

¹³³¹ 30/1992 Legea, 45. art.

¹³³² 11/2007 Legearen hitzaurrea: “*Por ello esta Ley pretende dar el paso del «podrán» por el «deberán»*”.

¹³³³ Herritarrek fitxategi eta erregistro administratiboetara sarrera izateko eskubideak (EK 105. art.) informazioa jasotzeko oinarritzko eskubidearekin (EK 20.1.d) art.) duen lotura harreman nabarian oinarri hartuta, sarrera eskubide hori informazioa jasotzeko eskubidearen berezko eduki-adierazpen konkretua dela interpretatu eta modu horretan sarrera eskubideari oinarritzko eskubidearen izaera aintzatetsi lekioko, eskubidearen egikaritzarentzat horrek dakartzan berme konstituzional indartuekin. Legegileak ordea 19/2013 Legean ez du horrelako interpretazio aurrerakoirik egiten, sarrera eskubidea Konstituzioko 105. artikulutik soilik eratortzen den eskubide konstituzional arrunt gisa arautzen baitu (ikus 19/2013 legearen 12. art.).

¹³³⁴ 19/2013 Legeak bere 2. artikuluan aplikazio eremu subjektibo zabala aurreikusten du.

¹³³⁵ 6-8. art.

¹³³⁶ 5.4. art.

¹³³⁷ 5.5. art.

¹³³⁸ ABERASTURI GORRIÑO, op. cit, 44-45. orr; BERNARDÍ GIL, op. cit, 212-214. orr.

horiek geldotasunez asimilatzen ditu eta IKTen konplexutasun tekniko eta horiei buruzko ezagutza faltaren ondorioz, arauketek gabezia normatibo-teknikoak pairatzen dituzte¹³³⁹.

Espainiar Estatuak onartu duen corpus normatiboaren analisitik, Cotino Hueso autoreak administrazio publiko elektronikoaren egikaritze oraindik ere bigarren plano batean dagoela, eta ondorioz, arauketa mota horiek funtsean propaganda helburuz erabiltzen direla salatzen du¹³⁴⁰. Corpus normatibo hori osatzen duten arauketa askok ez dute administrazioa informazio publikoa bitarteko elektronikoen bidez eskaintzera juridikoki behartzen, edota ez diete hiritarrei parte hartze publiko elektroniko errealki ahalbidetzen¹³⁴¹. Autore horren aburuz, administrazio elektronikoari buruz onartu diren testu normatibo gehienek juridikoki exijigarriak ez diren betebeharrak normatiboak aurreikusten dituzte eta ez dituzte zehazten hiritarrei aurreikusten zaizkien eskubide legalen egikaritzarako instrumentu eta bermeak, prozedura, errekurtso posibleak eta organo administratibo eskudunak, kasu askotan erregelamendu bidezko garapen normatibo sakonagoa ezinbestekoa duten aspektuak¹³⁴².

III.2.C.c. Bozka elektroniko presentziala eta telematika, sufragio aktiborako eskubidea egikaritzeko oinarriko baldintzen ikuspegitik

Administrazio publikoaren eta hiritarren arteko harremanean ez-ezik, IKTek parte hartze politikorako formatuen erabateko modernizazioa ekarri dezakete, esate baterako, sufragio aktiborako eskubidearen egikaritzan (EK 23. art.). Alde batetik, bozka elektroniko presentziala, hauteskunde-eskolara bertaratuta emititzen dena, boto-txartel fisiko tradizionala ordezkatu dezakeen sistema da. Bozka elektroniko presentziala bitarteko desberdinen bidez gauzatu daiteke: pantailak erabiliz edota boto-txartelen irakurle optikoei esker. Bestetik, bozka elektroniko telematikoak, boto-emaileak hautesleku fisikora joan beharrean beren bozka internet bidez *online* emateko aukera eskaintzen du. Zuzenbide konparatuan arreta ipiniz gero, bozka elektronikoaren sistemak Afrikako kontinentera izan ezik beste kontinenteetako herrialde desberdinetara progresiboki hedatuz doaz¹³⁴³ (bozka elektroniko presentziala batez ere), nahiz eta munduko Estaturen kopuru txiki batek erabiltzen duen bozketa metodoa izaten jarraitzen duten oraindik¹³⁴⁴.

¹³³⁹ COTINO HUESO, 2007: 89.

¹³⁴⁰ COTINO HUESO, 2012: 29-30.

¹³⁴¹ Autoreak gaztelaniazko *en casa del herrero, cuchara de palo* esamoldea erabiltzen du egitate hori irudikatze (COTINO HUESO, 2007: 92). Kontraste bezala EBko 211/2011 Erregelamenduaren adibidea azaltzen du, europar hiritartasuna duten pertsonen ekimen legegilearen eskubidea internet bidez egikaritzeko diseinatu den arauketa.

¹³⁴² COTINO HUESO, 2012: 30-31; CERRILLO-I-MARTÍNEZ, 2012: 711-712. Azken autore horrek 11/2007 Legeak informazio publikoaren hedapen elektronikoa gauzatzeko moduak, egoitza elektronikoa eta hiritarrek zentzu horretan dituzten eskubideak espezifikoki arautzen ez dituela kritikatzeko du.

¹³⁴³ Estatu batzuek egituratutako bozketa sistema elektronikoen analisia: Estonia (GONZÁLEZ DE LA GARZA, 2010; PRESNO LINERA, 2011), Belgika (COUDERT, 2011), Mexiko (BARRAT I ESTEVE, 2011) edota Brasil (DELGADO-IRIBARREN GARCÍA-CAMPERO, 2004).

¹³⁴⁴ GÁLVEZ MUÑOZ, 2011: 58.

Demokrazia ordezkatailearen sistema politikoa hautatu duten Estatuetan, hauteskunderen ospakizunak, herriak kargu eta organo publikoen alde egiten duen subiranotasun eskuordetzearen legitimazio katearen (botere legegiletik hasita beste erakunde eta kargu publiko guztietara hedatzen dena) lehenengo fasea da, ezbairik gabe guztietan garrantzitsuena¹³⁴⁵. Demokrazia ordezkatailedun sistema politikoetan hauteskunde prozesuek betetzen duten funtzio legitimatzaile hori kontuan izanda, hauteskundeak ospatzean herritarrek sufragio aktiborako oinarrizko eskubidea eraginkortasunez egikaritzea ezinbestekotzat jotzen da. Alde horretatik, sufragio aktiborako eskubidearen egikaritzea bermatzea xede duten oinarrizko printzipio batzuk aurreikustea ezinbestekoa da; Espainiar Konstituzioaren kasuan¹³⁴⁶, sufragio aktiboa orokorra, askea, berdina, zuzeneko eta sekretua izateko baldintza normatibo, tekniko eta antolakuntzazkoak bermatu behar dira¹³⁴⁷. Sufragio orokorrak ez du sufragio aktiborako eskubidearen titulartasuna pertsona orori aintzatesten zaionik esan nahi¹³⁴⁸, baizik eta Konstituzioaren eta legediaren arabera kasuan kasuko hauteskundeetan bozkatzeko legitimotasuna aitortzen zaien artean guztiek eskubide hori egikaritzeko aukera eraginkorra edukitzea. Bestalde, bozkatzeko eskubidea duten pertsonak egintza hori modu askean gauzatzen dutela bermatu behar da, hots, inolako mehatxu, hertsapen edo kanpoko eraginik gabe. Zentzu horretan, bozketen sekretutasuna norbanakoek beren bozka modu librean emititzeko ezinbesteko berme bezala ulertu behar da. Pluralismo politikoaren balio konstituzionalarekin koherentzian, sufragioak berdina izan behar du; alegia, bozka bakoitzak balio berbera izan behar du (pertsona bat, bozka bat). Azkenik, Espainiar Estatuan hauteskunderen bitartez norbanakoek beren ordezkariak zuzenean hautatu behar dituzte, inolako bitartekotzarik gabe¹³⁴⁹.

Bozketa elektronikoa presentzial eta telematikoa bozkatzeko metodo berritzaileak dira, sufragio aktiborako eskubidearen egikaritzarekin zerikusia duen aspektu teknikoekin zerikusia dutenak. Estatuak beren ordenamendu juridikoetan sufragio aktiborako eskubidea egikaritzeko formatu elektronikoa berri horiek normatiboki arautu aurretik, aitzitik, eskubide politiko horren egikaritzea eraginkorra bermatzea xede duten oinarrizko printzipioak (orokorra, askea, berdina, zuzeneko eta sekretua) errespetatzen duten sistema elektronikoa direla ziurtatu behar da. Hori ezean, hauteskunde prozesuaren zuzentasun eta

¹³⁴⁵ FERNÁNDEZ RIVEIRA, 2011: 184-185.

¹³⁴⁶ EK 23.1 eta 68. art.

¹³⁴⁷ Sufragio aktiborako eskubidearen oinarrizko printzipio horiei buruz, besteak beste ikus PRESNO LINERA, 2011: 35-46.

¹³⁴⁸ Hauteskunderen erregimen orokorra arautzen duen 5/1985 Lege Organikoaren arabera (LOREG laburdurez ezaguna) espainiar adingabeek ezin dute sufragio aktiborako eskubidea egikaritu (2.1 art.), ezta eskubide hori egikaritzeko espreski ez-gaituak izan diren espainiarrek ere (3. art.). Espainiar hiritartasuna ez duten pertsonen kasuan Espainiako Konstituzioak toki hauteskundeetan sufragio aktiborako eskubidearen titulartasunerako atea irekita uzten du, beste Estatuak elkarrekotasun printzipioaren arabera tratatu eta legetan ezartzen den moduan (EK 13.2 art.). LOREGn arabera beraz, Europar Batasuneko hiritartasuna duten pertsonak eta gai honetan Espainiarekin elkarrekotasun tratatuak sinatuak dituzten beste Estatuak Espainiako toki hauteskundeetan bozkatzeko eskubidea daukate (LOREG 176. art.).

¹³⁴⁹ Espainiar Estatuan XIX. mendearen hasieran (1810-1836 urte bitartean) herritarren ordezkariak zeharkako sufragiodun sistema bidez aukeratzen ziren. Bozkatzeko legitimotasuna zuten norbanakoek bitarteko pertsona batzuei ematen zieten bozka, eta azken horiek ziren herritarren ordezkariak aukeratzeko eginkizuna zutenak (ikus PRESNO LINERA, op. cit, 43. orr.).

egiaztagarritasuna kolokan geratu daiteke. Bozka elektronikodun sistemek planteatutako erronka horiez jakitun, Europar Kontseiluak 2004an bozka elektronikoak parte hartze politikorako eskubidea errespetatzeko oinarri izan behar dituen printzipio eta erregela batzuk gomendatu zizkien bere Estatu-kideei¹³⁵⁰. Gomendioaren arabera, bozka elektronikorako erabilitako sistemek bozketa unibertsala eta sekretua askatasun eta berdintasunean egikaritzen dela bermatu behar dute eta horretarako gardentasuna, egiaztatzea, erantzukizuna eta boto-txartelen segurtasuna (eraso zibernetiko posibleen aurrean) bezalako printzipioak bermatzeko prozedura erregela batzuk ematen ditu.

Arau orokor bezala Estatuak bozketa presentziala lehenesten badute ere, sufragio aktiborako eskubidearen orokortasun printzipioaren harira, botere publikoek hauteskundeetan bozkatzeko legitimotasuna duten pertsona guztiek bozkatzeko aukera eraginkorra dutela bermatzeko bestelako metodoak egituratzeko mandatu konstituzionala dute. Inguruabar pertsonalak direla medio norbanako batzuei hauteslekura bozka ematera joan ezin izatea gertatu dakiekenez (esaterako atzerrian daudelako, oso adinduak direlako edo gaixorik daudelako), bozketarako metodo ez presentzialak inguruabar pertsonal horiek sufragio aktiborako eskubidea egikaritzeko traba gaindiezinak ez izatea bermatu nahi du.

Bozketa ez presentziala tradizionalki posta bidez emititutako botoaren bidez gauzatu izan bada ere, IKTen garapenak beste metodo ez presentzial posible baten sorrera ahalbidetu du, zehazki norbanakoek formatu elektronikoa interneten bidez bere bozka emititzeko aukera. Metodo elektronikoa ez presentzial hori, sufragio aktiborako eskubidearen orokortasun printzipioaren ikuspegitik posta bidezko metodo ez presentziala baino onuragarriagoa izan daiteke. Europar Kontseiluaren (2004) 11 Gomendioaren arabera, bozkatzeko eskubidearen (edota betebeharraren¹³⁵¹) egikaritzea nabarmen erraztu dezakeen metodoa da. Boto-emailea nonahi egonda ere eta norbere inguruabar pertsonalekiko independenteki, internet bidez bozkatzeko posta bidez baino tramitazio gutxiago eskatzen du eta bozkaren emisioa erosoagoa eta azkarragoa da (baita bozketaren zenbatera ere), bozka elektronikorako diseinatutako sistema informatikoa ulergarria eta erabiltzeko erraza den neurrian betiere. Bestalde, horrelako bozka-sistema baten aldeko apostuak hauteskundeen kostu ekonomikoak eta ekologikoak (hauteskundeetan erabiltzen diren bozka-paperekin kopuru anitza) murrizten lagundu dezake¹³⁵².

¹³⁵⁰ Council of Europe, Committee of Ministers, *Recommendation Rec (2004)11 of the Committee of Ministers to member states on legal, operational and technical standards for e-voting*.

¹³⁵¹ Hego Ameriketako Estatu askotan hiritargoaren zati garrantzitsu batentzat derrigorrezko sufragio aktiboa aurreikusten da, Estatu bakoitzean ezarritako irizpide pertsonalen arabera: Brazilen adibidez bozkatzeko derrigorrezkoa da analfabetoak ez diren 18-70 urte bitarteko pertsonentzat (Brazileko Konstituzioaren 14. art.). Bozkatzeko duen betebeharrarekin konplitu ez duen pertsonari zenbait Estatutan bozkatu ez izanak ez dio ondorio juridikorik eragiten (Costa Rican esaterako, ikus bere Konstituzioaren 93. art.), nahiz eta beste Estatu batzuetan isun baten ordainketarekin zigortzen den ez-egitea izan, besteak beste Brazilen (*Código Eleitoral lei 4.737, 7. art.*) edota Chilen (*Ley Orgánica Constitucional sobre Votaciones Populares y Escrutinios, 139. art.*). Bozka emititzeko metodo elektronikoa ez presentzialak eskaini ditzakeen abantailek beraz are garrantzia handiagoa eskuratzen dute derrigorrezko sufragio aktiboa aurreikusita duten Estatuetan bozkatzeko betebeharra modu errazago eta erosoagoan konplitzeko aukera ahalbidetzen baitu.

¹³⁵² GÁLVEZ MUÑOZ, 2011: 68-69.

Metodo elektronikoa ez presentziala sufragio aktiborako eskubidearen orokortasun printzipioaren optimizazioarentzako lagungarria izanik ere (bozkatzeko eskubidea duten pertsonen eskubide hori egikaritu ahal izatea errazten du), bozketa sistema hori karakterizatzen duten inguruabar desberdinen ondorioz, sufragio aktiborako eskubidearen egikaritzea eraginkorra bermatzea helburu duten beste oinarriko printzipio batzuen hutsaltzea gertatu daiteke. Alde batetik, hauteskundeetan internet bidez bozkatzeko diseinatzen den sistemak (*software*) eta bozkatzeko erabiltzen diren aparatu elektronikoen (*hardware*) hauteskunde demokratiko batek exijitzen duen garbitasun, fidagarritasun eta segurtasun maila altua bermatzeko adina gaitasun teknikorik eskaini ahal ezin izatea gerta daiteke. Bozka elektronikoa presentzial edo telematikoa teknikoki ongi egituratu eta diseinatuta egonda ere, teknologia berrien berezko ezaugarrien ondorioz, gaur egun ezin dute bozketa sistema tradizionalen pareko fidagarritasun eta segurtasunik eskaini. Eraso informatiko posibleek norbanakoek internet bidez emititutako bozka ezagutu eta manipulatzeko gaitasun teknikoa duten neurrian, sistema informatikoaren kalteberatasunak sufragio aktiborako eskubidearen egikaritzea eraginkorrerako oinarriko printzipioen kalteberatasuna dakar halaber (bozkaren sekretutasun printzipioa hutsaldu eta beraz norbanakoek askatasunez ez bozkatzeko gertatu daiteke¹³⁵³) eta bozketen emisioaren eta zenbaketaren manipulazio informatiko posibleek hauteskundearen emaitzen objektibotasuna bera kolokan jarri dezakete¹³⁵⁴.

Bestetik, bozketa presentzialaren formatuan ez bezala, metodo ez presentzialen kasuan norbanakoek publikoki kontrolatu eta ikuskatutako inguruetik kanpo (hautesleketatik kanpo) dagoen dimentsio pribatu batetan egikaritzen dute beren bozka eskubidea¹³⁵⁵. Posta bidezko bozketa ez presentzialari dagokionez, ingurune publiko kontrolatu batetik kanpo emititzen den bozka izanik ere, hura zuzentasunez emititu dela ziurtatzeko kontrol baldintza normatibo zehatzak ezartzen ditu LOREGek¹³⁵⁶. Interneten bidezko bozketa ez presentzialaren metodoaren kasuan, ordea, botoaren emisioa esfera publikotik erabat kanpo dagoen dimentsio pribatu batean ematen da (internetara sarrera duen edozein aparatu elektronikoen bidez), ingurune publiko kontrolatu eta ikuskatu batetik urrun¹³⁵⁷. Testuinguru pribatu horretan eta azaldu berri diren kalteberagarritasun informatikoen aurrean, norbanakoek beren bozketa modu askean eta sekretupean emititzen dutela ziurtatzeko beharrezkoa den interbentzio publikoaren eraginkortasuna nabarmen murrizten da.

¹³⁵³ SÁNCHEZ NAVARRO, 2011: 207.

¹³⁵⁴ GÁLVEZ MUÑOZ, op. cit, 70-71. orr.; COTINO HUESO, 2007: 108-109.

¹³⁵⁵ SÁNCHEZ NAVARRO, op. cit, 199-200.

¹³⁵⁶ Posta bidezko bozketa baldintza normatiboak LOREGen 72-75. artikulua bitartean aurreikusten dira. Metodo ez presentzial horren bidez bozkatu ahal izateko ezarritako kontrol normatiboaren artean, esate baterako, Korreosen tramitazio prozesu bat eraman behar da aurrera. Pertsona batek duen gaixotasunaren edo helbarritasunaren ondorioz bozka-txartela eskatzeko Korreosera bertaratu ezin den kasuetan, persona horren izenean bozka-txartela eskatu ahal izateko Korreosen gaixotasun edo helbarritasun horren ziurtagiri medikoa aurkeztea beharrezkoa da.

¹³⁵⁷ SÁNCHEZ NAVARRO, op. cit, 207-208. orr.

Idea horrekin lotuta Alemaniako Auzitegi Konstituzionalak 2009ko martxoaren 3an eman zuen ebazpen esanguratsuaren arabera¹³⁵⁸, sufragio aktiboa modu ez presentzian egikaritzeko eta bozkak zenbatzeko diseinatu diren metodo elektronikoak, hauteskudeen prozesuaren zuzentasun eta egiaztagarritasuna bermatzea xede duen publizitate printzipioa kolokan jartzen duten heinean, Konstituzioaren aurka doa. Publikotasun printzipioaren arabera botere publikoek eta herritarrek hauteskudeen prozesua inguratzen duten fase eta elementu desberdinak (aspektu teknikoak barne) kontrolatu eta ikuskatzeko gaitasuna izan behar dute; hots, hauteskudeen bidez herriak bere ordezkariengan gauzatzen duen eskuordetze hori zuzentasunez eta gardentasunez gauzatzen dela egiaztatzeko ahalmena dute. Alemaniako Legebiltzarrerako 2005eko irailaren 18an ospatu ziren hauteskudeetan botoak emititzeko eta zenbatzeko erabili ziren bitarteko elektronikoak, eraso informatikoen aurrean kalteberatasun handia zuten sistema informatikoak ziren¹³⁵⁹, sufragio aktiborako eskubidearen egikaritza eraginkorrari erasotzen dion inguruabarra. Bestalde, hauteskunde horietan bozkatzeko eta bozkak zenbatzeko erabilitako sistema informatikoa ez zen edozein herritarrek ulertzeko modukoa¹³⁶⁰. Ezagutza tekniko espezifikorik gabeko herritarrek, publizitate printzipioak exijitzen duenaren aurka, ez zuten hauteskunde horietan erabili zen sistema elektronikoaren funtzionamendua egokia izan zela kontrolatzeko gaitasunik, ez zuten ezagutza tekniko nahikorik beren bozka eskubidea programa informatikoaren bidez modu eraginkorrean egikaritu zutela ziurtatzeko.

Lerrootan zehar bozka elektroniko ez presentzialari buruz azalduakoa kontuan izanik, bozkatzeko eskubidearen egikaritza oztopatzen duten inguruabar sozial, geografiko edo politiko esanguratsurik existitu ezeari¹³⁶¹, hauteskunde sistemetan mota horretako metodorik erabiltzeak sufragio aktiboaren eskubidearen egikaritza eraginkorra bermatzea xede duten printzipioen ikuspegitik aztertuta, onura baino kalte gehiago eragin ditzakeela ondorioztatu daiteke¹³⁶². Alde horretatik, Espainiako Estatu Kontseiluak 2009an emititutako informe batean bozketa elektronikodun sistemak martxan jartzearen komenigarritasunari buruzko zalantzak planteatu eta metodo horren azterketa jarrai eta oso baten aldeko jarrera agerrarazi zuen.

Parte hartze politiko elektronikoari buruz orain arte azalduakoa planteamenduen ardatza demokrazia ordezkatzailerik tradizionala indartzea izan da. Antonio-Enrique Pérez

¹³⁵⁸ *BverfG 3/07* ebazpena. Horren analisiari buruz, ikus FERNÁNDEZ RIVEIRA, 2011; LASAGABASTER HERRARTE, 2011: 337-350.

¹³⁵⁹ Ebazpenaren 120. atala.

¹³⁶⁰ Ebazpenaren 119. atala.

¹³⁶¹ Bozka elektroniko ez presentzialak Estatu batzuetan sufragio aktiborako eskubidea egikaritzea zailtzen duten inguruabar desberdinei aurre egiteko baliagarria izan daitekeenez, kasu horietan horrelako sistema elektronikoak martxan jartzea justifikagarria izan daiteke sufragio aktiborako eskubidearen egikaritzarako eragin positiboak negatiboak baino pisu handiagoa duten neurrian. Brazilen kasua da horren adibide, bertan sufragio aktiboa derrigorrezkoa baita herritarren zati handi batentzat eta Estatu horren arazo sozial, geografiko eta politikoei boto presentziala zaildu egiten dute (PRESNO LINERA, 2011: 49).

¹³⁶² Aztertu diren autoreen artean besteak beste ondorio berberera iritsi dira GÁLVEZ MUÑOZ, 2011: 77-79; PRESNO LINERA, op. cit; 49. orr; SÁNCHEZ NAVARRO, 2011: 216-217. González de la Garza autorea harago doa eta bozketa elektroniko ez presentziala debekatzea gomendatzen du (GONZÁLEZ DE LA GARZA, 2010: 235-236).

Luñok, aitzitik, IKTek demokrazia ordezkatzaillearen eskema tradizional horrekin apurtu eta horren ordezkatzaillearen eskemaren baitan funtzionatzen duena) bertsio “sendora” (demokrazia zuzenera) salto egiteko nahikoa baliabide eskaintzen dituztela argudiatzen du¹³⁶³. Egungo gizartean erabaki politikoen eztabaida eta adoste prozesuetan alderdi politikoen gehiegizko protagonismoaren ondorioz hiritarrei ukatzen zaien parte hartze egoerarekin amaitu dezakete IKTek, internet ardatzeko instrumentu gisa egituratuz herritarrei prozesu horietan zuzenean (alderdi politikoak desplazatuz), modu errealean eta eraginkorrean parte hartzeko atak ireki¹³⁶⁴ ahal baitzaizkie, beste mekanismo batzuen artean, *online* erreferendum elektronikoen erabileraren bidez.

IV. NANOTEKNOLOGIAK, GIZA ESKUBIDEEN MARKOAREN BAITAN: ALDERDI OROKORRAK

Kapitulu honen hasieran aipatutakoari jarraiki, nanoteknologiaren eta giza eskubideen arteko harremana teknologia horien gobernantzan kontuan hartu behar den bigarren dimentsioa da (beste dimentsioa nanoteknologiaren arriskuen tratamendu juridikoa da). Hurrengo azpi-ataletan, nanoteknologiak giza duintasun, autonomia pertsonal eta giza eskubideen ikuspegitik planteatu ditzaketen erronkak zeintzuk diren, eta orain arte arazo horiei eman zaien erantzun juridiko bakana zein den (Europako Kontseiluak hasi berri duen ibilbidea) aztertzen da. Analisi horretan murgildu aurretik, nanoteknologiaren ezaugarri nagusiak zeintzuk diren aztertu eta bioteknologia zein IKTekin dituzten konbergentzia harremanak ulertu behar dira.

IV.1. Nanoteknologiaren ezaugarri eta erronka nagusiak

IV.1.A. Nanoteknologiak: aniztasuna, heterogeneotasuna, sofistikazioa eta beste teknologiekiko konbergentzia

Nanoteknologiak giza duintasunarekin eta giza eskubideekin duten harremanaren nondik norakoak egokitasunez ulertu ahal izateko, lehenik eta behin nanoteknologiaren

¹³⁶³ PÉREZ LUÑO, 2014.

¹³⁶⁴ Pérez Luñoren aburuz zuzeneko demokrazia sistema batek demokrazia ordezkatzaillearen praktikak garatu dituzten gabezia askoren amaiera bultzatu dezake. Ordezkaritza-sistemak interes pribatuen mesedetan hedatu duen ustelkeriarekin, erakunde demokratikoen egiturapenean ematen den ordezkaritza “ratio” ez justuekin (gizarteko kolektibo txikien interesak askotan ez dira ordezkatuak egoten) edota iritzi publikoaren manipulazioarekin. Hala ere IKTen erabileraren bidez demokrazia zuzena bultzatzeko sistema integral bat onartu aurretik bere funtzionamendu eta baldintzei buruz hausnarketa sakona egin behar dela onartzen du autoreak, hori egin ezean sistema demokratiko berri hori hiritarren kontrolerako fenomeno kolonizatzailea bihurtzeko arriskua baitago (ibid, 506-512. orr).

berezko ezaugarriak zeintzuk diren ulertzea garrantzitsua da. Hitz gutxitan, nanoteknologiak aniztasunaren, heterogeneotasunaren, sofistikazioaren eta konbergentziaren sinonimo direla esan daiteke.

Tesiaren 1. kapituluaren azaldutakoa gogora ekarriz, nanoteknologien ustiapenaren emaitza diren materialak, nanomaterial manufakturatua, gero eta anitzagoak dira. Gaur egun guztira 2500 nanomaterial komertzial inguru dokumentatu dira¹³⁶⁵ eta nanomaterial mota bakoitzaren barnean, halaber, azpisailkapenak egiten dira. Kopuru aniztasun horrekin batera, beren propietate heterogeneotasuna ere azpimarratu behar da; nanomaterialak elkarren artean erkatuz gero, bakoitzak bere ezaugarri propio eta bereizgarriak ditu. Funtsean, nanomaterial bakoitza mundu bat dela esan daiteke. Denbora aurrera doan heinean, gainera, nanoteknologien sofistikazioa ere haziz doa.

Etorkizunera begira izan dezaketen bilakaeraren arabera, doktrina zientifikoak nanomaterial manufakturatuen lau belaunaldi desberditzeko ditu:¹³⁶⁶ hurrenez hurren: nanoestruturak pasiboak, nanoestruturak aktiboak, nanosistema aktiboak eta nanosistema molekularrak. Lehenengo bi belaunaldiak dagoeneko ikerketa, garapen eta komertzializazio fasean daude. Hirugarren eta laugarren belaunaldiko nanomaterialak ostera ikerketa fasean daude oraindik. Gaian adituak direnek egindako estimazio eta kalkuluen arabera, hirugarren belaunaldiko nanoteknologien aplikazio komertzialek hamarkada bateko ikerketa epea behar dute oraindik, eta laugarren belaunaldiko kasuan, are denbora gehiago. Lau belaunaldiko sailkapen horretan nanomaterial pasibo eta aktiboaren arteko desberdintasunak ere garrantzitsuak dira. Izan ere, nanomaterial aktiboek, pasiboek ez bezala, denbora igaro ahala edota inguruabarrak aldatu ahala, beraien portaera eta funtzioak aldatzeko berezko gaitasuna daukate. Molekula eta atomoen arteko automuntaketa prozesu konplexuak beren kabuz gauzatzeko gaitasuna izan dezakete eta ondorioz, robotika edota medikuntza alorrean ekarpen esanguratsuak egin ditzakete. Egun, nanomaterial aktiboaren adibideak elikagaiekin kontaktuan dauden materialetan¹³⁶⁷ (FCM izenekoak) edota ikerketa fasean dauden farmako batzuetan aurkitu ditzakegu.

Materia eskala molekularrean manipulatzeko gaitasuna duten teknologiek mintzo gaitasuna izanik, nanoteknologien berezko gaitasun hori oso erabilgarria izan daiteke beste teknologia batzuekiko konbergentzian. Alde batetik, nanoteknologien potentzialtasunak oso baliagarriak izan daitezke bioteknologien jardura-eremuan. Bi teknologia horien arteko konbergentziaz eratortzen den nanobioteknologiak, “materia bizidunaren” (animali eta landareen) zeluletan eskala molekularrean esku hartzeko gaitasuna duten prozesu eta metodoen garapena du xede. Bestetik, nanoteknologiak zeresana izaten ari dira IKTe azken hamarkadetan bizi izan duten sofistikazio prozesuan, lehen mikro eskalan fabrikatzen ziren osagai elektronikoak orain nano-eskalan egiten baitira. Aurrerago aztertzen diren RFID etiketak esate baterako, IKTe eta

¹³⁶⁵ “Nanowerk” erakunde prestigiotsuak emandako datua. Ikus honako web orrialdea [22/12/2015]: <http://www.nanowerk.com/>

¹³⁶⁶ Sailkapen horren azalpena, besteak beste, ROCO, 2011: 433.

¹³⁶⁷ Elikagaiak hobeto kontserbatu ahal izateko, kasuan kasu beraien portaera aldatzen duten nanomaterialak erabiltzen dira FCM batzuetan.

nanoteknologien konbergentzia horren emaitza dira. Teknologia desberdinen arteko harreman-loturak gero eta esanguratsuagoak diren garai honetan, zenbait autorek nanoteknologia, bioteknologia, IKT eta zientzia kognitiboen arteko konbergentzia defendatzen dute (NIBC laburdurez ezaguna), zientzia eta teknologiak ulertzeko moduaren erabateko aldaketa eragingo lukeen batura teknologikoa¹³⁶⁸. Etorkizunera begira NIBCEk gizakion gorputza bere osotasunean kontrolatzeko gaitasun teknikoa garatzeko gai izan litezke¹³⁶⁹.

Nanomaterialen aniztasun, propietate heterogeneotasun, sofistikazio eta konbergentziaren poderioz, gero eta sektore produktibo gehiagoren arreta bereganatzen ari diren dira. Esaterako, sektore kimikoarena, kosmetikoena, pestizidena, elikagaiena, elektronikarena, eraikuntzarena, ehungintzarena, medikuntzarena edota sektore militarrena. Ondorioz, nanoteknologien eragin eremua oso zabala da: medikuntza arloko pazienteak, nanoteknologiarekin lan egiten duten langile eta ikertzaileak, kontsumitzaileak, hiritarrak modu orokorrean eta ingurugiroa. Gainera, nanoteknologien efektuen eragin eremua ez da gaur egun bizi dugun gizarte eta ingurugirora mugatzen; beren efektuak etorkizuneko belaunaldietara ere hedatu daitezke.

IV.1.B. Bi aipamen: nanomedikuntza eta nanoteknologia-RFID konbergentzia

Nanoteknologien garapenak eta beste teknologiekiko konbergentziak giza duintasunaren eta giza eskubideen planotik sorrarazten dituen erronkak hobeto ulertu ahal izateko, hurrengo orrietan nanoteknologien bi erabilera zehatz aztertzen dira. Alde batetik, nanomedikuntzaren diziplina, nanomaterialen erabilerak medikuntzaren eremuan orain arte itxita zeuden zenbait ate irekitzea eragin baitu. Bestetik, informazioa jaso, bildu eta transmititzea xede duten RFID sistemadun etiketak, nanomaterialen erabilerak etiketa horien ezaugarriak potentzializatzearekin batera, pribatutasunaren babesarekin zerikusia duten arazoak areagotzea baitakar.

IV.1.B.a. Nanomedikuntza: giza materiaren eskala molekularreko esku hartzea

Nanomedikuntza terminoak, funtsean, osasun arloan aplikatutako nanoteknologiei egiten die erreferentzia. Nanomedikuntzak materialen propietate fisiko, kimiko eta biologikoak eskala nanometrikoan manipulatzetik beren hobekuntza bilatzen du eta gaixotasunen diagnostiko, terapia eta birsorpen medikuntzari eskaini diezaieketen onura potentzialak garrantzitsuak dira. Nanoteknologien bilakaerarekin gertatzen den bezala, hurrengo hamarkadei begira nanomedikuntzak izan dezakeen sofistikazioak eta bioteknologia, IKT eta zientzia kognitiboen arteko konbergentziak, medikuntzaren iraultza

¹³⁶⁸ NBICEk gizartearentzat izan ditzaketen onuren eta aldi berean planteatzen dituzten zalantza etikoen inguruan, ikusi BAINBRIDGE eta ROCO, 2005.

¹³⁶⁹ MAESTRUTTI, 2011: 57.

ekarriko du¹³⁷⁰. Datozen lerrootan, gaixotasunen diagnostiko, terapia eta birsorkuntza medikuntzaren alorretan nanomaterialek eskaini ditzaketen onurak laburki azaltzen dira¹³⁷¹.

Gaixotasunen detektapen goiztiarrerako tekniken garapenak pazientearen osasun fisiko eta psikologikoaren informazio datuen kantitatea eta kalitatea areagotzea ekarriko du. Etorkizunera begira, kode genetikoak maila molekularrean irakurri eta kodeak eduki ditzakeen akatsak detektatzeko gai diren teknikak garatuko omen dira. Diagnostiko teknika horiek *in vivo* eta *in vitro* izan daitezke: lehenengoak pazientearen gorputzean modu iraunkorrean txertatu behar dira osasuna monitorizatzeko gaitasuna izan dezaten (biosentsoreak edo geroago aztertzen diren RFID etiketadun txipak esate baterako); bigarren motatako teknikak ostera ez dira inbaditzaileak, gorputzeko fluidoan edo ehunen laginak aztertuz osasunaren monitorizazio zehatza egiteko gaitasuna eskaini baitezakete.

Nanoteknologiaren erabilerari esker diagnostikatutako gaixotasuna tratatzeko mekanismoak ere nabarmen erraztu daitezke. Besteak beste, endekapenezko gaixotasunei edota kantzerra bezalako gaixotasun larriei aurre egiteko konponbide berriak eskaini ditzakete. Farmako batek gorputzean sartzen denetik gaixotasunaren fokura iristen den arte, ibilbide luzea igaro eta oztopo anitz pasa behar ditu iritsi behar duen lekura ailegatu arte. Aho bidez hartzen ditugun pilulak esate baterako, urdaileko azidoengatik babestu egin behar dira esteetara iristeko eta ondoren esteetako pareta gainditu behar dute zirkulazio aparatua iritsi arte. Behin zirkulazio aparatuan, gibelaren filtroa eta mintz zein entzima desberdinak gainditu beharko dituzte beren helmugara iritsi arte. Nanoteknologiak azaldu berri den ibilbide konplexu hori erraztu dezakete, farmako-dosia leku, kantitate eta momentu egokian emanaz. Nanoteknologiak halaber kalteturik dauden gorputzeko organo eta ehunak birsorpen medikuntzari esker erreparatu edo beste batzuek aldatzea posible egin dezakete, besteak beste, ehunen birsorpena estimulatzeko duten geneen aktibazioaren bidez edota nanomaterialez eginda dauden eta bio-bateragarriak diren mintz desberdinen ekoizpenaren bidez.

Nanomedikuntzak etorkizun ertain eta luzera begira izan dezakeen sofistikazio eta garapen maila ikusita, medikuntza alorrean orain arte itxita egon diren zenbait ate irekitzeko habilezia teknikoak garatu dezakete. Nanomedikuntzari esker, hemendik hamarkada batzuk barru gizakion gorputzean gure gizatasunarekin bateraezinak diren aldaketak egitea posible egiten duten tratamenduak garatu litzeke: ADNaren eskala molekularrean eta modu kontrolatuan manipulatzeko gaitasuna dutenak¹³⁷², funtzio kognitiboak, zentzumenak eta sentimenduak kontrolatu eta aldatu ditzaketanak, eta

¹³⁷⁰ *The European Group on Ethics in Science and New Technologies* erakundeak 2007an egindako informe batean gaur egunetik hasita 2050 urte-arte nanomedikuntzak izango dituen garapen-faseen taula irudikatzen da. Ikus EGE, 2007: 15.

¹³⁷¹ Nanomedikuntzaren aplikazioei buruz, besteak beste: AZZAZY eta MANSOUR, 2009; DE COZAR ESCALANTE, 2010: 59-62; EGE, 2007: 13-20; LUCHINI et al, 2010; MENENDEZ, 2010: 85-101; MERKEL et al, 2011; MILLER eta KEARNES, 2012: 13-16. PETROS eta DESIMONE, 2010.

¹³⁷² PONCE del CASTILLO, 2009: 39.

memoria gaitasunak nabarmen hobetu edota bizitza itxaropena luzatu ditzaketenak¹³⁷³. Azaldu berri diren nanomedikuntzaren aplikazio potentzialen artean, teknikoki benetan bideragarriak diren eta fikziozko zientziaren kategorian zeintzuk sartze diren ikusteke dago. Hala ere, jakintza teknozientifikoa abiadura bizian haziz doan mundu honetan, nanoteknologiak hemendik hamarkada batzuetara izan dezaketen garapen ildo batzuen kasuan, planteamendu transhumanista eta posthumanistek defendatutako zantzuak nabariak dira. Alde horretatik giza duintasunak, autonomia pertsonalak eta giza eskubideek betiere nanoteknologiaren garapen horren elementu gidatzaile bezala jardun behar dute.

IV.1.B.b. Nanoteknologiak-RFID, pribatutasunarentzat arriskutsua izan daitekeen binomioa

Irrati frekuentzia bidezko identifikazio txipak (aurrerantzean, RFID etiketak¹³⁷⁴) informazioa inolako kontakturik gabe eta formatu digitalean jaso, bildu eta transmititzeko gai diren dispositibo adimentsuak dira. Funtsean, RFID etiketak txip eta irrati antena batez osaturik daude. Txipak jasotako informazioa antenaren bitartez irrati-seinaleen hargailu batetara emititu, eta azken horrek informazio hori irakurtzeko gaitasuna duen dispositibo elektronikoko batetara igortzen du (ordenagailu batera esaterako), informazio datu horiek “gauzen internet” (ingelesez, *Internet of Things*) izeneko sarera konektatzeko helburuz. Etiketa horiek beraz bildutako informazioaren interkonexio digitala posible egiten dute; alegia, produktuen elkartrukea, biltegirapen baldintzak, zaintza neurriak, inbentarioaren kudeaketa eta beren bizitza ziklo osora luzatu daitekeen trazabilitatea ahalbidetzen duen informazio sarea.

Orotara, bi RFID etiketa mota existitzen dira: aktiboak eta pasiboak. Etiketa aktiboek energia hornitzen dituen bateria txiki bat erabiltzen dute irrati seinaleak bidaltzeko. Etiketa pasiboek ez dute inolako energia bateriarik erabiltzen, irrati seinaleek sortzen duten energia aprobetxatzen dute seinalea bidaltzeko. Hortaz, etiketa aktiboak beren bateria agortzen den momenturarte dira erabilgarriak; gaur egun 10 urte inguruko iraupen epea duten bateriak dira. Etiketa pasiboek bateriarik behar ez dutenez beraien erabilera-iraupena mugagabea da. Hala ere, RFID etiketa aktiboek seinaleen irismena pasiboena baino askoz ere handiagoa da. Etiketa aktiboek seinaleak 1500 metro inguruko distantzia-arte izan daitezke irakurriak, eta pasiboek seinaleak ordea, 10 metroko distantzia-arte.

Etiketa horien helburu nagusia produktu komertzialak uneoro identifikatuta izatean datza. Barra-kodeek ez bezala, RFID etiketek ez dute produktu-artikulu bat identifikatzeko berarekin kontaktu fisikoan edo zuzeneko kontaktu bisuarekin egoteko beharrik. RFID

¹³⁷³ Besteak beste, Ray Kurzweil ingeniari informatikoaren ustez. Ikus GOFFI eta MISSA, 2011: 15; MAESTRUTTI, 2011: 61.

¹³⁷⁴ RFID sistemaren ezaugarri eta aplikazio desberdinei buruz: ALLHOFF et. al, 2010: 199-200; AUBERT, 2011; BIBBY, 2006: 6; MARTÍNEZ PÉREZ, 2012; PORTILLO GARCÍA et al, 2008; SADIN, 2009:194-200; ZHANG et al, 2010.

etiketa aktiboek duten irismen handiari esker, enpresei onura logistiko garrantzitsuak eskaintzen dizkiete. Produktuen uneoroko trazabilitatea ahalbidetzen dutenez, biltegiko antolakuntza efizientean eta arriskutsuak diren produktuak merkatutik ahalik eta azkarren ateratzeko zereginean abantaila garrantzitsuak eskaintzen dituzte. Gaur egun, RFID dispositiboak testuinguru desberdinetan eta gero eta gehiago erabiltzen dira, tamaina handiko enpresetan batez ere¹³⁷⁵. Beste erabilera askoren artean, ordainketak egiteko txarteletan edota bestelako alor komertzial batzuetan, produktuak hornikuntza katean segitu ahal izateko edota produktuen lapurretak ekiditeko segurtasun txartel elektronikoa bezala. Bestalde, etiketa horiek eskaini ditzaketen abantailak potentzializatzeko eta hobetzeko helburuz, zenbait konpainia RFID etiketetan nanomaterialen manufakturatuetan erabiltzen hasiak dira dagoeneko. Zehazki, nanoelektronikak RFID etiketen adimena, memoria eta detektapena bezalako ezaugarrien potentzializazioa ekarri dezake¹³⁷⁶.

RFID etiketek produktuen unean-uneko egoera eta mugimenduen gainean egin dezaketen jarraipen digitala, kasu batzuetan norbanakoen esfera pribatua babesten duten eskubide desberdinekin talkan sartu daiteke. Etiketa horiek pertsonen informazioa, hots, datu pertsonalak jaso, gorde eta transmititzeko gaitasun teknikoa dute. OECD erakundeak¹³⁷⁷, EBko Komisiaok¹³⁷⁸, 29. artikuluko Lan-Talde Europarrak¹³⁷⁹ eta Espainia mailan INTECO eta AEPD agentziek¹³⁸⁰, RFID etiketek norbanakoen pribatutasunaren ikuspegitik sorrarazi ditzaketen arazoak identifikatu dituzte eta zentzu horretan, datu pertsonalak babesteko zenbait gomendio eman dituzte. Alde batetik, RFID etiketa erantsita duten produktu komertzialen kasuan, produktu hori erabiltzen duen pertsonaren inguruko informazioa lortzea posiblea da. Produktu bati RFID etiketa aktibo bat txertatuz gero, produktu hori gainean daraman pertsonaren mugimenduak zehaztasun handiz monitorizatzea eta beren portaeren profil osatu bat egiteko datu pertsonalak eskuratzea posible egiten du etiketak¹³⁸¹. Ondorioz, mota askotako interesak erakartzen dituzten etiketak dira, kontsumitzaileei buruzko informazio pertsonala lortzeko dispositibo baliagarria izateaz gain, langileen edota ikerketa penalpean dauden pertsonen mugimenduak uneoro eta zehaztasun handiz segitzeko erabili daitezke. RFID sistemak bestelako segipen sistemekin konbinatuz gero, GPSarekin edota ultrasoinuen bidezko sistemekin esaterako, segitzen den objektu edo pertsonari buruzko kokalekuaren informazio osoagoa, zehatzagoa eta fidagarriagoa lortu daiteke¹³⁸².

Produktuetan txertatzeaz gain, RFID etiketak nanomaterialez eginiko txip batean erantsi (aurrerantzean, nanotxip) eta pazienteen gorputzean beren osasuna hobeto

¹³⁷⁵ 2010. urteko datuen arabera, RFID sistemadun dispositiboak enpresa txikien (10-49 langile) %0,8etan, enpresa ertainen (50-249 langile) %8,9etan eta enpresa handien (250 langiletik gorakoak) %20an erabiltzen ziren (INTECO eta AEPD, 2010: 13).

¹³⁷⁶ EBko Komisiaoa, COM 2007 (96) final, 4. orr.

¹³⁷⁷ OECD, 2008.

¹³⁷⁸ EBko Komisiaoren COM 2007 (96) final.

¹³⁷⁹ ARTICLE 29 Data Protection Working Party, 2005.

¹³⁸⁰ INTECO eta AEPD, 2010.

¹³⁸¹ EBko Komisiaoren COM 2007 (96) final, 4. orr.

¹³⁸² ZHANG et. al, 2010: 391.

monitorizatzeko helburuz inplantatu diren kasu batzuk dokumentatu dira¹³⁸³. Nanotxip inplanteek izan dezaketen funtzio heterogeneotasunari esker, osasuna monitorizatzeari gain, medikamenduen edota drogen arrastoari segitzeko gai ere izan daitezke. Beraz, nanotxipen beste erabilera posibleetako bat ospitale, psikiatriko edota kartzelan dauden pertsonen hartu beharreko medikamenduak hartzen dituztela edota drogarik hartzen ez dutela kontrolatzea izan daiteke. Kapitulu honen hurrengo ataletan, RFID etiketen erabilera posibleek urratu ditzaketen eskubide desberdinen analisia egiten da.

IV.2. Nanoteknologiak, giza duintasuna eta giza eskubideak

IV.2.A. Nanoteknologiak eta giza duintasuna

Kapitulu honen III.1. azpi-atalean azaldutakoa gogora ekarriz, giza bioteknologiaren erabilera desberdinek duintasunaren perspektibatik orotako erronkak eragiten dituzte. Horien aurrean giza duintasuna errespetatua izan dadin, bioteknologiaren erabileraren “gutxieneko baldintza moral” gisa jarduten duen marko legala egituratu da. Nanoteknologiak medikuntzan, elektronikan eta orokorrean kontsumo produktuetan erabiltzean giza duintasunaren eta autonomia pertsonalaren ikuspegitik erronka garrantzitsuak planteatu baditzakete ere, giza bioteknologiarekin gertatzen denaren kontrari, gaur egun ez da nanoteknologiaren erabilerarako baldintza moral normatibo espezifikorik aurreikusi. Salbuespen bakarra EBko Komisioak nanoteknologiaren ikerketa arduratsurako 2008an onartutako portaera kodean aurkitu daiteke (izaera loteslerik ez duen araua) non oinarritzko eskubide edo printzipio etikoen aurka doazen ikerketa larriak finantzatzea debekatzen den¹³⁸⁴. Portaera kode horren aipamen soil horrez gain, gaur artean nanoteknologiaren eta giza duintasunaren eta eskubideen arteko harremana berariaz arautzen duen marko normatibo espezifikorik egituratzeko borondatea adierazi duen erakunde bakarra Europako Kontseilua izan da, nahiz eta borondate hori gauzatzen den orainik ikusteke dagoen¹³⁸⁵.

Biomedikuntza eta nanomedikuntzaren ezaugarriak jaramon eginez gero, beren erabilerek giza duintasunaren eta autonomia pertsonalaren prismetatik antzeko erronkak planteatzen dituzte. Beste sektore batzuekin gertatzen den antzera, nanoteknologiak osasun zientzietan aplikatzean “ahalbidetze teknologia” (ingelesez, *enabling technology*) gisa funtzionatzen dute. Alegia, nanoteknologiak biomedikuntzarekin bat egitean azken horrek osasun arloan eskaini ditzaketen prestazioen potentzializazio edo sofistikazioan lagundu dezakete. Teknologia horiek bata bestearekiko duten konbergentzia harremana dela eta,

¹³⁸³ MILLER eta KEARNES, 2012: 16.

¹³⁸⁴ EBko Komisioaren 2008/345/CE Gomendioa, 4.1.15 atala: “*Los organismos que financian la investigación sobre N+N no deben financiar investigaciones en áreas que puedan dar lugar a una violación de derechos fundamentales o de principios éticos fundamentales, sea en la propia investigación o en las fases de desarrollo (por ejemplo, virus artificiales potencialmente patógenos)*”.

¹³⁸⁵ Europar Kontseiluak gai honen inguruan gauzatutako ekimenak kapitulu honen IV.2.C atalean aztertzen dira.

UNESCOk, Europako Kontseiluak, Europar Batasunak edota Espainiak biomedikuntzaren erabilerari buruz arautu dituzten baldintza moral-normatibo desberdinak, orokorrean, nanomedikuntzaren kasuan ere aplikagarriak direla baieztatu daiteke: duintasunarekiko errespetua, norbere identitatearekiko babesa, norbanakoen instrumentalizazio edo diskriminazioaren debekua, gorputzeko elementuen xedaezintasuna, praktika eugenesikoen debekua, pazientearen autonomiarekiko errespetua eta baimen informatua, osotasun pertsonalaren errespetua, osasun-datuen babesa eta konfidentzialtasuna.

Konbergentzia horren harira teknologia horiek elkarren artean dituzten lotura puntuak nabariak badira ere, giza duintasun eta autonomia pertsonalaren ikuspegitik nanomedikuntzak biomedikuntzaren marko moral normatiboaz harago doazen erronkak planteatu ditzake. Nanoteknologiak materia nano-eskalan manipulatzeko duten gaitasun orokorra, nanomedikuntzaren eremu konkretuan gorputzeko zelulei eskala molekularrean eragiteko ahalmenean ondorioztatzen da. Biomedikuntzarekin erkatuz gero, nanomedikuntzak giza gorputzeko elementu sakonenetan eragiteko dituen gaitasun berriak ditu. Etorbizunera begira izan dezakeen bilakaera aintzat hartuta, biomedikuntzaren erabilerarako aurreikusten den *corpus* moral normatiboa nanomedikuntzak planteatu ditzakeen erronka berrien aurrean motz geratzeko arriskua dago; nanomedikuntzak, beraz, biomedikuntzaren baldintza moral normatiboen inguruan hausnartzea eta horiek birplanteatzea eskatzen du¹³⁸⁶. Gogoeta horrekin koherentzian, zientzia eta teknologia berrien erronka etikoen inguruan EBko Komisioari gomendioak ematen dizkion EGE organo aholku-emaileak, nanomedikuntzaren marko normatiboan diziplina horren dimentsio etikoa ere esanbidez kontuan hartzea gomendatu du¹³⁸⁷. Jarraian, nanoteknologiaren erabilera desberdinek giza duintasunaren eta autonomia pertsonalaren ikuspegitik planteatu ditzaketan erronka desberdinen analisia egiten da.

Edozein medikuntza tratamenduk, dena delakoa ere, giza duintasuna eta norbere identitatearen bortxa-ezintasun baldintzak errespetatu behar dituz. Alde horretatik, tratamendu horiek gizakion izaera naturalarekiko, alegia, gizaki guztiek komunean ditugun berezko ezaugarri multzoarekiko begirunea izan behar dute. Nanoteknologiak giza materia eskala molekularrean detektatu, monitorizatu eta manipulatzeko gaitasuna duten neurrian, nanomaterialek medikuntzari eskaini diezazkioketen gaitasun gehigarri horiek gizakion elementu naturalen eta artifizialen arteko¹³⁸⁸ eta tratamendu terapeutikoen eta hobekuntza tratamenduen arteko mugen lausopena dakarte¹³⁸⁹. Aldi berean, aplikazio horiek gizakion gorputzaren osotasun eta xedaezintasunari buruzko zalantzak pizten dituzte: nanomedikuntzaren aplikazio potentzial batzuek gizakion gorputza modu isolatuan maneiatu eta ordezkatu daitezkeen atal desberdinen justaposizioa bailitzan tratatzeko

¹³⁸⁶ Planteamendu horren alde, DE COZAR ESCALANTE, 2010: 68-69; VISCIANO, 2011: 27.

¹³⁸⁷ Ikusi EGE, 2007: 35.

¹³⁸⁸ VISCIANO, op. cit, 25-26. orr.

¹³⁸⁹ DE COZAR ESCALANTE, op. cit, 91-92. orr; EGE, op. cit, 41-42. orr; GOFFI eta MISSA, 2011: 15; PONCE del CASTILLO, 2009: 40. Ikuspegi kristau batetik ere, nanoteknologiaren aplikazioek gizakion antzekotasun jainkotiarra (*la semejanza de dios*) urratzen dutela salatzen duen autorerik ere bada. Ikus SANDU eta CARAS, 2013: 168.

gaitasun teknikoa lortu dezakete, berezko zentzua duen unitate bizidun bat eta bakar bezala ulertu beharrean ¹³⁹⁰.

Alor sanitarioan sortu daitezkeen arazo horiez gain, alor militarrean hamarkadak daramatzate gizakion gaitasun fisiko eta psikikoak giza naturaz gaindiko moduan hobetzea helburu duten aplikazio nanoteknologiaren garapenean ¹³⁹¹. Armamentu militarren hobekuntzarekin batera, ia sekretupean mantentzen diren ikerketa militarrek soldaduen baldintza fisikoak indartzea edo gaitasun sentsorialen eta mentalen hobetzea izan dezakete helburu ¹³⁹², nahiz eta esan bezala, ikerketa arlo horretan informazioaren konfidentziasuna eta sekretutasuna nagusi diren. Giza espeziearen berezko ezaugarriak modu artifizial batean hobetzea xede duten praktika eugenesikoak ez dira giza duintasunari zor zaion errespetuarekiko bateragarriak. Defendatu nahi diren balio edo interes kolektiboek izan dezaketen garrantziaz independenteki (eremu militarrean, segurtasun nazionala esate baterako), giza duintasunaren balioarekin talkan sartzen direnean, azken horren alde amore eman behar dute, duintasunak ez baitu inolako ponderaketarik onartzen. Praktika eugenesikoek gizatasunaren berezko ezaugarriei eta beraz giza duintasunari eragiten dietenez, norbanakoen autonomia pertsonala eta interes kolektiboak giza duintasunarekiko errespetura makurtu behar dira. Alde horretatik, praktika eugenesikoak helburu dituzten aplikazio nanoteknologikoak, testuingurua edozein izanik ere, guztiz debekatuta daude, ikerketa arduraturako portaera kode komunitarioan ¹³⁹³ eta EBOEGen ¹³⁹⁴ espresuki xedatzen den bezala.

Nanomedikuntzari buruz nabarmendu daitekeen beste aspektuetako bat osasunaren monitorizazioaren sofistikazioa da. Nanoteknologiari esker aurrekaririk ez duten osasun-diagnostiko aukera berritzaileak irekitzen ari dira, zelulak maila molekularrean monitorizatzen zehaztasun handiko osasun-datuak modu azkarrean lortzea posible egin dezaketenak. Diagnostiko horiek gaixotasunei modu goiztiarrean aurre egiteko ikuspegi sanitario batetik dakartzaten onurak eztabaida ezinak badira ere, pazientearen pribatutasunaren ikuspegitik erronka garrantzitsuak planteatu ditzakete. Norbanakoen osasun fisiko eta psikologikoari buruz gero eta informazio zehatzagoa eta osatuagoa lortzeak, diagnostikoaren helburua eraginkortasunez betetzeko (osasuna monitorizatzea) beharrezkoa ez den osasun-informazioa ekoiztea ekarri dezake, osasunaren gain-informazioa edo *over data* ¹³⁹⁵ alegia. Nanomedikuntza diagnostikoek eskaini ditzaketen

¹³⁹⁰ DE COZAR ESCALANTE, op. cit, 71. orr.

¹³⁹¹ Ibilbide militarrean Estatu Batuek ez dute parekorik mundu mailan: 2011. urtean defentsa departamenduari nanoteknologia militarrean ikertzeko 349 milioi dolarreko aurrekontua aurreikusi zitzaion. Guztira, nanoteknologia militarren ikerketari eskaintzen zaion inbertsio mundialaren %90a Estatu Batuek egiten dute (ikus ALTMANN, 2008: 143).

¹³⁹² Besteak beste, ikus ALTMANN, 2008, DELGADO, 2008; DE NEVE, 2009; SCHUMMER, 2007a: 87-88;

¹³⁹³ EBko Komisioaren 2008/345/CE Gomendioa, 4.1.16 atala: “*Las organizaciones de investigación sobre N+N no deben llevar a cabo investigaciones cuyo objetivo sea una potenciación sin fines terapéuticos de los seres humanos que lleve a la adicción, o exclusivamente la potenciación ilícita del rendimiento del cuerpo humano*”.

¹³⁹⁴ EBOEG, 3.2 art, 2. atala: “*la prohibición de las prácticas eugenéticas, y en particular las que tienen por finalidad la selección de las personas*”.

¹³⁹⁵ DE COZAR ESCALANTE, op. cit, 82. orr.

osasun-datuen gain-informazio horrek, osasuna zaintzeko helburuaz haratago doazen beste interes batzuk piztu ditzake. Osasun-datuen erabilera desbideratzea¹³⁹⁶ gerta liteke, besteak beste, osasun-datu horiek zaintza funtzioetarako edo helburu komertzialetarako baliagarriak izan baitaitezke. Lan arloan, osasun datu horiek pertsona bat kontratatu edo kaleratzeko irizpide baliagarriak izan daitezke, baita seguru agentzientzat ere, pertsona bat aseguratu edo ez erabakitzerako orduan. Osasun-datuen erabilera horiek pertsonen sakoneneko propietate fisiko eta psikologikoetan oinarritutako diskriminazio egoerak bultzatu ditzakete, duintasunaren balioari berari eragiten dioten 1. mailako diskriminazio gisa kalifikatu daitezkeenak. Izan ere, ez gara pertsonen egoera konkretu edo portaera objektiboetan oinarritutako bereizkeria batez mintzo, pertsonaren identitatean (bere propietate fisiko eta psikologikoen sakoneneko informazioan) funtsa duen diskriminazio kasu baten aurrean baizik.

Nanomedikuntzaren diziplinaz gain, nanoteknologien eta IKTen arteko konbergentziak pertsonen gaineko kontrol dispositibo eta sentsore sofisticatuen sorrera ahalbidetu du¹³⁹⁷. Nanomaterialdun dispositibo elektronikoen desberdinek informazio pertsonal kopuru handia eta anitza jaso, tratatu eta transmititzeko gaitasuna eskaintzen dutela aintzat izanik, nazio segurtasuna babestu edota delituen ikerketa penalerako helburuez gain, dispositibo horiek helburu komertzialetarako edota lan-zaintzarako erabili izan dira dagoeneko. Bioteknologiarekin gertatzen den gisan, nanoteknologiaren IKTen kasuan ere “ahalbidetze teknologia” gisa jarduten dute, nanomaterialen herakundeak zaintza metodoen prestazioen potentzializazio eta hobekuntza baitakarte.

Nanomaterialdun dispositibo eta sentsoreek informazio pertsonal kantitate handiagoak modu zehatzagoan eskuratu, biltegitatu eta IKTen bidez sare digitalera transmititu ditzakete. Informazio pertsonalak norbanako bakoitzaren pertsonalitatearekin, identitatearekin, eta beraz, giza duintasunarekin duen harremana zuzena kontuan hartuta, nanomaterialdun dispositibo horiek posible egiten duten datu pertsonalen tratamenduak titularrek beren datu-pertsonalen gainean izan behar duten kontrol eta erabakitze gaitasunaren galera eragin dezakete. Informazio pertsonala beren titularraren baimenik eta kasu askotan beren ezagutzarik gabe erabiltzen da, sarritan legitimoak ez diren helburuetarako (helburu komertzial edota lan-zaintza sekreturako, horretarako arrazoi justifikaturik ez badago ere). Kontsekuenteki, norbere informazio pertsonalaren gaineko xedatze-gaitasun galera horrek autonomia pertsonalaren eta giza duintasunaren hutsaltzea dakar: norbanakoak ez dira gai beren bizitza pribatuaren esfera 3. pertsonen ezagutzatik kanpo noiz eta nola mantendu nahi duten erabakitzeke, kapitulu honen hurrengo ataletan sakonduko den bezala.

Azken hamarkadetan beste teknologia berri batzuekin gertatu den antzera, nanoteknologien garapenean komunikazio eta parte-hartze publikoaren defizitak errepikatu

¹³⁹⁶ EPE, 2007: 46-47; MILLER eta KEARNES, 2012: 28-29. Gorputz datuen erabilera desbiderapenaren analisi sakonagorako, ikus MONAHAN eta WALL, 2007.

¹³⁹⁷ Nanoelektronika erabiltzen duten zaintza dispositibo eta sentsoreei buruz, besteak beste, VAN DE HOVEN eta VERMAAS, 2007; TOK, 2008.

egiten ari dira. Nanoteknologiaren estrategia europarra martxan jarri zenetik teknologia berri horien onura eta arrisku potentzialei buruzko eztabaida eta gogoetak adituen guneetara mugatu dira, ez dira herritar xumeetara ireki. Ondorioz, nahiz eta nanomaterialen manufakturatuetan kontsumo produktuetan eta medikuntzan jada erabiltzen diren, EBko herritarrek nanoteknologiakiko duten ezagutza mailak baxua izaten jarraitzen du¹³⁹⁸. Gizarteak teknologia horien onura, arrisku eta giza eskubideen ikuspegitik planteatu ditzaketen erronkei buruz duen kontzientzia eta ulermen maila oso eskasa da. Nanoteknologiakiko jakintza eta kontzientzia publiko baxuarekin batera, nanomaterialen efektu arriskutsuei buruz egun bizi dugun ziurgabetasun zientifikoaren testuinguruak herritarrek paziente, kontsumitzaile eta langile gisa nanomaterialekiko izan behar duten erabakitze autonomian zuzeneko eragina dauka. Nanoteknologiakiko ezagutza faltak eta nanomaterialen arriskuen gainean dagoen ziurgabetasun maila altuak beren erabaki autonomia mugatu egiten du: nanomaterialekin esposizioan sartzen direnik ez jakitea, edo jakinda ere, nanomaterialen efektu posibleez kontziente ez izatea gertatu daiteke.

Kontsumitzaileen kasuan esate baterako, marko normatibo komunitarioak nano-osagaiak erabiltzen dituzten biozida, kosmetiko eta elikagaien etiketan egitate hori espresuki agertzera behartzen du, osagaiaren izenaren ondoren *nano* atzizkia parentesi tartean jarritz¹³⁹⁹. Produktuaren etiketan *nano* atzizki hori irakurrita, kontsumitzailea teorikoki nanomaterialen kontsumoaren gainean erabaki autonomia egiteko gai izan beharko litzateke. Aitzitik, lehenago azaldu den bezala herritar gisa ez zaio nanoteknologiaren inguruko eztabaidetan parte hartu, informatu eta funtsean beraiei buruzko iritzirik arrazoiturik egituratzeko aukerarik eman. Beraz, kontsumitzailea produktu batek nanomaterialak erabiltzen dituela jakitun izanik ere, nanoteknologiari buruzko ezagutzarik izan ezean ez du nanomaterialen kontsumoaren gaineko erabaki arrazoitu, kontziente eta beraz autonomorik egiteko gaitasunik. Nanoteknologiari buruzko informazio publiko defizitarioak bultzatuta, kontsumitzaileek nanoproduktuak kontsumitzeko, langileek nanomaterialekin lan egiteko eta pazienteek nanomaterialdun tratamendu mediko bat onartzeko erabakia, kasu gehienetan, honako egoeran hartzen dute: nanomaterialak zer diren ulertu gabe eta beren efektu arriskutsuen inguruan existitzen den ziurgabetasun zientifikoari buruzko kontzientziarik eduki gabe. Defizit informatibo horrek langile, kontsumitzaile eta pazienteen autonomia pertsonala hutsaldu egiten du, gizatalde horiek ez baitute nahikoa gaitasunik modu informatu, arrazoitu eta kontzientean nanomaterialekiko esposizioan sartu edo ez erabakitzeke.

Nanomaterialen efektuen ziurgabetasun zientifikoak handia izaten jarraitzen duen honetan, produktuok merkaturatu baino lehenagoko segurtasun neurriak ez dute gaitasun tekniko nahikorik produktuon segurtasuna bermatzeko. Testuinguru horretan, *ex ante* neurrietan baino, autore batzuek merkaturatu ondorengo segurtasun neurrietan atentziora

¹³⁹⁸ 2010. urteko euro-barometro baten arabera, inkestatutakoek %46ak bakarrik izan du nanoteknologiaren berri eta %54ak ostera ez du inoiz beren berririk izan (EBko Komisioa, 2010a). EBko Legebiltzarrak herritarrek nanoteknologiakiko duten ezagutza falta hori nabarmendu egin du (EBko Legebiltzarra, 2012: 46-47).

¹³⁹⁹ Ikus 1223/2009 Erregelamenduaren 19.1.g) art. (kosmetikoak); 1169/2011 Erregelamenduaren 18.3 art. (elikagaiak); 528/2012 Erregelamenduaren 58.3.d) art. (biozidak).

areagotzea proposatzen dute, nanomaterialak ingurumenarekin eta gizakiekin esposizioan sartu ostean izan ditzaketen efektuen monitorizazioan alegia¹⁴⁰⁰. Planteamendu hori, arreta printzipioaren zentzuaren aurkakoa izateaz gain, EBko oinarrizko tratatuek exijitzen duten osasun eta ingurumenaren babes maila altuaren aurka doa. Inplizituki izan bada ere, maila komunitarioan antzeko jarrera egokitu da. Nanomaterialei aplikagarri zaien marko normatibo komunitarioari kasu eginez gero, nanoproduktuek merkaturatzen hasi aurretik gainditu behar dituzten segurtasun ebaluaketa eta testapenek ez dute gaur egun produktuen segurtasuna bermatzeko gaitasun nahikorik eskaintzen¹⁴⁰¹, eta hala eta guztiz ere, nanoproduktuak komertzializatu egiten dira.

Nanoproduktuen segurtasuna erabat bermatu ezin daitekeen ziurgabetasun testuinguru batean, EBk nanoproduktuen merkaturatzea ahalbidetzearen alde egokitu duen planteamendu horrek, herritarrak nanomaterialen esposizioa jasatera kondenatu egiten ditu. Paziente, kontsumitzaile eta langile bezala, herritarrak ez dira izaki arrazional eta libre bezala tratatzen, nanomaterialen arrisku potentzialen testapenaren objektu soilak bezala baizik: hiritarrak nanomaterialen efektuen kaltegarritasun posiblea ikertzeko esperimentu erraldoiaren parte bihurtu dira¹⁴⁰². Nanoteknologiari buruzko ezagutza zientifikoa, laborategian egiten diren testapenez gain, denbora igaro ahala nanomaterialek hiritarrengan eta ingurumenean izan ditzaketen efektu posibleen behaketatik jasotako informazioari esker osatuz joango da. Nanomaterialen efektu arriskutsuen gaineko ziurgabetasun testuinguru horretan nanoproduktuak komertzializatzearen alde EBk hartu duen erabakiak (munduko beste Estatuak egin bezala) gizakiaren instrumentalizazioa dakar (nanomaterialen efektu posibleen ikerketaren objektu bihurtu dira), giza duintasuna urratzen duen erabakia.

IV.2.B. Nanoteknologiaren eta giza eskubideen arteko harremana, orokorrean

Nanoteknologiak giza eskubideengan izan ditzaketen eraginaren irakurketa apropos batek zenbait faktore kontuan hartzea eskatzen du. Alde batetik, nanomaterialen efektuen gainean oraindik existitzen den ziurgabetasun maila handia. Bestetik, gaur egun eskuragarri dauden nano-aplikazio eta produktuez gain, etorkizunera begira garapen fasean dauden ikerketa ildoen nondik-norakoak. Azkenik, beste teknologia berrien antzera, nanoteknologiak eskubide batzuen egikaritzarako lagungarriak izan daitezke, beste hainbat eskubideri negatiboki eragin diezaieketen bezalaxe. Nanoteknologiaren eta eskubideen harremana bere osotasunean aztertuz gero (alde positibo eta negatiboak), gaur egungo zein etorkizunera begirako nano-aplikazio eta produktuak barne, teknologia mota horiek giza eskubide desberdinei eragiten diezaiekete:

¹⁴⁰⁰ DANA, 2012: 152.

¹⁴⁰¹ EBko Komite zientifikoa desberdinek aintzatesten duten egitatea da. Horri buruz, 4. kapituluak, III.2 atala.

¹⁴⁰² Stefan May autoreak teknologia berriek etorkizunera begira eragin ditzaketen kalteen ezjakintasunaren baitan egindako gogoeta da honakoa, nanoteknologiaren kasuan erabat baliagarria (MAY, 2012: 308).

- a) Giza eskubideen sailkapen klasikoaren harira, nanoteknologiak lehenengo, bigarren eta hirugarren belaunaldietako eskubideekin zerikusia izan dezakete. Eskubide zibil eta politikoekin, eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalekin eta baita solidariotasun balioan funtsa duten eskubideekin ere (ingurugiro osasuntsurako eskubidearekin esate baterako). Giza eskubideez gain, nanoteknologiak bestelako eskubide kategoriatzuei ere eragin diezaiekete, besteak beste, kontsumitzaileek edota langileen eskubide legalei.
- b) Nanoteknologiak eragiten dituzten eskubide gehienak izaera indibidualekoak badira ere, eskubide kolektiboetan ere ondorioak sorrarazi ditzakete (ingurugiro osasuntsurako eskubidean esate baterako).
- c) Norbanakoak gizaki edota hiritar izateagatik dituen eskubide orokorrez gain, nanoteknologiak talde espezifiko batzuen eskubideei ere eragiten diezaiekete, zehazki, langile, ikertzaile, kontsumitzaile edota pazienteen eskubideei.
- d) Eskubide gehienek nanoteknologiaren ikerketa, ekoizpen, erabilera edo komertzializazioarekin zerikusia dute. Beste batzuek oster, nanoteknologiaren gobernantza prozesuarekin (hiritarren informazio eskubidea eta prozesuan parte-hartzeko eskubidea).

Nanoteknologiak eskubideen egikaritzan izan ditzaketen ondorio positiboak dagokienez, funtsean bi dira teknologia berri horien erabilerak lagundu ditzaketen eskubideak: osasuna babesteko eskubidea (EK 43. art.) eta ingurugiro osasuntsu batez gozatzeko eskubidea (EK 45. art.), Espainiar ordenamenduan, politika sozial eta ekonomikoen printzipio zuzentzailearen izaera onartzen zaien eskubide sozialak. Alde batetik, nanomedikuntza arloan iragartzen diren aurrerapen itzaropentsuek gaixotasun larriak modu eraginkorragoan tratatzeko aukera berriak eskaini ditzakete, etorkizunean asistentzia sanitarioaren eta medikuntza zerbitzuen hobekuntza ekarri dezakeena. Bestetik, osasuna babesteko eskubidearekin harreman estuan, nanoteknologiaren etorkizunera begirako beste onura hipotetiko bat¹⁴⁰³ elementu naturalak (airea, ura, lurra) garbitzeko izan dezaketen gaitasuna da. Horrela izanez gero, aplikazio nanoteknologiko horien sustapen publikoak ingurugiro osasuntsu batez gozatzeko eskubidean eragin positiboak izan ditzake.

Osasuna babesteko eskubidearen dimentsio indibidualean (asistentzia sanitarioan) eta ingurumen osasuntsu batez gozatzeko eskubidean eragin positiboak izan baditzakete ere, nanoteknologiaren garapenak eta beren aprobetxamendu tekniko anitzek kolektibotasun desberdinen (kontsumitzaile, langile, paziente eta hiritarrei) eskubideei erronka garrantzitsuak planteatzen dizkiete. Nanoteknologiaren ikerketak aurrera segi ahala, eta kontsekuenteki 3. zein 4. belaunaldiko nano-aplikazioak erabili eta merkaturatu ahala, erronka horiek gero eta konplexuagoak bilakatu daitezke. Nanoteknologiaren eragin eremua hain zabala den testuinguru horretan, botere publikoen egintzek eta erabakiek rol

¹⁴⁰³ Etorkizunera begira nanoteknologiak ingurugiroa garbitzeko izan dezaketen gaitasunek, gaur egun zailtasun asko sortzen dituzte. Izan ere, onura potentzial horiek frogatzeko daude oraindik eta nanomaterial batzuk ingurugiroa garbitu baino, larriki kutsatzeko gaitasuna erakutsi dute (nano-zilarrak uraren kasuan adibidez).

garrantzitsua jokatu dezakete. Etorkizunera begirako nanoteknologiaren mehatxu potentzialak, botere publikoek giza eskubideen egikaritza babestu, kontrolatu eta sustatzeko egokitzen dituzten neurri eta erabaki juridikoen eraginkortasunaren arabera izango dira. Hots, nanoteknologiaren etorkizunera begira izango duten garapenaren arabera, botere publikoek erronka berri eta batzuetan ezezagun horiei aurre egiteko gaitasuna izan behar dute, giza eskubideen berme sistemak egokitasunez berregituratzeko zeregin garrantzitsua baitute esku artean.

Gaur egun nanomaterialen fabrikatzearen ustiapen eta komertzializazioa etengabe hazi eta hedatuz doa, nahiz eta beren propietate, portaera eta efektuen inguruko ziurgabetasun zientifikoa handia den eta, horietako batzuek, osasun eta ingurumenean kalte nabarmenak eragin ditzaketenaren arrazoizko zantzu zientifikoak gero eta gehiago izan. Testuinguru horretan, nanoteknologiaren planteatzen dituzten arriskuen onargarritasunari buruzko erabakiek hiru printzipio nagusitan izan behar dute oinarri: printzipio demokratikoan, arreta printzipioan eta aurreko biek harreman estua duen gardentasun printzipioan. Tesiko 3. kapituluko II.2 atalean aztertu den bezala, nanoteknologiaren gobernantza komunitarioak ez ditu zerrendatu berri diren hiru printzipio horiek errespetatzen. Langile eta kontsumitzaileen informazio eskubideak ordea 11. kapituluan aztertzen dira.

Balantzaren beste aldean, nanoteknologiaren atzean dagoen sare industrial eta ekonomikoarekin zerikusia duten eskubide eta askatasun ekonomikoaren multzoa dago. Jabetza intelektualaren eskubidearen inguruan sortu den marko juridikoak eskaintako mekanismo desberdinetan gotortuz, teknologia berrien atzean dagoen teknozientzia antolatuak nanoteknologiari eta beren aplikazio zein produktuei buruzko informazio gutxi transmititzen die botere publikoei. Hala ere, jabetza intelektual (eta horren isla den jabetza industrial) ezin da eskubide absolutu bezala ulertu, ongi-komunaren eta gizartearen ongizateari laguntza ematera baldintzaturik dagoen eskubide bezala baizik¹⁴⁰⁴. Alegia, jokoan dauden interes pribatu eta publikoen arteko balantza egitea eskatzen duen eskubidea da, egileen interesak babestu eta aldi berean interes publikoak babestu ahal izateko beharrezkoa den informaziora sarbidea bermatzea eskatzen du.

Nanoteknologiaren bilakaera, bestalde, bi abiadura desberdin dituen prozesua izaten ari da. Nanoteknologiaren aprobeitamentu teknikorako bideratutako ezagutza zientifikoa azkar ari da hazten, ez ordea osasun edo ingurumenean izan ditzaketen efektuei buruzkoa, azkeneko hori ziurgabetasun zientifikoz inguraturik jarraitzen duen jakintza eremua baita. Beraz, kapitulu honen VIII. atalean bi martxadun ekoizpen zientifiko horrek ikerketa zientifikorako askatasunaren dimentsio indibidual eta kolektiboaren ikuspegitik eragiten dituen erronken analisia egiten da. Nanomaterialen arrisku potentzialen ziurgabetasun testuinguru hori, esan bezala, ez da oztopo izaten ari nanomaterialak produktuetan erantsi edo medikuntza bezalako diziplinan erabiltzen hasi eta gizaki zein ingurumenarekin esposizioan sartzeko. Alde batetik, osotasun fisikorako oinarrizko eskubidean, osasuna

¹⁴⁰⁴ Audrey Chapmanek EGKNI-ren 15. artikuluari buruz (jabetza intelektualaren eskubidea) eginiko interpretazioa. Ikus MATTHEWS, 2010: 122-123.

babesteko eskubidean eta ingurumen osasuntsu batez gozatzeko eskubidean¹⁴⁰⁵ negatiboki eragin dezakeen egitatea da (kapitulu honen V. atalean aztertua). Bestetik, nanomedikuntza tratamendu berritzaileen alboko efektuen ezjakintasunen aurrean, pazienteak tratamendu hori baimendu edo ez modu informatu eta autonomoan erabakitzeko duen oinarritzko eskubidea nola bermatu ere hausnartzen da (VI. atala). Nanoteknologiaren eta IKTen konbergentziari esker garatuz doazen dispositibo eta sentso desberdinek, norbanakoen orotariko informazio pertsonala gero eta modu sofistikatuagoan jaso, bildu, tratatu eta transmititzeko gaitasuna dute, aurreko azpi-atalean aztertu den bezala. Alde horretatik, bizitza pribatuaren esferaren baitan kokatzen diren intimitate eta autodeterminazio informatiborako eskubideei eragiten diete, baita mugimendu askatasunari ere (VII. atala).

IV.2.C. Europar Kontseilua: ibilbidearen hasiera

Nanoteknologiaren komertzializazioaren hastapenetatik hamarkada bat inguru igaro da dagoeneko. Hamarkada honetan nanoteknologiaren marko juridikoaren egiturapenean aurrerapausoak eman dira, geldoa eta konplexua izaten ari den prozesu normatibo baten bidez. Hala ere, egiturapen juridiko horretan nanoteknologiaren eta giza eskubideen arteko harremanak ez du orain arte lekurik izan eta doktrinalki ere gaia gutxi landua izan da. Esparru komunitarioan esate baterako, Nanoteknologiaren Ikerketa Arduratsurako Portaera Kodeak (Komisioaren 2008/345 Gomendio bidez onartua) giza eskubideen errespetuarekiko aipamen solteren bat besterik ez du egiten. Portaera kode horren arabera, nanoteknologiaren eta nanozientzien (*N+N*) ikerketa gizakien oinarritzko eskubideak babestuz eta gizartearentzako modu ulerkorrean garatu behar da eta ondorioz, giza eskubide edota oinarritzko printzipio etikoak urratzen dituzten ikerketak finantzatzea debekatzen da¹⁴⁰⁶. Portaera kode horrek ordea kritika asko jaso izan ditu, aldarrikatzen dituen printzipioen eta praktikan ematen diren gertakari eta egitateen artean kontraesan nabariak aurkitu baitaitezke. Portaera kodea *soft law* araua den aldetik, bere edukiaren betearazpena borondatezkoa da (Holandaren kasuan izan ezik¹⁴⁰⁷) eta hartatik, portaera kodea nanoteknologiaren ikerketa arautua dagoen itxura eman eta legitimotasunez hornitzeko instrumentu bezala erabiltzen dela arrazoitu daiteke¹⁴⁰⁸. Ikerketarako portaera kode horrek egindako aipamen hutsal horiez gain, maila komunitarioan ez da nanoteknologiaren eta giza eskubideen harremanari buruzko hausnarketa eta planteamendu sakonagorik egin.

Gaur arte nanoteknologia eta giza eskubideei buruzko eztabaida instituzionalari hasiera eman dion nazioarteko erakunde bakarra Europar Kontseilua izan da. Europar

¹⁴⁰⁵ Ingurugiroko elementu natural desberdinetan nanomaterialek izan ditzaketen eragin kaltegarriari buruz, tesiko 3. kapituluak kontsultatu, I.2.C eta I.3 atalak.

¹⁴⁰⁶ EBko Komisioaren 2008/345/CE Gomendia, 3.1 eta 4.1.13 eta 4.1.15 atalak.

¹⁴⁰⁷ Holandak, nanoteknologiaren finantziario publikorako planera atxikitze aurrebaldintza gisa, NIPKarekin kontratu bidezko derrigorrezko betearazpena exijitzen du. Ikus MANTOVANI et al, 2012: 11 (Observatory NANO).

¹⁴⁰⁸ Hausnarketa horren alde, FLEAR eta PICKERSGILL, 2013: 18-19.

Kontseilua, giza eskubideen babeserako mandatua duen erakunde paneuropearra den neurrian, bere Asanblada Parlamentarioak, 2013ko apirilean argitaratutako 2017 (2013) Gomendioaren bidez¹⁴⁰⁹, Europar Kontseilua osatzen duten komite desberdinei gai honi buruzko analisia egitea eskatu zion.

Europar Kontseiluko Asanblada Parlamentarioak, Ministroen Komiteari, nanoteknologiak osasun eta ingurugiroaren esparruan eragin ditzaketen onura eta arriskuei buruzko gidak lantzea gomendatzen dio. Asanblada Parlamentarioaren esanetan, gida horiek arrisku ebaluaketa eta kudeaketari buruzko arauketen harmonizazioa izan behar dute helburu, langile, ikertzaile, kontsumitzaile eta pazienteen eskubideen babesa eta hezkuntza ardatz bezala hartuz¹⁴¹⁰. Aipatu gidek Ministroen Komitearen gomendio forma hartzea proposatzen badu ere, Estatu-kide gehienek horrela erabakiz gero, instrumentu loteslearen forman onartzea ere posible deritzo Asanblada Parlamentarioak; esate baterako, biomedikuntza eta giza eskubideei buruzko Oviedoko Hitzarmenaren protokolo gehigarri bezala¹⁴¹¹. Europar Kontseiluko Ministroen Komiteari egindako gomendioaz gain, Asanblada Parlamentarioak DH-BIO Komiteari (*Committee on Bioethics*) bere eskumenpeko gaitan nanoteknologiari buruzko estandarren azterketa egitea ere eskatu zion.

Ministroen Komiteak, 2013ko maiatzaren 7ko bilkuran¹⁴¹², Asanblada Parlamentarioaren 2017 (2013) Gomendia aintzat hartzen zuela adierazi eta DH-BIO zein CDDH (*Steering Committee for Human Rights*) Komiteei igorraz zion, gomendioaren berri izan eta hala iritzi gero iruzkin gehigarriak egin zitzaizkien. Handik aste batzuetara, DH-BIO Komiteak Asanblada Parlamentarioaren gomendioari eta Ministroen Kontseiluaren adierazpenari erantzun egin zion¹⁴¹³. DH-BIO Komitearen mandatua biomedikuntza alorrean giza duintasuna eta eskubideak babestean datza, eta ondorioz, lehenago aipatu den Oviedoko Hitzarmena berraztertu eta garatzeko ardura dauka. Hartatik, 2014-15 urte bitartean nanoteknologiak biomedikuntzan izan ditzaketen eraginei buruzko informea egingo zuela iragarri zuen. Biomedikuntza eremuaz harago, nanoteknologia aplikazio anitzek osasunean eragiteko gaitasuna ere badutela kontuan izanik, DH-BIO Komiteak horien analisia ere egingo zuela adierazi zuen. Ministroen Komiteak, DH-BIO Komiteari ez-eziz, Asanblada Parlamentarioaren 2017 (2013) Gomendia CDDH Komiteari ere igorri zion, aintzat hartu eta egoki bazeritzon iruzkinak egin zitzaizkien. CDDH Komitearen mandatua ECHRn aurreikusitako giza eskubide eta askatasunak garatu eta sustatzea da, baita beraien babeserako prozedurak egituratzea ere. Hortaz, nanoteknologiak giza eskubideengan izan ditzaketen eragin eta urrapen posibleak aztertzeke erakunde aproposa dela ulertu daiteke. Hala ere, CDDH Komiteak Ministroen

¹⁴⁰⁹ Europar Kontseiluak hasitako prozedura horren analisi laburra: JEHL, 2012.

¹⁴¹⁰ Asanblada Orokorraren 2017 (2013) Gomendia, 5.3. atala.

¹⁴¹¹ Ibid, 5.6. atala.

¹⁴¹² Europako Kontseiluaren Ministro Komitearen 1170. bilkura.

¹⁴¹³ *Comments from the Committee on Bioethics (DH-BIO) on Recommendation 2017 (2013) of the Parliamentary Assembly –“Nanotechnology: balancing benefits and risks to public health and the environment” adopted on 29 May 2013.*

Komiteari emandako erantzunean¹⁴¹⁴ ez zuen gaiaren inguruan inolako iruzkin gehigarririk egin.

CDDH Komiteak nanoteknologia eta giza eskubideen eztabaidan orain arte adostu duen posizio pasibo horri buelta ematea ezinbestekoa da. Hots, CDDH Komiteak Europako Kontseiluan duen mandatu normatiboarekin modu kontsekuentean jokatu eta nanoteknologiak giza eskubideekiko izan ditzaketen eraginen azterketan jarrera aktiboagoa izan behar du. Ondorioz, biomedikuntzaren eremuan DH-BIO Komiteak egin beharreko informeaz gain, CDDH Komiteak biomedikuntzaren eremutik at kokatzen diren bestelako giza eskubideen urrapenen analisisan sakondu beharko luke eta kontsekuenteki, giza eskubideak babesteko neurriak diseinatu eta proposatu. Bestalde, DH-BIO eta CDDH komiteez aparte, nanoteknologiaren garapenak Europako Kontseiluaren beste komite batzuen parte-hartzea ere eskatu dezake. Esate baterako, nanoteknologiaren aplikazio potentzial batzuek datu pertsonaletan eragiteko gaitasuna duten aldetik¹⁴¹⁵, Datu Pertsonalei Buruzko Hitzarmenaren (“108 Hitzarmena” bezala ezagutzen dena) T-PD komite aholku-emaileak ere nanoteknologiaren eta datu pertsonalen arteko harremana aztertu egin beharko luke.

Funtsean, Europar Kontseiluan nanoteknologiaren eta giza eskubideen inguruan hasitako prozesua bere hastapenetan dagoela ondorioztatu daiteke. Hala ere, prozesuak martxan daraman denbora labur honetan, nanoteknologiaren eta giza eskubideen harremanari buruzko ikuspegi integralaren falta nabari da. Europar Kontseiluan, egun, DH-BIO Komiteak 2014-15 urte bitartean gauzatu beharko zukeen analisia besterik ez dago martxan, nanoteknologiak biomedikuntza eremuan ukitu ditzaketen eskubideei buruzkoa. Nanoteknologiaren etengabeko garapenak, aitzitik, gaur egun eta bereziki etorkizunera begira, bestelako esparruetan giza duintasun, autonomia pertsonal eta giza eskubideekin zerikusia duten zalantzak sorrarazten ditu. Ondorioz, Europar Kontseiluren baitan nanoteknologiari eta giza eskubideei buruzko marko normatibo aproposa eta aitzindaria egokitzea posible izan dadin, nanoteknologiak eta berorren aplikazioek eragin ditzaketen eskubideak identifikatu eta eskubide horiek babestu eta sustatzeko mandatua duten barne komiteen zein bestelako organoen analisi koordinatu eta integrala bultzatzea ezinbestekoa da.

¹⁴¹⁴ *Opinion of the CDDH on Recommendation 2017 (2013) of the Parliamentary Assembly – “Nanotechnology: balancing benefits and risks to public health and the environment”. CDDH : 78th meeting – 25/28 June 2013 CDDH(2013)R78.*

¹⁴¹⁵ Europako Kontseiluak enkargatutako informe proiektu batetan, nanoteknologiaren zenbait aplikazioek pribatutasun eskubidean eta datu pertsonalen babesean eragin ditzaketen mehatxuen inguruan ohartarazi egiten du. Ikusi MILLER eta KEARNES, 2012.

V. OSOTASUN PERTSONALERAKO ETA OSASUNA BABESTEKO ESKUBIDEAK

Atal honetan barrena, lehenik eta behin osotasun pertsonalerako eta osasuna babesteko eskubideen eduki konstituzionalen analisia egiten da, eskubide horiek beraien artean dituzten lotura-harremanekin batera. Ondoren, analisi teoriko hori oinarri hartuta, botere publiko komunitario eta estatalek nanoteknologiaren mehatxu posibleen aurrean adierazi duten pasibotasun normatiboari aurre egiteko baliatu daitezkeen mekanismo judizial posibleak aztertzen dira. Azkenik, espetze-eremuan nanomaterialez eginiko *Verichip* inplanteak presoaren drogen kontsumoa detektatzeko segurtasun neurri bezala erabiltzeak presoaren osotasun fisikoaren eta osasuna babesteko eskubidearen prismatik eragiten dituen arazoaren analisia egiten da.

V.1. Osotasun pertsonalerako eta osasuna babesteko eskubideen analisi konstituzionala

V.1.A. Osotasun pertsonalerako eskubidea

Osotasun pertsonala, giza duintasun eta askatasun balioekin harreman estua duen eskubidea da, norbere pertsonalitatearen garapen librerako ezinbestekoa den autonomia pertsonalean isla duena. Nazioartean mailan aintzatesten zaion babesarekin batera¹⁴¹⁶, ordenamendu espainiarrean oinarritzko eskubide bezala konfiguratu da (EK 15. art.) eta bizitza eskubidearekin eta osasuna babesteko eskubidearekin harreman estua gordetzen du¹⁴¹⁷. Konstituzioan oinarritzko eskubide bezala konfiguratu den neurrian, eraginkortasun zuzeneko eskubide subjektiboa izateaz gain, bere efektuak espainiar ordenamendu juridiko osora hedatzen dituen balio objektibo bezala ere jarduten du: botere publikoek osotasun pertsonalaren aurka doazen egintzak tipifikatu, ikertu eta zigortzeko mandatu konstituzionala daukate. Eskubide honek babesten duen ondasun juridikoa pertsonaren bortxa-ezintasuna da¹⁴¹⁸ (gaitasun organiko, funtzional eta mental bezala ulertuta¹⁴¹⁹), hots, norberak bere gorputz eta espirituaren gainean duen ukiezintasuna,

¹⁴¹⁶ Europar Batasunean, EBOEGen 3. eta 4. artikuluetan eta Europako Kontseiluaren GEEHren 3. eta 8. artikuluetan. Izan ere, GEEHk tortura, tratu krudel eta iraingarrien esanbidezko debekua aurreikusten du (3. art) eta horiek baino entitate gutxiagoa duten osotasun pertsonalaren aurkako egintzen kasuan, EGEAk bizitza pribatuaren eskubidea (8.art) urratzen dutela interpretatu du (zentzu horretan EGEAk emandako ebazpenen azterketa, besteak beste: RENÉ SANTAMARÍA, 2004: 65-72; ARZOS SANTISTEBAN, 2004: 268-270).

¹⁴¹⁷ Bizitza eta osotasun pertsonalerako eskubidea batera aintzatesten dira, EKren 15. artikuluan. Alde horretatik, osotasun pertsonalak bizitzaren errealitate unitarioa osatzen du, osotasun pertsonalean lesioa gero eta kaltegarriagoa den heinean bizitzaren balioaren existentzia bera gero eta intentsitate handiagoan jartzen baita kolokan. Zentzu horretan, autoreren batek bizitza eta osotasun pertsonala eskubide unitario bezala ulertzen du (EZQUERRA ESCUDERO, 2010), gehienek ordea bi eskubide autonomo bezala (ikus, PICAZO, 2008: 189; CANOSA USERA, 2006:99). Osasunaren babeserako eskubidea EKren 43. artikuluan jasotzen da eta osotasun pertsonalaren eskubidearekin duen harremana (ikus AKEE 207/1996, 2.o.j; 35/1996, 3.o.j, eta AKA 192/1993, 1.o.j.) kapitulu honen V.1.C azpi-atalean aztertzen da.

¹⁴¹⁸ Besteak beste, AKE 120/1990, 8.o.j; 48/1996, 2.o.j.

¹⁴¹⁹ EZQUERRA ESCUDERO, 2010: 21.

gorputzeko barne zein kanpo dimentsioan¹⁴²⁰. Pertsonaren bortxa-ezintasuna bere dimentsio fisikotik eta moraletik babesten da. Alde batetik, norbanakoaren anatomiaren elementu guztiak, geneak eta molekulak barne (osotasun genetikoak) eta norbere itxura fisikoa. Bestetik, indibiduoaren potentzialtasun intelektual zein sentsorialak eta min fisiko, pairamen psikologiko edo moralak izateko gaitasuna¹⁴²¹. Osasuna babesteko eskubidearekin mantentzen duen zuzeneko harremana dela eta, osotasun pertsonalerako eskubideak babesten duen ondasun juridikoan osasun fisiko, moral eta psikologikoa ere barneratzen dira.

V.1.A.a. Eskubidearen bi dimentsioak: fisikoa eta morala

Osotasun pertsonalaren dimentsio fisikoak plano biologikoari¹⁴²² egiten dio erreferentzia, alegia, norbere gorputzari bere osotasunean (kanpoko itxura fisikoa barne). Itxura fisikoa praktika desberdinek urratu dezakete, esate baterako, itxura aldatzeko interbentzio kirurgikoek, kosmetikoek edota norbanakoen itxura fisikoaren aurka botere publikoek burututako gehiegikeriek¹⁴²³. Medikuntza eta biologian eman diren aurrerapenak direla eta, ingeniariak genetikoaren gorakadak osotasun fisikoaren ikuspegitik erronka ugari sorrarazi ditu. Kontsekuenteki, osotasun pertsonalaren dimentsio fisikoan osotasun genetikoaren babesa ere ardatzezko elementua bihurtu da¹⁴²⁴. Bestalde, intimitate korporala (gorputzaren kanpo dimentsioan egindako miaketen bidez eraginda geratzen dena) ez da osotasun fisikoaren dimentsioan sartzen, intimitaterako eskubidearen barnean baizik¹⁴²⁵.

Eskubidearen dimentsio moralaren kasuan, ordea, horrek zer barnebiltzen duen edo urratua noiz gertatzen den ez da aho-batasuneko kontua. Jurisprudentzia konstituzionalak pertsonaren gaitasun psikologiko edo psikikoarekin lotu izan duen dimentsioa da¹⁴²⁶, hots, norbere *psikean* umiliazio edo doilortzearen ondorioz pertsonalitatearen garapenean eragin dezaketen egintzekin¹⁴²⁷. Osotasun moralaren urrapen horien adibide garbiena botere publikoek (gorputz polizialek edo presondegiko administrazioak batez ere) norbanakoari emandako tratu anker eta iraingarriak dira¹⁴²⁸. Gaitasun psikologiko edo psikikoetara

¹⁴²⁰ DÍEZ-PICAZO, 2008: 235.

¹⁴²¹ Ibid, 89. orr. eta CANOSA USERA, 2012: 139-140.

¹⁴²² MARTÍNEZ MORÁN, 2008:159.

¹⁴²³ Besteak beste, ikusi AKE 207/1996, 2. o. j.

¹⁴²⁴ Horri buruz, beste askoren artean: CANOSA USERA, 2006:89; DÍEZ PICAZO, op. cit, 231-235. orr; FERNÁNDEZ ACEBO, 2013: 218-234; MARTÍNEZ MORÁN, op. cit, 165. orr; MORENTE PARRA, 2011. Ingenieritza genetikoak, garatuz doan heinean giza bizitzaren kontzepzio etiko eta juridikoen hausnarketa sakona eragiten ari da, giza espezieari berari eragiten dizkioten arazoak planteatzen baititu eta orain arte, gai horri buruzko akordio antropologiko global eta unitarioak falta dira (DÍEZ-PICAZO, op. cit). Maila komunitarioan, medikuntza eta biologia arloko debeku absolutu batzuk ezartzen dira, EBOEGen 3.2. artikuluan zehazki: praktika eugenetikoen, gorputzeko edozein elementuren irabazi bidezko besterentzea, ernalkuntzazko giza klonazioa debekatzen dira.

¹⁴²⁵ AKE 207/2006, 2.o.j.

¹⁴²⁶ Ikus AKEE 221/2002; 71/2004.

¹⁴²⁷ CANOSA USERA, 2006:95; FERNÁNDEZ ACEBO, op. cit, 139; MARTÍNEZ DE LLANO, 2006:141.

¹⁴²⁸ Horri buruz, besteen artean, AKEE 2/1987; 120/1990; 57/1994; 119/1996.

mugatu beharrean, osotasun morala pertsona orok bere bizitzarekin zerikusia duten irizpide, balorazio eta jarduerak askatasunez kudeatzeko gaitasunarekin lotu daiteke ere, elementu guzti horiek “helburuzko-oreka” bat osatzen baitute¹⁴²⁹. Interpretazio horren harira, osotasun morala “helburuzko-oreka” hori apurtzeko entitate nahikoa duten egintzen bidez urratu daiteke.

V.1.A.b. Eskubidearen edukia eta mugapenak

Osotasun pertsonalerako eskubidearen edukiak elkarren artean bereizten diren bi plano barnebiltzen ditu. Alde batetik, tortura, tratu anker eta iraingarrien debekua, eta bestetik, titularraren baimenik gabe norbere gorputzean interbentziorik ez jasateko eskubidea¹⁴³⁰. Tortura, tratu anker eta iraingarrien kasuan (urrapenen larritasunaren arabera graduatuak), osotasun pertsonalaren eskubidearen gutxieneko edukiari, nukleo esentzialari eragiten dieten egintzak dira eta ondorioz, beren debekua absolutua da, ez du jokoan dauden beste eskubide edo balio konstituzionalekin inolako ponderaziorik onartzen¹⁴³¹. Pertsonaren bortxa-ezintasun ondasun juridikoa, ordea, ez da osasunarentzat kaltegarriak diren egintzetara mugatzen. Aurreratu bezala, ondasun juridikoak pertsonen gorputzean egindako edozein interbentzio barne hartzen du, horiek praktikatzeko konstituzio-aginduz ezartzen den titularraren baimena ezinbesteko baldintza baita. Horren erakusgarri tratamendu medikoen kasuan errespetatu beharreko pazientearen baimen informaturako eskubidea da, titularraren baimen libre eta informatuaren inguruan egituratzen dena¹⁴³². Bestalde, titularrak baimena emateko gaitasun eza duen kasuetan (adin txikien edo ez-gai psikikoen kasuan esaterako) ordezkari legalaren arau orokorrak jarraitu behar dira¹⁴³³.

Tortura, tratu anker eta iraingarriekin gertatzen ez den bezala, osotasun pertsonalerako bigarren plano hori ez da absolutua. Alegia, osotasun pertsonalerako eskubidea Konstituzioan jasotzen diren beste eskubide edo balio batzuekin talkan sartzen den kasu zehatz batzuetan (osasun publikoa, segurtasuna, adin txikien interesa edota presoen bizitzarako eskubidea), legediak botere publikoei titularraren baimenik gabe bere gorputzaren gainean interbentzioak egiteko ahalmena aitortu diezaieke. Zehazki, polizia gorputzek eta instrukzioko epaileek delituen ikerketan; botere judizialak ezgaituen esterilizazio kasuetan¹⁴³⁴; presondegiko administrazioak presoen bizitza eskubidea

¹⁴²⁹ EZQUERRO, 2010: 26.

¹⁴³⁰ AKE 120/1990, 8.o.j: “ (...) *no solo contra ataques dirigidos contra su cuerpo o espíritu, sino también contra toda clase de intervención en esos que carezca del consentimiento del titular*”. Beste batzuk, AKEE 214/1994; 48/1996; 207/1996; 206/2007.

¹⁴³¹ Beste batzuen artean, AKEE, 120/1990; 137/1990; 34/2008. EGEA-ren ebazpenak, besteak beste: *Irlanda c. Reino Unido* (1978-01-18); *Tomasi c. Francia* (1992-08-27); *Selmouni c. Francia* (1999-07-28).

¹⁴³² Ikuspegi jurisprudenzialetik, pazientearen autonomia eskubide hori urratzeak osotasun pertsonala (EK 15. art.) urratzea dakar (ikus AKE 37/2011, 3. 5. eta 6. o.j.). Pazientearen autonomia eskubide hori, hala ere, kapitulu honen hurrengo atalean (VI) sakontzen da.

¹⁴³³ Kode Zibileko 162-163. artikulua begiratu.

¹⁴³⁴ Eremu zibilean, aitatasun frogaren kasuan ordea, titularrak proba egiteari uko egin diezaioke eta kasu horretan ezin da froga egitera behartu, nahiz eta organo judizialak prozesu judizialean egitateak zehazterako orduan aitatasun froga egitearen ukapen hori aintzat hartu dezakeen (AKEE 103/1985; 7/1994).

babesteko zereginen¹⁴³⁵ edo segurtasun arrazoiengatik¹⁴³⁶. Konstituzioan aurreikusten den oinarritzko eskubidea izanik, osotasun pertsonalaren gaineko mugapenak legez habilitatu behar dira, epailearen ebazpen motibatua exijitzen dute eta proportzionalak izan behar dira¹⁴³⁷.

Bestalde, osotasun pertsonalerako eskubidea arrisku egoeretan ere urratu daitekeela adierazi du AK-k, osasunarentzat lesio eraginkorrik ez gertatuta ere, lesioa sortzeko arrisku potentzial aipagarria eta benetakoa bazegoen (arrisku abstraktu eta hipotetikoek beraz, ez dute osotasun pertsonalerako eskubidea urratzen)¹⁴³⁸. Bestalde, osotasun pertsonala ez da egiteengatik bakarrik urratzen, botere publikoen ez-egiteengatik ere, ez-egite horrek osotasun pertsonala (osasunaren prismatic) urratu zezakeenaren kontzientzia dagoen kasuetan¹⁴³⁹.

V.1.B. Osasuna babesteko eskubidea

Osasuna babesteko eskubidea (eta ez osasunerako eskubidea¹⁴⁴⁰) nazioarte mailan giza eskubide bezala¹⁴⁴¹ egituratzen da eta maila komunitarioan, EBOEGek berariaz

¹⁴³⁵ Zentzu horretan, AK-k jarraitutako doktrina, 120/1990 ebazpenean funtsa duena, oso kritikatu izan da, GRAPOko kide batzuek kartzelan zeudela egindako gose greban indar bidez elikatu baitzituzten (presondegiko administrazioaren eta presoaren arteko lotura bereziko harremanaren kontzeptu doktrinalean oinarrituz), 1/1979 Lege Organikoko 3.4. artikulua araberako presoaren bizitza eta osasuna babesteko zuten betebeharrean (ikus AKEE 120/1990; 137/1990). Interpretazio jurisprudenzial horren aurka, 120/1990 ebazpenak bi bozka partikular izan zituen, Alde batetik Miguel Rodríguez-Piñero eta Bravo-Ferrer magistratuena, eta bestetik, Jesús Leguina Villa magistratuarena. Funtsean, magistratuek presondegiko administrazioaren jarrera presoaren askatasun gabetze zigorretik eratorri ezin daitekeen osotasun pertsonalaren muga gehigarria zela arrazoitu zuten, zilegi ezin izan zitekeena. Interbentzio medikoen aurrean presoek pazienteen eskubide eta askatasun berberak izan behar dituzte, osotasun fisikoa ezin baita presondegiko funtzionamendu egokia bermatzeko beharrezko eskubide mugapen bezala ulertu eta kasu horretan gainera, GRAPO-ko presoaren erabaki horrek ez zuen 3. pertsonen bizitza edo osasuna arriskuan jartzen (ikuspegi horren alde, beste batzuen artean: ATIENZA, 1993: 97; CANTERO MARTÍNEZ, 2008: 44-45; GARCÍA AMEZ, 2013; LASAGABASTER HERRARTE, 1994: 396-404).

¹⁴³⁶ Presoaren baimenik gabe eta segurtasun arrazoiak argudiatuz egin zitzaizkion X izpien probek bere osotasun fisikorako eskubidea urratu ez zutela interpretatu zuen AK-k, bere osasuna ez baitzen arriskuan jarri (AKE 35/1996).

¹⁴³⁷ EK 53.1 artikuluan aurreikusitako habilitazio legal horrekin batera, beste betekizunek garapen jurisprudenziala izan dute (besteak beste ikusi AKE 207/1996, 4. o.j.).

¹⁴³⁸ Oraingoan, lan arloko arriskuekin lotutako osotasun pertsonalaren urrapenak onartu ditu AK-k. Ikus AKEE 220/2005 (gaixotasun arrazoiengatik lan bajaren ukapena, nahiz eta arrisku erreala existitu); 62/2007 (haurdunaldiko asken fasean egonik, lan egitera behartutako kasua, emakume eta fetuaren osotasun fisikorako arriskutsua izan bazitekeen ere).

¹⁴³⁹ AKE 62/2007, 4.o.j.: “*Desde esta aproximación, la inactividad administrativa a partir del conocimiento de dicho dato, permaneciendo pasiva desde aquella fecha sin ocuparse de anular el acto previo o de dictar uno que lo sustituyera en cumplimiento de la normativa aplicable, dio como resultado la lesión de los derechos fundamentales invocados*”

¹⁴⁴⁰ Eskubide honek osasuna babesteko mekanismo negatiboak (babesa, zentzu hertsian) eta positiboak (asistentzia sanitariara sarbidea eta osasunaren sustapena eta hobekuntza bultzatzen dutenak) aurreikustea du objektu. Alde horretatik, osasuna babesteko eskubideak ez du osasuntsu egoteko eskubiderik suposatzen. Ez gaude emaitzazko eskubide baten aurrean, osasuna kaltetu dezaketen faktore asko oraindik ere gizakiaren kontrolatik at baitaude. Horren ordez, bitarteko eskubide baten aurrean gaude, botere publikoek pertsonen osasuna ahalik eta onena izan dadin eskuragarri dituzten bitarteko guztiak baliatzea eskatzen duen eskubidea (ABERASTURI GORRIÑO, 2011: 175; DEL REY GUANTER, 1998:163;

aurreikusitako eskubidea izateaz gain, politika komunitario ororen definizio eta egikaritzan kontuan hartu beharreko zeharkako printzipioa ere bada¹⁴⁴². Espainiar ordenamendu juridikoan, konstituziogileak osasuna babesteko eskubidea Konstituzioaren 43. artikuluan aurreikusi eta kontsekuenteki politika sozial eta ekonomikoen printzipio zuzentzailearen izaera aitortzeko hautua egin zuen. Osasuna babesteko eskubidearen aitortpen orokor horrekin batera, kolektibo batzuen berezko ezaugarriak direla medio, Konstituzioak talde horietako kideen osasuna babesteko mandatu espresuak ere aurreikusten ditu: kontsumitzaile eta erabiltzaileen osasuna (51.1 eta 51.3 art.), langileen segurtasun eta higiena (40.2 art.), ama eta seme-alaben arreta sanitarioa (39.1 art.), ez-gaitu fisiko edo psikikoen (49. art.) eta 3. adineko pertsonen osasuna (50. art.). Bestalde, osasuna babesteko eskubidearen egikaritzak harreman estua gordetzen du, bizitza eta osotasun pertsonalerako eskubideekin alde batetik (15. art.), eta ingurugiro osasuntsu batez gozatzeko eskubidearekin (45. art.) bestetik.

V.1.B.a. Printzipio zuzentzailea edo benetako eskubidea: eztabaida doktrinala

Osasuna babesteko eskubidea Konstituzioaren 43. artikuluan arautzeko konstituziogileak egindako hautuak, eskubide horri oinarritzko izaera ez aitortzea eta ondorioz, eraginkortasun zuzena eta babes judizial indartua ukatzea dakar: osasuna babesteko eskubidearen subjektibotasun posiblea, botere legegileak xedapen konstituzional horri ematen dion garapen legegilearen arabera norbanakoei aurreikusi dakizkien eskubide legal posibleetara baldintzatuta geratzen da. Konstituzioaren 43. artikulua erredakzio laburreko xedapen konstituzionala da, zehaztasun handirik eskaintzen ez duena (ez du argibide konkreturik ematen osasuna babesteko eskubidea egikaritzeko botere publikoek

EZQUERRA ESCUDERO, op. cit, 87. orr). Autore batzuek, hala ere, osasunerako eskubide subjektiboa dagoela interpretatzen dute, nahiz eta "eskubide inperfektua" izan (BOJARRO DACRUZ, 1996: 189-190).

¹⁴⁴¹ GEAU, 25.1 art; EGKENI, 12. art. EGKENIren aplikazioa zaintzeko mandatua duen Ekonomia, Gizarte eta Kultura Eskubideen Komiteak (ingelesez, CESCER) osasuna babesteko eskubidearen interpretazio ildo batzuk lerrotu zituen 2000. urtean argitaratutako 14. Ohar Orokorrean (gaztelaniaz, *El derecho al disfrute del más alto nivel posible de salud, E/C/12/2000/4*). Lehenik eta behin, osasuna babesteko eskubidea ez du osasunaren asistentziako prestaziora mugatzen, baizik eta eskubide horren egikaritzaren eraginkorrerako ezinbestekoak diren beste elementu batzuk zerrendatzen ditu: ur edangarrira sarrera izatea, elikadura hornikuntza egoki eta osasungarria, etxebizitza egokia, lan baldintza osasuntsuak eta ingurumen egokia (oharraren 3. puntua). Bestalde, ez gara osasuntsu egoteko eskubideaz mintzo, osasun maila altuena eduki ahal izateko beharrezkoak diren zerbitzu eta baldintza desberdinez gozatzeko eskubideaz baizik (9. puntua). Osasuna babesteko eskubidearen urrapenen kasuetarako, Estatu-kideek errekurtsu judizial eraginkorrak edo bestelako errekurtsu egokiak aurreikusteko mandatua ezartzen du CESCERek (59. puntua).

¹⁴⁴² EBOEGen osasuna babesteko eskubidea artikulua desberdinetan jasotzen da. EBOEG 35. artikulua, alde batetik, asistentzia medikorako sarbide eskubidea aurreikusten du (saihespen eta konponketarako bitartekoena barne), eta bestetik, politika komunitarioen definizio eta egikaritzan aintzat hartu beharreko zeharkako printzipioaren izaera ere aintzatesten dio. Osasuna babesteko eskubidea modu orokorrean jasotzearekin batera, langileen osasuna, segurtasuna eta duintasuna errespetatzen duten baldintzetan lan egiteko eskubidea (EBOEG, 31. art.) eta kontsumitzaileen babes maila altua bermatzeko esanbidezko mandatua (38. art.) jasotzen du. Zuzenbide konparatuan osasuna babesteko eskubideari eskaintzen zaion tratamendu juridikoan desberdintasunak agerikoak dira, Estatu bakoitzak izan dezakeen ongizate mailak eskubide honen egikaritzaren baldintzatu egiten baitu. Hegoafrika, Alemania, Frantzia eta Italia bezalako Estatuetan eskubide honen inguruan emandako gatazka judizialen analisi jurisprudenzial interesgarria: PEMÁN GAVÍN, 2008: 37-49.

onartu behar dituzten prestazio edo jarduera zehatzen inguruan¹⁴⁴³) eta interpretazio gradual eta jarraitura irekita dagoena¹⁴⁴⁴.

Ikuspegi formaletik aztertuta, Konstituzioaren I. Tituluko III. Kapituluari jasotzen den eskubide sozial honek politika sozial eta ekonomikoen printzipio zuzentzailearen izaera duela aurreratu dugu. Horren harira, AK-k eta autore batzuek eskubide subjektiboaren izaera ukatzen diote¹⁴⁴⁵, bere urraperen posibleak bide judizialek salatu ahal izateko aukera eta moduak eskubidea garatzen duen legedian ezarritakora baldintzaturik geratzen baitira. Hala eta guztiz ere, botere publikoei zuzendutako mandatu konstituzionala izatearen batera, osasuna babesteko eskubideak bizitza eta osotasun pertsonalerako eskubideekin duen harreman estua eta nazioarte mailan giza eskubide bezala kalifikatu izanak (GEAUko 25.1 artikuluan eta EGKENiko 12. artikuluan, EKren 10.2 artikuluko integrazio klausula beti gogoan edukita), benetako eskubide baten aurrean gaudela interpretatzera eramanez gaitzake, autore batzuek “subjektibizatutako printzipio zuzentzaile¹⁴⁴⁶” bezala definitu dutena.

Idea horrekin lotuta, doktrinaren zati batek osasuna babesteko eskubideari EK-k aintzatetsi dion izaera formalaren (printzipio zuzentzailea) eta materialaren arteko inkongruentzia ematen dela arrazoitzen du, eskubidearen edukari erreparatuz gero, benetako oinarritzko eskubide baten aurrean baikaude¹⁴⁴⁷. Printzipio zuzentzaile soilaz harago, osasuna gizartearen oinarritzko balio¹⁴⁴⁸ gisa ulertu behar da, pertsonalitatearen garapen libre eta osoaren lorpenean ezinbestekotzat jotzen den ondasun juridikoa babesten baitu: osasuna. Giza duintasunarekin eta pertsonalitatearen garapen librearen klausula konstituzionalarekin harreman estua duen eskubidea da, osasuna babesteko eskubidearen urraperen larriek tratatu ez duina eragin baitezakete. Funtsean, formalki printzipio zuzentzaile bezala egituratu izanaren erabaki juridikoa okerrekoa izan zela eta eskubide honen debaluazio juridikoa¹⁴⁴⁹ besterik ez dakarrela defendatu daiteke.

¹⁴⁴³ ABERÁSTURI GORRIÑO, 2011: 176.

¹⁴⁴⁴ Pemán Gamín autorearen aburuz botere legegileak osasun sistema nazionalaren marko normatiboaren egiturapenean manu konstituzional horren progresibotasuna aintzat hartu du. 16/2003 Legean osasun prestazio desberdinen katalogo bat jasotzen da eta lege horren erregelamendu bidezko garapen normatiboak (1030/2006 Errege Dekretuak) zerbitzuen zerrenda bat onartu du, legean aurreikusitako prestazio-katalogoa teknologien bilakaeraren arabera progresiboki betetzea helburu duena. Ikus PEMÁN GAMÍN, 2008 :29, 50-52.

¹⁴⁴⁵ Ikus AKA 57/2007. Interpretazio horren aldeko autoreak: CANTERO MARTÍNEZ, 1998: 21; FERNÁNDEZ PASTRANA, 1984:55.

¹⁴⁴⁶ ABERASTURI GORRIÑO, op cit, 177. orr.; DEL REY GUANTER, op. cit, 162. orr.

¹⁴⁴⁷ ESCOBAR ROCA, 2008: 127; MARTÍNEZ DE PISÓN, 2006:142; PEDREIRA ANDRADE, 1992: 92; SOLOZÁBAL ECHEVARRÍA, 2006: 16. NBEko Errelatore Bereziak 2009an argitaratutako informe batetan (NBE, 2009b) eta MOEren sorrera eragin zuen konferentzian (Conferencia Sanitaria Internacional, 1946) osasuna babesteko eskubidea “oinarritzko giza eskubide” gisa kalifikatu zuten. Unai Aberasturik ñabartzen duen bezala, nazioarteko zuzenbidearen eta barne zuzenbidearen ikuspegitik eskubideei eskaintzen zaizkien berme mekanismoen ageriko desberdintasunak ardatz izanda, “oinarritzko giza eskubide” kontzeptu juridikoa ezin daiteke Espainiako barne zuzenbideko “oinarritzko eskubide” kontzeptuarekin parekatu (ABERASTURI GORRIÑO, 2011: 176).

¹⁴⁴⁸ ÁLVAREZ-CIENFUEGOS SUÁREZ, 1999: 149-150.

¹⁴⁴⁹ MARTÍNEZ DE PISÓN, op. cit, 142. orr.

V.1.B.b. Eskubidearen edukiaren dimentsio indibiduala eta kolektiboa

Agintari publikoek osasun publikoa antolatu eta babesteko eginkizun konstituzionala dute, *ex ante* (saihespen neurriak) eta *ex post* (neurri konpontzaileak), dimentsio indibidual eta kolektibotik. Osasuna babesteko eskubidearen dimentsio indibidualak asistentzia mediko indibiduala barnebiltzen du (gizarte segurantzarekin loturan, EK 41. art.), pertsona konkretuei kasu konkretuetan beren osasuna babestea helburu duena. Horrekin batera, botere publikoek osasunaren dimentsio kolektiboa babesteko mandatua dute: osasun publikoa orokorrean eta sektorialki babesteko arauak onartu behar dituzte¹⁴⁵⁰, polizia sanitarioaren figuraren bidez betearazi behar direnak.

Doktrinaren zati baten esanetan, osasuna babesteko eskubide subjektiboa bere dimentsio indibidualaren inguruan bakarrik egituratzen da, dimentsio kolektiboak ez baitu eskubide izateko entitate nahikorik erakusten, eta beraz, azken horrek botere publikoei zuzendutako mandatu konstituzional objektibo gisa soilik funtzionatzen duela ulertzen dute¹⁴⁵¹. Interpretazio murriztaile horren aurka, dimentsio kolektiboak ere eskubide subjektibo bezala jardun dezakeela defendatzen duen autorekin bada¹⁴⁵², dimentsio horrek bizitzarako eta osotasun pertsonalerako eskubideekin gordetzen duen harremanean oinarrituz. Interpretazio horri jarraiki, pertsona orok, norbere osasunaren aurkako erasorik ez jasateko eta ingurumenean jatorria duten arrisku faktoreen iturrien saihespena, ahal den murrizketarik handiena edo etetea eskatzeko akzio indibidual eta kolektiboak egikaritzeko eskubidea dauka. Nahiz eta akzio multzo horiek eskubide legal bezala egituratzen diren, beren izate-arrazoia osasuna babesteko eskubide konstituzionalaren dimentsio kolektiboan aurkitzen dute eta kontsekuenteki, manu konstituzional horren arabera izan behar dira interpretatuak¹⁴⁵³.

Osasuna babesteko eskubidea aldi berean defentsa eta prestazio eskubidea da, botere publikoei akzio negatibo eta positiboak aurrera eramatea eskatzen baitie¹⁴⁵⁴. Alde batetik, defentsarako eskubide gisa botere publikoen jardueren muga bezala funtzionatzen du, osasunarentzat (eta baita osotasun fisikoarentzat edo bizitzarentzat¹⁴⁵⁵) kaltegarriak izan daitezkeen egintzarik ez gauzatzeko (abstenitzeko) betebeharrak ezartzen baitzaie. Bestetik, Ongizatezko Estatu Sozialarekin (EK 11. art.) zerikusi zuzenean¹⁴⁵⁶, osasuna babesteko eskubideak egintza positiboaren egikaritza eskatzen du, bere dimentsio indibidual zein kolektiboaren ikuspegitik. Dimentsio indibidualaren arabera, asistentzia sanitario

¹⁴⁵⁰ Osasun publikoarentzat arriskutsuak izan daitezkeen faktoreen gaineko saihespenari azken hamarkadetan gero eta arreta handiagoa eskaintzen zaio. Horren isla dira osasun publikoa babesteko onartu diren politika eta arauketa normatiboak, beste hainbat alorren artean: osasun publikoan orokorrean (33/2011 Legea) lan arloko segurtasunean (lan arriskuen saihespenerako 31/1995 Legea), elikagaietan (17/2011 Legea) edota tabakoaren aurka (28/2005 Legea).

¹⁴⁵¹ CANTERO MARTÍNEZ, 2008:129.

¹⁴⁵² BORRAJO DACRUZ, op. cit, 173-174. orr; LEÓN ALONSO, 2009: 212; PARRA LUCAN, 1990: 76-77.

¹⁴⁵³ PEMÁN GAMÍN, 2008: 62.

¹⁴⁵⁴ Horri buruz, beste batzuen artean: BORRAJO DACRUZ, op. cit, 184. orr; EZQUERRA ESCUDERO, op. cit, 87. orr; FERNÁNDEZ MONTALVO, 2010: 14-15; LEÓN ALONSO, op. cit, 214-218. orr.

¹⁴⁵⁵ FERNÁNDEZ MONTALVO, op. cit, 14. orr.

¹⁴⁵⁶ Ibid.

egokirako sarbidea bermatu eta zerbitzuen hobekuntza helburu duten neurriak diseinatu behar dira. Dimentsio kolektiboak, osasunarentzat arriskutsuak izan daitezkeen faktoreen aurrean, eremu normatibo desberdinetan (zibil, penal, administratibo eta laboralean) babes neurriak eta zehapenak aurreikusten dituen sistema normatibo bat egituratzea eta aplikatzea eskatzen du.

V.1.C. Osotasun pertsonalerako eta osasuna babesteko eskubideen arteko harremana

V.1.C.a. Eskubideen arteko antzekotasun eta desberdintasunak

Osotasun pertsonalerako eta osasuna babesteko eskubideek elkarren artean harreman estua gordetzen dute. Ikuspegi materialetik aztertuta, bi eskubide horien edukiek lotura puntu komun garrantzitsuak badituzte ere, ikuspegi formaletik aztertuta, EK-k babes juridiko desberdina eskaintzen die. Osotasun pertsonala oinarritzko eskubide bezala aurreikusi du, eraginkortasun zuzena eta babes judizial indartua¹⁴⁵⁷ duen eskubide subjektibo bezala. Osasuna babesteko eskubidearen kasuan ordea, ikuspegi materialetik aztertuta oinarritzko eskubidearen izaera aitortzeko moduko edukia badu ere¹⁴⁵⁸, konstituziogileak politika sozial eta ekonomikoen printzipio zuzentzaileen artean kokatu du (I. Tituluko III. Kapituluak) eta beraz, formalki ez dio eraginkortasun zuzenik aitortu; eskubide horren urraperen posibleen aurrean babes judiziala eskatzeko ahalmena, beraz, eskubidearen garapen legegile posible batera eta legedi horretan ezarritakora baldintzaturik geratzen da.

Bi eskubide horien edukiek elkarren artean dituzten lotura komunak oinarri hartuta, osotasun pertsonalerako eskubideak osasuna babesteko eskubidearen babes judizialerako instrumentu bezala funtzionatu dezake. Kontran, bi eskubide horiek elkarren artean talka egiten duten egoerak ere eman daitezke; kasu batzuetan, osasuna bermatzeko helburuz, osotasun fisikoa neurri handiago edo txikiago batean mugatu egin behar da. Kasu batzuetan, osasuna babestu ahal izateko osotasun fisikoari eragiten dioten interbentzio sanitarioak gauzatu behar dira. Pazientearen autonomia printzipioa ardatz hartuta, arau orokor bezala interbentzio sanitario horiek aurrera eramateko titularraren baimena informatua nahitaezkoa dute. Pazientearen baimen informaturako eskubidearen analisisa kapitulu honetan aurrerago egiten da, VI. atalean zehazki.

¹⁴⁵⁷ EK-ko 53.2. artikuluari jarraiki, osotasun pertsonalerako eskubidearen urraperen posibleak aztertzen dituen prozesu judizialak sumarioak eta lehentasunezkoak izan behar dira. Bestalde, urraperen posible horiek babes helegitearen objektu izan daitezke.

¹⁴⁵⁸ Aurreko azpi-atalean adierazi bezala, osasuna babesteko eskubidearen edukiak giza duintasunarekin eta pertsonalitatearen garapen librearen klausularekin harreman estua du eta beraz, ikuspegi formaletik oinarritzko eskubide bezala babestu beharko litzateke.

V.1.C.b. Osotasun pertsonalerako eskubidea, osasuna babesteko eskubidearen babes judizialerako instrumentu bezala

Osasuna babesteko eskubideari Konstituzioak aitortzen dion babes judizial mugatuaren aurrean, AK-k osasunaren aurka doazen egite edo ez-egite kasu batzuk osotasun pertsonalerako oinarritzko eskubidearen bidez babestu izan ditu, osasuna babesteko eskubideak osotasun pertsonalerako oinarritzko eskubidearekin gordetzen duen lotura-harreman estuari esker. Bi eskubideok, alabaina, ondasun juridiko desberdinak babesten dituzte eta hartatik, osasunean eragindako kalte orok ez du automatikoki osotasun pertsonalerako eskubidearen urrapena eragiten¹⁴⁵⁹. Hala ere, osotasun pertsonalerako eskubidearen bidez babestutako ondasun juridikoak, hots, norbere gorputzaren eta izpirituaren gaineko bortxa-ezintasunak, beste dimentsio batzuen artean osasun fisiko, moral eta psikologikoa ere barne hartzen ditu¹⁴⁶⁰. Jarraian beraz, AKren jurisprudentziaren arabera osasuna babesteko eskubidea osotasun pertsonalaren eskubidearen bidez babestu daitezkeen kasuistika judizialaren aipamena egiten da.

Dagoeneko azaldu den bezala, gorputzean egindako interbentzio orok arau orokor bezala titularraren baimena lortzea eskatzen du. Hortaz, titularraren baimenik gabe egindako interbentzio korporal ez justifikatuek osotasun pertsonalerako eskubidearen urrapena dakarte. Jurisprudentziaren arabera, interbentzio horien ondorioz osotasun pertsonalean egindako “sakrifizio” graduaren arabera, eskubideak jasaten duen urrapena arina edo larria izan daiteke¹⁴⁶¹. Interbentzio korporal horrek titularraren osasuna arriskuan jartzeko gaitasunik ez duen kasuetan, osotasun pertsonalaren urrapena arin bezala kalifikatzen da, eta kontrako kasuan (interbentzioak osasuna arriskuan jarri eta kaltetzeko gaitasuna duenean), urrapen larria.

Titularraren baimenik gabeko interbentzio korporalez gain, osotasun pertsonalerako eskubidea osasunarekin zerikusia duten beste kasu batzuetan ere izan daiteke erasana. Osasuna arriskuan jartzen duten egoeretan osasunean lesio efektiborik gertatzen ez bada ere, osasun pertsonalerako eskubidea urratua gera daiteke¹⁴⁶². Horretarako, osasunean eragindako arrisku potentzial horrek esanguratsua eta benetakoa izan behar du. Kontrako zentzuan, AK-k arrisku egoera abstraktu eta hipotetikodun kasuetan osotasun pertsonalerako eskubidea urratzen ez dela kontsideratu du. Arrisku potentzial horiek aipatutako ezaugarriak dituzten edo ez erabakitzeke, kasu partikular bakoitzean ematen diren egitatezko inguruabarrak hartu behar dira kontuan.

Azkenik, osotasun pertsonalerako eskubideak ingurugiro kutsadura iturri desberdinek osasunean eragiten dituzten arriskuen aurrean ere babes judiziala eskaini dezake, EGEAk

¹⁴⁵⁹ AKA 192/1993, 1. o.j.

¹⁴⁶⁰ Osotasun pertsonalaren bortxa-ezintasun hori, hala ere, ez da osasunean arrisku edo kaltea eragiten duten kasuetara mugatzen, titularraren baimenik gabe egindako interbentzio guztietara baizik (besteak beste, ikusi AKE 35/1996, 3.o.j.).

¹⁴⁶¹ Besteak beste, AKEE 35/1996, 3. o.j.; 207/1996, 2. o.j.

¹⁴⁶² Esan bezala, izaera honetako sententziak lan eremuan enplegatzaile eta enplegatuaeren arteko harremanean emandako urrapenak izan dira orain arte. Ikus AKEE 62/2007 eta 160/2007.

zentzu horretan (nahiz eta batez ere pribatutasun pertsonal eta familiarerako eskubidean eta etxearen bortxa-ezintasunean oinarrituz) irekitako ildo jurisprudenziala aintzat hartuta¹⁴⁶³. Espainiako AKren kasuan, aitzitik, interpretazio jurisprudenzial horrek orain arte ibilbide motza izan du, kutsadura akustikodun kasu batzuetara mugatu baita¹⁴⁶⁴. AKren aburuz, mota horretako kutsadurak osotasun pertsonalerako eskubidea urratzen duela estimatu ahal izateko, esposizio akustikoak jarraitua eta intentsitate handikoa izan behar du eta esposizio hori jasaten duen norbanakoaren osasuna arrisku larrian jartzeko modukoa izan behar da¹⁴⁶⁵.

V.2. Nanoteknologiak eta osotasun pertsonalerako zein osasunaren babeserako eskubideak

V.2.A. Egoera orokorra: pasibotasun normatiboa

Nanoproduktuak merkaturatzen hasi zirenetik hamarkada bat baino gehiago igaro da dagoeneko eta nanoteknologiaren industriak goraka egiten jarraitzen du. Nanomaterialen manufakturatuen tipologia gero eta anitzagoa da eta beren ekoizpena eta komertzializazioa (bakarka edo produktuetan txertatuta) etengabe handituz eta sektore industrial gero eta gehiagotara hedatuz doan errealitatea da. Beren erabilera haziz eta hedatuz doan testuinguru horretan, gizakiak nanomaterialekiko duen esposizio maila areagotuz doa, bai kontsumitzaile, langile eta paziente (medikuntza alorrean) gisa, baina baita pertsona xume bezala ere, ingurumenera isuritako nanomaterialekin esposizioan sartzearen ondorioz. Esposizio maila handituz badoa ere, beren efektuei buruzko jakintza mailak baxua eta ziurgabetasunez josia izaten jarraitzen du eta ikerketa zientifiko gero eta gehiago dira nanomaterial manufakturatuen batzuen erabilerak gizakiongan eta ingurumenean izan ditzaketen efektu kaltegarri esanguratsuei buruzko kezka adierazten dutenak¹⁴⁶⁶. Funtsean, bi abiadurako prozesuaz mintzo gara: nanomaterial manufakturatuen ustiapen teknikoaren ezagutza eta erabilera abiadura bizian hazten ari da; ez, ordea, osasunean eta ingurumenean eragin ditzaketen arrisku potentzialen ezagutza, esan bezala, alor horretan ezagutza mailak baxua izaten jarraitzen baitu eta ziurgabetasun zientifikoz josia baitago.

¹⁴⁶³ EGEAK ingurugiroaren bidez osasunean eragindako arrisku kasu batzuk bizitza pribatu eta familiarren eskubidearen bidez babestu ditu (GEEH, 8. art.), besteak beste, honako sententzia ezagunetan: *Lopez-Ostra c. España*, 1994-12-09 (hondakinen tratamendurako instalazio batek eragindako usain, zarata eta keek Lopez-Ostraren bizitza pribatu eta familiarerako eskubidea urratu zuten), *Guerra y otros c. Italia*, 1998-02-19 (instalazio kimiko baten ondoan bizitzeak osasunean izan ditzakeen eraginez informatu ez izana bizitza pribatu eta familiarerako eskubidearen aurka doa) edota *Moreno Gómez c. España*, 2004-02-16 (zarataren ondorioz, bizitza pribatu eta familiarerako eskubidearen urrapena).

¹⁴⁶⁴ Zehazki, ikusi AKEE 119/2001 eta 150/2011. Bi sententzia horiek kutsadura akustikoak, kasuan kasu, osotasun pertsonala (EK 15. art), intimitate pertsonal eta familiarra (18.1 art) edota etxebizitzaren bortxa-ezintasuna (18.2 art) urratu dezaketela adierazi du. Kasu bietan, hala ere, AK-k babes helegitea atzera bota zuen, errekurtsogileek aipatutako eskubideen lesio erreal eta eraginkorra behar adina frogatu ez zutelako.

¹⁴⁶⁵ AKE 119/2001, 6. o.j.

¹⁴⁶⁶ Tesiko 3. kapituluko I.3. atala kontsultatu.

Ikuspegi juridikotik aztertuta, bi abiaduradun prozesu tekno-zientifiko horrek kontsumitzaile, langile, paziente edo pertsona xumeen osasuna eraginkortasunez babesteko erronka berriak planteatzen ditu. Europa mailan, Europar Batasunak nanoteknologiaren arauketa juridikoaren gaineko ardura nagusia beregain hartu du, EBko Komisioak gidatutako “hutsuneak bete” estrategia juridiko eztabaidagarrian¹⁴⁶⁷ oinarri duena. Nanomaterialen manufakturatuei eskala konbentzionaleko materialei aplikatzen zaizkien arauketa berberak aplikatzen zaizkie. Kasu gehienetan, mekanismo administratibo berberak zaizkie aplikagarri, nahiz eta nanomaterialen manufakturatuek dituzten propietate konplexuak direla medio, mekanismo horiek beren esposizioa neurtu eta efektuak ebaluatu eta kontrolatzeko egokiak ez izatea gerta daitekeen¹⁴⁶⁸. Orain arte, nanomaterialen arauketa espezifiko bakarrak kontsumo produktu batzuen arauketa sektorial komunitario puntualetan eman dira, partzialak izan dira (kasu batzuetan ez baitzaizkie nanomaterialen manufakturatuei orori aplikagarri) eta arau orokor bezala, ez dute merkaturatzen diren nanoproduktuak osasunarentzat eta ingurumenarentzat seguruak direla ziurtatzeko gaitasun juridiko-tekniko nahikorik¹⁴⁶⁹.

Nanomaterialen manufakturatuen eta nanoproduktuen ekoizpen, manufaktrazio, garraio, biltegiatze eta nanohondakinen tratamenduan parte hartzen duten langileen kasuan, beren segurtasuna eta osasuna bermatzeko eginkizuna duten arauketetan ez da inolako aldaketa normatibo espezifikorik jaso¹⁴⁷⁰. Medikuntzaren eremuan, gizakion osasunari eragiten dieten gaitz larriak tratatzeko eskaini ditzaketen itxaropenekin batera, nanomaterialen tratamenduek gorputzean epe luzera eragin ditzaketen efektuen ziurgabetasuna da nagusi. Tratamendu horien eta gizakion sistema biologikoaren arteko bateragarritasunak konplexutasun handiko kontua izaten jarraitzen du eta osasunean eragin ditzaketen alboko efektuen gaineko ezagutza maila baxua da oraindik ere. SCENIHR komite zientifiko komunitarioa kezkatu da nanomaterialen manufakturatuek medikamentuetan erabiltzean osasunean eragin ditzaketen arrisku potentzialei buruz

¹⁴⁶⁷ EBko Komisioak indarrean dagoen corpus juridiko komunitarioa, orokorrean, nanomaterialen aplikagarri zaiela arrazoitzen du, aldaketa normatibo gutxi batzuk gehituz betiere (ikus *COM (2008) 366 final* eta *COM (2012) 572 final*). EBko Legebiltzarrak Komisioaren estrategia kritikatu eta aldaketa normatibo sakon bidez nanomaterialen esanbidezko arauketa egituratzearen aldeko ildo proposatu du, hots, osasun eta ingurugiroaren babesarako ikuspegitik planteamendu bermatzaileagoa egiten du (ikus *2008/2028 (INI)* dokumentua). Honi buruz gehiago, 4. kapituluaren II.1. atalean.

¹⁴⁶⁸ EBko *corpus* zientifiko osatzen duten komite eta agentzia zientifiko-tekniko desberdinek (SCENIHR, SCCS, SCHER, SCOEL, ECHA, EFSA, EEA, EMEA, ECDC eta EU-OSHA) ateratako ondorioak antzekoak dira. Nanomaterialen ezaugarri konplexu eta desberdinak direla medio, arrisku ebaluaketarako metodologia eta testapen konbentzionalek nanomaterialen propietate berezitasunak identifikatu, karakterizatu eta egokitasunez ebaluatzeko balio ez dutela ondorioztatu dute (ikus 4. kapituluaren III. 2 atala).

¹⁴⁶⁹ Nanomaterialen arauketa espezifikoak kosmetiko, elikagai, biozida eta aparatu elektriko zein elektronikoen testu normatibo komunitario batzuetan onartu dira. Kasuan kasuko arauketek mekanismo administratibo desberdinak onartu dituzte (jakinarazpen sistemak, nanomaterialen ebaluaketa prozedura bereziak, beren inbentarioa eta etiketapen espezifikoak) eta zenbait kasutan nanomaterialen manufakturatuei batzuk mekanismo administratibo horien aplikazio eremutik kanpo geratzen dira. Azkenik, nanomaterialen manufakturatuen arriskuak ebaluatzeko metodologia eta testapen konbentzionalak erabiltzen dira, nanomaterialen propietate konplexuak eta arriskuak ebaluatzeko egokiak ez direnak.

¹⁴⁷⁰ Maila komunitarioan, lan segurtasun arloko arauketa garrantzitsuenak 89/391 Zuzentaraua (arauketa orokorra) eta 98/64 Zuzentaraua (sustantzia kimikoen lan arriskuak) dira, REACH eta CLP erregelamenduez ahaztu gabe. Espainia mailan, 665/1997 Errege Dekretua (agente kantzerigenoak) eta 374/2001 Errege Dekretua (agente kimikoak) aipatu daitezke.

dagoen ezagutza zientifiko urria dela medio eta zentzu horretan, EBko Komisioari nanomedikamenduek planteatzen dituzten erronka horiei ahalik eta azkarren erantzutea premiazko kontua dela adierazi du¹⁴⁷¹. Testuinguru horretan, tratamendu medikuen gaineko arauketa komunitarioa¹⁴⁷² nanomedikuntza tratamenduen segurtasuna bermatzeko guztiz egokiak ez direla¹⁴⁷³ kontsideratu badaiteke ere, marko normatibo horretan ez da orain arte nanomaterialei buruzko inolako aldaketa espezifikorik onartu. Bestalde, nanomaterialek eta nanoproduktuek beren bizitza zikloan zehar (hondakinen tratamendua barne) ingurumenera isurtzen dituzten emisioen kasuan ere, material horiek identifikatu, monitorizatu eta seguruak direla kontrolatzeko mekanismo juridiko espezifikorik ez da onartu¹⁴⁷⁴.

Testuinguru horretan Estatu-kideek osasun eta ingurugiroarentzat babes maila altuagoa bermatzen dituzten arauketa nazionalak egituratzeko gaitasuna badute ere (EBko tratatuen xedapenak errespetatuaz betiere), Espainiar Estatuak ez du nanomaterialen esposizio segurua bermatzera bideratutako inolako arauketa edo bestelako ekimen normatiborik onartu.

Osasuna babesteko eskubidearekin lotuta, nanomaterial manufakturatuei aplikagarri zaion corpus normatiboak arauketek ez du norbanakoak bere gorputzaren gainean duen autonomia pertsonalaren esfera inolaz ere errespetatzen eta ondorioz, osotasun fisikorako eskubidea ere urratua geratu daiteke. Gizakiek, kontsumitzaile, langile, paziente edo pertsona xume bezala, nanomaterial manufakturatuen esposizio ez informatua eta beraz ez kontzientea jasaten dute; norbanako horiei ez zaie esposizio hori jasan nahi duten edo ez erabakitze gaitasunik eskaintzen. Funtsean, arlo honetan aplikagarri den marko juridikoak ez du behar adinako gaitasunik kontsumitzaile, langile, paziente edo pertsona xumeen osotasun pertsonalerako eta osasuna babesteko eskubideak eraginkortasunez babesteko.

Kontsumitzaile, langile eta pazienteen kasuan erabaki autonomia hori bermatzea posiblea da, nanomaterial manufakturatuei buruzko informazio argia, garbia eta egiazkoa eskaintzen duten mekanismo administratibo desberdinei esker. Kontsumitzaileei dagokienez, nanoproduktuen esanbidezko etiketapena produktu kategoriatan

¹⁴⁷¹ SCENIHR, 2015: 10.

¹⁴⁷² Alor honetan, arauketa komunitarioa zabala da, aipatzearen, entsegu klinikoak (536/2014 Erregelamendua), produktu sanitarioak (90/385 eta 93/42 Zuzentarauak) edota giza zein animali erabilerarako medikamenduen baimen eta kontrolari buruz arauketa (726/2004 Erregelamendua eta 2001/83, 2003/63 eta 2003/94 Zuzentarauak). Aipatu arauetatik, batek ere ez du nanomaterialen berriazko arauketarik jasotzen. Bestalde, medikuntza tratamenduen erabilerak pazientearen segurtasuna eta osasuna bermatzea eskatzen badu ere, pazienteen osasunarentzako arrisku ziurgabeak egon daitezkeen kasuetan, AEBko eta EBko medikamenduen marko legalek arreta printzipioari garrantzi eskasa aitortzen diote (horri buruz, ikus MILLER, 2011).

¹⁴⁷³ Arazorik aipagarrienetakoa medikamendu eta medikuntza gailuek merkaturatzeko baimena lortu aurretik gainditu behar dituzten ebaluaketa prozedurak dira, nanomaterialek (batez ere disolbaezinek edo biodegradagarriak ez direnek) gorputzean izan ditzaketen epe luzerako efektuak ebaluatzeko gaitasuna duten testapen eta ebaluaketa metodologiak oraindik garatzeke baitaude. Ikus ALSTENSTETTER, 2011; D'SILVA eta BOWMAN, 2011; JULIANO, 2012; POIROT-MAZÈRES, 2011; SPYRIDOULA, 2013; TOMA-BIANOV, 2012; TRISOLINO, 2010.

¹⁴⁷⁴ Horri buruz, tesiko 12. kapitulua kontsultatu.

besterik ez da derrigorrezkoa (elikagai, kosmetiko eta biozidetan) eta etiketa horietan nanomaterialei buruz ematen duten informazioa oso urria denez (nanomaterial osagaiaren ondoan “nano” atzizkia agertzen da soilik), kontsumitzaileei ez zaie nano-produktuak kontsumitu ala ez modu informatu eta arrazoituan erabakitzeke berme juridiko nahikorik aurreikusten. Lan eremuan egoera are okerragoa da, langileen segurtasunerako arauketa komunitario desberdinek ez baitute oraindik nanomaterialen inolako arauketarik aurreikusi eta ondorioz, hornikuntza katean zehar beren informazioa transmititzeko betebeharrak ez da existitzen. Nanomedikuntzaren kasuan, pazienteari bere erabaki autonomia bermatu behar zaio, mota horretako tratamendurik jasan edo ez modu informatuan, librean eta kontzientean erabakitzeke gaitasuna alegia, kontrako kasuan bere osotasun fisikorako eskubidea urratu dela kontsidera baitaiteke¹⁴⁷⁵. Hala ere, pazientearen autonomia printzipioaren eta nanomedikuntzaren inguruko gogoetak ez dira hemen aztertzen, kapitulu honen hurrengo atalean baizik.

Eskubide konstituzionalek duten dimentsio subjektiboarekin batera, eskubide horiek ordenamendu juridiko konstituzional osora hedatzen diren oinarrizko balio objektiboak dira, kapitulu honen II.2.E azpi-atalean azaldu den bezala. Beraz, osotasun pertsonalerako eskubide, osasuna babesteko eskubide eta ingurumen osasuntsu batez gozatzeko eskubidearen dimentsio objektiboak, nanomaterialei beren bizitza ziklo osoan zehar aplikagarri zaien marko normatiboan zuzeneko eragina izan behar du. Botere publikoek nanomaterialei aplikatzen zaien *corpus* normatiboaren berregiturapen normatiboan, bere interpretazioan eta aplikazioan jokoan dauden oinarrizko eskubide horiek babestera zuzendutako jarrera aktiboa izateko mandatua (konstituzionala, Espainiar botere publikoen kasuan) dute, oinarrizko eskubideen eraginkortasun horizontalaren ondorioz partikularrek beraien arteko harremanetan aipatu eskubideak errespetatzeko duten betebeharrarekin batera. Nanoteknologiaren erabilera aztergai ditugun eskubide konstituzionaletan sorrarazitako mehatxu berrien aurrean, eskubide horien dimentsio objektiboaren harira eskubide horien berme legalak inguruabar berri horietara egokitu egin behar dira, eskubide horien babesa dinamikoa izan dadin. Nanomaterialei aplikagarri zaien *corpus* normatiboa, ordea, inguruabar berri horietara oso partzialki egokitu da eta aztergai ditugun eskubideei ez die babes dinamiko hori bermatzen.

V.2.B. Ez-egite normatiboari aurre egiteko mekanismo judizial posibleak

Zuzenbide komunitarioan eta Espainiar ordenamendu juridikoan nanomaterialen manufakturatuen inguruan nagusi den pasibotasun normatiboaren ondorioz, nanomaterialei aplikagarri zaien *corpus* normatiboak ez du kontsumitzaile, langile, paziente eta hiritar xumeek material horiekiko duten esposizioa segurua dela bermatzeko gaitasun juridiko-tekniko nahikorik. Beraz, nanomaterialen manufakturatuek osasun eta ingurumenaren babes maila altua bermatzeko planteatzen dituzten arrazoi berrien aurrean EB eta Espainiar

¹⁴⁷⁵ Pazientearen autonomia eskubidea, nahiz eta EKn esanbidezko aipamenik ez jaso, AK-k osotasun pertsonalerako eskubidearen babes azpian kokatu du (ikus AKE 37/2011, 3.o.j.).

Estatuak egindako hautu normatibo horren ondorioz, osotasun pertsonalerako, osasuna babesteko eta ingurumen osasuntsu batez gozatzeko eskubideen dimentsio objektiboa ez da behar bezala bermatzen, botere publikoek ez dute eta aipatu eskubideon sustapen eta babeserako duten mandatu orokorrarekin konplitzen¹⁴⁷⁶.

V.2.B.a. Alemaniako Auzitegi Konstituzionalak *Kalkar* zentral nuklearraren kasuan eskubideen dimentsio objektiboari buruz egindako interpretazio jurisprudenziala

Arrisku berrien aurrean agintari publikoek eskubideen dimentsio objektiboa babesteko duen eginbehar horretan, duela zenbait hamarkada Alemaniako AK-k zentral nuklear berri baten ezarpenaren harira eman zuen sententzia¹⁴⁷⁷ eredugarria da. Kalkar-Hönnepel izeneko herrian, 1972. urtean, ordurarte Alemanian inoiz eraiki gabeko zentral nuklear mota berri bat eraikitzeko baimen administratiboa onartu zen. Zientzialari batzuek zentral nuklear mota hori bereziki arriskutsua izan zitekeela susmatzen zuten eta ondorioz, nekazari batek zentral nuklear hori eraikitzeko baimen administratiboaren aurka bide judizialek jotzea erabaki zuen. Auzi horren epaile eskudunak, gatazka judizialean aplikatu behar zuen lege baten konstituzionaltasun zalantza planteatu zion Alemaniako AKri, eta azken horrek, esan bezala, ebazpen interesgarria eman zuen.

Alemaniako AKren aburuz, energia atomikoaren aprobetxamenduak hiritarren berdintasun eta askatasun esferan eta orokorrean beren bizitza baldintzetan ondorio garrantzitsuak dituenek, energia nuklearraren arauketa legegileari erreserbatzen zaion eremua da (erreserba legala du). Zentral nuklear horren kasuan energia atomikoari buruzko arrisku berririk agertu izan balitz, eta arrisku horrek Konstituzioan jasotako eskubideei eragin baziezaiekeen, legegileak inguruabar berri horien aurrean eskubideon babes dinamikoa bermatzeko betebeharrak Konstituzionala izango luke. Konstituzioak erreserbatzen dizkion ahalmenak baliatuz, botere legegileak arrisku berri posible horiei aplikagarri zaien legedia inguruabar berrietara egokitu beharko zukeen. Gatazka judizial horretan hala ere, Alemaniako AK-k momentu hartan energia nuklearraren arriskuen ezagutza berririk ez zegoela ondorioztatu zuen. Beraz, eraginda geratzen ziren eskubideak babesteko botere legegileak zuen betebeharrak konstituzional horren harira, kasu horretan aplikagarri zen legedia *a posteriori* aldatzeko betebeharrak sortu ez zitzaizkion ebatzi zuen.

¹⁴⁷⁶ Maila komunitarioan, EBOEGen 3.1 artikulua (osotasun pertsonalerako eskubidea) eta 35. (osasuna babesteko printzipio transbertsala) 31. (langileen osasun eta segurtasunerako eskubidea) eta 38. (kontsumitzaileen osasun babes maila altua bermatzeko mandatua) artikulua eraginda geratzen dira. Espainia mailan, EK-ko 15. artikulua (osotasun pertsonalerako eskubidea), eta 43. (osasuna babesteko eskubide orokorra), 40.2 (langileen babesa) eta 51. (kontsumitzaileen babesa) artikulua jokoan sartzen dira.

¹⁴⁷⁷ *BverfG* 49, 89 (1978-08-08).

V.2.B.b. Ez-egite normatiboen aurka bide judizialek jotzeko eragozpenen azterketa

Kalkar zentral nuklearraren auzian ez bezala, nanomaterialen manufakturatuen kasuan Alemaniako AK-k egindako interpretazio jurisprudenziala aplikatzeko baldintzak betetzen direla arrazoitu daiteke. Izan ere, nanomaterialen manufakturatuen erabilerean ondorioz kontsumitzaile, langile, paziente eta hiritar xumeek jasan dezaketen esposizioak norbanakoaren osasunarentzat berriak diren arrisku potentzialak dakartza, ziurgabetasun zientifikoz josiak daudenak. Nanomaterialen manufakturatuen erabilerek osotasun pertsonalerako, osasuna babesteko eta ingurumen osasuntsu batez gozatzeko eskubideetan mehatxu berriak planteatzen dituzte, eskubide horien egikaritzea eta babes eraginkorrerako oztopo bezala diharduten mehatxuak. Alde horretatik, eskubide horien dimentsio objektiboari babes dinamikoa bermatu ahal izateko, EBko eta Espainiako botere legegileak nanomaterialen manufakturatuei aplikagarri zaien legedia aldatzeko oinarritzko mandatuak dute. Dagoeneko argudiatu den bezala, EBko eta Espainiako agintari eskudunek ez dute orain arte oinarritzko mandatu horrekin betetzen, mehatxu berrien aurrean ez baitute aipatu eskubideen babes eraginkorra bermatzeko gaitasun juridiko-tekniko nahikorik duen corpus normatiborik egituratu.

Botere legegile horiek erakutsitako pasibotasun normatibo hori, eskubide horien dimentsio objektiboa urratzen duen ez-egite normatibo bezala kalifikatu liteke. Beraz, kasu honetan planteatu beharko litzakeen galdera hurrengoa da: Alemaniako AK-k eskubideen dimentsio objektiboa babesteko egin zuen interpretazio bermatzaile horri jarraiki, posiblea al da EBko eta Espainia ordenamendu juridikoen aurreikusten dituzten mekanismo judizialen bidez nanomaterialei aplikagarri zaizkien xedapen normatibo horien aurka jotzea, eta ondorioz, EBJAren edo Espainiako AKren partetik ebazpen judizial deklaratorio bat lortzea, zeinak botere legegilea xedapen normatibo horiek nanomaterialen arriskuareta egokitzea judizialki behartzen duen?

Lehenik eta behin, EBJAk edota AK-k mota horretako ebazpen judizial deklaratoriorik emateko legitimazioarik duten zalantzazkoa izan daiteke. Alegia, xedapen normatibo horietan “arautzen ez denarengatik” (ez-egite normatiboarengatik), xedapenok jatorrizko zuzenbide komunitarioaren edo EKren aurkakoak deklaratzeko organo judizial horiek izan dezaketen eskumenaren inguruan. Ordenamendu juridikoa bere osotasunean bermatzea helburu duen interpretazioa eginez gero, botere legegileak EBOEGn edota EKn aurreikusitako eskubideen dimentsio objektiboa babesteko betebeharrak juridikoa du. Zentzu horretan, EBOEG eta EKn jasotako betebeharrak horien organo bermatzaile gorenak, hots, EBJA eta AK, legitimotasuna dute aipatutako ez-egite normatibo horren aurrean botere legegilea eskubideon babes eraginkorra bermatzera zuzendutako legedia onartzera behartzeko¹⁴⁷⁸. Interpretazio horren aurka, EBJA edo AK-k mota horretako ebazpen deklaratoriorik ezin eman dezaketela defendatzen duen autorerik bada, ebazpenok botere

¹⁴⁷⁸ Alemaniako AK-k emandako *BverfG* 49, 89 ebazpenaz gain, interpretazio horren alde azaldu dira, besteak beste, FERNANDO SEGADO, 2009; TORRES DE MORAL, 2005.

legegileari erreserbatutako eskumenetan eskusartzea eragiten dutela eta ondorioz botere banaketaren printzipio politikoa urratzen dutela argudiatuta¹⁴⁷⁹.

Bestetik, izaera prozesala duten eragozpenak aipatu behar dira. Izan ere, botere publiko batzuek ez bezala, partikularrek ezin dute beren eskubideak eraginkortasunez bermatzen ez dituzten lege horien aurka zuzenean jo, ez dute EBJA edo AKri aipatu legeen kontrol abstraktua eta orokorra egikaritu dezaten zuzenean eskatzeko legitimaziorik. Horren ordez, partikularrek egoera zehatzetan gertatutako oinarritzko eskubideen urrapen konkretuen aurrean bide judizialera jo behar dute, eta eskubide urrapen horiek baieztatuz gero, euren konponketa erreala eta eraginkorrerako eskubide subjektiboa dute. Alabaina, partikularrei beren eskubide subjektiboak babesteko ahalbidetzen zaizkien mekanismo judizialen bidez, zeharka bada ere, AKri eskubideok ustez urratzen dituzten legeen kontrol abstraktua eta orokorra egiteko aukera aktibagarria izan daiteke¹⁴⁸⁰; hau da, eskubideen dimentsio subjektiboa aktibatuz AKri dimentsio objektiboaren babesa zeharka eskatzea posible izan liteke, aurrerago aztertzen den moduan.

Azkenik, eta aurreko ideiarekin harremanean, partikularrek oinarritzko eskubideen ustezko urrapenak bide judizialek salatu ahal izateko, eskubideen urrapena erreala, zehatza, efektiboa eta egiazkoa izan behar da¹⁴⁸¹. Nanomaterial manufakturatuen kasuan, eskubideen urrapenak izan behar duen entitate hori frogatzea zinez zaila izan daiteke, hainbat arrazoi direla medio. Nanomaterial manufakturatuen propietateen gaineko ezagutzak konplexutasun handiko kontua izaten jarraitzen du eta ondorioz, nanomaterial bakoitzaren esposizio mota desberdinek osasunarentzat zein puntutarainoko efektu kaltegarriak eragin ditzaketen ez dago batere garbi (batzuk arriskutsuak izan daitezke, beste batzuk ordea ez). Hala ere, egun gehien erabiltzen diren nanomaterial batzuen kasuan beren arrisku potentzialen zantzuak gero eta nabarmenagoak dira¹⁴⁸². Azkenik, nanomaterial manufakturatuek osasunean eragin ditzaketen kalteak kasu gehienetan epe luzera besterik ez dira hautemangarriak eta beraz, nanomaterialen eta sortutako kaltearen arteko kausalitate harreman hori frogatzea zailtasun handiko kontua izan daiteke.

Nanomaterial manufakturatuek osasunean eragin ditzaketen kalteen frogapenak dakarren konplexutasun horren aurrean, osotasun fisikorako eskubidearen urrapenei buruz AK-k emandako ildo jurisprudentziala lagungarria izan daiteke. Izan ere, AK-k zenbait egoeretan osasuna arriskuan jartze hutsarekin osotasun fisikorako eskubidea lesionatu daitekeela ebatzi du, arrisku potentzial hori lesioa eragiteko esanguratsua eta benetakoa denean arrisku hori ekidin ez den kasuetan¹⁴⁸³. Ildo jurisprudentzial hori potentzialki

¹⁴⁷⁹ Ikus RUIZ MIGUEL, 2004.

¹⁴⁸⁰ Geroago aztertzen den bezala, konstituzio-kontrakotasun-zalantzak (AKLO 35.1 art.) eta babes helegitearen harira AK-k aktibatu dezakeen prozedurak (AKLO 55.2 art.), ustez oinarritzko eskubidea urratzen duen xedapen normatiboaren kontrol abstraktua eta orokorra ahalbidetzen dute.

¹⁴⁸¹ Babes helegitea aurkeztu ahal izateko baldintzetako bat da (AKE 27/1997). Kontrako zentzuan, babes helegitea ezin da oraindik urratu ez den eskubide bat babesteko helburuz kautela mekanismo gisa erabili (AKE 110/1984).

¹⁴⁸² Nanomaterial manufakturatutako batzuen arrisku potentzialei buruzko ikerketa zientifikoei buruz, tesiko 3. kapitulua, I.3 azpi-atala kontsultatu.

¹⁴⁸³ AKEE 62/2007 eta 160/2007.

arriskutsuak diren nanomaterialen manufakturatuen lesio posibleak ekiditeko interpretazio baliagarria izan daiteke. Lan arloan edota kontsumorako produktuetan erabilitako nanomaterialek osasunean arrisku potentzialak eragin ditzaketen arrazoizko zantzu zientifikoak daudenean, langile eta kontsumitzaileen osasuna babesteko helburuz, enplegatzaileen eta produktuen ekoizleek nanomaterial horien esposizioa segurua dela bermatzeko neurriak egokitu behar dituzte.

Hala ere, nanomaterialei aplikagarri zaien corpus normatiboaren inguruan botere legegilearen partetik nagusi den pasibotasun normatiboaren ondorioz, enplegatzaileek egokitutako lan segurtasun neurriek edota nanoproduktuaren komertzializazio baimenek, aplikagarri zaien araudia errespetatzen badute ere, langile edo kontsumitzaileen osotasun fisikorako eskubidea urratu dezakete. Izan ere, arazoaren benetako funtsa ez da lan segurtasun neurri edo produktuaren komertzializazio baimenean kokatzen, aplikagarri zaien araudian baizik. Corpus normatibo horrek ez du nanomaterial manufakturatuen arrisku potentzialen aurrean langile eta kontsumitzaileen eskubideak eraginkorki babesteko entitate nahikorik. Beraz, ez gaude enplegatzaileak onartutako lan segurtasun neurrien edota produktuen komertzializazio baimenen legez kontrakotasun kasu baten aurrean, horiei aplikagarri zaien araudiaren konstituzio-kontrakotasun kasu baten aurrean baizik, botere legegilearen ez-egite normatiboan oinarri duena.

V.2.B.c. Ez-egitea normatibo komunitarioaren aurka: EBFTen 265. eta 266. artikuluetan jasotako ez-egitearengatiko helegitea

Botere legegile komunitarioak nanomaterialen arrisku potentzialen aurrean erakutsi duen pasibotasun normatiboaren aurrean, zuzenbide komunitarioan aurreikusten den ez-egitearengatiko helegitea¹⁴⁸⁴ aurkeztu daitekeen aztertu behar da. Helegite horren objektua EBko Komisioak, Legebiltzarrak, Kontseiluak edota Europako Banku Zentralak izan lezaketen jarrera normatibo abstentzionista da, abstentzio horren ondorioz EBko Tratatuaren urrapena ematen denean. Ez-egitearengatiko helegitea EBJaren aurrean aurkeztu baino lehen, helegitea aurkezteko interesa duen alderdiak ustezko urrapen hori egin duen erakunde komunitarioarekin kontaktatu behar du, ustezko urrapen horren arrazoiak azalduz eta jarrera normatibo abstentzionista horrekin amaitzeko eskatuz. Erakunde komunitarioak eskaera egiten zaionetik bi hilabeteko epean ez badu ustezko urrapena zuzendu, alderdi interesdunak jarrera horren aurka EBJaren aurrean ez-egitearengatiko helegitea aurkeztu dezake. Aurrerago azaldu den bezala, nanomaterial manufakturatuen arauketan izandako pasibotasun normatibo horrek EBOEGen jasotzen diren zenbait artikuluratu ditzake, osotasun pertsonalarekin eta osasunaren babeserako printzipio transbertsalarekin zerikusia dutenak. EBTKo 6.1 artikulua araberako EBOEGk tratatuaren balio juridiko berbera duenez, EBko Tratatuaren ustezko urrapen posible baten aurrean gaude, ez-egitearen helegitea aurkezteko ezinbesteko baldintza dena.

¹⁴⁸⁴ Helegite hori EBFTko 265. eta 266. artikuluetan arautzen da.

Helegitea aurkezteko legitimazio aktiboari dagokionez, bi aktore mota bereizi behar dira. Alde batetik partikularrak, eta bestetik, erakude komunitarioak eta Estatu-kideak. Partikularren kasuan, helegitea aurkeztu ahal izateko ez-egite komunitario horrek modu zuzenean eta konkretuan eragin behar die¹⁴⁸⁵. EGEAren jurisprudentziaren arabera, partikularrek helegite mota hori aurkezteko legitimotasun murriztua dute, ezin baitute xedapen normatiboen aurka jo. Xedapen normatiboek izaera abstraktua eta orokorra dutenez, partikularrei aplikagarri izate hutsak ez du helegitea aurkezteko frogatu behar duten eragin zuzen eta konkretu horren baldintzarekin betetzen¹⁴⁸⁶. Beraz, nanomaterialen kasu konkretuan, partikularrei ez-egitearengatiko helegitea aurkezteko aukera itxi egiten zaiela argudiatu daiteke. EBko erakunde eta Estatu-kideak, aldiz, “alderdi pribilegiatuak” dira, helegitea aurkezteko ez baitute inolako interes partikularrik frogatu behar. Nanoteknologiaren gobernantzan EBko Komisioak gidatutako estrategia komunitarioak kritika gogorrak jaso ditu Legebiltzarraren partetik eta Estatu-kide batzuek (besteak beste, Frantzia, Belgika eta Danimarkak) pasibotasun normatibo horren aurrean arauketa nazionalak onartzea erabaki dute. Testuinguru normatibo hori iraultzeko asmoz, EBko Komisioaren aurka ez-egitearengatiko helegitea aurkeztu lezakete beraz.

Hala ere, Komisioak nanomaterialen manufakturatuen arauketa egituratzean erakutsitako jarrera pasibo horrek, ez-egitearengatiko helegitea onartua izateko EBFTak eskatzen duen “*abstenerse de pronunciarse*” nahitaezko baldintza betetzeko entitate nahikorik duen ez dago argi. Izan ere, EBko Komisioaren estrategia normatibo hori, kritikagarria izan badaiteke ere, nanomaterialen manufakturatuen marko normatiboa nola egituratu erabakitzeke instituzio komunitario horrek duen diskrezionaltasun gaitasunaren barnean kokatu daiteke. Beste modu batera esanda, aztergai ditugun eskubideen babes dinamikoa bermatzeko helburupean, Komisioak adostutako estrategia normatiboak zuen “jarduteko betebeharra” urratzen duela frogatzea zaila izan daiteke¹⁴⁸⁷. Nanomaterialen marko juridikoaren egiturapenean EBko Komisioak dituen ahalmen eta eskumen horiek ez diote aitzitik diskrezionaltasun absoluturik aitortzen, Komisioak jatorrizko zuzenbide komunitarioak ezartzen dizkion betebeharrei konplimendua eman behar baitie¹⁴⁸⁸.

Beraz, nanomateriali aplikagarri zaizkien xedapen normatiboen aurka ez-egitearengatiko helegitea aurkeztuz gero (xedapen normatibo konkretuen aurka betiere) EBJAk zer erabakiko lukeen ikusteke dago; pasibotasun normatibo hori Komisioak duen diskrezionaltasun ahalmenaren arabera den, edo kontrari, helegitea onartzeko “*abstenerse de pronunciarse*” baldintza hori betetzen dela interpretatzen duen. EBJAk ez-egitearengatiko helegitea onartuz gero, ebazpen deklaratihoa emango luke, EBko Komisioak derrigorrez konplitu beharko lukeena, nanomaterialen manufakturatuen arrisku potentzialen aurrean EBOEGen aldarrikatzen diren osotasun pertsonalerako eskubidea eta

¹⁴⁸⁵ EBFT, 263. art.

¹⁴⁸⁶ *Asteris y otros c. Comisión*, C-215/86 (1988-04-26).

¹⁴⁸⁷ Besteak beste, EGEA-ren honako sententziak ikusi: *Star Fruit Company SA c. Comisión*, C-247/87, 11. atala (1989-02-14); *AITEC y otros c. Comisión*, T-277/94, 65-68 atalak (1996-05-22).

¹⁴⁸⁸ *Fediol c. Comisión*, C-191/82 (1983-10-04).

osasunerako babes maila altu hori bermatzen duten egintza normatiboak onartzera behartuz¹⁴⁸⁹.

V.2.B.d. Espainiako Auzitegi Konstituzionalak ez-egite normatiboa aztertzea posible egin dezaketen zeharkako bide judizialak

Espainiar ordenamendu juridikora salto eginez gero, ez botere legegileak ezta exekutiboak ere ez dute nanomaterial manufakturatuen inolako arauketa espezifikorik onartu. Jarrera hori Konstituzioaren aurka doan ez-egite normatibo bezala kalifikatu daiteke, nanomaterialei inplizituki aplikatzen zaien marko normatiboak osotasun pertsonalerako, osasuna babesteko eta ingurumen osasuntsu batez gozatzeko eskubide konstituzionalen eraginkortasuna kolokan jartzen baitu. Kontsekuenteki, botere publikoen pasibotasun normatibo horrek eskubide horien dimentsio objektiboa urratu egiten du, botere publikoek ez baitute beren sustapen eta babes dinamikorako duten mandatu konstituzionalarekin konplitzen.

Testuinguru horretan, hala ere, ez-egite normatibo horiek ezin dira konstituzioaren kontrakoak diren lege mailako arauen aurka aurkeztu daitekeen konstituzio-kontrakotasun helegitearen¹⁴⁹⁰ objektu izan. Izan ere, ez EK-k ezta AKLOk ere ez dute ez-egiteengatiko konstituzio-kontrakotasun helegiterik jartzeko prozedura espezifikorik aurreikusi¹⁴⁹¹; beste Estatu batzuetan bai ordea¹⁴⁹². AK-k hasiera batetan babes helegitearen bidez legeen aurka zuzenean jotzea posible zela interpretatu bazuen ere¹⁴⁹³, jurisprudentzia ildo hori aldatu egin zuen¹⁴⁹⁴ eta ondorioz, babes helegiteak ez du oinarritzko eskubideen ustezko urrapenen aurrean lege mailako xedapen normatiboak zuzenean aurkatzeko bide ematen¹⁴⁹⁵ (bai ordea, erregelamendu izaera duten xedapen normatiboak¹⁴⁹⁶). Babes helegitea xedapen normatibo horiek aplikatzen dituzten botere publikoen egintzen aurka aurkeztu behar da.

Zuzenean posible ez bada ere, AKren konstituzio-kontrakotasun kontrol hori zeharka aktibatzea posible izan daiteke. Nanomaterial manufakturatuei aplikatzen zaizkien lege mailako xedapen normatiboen konstituzionaltasunari buruzko kontrol abstraktu eta orokorra aktibatzeke, zeharka, osotasun pertsonalerako oinarritzko eskubidearen ustezko

¹⁴⁸⁹ EBFTko 266. artikulua zentzuari jarraiki.

¹⁴⁹⁰ Bere arauketa: EK 161.1.a) art. eta AKLO 31-34 art.

¹⁴⁹¹ Ez-egite bidez konstituzio-kontrakotasun helegiterik aurreikusi ez bada ere, Espainiako AK-k ez-egitearen bidezko konstituzio-kontrakotasuna definitu egin zuen, interpretazio murriztaile baten bidez. AKE 87/1989, 2. o.j: *“solo se produce cuando la propia Constitución impone al legislador la necesidad de dictar normas de desarrollo constitucional y el legislador no lo hace”*.

¹⁴⁹² Zuzenbide konparatuan, esate batera, mota horretako helegiteak Portugaleko Konstituzioan (283. art) eta Alemaniako Oinarritzko Legean (6.5 artikuluan, Alemaniako AK-k 1969ko urtarrilaren 29an emandako ebazpenari esker egindako interpretazio jurisprudentzian oinarrituta) jasotzen dira.

¹⁴⁹³ AKEE 41/1981; 6/1986; 54/1986.

¹⁴⁹⁴ AKE 74/1997.

¹⁴⁹⁵ Zuzenbide konparatuan ordea, Alemaniak (Oinarritzko Legearen 93.1.4. art.) eta Austriak (Konstituzioko 144. art.) legeen aurka zuzenean babes helegitea aurkeztea posiblea da.

¹⁴⁹⁶ AKE 141/1985, 2. o.j.

urrapen zehatz eta konkretuen aurrean bide judizialera jo behar da. Oinarrizko eskubidearen ustezko urrapenen aurrean eskatutako babes subjektiboarekin batera (eskubide urrapenaren erreparazioa eta konpentsazioa objektu duena), konstituzio-kontrakotasun zalantzak eta babes helegitearen onarpenak, AKri urrapen horren kausa diren lege mailako xedapen normatiboen kontrol abstraktua eta objektiboa egiteko aukera zabaltzen dio.

Nanomaterial manufacturatu batzuek osasunean edo ingurumenean eragin ditzaketen arrisku potentzialen inguruan dauden arrazoizko zantzuak kontuan hartuta, osotasun fisikorako, osasuna babesteko eta ingurumen osasuntsu batez gozatzeko eskubideek nanomaterial manufacturatu horiekiko esposizio segurua bermatzea exijitzen dute. Langile eta kontsumitzaileen kasuan, lan arloan edo kontsumo produktuen bidez nanomaterial potentzialki arriskutsu horiekiko duten esposizioa erabat mugatu behar da. Beraz, hori gertatzen ez den kasuetan, hots, lan arloan edota kontsumitzaileen produktuetan nanomaterial horiekiko esposizio-eza bermatzen ez denean, eraginda geratzen diren langile edo kontsumitzaileek bide judizialera jo dezakete, lan segurtasunerako egokitutako neurri desegoki horiek edota nanoproduktua baimendu duen egintza administratiboa aurkatuz.

Ibilbide judizial hori martxan jartzeko langile eta kontsumitzaileek osotasun pertsonalerako oinarrizko eskubideak eskaintzen dituen mekanismo judizial indartuak baliatu behar dituzte, dagoeneko azaldu den bezala, Konstituzioak osasuna babesteko eskubideari ez baitio oinarrizko eskubidearen estatusik aurreikusten, politika sozial eta ekonomikoen printzipio zuzentzailearen izaera baizik (ingurumen osasuntsu batez gozatzeko eskubidearekin gertatzen den bezala). Bestalde, potentzialki arriskutsuak diren nanomaterial manufacturatu horiek langile edo kontsumitzailearen osasunean eragindako lesioak epe luzera arte hautemangarriak ez izatea gertatu daiteke. Zentzu horretan, salaketa oinarritzeko sostengu juridikoa jada aztertu dugun AKren ildo jurisprudenzialean bilatu behar da, hau da, osotasun fisikorako eskubidea osasuna arriskuan jartze hutsarekin urratu daitekeela interpretatzen duena¹⁴⁹⁷.

Osotasun pertsonalerako eskubidearen ustezko urrapen zehatz eta konkretu bat dela medio, urrapen hori aurkatzeko prozesu judiziala behin hasita, auzi-jartzaileak kasua aztertzen duen epaile arruntari, kasuan aplikagarri den lege izaeradun xedapenaren aurka konstituzio-kontrakotasun zalantza¹⁴⁹⁸ aurkeztu dezala eska diezaioke (nanoelikagai produktuen kasuan adibidez, elikagai berriei buruzko 258/97 Erregelamendu komunitarioaren aurka). Epaileak konstituzio-kontrakotasun zalantza hori AKri aurkeztu edo ez erabakitzeko autonomia osoa dauka; aurkeztea erabakiz gero, hori bai, epaileak prozedura judiziala amaitu ostean eta ebazpena eman aurretik planteatu beharko du zalantza hori¹⁴⁹⁹. Ez aurkeztea erabakiz gero, auzi-jartzaileak hurrengo instantzia

¹⁴⁹⁷ Gogoratu, osotasun fisikorako eskubidea urratzeko, arrisku horrek esanguratsua eta benetakoa izan behar du, osasuna lesionatzeko adinakoa (ikus AKEE 62/2007; 160/2007).

¹⁴⁹⁸ Konstituziokontrakotasun zalantzaren prozedura AKLO-ren 35-37 artikulua bitartean arautzen da.

¹⁴⁹⁹ AKLO 35.2 art.

judizialetan eskudunak diren epaile edo magistratuei konstituzio-kontrakotasun zalantza hori aurkeztea berriro eska diezaieke¹⁵⁰⁰.

Osootasun pertsonalerako eskubidearen urrapen posiblearen aurrean instantzia judizialak agortu¹⁵⁰¹ eta babes eraginkorrik lortu ezean, auzi-jartzaileak AKri babes helegitea aurkeztu diezaioke. Babes helegite horren objektua den ustezko eskubide urrapenaren jatorria botere publikoen xedapen normatibo, egintza juridiko edo egitatezko egintzak (egite edo ez-egiteak) izan behar dira¹⁵⁰². Beraz, nanomaterial manufacturatuen kasuan osootasun pertsonalerako eskubidearen urrapena botere publikoen egintzaren batek eragin duenean (produktua komertzializatzeko baimen administratibo bat esate baterako)¹⁵⁰³, egintza hori zuzenean aurkatu daiteke. Aitzitik, eskubidearen ustezko urrapenaren jatorria partikularren egintza bat denean¹⁵⁰⁴, zeharka, eskubidearen urrapena ukatu duen epailearen ebazpenaren aurka jo beha da, babes judizial eraginkorrerako eskubidearen (EK 24.1) urrapena alegatuz. AK-k babes helegitea tramitera onartu, aztertu eta osootasun pertsonalerako eskubidea urratu dela ebatziko lukeen kasu hipotetikoan, AKren ebazpen horrek eskubidearen dimentsio subjektiboa babestuko luke. Hala ere, AK-k eskubidearen dimentsio subjektiboarekin batera dimentsio objektiboa ere urratu den aztertzeko gaitasuna dauka. Horretarako, babes helegitea behin onetsirik AKren osoko bilkurak lege horren konstituzionaltasuna aztertzeko prozedura aktibatu dezake, eskubide urrapen horrek bere jatorria Konstituzio kontrakoa den lege mailako arau baten duenean¹⁵⁰⁵.

Funtsean, konstituzio-kontrakotasun zalantzaren bidez, edota babes helegitearen onspenaren ostean AK-k aktibatu dezakeen prozeduraren bidez, nanomaterial manufacturatu batzuen arrisku potentzial kezkarrien aurrean berme nahikorik eskaintzen ez duten lege mailako arauen konstituzionaltasun analisi judiziala aktibatzea posible da, eskubidearen dimentsio subjektiboaren aktibazioaren bidez bere dimentsio objektiboa zeharka babesteko bide ematen duena. Zentzu horretan, AKri botere legegilearen ez-egite normatibo hori konstituzionala den edo ez ebazteko aukera irekitzen zaio. Tamalez, AKren jurisprudentzian ez-egite normatiboaren ondoriozko konstituzio kontrakotasun ebazpenik ez da oraindik existitzen. Hala ere, Konstituzioaren organo bermatzaile gorena izanik, azpitatal honetan azaldutako planteamenduaren bidez AK-k nanoteknologiaren eta orokorrean teknologia berrien arrisku potentzial ziurgabeen aurrean botere legegilea osasun babes maila altuagoa bermatzen duen legedia egokitzera behartu dezake, Alemaniako AK-k duela zenbait hamarkada *Kalkar* izeneko zentral nuklearraren kasuan egindako interpretazio jurisprudentzial bermatzailearen antzeko ildotik joz gero.

¹⁵⁰⁰ Ibid

¹⁵⁰¹ Izan ere, babes helegitea oinarrizko eskubideen babeserako helegite subsidiarioa da (AKLO 43.1 eta 44.1 art.).

¹⁵⁰² AKLO 40.2 art.

¹⁵⁰³ Nanoproduktuen kasuan adibidez, beren komertzializazioa baimentzen duen egintza administratiboaren aurka jo behar da.

¹⁵⁰⁴ Lan eremuan, osasunean arrisku potentzialak dituzten nanomaterial manufacturatuen kasuan, enplegatzaileak langileen osasuna eta segurtasuna bermatzeko hartu dituen neurriak helburu hori betetzeko egokiak ez direnean.

¹⁵⁰⁵ AKLO 55.2 artikuluan aurreikusia.

V.2.C. Derrigortutako nanomedikuntza tratamenduak, askatasun gabetze egoeretan

Dagoeneko aipatu bezala, nanomaterial manufakturatuek epe ertain eta luzera begira diagnostiko, terapia eta birsorpen medikuntzan onura potentzial garrantzitsuak eragin ditzakete. Osasun asistentziaren arloan nanomedikuntzak ireki ditzakeen bide desberdinen artean, ordea, hurrengo kasua dokumentatu da: 2004-2006 bitartean AEBko bi ospitalek 100 paziente ingururi eskuineko besoan *Verichip* izeneko nanotxip bat inplantatu zieten, beren osasunaren monitorizazio efizienteago bat eskaintzeko helburuarekin¹⁵⁰⁶. Txip hori pazientearen gorputzean inplantatzeko egin behar den ebakuntza medikoak pazientearen gorputzaren bortxa-ezintasunean eragiten duela kontuan izanik, pazienteak arau orokor bezala ebakuntza aurrera eraman baino lehen baimen informatua, kontzientea eta libreka eman behar du. Nanotxip hori espetxe eremuan erabiliz gero, presoaren gorputzean inplantatzearen helburua bere osasuna babestea den kasuetan, presoak paziente gisa tratatu behar da eta ondorioz, presoari pazientearen autonomia printzipiotik eratortzen den baimen informaturako eskubidearen egikaritzea ahalbidetu behar zaio. Presoaren baimenik ezean, beraz, ezin izango da bere gorputzean horrelako txipik inplantatu. Osasuna babesteko helburuz gorputzean inplantatzen den txip horrek pazientearen baimen informaturako eskubidearen ikuspegitik planteatzen dituen erronkak ez dira hemen aztertzen, kapitulu honen VI. atalean baizik.

Norbanakoen osasuna monitorizatu eta babestera zuzendutako funtzioak betetzeaz gain, alabaina, nanotxip inplanteak beste mota batzuetako funtzioak gauzatzeko gaitasun teknikoa izan dezakete, segurtasunarekin lotutako zereginak kasu. Osasuna monitorizatzearekin batera, txip horiek medikamenduen edota drogen arrastoari segitzeko gaitasun teknikoa dute. Beraz, txip horiek izan dezaketen beste erabilera posibleetako bat ospitale, psikiatriko edota kartzelan dauden pertsonen hartu beharreko medikamenduak hartzen dituztela edota drogarik kontsumitzen ez dutela kontrolatzea izan daiteke.

V.2.C.a. Espetxeko segurtasuna eta bizikidetzaren ordenatua mantentzeko diziplina erregimena

Zuzenbidezko Estatu Demokratiko batean askatasun balioak oinarrizko papera jokatzen duenez, pertsona orok askatasun pertsonalerako oinarrizko eskubideari eragiten dieten behin behineko edo behin betiko askatasun-gabetze egoerak, derrigorrez eskubide horren arauketa konstituzionalean (17. artikuluan) eta legedian aurreikusitako berme juridikoen arabera izan behar dira erabakiak¹⁵⁰⁷. Berme konstituzional eta legal horiek betetzen direnean eta norbanakoa bere askatasunaz gabetu eta presondegi batean sartzen duten momentutik aurrera, preso bihurtzen da. Zentzu horretan, presoak espetxe administrazioak presondegiko segurtasuna eta bizikidetzaren ordenatua eta baketsua

¹⁵⁰⁶ MILLER eta KEARNES, 2012: 15-16.

¹⁵⁰⁷ Beste askoren artean, AKEE 41/1982, 2. o.j; 3/1992, 5. o.j; 188/2011.

mantentzeko helburuz¹⁵⁰⁸ legediak ahalbidetutako diziplina erregimenaren azpian kokatzen da.

Espainiako Konstituzioaren arabera, oinarrizko eskubideen edukien (beren egikaritza eta mugapen edukien) inguruko garapen normatiboa legeari, eta zehazki lege organikoari erreserbatzen zaion ahalmena da (EK 53.1 eta 81.1 art.¹⁵⁰⁹). Espetxe erregimenaren kasuan, aitzitik, AK-k lege erreserbaren berme konstituzional hori “leundu” egin du, presoen oinarrizko eskubideen mugapenak erregelamendu bidez “zehazteko” aukera aintzatetsi egin baitu¹⁵¹⁰. Lege erreserbarekin batera, oinarrizko eskubideen mugapena zilegi izan dadin eskatzen den beste baldintzetako bat epailearen ebazpen motibatua da. AKren aburuz, ordea, oinarrizko eskubideen mugapen neurriak onartu ahal izateko epailearen ebazpen motibatuaren baldintza hori ez da termino absolutuetan ulertu behar¹⁵¹¹. Interes publikoa jokoan egon daitekeen kasuetan eta betiere legeak espresuki horrela aurreikusten duenean, oinarrizko eskubideen neurri mugatzaileak epailea ez den beste agintari publiko batek hartu ditzake¹⁵¹², horretarako inolako ebazpen judizial motibaturik behar izan gabe. Ebazpen judizial motibatuen salbuespen legal kasu horiek, besteak beste, presondegiko erregimenaren baitan aurreikusi dira¹⁵¹³, presoek espetxe administrazioarekiko duten harreman juridiko-administratiboaren harira pairatzen duten menpekotasun loturan oinarrituz.

Oinarrizko eskubideen mugapena eragiten duten neurri normatiboen lege erreserbaren berme konstituzionalak espetxe eremuan jasan duen “leuntze” jurisprudenzial horren ondorioz, presondegiko bizikidetzak ordenatua babestu eta bermatu ahal izateko espetxe administrazioak hartu ditzakeen neurriak ez dira lege mailako arauketa batean aurreikusten, Espetxeen Erregelamenduan (190/1996 Errege Dekretua, aurrerantzean EE) baizik. Neurri horiek ordea, ezin da edonolakoak izan. Alde batetik, neurri horien izate-arrazoia betiere bizikidetzak ordenatu hori mantendu edo berreskuratzea izan behar da¹⁵¹⁴. Bestetik, helburu horren lorpenerako onartutako segurtasun neurriek presoen eskubideei eragin diezaieketen heinean, presoen eskubideen mugapen horiek proportzionaltasun printzipioa errespetatu behar dute¹⁵¹⁵.

Presondegietako barne segurtasunaren mantenua espetxe-instituzioetako funtzionarioei dagokien zeregina¹⁵¹⁶ da. Erregelamenduak hurrengo segurtasun neurriak aurreikusten ditu: presoen behaketa, zenbaketa, erregistratzea, miaketa, objektuen

¹⁵⁰⁸ Espetxeen 1/1979 Lege Organiko Orokorren (aurrerantzean, ELOO) 41.1 art.

¹⁵⁰⁹ Auzitegi Konstituzionalak lege erreserba hori erreserba absolutu bezala ulertu behar dela eman du aditzera. Alegia, oinarrizko eskubideen oinarrizko arauketa lege organikoaz arautu behar bada ere, arauketen zenbait aspektu (eskubidearen egikaritzarekin zerikusia duten aspektu teknikoak esaterako) erregelamenduz arautzeko aukera ireki egiten du, lege batek betiere aurretiaz eta esanbidez horretarako habilitazioa ematen duen kasuetan. Ikus AKEE 83/1984, 4.o.j.; 49/1999, 4.o.j.; 292/2000; 11. o.j.; 112/2006, 3.o.j.

¹⁵¹⁰ AKE 2/1987, 2. o.j.

¹⁵¹¹ AKE 207/1996, 4. o.j.

¹⁵¹² AKE 37/1989, 8.o.j.

¹⁵¹³ CANOSA USERA, 2006: 242-243.

¹⁵¹⁴ EE, 76.1 art.

¹⁵¹⁵ EE, 73.2 art.

¹⁵¹⁶ EE, 64. art.

konfiskatzea, kontrolak, esku-hartzeak edo zeldaz aldatzea¹⁵¹⁷. Segurtasun neurri horiez gain, EEk presoaren intimitaterako eskubidean (zehazki, bere gorputz intimitatearen) nabarmen eragiten duen neurriak ere aurreikusi ditu. Presoak bere gorputzean arriskutsua izan daitekeen, osasun edo osotasun fisikoan kalteak eragin ditzakeen edota espetxeko segurtasun edo bizikidetzaz aztoratu dezakeen objekturik ezkutatzen duenaren arrazoi indibidual eta kontrastatuak existitzen diren kasuetan, segurtasun arrazoi konkretu eta espezifikoak oinarri hartuta, espetxeko zerbitzu buruzagiaren baimenpean funtzionarioek presoak biluzarazi eta gorputz osoko miaketa egin diezaiokete¹⁵¹⁸. Nahiz eta azkeneko neurri horrek presoaren intimitate esferari modu esanguratsuan eragiten dion, epailearen ebazpen motibatua lortzearen baldintzatik salbuetsita dagoen neurria da, esan bezala, EEk baimentze ahalmen hori espetxeko zerbitzu buruzagiari erreserbatzen baitio. Hala eta guztiz ere, presoaren gorputz osoko miaketa antzua gertatzen den kasuetan eta kartzelako funtzionarioek susmoekin jarraitzen badute, presoari zerrendatu ditugun neurriez harago intentsitate handiagoko segurtasun neurriak aplikatu ahal izateko¹⁵¹⁹ (erradiografiak¹⁵²⁰ edo ekografiak kasu), baimen judizial motibatua lortzea ezinbesteko baldintza bihurtzen da.

V.2.C.b. Nanotxip inplanteen erabilera, presoaren drogen kontsumoa detektatzeko osotasun fisikorako eskubideari eragiten dion segurtasun neurri bezala

Atal honen hasieran adierazitakora bueltatuz, norbanakoen osasuna monitorizatu eta babestera zuzendutako zereginenez harago nanotxip inplanteak beste funtzio batzuetara bideratu daitezke, esate baterako, kartzelan dauden pertsonen drogarik kontsumitzen duten kontrolatzeko segurtasun neurri bezala¹⁵²¹. Presoaren artean dagoen drogamenpekotasuna Espainiako espetxe erregimenaren ezegonkortze faktore garrantzitsua¹⁵²² da. Drogen kontsumoak presoaren bizitza, osotasun fisiko eta osasuna bezalako ondasun juridikoei eragiteaz batera espetxearen bizikidetzan ere negatiboki eragin dezakeenez, drogen trafikoa eta kontsumoaren aurkako neurrien onarpena espetxe politikaren helburu legitimoa dela ondorioztatu daiteke.

Nanotxip hori gorputzean inplantatzeko egin behar den ebakuntza medikoak, esan bezala, norbanakoak bere gorputzaren gainean duen bortxa-ezintasunean eragiten du. Esku-sartze hori legitimoa izan dadin, norbanakoak aurretiaz ebakuntzarekiko baimen informatu, kontziente eta librea emateko eskubidea du. Titularraren aurretiazko baimenaren baldintza hori ordea ez da absolutua, Konstituzioak babesten dituen beste eskubide edo interesak jokoan dauden kasu zehatz batzuetan mugatu egin baitaiteke. Salbuespen horietako bat, hain zuzen ere, askatasun gabetze zigorrak edo segurtasun

¹⁵¹⁷ EE, 65.1 art.

¹⁵¹⁸ EE, 68.2 art.

¹⁵¹⁹ EE, 68.4 art.

¹⁵²⁰ X izpien bidezko segurtasun neurriaren aplikazioari buruz, ikus AKE 35/1996 eta AGren Penaleko Salaren 1997/2000 ebazpena.

¹⁵²¹ MILLER eta KEARNES, op. cit, 16.

¹⁵²² Espainiako Barne Ministerioak 2011an kartzelan dagoen droga trafikoa eta kontsumoari aurre egiteko jardueraren plan bat argitaratu zuen. Ikus Ministerio del Interior, 2011.

neurriak betetzera kondenatuta dauden presoek kasuan aurkitu dezakegu. Espetxe erregimen arauketari eta AKren jurisprudentziari kasu eginez gero, espetxe administrazioak presoek baimenik gabe bere gorputzean tratamendu medikoak praktikatu ditzake, betiere presoek bizitza salbatzeko¹⁵²³, arrisku nabarmeneko egoeretan 3. pertsonen osasuna edo bizitza babesteko¹⁵²⁴ edota espetxeko bizikidetzak baketsu eta ordenatua mantentzeko segurtasun arrazoietan¹⁵²⁵ oinarrituz.

Aurrekoa kontuan izanik, presondegietan nanotxipek izan dezaketen erabileraren inguruan hurrengo galderari erantzun behar zaie. Drogen kontsumoak espetxeko bizikidetzak baketsu eta ordenatuari eragin diezaiokeen egitatea izanik, barne diziplina mantentzeko segurtasun funtzioen¹⁵²⁶ egikaritzan, nanotxip horiek presoek gorputzean bere baimenik gabe inplantatzea mugapen proportzionala kontsidera al daiteke presoek osotasun fisikorako eskubidearen prisma aztertuta? Hots, kasu konkretu honetan jokoan dauden eskubide eta interesak aintzat hartuta, espetxeko bizikidetzak baketsu eta ordenatuaren izenean presoek osotasun fisikorako eskubidea mugatzen duen neurri horrek proportzionaltasun printzipioaren egokitasun, beharrezkotasun eta zentzu hertsizko proportzionaltasun azpi-printzipioak betetzen al ditu?¹⁵²⁷.

Neurri hori proportzionala den edo ez azertu aurretik, nano-txip bidezko inplanteak hitz egitean EEn esanbidez jasotzen ez duen segurtasun neurri batez mintzo garela azpimarratu behar da. Alde horretatik, nanotxipa drogamenpekotasuna duen preso baten gorputzean txertatu aurretik, presoak nanotxiparen helburuak eta funtzioez modu egokian informatu ostean interbentzio mediku hori baimentzen duen edo ez galdegin behar zaio. Presoak segurtasun neurri hori baimendu ezean, espetxe zuzendariak epaile eskudunaren baimen judiziala lortu beharko luke interbentzio medikoa gauzatu ahal izateko. Datozen lerrootan arrazoitzen denari jarraiki, segurtasun neurri horrek presoek osotasun fisikoan eta osasunean duen eragina ezin da proportzionala kontsideratu, bilatzen duen helburu hori (drogen kontsumoa kontrolatzea) lortze aldera. Zentzu horretan, epaileak ez luke interbentzio mediku hori baimendu beharko. Ekin diezaiogun segurtasun neurri horren proportzionaltasun analisiari.

Lehenik eta behin, proportzionaltasun printzipioaren egokitasun azpi-printzipioaren arabera, oinarritzko eskubidea mugatzen duen neurriak lortu nahi den helburua erdiesteko egokia izan behar du. Ikerketa zientifikoek eskainitako datuen arabera eta orokorrean

¹⁵²³ EEko 210.1 artikuluan jasotzen den aukera da. Presoek baimenik gabeko interbentzioa behin egikaritu ostean, epaileari horren berri eman behar zaio. AKren jurisprudentzian, jada azaldu dugun AKE 120/1990 sententzia irizpide normatibo horren isla jurisprudentziala da. Kasu horretan espetxean zeuden GRAPO-ko kideen gose greban, bizirik mantentzeko helburuz derrigorrez elikatu zituzten.

¹⁵²⁴ Presoari tratamendu medikua eman ezean, 3. pertsonen bizitza edo osasuna arrisku nabarmenean jartzen den kasuetan (190/1996 Errege Dekretua, 210.2 art.).

¹⁵²⁵ Presoari segurtasun neurri gisa erradiografiak egitea, bere baimenik gabe baina bai ordea baimen judizialarekin. (AKE 35/1996).

¹⁵²⁶ Espetxe erregelamenduaren (190/1996 Errege Dekretua) 73.1 eta 73.2 art.

¹⁵²⁷ AK sortu zenetik aurrera, oinarritzko eskubideen mugapen kasuen inguruko gatazketan proportzionaltasun analisia aplikatu izan du. Hala ere, proportzionaltasun kontrol horren irizpideen artikulazio ordenatua (beharrezkotasun, egokitasun eta proportzionaltasun irizpideena) AK-k batez ere 90. hamarkadaren erdialdetik aurrera emandako sententzietan hautematen da (ikus AKEE 66/1995; 55/1996; 207/1996).

nanomedikuntzaren garapen eta sofistikazio maila kontuan hartuz, etorkizun hurbil edo ertainera begira aipatu nanotxipak gorputzean barrena drogen arrastoa zehaztasun handiz segitzeko gai izango direla estimatzen da. Beraz, nanotxip inplante horiek presoan droga kontsumoa kontrolatzeko helburua konplitzeko segurtasun neurri egokiak kontsidera daitezke.

Bigarrenik, beharrezkotasun azpi-printzipioaren arabera, oinarrizko eskubidea mugatu behar izatea lortu nahi den helburua erdiesteko ezinbesteko baldintza kontsideratu behar da; hots, helburu berbera lortzeko osotasun fisikorako eskubidea intentsitate baxuagoan eragiten duen beste ordeko neurririk ez egotea. Kasu partikular honetan, presoek drogarik kontsumitzen duten edo ez kontrolatzeko presoan osotasun fisikoaren eskubidean intentsitate baxuagoan eragiten duten kontrol metodoak eskuragarri daude. Zehazki, presoaren txizaren, izerdiaren edota odolaren analisi erregularren bitartez presoak drogarik kontsumitzen duen kontrolatu daiteke. Ondorioz, nanotxipen inplanteak ezin dira lortu nahi den helburua erdietsi ahal izateko beharrezko edo ezinbesteko segurtasun neurri bezala kalifikatu, drogen kontrolerako presoaren osotasun fisikoaren dimentsioari intentsitate txikiagoan eragiten dioten metodoak erabiltzea posible baita.

Azkenik, oinarrizko eskubidearen neurri murriztaileek zentzu hertsian proportzionalak izan behar dute. Ikuspegi juridiko batetik aztertuta, neurri murriztaileak bilatzen den helburua erdiesteko izan ditzakeen abantailek desabantailek baino pisu handiagoa izan behar dute. Aztergai dugun nanotxipak presoaren etengabeko kontrola suposatzen du. Espetxeko arduradunek nanotxipak emititzen duen informazioa irakurriz momenturo jakin dezakete presoak drogarik kontsumitu duen. Drogen kontsumoa kontrolatzearen helburua konplitzeko objektu duten informazio datu horiekin batera, hala ere, nanotxipak beste informazio mota batzuk transmititzeko gaitasuna dauka, inplantatua izan den helburuarekiko bateraezinak direnak: presoaren osasunaren aspektuei buruzko informazio zabala emateko gaitasuna dute eta nanotxipek erabiltzen dituzten RFID etiketak aktiboak izanez gero, presoaren mugimenduen uneoroko segipena posible egiten dute.

Bestalde, osotasun fisikoari eragiten dieten tratamendu medikoak nahitaez pertsonal mediku edo sanitarioek eraman behar dituzte aurrera eta ezin dute presoaren osasuna arriskuan jarri¹⁵²⁸. Aitzitik, gorputzean inplantatutako txipek osasunean kalte esanguratsuak eragin ditzaketaren kezka zientifikoak existitzen dira. Alde batetik, animalietan egindako testapenen arabera, tumore kantzerigenoen eragileak izan daitezke¹⁵²⁹. Bestetik, txip horiek informazioa transmititzeko irrati frekuentzia bidezko seinaleen sistema erabiltzen dute eta sistema hori *hackeatzea* erraza denez, txipak osasunean kalteak eragiteko birprogramatzea teknikoki posible izan liteke¹⁵³⁰.

¹⁵²⁸ Ikusi AKE 7/1994, 3. o.j. eta AKE 207/1996, 4. o.j.

¹⁵²⁹ Laborategian egindako ikerketetan, mota horretako txipak txertatu zitzaizen arratoien %1-10-ei tumoreak eragin zizkien. Datu horien iturri zientifikoak honako web orrialdean eskuratu daitezke: <http://www.antichips.com/faq/html/faq-footnotes.html#ftn8> [2014-10-15].

¹⁵³⁰ HILDEBRANDT eta ANRIG, 2012.

Prisma juridiko batetik aztertuta beraz, jokoan dauden eskubide eta interesen ponderaketa ariketa egin ostean, nanotxipak presoen gorputzean inplantatzeak abantaila baino desabantaila dezente gehiago suposatzen dituela ondorioztatu daiteke. Presondegiko barne diziplina mantentzearen helburupean nanotxip inplanteak segurtasun neurri bezala erabiltzeak dakartzan abantailen aurrean, presoen osotasun fisikorako, intimitaterako eta autodeterminazio informatiborako eskubideengan¹⁵³¹ dituen eragin negatiboak are esanguratsuagoak dira.

Laburbilduz, presondegiko barne diziplina mantentzeko helburupean presoen gorputzean bere baimenik gabe mota horretako txipik txertatzeak, osotasun fisikoaren eskubidearen neurritz kanpoko mugapena suposatu dezake, intimitate eta autodeterminazio informatiborako eskubideei negatiboki eragitearekin batera. Espetxearen barne diziplina mantentzearen arrazoipean presoen drogen kontsumoa kontrolatzea helburu legítimo izan badaiteke ere, helburu hori betetzeko presoen baimenik gabe beren gorputzean nanotxip bat inplantatzea ezin daiteke neurri justifikatua kontsideratu. Osotasun fisikorako eskubidearen ikuspegitik presoen osasuna arriskuan ez jartzearen premisa ez betetzeaz gain, proportzionaltasun printzipioaren beharrezkotasun eta zentzu hertsizko proportzionaltasunaren irizpideak konplitzen ez dituen neurria da. Arrazoi horietan oinarrituz, epaile eskudunak ezingo luke drogen kontsumoa kontrolatzeko nanotxip inplanteak segurtasun neurri bezala erabiltzeko baimendu, horrelako ebazpen judizial batek presoen oinarritzko eskubideen urrapen ez legítimo bati bide emango bailioke.

V.2.D. Osotasun pertsonalerako eskubidea, osasuna babesteko eskubidea eta nanoteknologiak: ondorio moduan

Nanomaterialen manufakturatuen arrisku potentzialei buruzko ziurgabetasun zientifikoak nabarmena izaten jarraitzen duen testuinguru honetan, aplikagarri zaien marko normatiboak herritarren osasun eta ingurumenaren babes maila altua bermatzea izan behar du xede. EBko Komisioak nanoteknologiaren marko juridikoaren gainean adostu duen “hutsuneak bete¹⁵³²” estrategia normatiboaren ondorioz, nanomaterialen arriskuak kontrolatzea helburu duten mekanismo administratibo espezifikoak (jakinarazpen sistemak, nanomaterialen ebaluaketa prozedura bereziak, beren inbentarioa eta etiketapen espezifikoak) kontsumo produktuen arauketa komunitario sektorial batzuetan besterik ez dira onartu, zehazki, kosmetiko, elikagai, biozida eta aparatu elektriko zein elektronikoen testu normatibo batzuetan.

¹⁵³¹ Drogak kontsumitu edota medikamenduak hartzen dituztela kontrolatzeko helburuz nanotxipek presoen intimitate eta autodeterminazio informatiborako eskubideen ikuspegitik planteatzen dituzten arazoak ez dira hemen aztertzen, kapitulu honen VII.2.D. atalean baizik.

¹⁵³² EBko Komisioak *COM (2008) 366 final* Komunikazioan nanomaterialen eta legedi komunitario desberdinen aplikagarritasunaren azterketa orokorra egin zuen. Komisioak nanomaterialei beren bizitza ziklo osoan zehar aplikagarri zaizkien marko normatibo desberdinen aldaketa normatibo puntualen aldeko estrategia defendatu du, marko normatibo horren bigarren berrikuspenean (*COM (2012) 572 final*) berretsi duena.

Aldaketa normatibo puntual horiez gain, nanomaterialei aplikagarri zaien marko normatibo zabalean ez da bestelako aldaketa espezifikorik aurreikusi: gainontzeko kontsumo-produktuei, medikamendu edota medikuntza gailuei, lan segurtasuni edota ingurumenaren babesari baldintza normatibo konbentzionalak zaizkie aplikagarri. Nanomaterialen manufakturatuen arriskuak ebaluatzeko erabiltzen diren metodologia eta testapenek ere konbentzionalak izaten jarraitzen dute, nanomaterialen propietate konplexuak eta arriskuak egokitasunez ebaluatzeko gaitasun tekniko nahikorik erakusten ez dutenak¹⁵³³. Nanoteknologiak EBk *ex novo* arautu eta harmonizatu duen alorra izanik, Estatu-kideek EBFTren 114. artikularen arabera osasun eta ingurugiroarentzat babes maila altuagoa bermatzen dituzten neurri nazionalak egituratzeko maniobra-gaitasuna badute ere, Espainiar Estatuak ez du zentzu horretan inolako arauketarik egokitu. Espainiar Estatuak beraz, nanomaterialen arauketa gabezia horien gainean EBrekin batera erantzulekidea da.

Bestalde, informaziorako eskubideak ere osasuna babesteko eskubidearen berme eskubide gisa jarduten du: herritarrek osasun publikoarekin zerikusia izan dezaketen informazioa jasotzeko eskubidea dute. Nanoproduktu batzuen arauketetan aurreikusitako inbentario publiko edo esanbidezko etiketapen kasuetan izan ezik, herritarrei ez zaie nanomaterialei buruzko informazio publikorik transmititzen. Kontsumitzaile eta langileak kontsumo produktuetan edota lan eremuan nanomaterialen presentziaz ohartarazi ezean, nanomaterialen esposizioa jasan edo ez erabakitzeke izan beharko luketen gaitasuna eta beren gorputzaren gainean duten autonomia pertsonalaren esferarekiko errespetua ukatu egiten zaie, nanomaterialen esposizio ez informatua eta beraz inkontzientea jasaten baitute.

Osasun publikoaren ikuspegitik nanomaterial manufakturatuek eragin ditzaketen arriskuen ziurgabetasun zientifikodun egoeran, EBk eta Espainiar Estatuak onartu dituzten aldaketa normatibo bakanak ez dira gai komertzializatzen diren nanoproduktuen segurtasuna bermatzeko. Agintari komunitario eta estatalek nanomaterial manufakturatuen arrisku potentzialen aurrean egokitutako jarrera normatibo pasibo horren ondorioz, nanomaterialei aplikagarri zaien corpus normatiboak ez du osotasun fisikorako, osasuna babesteko eta ingurumen osasuntsu batez gozatzeko eskubideak eraginkortasunez babesteko nahikoa berme juridikorik eskaintzen. Botere publikoek ez dute jatorrizko zuzenbide komunitarioak eta Espainiar Konstituzioak osasun eta ingurumen babes maila altua bermatzeko aurreikusten duten mandatu orokorrarekin konplitzen. Osotasun pertsonalerako eskubidearen kasuan ere, nanomaterialen marko normatiboak ez die norbanakoei beren gorputzaren gainean duten autonomia esfera errespetatzen, ez baitie erabakitze gaitasunik bermatzen nanomaterialekiko esposizioa modu kontziente batetan onartu edo ukatzeko. Funtsean, EBko eta Espainiako botere publikoek aztergai ditugun eskubide konstituzionalen dimentsio objektiboa urratu dute, nanomaterialek eragiten dizkieten mehatxu berrien aurrean, eskubide horiei ez baitzaie babes dinamikoa bermatzen.

¹⁵³³ Europar Batasuneko *corpus* zientifikoak argitaratutako informe desberdinetan behin eta berriz errepikatzen den ondorioa da honakoa. Ikus 4. kapitulua, III.2 atala.

Nanomaterialen arriskuen inguruan existitzen den ziurgabetasun zientifikoko testuinguru honetan, Alemaniako Auzitegi Konstituzionalak *Kalkar* zentral nuklearrari buruzko sententzian¹⁵³⁴ argudiatu ziren irizpideak erabat baliagarriak dira: eskubide horiei eragin diezaieketen arrisku berririk agertuz gero (nanomaterialenak kasu), botere publikoek eskubide horien babes dinamikoa bermatzeko duten betebeharrak orokorrean oinarri hartuta, arrisku berri horiek identifikatu eta aurre egiteko aplikagarri zaien legedia inguruabar berrietara egokitzeko betebeharrak positiboak dira. Alemaniako AKren interpretazio jurisprudenzialean oinarri hartuta, jatorrizko zuzenbide komunitarioaren organo bermatzaile gorenaren Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak (EJAJ), eta Espainiako Konstituzioaren kasuan Auzitegi Konstituzionalak (AK), legitimazioa dute nanomaterialen arrisku potentzialen aurrean aztergai ditugun eskubideen dimentsio objektiboaren babes dinamikoa bermatzen ez duten lege mailako arauak (esparru komunitarioan, erregelamendu eta zuzentarauak) ordenamendu juridikotik kanporatzeko. Alegia, nanomaterialei aplikagarri zaizkien lege mailako xedapen normatiboak “arautzen ez dutenarengatik” (ez-egite legegilearengatik) zuzenbide komunitarioaren edo Espainiar Konstituzioaren aurkakoak deklaratu dituen ebazpen judizialak ematea, botere legegilea herritarren osasunaren eta ingurumenaren babes maila altua bermatzen duen arauaketa neurriak egokitzera behartzen duena.

Zuzenbide komunitarioan Estatu-kideek ez-egitearengatik helegite komunitarioa (EBFT 265-266. art.) aurkezteko legitimazio aktiboa badute ere, nanomaterialen marko normatibo komunitarioaren kasu konkretuan EBJAk helegite hori onartzea zaila izan daiteke. Izan ere, EBJAk helegitea onartzeko botere legegilearen ez-egite normatibo horrek entitate esanguratsua izan behar du (EBFTren arabera “*abstenerse de pronunciarse*”). Baldintza material hori betetzen dela frogatzea, ordea, zeregin konplexua izan daiteke, botere legegile komunitarioek nanomaterialen marko normatiboaren gainean egokitu duten jarrera pasibo hori nanomaterialen marko normatiboak nola egituratu erabakitzeko duten diskrezionaltasun ahalmenaren barnean kokatzen dela arrazoitu baitaiteke. Espainiar ordenamendu juridikoan, botere publikoek ezin dute nanomaterialei aplikagarri zaizkien lege mailako arauen aurka konstituzio-kontrakotasun helegiterik aurkeztu, ez-egite normatiboaren kasuan ez Konstituzioak ezta AKLOk ere ez baitute konstituzio-kontrakotasun helegiterik jartzeko prozedura espezifikorik arautu.

Partikularrek ere ez dute legitimazio aktiborik osotasun pertsonalerako, osasuna babesteko edo ingurumen osasuntsurako eskubideak urratzen dizkieten lege mailako arauak EBJAren edo AKren aurrean zuzenean aurkatzeko. Esparru komunitarioan, partikularrek ez-egitearengatik helegitea aurkezteko legitimazio aktiboa izan badute ere, praktikan aukera hori itxi egiten zaie: helegite hori aurkezteko lege mailako arau horrek partikularrei zuzenean eta modu konkretuan eragiten dietela justifikatu behar dute; nanomaterialen kasuan, bere corpus normatiboak izaera abstraktua eta orokorra duten arauak dago osatua. Bestalde, Estatu mailan partikularrei ez zaie konstituzio-kontrakotasun helegitea aurkezteko legitimazio aktiborik onartzen.

¹⁵³⁴ *BverfG* 49, 89 (1978-08-08).

Nanomaterialei aplikagarri zaien corpus normatiboaren kontrol abstraktu eta orokorra zuzenean aktibatzeke legediak partikularrei mekanismo judizialik aitortzen ez badie ere, partikularrek kontrol mota hori zeharka aktibatzea posible dute. Zehazki, nanomaterialen esposizioarekin zerikusia duten oinarritzko eskubideen urrapen konkretuen aurrean, partikularrek bide judizialera jotzean, konstituzio-kontrakotasun-zalantza (AKLO 35. art. eta hurrengoak) edo babes helegitea (AKLO 41. art. eta hurrengoak) bezalako mekanismo judizialak aktibatu ditzakete. Horrela gertatzen den kasuetan, gatazka judiziala Espainiako AKra iristen da eta organo judizial horrek, oinarritzko eskubidearen urrapen konkretu eta zehatza aztertzearekin batera, gatazka judizialean aplikagarri diren lege mailako arauen konstituzionaltasunaren kontrol abstraktu eta orokorra egin dezake. Oinarritzko eskubideen dimentsio subjektiboa aktibatuz, eskubide horren dimentsio objektiboa babestea ere posible izan daiteke beraz.

Espainiar ordenamendu juridikoan osotasun pertsonalerako eskubideak (EK 15. art.) eta osasuna babesteko eskubideak (EK 43. art.) formalki babes konstituzional desberdina dute: lehenengoa oinarritzko eskubidea da, bigarrena ordea printzipio zuzentzailea. Alde horretatik, legez aurreikusten diren kasuetan izan ezik, osasuna babesteko eskubidearen urrapenak ezin dira zuzenean bide judizialek salatatu. Osotasun pertsonalerako eta osasuna babesteko eskubideek babesten dituzten ondasun juridikoak desberdinak badira ere (hurrenez hurren, norbere gorputzarekiko bortxa-ezintasuna eta osasuna), lehenengo eskubidearen ondasun juridikoak bigarren eskubidearen zenbait elementu barneratzen ditu: norbere gorputzarekiko bortxa-ezintasun ondasun juridikoak, bere edukien artean, osasun fisikoa ere barne hartzen du¹⁵³⁵. Bi eskubide horien parekotasun material horretan oinarri hartuta beraz, osasuna babesteko eskubidearen aurkako urrapen posibleak, baldintza material batzuk betetzen diren kasuetan, osotasun pertsonalerako oinarritzko eskubidearen bidez bidez judizialki salatatu daitezke.

Oinarritzko eskubideen ustezko urrapenak bide judizialek salatatu ahal izateko ezin dira edonolakoak izan: urrapenek errealak, zehatzak, efektiboak eta egiazkoa izan behar dute. Nanomaterialen fabrikatzearen arrisku potentzialei buruz egun dagoen ziurgabetasun zientifikoa kontuan izanik, kasu konkretuetan material horiek osasunean eragin ditzaketen kalteak frogatzea konplexua izan daiteke. Hala eta guztiz ere, AK-k emandako zenbait ebazpenetan¹⁵³⁶ osotasun fisikorako eskubidearen urrapenen gainean baldintza horiek leundu egin ditu: osasuna arriskuan jartze hutsarekin osotasun fisikorako eskubidea lesionatu daitekeela ebatzi du, arrisku potentzial hori lesioa eragiteko esanguratsua eta benetakoa denean, arrisku hori ekiditeko ardura duen pertsonak inolako neurririk hartu ez duen kasuetan. Interpretazio judizial hori baliagarria izan daiteke nanomaterialen esposizioa jasaten duten langile eta kontsumitzaileen kasu partikularrean.

Lan esparruan edo kontsumorako produktuetan erabilitako nanomaterialek osasunean arrisku potentzialak eragin ditzaketen arrazoizko zantzu zientifikoak daudenean, langile eta kontsumitzaileek, enplegatzaileari edo nanoprodotuaren arduradunari hurrenez hurren,

¹⁵³⁵ Besteak beste, ikus AKE 35/1996, 3.o.j.

¹⁵³⁶ AKEE 62/2007 eta 160/2007.

nanomaterial horien esposizio segurua bermatzeko neurriak hartu ditzaten exijitu behar diete. Eskaera hori eginda enplegataileak edo nanoproduktuaren arduradunak esposizio segurua bermatzeko neurriak hartu ezean, langile eta kontsumitzaileek lan segurtasunerako neurri desegokiak edota nanoproduktua baimendu duen egintza administratiboa bide judizialean aurkatu dezakete, beren osotasun fisikorako eskubidea (zeharka, osasuna babesteko eskubidea) urratzen dutenaren arrazoipean.

Osotasun pertsonalerako eskubideari konstituzioak aurreikusten dizkion berme judizial indartuei esker, gatazka judizialaren objektu diren lan segurtasun neurriei edota nanoproduktua baimendu duen egintza administratiboari aplikagarri zaizkien lege mailako arauen konstituzionaltasun kontrol abstraktua eta orokorra aktibatzeke erabili daiteke halaber, kontrol mota hori aktibatzen duten instrumentu judizialak martxan jarritz: auzi-jartzaileak kasua aztertzen duen epaile arruntari konstituzio-kontrakotasun zalantza planteatzea eskatu diezaioke, edota instantzia judizial arruntak agortzean, auzi jartzaileak AKri babes helegitea aurkeztu diezaioke. Osotasun pertsonalerako eskubidearen (eta zeharka osasuna babesteko eskubidearen) dimentsio subjektiboaren babesaren bidez, beraz, eskubidearen dimentsio objektiboa (botere publikoek eskubide konstituzionalen egikaritzea sustatu eta babesteko duten betebeharra) babestea posiblea da. AK-k gatazka judizial konkretu batean aplikagarri diren lege mailako arauen baten konstituzio-kontrakotasuna deklaratu balu, botere legegilea juridikoki behartuta geratuko litzateke konstituzioaren kontrakoak diren arau horiek berrikustera eta osasunari eta ingurumenari zor zaien babes maila altua errespetatzen duten moduan berregituratzera.

VI. PAZIENTEAREN BAIMEN INFORMATURAKO ESKUBIDEA

Nanomedikuntza medikuntzaren iraultza eragiten ari den diziplina berria eta askorentzat ezezaguna da. Gaur egun nanomedikamenduak eta nanomaterialez egindako medikuntza gailuak progresiboki baimenduak izaten ari badira ere, ikuspegi normatibotik ez da aldaketarik gertatu, ez Europar Batasun mailan, ezta Espainia mailan ere. Nanoteknologiak erabiltzen diren beste esparruen antzera, medikuntza tratamendu berritzaileetan erabiltzera bideratutako nanomaterialek gorputzean izan ditzaketen efektu kaltegarriari buruzko ziurgabetasun maila handia existitzen da, nanomaterial disolbaezin eta biodegradaezinen kasuan batez ere. Horrez gain, hiritarren gehiengoak ez du nanomedikuntzaren berri inoiz izan. Testuinguru horretan beraz, pazienteak baimen informatua emateko duen oinarritzko eskubidea kolokan geratzen da. Datozen orrietan, lehenik eta behin eskubide horren aspektu normatibo nagusiak aztertzen dira eta ondoren, nanomedikuntzaren kasu konkretuan sortu daitezkeen arazo zehatzen analisisa egiten da.

VI.1. Pazientearen baimen informaturako eskubidearen aspektu normatibo nagusiak

VI.1.A. Paziente-mediku erlazioaren paradigma aldaketan sustraitutako eskubidea

Pazientearen baimen informaturako eskubideak ezinbesteko engranaje gisa funtzionatzen du, medikuntza tratamenduen (zentzu zabalean ulertuta, interbentzio medikoak barne) bidez lortu nahi den helburua bilatzeko¹⁵³⁷ (kasu gehienetan, pazientearen osasuna babestea) ezinbestez pazientearen bortxa-ezintasun korporalerako ondasun juridikoan eragin behar baita. Elkarren artean talka egiten duten ondasun juridikoen titularra izanik, baimen informaturako eskubideak pazientearen erabaki garrantzitsu horren erdigunean kokatzen du¹⁵³⁸. Hortaz, osasunaren inguruabar objektiboak baino, jokoan dauden ondasun juridikoen titulartasuna da lehenesten dena¹⁵³⁹. Pazienteari bere gorputzaren gainean aintzatesten zaion autonomia gaitasun hori, bere pertsonalitatea libreki garatzeko ezinbesteko elementua da, gizaki bezala duen duintasunetik eta askatasun baliotik eratorritzen den adierazpena¹⁵⁴⁰. Medikuntza tratamenduaren erabaki-hartzean pazienteari autonomia horren egikaritzea bermatu ezean, ikusle xumea bailitzan tratatuko litzateke, bere bizitzarekiko duen autodeterminazioaren eta giza duintasunaren hutsaltzea eragingo lukeen egitatea. Pazientearen *status libertatis* esfera horretan¹⁵⁴¹, beraz, ez da bere baimen informaturik gabe esku-sartzerik onartzen, salbuespen kasuetan izan ezik¹⁵⁴².

Pazientearen eta medikuaren artean existitzen den erlazioak beraien arteko elkarrekiko konfiantza du oinarri. Medikuek pazienteari medikuntza tratamenduari buruzko informazioa egokitasunez transmititu behar dio, azken horrek tratamenduaren gaineko erabakia kontzienteki eta modu librean hartzea posible izan dezan. Paziente eta medikuaren harreman horretan, hortaz, baimen informaturako eskubide horrek funtzio bikoitza betetzen du¹⁵⁴³: alde batetik, pazientearen osotasun fisikoan egiten den interferentzia legitimatu egiten du eta bestetik, pazienteak medikuntza tratamenduaren arrisku posibleak beregain hartzen ditu. Hala ere, pazientearen autonomia printzipio horren

¹⁵³⁷ Medikuntza tratamenduak ez dira emaitzako betebeharrak, bitarteko betebeharrak baizik. Hots, medikuen zeregina, bilatzen den helburua lortzea posible izan dadin exijitzen diren baldintzak bete eta eskuragarri dituen bitartekoak erabiltzean datza. Baldintza eta bitarteko horiek beteta, medikuntza tratamenduaren bidez lortzea espero zen emaitza lortu ezean, medikuari ezin zaio erantzukizunik eskatu.

¹⁵³⁸ Presondegiko erregimenean ere, presoak paziente gisa tratatu eta erabakitze autonomia hori bermatzea ezinbestekoa da. Aurreko atalean zehar defendatutakoa gogoraraziz, interbentzio medikoen aurrean presoek pazientearen eskubide eta askatasun berberak izan behar dituzte. Aitzitik, lotura bereziko harremanen doktrina aplikatuz, Espainiako AK-k eta presondegiko erregimen juridikoak presoek paziente gisa izan beharko luketen erabakitze autonomia hori mugatu egiten diete, presoaren bizitza babesteko eginkizunean (askotan aipatu den AKE 120/1990).

¹⁵³⁹ VICANDI MARTÍNEZ, 2012: 43-44.

¹⁵⁴⁰ Ikuspegi legetik, (ikus 41/2002 Legea, 2.1 eta 9.5 art.) eta jurisprudenzialetik (AGE, 2001-05-11; AGE 2006-12-21) pazientearen baimen informaturako eskubidea autonomia pertsonalaren eta giza duintasunaren balioaren proiektzioa dela aintzatesten da. Doktrinari dagokionez, ikus: ABERASTURI GORRIÑO, 2011: 263; CANTERO MARTÍNEZ, 2008: 41; GARCÍA AMEZ, 2013: 29; OVALLE GÓMEZ, 2009; VICANDI MARTÍNEZ, op. cit, 48. orr

¹⁵⁴¹ ROVIRA VIÑAS, 2007: 33.

¹⁵⁴² Pazientearen baimen informaturako eskubide hori ez da absolutua. Pazientearen zein 3. pertsonen osotasun fisikorako edo bizitzarako, edo osasun publikoarentzako arrisku nabarmena dagoen kasuetan (41/2002 Legea, 9.2 art.) pazientearen baimenik gabeko medikuntza tratamenduak zilegi izan daitezke.

¹⁵⁴³ DE LA MAZA GAZMURI, 2010:96.

erdiestea duela ez hainbesteko kontua da¹⁵⁴⁴. Antzina, mediku-paziente harremana erabat bertikala zen eta medikuak pazientearen gainean jarrera paternalista egikaritzen zuen¹⁵⁴⁵, zin hipokratikoan sustraituriko benefizentzia eta malefizentzia ezaren printzipioetan oinarri zuena¹⁵⁴⁶. Profesional sanitarioak pazientearengan burutzen zituzten medikuntza tratamenduen gidatzaileak ziren; pazienteari ez zitzaion erabakitze ahalmenik aitortzen, medikuak zuen ezagutza eta jakintza mailan fidatuz, azken horrek zioenari men egiten baitzion.

Espainiar Estatuan, eredu paternalistatik pazientearen autonomia printzipioan funtsa zuen eredu aldaketaren lehenengo aztarna juridikoa 14/1986 Legean aurkitu dezakegu, osasunaren baldintza orokorrak arautzen zituen eta pazientearen eskubideak modu generikoan aurreikusi zituen lehenengo testu normatiboa zena. Biomedikuntzaren arloan gertatutako aurrerapenak duintasunaren eta pazientearen autonomiaren ikuspegitik planteatzen zituzten erronka berriez jakitun, Europako Kontseiluak onartutako 1997ko Oviedoko Konbentzioak pazientearen baimen informaturako eskubidearen egiturapenean sakontzea eragin zuen¹⁵⁴⁷. Pazientearen autonomia printzipioaren sustraitze horren isla urte batzuk beranduago onartu zen 41/2002 Legean aurkitu dezakegu (aurrerantzean, PAL), 14/1986 Legeak jasotzen ez zituen zenbait aspektu berri¹⁵⁴⁸ barneratu zituen.

VI.1.B. Pazientearen baimen informaturako oinarritzko eskubidearen izaera eta eduki normatiboa

Pazientearen baimen informatua garapen legegilearen bidez egituratuz joan den eskubidea izanagatik ere, benetazko oinarritzko eskubide baten aurrean gaude¹⁵⁴⁹, bizitza, osotasun fisiko, kontzientzia askatasun eta askatasun pertsonalerako eskubideen adierazpen eta beharrezko ondorioa den eskubidea. Pazienteak bere bizitza eta gorputzarekiko duen autodeterminazio eskubide bezala ere kalifikatu da¹⁵⁵⁰ eta funtsean, pazientearen erabaki autonomia bermatzea du xede¹⁵⁵¹. Medikuntza tratamenduek pazientearen gorputzaren

¹⁵⁴⁴ II. Mundu Gerran medikuntza arloan egin ziren sarraskiez jakitun, pazientearen baimen informatuaren mekanismoa gerratearen osteko Nurembergeko 1948ko Kodean jaso zen lehenbizikoz (TRIVIÑO CABALLERO, 2010: 7).

¹⁵⁴⁵ Pazientearen interesen babesean jardutean datza, baina beren iritzia kontuan hartu gabe. Horri buruz, besteak beste: ABERASTURI GORRIÑO, op. cit, 261. orr; CANTERO MARTÍNEZ, op. cit, 8. orr; RODRÍGUEZ LÓPEZ, 2004: 14; VICANDI MARTÍNEZ, op. cit, 40. orr.

¹⁵⁴⁶ Benefizentzia printzipioak medikua pazientearen interesen babesean jardutera behartzen du. Malefizentzia ezaren printzipioaren arabera, medikua pazientearen interesak nahita kaltetzera bideratutako jarduerarik egikaritzeaz abstenitu egin behar da (besteak beste, horrelako egintzak Kode Penaleko 196. artikuluan tipifikatzen dira).

¹⁵⁴⁷ Europako Kontseilu mailan, pazientearen baimenik gabeko medikuntza tratamenduek GEEHko 8. artikulua urratu dezakete (EGEA, Pretty c. Reino Unido, 2002-04-29).

¹⁵⁴⁸ Berritasun nabarmenenak: pazienteak informazioa ez jasotzeko duen eskubidea (PAL 4.1 art.), baimena eman ostean hura ezeztatze duen ahalmena (PAL 8.5 art.) eta alde zuzeneko borondateen figura juridikoa (PAL 11. art.).

¹⁵⁴⁹ AGE 2001-1-12 (rec. 3688/1995), 1. o.j.

¹⁵⁵⁰ AGE 2011-5-25 (rec. 5513/2006), 5. o.j.

¹⁵⁵¹ AGE 2011-12-7 (rec. 1468/2010), 3. o.j.

bortxa-ezintasunean eragiten dutela kontuan izanik, baimen informaturako eskubidea osotasun fisikorako eskubidearen eraginkortasuna bermatzea helburu duen garrantzi konstituzionaleko institutua da eta bere urrapenak edo akastun egikaritzak osotasun pertsonalerako oinarrizko eskubidearen lesioa eragin dezake¹⁵⁵². Kontsekuenteki, legegileak bete beharreko berme konstituzional baten aurrean gaude, legegilea pazientearen baimen-emate horren mekanismoak egituratu eta baimena beharrezkoak ez diren kasuak zehaztera behartua baitago, Konstituzioaren zentzuarekin bat¹⁵⁵³.

Pazientearen oinarrizko eskubide hori bermatzeak bi eskubideren egikaritza eskatzen du. Alde batetik, pazienteak tratamendu medikoaren inguruan eskuragarri dagoen informazioa guztia¹⁵⁵⁴ modu egokian¹⁵⁵⁵ jasotzeko eskubidea, informaziorik ez jasotzeko eskubidea barne¹⁵⁵⁶. Bestetik, pazienteak baimena libreki, borondatez eta kontzienteki emateko duen eskubidea¹⁵⁵⁷, tratamendua ukatzeko eskubidea barne¹⁵⁵⁸. Aipatutako bi eskubide horiek elkarrekiko gordetzen duten lotura estua dela medio, txanpon beraren bi aurpegiak¹⁵⁵⁹ direla ulertzen da. Izan ere, pazienteak informazio osoa egokitasunez jasotzeko duen eskubideak, baimena libreki, borondatez eta modu kontzientean emateko eskubidearen egikaritzarako ezinbesteko baldintza elementu bezala funtzionatzen du. Lehenengo eskubideak beraz, bigarren eskubidearen eraginkortasunean zuzeneko eragina du, lehenengo eskubidea urratuz gero (informazio eza edo akastuna) bigarren eskubidea ezinbestez urratu egiten baita¹⁵⁶⁰.

Pazienteari medikuntza tratamenduari buruzko informazioa transmititzeko ahozko forma lehenesten da, tratamenduak osotasun fisikoan edo osasunean izan ditzakeen

¹⁵⁵² AKE 37/2011, 3. o.j.

¹⁵⁵³ Ibid

¹⁵⁵⁴ PAL, 4.1. art.

¹⁵⁵⁵ PAL 5.2 art

¹⁵⁵⁶ Ikusi PAL 4.1 artikulua. Informaziorik ez jasotzeko eskubidea ere ezin da termino absolutuetan ulertu, PALen 9.1 artikulua zentzuari jarraiki beste eskubide edo interes kolektiboekin talkan sartzean mugatu egin baitaiteke. Esate baterako, informazio emate ezak pazientearen edo 3. pertsonen osasuna jokoan jartzen badu edo kasu klinikoaren exijentzia terapeutikoak direla medio pazientearen informatzea beharrezkotzat jotzen den kasuetan (GARCÍA MILLÁN, 2009: 279).

¹⁵⁵⁷ PAL 5.2 art.

¹⁵⁵⁸ Pazienteak tratamendua ukatzeko eskubidea PALen 2.4 artikuluan aurreikusten da. Tratamendua ukatuz gero, pazienteari borondatezko alta medikoa sinatu dezan proposatuko zaio. Firmatu ezean, zentro sanitarioaren zuzendaritzak, mediku arduradunaren proposamenez, derrigorrezko alta egokitu ahalko du. Kasu horretan ere pazienteak alta hartzeari uko egingo balio, zuzendaritzak pazientearen entzun beharko du eta azken instantzian gatazka epaileari helaraziko zaio, alta baietsi edo ezetsi erabaki dezan (PAL 21.1 eta 22.2 art.).

¹⁵⁵⁹ VICANDI MARTÍNEZ, op. cit, 49. orr.

¹⁵⁶⁰ AKE 37/2011, 5. o.j. Vicandi Martínez autorearen aburuz, ez gaude bi eskubideren aurrean, eskubide baten eta eskubide horren egikaritzaren adierazpenaren aurrean baizik. Bere iritziz benetako eskubidea lehena da, hots, pazienteak informazio osoa egokitasunez jasotzeko duen eskubidea. Baimen kontzientea ematea oster, aurreko eskubidearen ondorioa edo materializazioa da (VICANDI MARTÍNEZ, op. cit, 49. orr.). Interpretazio horren kontran, informazio osoa egokitasunez jasotzeko eskubidea eraginkortasunez egikaritzeak ez du pazienteak baimen libre, borondatezkoa eta kontzientea ematea ezinbestean ahalbidetzen. Pentsa dezagun pazienteari informazio osoa egokitasunez eman ostean bere baimenik gabe medikuntza tratamendua aplikatzen zaiola. Kasu horretan, nahiz eta lehenengo eskubidea egikaritu den, bigarren eskubidearen urrapena eman da. Beraz, bi eskubideren aurrean gaude, pazientearen baimen informaturako eskubidearen eraginkortasunak elkarrekiko berebiziko lotura duten bi eskubide horien egikaritza ezinbestekoa baitu.

eraginen garrantzia dela eta, pazientea idatziz informatu behar den kasuetan izan ezik¹⁵⁶¹: interbentzio kirurgiko, izaera inbasorea duten tratamendu, eta orokorrean, tratamendua aurrera eramatean gerta daitezkeen arrisku edo eragozpenek pazientearen osasunean ondorio negatibo nabarmenak eragin ditzaketenean. Informazioaren edukiari dagokionez, pazienteari tratamenduaren bidez lortzea espero den emaitza posiblea (tratamenduaren arrisku eta kalte posibleak barne), tratamenduak eragin ditzakeen albo-ondorioak eta hautazko medikuntza tratamendu posiblei buruzko informazioa transmititu behar zaio¹⁵⁶². Pazienteari eman behar zaion informazioa, aldi berean osoa eta egokia izan behar da. Kasu batzuetan, medikuntza tratamenduari buruzko informazio larregi emateak edota teknizismoz betetako informazioa transmititzeak pazientearen ulermenean negatiboki eragin dezake. Eskubidearen egikaritzak informazioa pazienteak modu kontzientean ulertzeko moduan transmititzea eskatzen duenez, informazio transmisio hori paziente bakoitzaren kasuan kasuko errealitatera egokitu behar da¹⁵⁶³. Informazioaren teknifikazioaren aurrean pazientearen ulermena lehenetsi behar da; hots, informazio osotasunaren eta egokitasunaren arteko talka ematen denean, azkenengo elementua da gailentzen dena¹⁵⁶⁴.

Pazienteak baimen informatua emateko duen eskubide hori ordea ez da absolutua, pazientearen edo 3. pertsonen osotasun fisikorako zein bizitzarako, edo osasun publikoarentzako arrisku nabarmena dagoen kasuetan, baimena ematearen baldintza hori salbuetsi egiten baita:

- a) “Premia terapeutikoaren egoera” (*estado de necesidad terapeutica*) ematen den kasuetan, hots, arrazoi objektiboak direla medio paziente bere osasun egoeraz informatzeak osasunarentzako kalte larria eragin diezaiokeenean, medikuak pazientea informatu gabe jardun dezake, aldez aurretiaz horretarako arrazoiak jasota utziaz eta pazientearen familiari edo izatezko arrazoiak direla medio pazientearekin lotura duten pertsonen erabakiaren berri emanez¹⁵⁶⁵.
- b) Pazientearen osotasun fisiko edo psikikorako arriskua berehalakoa eta larria den kasuetan bere baimenik lortu ezin daitekeenean¹⁵⁶⁶. Premiazko egoera horretan, pazientearen bizitza eta osotasun pertsonalerako eskubideen babesa lehenetsi egiten da. Horretarako, pazienteari familia edo izatezko arrazoiz lotutako pertsonen, pazienteak kasu horretan zer egingo zukeen galdetu behar zaie eta medikuntza tratamendua ukatzeko alde aurretiazko agindu idatzirik utzi zuen edo ez egiaztatu behar da¹⁵⁶⁷. Agindu idatzirik ez dagoen kasuetan, familia edo izatezko arrazoiz lotutako pertsonen pazienteak tratamendua ukatuko zukeela baderitzote eta medikua horrekin ados ez badago, medikuntza tratamendua burutu edo ez erabakitzeke azken hitza epailearena da.

¹⁵⁶¹ PAL, 8.2 art.

¹⁵⁶² PAL 10.1 art.

¹⁵⁶³ AGEE 2006-12-21 (rec. 4672/2002); 2007-1-16 (rec. 5060/2002); 2012-6-25 (rec. 1386/2011).

¹⁵⁶⁴ VICANDI MARTÍNEZ, op. cit, 52. orr.

¹⁵⁶⁵ PAL 5.4 art.

¹⁵⁶⁶ PAL 9.2.b) art.

¹⁵⁶⁷ PAL 2.4 art.

- c) Legez aurreikusitako arrazoi sanitarioen bat dela medio, osasun publikoarentzat arriskua dagoenean¹⁵⁶⁸. Kasu horietan, pazientearen autonomia eskubidearen eta interes kolektiboen (osasun publikoa) talka ematen da eta legez ezarritako kasu espezifikoetan soilik (derrigorrezko txertoak esaterako), lehenengoak bigarrenaren alde etsi egiten du.

VI.1.C. Pazientearen baimen informaturako eskubidea urratzearen ondorio juridikoak

Esan bezala, pazientearen baimen informaturako eskubidearen eraginkortasuna bi eskubideren egikaritzara baldintzatuta dago: alde batetik pazienteak medikuntza tratamenduaren informazioa osotasunez eta egokitasunez jasotzeko eskubidera, eta bestetik, baimena libreki, borondatez eta kontzienteki emateko eskubidera. Bigarren eskubidearen egikaritzarako lehenengo eskubidea errespetatzea ezinbestekoa denez, pazienteak baimena informaziorik jaso gabe edo informazio osatugabea jasota ematen badu, baimena biziaria dagoela eta deuseza dela ulertu behar da. Izan ere, pazienteak ez du erabakia kontzientzia osoz hartzeko aukerarik izan eta ondorioz, medikuntza tratamenduaren gainean izan behar duen erabakitze autonomia hori ez zaio bermatzen. Lehenengo eskubidea errespetatuta ere, aurreko atalean azaldu berri diren salbuespen kasuetatik kanpo pazientearen baimenik gabe jarduten denean, pazientearen baimen informaturako eskubidearen urrapenaren aurrean gaude halaber.

Konstituzioan esanbidez jasotzen ez bada ere, pazientearen baimen informatua oinarrizko eskubidea da; Auzitegi Konstituzionalak EK-ko 15. artikuluan jasotzen den osotasun fisikorako eskubidearen urrapenaren aurrean gaudela interpretatu du¹⁵⁶⁹. Baimen informaturako eskubidearen urrapenetik ondare erantzukizunik eratortzen den edo ez jakiteko, Auzitegi Gorenak arlo honetan eman duen jurisprudentzia nahasiari erreparatu behar diogu. AGk, baimen informaturako eskubidearen urrapena, zerbitzu sanitarioen erru edo arduragabekeriaren ondorioz gertatutako *lex artis ad hoc* izaeradun urrapen bezala kalifikatu du¹⁵⁷⁰; hots, pazientearen eta zerbitzu sanitarioen arteko kontratu publiko edo pribatu baten testuingurupean, zerbitzu sanitarioek zuten bitarteko betebeharraren ez-betetze bezaka. Zuzenbide zibilaren eta administrazio zuzenbidearen arauen arabera¹⁵⁷¹, eskubide urrapen horrek ondare erantzukizunik sorrarazten duen erabakitzeo, pazientearengan kaltea eragin behar du eta kalte hori frogatzea exijitzen da.

Pazientearen baimen informaturako eskubidea urratzearen ondorioz sortutako kalteak izan behar duen entitatearen harira, AGk elkarrekiko erabat desberdinak diren bi jurisprudentzia ildo jarraitu ditu. Alde batetik, sententzia batzuetan eskubide horren

¹⁵⁶⁸ PAL 9.2.a) art.

¹⁵⁶⁹ AKE 37/2011, 5. o.j.

¹⁵⁷⁰ Beste askoren artean, ikus AGEE 1997-8-2 (330/1997); 2003-5-29 (511/1997); 2003-7-23 (784/2003).

¹⁵⁷¹ 30/1992 Legearen 139.1 artikulua emaitza kaltegarri baten existentzia eskatzen du administrazioaren ondare erantzukizuna sorrarazteko. Eskubidearen urrapena osasun zentro pribatu batetan gertatzen bada ere, erantzukizun kontraktualak (KZ 1101. art.) edo kontratuz kanpokoak (KZ 1902. artikulua eta hurrengoak) kaltearen existentzia eskatzen dute.

urrapen hutsak pazienteari *de facto* kalte morala eragiten diola interpretatu du eta beraz, kalte hori indemnizagarria dela ondorioztatu du¹⁵⁷². Beste sententzia batzuetan, ordea, AGk eskubide urrapen horretatik lesio fisiko baten existentzia eta bere frogapena (eskubide urrapen eta lesioaren arteko kausalitate harremana) beharrezkoa dela argudiatu du¹⁵⁷³. AGk egindako bi interpretazio horien artean, pazientearen baimen informaturako eskubidearen zentzuarekin bat datorren interpretazioa lehenengoa da. Izan ere, eskubidea urratu dela frogaturik geratzen den kasuetan pazientearengan *de facto* kalte morala eragin dela eta beraz ondare erantzukizuna dagoela ulertzen da. Bigarren interpretazioak ostera, eskubidea urratu dela frogatzeaz gain, ondare erantzukizuna sorrarazteko, urrapen horren ondorioz kalte fisikoaren existentziaren frogapena ere eskatzen du (frogapen bikoitza alegia). Azken interpretazio hori ez dator baimen informaturako oinarritzko eskubidearen izaerarekin bat. Ez gaude emaitzazko betebeharraren ez-betetze baten aurrean, bitarteko betebeharraren ez-betetze baten aurrean baizik. Funtsean, bigarren jurisprudentzia lerroa jarraitzeak oinarritzko eskubide horren urrapenei garrantzia murriztaraztea dakar¹⁵⁷⁴.

VI.2. Nanomedikuntza eta pazientearen baimen informaturako eskubidea

VI.2.A. Nanomedikuntza, ziurgabetasun zientifikoz eta ezjakintasun publikoz inguratutako diziiplina oparoa

Nanomaterialen manufakturatuen propietate eta ezaugarri berriek medikuntzaren eremuan onura potentzial garrantzitsuak ekar ditzakete, gaixotasunen diagnostiko, terapia eta birsorpen medikuntzari esate baterako¹⁵⁷⁵. 2000 urtetik aurrera garapen nabarmen eta etengabekoa izan duten teknologiak izanik, nanoteknologiaren inguruko ezagutza maila uneoro aldatuz doa. Hortaz, nanomedikuntzak asistentzia sanitarioan aurrerapen handiak ekar ditzakeen neurrian, osasuna babesteko eskubidearen egikaritzan lagungarria izan daiteke. Hala ere, osasuna babesteko eskubideak ez du medikuntza teknika aurreratuenak erabiltzeko eskubiderik barneratzen, osasun sistema publikoaren mugapen ekonomiko eta aurrekontuzkoak direla medio, Gizarte Segurantzako onuradun guztien eskura egotea bermatu ezin daitezkeen tratamenduak direnean¹⁵⁷⁶. Onuradun guztiei bermatzea posible den momentu-arte beraz, ezin da nanomedikuntza tratamenduetara (zentzu zabalean ulertuta, interbentzio medikuak barne) sarrera izateko eskubiderik dagoela ondorioztatu.

Medikuntzan izan ditzaketen onuren potentzialtasuna handia bada ere, nanomaterialen manufakturatuen batzuek osasunean eragin ditzaketen kontrako efektuen gaineko

¹⁵⁷² Ikus AGEE 2000-4-4 (rec. 8065/1995); 2007-7-6 (rec. 3036/2000); 2012-1-3 (rec. 7014/2010).

¹⁵⁷³ Ikus AGEE 2002-3-26 (rec. 890/2001); 2004-2-26 (rec. 8656/1999); 2005-12-14 (rec. 91/2005); 2009-6-30 (222/2005).

¹⁵⁷⁴ Ikuspegi horren alde: FERNÁNDEZ ACEBO, 2013: 162; ROVIRA VIÑAS, 2007: 44-48

¹⁵⁷⁵ Onura potentzial horiei buruz, besteak beste: AZZAZY eta MANSOUR, 2009; DE COZAR ESCALANTE, 2010: 59-62; EGE, 2007: 13-20; LUCHINI et al, 2010; MENENDEZ, 2010: 85-101; MERKEL et al, 2011; MILLER eta KEARNES, 2012: 13-16. PETROS eta DESIMONE, 2010.

¹⁵⁷⁶ Jurisprudentziak “teknika aurreratu ez sozializatu” bezala definitu ditu (ikus Auzitegi Gorenaren Lan Arloko Salak 1994ko urriaren 13an emandako ebazpena, 3. o.j.).

ziurgabetasun zientifikoek eta kezkek nagusi izaten jarraitzen dute, nanomaterial disolbaezinen eta biodegradagarriak ez direnek gorputzean eragin ditzaketen epe luzerako efektuen inguruan bereziki¹⁵⁷⁷. Ziurgabetasun testuinguru horretan, tratamendu medikuei aplikagarri zaien arauketa komunitarioa eta barne arauketa ez dira nanomaterialen berezitasunetara normatiboki egokitu. Kontsekuenteki, baldintza normatibo “arrunt” edo “konbentzional” horiek ez dira gai erabat berriak diren nanomedikuntza tratamendu horiek pazienteen osasunarentzako seguruak direnik bermatzeko¹⁵⁷⁸. Testuinguru horretan, agintari eskudunek medikuntzan erabiltzeko baimendu dituzten nanomedikuntza tratamenduen kopurua haziz doa gutxinaka¹⁵⁷⁹. Ziurgabetasun zientifikodun testuinguru horretan, adituen esanetan pazienteen segurtasunari buruzko informaziorik baliagarriena *ex post* lortuko da, pazienteari nanomedikuntza tratamendua aplikatu ostean bere osasunean egiten den jarraikako behaketari esker¹⁵⁸⁰.

Pazienteei kalitatezko informaziora sarbidea bermatzeko helburuz EBko Komisioari gomendioak ematen dizkion *Working Party on Patient Needs* erakundeak, 2009an egin zuen inkesta batean, pazienteek nanomedikuntzari buruz zuten ezagutza eta kontzientzia maila oso baxua zela agerian geratu zen¹⁵⁸¹. Nanomedikuntzan jarduten duten EBko lantalde desberdinek nanomedikuntzari buruzko aspektu anitz jorratu zituzten 2010. urtean ospatu zen *Nanomed* izeneko eztabaida bilkuran¹⁵⁸². Industria, ikertzaile, botere publiko eskudun eta alor sanitarioko profesionalen artean, orokorrean, nanomedikuntzaren informazioaren komunikazio eta elkartrukea bermatzen duten erakunde eta formatu egokiak existitzen zirela aintzatetsi bazuten ere, pazienteen elkarteei eta pazienteei alor horretan nahikoa informazio transmititzen ez zitzaizela ondorioztatu zen bilkura horretan¹⁵⁸³. Gabezia informatibo horren identifikatu ostean, nanomedikuntzari buruzko komunikazio publikoa sustatzeko estrategiak adostu zituzten; besteak beste, erakunde komunitario eta nazional eskudunek herritarrei nanomedikuntzari buruzko informazioa

¹⁵⁷⁷ D’SILVA eta BOWMAN, 2011: 21; POIROT-MAZÈRES, 2011: 105.

¹⁵⁷⁸ Ondorio horretara iritsi diren autoreak, besteak beste: ALSTENSTETTER, 2011; D’SILVA eta BOWMAN, op. cit; JULIANO, 2012; POIROT-MAZÈRES, 2011; SPYRIDOULA, 2013; TOMA-BIANOV, 2012; TRISOLINO, 2010.

¹⁵⁷⁹ 2013. urte-arte, esparru komunitarioan medikamenduak baimendu edo ez erabakitze gaitasuna duen EMA agenzia 11 nanomedikuntza tratamenduren baimen prozedura tramitatu zituen. Horietatik zortzi baimendu eta beste hirurei baimena ukatu egin zien (EMA-ren web orrialdea aztertu: <http://www.ema.europa.eu/ema/>). Ofizialki 8 besterik baimendu ez badira ere, errealitatean nanomedikuntza tratamendu are gehiago erabiltzen direnaren susmoa dago (FAUNCE, 2007, 635). Beste produktu kategoriatan batzuekin gertatzen den antzera, nanomedikamendu batzuk alde aurretik baimendutako beste medikamendu “konbentzionalen” baimenaz baliatu daitezke baimen prozedura gehigarririk gairitu behar izan gabe merkaturatu ahal izateko. Horretarako, industria farmazeutikoak kasuan kasuko nanomedikamenduan erabilitako nano-osagaiak berez jada baimendua dagoen medikamenduaren osagai berbera dela arrazoitu dezakete. Sustantzia hori nahiz eta nano-eskalan egon (eta beraz propietate fisiko-kimiko eta efektu desberdinak izan ditzakeen), eskala konbentzionaleko sustantzia berbera bailitzan tratatu eta nano-osagai horri sustantzia berriaren izaera ukatzen diote, esan bezala, nanomedikamendua baimen gehigarririk gabe merkaturatu ahal izateko.

¹⁵⁸⁰ ALSTENSTETTER, 2011: 231; TOMA-BIANOV, 2012: 104.

¹⁵⁸¹ Working Party on Patient Needs, 2009. Inkestatutakoen bi herenek ez zuten inoiz nanomedikuntzaz entzun. Beste herenak, nahiz eta kontzeptu hori noizbait entzunda zuen, ez zuen egokitasunez ulertzen nanomedikuntzaren ezaugarri nagusiak zeintzuk ziren.

¹⁵⁸² Nanomed, 2010.

¹⁵⁸³ Ibid, 8. orr.

eskuragarri jartzea eta pazienteen elkarteak eztabaida foro desberdinetan parte hartzera bultzatzea¹⁵⁸⁴. Estrategia hori 2010. urtean adostu bazen ere, nanomedikuntzaren inguruan eskumena duten erakunde komunitario eta nazionalak beren web orrialdeetan urte hauetan zehar eskegi duten informazioaren analisia egin ostean, herritarrak nanomedikuntzari buruz informatzen dituzten ekimen zehatzen falta nabarmendu daiteke¹⁵⁸⁵.

VI.2.B. Nanomedikuntza tratamenduetan pazientearen baimen informatua bermatzeko neurrien proposamena

Nanomedikuntza tratamenduek osasunean izan ditzaketen epe luzerako efektuen ziurgabetasun zientifikoak esanguratsuak diren eta pazienteek diziplina honekiko duten ezagutza eta kontzientzia falta absolutua den testuinguru horretan, pazientearen autonomian funtsa duen baimen informaturako oinarritzko eskubidearen egikaritzea eraginkorra kinka larrian geratu daiteke, zientzia eta teknologia berrien aspektu etikoei buruzko talde europarrak (EGE) azpimarratu duen bezala¹⁵⁸⁶. Izatez, pazienteak kasuan kasuko nanomedikuntza tratamenduari baimena ematea erraza izan daiteke. Baimen informaturako eskubideak ordea, baimen hori modu informatuan, tratamenduaren inguruabar desberdinak ulertu ostean eta modu kontziente eta librean ematea eskatzen du. Herritarrek nanomedikuntzarekiko duten jakintza faltak eta tratamenduok osasunean eragin ditzaketen efektuen ziurgabetasun zientifikoaren faktoreek, pazienteak ematen duen baimenaren izaera, eta funtsean, pazientearen autonomia bera kolokan jarri dezakete¹⁵⁸⁷. Nanomedikuntza tratamenduetan pazienteek baimen informatua emateko gaur egun ospitaleetan segitzen diren ohiko jarraibideak segituz gero, pazienteen baimen informatua konplitu ezinezko eskubidea izan daiteke¹⁵⁸⁸. Beraz, nanomedikuntza tratamenduen kasuan, pazientearen baimen informaturako eskubidea egikaritzeko baldintza normatibo indartuak onartzea ezinbestekoa da.

Nanomedikuntza tratamenduen arrisku potentzialen inguruan dagoen ziurgabetasun maila kontuan izanik, pazientearen baimen informaturako eskubidea nola errespetatu hausnartzearekin batera, beren osasuna babestua izateko duten eskubidea ere bermatu behar zaie. Nanomedikuntza tratamendu batek osasunarentzat onurak baino kalte gehiago eragin ditzakeenaren zantzuak daudenean, arreta printzipioaren zentzuaren arabera tratamendu mediko horren ordez beste tratamendu bat aplikatzea izan daiteke pazientearen osasuna babesteko aukerarik egokiena. Zentzu horretan Dominique Thouvenin egileak

¹⁵⁸⁴ Estrategia horrekin adostasunean, José Manuel de Cozar Escalantek pazienten elkarteek nanomedikuntzari buruzko informazioaren transmisioan bitartekari bezala jarduteko betebeharra dutela defendatzen du (DE CÓZAR ESCALANTE, 2010: 85).

¹⁵⁸⁵ *European Technology Platform on Nanomedicine* taldearen web orrialdean eskegitako dokumentuetan eta urtero argitaratzen dituen informetan ez da pazienteei zuzendutako informaziorik aurkitu. Espainian erakunde horren parekidea den *Nanomed Spain* izenekoaren web orrialdearen eta informeen analisitik ere egitate bera ondorioztatu daiteke.

¹⁵⁸⁶ EGE, 2007: 40.

¹⁵⁸⁷ PONCE DEL CASTILLO, 2009: 37-38.

¹⁵⁸⁸ DE CÓZAR ESCALANTE, op. cit, 79-80. orr.

honakoa proposatzen du: profesional sanitario eskudunek pazienteari nanomedikuntza tratamendu bat aurrera eramatea proposatzen diotenean, pazienteak baimena eman aurretik, ospitale horretako osasun agintari eskudunak tratamendu hori aurrera eramateko baimena *ex ante* ematea¹⁵⁸⁹. Baimen informaturako eskubidearekin batera, pazienteak bere osasuna babesteko duen eskubidearen bermeak ere indartzen dira modu horretan.

Bestalde, nanomedikuntzaz hitz egitean tratamendu berritzaileez eta kasu askotasun ezezagunez mintzo gara, bai pazienteentzat, baina baita pertsonal sanitarioarentzat ere. Testuinguru horretan, pertsonal sanitarioek nanomedikuntzaren ezaugarri nagusien inguruko lanbide-heziketa jaso behar dute: nanomaterialek osasun edo ingurumenarekin esposizioan sartzean eragin ditzaketen arriskuez gain¹⁵⁹⁰, pazienteari tratamenduaren informazioa nola transmititu behar dioten erakutsi eta irakatsi behar zaie¹⁵⁹¹. Alde horretatik, EPEk profesional sanitarioek pazienteei informazioa transmititzeko programak onartzea proposatu du¹⁵⁹².

Pazienteen kasuan, tratamendu berritzaileen aurrean transmititzen zaien informazioak are garrantzi gehiago eskuratzen du, pazientearen ezjakintasuna edo lego izaera¹⁵⁹³ normalean baino handiagoa baita. Alde horretatik, nanomedikuntza tratamenduen informazio transmisioan parte hartzen duten aktore desberdinen arteko koordinazioa eta informazio elkartrukea funtsezkoa da informazio kate horren amaieran kokatzen den pazientearen autonomia errespetatu ahal izateko. Lehenik eta behin, tratamendua baimendu duen EMA erakundeak zuzenean, edo AEMPSren bitartez, kasuan kasuko nanomedikuntza tratamendua aplikatzea erabaki duten zentro sanitarioei tratamendu horri buruz eskuragarri dagoen informazio guztia transmititu behar diete, arrisku potentzialak eta ziurgabetasun elementuak barne. Izan ere, pertsonal sanitarioek aplikatu behar duten tratamendu berritzaile horien onura, arrisku potentzial eta ziurgabetasun elementuak osotasunean ezagutu eta ulertu behar dituzte, informazio guzti hori gero pazienteari modu egokian transmititu ahal izateko.

Pazienteak kasuan kasuko nanomedikuntza tratamendua baimendu edo ez modu kontziente eta librean erabaki ahal izateko, profesional sanitario eskudunek nanomedikuntza tratamenduari buruzko informaziorik osoena ahalik eta modu ulergarrian transmititu behar diote. Alde batetik, tratamenduan erabilitako nanomaterialek pazientearen gorputz edo osasunean epe motz, ertain edo luzera begira efektu kaltegarriak eragin ditzakeenaren arrazoizko kezka edo zantzu zientifikoak daudenean, informazio hori ere pazienteari transmititu beharko diote, momentuko ezagutza zientifikoen arabera existitzen diren ziurgabetasun zientifikoko elementuei buruzko informazioa barne.

¹⁵⁸⁹ Dominique Thouvenin autorearen proposamena, honako dokumentuan: POIROT-MAZÈRES, 2011: 107.

¹⁵⁹⁰ Nanomedikuntza tratamenduak erabiltzen hasi diren ospitale gehienak ez dira jakitun nanomaterialek ingurumenean eragin ditzaketen kalteez (Nanomed, 2010: 29). Beraz, nanomaterialekin modu seguruan lan egiten erakustez batera, nanomedikamenduak eta nanomaterialdun medikuntza gailuen hondakinak nola kudeatu irakatsi behar zaie.

¹⁵⁹¹ PONCE DEL CASTILLO, 2009: 40.

¹⁵⁹² EGE, 2007: 59.

¹⁵⁹³ VICANDI MARTÍNEZ, 2012: 66.

Bestetik, zentro sanitarioek eta mediku arduradunek tratamenduaren informazioa pazienteari modu ulergarrian nola transmititu hausnartu behar dute. Pazienteak tratamendua onartu edo ez modu kontzientean erabaki aurretik, tratamenduaren onura, arrisku potentzial eta ziurgabetasun elementuak egokitasunez ulertu eta konprenitu behar ditu, ematen duen baimen aske eta kontziente hori epe luzera begira¹⁵⁹⁴ (ez soilik momentuko arrazoietan oinarrituz) ematen duela ziurtatu behar baita. Doktrinaren baitan pazienteak tratamenduaren nondik norakoak ulertzen lagundu dezaketen zenbait neurri proposatu dira:

- a) Nanomedikuntza tratamenduen berezko ezaugarriak aintzat harturik, pazienteari informazioa ahoz eta idatziz transmititzea, PALek ahozko forma lehenesten duen kasuetan ere¹⁵⁹⁵.
- b) Pazienteaz gain, tratamenduari buruzko informazioa bere konfiantzazko 3. pertsona bati transmititzea¹⁵⁹⁶.
- c) Pazienteari tratamendua baimendu edo ez hausnartzeko ohikoa baino denbora gehiago ematea¹⁵⁹⁷.

Pazienteak nanomedikuntza tratamenduaren informazio inguruabarrak benetan ulertzea funtsezkoa da, hori egin ezean bere baimen erabakia ez baita erabat kontzientea izango eta pazienteak baimen informaturako duen eskubidearen egikaritza kolokan geratuko baita, baimen-ematearen bizio horiek direla medio, pazientearen baimena deuseza izan baitaiteke. Azken finean, pazientearen erabaki autonomia horretan oinarrituz, paziente bera izan behar da azken instantzian (medikuak proposatzen dion nanomedikuntza tratamenduaren onura, arrisku potentzial eta ziurgabetasunak kontzienteki ulertu ostean) tratamendu horrek planteatzen dituen arriskuen (eta ziurgabetasunen) onargarritasunari buruzko erabakia hartu behar duena.

VI.2.C. Pazientearen baimen informaturako eskubidea eta nanoteknologiak: ondorio moduan

Pazientearen erabakitze autonomiaren ikuspegitik nanomedikuntzan oinarritutako tratamendu berritzaileek erronka garrantzitsuak planteatzen dituzte. Pazienteak tratamendu medikoei baimena libreki eta kontzienteki eman edo ez erabaki aurretik, profesional sanitarioek tratamenduari buruz informazio osoena modu ulergarrian transmititu behar diote. Hori da hain zuzen ere pazientearen baimen informaturako oinarritzko eskubideak

¹⁵⁹⁴ EGE, op. cit.

¹⁵⁹⁵ Nahiz eta legeak medikuntza tratamendu inbasoreak ez diren kasuetan informazioa ahozko forman transmititzea lehenesten duen (PAL 8.2 art.), teknika inbasoreak erabili gabe ere nanomaterialen manufakturatutako batzuek gorputzean barneratu eta eragiteko duten gaitasuna kontuan izanik, neurririk egokiena nanomedikuntza tratamendu ez inbasoreen informazioa pazienteari idatziz transmititzea izan daiteke.

¹⁵⁹⁶ POIROT-MAZÈRES, 2011: 106-107.

¹⁵⁹⁷ Ibid.

bermatu behar duena. Nanomedikuntza tratamenduen kasuan, eskubide horren inguruan bi dira kontuan hartu beharreko faktoreak. Alde batetik, medikuntzan orain arte erabili ez diren teknika berritzaileak izanik, pazienteek nanomedikuntzari buruzko jakintza maila oso baxua dute, inolako ezagutzarik ez dutela ez esatearren. Bestetik, nanomedikuntza tratamenduek pazientearen osasunean eragin ditzaketen alboko efektuen eta epe luzerako arrisku posibleen inguruan ziurgabetasun elementu garrantzitsuak existitzen dira.

Bi faktore horien ondorioz, pazienteek medikuntza tratamenduei baimena emateko legediak aurreikusten dituen ohiko bermeak ez dira nahikoak nanomaterialdun tratamenduen kasu zehatzean pazientearen baimen informaturako eskubidea bermatzeko. Pazienteek nanomedikuntzarekiko duten ezagutza faltak eta tratamenduok osasunean eragin ditzaketen efektuen inguruko ziurgabetasunek pazientearen erabakitze autonomiaren galera ekarri dezake, baimena modu kontzientean eta askean emateko izan ditzakeen zailtasunak kontuan hartuta. Testuinguru horretan, nanomedikuntzan jarduten duten EBko lan-talde desberdinak eta zientzia eta teknologia berrien alor etikoei buruzko talde europarra (EGE) ondorio berdinerira iritsi dira: pazientearen baimen informaturako eskubidea bermatzeko, nanomedikuntzari buruzko informazioaren komunikazioan eta profesional sanitarioen heziketan sakontzea ezinbestekoa da. Hala eta guztiz ere, hitzetatik egintzetara pasatzea falta da. Nanomedikuntzaren erakunde komunitario eta nazionalen web orrialde eta argitaratzen dituzten informe desberdinen analisia egin ostean, ez da inolako aipamenik aurkitu herritar xumeei nanomedikuntzak zertan datzan azaltzen dienik. Bestalde, profesional sanitarioek pazienteei nanomedikuntza tratamenduei buruzko informazioa nola transmititu erakusten dien heziketa programa edo jarduera-protokolo espezifikorik ez da dokumentatu.

Funtsean, profesional sanitarioei ez zaie inolako argibiderik eskaintzen nanomedikuntza tratamenduen ezaugarri berezien aurrean pazienteen baimen informaturako eskubidea nola bermatu laguntzen dienik. Ikuspegi juridiko batetik aztertuta, ez da inolako neurri espezifikorik onartu pazientearen baimen informaturako eskubidearen egikaritzea-bermeak indartzen dituenik: tratamendu mediko “konbentzionalen” berme eta irizpide normatibo berberak dira aplikagarri, nahiz eta nanomedikuntza tratamenduen kasuan berme horiek indartzea ezinbesteko baldintza izan. Paziente gisa bere gorputzaren bortxa-ezintasunarekiko konstituzioak bermatzen dion erabaki autonomia, beraz, ez da normatiboki babesten. Pazienteak nanomedikuntza tratamenduaren informazio inguruabar guztiak (arrisku posibleen elementu guztiak, ziurgabetasun maila barne) ulertzeko neurri normatibo espezifikorik ez da existitzen, eta beraz, pazientearen erabakia ez da erabat informatua, kontzientea eta librea. Ondorioz, pazientearen baimena biziak eta deuseza kontsidera daitekeen neurrian, pazientearen baimen informaturako eskubidea errespetatzen ez den testuinguru normatibo baten aurrean gaude.

VII. INTIMITATERAKO ESKUBIDEA, AUTODETERMINAZIO INFORMATIBORAKO ESKUBIDEA ETA MUGIMENDU ASKATASUNA

Informazioaren gizartean murgilduta bizi garen garai honetan, bizitza pribatuaren esfera dimentsio desberdinetatik babesten duten eskubideek erronka nekeza dute: informazio eta komunikazioaren teknologien (aurrerantzean, IKT) erabilera masibo eta arduragabearen aurrean, norbanakoen pribatutasun esfera hori eraginkortasunez babesteko mekanismo egokiak eskaintzea. IKTen bilakaera azkar horretan nanoteknologiak ere zeresana dute, dispositibo elektronikoen ezaugarri eta gaitasunen hobekuntza eta sofistikazioa ahalbidetzen baitute. Beste erabilera askoren artean, nanomaterialek RFID etiketen prestazioak potentzializatzeko ahalmena daukate, objektuen eta pertsonen arrastoari uneoro segitzea posible egiten dutenak. RFID etiketadun dispositiboek askotariko erabilerak izan ditzakete: kontsumo produktuen mugimenduak monitorizatzeko, langileen eta askatasun-gabetze egoeran dauden pertsonen kontrolerako edota pazienteen datu pertsonalak eskuratzeko gaitasuna teknikoa daukate. Aitzitik, RFID dispositiboen mota horretako erabilerak norbanakoaren pribatutasun esferari zuzenean eragiten diote, bai intimitaterako eskubideari (EK 18.1 art.), baita autodeterminazio informatiborako eskubideari ere (EK 18.4 art.). Bestalde, dispositibo horiek pertsonen mugimenduak uneoro segitzeko gaitasun teknikoa izan dezaketela kontuan izanik, norbere mugimendu askatasuna (EK 19. art.) ere eraginda geratzen da. Izan ere, lan arloan berriki eman diren ebazpen judizial batzuek¹⁵⁹⁸ norbere mugimenduak etengabe kontrolatu eta monitorizatzea intimitaterako eskubideari eragiten dion jarduera ere badela arrazoitu dute.

Datozen azpi-ataletan, beraz, hurrengo aspektuak lantzen dira. Lehenik eta behin, pribatutasun eskubideen hastapenak eta egungo gizartean IKTek planteatzen dizkieten mehatxuak. Jarraian, intimitaterako eskubidearen, autodeterminazio eskubidearen eta mugimendu askatasunaren aspektu normatibo nagusiak. Azkenik, nanoteknologiaren eta IKTen konbergentziaren kasu konkretu bat: RFID etiketak merkataritzan, lan eremuan, osasun arloan edo presondegietan datu pertsonalak tratatzeko helburuz erabiltzen direnean, aipatu berri diren oinarrizko eskubide horien ikuspegitik planteatzen dituzten erronkak zeintzuk diren, eta horien arabera beren erabilera zilegia den edo ez.

VII.1. Aspektu normatibo nagusiak

VII.1.A. Bizitza pribatuaren babesa, bere jatorrian eta egungo informazio gizartean

Bizitza pribatua babesten duten eskubideek partekatzen duten helburu komuna hurrengo da: eskubide horien titularraren baimenik gabe botere publikoak edo partikularrak sartu ezin daitezkeen esfera pribatu bat erreserbatzean datza, alegia, pertsona

¹⁵⁹⁸ Zehazki, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegiaren Lan arloko 1. Sailak 2011ko maiatzaren 10ean emandako ebazpenean, eta horren helegitea aztertu zuen Auzitegi Goreneko Lan Arloko 1. Sailak 2012ko ekainaren 21ean emandako ebazpenean.

orok norbere bizitzaren eta bere familiaren zenbait esparru ezezaguntasunean mantentzeko eta 3. pertsonen horren inguruan duten ezagutza kontrolatzeko ahalmena¹⁵⁹⁹. Esfera publikoaren aurrean norbanakoari bere bizitza pribatuaren gaineko babes-eremu bat erreserbatzea askatasun baliotik eratortzen den oinarritzko bermea da, duintasunez bizitzeko eta norbere pertsonalitatea libreki garatu ahal izateko ezinbesteko baldintza.

Bizitza pribatuaren tratamendu juridikoak historian zehar garapen garrantzitsua esperimentatu izan du. XX. mendea baino lehen ez zen eskubide autonomo gisa ulertzen, jabetza pribaturako eta ohorerako eskubideen adierazpen konkretu bezala baizik¹⁶⁰⁰. Warren eta Brandeis jurista estatubatuarrek 1890. urtean publikatutako *The Right to Privacy* artikuluak¹⁶⁰¹ ordea logika horrekin apurtu egin zuen: ospe handiko pertsonen intimitatean kazetariak egiten zituzten esku-sartzeen aurrean bizitza pribatua babesteko premia zela eta, eskubide autonomo bezala aintzatestea iradoki zuten. Artikulua argitaratu eta hiru urtetara ekarpen doktrinal horrek lehenengo islapen jurisprudenziala izan zuen, New Yorkeko epaitegi batek bizitza pribaturako eskubidea esplizituki aintzatesi baitzuen¹⁶⁰². Eskubide bezala lehenbiziz onartu zenetik gaur egun arte, bizitza pribatua babestea xede duten eskubideen etengabeko garapena eman da, esfera pribatu horren edukia garaian garaiko testuinguru sozio-historikoaren arabera aldatuz baitoa. Pribatutasun eskubideak NBE¹⁶⁰³, Europar Kontseilu¹⁶⁰⁴, Europar Batasun¹⁶⁰⁵ eta Espainiaren¹⁶⁰⁶ giza eskubideen azpi-sistema juridiko desberdinetan aintzatesten dira. Eskubide horiek, funtsean, norbanakoaren pertsonalitatean oinarri duten bizitza pribatuaren adierazpen desberdinak¹⁶⁰⁷ dira:

- a) Ohore eskubidea, intimitate pertsonalerako zein familiarerako eskubidea eta norberaren irudi-eskubidea.
- b) Etxebizitzaren bortxa-ezintasun eta komunikazioen sekretutasun eskubideak.
- c) Autodeterminazio informatiborako eskubidea, norbere datu pertsonalen erabilera eta tratamenduaren inguruko babes eta kontrolerako ahalmen multzoan datzana.

Azken hamarkadetan IKTek pribatutasun esferan izaten ari diren eragina gero eta esanguratsuagoa da eta kontsekuenteki, aipatutako eskubideen berregiturapen eta hedapena¹⁶⁰⁸ etengabekoa da. IKTen zabalkuntza eta sofistikazioaren ondorioetako bat

¹⁵⁹⁹ Ikus DÍEZ PICAZO, 2008: 297; REBOLLO DELGADO, 2010: 291; RIVERO, 1996:76-77.

¹⁶⁰⁰ FERNÁNDEZ ACEBO, 2013:55.

¹⁶⁰¹ Zehazki, *Harvard Law Review* aldizkari juridikoan, vol. IV, no. 5, 1890-12-15.

¹⁶⁰² *Marks & Joffra* kasuan, 1893. urtean.

¹⁶⁰³ GEAU, 12. art; EZPNI, 17. art.

¹⁶⁰⁴ EGEH, 8. art.

¹⁶⁰⁵ Giza eskubideen bestelako berme-sistemek ez bezala, maila komunitarioan berriki onartutako EBOEGek bizitza pribaturako eskubide tradizionalak (7. art.) eta autodeterminazio informatiborako eskubidea (8. art.) xedapen desberdinetan jaso ditu.

¹⁶⁰⁶ Norbanakoaren esfera pribatua babestea helburu komuna duten eskubide konstituzionalak EK-ko 18. artikuluan zehar aurreikusten dira.

¹⁶⁰⁷ ARZOZ SANTISTEBAN, 2004: 263.

¹⁶⁰⁸ Bizitza pribatua babesten duten sistema normatibo desberdinen artean, EGEA-k egindako interpretazioaren harira GEEH-ko 8. artikuluaen izaera espantsionista nabarmendu daiteke, bizitza

privatutasun eskubide horien gaineko mehatxu berrien sorrera da. Gaur egun, norbanakoen mugimenduak momenturo eta zehaztasun handiz kontrolatzeko gai diren dispositibo geolokalizatzaileak ugariak dira, GPS, RFID edota telefono mugikorrek kasu. Bestalde, datu pertsonalen interes komertziala gero eta esanguratsuagoa da, eta IKTek eskaintzen dituzten erraztasunei esker, datu pertsonalak ondasun ekonomikoak bailiran masiboki tratatu eta besterentzen dira. Funtsean, norbanakoen jarduera eta komunikazioen monitorizazio sistematikoa eta sofistikatua ahalbidetzen duten IKTak biderkatzen doazen gizarte batean bizi gara¹⁶⁰⁹. 70. hamarkadan bizitza pribatuaren amaiera aurreikusten zuen autorerik bazegoen jada¹⁶¹⁰, eta IKTen bilakaera ikusita, etorkizunera begira bizitza pribaturako eskubidea sare digitaletik “deskonektatzeko eskubidean¹⁶¹¹” transformatu dela arrazoitzen duen autorerik ere bada. Prisma juridikotik aztertuta garai historiko garrantzitsu baten aurrean gaudela esan daiteke, zaintza eta kontrolerako dispositibo eta teknika berri horiek privatutasun esferari intentsitate handian eragiten dieten aldetik, esfera hori eraginkortasunez babesteko IKTei ezarri beharreko mugen inguruan hausnartu eta arauketak egituratzea funtsezkotzat jotzen baita¹⁶¹².

VII.1.B. Intimitaterako eskubidea

VII.1.B.a. Intimitatearen babes konstituzionala

Intimitaterako eskubidea (EK 18.1 art.) bizitza pribatuaren esferaren babes konstituzionalaren nukleo zentrala¹⁶¹³ da, 3. pertsonen (publiko eta pribatu) ezagutzatik erreserbatzen den esferaren eskubide generikoa. Jurisprudentzia konstituzionalak pertsonalitatearen garapen liberako, norbanakoen existentzia duinerako¹⁶¹⁴ eta hartatik gutxieneko bizitza kalitate bat bermatzeko¹⁶¹⁵ ezinbesteko eskubidea kontsideratzen du,

privatuaren babes hertsira mugatu beharrean, norbanakoa modu erreal eta eraginkorrean babesteko beste kasu batzuetara zabaldu da. Zentzu horretan, GEH-ko 8. artikulua “bizirik dagoen instrumentua” da, inguruabar berrietara egokitzeko gaitasuna duena (EGEA-ren ebazpenak: *Airey c. Irlanda*, C-6289/73, 26. atala (1979-10-09); *Burghartz c. Suiza*, C-16213/90, 28. atala (1994-02-22)).

¹⁶⁰⁹ George Orwellek 1949an *Nineteen Eighty-four* nobela ezagunen *Big Brother* kontzeptua erabili zuen beren hiritarrak neurritz gain kontrolatzen dituen botere publikoa definitzeko. Daniel Salove egileak (*The Digital Person* izeneko liburua, 2004) *Little Brothers* terminologia erabiltzen du datu pertsonalak mehatxatzen dituzten sektore pribatuaren datu base erraldoiei eta horien erabilera komertzialari erreferentzia egiteko. Duela ia bi hamarka jada Robert Clark autoreak *Dataveillance* kontzeptua erabili zuen (*Information Technology and Dataveillance* liburuan, 1988), IKTen garapenak norbere datuen gainean posible egiten zuen kontrol gero eta handiagoa definitzeko.

¹⁶¹⁰ Ikusi URABAYEN, 1976: 27-28.

¹⁶¹¹ SADIN, 2009: 192.

¹⁶¹² SADIN, 2010: 64.

¹⁶¹³ DÍEZ-PICACO, 2008: 298; SERRANO MAÍLLO, 2006:215. Intimitaterako eskubideak ez bezala, EK-ko 18. artikuluan zerrendatzen diren beste oinarritzko eskubideek privatutasun esfera horren aspektu zehatzei egiten diete erreferentzia. Serrano Maíllo autoreak, Alemanian jatorria duen doktrina bere egin (besteak beste, HEINRICH HUBMANN autoreak) eta bizitza pribatua eta intimitatea bi zirkulu kontzentriko direla arrazoitzen du. Intimitatearen zirkulua bizitza pribatuaren zirkuluaren barnean kokatzen den esfera murriztagoa da, norbere bizitza pribatuaren aspektu pertsonalenak biltzen dituena.

¹⁶¹⁴ AKE 20/1992.

¹⁶¹⁵ AKEE 73/1982; 110/1984; 231/1988.

pribatutasun esfera hori sekretupean mantentzeko ahalmenean¹⁶¹⁶ isla duena. Izan ere, informazioaren gizartean bizi garen honetan, norbere bizitzaren zenbait eremu 3. pertsonen ezagutzatik erreserbatu ahal izatea askatasun jarduera bezala¹⁶¹⁷ ulertu behar da.

Duintasun balioarekin eta beste hainbat kontzeptuarekin gertatzen den antzera, intimitatearen kontzeptuaren hastapenak ez ziren zuzenbidearen jarduera-eremupean gertatu. Alegia, bere sustraiak zuzenbidetik at dituen kontzeptu metajuridiko batez mintzo gara. Intimitatea kontzeptu juridiko zabala, irekia eta dinamikoa da beraz, garaian garaiko inguruabar sozialen arabera garatuz eta aldatuz doana¹⁶¹⁸ eta prisma juridiko batetik urratua izan den edo ez erabakitzeko, kasu konkretu bakoitza inguratzen dituen irizpide objektibo eta subjektiboen analisisa egitea eskatzen duena. Berezkoa duen zehaztugabetasun horrekin lotuta, eskubide horrek ez du intimitate zehatz bat babesten, intimitatea izateko eskubidea baizik¹⁶¹⁹. Izan ere, pribatutasun esfera horretan zein eduki sartu edo kanpoan geratzen den erabakitzeko, jurisprudentzia konstituzionalak elkarren artean desberdinak diren bi irizpide aplikatu izan ditu: formala eta materiala.

Irizpide formalaren arabera, esfera pribatuaren subjektu titularra da 3. pertsonen ezagutzatik zein informazio erreserbatzen duen erabakitzeko gaitasuna duena. Irizpide materialaren arabera, aitzitik, 3. pertsonen ezagutzatik zein informazio erreserbatzen den zehazteko momentu historiko bakoitzean nagusi diren jarraibide sozialak (gaztelaniaz, *pauta social imperante*) hartu behar dira kontuan. Irizpide formalaren arabera pertsona bakoitzak zein eduki erreserbatu edo ez erabakitzeko gaitasuna duenez, esfera pribatuaren hedadura kasuan-kasu desberdina izan daiteke. Irizpide materialaren kasuan ostera, nagusi diren jarraibide sozialek norbanako guztiei eragiten dietenez, esfera pribatu horren hedadura antzekoa izango da pertsona guztientzat¹⁶²⁰. Jurisprudentzia konstituzionalean tradizionalki irizpide materialaren aldeko hautua¹⁶²¹ nagusitu izan bada ere, azken hamarkadan irizpide formalaren aldeko norabide aldaketa¹⁶²² hauteman daiteke.

VII.1.B.b. Intimitaterako eskubidearen eduki-aniztasuna

Intimitaterako eskubideak babesten duen pribatutasun esfera horren objektuari dagokionez, jurisprudentziak tipologia anitzeko edukiak barneratu ditu. Intimitaterako

¹⁶¹⁶ AKEE 115/2004, 4. o.j; 196/2004, 2.o.j.

¹⁶¹⁷ MURILLO DE LA CUEVA, 2008:45.

¹⁶¹⁸ Ikus AKE 110/1984, 3. o.j; GUDE FERNÁNDEZ, 2014:113-114; REVIRIEGO PICÓN, 2004:92.

¹⁶¹⁹ AKEE 134/1999, 5.o.j; 115/2004, 4.o.j.

¹⁶²⁰ DÍEZ PICAZO, op. cit, 299.

¹⁶²¹ Besteak beste, ikusi AKEE 231/1988; 197/1991; 99/1994; 143/1994.

¹⁶²² Besteak beste, ikusi AKEE 115/2000; 89/2006; 159/2009; 173/2011. Ikuspegi doktrinaletik irizpide formalaren aldeko norabide aldaketa horren alde azaldu dira, besteak beste, GUDE FERNÁNDEZ, op. cit, 113. orr. eta ABERASTURI GORRIÑO, 2011: 147. Auzitegi Konstituzionalak azken urteotan irizpide formalaren alde egin duen hautu jurisprudentzial horrek ez du ordea DÍEZ PICAZO konbentzitzen. Bere iritziz, norbanakoari bere esfera pribatua erabakitzeko emandako autonomia absolutua intimitaterako eskubidea bera kaltetzeko erabili daiteke, esate baterako esfera pribatu horri uko egiteko (DÍEZ PICAZO, op. cit, 299-300. orr.)

eskubidearen egikaritza, ordea, ezin da termino absolutuetan ulertu. Zuzenbideak babesten dituen bestelako balio edo eskubideekin talkan sartzan den kasuetan, ordena publikoaren babesarekin edota informaziorako eskubidearen jarduerarekin besteak beste, intimitaterako eskubidearen egikaritzak beste balio edo eskubide horien arteko balantzan aurkitzen du muga. Funtsean, intimitaterako eskubidearen edukiak honakoak dira:

- a) Intimitate pertsonalarekin batera EK-k intimitate familiarerako eskubidea aintzatesten du.
- b) Intimitate korporala ez da osotasun fisikoaren eskubidearen objektua, intimitaterako eskubidearen adierazpen konkretu bat baizik¹⁶²³.
- c) Intimitaterako eskubideak norbanakoaren ondare pertsonalari buruzko informazioa babesten badu ere, erreserba hori mugatu egin daiteke. Zehazki, pertsona orok zergen sistemarekin elkarlanean jarduteko duen betebeharrak konstituzionala (EK 31.1) konplitu den edo ez ikertzen den kasuetan¹⁶²⁴.
- d) Aurrekari penalen informazioarekin inguruabar berbera errepikatzen da, legean aurreikusitako kasuetan informazio horretara sarbidea izatea posible baita¹⁶²⁵. Aurrekari penalak jasotzen dituzten artxiboen existentzia justifikatzen duten helburuak eta sarbide horretara legitimaturik dauden subjektuak lege bidez aurreikusi behar dira.
- e) Ikus-entzunezko tekniken bidezko zaintzak ere pribatutasun esferari eragiten dio. Zaintzaren objektu den norbanakoaren intimitaterako eskubidea urratua izan ez dadin, zaintzak helburu legitimo bat jarraitu behar du (ordena publikoa babestea adibidez), legaltasun printzipioarekin konplitu behar du (zaintza teknika eta bere erabilerarako baldintzak legean zehaztasunez aurreikusi behar dira) eta zaintza neurriak proportzionalak izan behar dira¹⁶²⁶.
- f) Ingurumeneari jatorria duten arrisku-faktore batzuen aurrean ere babesa eskaini dezakeen eskubidea da intimitatearena¹⁶²⁷.

¹⁶²³ Beste askoren artean, AKEE 37/1989; 57/1994; 218/2002; 196/2006; 206/2007.

¹⁶²⁴ AKA 642/1986, 3.o.j; AKE 76/1990, 10.o.j.

¹⁶²⁵ AKEE 144/1999, 8.o.j; 52/2002, 4.o.j.

¹⁶²⁶ EGEAren jurisprudentziari kasu eginez gero, zaintza teknikek norbanakoari buruzko informazio pertsonal edo familiarra modu sistematikoan eta etengabekoan jasotzen dutenean zaintza neurri horiek ezin daitezke proportzionalak kontsideratu. Besteak beste, EGEAren honako ebazpenak ikusi: *Murray c. Reino Unido*, C-14310/88, 86. atala (1994-09-21); *P.G y J.H c. Reino Unido*, C-44787/98, 59. atala (2001-09-25); *Peck c. Reino Unido*, C-44647/98, 59. atala (2003-01-28).

¹⁶²⁷ Ingurumenaren eta bizitza pribatuaren eskubideen arteko lotura harreman juridiko hori aintzatesten lehena EBJA izan zen. Gaur egun arte, instalazio industrialen usainek edota kutsadura akustikoak intimitaterako eskubidea eta (etxebizitzaren bortxa-ezintasunaren harremanean) urratzen dituzten kasu batzuk onartu ditu: *Lopez-Ostra c. España*, C-16798/90, 1994-12-09 (hondakinen tratamendurako instalazio batek eragindako usain, zarata eta keek Lopez-Ostraren bizitza pribatu eta familiarerako eskubidea urratu zuten), *Guerra y otros c. Italia*, C-14967/89, 1998-02-19 (instalazio kimiko baten ondoan bizitzeak osasunean izan ditzakeen eraginez informatu ez izana bizitza pribatu eta familiarerako eskubidearen aurka doa) eta *Moreno Gómez c. España*, C-4143/02, 2004-02-16 (zarataren ondorioz, bizitza pribatu eta familiarerako eskubidearen urrapena). Espainiar Estatuaren kasuan EGEA-ren jurisprudentzia ildo horrek ez du aparteko harrerarik izan. Izan ere, AK-k bi ebazpenetan (AKEE 119/2001 eta 150/2011) kutsadura akustikoak intimitaterako eskubidea, etxebizitzaren bortxa-ezintasuna eta osotasun pertsonalerako eskubidea urratu ditzaketan kasuan eman daitezkeela onartu badu ere, AK-k aipatu sententzietan babes

g) Lan arloan emandako jurisprudenzia ildo berriari jarraituz gero, pertsonak non dauden eta beren mugimenduak uneoro zeintzuk diren kontrolatzea ere (GPS bidezko etengabeko zaintza adibidez) intimitaterako eskubidea urratzen duen egintza izan daiteke.

Intimitaterako eskubidea urratzen den kasuetan bi motatako erantzukizuna eratorri daiteke. Alde batetik erantzukizun zibila, 1/1982 Lege Organikoan zehaztutakoaren arabera, eta bestetik erantzukizun penala, Kode Penaleko 197-201 artikuluko bitartean tipifikatutako sekretuen ezagutarazte eta agertarazte delituaren edo ikus-entzunezko tekniken bidezko zaintza ilegalaren delituaren baldintzak ematen diren kasuetan.

VII.1.C. Autodeterminazio informatiborako eskubidea

Datu pertsonalen tratamendua tradizionalki administrazio publikoaren zereginekin lotutako jarduera izan bada ere, gaur egun datu pertsonalek izan dezaketen balio komertziala dela eta, datu horien gaineko interes pribatuek nabarmen egin dute gora. IKTen sofistikazio progresiboaren ondorioz, norbanakoen profil digital gero eta osatu eta zehatzagoak lortzea teknikoki posiblea da. IKTek datu pertsonalen tratamendu automatizatu eta masiborako eskaintzen dituzten erraztasunek norbanakoen jarduera eta komunikazioen monitorizazio sistematikoa ahalbidetzen dute, bai botere publikoaren baita sektore pribatuaren partetik ere. Autodeterminazio informatiborako eskubidea, hain zuzen ere, norbanakoaren pribatutasun esferaren parte den eta pertsonalitatearekin zerikusia duen alderdi horri (datu pertsonalak) gero eta intentsitate handiagoarekin eragiten dieten praktika horiei erantzun bat emateko helburuz sortu zen. Datu pertsonalen tratamenduari buruzko corpus normatiboa, egungo gizartean informazio pertsonala tratatzeko dagoen premia gero eta handiagoaren eta autodeterminazio informatiborako eskubidearen artean ematen den talkaren aurrean zuzenbideak jarduteko duen eginkizunaren isla da¹⁶²⁸.

VII.1.C.a. Autodeterminazio informatiborako eskubidearen hastapenak eta babes konstituzionala

Dimentsio digitalean, norbere pertsonari buruzko informazioak norbanakoaren pertsonalitatearen “gorputz elektronikoa¹⁶²⁹” edo “kopia digital” modura funtzionatzen du, 3. pertsonen ezagutzara irekitzen den norbere pertsonalitatearen alderdi desberdinen adierazpen bezala¹⁶³⁰. Beraz, autodeterminazio informatiborako eskubidearen izate-arrazoia, norbere identitatearen aspektu desberdinak ezagutaraztera ematen dituzten datu

helegitea atzera bota zuen, errekurtsogileek eskubide horien lesio erreal eta eraginkorra behar adina frogatu ez zutelako arrazoituz.

¹⁶²⁸ ABERASTURI GORRIÑO, 2011: 86-88.

¹⁶²⁹ RODOTA, 2010: 62.

¹⁶³⁰ OLIVER eta OLIVER, 1994: 250

pertsonal horien gainean titularrak egikaritzen duen autonomia gaitasunean datza. Pertsona gisa norbanakoak bere datuen gaineko kontrol aktiboa egikaritu eta datuak xedatzeko gaitasuna¹⁶³¹ ematen dion eskubide baten aurrean gaude. Norbere identitatearekin zuzeneko zerikusia duen alderdi konkretu hori (datu pertsonalak) kontrolatu eta bere gainean autonomia izatean datza, norbere autonomia pertsonalaren eta azken instantzian giza duintasunaren adierazpena den eskubidea¹⁶³². Titularrak bere datu pertsonalen gainean duen jardute-gaitasun horren erabateko galerak norbere duintasunaren hutsaltzea dakar, norbanakoaren existentzia pertsonalaren eremua eraginda geratzen baita¹⁶³³.

Bere egiturapen juridikoari dagokionez, Alemaniako AK izan zen eskubide bezala lehen aldiz onartu zuena, Alemaniako Oinarrizko Legearen 2.1 artikuluan jasotako pertsonalitate eskubidearen zehaztapen juridiko bezala¹⁶³⁴. Gaur egun Europar Kontseilu¹⁶³⁵, Europar Batasun¹⁶³⁶ eta Espainiako ordenamendu juridikoek aintzatesten duten eskubidea da. Espainiar Estatuaren kasuan, eskubide hori Konstituzioaren 18.4 artikuluan¹⁶³⁷ interpretaziotik eratortzen da eta bere arauketa 15/1999 Lege Organikoan (aurrerantzean, DBLO) eta 1720/2007 Errege Dekretuan¹⁶³⁸ (DBE) garatzen da. Autodeterminazio informatiborako eskubidea intimitate eta ohore eskubideen egikaritzea eraginkorrerako ezinbesteko baldintza bezala ulertu behar bada ere (eskubide horien “berme institutua¹⁶³⁹” da), Espainiar ordenamendu juridikoan berezko izaera autonomoa

¹⁶³¹ AKEE 292/2000, 6. o.j.; 96/2012, 7.o.j.

¹⁶³² ABERASTURI GORRIÑO, op. cit, 265. orr.

¹⁶³³ BENDA, 1996: 131-132.

¹⁶³⁴ Errolda osatzeko erabilitako datu pertsonalen inguruan Alemaniako AK-k 1983ko abenduaren 15ean emandako ebazpenean zehazki (*BVerfGE65,1*). Datu pertsonalek norbere pertsonalitatearen garapenean duen zuzeneko eragina aintzat hartuta, Alemaniako AK-k autodeterminazio informatiborako eskubidea Oinarrizko Legearen 2.1 artikuluan aurreikusten den pertsonalitatearen eskubidearen zehaztapen juridiko bezala aintzatesi zuen.

¹⁶³⁵ Isilbidez bada ere, GEEHko 8. artikuluan barneratzen da. Besteak beste, ikusi EGEA-ren honako ebazpenak: *Amann c. Suiza*, C-27798/95 (2000-02-14); *Rotaru c. Rumanía*, C-28341/95 (2000-05-04). Europako Kontseilua bestalde, 1981. urtean datu pertsonalen tratamendua arautzen aitzindaria izan zen. *Ikus Convenio 108 del Consejo de Europa*.

¹⁶³⁶ EBOEGek 8. artikuluan jaso du, bizitza pribaturako beste eskubideekiko modu independentean (EBOEGen 7. artikuluan aurreikusiak). Bestalde, 95/46 Zuzentarauak datu pertsonalen tratamenduari buruzko arauketa egiten du, nahiz eta arauketa hori bi edo hiru urteren buruan beste erregelamendu eta zuzentarau batez ordezkaturia izango den. Alde batetik, EBn prozesatzen diren datu guztiak barne hartzen dituen erregelamendu orokor bat, besteak beste, sare sozialak, internet bidezko transakzio zein zerbitzuak edota erregistro publiko zein pribatu oro barne hartzen duena. Berritasunen artean, esaterako, ahazte-eskubidearen esanbidezko aintzatespena, datu pertsonalen tratamenduari buruzko gardentasun eta babes-kontrol neurri berriak, datu pertsonalen titularrari hizkera argia erabiltzeko esanbidezko betebeharra eta titularraren baimena lortzeko baldintzen zorroztea, EBkoak ez diren 3. Estatueta datu pertsonalak transmititzeko baldintzen areagotzea eta orotara, isunen zenbateko ekonomikoaren igoera. Bestetik, lankidetzat polizial eta judizialaren markoan EBko Estatu-kide desberdinen artean transmititzen diren datu pertsonalez gain, Estatu-kide bakoitzaren barnean prozesatzen diren datuak ere arautzen dituen zuzentarau berria.

¹⁶³⁷ EK 18.4 art: “*La ley limitará el uso de la informática para garantizar el honor y la intimidad personal y familiar de los ciudadanos y el pleno uso de sus derechos*”. Doktrinak artikulua horren erredakzioa desagokitzat jotzen du, gakoa ez baita informatika bera mugatzea, teknologia berrien erabileraren ondorioz eman daitezkeen gehiegikerien aurrean mugak jartzea baizik (ABERASTURI GORRIÑO, 2011: 90-91; ÁLVAREZ GONZÁLEZ, 2011: 81; DÍEZ PICAZO, op. cit, 325. Orr; SERRANO MAÍLLO, 2006:225).

¹⁶³⁸ AGren 2010eko uztailaren 15eko ebazpenak (*rec. 23/2008*) dekretu horren zenbait artikulua Konstituzioaren kontrakoak deklaratu zituen, lege erreserba zuten aspektuak arautzen zituztelako.

¹⁶³⁹ AKE 254/1993, 6. o.j.

eta oinarrizko izaera onartzen zaion eskubide baten aurrean gaude¹⁶⁴⁰. Doktrinaren zati batek intimitaterako eskubidearen dimentsioaren barnean¹⁶⁴¹ kokatu izan du. Hala ere, aztergai dugun eskubideak intimitaterako eskubidearen jardute-eremua gainditu egiten du¹⁶⁴², eskubide horrek ez bezala, autodeterminazio informatiborako eskubideak norbere datu pertsonalak xedatuzeko gaitasuna aintzatesten baitie beren titularrei. Eskubide horren objektua, pentsa daitekeen bezala, datu pertsonalak dira. DBLOk objektu horren interpretazio zabala egiten du¹⁶⁴³: pertsona fisiko identifikatu edo identifikagarri buruzko edozein informazio, datu pertsonala da. Hortaz, autodeterminazio informatiborako eskubidearen jarduera-eremua ez da pertsona fisikoen datu intimoetara mugatzen, eskubidearen objektuak pertsonarekin zerikusia duten datu guztiak barne hartzen baititu¹⁶⁴⁴.

VII.1.C.b. Eskubidearen bi dimentsioak: positiboa eta negatiboa

Autodeterminazio informatiborako eskubidearen edukiaz hitz egitean, bi dimentsio desberdin behar dira: positiboa eta negatiboa¹⁶⁴⁵. Dimentsio positiboaren arabera, titularrari tratamendupean dauden bere datu pertsonalen gainean ahalmen multzo bat erreserbatzen zaio, “*habeas data*”¹⁶⁴⁶ bezala ezagutzen dena. Titularrak, zehazki, tratamenduaren objektu izaten ari diren bere datu pertsonaletara sarbidea izateko eskubidea, datuak zuzendu edota ezabatuzeko eskubidea eta datuon tratamendua aurkatzeko eskubidea dauka¹⁶⁴⁷, kasuan kasuko baldintza legalen arabera betiere. Bestalde, datu pertsonalak tratatu ahal izateko, arau orokor bezala¹⁶⁴⁸, datuon titularrak tratamenduaren

¹⁶⁴⁰ AKEE 254/1993, 6. o.j; 96/2012, 6. o.j. Jurisprudenzia konstituzionalak eskubide hau “askatasun informatiko” gisa ere definitu izan du. Beste batzuen artean, AKE 254/1993; 94/1998 eta 202/1999.

¹⁶⁴¹ REBOLLO DELGADOK intimitaterako eskubidearen kanpoko dimentsioa bailitzan ulertu eta “intimitate informatikorako eskubide” bezala definitu du (REBOLLO DELGADO, 2000: 116-118). Intimitaterako eskubidearen dimentsio negatibo tradizionalarekin batera, autore batzuek norbere datuen kontrolerako ahalmena intimitaterako eskubidearen dimentsio positiboa bailitzan ulertze zuten (HERRERO-TEJEDOR, 1990:40; PÉREZ LUÑO, 1981:45).

¹⁶⁴² AKE 96/2012, 6. o.j.

¹⁶⁴³ DBLO 3.a) art.

¹⁶⁴⁴ EGEAK (*Amann c. Suiza* ebazpenean, C-27798/95) eta Espainiako AK-k horrela ulertu dute (AKE 292/2000, 6. o.j.).

¹⁶⁴⁵ Bi dimentsio horiei buruzko jurisprudenzia. EGEAren ebazpena: *Rotaru c. Rumanía*, C-28341/95 (2000-05-04). Espainiaren kasuan, ikus AKEE 254/1993; 292/2000.

¹⁶⁴⁶ Enrique Pérez Luñok *habeas corpus* eta *habeas data* berme mekanismo juridiko-prozesalen konparaketa analisia egin du. *Habeas corpus* izenekoak atxilotuta dagoen pertsonaren osotasun fisikoa eta mugimendu askatasuna (I. belaunaldiko eskubideak) babesteko bide prozesala den bitartean (atxilotua epailearen aurrera eramatea ahalbide dezakeena), *habeas data*-k esparru informatikoan norbanakoen askatasun eta autonomia pertsonala babesteko mekanismo prozesal bezala jarduten du, III. belaunaldiko eskubidea den autodeterminazio informatiborako eskubidearen bidez instrumentalizatutakoa (PÉREZ LUÑO, 2012: 1011).

¹⁶⁴⁷ Datu pertsonalen titularrak dituen lau eskubide horiei buruzko arauketa: Sarrera eskubidea (DBLO, 15.art; DBE, 27-30. art.), zuzentze eta ezabatze eskubideak (DBLO, 16. art; DBE 31-33. art.) eta aurkatze eskubidea (DBLO 6.4; DBE, 34-36. art.). Kontran, datu pertsonalak ezin daitezke engainu edo iruzur bidez eskuratu (DBLO 47. art.), arau hauste oso larritzat jotzen den egitatea (DBLO 44.4.a) art.).

¹⁶⁴⁸ Titularraren baimenik gabe bere datu pertsonalak tratatu daitezkeen salbuespen kasuei buruz, ikus DBLO 6.2 art.

aurretiaz horretarako baimen informatua eman behar du. Baimen horrek libreki emana (biziorik gabea), espezifikoa (datuak esleitu diren helburu zehatz, esanbidezko eta legitimora bideratua) eta argia (zalantzarik gabekoa eta berariazkoa) izan behar du¹⁶⁴⁹.

Dimentsio positiboarekin batera, autodeterminazio informatiboaren dimentsio negatiboak datu pertsonalen edozein tratamendu jardueraren¹⁶⁵⁰ gaineko kontrol baldintzei egiten die erreferentzia, botere publikoek eta alderdi pribatuek errespetatu behar dituztenak¹⁶⁵¹. Datu pertsonalen tratamendu berri bat aurrera eraman ahal izateko, aurretiaz datu-fitxategi bat sortu, tratamenduaren helburua zehaztu eta Espainiako Datuen Babeserako Agentziaren (AEPD) Erregistro Orokorrean¹⁶⁵², edota eskumena duten kasuetan, autonomia erkidegoetako datu pertsonalen agentzien erregistroetan¹⁶⁵³ inskribatu behar da. Kontrol multzo horrek datu pertsonalen kalitatezko tratamendua du xede eta hiru oinarritzko printzipio legeetan euskarrizten da: helburuzko printzipioa, egokitasun printzipioa eta egiazkotasun printzipioa. Aztertu ditzagun banan-banan.

Helburuzko printzipioaren arabera, datu pertsonalak helburu zehatz, esanbidezko eta legitimo batetarako jaso behar dira¹⁶⁵⁴. Helburuak zehatza eta esanbidezkoa izan behar duela diogunean, kontrako zentzuan helburua zehaztugabea, definitu gabea edo ezkutukoa ezin izan daitekeela interpretatu behar da. Alde horretatik, fitxategiaren sorrera bultzatu eta bere inskripzioan zehaztu den helburupean jaso behar dira datuak. Zehaztasunaren eta berariazkotasunaren baldintzekin batera, helburuak gainera legitimoa izan behar du; hots, datu pertsonalen tratamenduaren xedea zuzenbidearen araberakoa izan behar da. Administrazio publikoen kasuan, helburuaren legitimotasun baldintza horrek legaltasun eta eskumen printzipioen nahitaezko konplimendua dakar¹⁶⁵⁵, botere publikoek datu pertsonalak legepean eta beren eskumenpeko gaietan besterik ezin baitituzte tratatu.

Datu pertsonalen tratamendua bultzatu duen helburu zehatz, esanbidezko eta legitimo hori behin beteta, fitxategiaren arduradunak datuak ezeztatzeko betebeharra dauka¹⁶⁵⁶. Zentzu horretan, datu pertsonal horiek beste helburu desberdin batetarako erabili nahi badira, tratamendu berri baten aurrean gaudela ulertu behar da. Hortaz, datuen titularraren

¹⁶⁴⁹ Baimen informatuaren definizioari eta baldintza normatiboen inguruan, DBLO 3.h) art, 5-6. art.

¹⁶⁵⁰ DBLOk egindako interpretazio zabalaren harira, datu pertsonalekin zerikusia duten honako egintzak datu pertsonalen tratamendua kontsideratzen dira: datuak jaso, grabatu, kontserbatu, landu, aldatu, blokeatu, ezabatu edo besterentzea (DBLO-ren 3.c) art.).

¹⁶⁵¹ DBLOn jasotako arauketak botere publikoak eta partikularrak lotetsi egiten ditu, legeak salbuetsitako kasu bakan batzuetan izan ezik (zehazki, ikus DBLO, 2.2 art.).

¹⁶⁵² DBE 55. art. Aurreko oin-azpian zehaztu bezala, DBLO 2.2 artikuluan aurreikusitako kasuetan (esate baterako, pertsona fisikoek eskusiboki jarduera pertsonal edo domestikoetarako tratatzen dituzten datu pertsonalak) ez dago datu pertsonalen fitxategiak inskribatzeko betebeharr legalik.

¹⁶⁵³ Euskal Autonomia Erkidegoan 2/2004 Lege Autonomikoak Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortu zuen. 2/2004 Legearen 2. artikuluan zehaztutako EAeko administrazio publiko desberdinek egindako datu pertsonalen tratamenduari aplikatzen zaion aruketa izanik, tratamendu kasu horietan sortu behar den fitxategia Datuak Babesteko Euskal Bulegoko erregistroan inskribatu behar da (2/2004 Legea, 18. art.).

¹⁶⁵⁴ DBLO 4.1 art.

¹⁶⁵⁵ ABERASTURI GORRIÑO, op. cit, 157-158. orr; DÍEZ PICAZO, op. cit, 326. orr.

¹⁶⁵⁶ DBLO 4.5 art.

baimen informatua berriro lortzea ezinbesteko baldintzak da¹⁶⁵⁷. Hala eta guztiz ere, DBLOk bere logika normatiboarekin kontraesanean sartzen den xedapen polemiko bat aurreikusten du, hurrengo dioena: datu pertsonalak ezin dira jaso ziren helburuarekin “bateraezina” den beste helburu batetarako erabili¹⁶⁵⁸. Xedapen horrek helburuaren objektuaren nolabaiteko zabalkuntza dakar, helburu jakin batetarako jaso diren datuak helburua behin beteta ezeztatu beharrean, helburu horrekin bateragarriak diren beste helburu batzuetarako erabiltzea posible egiten duela ulertu baitaiteke, tratamendu berri horretarako titularraren baimen berririk lortu beharrik gabe. Hala ere, ez DBLOk ezta DBEk ere ez dute legalki definitzen helburu bateraezinak, edo kontran, helburu bateragarriak zeintzuk diren.

Zalantzarik gabe, xedapen horrek datu pertsonalekin lan egiten duten enpresei datuok tratatzeko gaitasun edo ahalmenaren areagotzea bilatzen du. Aitzitik, orain arte azaldutako logika normatiboarekin apurtu egiten du, DBLOren zentzuari jarraiki datu pertsonalen tratamendua motibatu duen helburua behin beteta datuok ezeztatu egin behar baitira eta beste edozein helbururako erabili nahi izanez gero, datuen titularraren baimen berria lortzea beharrezkoa baita. Funtsean, helburuaren objektuaren zabalkuntza hori ahalbidetzen duen xedapena, helburuzko printzipio legalaren eta autodeterminazio informatiborako eskubidearen zentzuaren aurka doa¹⁶⁵⁹. Helburu bateraezin edo bateragarri horiek legalki definitzen ez direla kontuan izanik, jurisprudentziak helburuzko printzipioaren zentzuaren eta beraz autodeterminazio informatiboaren eskubidearen aldeko interpretazioa egin du¹⁶⁶⁰: helburu bateraezinak datuok tratamendua motibatu duen helburua ez diren beste guztiak kontsideratu ditu (helburu bateraezina = helburu desberdina). Beraz, datu pertsonalen tratamendua motibatu duen helburuarekiko desberdina den beste helburu batetarako erabili nahi izanez gero, datuen titularraren baimen informatua berriro lortzea eskatzen duen tratamendu berri baten aurrean gaudela interpretatu behar da.

Helburuzko printzipioarekin batera, datuen kalitatezko tratamendua beste bi printzipio normatiboetan euskarrizten da, egokitasun eta egiazkotasun printzipioetan hain zuzen ere. Egokitasun printzipioaren arabera, jaso diren datu pertsonalak beren tratamendua motibatzen duen helburu hori betetzeko aproposak, egokiak eta ez-gehiegizkoak izan behar dira¹⁶⁶¹. Beste modu batera esanda, jaso diren datu pertsonalak proportzionalak izan behar dira lortu nahi den helburuari konplimendua emateko, eta beraz, tratamendu horrek proportzionaltasun printzipioaren egokitasun, beharrezkotasun eta zentzu hertsian proportzionaltasun azpi-printzipioak bete behar ditu. Azkenik, egiazkotasun printzipioak jasotako datu pertsonalak zehatzak izatea eta momenturo

¹⁶⁵⁷ Titularren baimenik gabe eginiko datu pertsonalen tratamendua arau hauste larria kontsideratzen da (DBLO 44.3.b) art.).

¹⁶⁵⁸ DBLO, 4.2 art.

¹⁶⁵⁹ ABERASTURI GORRIÑO, op. cit, 159-165; MURILLO DE LA CUEVA, 2008: 53. Xedapen horren helburua datu pertsonalekin lan egiten duten enpresei datuok

¹⁶⁶⁰ Auzitegi Konstituzionalak (AKE 290/2000) baina batez ere Enntzutegi Nazionalak (ENEE, 2002-02-08; 2004-02-11; 2006-02-08; 2006-04-28) egokitutako ildo jurisprudentziala da.

¹⁶⁶¹ DBLO, 4.1 art.

eguneraturik egotea exijitzen du¹⁶⁶². Kontrako kasuan beraz, datu pertsonalak zehaztu, osatu edota eguneratu gabe daudenean datuok ezeztatu edo ordezkatu egin behar dira (azken kasu horretan osatutako edo zuzendutako datu pertsonalekin)¹⁶⁶³.

VII.1.C.c. Autodeterminazio informatiborako eskubidearen adiera konkretu bat: interneten ahaztua izateko eskubidea

Eduki egonkorragoa duten eskubideekin erkatuz gero, autodeterminazio informatiborako eskubideak uneoro berregituratzen ari den eduki material dinamikoa du¹⁶⁶⁴. Izan ere, eskubide horrek mundu digital aldakorrek planteatzen dizkion erronka berriei maiztasunez egin behar die aurre, ikuspegi juridikotik aztertuta, eskubide hori arautzen duen corpus normatiboaren etengabeko aldaketa eragiten duen faktorea. Autodeterminazio informatiborako eskubidearen izate-arrazaia, gogora dezagun, norbere nortasunaren parte diren datu pertsonalen gainean beren titularrek duten autonomian datza, datu horiek xedatu eta kontrolatzeko gaitasunean alegia. Internet bezalako sare digital globalean, non informazio pertsonal datu kopuru itzela ezagutzera eman, partekatu, aukeratu, deskargatu, erregistratu eta orokorrean erabiltzen den, autonomia pertsonalerako eskubideak norbanakoak bere informazio pertsonalaren gainean duen autonomia indibiduala bermatzea du xede¹⁶⁶⁵; alegia, norbere pertsonari buruz zein informazio, nola, norekin eta zein helburupean transmititzen duten erabaki eta kontrolatzeko gaitasuna aintzatestea.

Interneten erabiltzen diren bilaketa motorrek sare digital globalean argitaratutako edozein informazio (datu pertsonalak barne) modu erraz, azkar, doako eta kasu gehienetan anonimoan aurkitzea posible egiten dute; ez soilik iragan hurbileko informazioa, baita interneten noizbait argitaratu eta formatu horretatik ezabatua izan ez den edozein datu ere. Bilaketa motorrek interneten nabigatzeko eskaintzen duten gaitasun tekniko horrek, gizakion memoriak ez bezala, interneten “memoria elektronikoa iraunkorra¹⁶⁶⁶” edo “erabateko memoria” ahalbidetzen du. Bilaketa motorrei esker internetek ez du denbora mugez ulertzen, eta hartatik, iragana betiko oraina bihurtzen da¹⁶⁶⁷.

Alde horretatik, internetera konektatutako edozein pertsonak sare digital horretan argitaratutako informazio pertsonal datu kopuru erraldoira sarbide azkarra eta erraza dauka. Gainera, interneti esker informazio pertsonala beren titularren baimen edota jakintzarik gabe erabiltzeko aukerak modu esanguratsuan biderkatzen dira. Faktore horien ondorioz, interneten noizbait argitaratu zen eta sare digitalean zehar barreiatuta dauden iraganeko datu pertsonalak, norbanako titularren nortasunarekin betirako lotuta geratzen

¹⁶⁶² DBLO, 4.3 art.

¹⁶⁶³ DBLO, 4.4 art.

¹⁶⁶⁴ ABERASTURI GORRIÑO, 2014: 2-3.

¹⁶⁶⁵ TERWANGNE, 2012: 54-55.

¹⁶⁶⁶ Ibid.

¹⁶⁶⁷ ALLEN, 2008: 47.

diren profil pertsonalaren alderdi konkretu bat bailitzan ulertzen dira, zenbait kasutan beren titularren intimitatean, ohorean edota hartu-eman sozial eta laboraletan ondorio negatiboak eragin ditzakeena. Europar Batasuneko Komisioaren lehendakari ordea izan zen Viviane Reding andreak 2010ean datu pertsonalei buruzko konferentzia komunitario batean esan zuen bezala, “jaungoikoak barkatu eta ahaztu egiten du, ez ordea internetek¹⁶⁶⁸”.

Ahaztua izateko eskubidea beraz, interneteko testuinguru konkretuan¹⁶⁶⁹ norbanakoari azaldu berri dugun lotura hori ekiditeko gaitasuna onartzean datza, autodeterminazio informatiborako eskubidearen berezko eduki konkretu bat kontsideratzen dena¹⁶⁷⁰. Hortaz, ez gaude eskubide autonomo baten aurrean, testuinguru zehatz batean (interneten) eta faktore zehatz batzuen ondorioz (bilaketa motorrek informazioa bilatzeko erabiltzen duten metodologia) norbanakoak bere datu pertsonalen gainean hein handi batetan galdu duen autonomia indibiduala berreskuratzea posible egiten duen, eta hortaz, autodeterminazio informatiborako eskubidearen barnean kokatzen den ahalmen konkretu baten aurrean baizik: norberari buruz sarean dagoen informazioaren erabilera mugatzeko edo informazioa bera mugatu edo aldatzeko ahalmena, informazio hori norbere pertsonalitateari ez lotzearen helburupean¹⁶⁷¹.

Bestalde, interneten ahaztua izateko eskubideaz hitz egitean, zentsu hertsian ez gaude autodeterminazio informatiborako eskubidea babesteko ahalmen berri baten aurrean. Izan ere, datu pertsonalen titularrari horien babeserako aurreikusten zaizkion “habeas data” ahalmen desbedinen egikaritzaren bidez babesten den adiera konkretu bat. Hots, ahaztua izateko eskubidea datu pertsonalen babeserako DBLOK eta DBEK dagoeneko eskaintzen

¹⁶⁶⁸ REDING, 2010. Testu originalean: *As somebody once said: “God forgives and forgets but the Web never does!”*

¹⁶⁶⁹ Izan ere, ahaztua izateko eskubidearen adiera ez da interneteko testuinguru horretan eksklusiboki onartu den adiera berria. Zehazki eremu penalean jatorria duen adiera da, norbanakoak bere iragan penala ahaztua izateko eskubide gisa ulertuta. Alde batetik, norbanakoek beren aurrekari penalak jasota dauden Erregistro Penaletik ezeztatuak izateko eskubidea du (Justizia Ministerioak ofizioz edo titularraren eskariz), horretarako epeak eta baldintzak betetzen direnean (ikus Kode Penal, 136. art.). Aurrekari penalen ezeztapenari buruz, ikus GOME DE ANDRADE, 2012; 78-79. Bestetik, kasu batzuetan egitate penal batzuek izan duten oihartzun publikoaren harira egitate horien gainean serieak eta pelikulak egin dira, egitate horiekiko egon daitekeen interes publikoaren edota historikoaren eta egitateen egilearen pertsonalitate eskubide desberdinen (intimitate eta ohorea esaterako) arteko talka dakarrena. Kasu batzuetan egitate penalen egilearen eta bere familiaren eskubideek interes publiko horren mesedetan amore ematen dute, eta alderantziz (azken kasu horretan egitate penalen egilearen edota familiaren eskubideak bermatzeko serie edo pelikularen emisioa debekatzea erabaki dezake epaileak). Testuinguru horretan talkan sartzen diren eskubide eta interesen arteko ponderaketa judizialari buruz Europako Estatu desberdinetan emandako jurisprudentziaren analisi konparatu interesgarri bat, DE VERDA Y BEAMONTE, 2014.

¹⁶⁷⁰ Doktrinaren gehiengoak egiten duen interpretazioa hori bada ere, interneten ahaztua izateko eskubidearen izaerari buruz bestelako interpretaziorik ere existitzen da. Autore batzuek interneten eskegitako informazio pertsonalaren eta norbanakoen pribatutasun esferaren artean loturarik ez dagoela arrazoitzen dute. Horren ordez, interneten eskegitako datu pertsonalek nortasunarekin duten zuzeneko harremana oinarri hartuta interneten ahaztua izateko eskubidea pertsonalitate eskubidearen barnean kokatzen dute (GOMES DE ANDRADE, op. cit; BRUGUIERE, 2014). Espainiako Konstituzioan nortasun pertsonalari ez zaio eskubidearen izaera aitortzen. Alemaniaren Oinarrizko Legeak ordea nortasun pertsonalari oinarritzko eskubidearen izaera onartzen dio (2.1. art.). Horrekin lotuta, gogora dezagun Alemaniako Auzitegi Konstituzionalak (1983an emandako BVerfGE65,1 ebazpenaren harira) autodeterminazio informatiborako eskubidea nortasun pertsonalaren oinarritzko eskubidearen zehaztapen juridikoa bailitzan interpretatzen duela.

¹⁶⁷¹ ABERASTURI GORRIÑO, op. cit, 12-13. orr.

dituen ezeztatze, zuzentze eta aurkatze ahalmenez baliatzen da bere defentsarako. Ahalmen horiez gain, titularrak momentu konkretu batean bere datu pertsonalak tratatzeko eman zuen baimena gerora errebokatzeko duen ahalmena ere aipatu behar da¹⁶⁷².

Autodeterminazio informatiborako eskubidearen dimentsio positiboa osatzen duten ahalmen desberdinen horien artean, autodeterminazio informatiboaren dimentsio negatiboaren urraketak ezeztatze eta zuzentze eskubideen aktibazioa motibatzen du; hots, datuen kalitatezko tratamendua bermatzea xede duten helburu, egokitasun edo zuzentasun printzipioen errespetu faltaren ondorioz ematen diren arau-hausteeak. Aitzitik, aurkatze eskubidearen eta baimenaren errebokazioaren kasuan, beraien egikaritzak ez du printzipio horietako baten ez-betetzea eman izana eskatzen; hots, ahalmen horien aktibazioa ez dago datu pertsonalen babeserako baldintza normatiboen hausturarekin lotuta. Aurkatze eskubidea datuen tratamendurako araudiak bere titularraren baimenik lortzea eskatzen ez duen kasuetan egikaritu daiteke. Baimena errebokatzeko ahalmena ordea, kontzeptuak berak dioen bezala, titularrak bere datu pertsonalak tratatzeko baimena eman duen kasuetan egikaritzen da, baimen hori atzera botatzeko. Biek hala biek, aktibatu ahal izateko tratamenduaren arduradunari beren datu pertsonak tratatzeari uztea eskatzeko baldintza batzuen konplimendua beharrezkoa dute. Aurkatze eskubideari dagokionez, titularrak egoera pertsonal konkretu batekin lotutako arrazoi oinarritu eta legitimoak alegatu behar ditu eta betiere legeak aurkatzeko ahalmen hori berariaz galarazten ez duen kasuetan egikaritu daiteke¹⁶⁷³. Bestalde, titularrak bere datu pertsonalak tratatzeko eman zuen baimena errebokatzeko posible izan dezan, hura motibatzeke kausa justifikatuak alegatu behar ditu eta errebokazioak ezingo du atzeraeraginkortasun efekturik izan¹⁶⁷⁴.

Autodeterminazio informatiborako eskubidea egikaritzeko ahalmenen eta datuen kalitatezko tratamendurako printzipio normatiboen artean, interneten ahaztua izateko eskubidea ez da bere egikaritzarako ahalmen konkretu batez baliatzen edo printzipio zehatz baten hausturan oinarritzen. Kasu bakoitzean ematen diren inguruabar konkretuen arabera, ahalmen batzuk egikaritzuz eta printzipio batzuen hausturan oinarrituz egikaritzen da. Bestela esanda, interneten ahaztua izateko eskubideak ez du ahalmen edo printzipio batez soilik ulertzen, bere egikaritzaren bidez bilatzen den helburuaren (norberari buruz interneten eskegita dagoen informazio pertsonalaren erabilera mugatu edo informazioa bera aldatu, mugatu edo ezabatzea) lorpenak kasu konkretu bakoitzean printzipio baten hausturan oinarritzea edota ahalmen konkretu bat edo batzuk aktibatzea eskatzen baitu.

Zentzu horretan, interneten ahaztua izateko eskubidea berariaz aldarrikatu eta legalki positibatu ez bada ere, tradizionalki datu pertsonalen babeserako legediak eskaintzen

¹⁶⁷² DBLO, 6. art; DBE, 17. art.

¹⁶⁷³ DBLO,6.4 art. Horrez gain, legea garatzen duen erregelamenduak (DBE) aurkatze eskubide hori aktibatzeke berariazko arrazoi oinarritu eta legitimo bi zerrendatzen ditu: datuen tratamendua publikitate jarduerara edo prospekzio komertzial helburuetara zuzenduta dagoenean, edota datuen tratamenduaren helburua beren titularraren gainean efektu juridikoak sortzen dituen edo modu esanguratsuan eragiten dion erabaki bat egokitzea denean, erabaki hori datuen tratamendu horretan soilik oinarritzen den kasuetan (DBE, 34. art. eta 36.1 art.).

¹⁶⁷⁴ DBLO, 6.3 art.

dituen berme-mekanismoen bidez izan da babestua. Beraz, eskubide horren kasuan zentzu hertsian ez gaude autodeterminazio informatiborako eskubidea babesteko ahalmen berri baten aurrean, testuinguru konkretu batean (interneten eta norbere datu pertsonalen gainean) eta kasuan kasuko inguruabarren arabera egikari daitezkeen ahalmen legalen baturaren formulazio berregokitu baten aurrean baizik. Interneten ahaztua izateko eskubidea legalki aintzatetsi eta onartu izanaren funtsezko arrazoia, beraz, ez da hainbeste juridikoki babes maila altuagoa eskaintzea, autodeterminazio eskubidearen eduki konkretu bezala duen banakotasunaren aitortza eta onarpen juridikoa baizik¹⁶⁷⁵.

Interneten ahaztua izateko eskubidearen izaerari erreparatuz gero, aitzitik, printzipio eta ahalmen legal horietako batzuekin duen lotura-harremana beste batzuekin baino intentsitate handiagokoa da. Alde batetik, eskubide horren egikaritzak kasu askotan denbora igaro izanaren ondorioz gertatzen den helburuzko printzipioaren errespetu faltak motibatzen du. Datu pertsonalak interneten argitaratu ziren momentuan datuen tratamendu hori helburu baten betearazpenera zuzenduta bazegoen ere, denbora bat igaro ostean, datuon tratamendua motibatu zuen helburu legitimoa dagoeneko bete dela kontsideratu eta hartatik, datu pertsonal horiek interneten argitaratuta jarraitzeak helburuzko printzipioa urratu egiten du. Bestetik, autodeterminazio informatiborako eskubidearen dimentsio positiboa osatzen duten ahalmenen artean, doktrinaren zati batek interneten ahaztua izateko eskubidea bereziki ezabatze eskubidearen adierazpen bat dela interpretatzen du¹⁶⁷⁶; beste autore batzuek ordea, aurkatzeko eskubidearekin lotzen dute¹⁶⁷⁷.

Ezabatzeko ahalmenaren bidez interneten ahaztua izateko eskubidea egikaritzeko, ahalmen horren aktibazioak datu pertsonalen tratamendu ez-legitimoa (helburu, egokitasun edo zuzentasun printzipioen urrapena kasu) gertatzea eskatzen du; ezabatzeko ahalmenak ez bezala, aurkatzeko ahalmenak ez du aktibatua izateko legitimitasun falta horren beharrik, titularraren baimenik behar izan gabe jaso diren datu pertsonalen tratamendu legitimoen aurka jotzeko aukera eskaintzen baitio titularrari. Ahaztua izateko eskubidea, beraz, aurkatze ahalmenaren bidez egikaritzea ez dago datuen tratamendu ez-legitimo baten existentziara baldintzaturik. Titularrari tratamendu legitimoen aurka jotzea ahalbidetzen dion aurkatze ahalmena, datuen tratamenduak norbere pertsonari eragin diezaiokeen eragin negatibo arrazoitu eta legitimoak argudiatzea eskatzen duena, ezeztatze ahalmena baino bermatzaileago da interneten ahaztua izateko eskubidearen defentsaren ikuspegitik, azken ahalmen horrek ahaztua izateko eskubidearen egikaritzea datuen tratamendu ez-legitimoa gertatzen den kasuetara mugatzen baitu.

Hala ere, dagoeneko esan den bezala interneten ahaztua izateko eskubidea, kasu konkretu bakoitzean ematen diren inguruabar partikularren arabera, ezeztatze edo zuzentze ahalmenaren bidez izan daiteke egikaritua¹⁶⁷⁸, baita zuzentze ahalmenaren¹⁶⁷⁹ edo

¹⁶⁷⁵ Antzeko zentzuan, ABERASTURI GORRIÑO, op. cit, 20. orr; TERWANGNE, op. cit, 59-60.orr

¹⁶⁷⁶ MARTÍNEZ MARTÍNEZ, 2013: 2; ARENAS RAMÍRO, 2013: 335-336.

¹⁶⁷⁷ ABERASTURI GORRIÑO, op. cit, 20. orr; BRUGUIERE, 2014: 300-301; TERWANGNE, op. cit, 58-59. orr.

¹⁶⁷⁸ Norbanakoek AEPDri interneten eskegita dituzten datu pertsonalen erabilera mugatzeari buruz egindako kontsulta desberdinetan AEPDek interneten ahaztua izateko eskubidea ezeztatze eta aurkatze ahalmenekin

baimenaren errebokazioaren bidez ere. Interneten ahaztua izateko eskubidea datuen tratamendu ez-legitimo kasuetan egikaritu daiteke baina baita legearekiko errespetuz burutzen diren datu-tratamendu kasuetan ere, titularrak horretarako arrazoi pertsonal justifikatu eta legitimoak dituenen.

Aztergai dugun eskubidearen izaera behin aztertu ostean datozen lerrootan, laburki bada ere, hurrengo lerrootan ikuspegi normatibotik orain arte izan duen onarpena zein den azaltzen da. Oraingoz, ezin ordenamendu juridikok ez du aztergai dugun eskubidea berariaz aurreikusi, nahiz eta datu pertsonalen babesaz arduratzen diren EBko Estatu-kideen agintari eskudunek (Frantzia, Italia, Erresuma Batua, Alemania eta Espainiakoak kasu¹⁶⁸⁰) azken urteetan eskubide honen aintzatespenaren aldeko ebazpen eta gomendio garrantzitsuak eman dituzten. Urteak igaro ahala, gainera, interneten datu pertsonalen erabilera mugatu edota datuok zuzendu, mugatu edo ezabatzeko norbanakoek egiten dituzten eskaeren kopurua haziz doa etengabe¹⁶⁸¹.

Eskubide hori aldarrikatu eta bere babes eraginkorrera exijitzen duen presio soziala gero eta handiagoa den testuinguru horretan, EBJAk 2012. urtean autodeterminazio informatiborako eskubidearen defentsaren ikuspegitik historikotzat jo daitekeen ebazpen judiziala eman zuen¹⁶⁸², jurisprudenzia komunitarioan interneten ahaztua izateko eskubidea lehen aldiz berariaz onartu duena¹⁶⁸³. Ebazpen horrek oinarri garrantzitsuak ezarri ditu autodeterminazio informatiborako eskubidea internet bezalako sare digital globalean babeste aldera. Informazio pertsonala interneten argitaratzen duten pertsona fisiko eta juridikoen gain, interneteko bilatzaileek (Google-ek kasu) informazioa bilatzeko erabiltzen dituzten motorren metodologiek ere 95/46 Zuzentarauaren arabera datu pertsonalak tratatzen dituztela¹⁶⁸⁴ ebatzi zuen EBJAk. Ondorioz, interneteko bilatzaileak

lotu izan du. Besteak beste, AEPDren oinarriko eskubideen defentsarako honako ebazpenak ikus: TD/266/2007; TD/00044/2010; TD/01802/2012.

¹⁶⁷⁹ Nahiz eta datu pertsonalak zuzentzeko ahalmena ez den interneten ahaztua izateko eskubidea egikartzeko erabiltzen, posible litzateke berau argudiatzea ahaztua izateko eskubidearekin lortu nahi dena argitaratu den informazio zaharkitu bat gaurkotzea denean (ABERASTURI GORRIÑO, op.cit, 18. orr).

¹⁶⁸⁰ Datu pertsonalen babeserako Estatu-kideen erakunde publiko eskudunen analisi konparatuari buruz, ikus ARENAS RAMIRO, op.cit, 338-341.

¹⁶⁸¹ Espainiar Estatuan 2007an AEPDri hiru eskaera besterik ez zitzaizkion aurkeztu interneten ahaztua izateko eskubidearen egikartzarekin lotuta (HERNÁNDEZ RAMOS, 2013: 29). Zazpi urte beranduago, 2014an, arrazoi berberengatik AEPDren aurrean guztira 2010 erreklamazio aurkeztu ziren (ikus *“Memoria AEPD 2014”*, 240. orr, interneten eskuragarri).

¹⁶⁸² EBJAren C-131/12 aferan, Espainiako Entzutegi Nazionalak Google eta AEPD zein Mario Costejaren arteko liskarraren prozesu judizialaren baitan EBJAri planteatu zion auzi aurretiazko galderari erantzun zion ebazpena da.

¹⁶⁸³ Ebazpen horren edukiaren analisiari buruz, dagoeneko zitatutako Unai Aberasturi Gorriñoren artikulua zientifikoaz gain, ikus besteak beste ÁLVAREZ CARO, 2014; LYCZKOWSKA, 2014; SALA LEDESMA, 2014.

¹⁶⁸⁴ Ebazpenaren 28. puntua: *“Por consiguiente, debe declararse que, al explorar Internet de manera automatizada, constante y sistemática en busca de la información que allí se publica, el gestor de un motor de búsqueda «recoge» tales datos que «extrae», «registra» y «organiza» posteriormente en el marco de sus programas de indexación, «conserva» en sus servidores y, en su caso, «comunica» y «facilita el acceso» a sus usuarios en forma de listas de resultados de sus búsquedas. Ya que estas operaciones están recogidas de forma explícita e incondicional en el artículo 2, letra b), de la Directiva 95/46, deben calificarse de «tratamiento» en el sentido de dicha disposición, sin que sea relevante que el gestor del motor de búsqueda*

datu pertsonalen tratamenduaren arduradun legalak kontsideratzen dituzenez¹⁶⁸⁵, interneteko bilatzaileek ere datuen babeserako araudiaren baldintza normatiboak errespetatu behar dituztela ebatzi du auzitegi komunitarioak.

Interneteko bilatzaileek erabiltzen dituzten bilaketa motorrek informazioa modu sinplean eta azkarrean aurkitzea ahalbidetzen dute. Bilaketa motor horiek erabili ezean, informazio datu berberak aurkitzeak bilaketa askoz ere sakonagoa, arretatsuagoa eta nekezagoa egitea eskatzen du; hots, informazioaren jatorrizko iturria aurkitzea beharrezkoa da, eta hartatik, web orrialde desberdinetan arakatu behar da. Interneteko bilatzaileen motorrek informazioa (izaera pertsonala izan dezaketen datuak edo ez) bilatzeko eskaintzen dituzten erraztasunek, aitzitik, norbanakoen autodeterminazio informatiborako eskubideari modu are esanguratsuagoan eta gehigarrian¹⁶⁸⁶ eragiten diete. Kontrako zentzuan beraz, interneten ahaztua izateko eskubidea bilatzaile horien aurka aurkeztean, autodeterminazio informatiborako eskubidea osotasunez eta eraginkortasunez babesteko aukerak biderkatu egiten dira.

Interneten ahaztua izateko eskubidea egikaritu eta onartuz gero, interneteko bilatzaileek datu pertsonal horiek dexindezatu egin behar dituzte. Dexindezatzek ez du informazio hori internetetik desagertzen denik esan nahi, bilaketa motorren erabileraren bidez informazio pertsonal hori aurkitzea posible ez izatera pasatzen dela baizik. Datu pertsonal horiek (dexindezatzek gain datuak berraztertzea erabaki ez denean izan ezik) interneten eskegita jarraituko dute, nahiz eta beraiek aurkitzeko egin beharreko bilaketak arretatsuagoa izan behar duen eta denboraz luzeago jo dezakeen. Beraz, egitate horrek balantzaren beste aldean kokatzen den informazio eskubidea mugatzen badu ere, informazio hori interneten eskegita dagoen bitartean, informazio eskubidearen egikaritzak posible izaten jarraitzen du, nahiz eta egikaritzea hori konplexuagoa bihurtzen den. Interneten ahaztua izateko eskubide eta informazio eskubidearen artean ematen den talkan egiten den ponderaketan¹⁶⁸⁷ lehenengo eskubidea bigarrenari gailentzen zaion kasuetan

también realice las mismas operaciones con otros tipos de información y no distinga entre éstos y los datos personales.”

¹⁶⁸⁵ Ebazpenaren 33. atala: “*Ahora bien, el gestor del motor de búsqueda es quien determina los fines y los medios de esta actividad y, así, del tratamiento de datos personales que efectúa él mismo en el marco de ésta y, por consiguiente, debe considerarse «responsable» de dicho tratamiento en virtud del mencionado artículo 2, letra d).*”

¹⁶⁸⁶ Ebazpenaren 38. atala: “*En consecuencia, en la medida en que la actividad de un motor de búsqueda puede afectar, significativamente y de modo adicional a la de los editores de sitios de Internet, a los derechos fundamentales de respeto de la vida privada y de protección de datos personales, el gestor de este motor, como persona que determina los fines y los medios de esta actividad, debe garantizar, en el marco de sus responsabilidades, de sus competencias y de sus posibilidades, que dicha actividad satisface las exigencias de la Directiva 95/46 para que las garantías establecidas en ella puedan tener pleno efecto y pueda llevarse a cabo una protección eficaz y completa de los interesados, en particular, de su derecho al respeto de la vida privada.*”

¹⁶⁸⁷ EBJAk aztergai dugun ebazpenean balantze jarduera horretan kontuan hartu beharreko irizpideak aipatzen ditu 81. atalean. Besteak beste ponderaketa jarduera horretan interneten argitaratutako informazioaren sentiberatasuna, informazioaren garrantzi publikoa, argitaratu zen momentuan zuena baina baita interneten ahaztua izateko eskubidea egikaritu den momentuan duen garrantzia ere, kasu gehienetan denbora pasa ahala garrantzi publikoa gutxitu egiten baita.

beraz, nahiz eta informazio eskubidea nabarmen mugatu, ezin daiteke kontsideratu eskubide horren oinarritzko nukleoa hutsaltzen denik.

Ebazpen garrantzitsu horren harira, Google bilatzaileak eskaera-orri bat *online* eskegi du interneten ahaztua izateko eskubidea egikaritu nahi duten pertsonak beren eskaera Google-en aurrean zuzenean aurkeztea posible izan dezaten. Google-k eskaera-orri hori 2014ko maiatzean eskegi zuen interneten eta ekainaren amaierarako 70.000 eskaera erregistratu zituen; eskaera gehienak Frantziako Estatutik izan ziren igorriak¹⁶⁸⁸. Bestalde, etorkizun laburrera begira onartzea espero den datu pertsonalen babeserako erregelamendu proposamenak¹⁶⁸⁹ interneten ahaztua izateko eskubidea legalki aintzatetsiko du, testu normatibo horren 17. artikuluan zehazki. Erregelamendu proposamenak interneten ahaztua izateko eskubidea batik bat datu pertsonalak ezeztatze ahalmenarekin lotzen badu ere¹⁶⁹⁰, beste ahalmen batzuen egikaritzarekin aurrera eramateko aukera ere aintzatesten du, baimenaren errebokazioaren edota aurkatze ahalmenaren bidez hain zuzen ere. Bestalde, balantzaren beste aldean dauden eskubide eta interes legitimoak babesteko helburuz, erregelamendu berriak interneten ahaztua izateko eskubidearen egikaritza mugatzen duten salbuespen legal¹⁶⁹¹ batzuk aurreikusten ditu. Bestalde, eskubide horren onarpenak datu pertsonalen tratamendu arduradunari eragiten dizkion betebeharrak¹⁶⁹² ere zehazten dira.

VII.1.D. Mugimendu askatasuna

Azaletik ikusita, intimitaterako eskubide eta autodeterminazio informatiborako eskubidearen, eta bestetik, mugimendu askatasunaren artean harreman loturarik ez dagoela pentsa liteke, izaera eta oinarri desberdinak dituzten eskubideak baitira. Hala ere, zaintza-teknologia berriek azken hamarkadetan bizi izan duten sofistikazioak eskubide horien arteko harreman-lotura baten existentzia eragin du, zehazki, norbanakoaren pribatutasun esferaren babesaren prismetik behatuta.

VII.1.D.a. Mugimendu askatasuna, Konstituzioko 17. eta 19. artikuluen ikuspegitik

Konstituzioan arreta jarritz gero, norbanakoek mugitzeko duten askatasuna bi oinarritzko eskubideren edukiaren parte da, bai 17. artikuluan aurreikusten den askatasun pertsonalerako eskubidearena, baina baita 19. artikuluko zirkulazio askatasunarena ere. Askatasun balioak Zuzenbidezko Estatu Demokratiko batean duen funtsezko garrantzia

¹⁶⁸⁸ MARINO, 2014: 1680.

¹⁶⁸⁹ EBko Komisioa, COM (2012)11 final.

¹⁶⁹⁰ Horren adierazte, erregelamendu proposamenaren 17. artikuluen titulua: “*Derecho al olvido y a la supresión*”

¹⁶⁹¹ Erregelamendu proposamenaren 17.3. artikuluan, 80, 81 eta 83. artikuluekin loturan.

¹⁶⁹² Erregelamendu proposamenaren 17.2 art.

kontuan izanik¹⁶⁹³, askatasun pertsonalerako eskubidearen adierazpenetako bat libreki mugitzeko eskubidean datza, modu orokor edo generiko batetan ulertutako askatasun bezala. Zirkulazio askatasuna ordea, mugitzeko askatasun orokora baino, mugitzeko askatasunaren adierazpen zehatz bat babesten duen eskubide da¹⁶⁹⁴: Espainiarrek eta Espainiar lurraldean dauden atzerritarrek¹⁶⁹⁵ Espainiar lurraldeko (aire, lur eta ur espazioak) mugen barnean askatasunez mugitzeko eskubidea; alegia, muga horien barnean norbanakoak aldi baterako edo modu iraunkorrean non egon erabaki ahal izateko duten autonomia. Hori bai, mugitzeko askatasunaren adierazpen zehatza den zirkulazio askatasuna eraginkortasunez egikaritu ahal izateko, mugimendu askatasun orokorra bermatzea ezinbestekoa da, lehenengoa ezin baita bigarrenik gabe ulertu. Askatasun pertsonalerako eskubidearen (EK 17. art.) legezko mugapenek, hots, atxiloketa polizialek, kautelazko kartzelaratzeez edo askatasun gabetze zigorrek, askatasunez mugitzeko eskubide generikoaren mugapen fisikoa eragiten duten neurrian, era berean Espainiar lurraldearen mugen barnean askatasunez mugitzeko eskubide zehatzari (EK 19. art.) eragiten diote.

Askatasun pertsonalaren legezko mugapen horiez gain, mugimendu askatasuna balio eta eskubide desberdinekin talkan sartzen denez, bere egikaritzak bestelako mugapen legitimo batzuk ezagutzen ditu. Eskubideak babesten duena jabetza publikodun espazioetan ibiltzeko askatasuna da, jabetza pribaturako eskubideak (EK 33. art.) mugimendu askatasun horren muga bezala jarduten baitu¹⁶⁹⁶. Bestetik, domeinu publikodun lekuetan mugitzeko askatasun hori ez da termino absolutuetan ulertu behar. Defentsa nazionalarekin zerikusia duten eremuak mugimendu askatasunaren egikaritzatik kanpo geratzen dira, hiritarrek gune horietara sartzeari debekatuta baitute. Bestalde, manifestazio edo biltzeko eskubideen egikaritzak¹⁶⁹⁷ eta ordena publikoa (besteak beste, segurtasun¹⁶⁹⁸ edo osasun publikoa) mantendu eta babesteko helburuz onartutako neurriek, bide publiko batzuetan libreki mugitzeko askatasuna behin-behinean mugatzea eragin dezakete.

¹⁶⁹³ Besteak beste, AKE 32/1987, 3. o.j.; 3/1992, 5. o.j.

¹⁶⁹⁴ DÍEZ PICAZO, 2008: 288-289.

¹⁶⁹⁵ Nahiz eta EK-k 19. artikulua literaltasunari jaramon eginez zirkulazio askatasuna Espainiarrei erreserbatzen zaien eskubidea izan, Auzitegi Konstituzionalak Espainiako lurraldean dauden atzerritarrek zirkulazio askatasunaz gozatzeko oinarritzko eskubidea ere badutela interpretatu du. Konstituzioaren 13. artikulua literaltasunetik (atzerritarren eskubide konstituzionalen arauketa jasotzen dituen) atzerritarrek Espainiara sartzeko oinarritzko eskubiderik ez dutela ondorioztatu badaiteke ere, horrek ez du esan nahi behin Espainian dauden atzerritarrek lurralde nazional osoan zehar askatasunez ibiltzeko eskubiderik ez dutenik (AKE 72/2005, 5-7. o.j.).

¹⁶⁹⁶ AKE 28/1999, 7.o.j.

¹⁶⁹⁷ AKE 59/1990, 7. o.j.

¹⁶⁹⁸ Hiritarren Segurtasunari buruz indarrean sartu berri den 4/2015 Lege organikoak, bere 17. artikuluan Estatuko Segurtasun Indarrei ahalmena ematen die segurtasun arrazoiak direla medio leku publikoetan herritarren zirkulazioa aldi baterakoz mugatzeko, erabat edo partzialki.

VII.1.D.b. Sistema geolokalizatzaileen zaintza helburuzko erabilerak eta mugimendu askatasuna, intimitaterako eskubidearekin harremanean

IKTen garapen progresiboaren ondorioz, norbanakoen mugimenduak etengabe eta modu iraunkorrean monitorizatzea teknikoki posible egiten duten dispositibo gero eta sofistikuagoak daude eskuragarri. Satellite seinaleen bidez funtzionatzen duen GPS sistema geolokalizatzaile tradizionalarekin batera, azken hamarkadan mugimenduak zehaztasun handiz monitorizatzeko gaitasuna duten dispositibo elektronikoak biderkatu egin dira. Gaitasun tekniko horrek mugimendu askatasunaren ikuspegitik planteatzen dituen arazoak ezin daitezke oharkabean igaro.

Kezka horrez jakitun, EAEko Justizia Auzitegiak lehenik eta AGk ondoren, bi ebazpen interesgarri eman dituzte¹⁶⁹⁹ enpresa batek bere langile baten gainean egindako GPS bidezko zaintzaren zilegitasunaren inguruan. GPS bidezko zaintza hori iraunkorra eta etengabekoa zela aintzat hartuta, bi epai horiek zaintza neurrigabea zela ondorioztatu eta langilearen intimitaterako eskubidea urratu zela ebazteaz gain, intimitate eskubide horrekin loturan langilearen zirkulazio askatasuna (EK 19. art.) ere urratu egin zela ondorioztatu zuten. Aurreko azpi-atalean argudiatu den bezala, zirkulazio askatasuna mugimendu askatasunaren (EK 17. art.) adierazpen zehatz bat ere bada.

Norbanakoen etengabeko geolokalizazioa ahalbidetzen duten dispositibo horiek ez diote mugimendu askatasunaren dimentsio “klasikoari” eragiten, alegia, ez dute alde batetik bestera askatasunez mugitzeko gaitasun fisikoa mugatzen. Pertsonen mugimenduen etengabeko eta ezkutuzko monitorizatzek, eskubide horren dimentsio klasikoari eragin beharrean, norbanakoen pribatutasun esferari erasaten diote, zehazki, norbere mugimenduei buruzko informazioa 3. pertsonen ezagutzatik kanpo mantentzeko norbanakoak duen arrazoizko itxaropenari (*gatzelaniaz, expectativa razonable de privacidad*). Pertsonak libreaki mugitzeko duten askatasun fisikoarekin batera, beraz, 3. pertsonak norbera uneoro non dagoen ez jakiteko ahalmena ere mugimendu askatasunaren bidez babestu beharreko edukia kontsideratu behar da. Alde horretatik, EK-ko 17. eta 19. artikuluetan harrera duen mugimendu askatasunaren eta intimitaterako eskubidearen babes komunitik eratoritzen den manifestazio baten aurrean gaude, norbere mugimenduen eta kokapenaren uneoroko informazioa 3. pertsonen jakintza eremutik kanpo mantentzeko eskubidean ondorioztatzen dena.

Mugimendu askatasunaren eta intimitaterako eskubidearen arteko harreman hori aipatzea garrantzitsua da. Izan ere, RFID etiketa aktiboek, beren seinalea iristen den erradioan, etiketa hori gainean daraman objektu edo pertsonaren mugimenduak uneoro eta etengabe monitorizatzeko gaitasuna teknikoa dute. Nanomaterial manufacturatuaren erabilerari esker RFID etiketek duten gaitasun tekniko hori areagotu egiten da, hurrengo

¹⁶⁹⁹ Zehazki, EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren (Lan Arloko 1. Sailaren) 2011ko maiatzaren 10eko ebazpena (AS\2012\2277) eta AGren (Lan Arloko 1. Sailaren) 2012ko ekainaren 21eko ebazpena (RJ\2012\7627).

azpi-ataletan kontsumitzaile, langile, paziente eta presoen pribatutasun eskubideen analisietan aztertzen den bezala.

VII.2. Nanoteknologiak, intimitaterako zein autodeterminazio informatiborako eskubideak eta mugimendu askatasuna

Nanomaterialen fabrikatzearen belaunaldiak garatuz joan ahala, diseinatuz joango diren dispositibo elektronikoek norbere esfera pribatuaren dimentsioarengan gero eta mehatxu sofistikuagoak eragin ditzakete, kontrolatzeko gero eta zailagoak izan daitezkeenak. Sektore elektronikoan eta beste hainbat sektoretan ikergai diren berrikuntza nanoteknologiko batzuek gizakien eta orokorrean gizartearen gainean eragin dezaketen kontrol eta zaintza mailaren handiagotzea kezagarria da¹⁷⁰⁰, aplikazio horien bitartez orotako datuak lortzea posible izan baitaiteke. Nanoteknologiaren eta IKTen konbergentzia harreman horren baitan, hurrengo ataletan RFID etiketen erabilera desbedinetan jartzen da arreta. Izan ere RFID etiketak, nanomaterialak erabilia beren prestaziotan hobekuntza jasaten dutenak, kontsumitzaileen informazio komertziala lortzeko, langileen mugimenduak kontrolatzeko, pazienteen osasuna monitorizatzeko eta kartzelako barne diziplina mantentzeko dispositibo bezala erabili daitezke. Ondorioz, datozen azpi-ataletan sistema hori erabiltzen duten aplikazio desberdinek kontsumitzaile, langile, paziente eta presoen pribatutasun esferan nola eragiten duten, eta alde horretatik beren erabilerak intimitate eskubide, autodeterminazio informatiborako eskubide eta mugimendu askatasunaren ikuspegitik planteatzen dituen arazoak zeintzuk diren aztertzen da.

VII.2.A. Kontsumitzaileak

VII.2.A.a. RFID etiketen erabilera komertziala

Eremu komertzialean produktu-artikuluak identifikatzeko erabiltzen den barra-kodearen sistemak badu ordezkorik; datozen urteetan, RFID bidezko etiketek ordezkatu dezaketela uste da. Barra-kodeek ez bezala, RFID etiketek ez dute produktu-artikulu bat identifikatzeko berarekin kontaktu fisikoan edota zuzeneko kontaktu bisualean egoteko beharrik. RFID etiketa aktiboek duten irismen handiak enpresei onura logistiko garrantzitsuak eskaintzen dizkie. Produktuen uneoroko trazabilitatea ahalbidetzen duenez, biltegiko antolakuntza efizienteagoa eta arriskutsuak diren produktuak merkatutik ahalik eta azkarren ateratzeko gaitasuna eskaintzen du¹⁷⁰¹. Produktu-artikuluak monitorizatzeko eta orokorrean logistikarekin zerikusia duten abantailak eskaintzearekin batera, RFID etiketak bestelako erabilera batzuetara ere bideratu daiteke. Produktu komertziala

¹⁷⁰⁰ Pribatutasunaren ikuspegitik nanoteknologiak eragin ditzaketen erronkei buruz, besteak beste, BARINAS UBIÑAS, 2013:12-13; FAUNCE, 2007: 638; GANASCIA, 2011: 687-690; MNYUSIWALLA et al, 2003: 11; VAN DEN HOVEN eta VERMAAS, 2007).

¹⁷⁰¹ INTECO eta AEPD, 2010: 12.

kontsumitzaileari saldu ostean txertatua daraman RFID etiketa desaktibatzen ez bada, produktu hori gainean daraman pertsonaren ohitura komertzialei buruzko informazio baliagarria lortu daiteke etikate horri esker.

VII.2.A.b. Datu pertsonalak lortzera bideratutako RFID etiketen kasuistika: datu pertsonalen babesaren ikuspegitik planteatzen diren erronkak

RFID etiketak kontsumitzaileen ohitura komertzialen inguruko informazio pertsonala lortzeko erabili diren kasu batzuk dokumentatu dira. *Tesco* supermerkatu kate ingelesak, 2006. urtean, *Gillette Mach 3 blades* izeneko produktua saltzen zen apaletan RFID sistema erabiltzen zuten kamera ezkutuak instalatu zituen, bezeroek produktu horren artikuluren bat hartzen zuten bakoitzean argazkia ateratzen ziena¹⁷⁰². *Tesco* supermerkatuaren esanetan, neurri horren xedea produktu horren lapurretak murriztea zen. Hala ere, sistema horren berri izan bezain laster, kontsumitzaileek beraien pribatutasuna urratzen zuen sistema zela salatu zuten eta *Tesco* supermerkatu kateak, sistema horren ospe txarraz jakitun, sistema erabiltzeari utzi egin zion. Bestalde, *Benetton* marka arropa ezagunak bere janzkietan RFID etiketak txertatzea planifikatu zuen¹⁷⁰³. Proiektuak hala ere ez zuen aurrera egin, kontsumitzaileen aldetik kritika gogorak jaso baitzituen. RFID seinalearen arrastoari jarraituz *Benetton* arropa erosi duen bezeroaren mugimenduak, helbidea, ohitura komertzialak eta bestelako datu pertsonalak lortzea posible zen.

Datu pertsonalak jasotzeko erabiltzen diren kasuetan, RFID etiketek datuen babeserako arauketaren (Espainian, DBLO eta DBE) baldintzak bete behar dituzte. Alde horretatik, baldintza normatibo ugari bete behar dituzte, garrantzitsuenen artean:

- a) Datu pertsonalen tratamendu horren helburua zehatza, esanbidezkoa eta legitimoa izan behar da eta jasotako datu pertsonalak helburu hori lortzeko aproposak, egokiak eta ez-gehiegizkoak izan behar dira¹⁷⁰⁴. Merkataritza jarduerak burutzen dituzten enpresa edo pertsonen kasuan, legediak ahalbidetu egiten ditu publizitate edo prospekzio komertzial helburuetarako 3. pertsonen datu pertsonalak tratatzeko¹⁷⁰⁵.
- b) RFID etiketen bidezko datu pertsonalen tratamendu hori posible izan dadin, aurretiaz kontsumitzailearen baimen informatua lortu behar da, libreki emana (biziorik gabea), espezifikoa (datuak esleitu diren helburu zehatz, esanbidezko eta legitimora bideratua) eta argia (zalantzarik gabekoa eta berariazkoa) izan behar dena¹⁷⁰⁶.

¹⁷⁰² MILLER eta KEARNES, op. cit, 17.orr.

¹⁷⁰³ Ibid.

¹⁷⁰⁴ DBLO, 4.1 art.

¹⁷⁰⁵ Ikus DBLO 30. artikulua, eta horren edukia garatu eta zabaltzen duen DBE 45. artikulua.

¹⁷⁰⁶ DBLO 3.h) art, 5-6. art; DBE 45. art.

- c) Datu pertsonalak jasotzen hasi aurretik, AEPDri fitxategiaren sorrera eta datu tratamendu horren helburua jakinarazi behar zaio¹⁷⁰⁷ eta informazio hori Datuen Babeserako Erregistro Orokorrean (RGPD) inskribatu behar da¹⁷⁰⁸.

Komunikazio Teknologien Institutu Nazionalak (INTECO) eta Datuen Babeserako Espainiako Agentziak (AEPD) RFID etiketen erabilera komertzialari buruz egin dituzten gomendioek baldintza normatibo horien zentzuari jarraitzen diote. RFID etiketak jasotako informazio pertsonalaren bidez bilatzen den helburuaren eta proportzionaltasunaren printzipioak aintzat hartu behar direla ohartarazten du. Titularrak baimena eman edo ez erabaki aurretik, bere datu pertsonalen erabilera nolakoa izango den eta erabilera horrek zertan datzan modu argian eta osotasunez informatu behar zaio¹⁷⁰⁹.

RFID etiketen bidezko datu pertsonalen tratamenduaren helburua kontsumo perfil osatuak lortzea denean, nahiz eta legeak tratamendu hori ahalbidetu egiten duen (publizitate edo prospekzio komertzial helburu bezala), ikuspegi teoriko batetik hausnartuta helburu hori ez-legitimoa kontsideratu beharko litzatekeela defenda daiteke. Autodeterminazio informatiborako eskubidea norbere datu pertsonalak babestea objektu duen eskubide pertsonala da; enpresek datu pertsonalen gainean egiten duten erabilera komertzial masiboa, ordea, autodeterminazio informatiborako eskubidearen izaera pertsonal horren aurka doa¹⁷¹⁰, eskubide pertsonalen xeda-ezintasunaren aurka alegia.

Bestalde, RFID etiketen bidez lortutako datu pertsonalak gehiegizkoak dira bilatzen den helburuari begira. RFID etiketen bidez kontsumitzaileei buruz informazio pertsonal kopuru handia jaso daiteke, bilatzen den helburuaren lorpenerako gehiegizkoa eta beraz ez proportzionala kontsideratu daitekeena. RFID etiketa aktiboa erabiltzen duten produktuen kasuan, behin produktua erosita etiketa hori desaktibatu egiten ez bada, produktua gainean daraman pertsonaren mugimenduak uneoro eta etengabe monitorizatu litezke. Gaitsun tekniko horrek pertsona horren ohiko mugimenduak, portaerak, bizilekua eta komertzialki interes handikoak izan daitekeen bestelako informazioa lortzea ahalbidetzen du. Azkenik, aipatu diren kasu dokumentatu horietan kontsumitzaileen datu pertsonalak beren titularrak informatu gabe eta baimenik lortu gabe tratatu dira; bestela esanda, datuok iruzur bidez eta modu ez-leialean jaso dira, arau-hauste oso larri bezala tipifikatuta dagoen portaera¹⁷¹¹. RFID etiketek pribatutasunaren ikuspegitik planteatzen dituzten arazoez ohartuta, AEPD eta INTECO erakunde administratiboek produktua kontsumitzaileari saltzearekin batera RFID etiketa desaktibatzea eta etiketa horietan kontsumitzaileen datu pertsonalik ez biltzea gomendatu dute¹⁷¹².

¹⁷⁰⁷ DBLO, 26.1 art. Zuzenbide pribatuko enpresa edo entitateek (titulartasun pribatu edo publikoduna izatez independenteki) titulartasun pribatuko fitxategien arauketa bete behar dute (ikus DBEko 5.1.m) artikuluan jasotako definizioa).

¹⁷⁰⁸ DBLO, 26.4 art.

¹⁷⁰⁹ INTECO eta AEPD, op. cit, 39-42. orr.

¹⁷¹⁰ Datu pertsonalen xedaezintasunaren inguruan, SCHWARTZ, 2004.

¹⁷¹¹ DBLO, 44.4.a) art.

¹⁷¹² Ibid, 47-48. orr.

Funtsean, kontsumitzaileen datu pertsonalak helburu komertzialetarako tratatzea xede duten RFID etiketa aktiboen bidezko sistemen helburuaren legitimotasuna zalantzazkoa da, egiten duten datu pertsonalen tratamendua ez da proportzionala eta azaldu diren kasu dokumentatuetan titularren baimen informatua lortu gabe tratatu diren datuak izan dira. Faktore guzti horiek aintzat hartuta, norbanakoen autodeterminazio informatiborako eskubidea intentsitate handian urratzen duen praktika komertzial baten aurrean gaudela ondorioztatu daiteke.

VII.2.B. Langileak

RFID etiketa aktiboen bidez pertsonen mugimenduen arrastoari jarraitzea posible denez¹⁷¹³, etorkizunera begira aipatu sistemak delituen ikerketarako edo lan arloko zaintza-neurri bezala erabiliak izan litezke. Zentzu horretan, RFID etiketak langileak kontrolatzeko erabili izan diren kasu batzuk dokumentatu dira. Datozen orrietan mota horretako zaintzak bizitza pribatuaren ikuspegitik sortu ditzakeen erronken analisi juridikoa egiten da. Analisi horretan murgildu aurretik, hala ere, enplegatzaile eta enplegatuaren arteko lan harremanean alderdi bakoitzak dituen betebeharrak eta eskubideak aztertu behar dira, enplegatzaileak bere enplegatuen gainean duen kontrol ahalmenak langileen oinarrizko eskubideekiko errespetuan aurkitzen baitu bere muga¹⁷¹⁴.

VII.2.B.a. Langileen oinarrizko eskubideak, enplegatzaileak duen lan-zaintza ahalmenaren muga bezala

Enplegatzaile eta enplegatuaren artean sinatutako lan kontratuak, Langileen Estatutuaren (LE) arabera enplegatzaileari enplegatuaren gaineko kontrol ahalmena bat ematen dio, bere lan betebeharrak egokitasunez gauzatzen dituela¹⁷¹⁵ eta gaixotasun edo istripuen ondorioz hartutako baja laboralen berariazkotasuna¹⁷¹⁶ egiaztatzeko. Enpresariaren ahalmen hori lan betebeharren egikaritzea kontrolatzera bideratu behar da eta hortaz, arau orokor bezala, kontrol jarduera hori lan eremura mugatu behar da. Salbuespenez kontrol horiek lan eremutik harago eramanez daitezke aurrera, betiere lantokitik kanpo lanarekin zerikusi zuzena duten jarduerak burutzen diren kasu eskusiboetan. Enpresariak langilearen gainean duen kontrol gaitasun hori, funtsean, enpresa askatasunetik eratorritzen den kontratu bidezko ahalmen bezala definitu daiteke¹⁷¹⁷.

¹⁷¹³ Ikusi AUBERT, 2011.

¹⁷¹⁴ AKE 292/1993, 4.o.j.

¹⁷¹⁵ LE, 20.3 art.

¹⁷¹⁶ LE, 20.4 art.

¹⁷¹⁷ GUDE FERNÁNDEZ, 2014: 110.

Kontrol gaitasun hori ordea ezin da zentzu absolutuan ulertu. Langileak lan kontratua sinatzean bere lanaren indarra jartzen du enpresariaren eskuetan, baina ez bere pertsona¹⁷¹⁸. Alegia, lan kontratu baten existentziak ez dio enpresariari langileek beren betebeharrekin konplitzen dutela kontrolatzeko erabateko gaitasunik aitortzen, ahalmen horrek ezin baitu inolaz ere langileek pertsona gisa dituzten eskubide konstituzionalen hutsaltzea eragin¹⁷¹⁹, ezta langileen eskubideen kontratu bidezko justifikaziorik gabeko mugapenen ezarpenik legitimatu ere¹⁷²⁰. Enpresa askatasunik eratortzen den kontrol gaitasun horrek, beraz, langileen oinarrizko eskubideen errespetuan du muga.

Teknologia berrien etengabeko garapenaren ondorioz lan betebeharren konplimendua kontrolatzeko dispositibo gero eta sofistikatuagoak eskuragarri daude, langileen oinarrizko eskubideei intentsitate gero eta handiagoan eragiten dietenak. Zaintza mekanismo horiek langileen pribatutasun esfera babesten duten autodeterminazio informatiborako eskubideari, intimitaterako eskubideari¹⁷²¹ eta mugimendu askatasunari eragiten diete bereziki. Lantokia eremu publiko edo semi-publikoa kontsidera badaiteke ere, kasuan kasuko inguruabarren arabera, langileek zenbait egoeretan beren pribatutasuna mantentzeko arrazoizko itxaropenak (*expectativas razonables de privacidad*) izan ditzakete¹⁷²², baita lantoki barnean ere. Langilea enpresariak ezarritako kontrol legitimoetara makurtu behar da, baina betiere langileak bere intimitateaz goatzeko duen eskubidea erabat hutsaldu gabe. Ondorioz, langileek beren lan-jarduerarekin konplitzeko duten askatasun esferan enplegatzailearen zaintza kontrolak eragiten duen injerentzia horrek arrazoi legitimoetan izan behar du oinarri, ezin da arbitrarioa izan¹⁷²³ eta langileen oinarrizko eskubideen mugatzea eragiten duten zaintza-neurriak direla kontuan izanik, proportzionaltasun printzipioa errespetatu behar dute¹⁷²⁴.

Lan jarduera kontrolatzeko enplegatzaileak duen ahalmenaren eta langileen eskubideei zor zaien errespetuaren arteko harreman horretan, kontrol ahalmenaren gero eta sofistikazio handiagoa dakarten zaintza teknologia berrien erabilerak harreman hori beste dimentsio berri baten kokatzea eragin dute¹⁷²⁵. Harremanaren oinarriek berberak izaten jarraitzen dute, ez ordea enplegatzaileak enpleguaren lan jarduera kontrolatzeko duen gaitasun eta sofistikazio mailak. Enpresariak duen kontrol ahalmen horren egikaritzan, teknologi berrien erabilerak giza eskubideen ikuspegitik bete beharreko berme legalen

¹⁷¹⁸ RIVERO, 1982: 424, “*le salarié met à la disposition de l’employeur sa force du travail mais non sa perssone*”.

¹⁷¹⁹ AKEE 88/1985, 2. o.j; 99/1994, 4.o.j.

¹⁷²⁰ AKE 106/1996, 5. o.j.

¹⁷²¹ Langileen duintasunaren eta intimitaterako eskubidearen (LE 18. art.) aurkako egintzak arau hauste larriak izatera iritsi daitezke (ikus 5/2000 Legegintzazko Errege-Dekretua, 8.11 art.).

¹⁷²² Norbanakoek beren pribatutasuna mantentzeko arrazoizko itxaropenaren kontzeptuari buruz, AKEE 12/2004; 24/2004; 12/2012; 7/2014.

¹⁷²³ AKEE 94/1984; 108/1989, 173/1994.

¹⁷²⁴ Frantziako Lan Kodeak proportzionaltasun baldintza hori esanbidez jasotzen du (zehazki, kodearen L-1121-1 atalean). Espainiako LEN ordea ez da proportzionaltasunaren baldintza esanbidez arautzen. Alde horretatik, jurisprudentzia izan da lan-kontrol neurrien eta neurriok eragiten dituzten eskubideen arteko ponderatze beharra adierazi (AKE 88/1985, 5. o.j.) eta gatazka horietan proportzionaltasun printzipioa aplikatzea erabaki duena.

¹⁷²⁵ WAQUET, 2002:10.

inguruan LEk ezer gutxi argitzen du. LEk ez du inolako arauketarik aurreikusten zaintza helburuetarako zein teknologia mota erabili daitekeen edota erabiltzean konplitu behar diren baldintzen inguruan.

Eskasia normatibo horren aurrean, lan-kontrol mekanismoen eta langileen oinarriko eskubideen arteko bateragarritasun irizpideen ezarpena organo judizialen interpretazioaren esku utzi izan da. Enplegatzailerik eta enplegatuaren arteko harreman horretan, auzitegiek jokoan dauden eskubide eta ahalmenen arteko ponderaketaren teknika lehenetsi dute, proportzionaltasun printzipioaren aplikazioan oinarri duena. Funtsean, lan-kontrolerako erabilitako neurriek egokitasun, beharrezkotasun eta *sensu stricto* proportzionaltasun azpi-printzipioak errespetatu behar dituzte. Alde batetik, erabilitako zaintza neurriak enpresariak bilatzen duen kontrol helburua lortzeko aproposak izan behar dira. Bestetik, zaintza neurri hori helburua eraginkortasunez lortzeko ezinbestekoa izan behar da; hots, helburua eraginkortasunez betetzeko gai den eta aldi berean langileen eskubideentzat kalte maila gutxiagoa suposatzen duen bestelako zaintza neurririk eskuragarri ez egotea beharrezkoa da. Kontrako kasuan beraz, langilearentzat hain intrusiboa ez den zaintza-neurri alternatibo hori erabili beharko litzateke. Azkenik, lan-zaintzan jokoan dauden ondasun juridikoak aztergai hartuta, zaintza neurri horrek dakartzan onurak handiagoak izan behar dira langileen eskubideetan eragiten dituzten kalteak baino.

Proportzionaltasun printzipioa enpresariaren kontrol ahalmenaren eta langilearen intimitaterako eskubidearen arteko ponderaketa jardueran aplikatzen denean, segurtasun juridikoaren ikuspegitik arazoak planteatu ditzakeen mekanismoa dela arrazoitu duen autorerik bada¹⁷²⁶. Ponderaketa zeregin horrek epaile eskudunek kasu konkretu bakoitzean ematen diren inguruabarrak aintzat edukita proportzionaltasun printzipioaren hiru azpi-printzipioen (egokitasun, beharrezkotasun eta *sensu stricto* proportzionaltasuna) abstrakzio azterketa egitea eskatzen du. Epaile bakoitzak kasuan kasuko gatazkan egiten duen abstrakzio ariketa hori egitean, antzeko inguruabarretan eman diren bestelako sententziekiko kontraesanetan sartzen diren ondorioak eratorzea gerta daiteke. Proportzionaltasun printzipioaren aplikazioak kasuan kasuko *in abstracto* azterketa egitea eskatzen duenez, ponderazio jarduera horretan epaile bakoitzaren hautemateak desberdinak izatea, eta ondorioz, antzeko kasuetan elkarren artean kontraesankorrak diren sententziak ematea gerta daiteke.

Proportzionaltasun printzipioaren gabezia horiek alde batera utzita, lan-zaintza neurriei buruz langileek izan behar duten ezagutza mailaren azterketa egin dezagun. Arau orokor bezala, langileek zaintza dispositibo horien existentzia ezagutzeko eskubidea dutela argudiatu daiteke. Izan ere, lan antolakuntza eta kontrolerako neurri berriak hartu edota berrikusten diren kasuetan, neurri horiek aplikatzen hasi aurretik enpresa komiteak horri buruzko informe bat emititzeko eskumen legala du¹⁷²⁷. Enpresa komiteak eskumen hori

¹⁷²⁶ GOÑI SEIN autoreak lan gatazketan proportzionaltasun printzipioaren aplikazioaren inguruan planteatu daitezkeen arazoak sakonki aztertu ditu. Ikusi GOÑI SEIN, 2005, 2007, 2009.

¹⁷²⁷ LE, 64.5.f) art.

egikaritu ahal izateko ezinbestean neurri horiez informatua izan behar da¹⁷²⁸. Organo horren funtzioa langileen interesak enpresan ordezkatzeko dela kontuan hartuta, logikoena enpresa komiteak langileak zaintza-neurri horiez informatzea izango litzateke. Salbuespenez ordea, lan-kontrol jarduera hori zaintza sekretu bidez egikaritzea ere posible da. Zaintza sekretuak langilearen pribatasun esferan intentsitate handiagoz eragiten duela kontuan izanda, esku-sartze horren legitimotasunak baldintza indartuen, kondizio gehigarrien existentzia eskatzen du¹⁷²⁹.

- a) Ezkutuzko zaintza-kontrol horiek inguruabar espezifiko batzuk ematen diren kasuetan besterik ezin daitezke erabili, zehazki, delituzko jarduera baten arrazoizko zantzuak daudenean edo bestelako arau-hauste larrien ikerketarako.
- b) Zaintza neurriei aplikatzen zaien proportzionaltasun printzipioaren beharrezkotasun azpi-printzipioa zorrotasunez interpretatu behar da. Hots, zaintza-sekretu horrek *ultima ratio* izaera izan behar du, ustezko arau-hauslea harrapatzeko bestelako zaintza neurriak eraginkorrak ez diren kasuetan bakarrik erabili daiteke.

Zaintza sekretuak aipatu berri diren bi baldintza horiek betetzen ez dituen kasuetan, hots, zaintza sekretua langileen jarduera kontrolatzeko neurri arrunt bezala erabiliz gero, langileen intimitaterako eskubidearen esku-sartze legitimo baten aurrean geundeke, lan zuzenbideak arau-hauste larri bezala tipifikatzen duena¹⁷³⁰. Egoera horretan langileak kalte-ordainerako eskubidea edo lan kontratua aldebakarki amaitu eta bidegabeko kaleratzearen kalte-ordaina jasotzeko eskubidea dauka¹⁷³¹.

Intimitaterako eskubidearekin batera, enplegatzaileen lan-zaintza neurriek langileen autodeterminazio informatiborako eskubidean eragin dezakete halaber. Arau orokor bezala, lan eremuan DBLOn jasotako printzipioak eta arauketa baldintzak aplikagarri dira, kasu zehatz batean izan ezik¹⁷³²: langilearekin kontaktatzeko helburu eskusiboan, enplegatzaileak langileen izen-abizen, lanpostu, lan-jarduera, helbide, telefono edo fax zenbakia bezalako datuak jaso ditzake, horretarako DBLOn jasotako arauketa baldintzak jarraitu behar izanik gabe. Kontrako zentzuan beraz, langilearen datu horiek beste helburu baterako erabili nahi izatekotan, DBLOren arauketa baldintzak errespetatu behar dira.

Enplegatzailearen eta enpleguaren arteko lan harremanaren existentzian oinarri hartuta, arau orokor bezala enplegatzaileak ez du bere langileen datu pertsonalak tratatzeko beren baimenik lortzeko behar legalik¹⁷³³. Hori bai, horrek ez du esan nahi langilea bere

¹⁷²⁸ LE, 64.6 art.

¹⁷²⁹ Lan-zaintza sekretuak bete beharreko baldintza gehigarriei buruzko ebazpenik aipagarrienetakoa, AKE 186/2000. Lantokian gertatutako lapurretak zirela eta, gertaera horiek ikertzeko asmoz *ex post* jarritako ezkutuzko bideo kameraren zilegitasuna erabakitzeko erabili ziren irizpideak dira.

¹⁷³⁰ Gogoratu, 5/2000 Legegintzako Errege Dekretua, 8.11 art.

¹⁷³¹ LE, 51.1.c) art. Zentzu horretan, honako ebazpena ikusi: Tribunal Superior de Justicia de Valencia, sententzia de 3 de mayo de 2012.

¹⁷³² DBE 2.2 art.

¹⁷³³ DBLO, 6.2 art. Salbuespenez, bereziki pertsonalak diren datuak (ideologia, afiliazio sindikala, erlijioa edo sinesmenak) tratatzeko titularraren baimen idatzizkoa eta esanbidezkoa lortzea ezinbestekoa da (DBLO

datu pertsonalen tratamenduaz eta tratamendu horrekin bilatzen den helburuaz informatu behar ez denik. Datuon tratamenduak lan-jarduera kontrolatzea helburu duenean, datu pertsonalen edozein tratamenduk konplitu behar duen egokitasun printzipioa hartu behar da kontuan. Alegia, langileen datu pertsonalen tratamendua bilatzen den zaintza helbururako aproposa, egokia eta ez-gehiegizkoa izan behar da¹⁷³⁴.

VII.2.B.b. Langileen pribatutasuna eta lan zaintza helburuetarako erabilitako RFID etiketadun dispositiboak

Azpi-atal honen hasieran esan bezala, RFID etiketak lan-zaintza neurri bezala erabili diren kasu batzuk dokumentatu dira. Alde batetik, lan-sarrera eta irteerak erregistratzeko irismen laburra duten RFID etiketa pasiboen bidezko txartel elektronikoen erabilera gero eta arruntagoa bihurtzen ari da. Bestetik, *Morón* izeneko enpresa elektronikoak eta Las Vegas hiriko kasino batek beren langileen lan uniformeetan irismen luzeko RFID etiketa aktiboak erantsi dituzte, uneoro langileen kokalekua kontrolatzeko eta langileen errendimendua areagotzeko helburupean¹⁷³⁵. Dagoeneko azaldu den bezala, nanomaterialen erabilerak RFID etiketa horien ezaugarrien sofistikazioa, beren prestazioen hobekuntza eragin dezake. Datozen orrietan beraz, langileen sarrera-irteerak eta beren mugimenduak kontrolatzeko helburuz erabiltzen diren RFID etiketa bidezko sistema horiek langileen pribatutasun esferari nola eragiten dioten eta intimitaterako eskubide, autodeterminazio informatiborako eskubide eta mugimendu askatasunari sorrarazten dizkien mugapenak juridikoki zilegi kontsidera daitezkeen edo ez hausnartzen da. Lehenik eta behin, langileen sarrera-irteerak kontrolatzeko RFID sistemadun txartel elektronikoak aztertzen dira eta ondoren, langileen mugimenduak uneoroko kontrolatzen dituzten RFID etiketa aktiboen erabilerak.

RFID etiketa erabiltzen duten txartel elektronikoen xedea langile bakoitzaren sarrera-irteeren ordua da. Txartel horien bidez datu pertsonalen gainean egiten den tratamenduak enplegatzailearen lan-zaintza ahalmenarekin bateragarria den helburu legitimo bat bilatzen du: enplegatuen lan sarrera-irteerak kontrolatzea. Kontrol sistema hori martxan jarri aurretik, hori bai, AEPD-ri fitxategiaren sorrera eta datu tratamendu horren helburua jakinarazi behar zaio¹⁷³⁶, hura Datuen Babeserako Erregistro Orokorrean (RGPD) inskribatuta gera dadin¹⁷³⁷.

Datu pertsonalak tratatzeko enplegatzaileak enpleguaren baimena lortzea beharrezkoa ez badu ere, lan antolakuntza eta kontrolerako neurri baten aurrean gaudenez,

7.2 art.). Bestalde, ezin da fitxategirik sortu horien helburu eskusiboa bereziki pertsonalak diren datu horiek biltzean badatza (DBLO 7.4 art.).

¹⁷³⁴ Gogoratu, DBLO 4.1 art.

¹⁷³⁵ BIBBY, 2006: 8-9.

¹⁷³⁶ DBLO, 26.1 art. Zuzenbide pribatuk enpresa edo entitateek (titulartasun pribatu edo publikoduna izatez independenteki) titulartasun pribatuko fitxategien arauketa bete behar dute (ikus DBEko 5.1.m) artikuluan jasotako definizioa).

¹⁷³⁷ DBLO, 26.4 art.

langileak RFID txartelaren bidezko kontrol neurri horrez informatua izateko eskubidea du (lan sarrera-irteerak kontrolatzeko sortu berri den fitxategiaren existentzia ezagutzeko eskubidea barne)¹⁷³⁸, txartel horiek sekretuzko zaintza neurri bezala erabiltzen diren kasuetan salbu. Bestalde, RFID etiketadun txartel elektronikoak erabiltzen hasi aurretik, enplegatzaileak enpresa komiteari RFID etiketen ezaugarri eta prestazioen berri eman behar dio, organo horrek dispositibo horien egokitasunari buruz loteslea ez den informe bat emititzeko eskumen legala baitu. Estatu Batuetan dokumentatu diren kasu batzuetan aitzitik, langileen sarrera-irteerak kontrolatzeko RFID sistema erabiltzen duten enpresek, arau orokor bezala, ez diete beren langileei txartel elektronikoan RFID sistema erabiltzen denik jakinarazten¹⁷³⁹.

Txartel elektroniko horien erabileraren inguruan planteatu daitezkeen beste arazoetako bat bere erabileraren desbiderapena da. Izan ere, langileen sarrera eta irteera orduak kontrolatzeaz gain, langileei buruzko bestelako informazio pertsonal osagarria lortzeko erabili daitezke. Informazio hori enpresaren bestelako datu baseekin elkartzuz, langileen soldadari, presentziari, ordu-estrei edota laneko absentsiei buruzko informeak egiteko erabili izan dira dagoeneko¹⁷⁴⁰. Alde horretatik, lanaldiaren hasiera eta bukaera kontrolatzeko helburuarekin batera RFID txartelaren bidez eskuratzen diren datuak beste helburu desberdin eta betiere legitimo¹⁷⁴¹ batetarako erabili nahi badira, aurretiaz fitxategi berri bat sortu, AEPDi fitxategiaren existentzia eta helburua jakinarazi eta RGPDn inskribatu behar da. Datu pertsonalen babeserako ikuspegitik beraz, RFID txartel elektronikoaren okerreko erabilera desberdinen ondorioz DBLO eta DBEn aurreikusitako arau-hauste tipologia ezberdinak eman daitezke¹⁷⁴².

Lan sarrera-irteera orduak kontrolatzeko txartel elektronikoekin batera, RFID etiketak lan uniformeetan txertatu izan diren kasu batzuk dokumentatu dira. Horren helburua, lan eremuan langileen mugimenduak eta kokapena kontrolatzea. Aurreko kasuan azaldu diren baldintza normatiboak beteta ere (AEPD helburu eta datu-fitxategiaz ohartarazi, RGPDn erregistratu eta langilea eta enpresa komitea neurri horrez informatu), bigarren zaintza neurri hori kontrol neurri ez-proporzionala kontsideratu daiteke. RFID etiketa aktiboek eskaintzen dituzten prestazioei esker, zaintza neurri horrek enpresariari langileen mugimenduak zehaztasun handiz kontrolatzeko gaitasuna ematen die, beren lan jarduera uneoro eta sistematikoki monitorizatzeko ahalmena alegia. Jokoan dauden

¹⁷³⁸ DBLO, 5. art.

¹⁷³⁹ RFID sistema bidezko txartel elektronikoak erabiltzen dituzten sei enpresa Estatu Batuarrei *Rand* izeneko korporazioak eginiko inkesta batetan, kasu ia gehienetan ez zitzairen langileei RFID teknologia erabiltzen zutenik aditzera ematen. Informea: RAND, *Research brief, Privacy in the Workplace*, 2005.

¹⁷⁴⁰ BIBBY, op. cit, 9. orr.

¹⁷⁴¹ RFID etiketadun txartelak ezin daitezke legitimoak ez diren helburuetarako erabili. Esate baterako, komunean edo aldageletako sarrera-irteerak kontrolatzeko, langileak espazio horietan zenbat denbora pasatzen duen zehaztasunek jakin nahi izatea ez dut helburu legitimoa kontsideratzen.

¹⁷⁴² AEPD-ri fitxategi eta helburu berriaren existentzia ez notifikatzea eta ondorioz RGPDn ez erregistratzea (DBLO 44.2.c) art.), edota datu pertsonalak titularrak informatu gabe tratatzea (DBLO 44.2.d) art.) arau-hauste arinak kontsideratzen dira. RFID txartel elektronikoaren datuak erabilera ez legitimoetarako (langileak komunean pasatzen duen denbora zehaztasunez kontrolatzea erabilera ez legitimoa dela argudiatu daiteke) erabiltzen badira arau hauste larria (DBLO 44.3.d) art.) eta muturreko kasuetan oso larria (44.4.f) art.) izan daiteke.

enpresariaren kontrol ahalmenaren eta langileen pribatutasun esfera babesten duten eskubideen arteko ponderaketa egitean, langileen mugimenduak uneoro monitorizatzea helburu duen RFID bidezko zaintza metodoaren erabilerak ez du proportzionaltasun printzipioa errespetatzen; zehazki, ez ditu beharrezkotasun eta zentzu hertsiko proportzionaltasun azpi-printzipioak betetzen.

RFID etiketadun lan uniformeen bidez langilearen portaera oro kontrola daiteke, lanarekin zerikusia dutenak eta ez bereizi gabe. Enpresariak, bestek beste, langilea komunera noiz eta zenbatetan doan, lan-deskantsu orduetan non egoten den eta zenbat denbora pasatzen duen, zein langileekin noiz eta non biltzen den eta antzeko informazio pertsonala modu sistematikoan eskuratu dezake. Tratutzen diren datu pertsonalak, gogora dezagun, bilatzen den helbururako egokiak, proposak eta ez-gehiegizkoak izan behar dira¹⁷⁴³. Langilearen autodeterminazio informatiborako eskubidearen, baina baita intimitaterako eskubidearen eta mugimendu askatasunaren ikuspegitik ere, RFID etiketa aktiboen bidez langileen uneoroko kokapenari buruz jasotzen den informazio kopuru masibo hori erabat gehiegizkoa da.

Funtsean, RFID etiketa aktiboen langileak duen lan betebeharren konplimentuaren kontrol funtzioa gaintzen duen informazio pertsonala eskaintzen diote enpresariari. Beraz, langilearen autodeterminazio informatiborako eskubidea, intimitaterako eskubidea eta azken horrekin lotuta bere mugimendu askatasuna modu ez legitimoan mugatzen duen zaintza-neurria da, enpresariaren kontrolatzeko ahalmenaren baitan justifikagarria eta legitimoa kontsidera ezin daitekeena. Bestalde, langileak bere lan betebeharrak konplitzen dituela kontrolatzeko hain intrusiboak ez diren bestelako zaintza-metodoak eskuragarri daude, lan eremuetan kokatutako kamerak esate baterako.

RFID etiketa aktiboak lan-zaintza sekreturako mekanismo bezala erabiliko liratekeen kasu hipotetiko batean, zaintzaren objektu den pertsonaren gainean egiten den kontrolaren iraunkortasun-irizpidea ardatzezko faktorea da epaileek zaintza neurri hori proportzionala den edo ez erabakitzerako orduan. EGEAk eta berriki AGk emandako jurisprudentzia ildo baten arabera¹⁷⁴⁴, zaintza helbururako erabilitako dispositibo edo teknologiaz independenteki, zaintzaren objektu den pertsonari buruzko informazioa modu sistematikoan eta etengabe jasotzen den kasuetan pertsona horren esfera pribatuan egindako esku-sartzea ezin daiteke proportzionala kontsideratu. AEPD-k ordea ez dio orain arte ildo horri heldu, enplegatzailearen eta enpleguaren artean existitzen den lan harremana oinarri hartuta, GPS dispositiboen erabileraren bidez bilatzen den zaintza helburuaren legitimotasuna justifikatu egiten baitu¹⁷⁴⁵. Datu pertsonalen babeserako

¹⁷⁴³ DBLO 4.1 art.

¹⁷⁴⁴ EGEAk erabiltzen duen jurisprudentzia ildo da. Ikus *Murray c. Reino Unido*, C-14310/88, (1994-09-21); *P.G y J.H c. Reino Unido*, C-44787/98, (2001-09-25); *Peck c. Reino Unido*, C-44647/98, 59. atala (2003-01-28). Espainiako AG-k ere irizpide berbera jarraitu zuen duela gutxi GPS bidezko zaintza sekretu baten inguruan emandako ebazpen batetan: AGren (Lan Arloko 1. Sailaren) 2012ko ekainaren 21eko ebazpena (RJ/2012/7627).

¹⁷⁴⁵ Bestek beste, ikusi AEPDren *resolución r/00956/2013*. GOÑI SEIN eta BARINA UBIÑAS autoreek planteamendu hori kritikatu egin dute, AEPDk neurri horiek justifikatzerako orduan ez baitu proportzionaltasun printzipioa aplikatzen (BARINAS UBIÑAS, 2013: 99; GOÑI SEIN, 2009:24-26).

agentzia frantsesak (CNIL) ordea, GPS sistemak langileak modu iraunkorrean kontrolatzeko ezin erabili daitekeela adierazi du¹⁷⁴⁶, egitate horrek proportzionaltasun printzipioa urratzen duenaren arrazoipean.

VII.2.C. Pazienteak

Atal honetan osasun arloan dagoeneko erabili den nanomaterialdun *Verichip* implanteak osasunari buruzko datuen (aurrerantzean, osasun-datuen) babes normatiboaren ikuspegitik planteatu ditzakeen arazoak aztertzen dira. Nanotxip hori, zehazki, pazienteen osasuna hobeto monitorizatzeko helburuz AEBko bi ospitalek 2004 eta 2006 urte bitartean 100 paziente ingururi eskuineko besoan inplantatu zieten¹⁷⁴⁷. Analisi horretan murgildu aurretik ordea, DBLOk osasun-datuei aintzatesten dien estatus juridiko bereziaren nondik norakoak ulertzea beharrezkoa da.

VII.2.C.a. Osasun-datuak, legeak bereziki babesten dituen datu pertsonalak

Osasun-datuak legeak bereziki babesten dituen datu pertsonalen (“datu sentiberak”¹⁷⁴⁸ izenekoak”) kategoria konkretu bat dira. Osasun-datuei araudiak eskaintzen dien estatus juridiko berezia kontuan izanik, autodeterminazio informatiborako eskubidearen ikuspegitik datu horien tratamendu irregularrek eskubide horren urraperen larria eragiten dute¹⁷⁴⁹. Hurrengo lerrootan beraz, osasun-datuak “datu sentiberak” izanagatik, araudiak beren tratamendurako eta datuok gordetzen diren fitxategien (historial klinikoaren) segurtasunerako aurreikusten dituen baldintza normatibo indartuen azalpena egiten da.

Osasun-datuak tratatu ahal izateko beren titularrak aurretiaz eta berariaz horretarako baimena eman behar du¹⁷⁵⁰. Arau orokor horrek aitzitik salbuespenak onartzen ditu, betiere bi baldintza betetzen diren kasuetan. Alde batetik, osasun-datuen tratamenduak interes orokorreko¹⁷⁵¹ arrazoiren batean oinarritu behar da, eta bestetik, tratamendu konkretu hori

¹⁷⁴⁶ CNIL, 2013.

¹⁷⁴⁷ MILLER eta KEARNES, 2012: 15-16.

¹⁷⁴⁸ DBLO, 7.3 art. Osasunari buruzko datuekin batera, DBLOk honako datuak ere bereziki babesten ditu: pertsonen ideologia, afiliazio sindikala, erlijioa eta sinesmenei buruzko datuak, norbere arrazazko jatorriaren edo bizitza sexualaren ingurukoak eta arau hauste penal eta administratiboei buruzkoak. Bereziki babestutako datuen horiek kategoria desberdinetan banatzen diren aldetik, DBLOk eta DBEk kategoria bakoitzaren tratamendurako baldintza normatibo desberdinak aurreikusten dituzte (idea orokor bat egiteko, ikus DBLO 7.art).

¹⁷⁴⁹ VÁZQUEZ DE CASTRO, 2014: 72.

¹⁷⁵⁰ DBLO, 7.3 eta PAL, 7.1

¹⁷⁵¹ Osasun-datuak beren titularraren baimenik gabe tratatu ahal izateko DBLO 7.3 artikulua interes orokorra bezalako kontzeptu abstraktu bat hartzen du euskarri bezala. Interes orokorra bezalako kontzeptu zehaztugabe eta interpretagarri horrek I titularraren baimenik gabeko osasun-datuen tratamenduen kasuistika legal zabala aurreikusteko aukera eskaintzen dio legegileari, datu sentiberen babes normatibo indartu horren zentzuaren aurka doana. Alde horretatik, Unai Aberasturik zehaztasun normatibo handiagoa eskaintzen duen bestelako formula juridiko bat beharrezkoa dela argudiatzen du osasun-datuak tratatzeko

lege mailako arau batean aurreikusi behar da. Interes orokorreko arrazoiaren eta habilitazio legalaren baldintza normatibo horien konplimentudan, DBLOk osasun-datuak pazienteen baimenik gabe tratatu daitezkeen kasu bat aurreikusten du, honako balditzak bete behar dituenak:¹⁷⁵²:

- a) Osasun-datuen tratamenduaren helburua pazienteen osasuna babestu eta zaintzea izan behar da. Beraz, datuen tratamendu hori osasunarekin zerikusia duten jarduerak egikaritzeko beharrezkoa den kasuetan eraman daiteke aurrera, hots, osasunaren prebentzio, asistentzia sanitarioaren prestazio, diagnostiko edo osasun zerbitzuen kudeaketarako beharrezkoa denean.
- b) Datuen tratamendu hori ezin du edonork egin. Zehazki, sekretu profesionala gordetzeko betebeharra duten profesional sanitarioek edo sekretua mantentzeko betebeharrak duen beste pertsonak soilik tratatu ditzakete¹⁷⁵³.
- c) Pazientearen osasun-datuen tratamendu hori non gauzatzen den ez da garrantzitsua. Osasun-datuen tratamendua ez da zertan osasun zentroetara (publiko edo pribatuetara) mugatu behar, horietatik kanpo beste leku batzuetan ere gauzatu behar izatea gerta baitaiteke, lantokian edota eskolan esate baterako¹⁷⁵⁴.

Osasunari buruzko datu pertsonalak historial klinikoa izeneko fitxategian gordetzen dira. Pazientearen asistentzia-prozesuan zehar bere egoera eta bilakaera klinikoari buruzko edozein motatako datu, balorazio eta informazio jasotzen duten dokumentuen multzoak osatzen du¹⁷⁵⁵ historial klinikoa eta funtsean, pazienteari asistentzia sanitario egokia bermatzera zuzendutako instrumentua da¹⁷⁵⁶. Araudiaren arabera, datu pertsonalak seguruak diren fitxategietan bakarrik erregistratu daitezke eta fitxategiaren arduradunak beharrezko antolaketa eta neurri teknikoak egokitu behar ditu osasun-datuak galdu, kaltetu edo baimendu gabeko sarrera edo tratamendurik ez dutela bermatzeko¹⁷⁵⁷. Bereziki babestutako datuak izanagatik, araudiak osasun-datuen osotasuna bermatzera eta sarrera ez-legitimoak saihestera zuzendutako segurtasun neurri zorrotzak aurreikusten ditu. Segurtasun neurri horiek osasun-datuak jaso eta biltzen dituen fitxategiaren (historial klinikoaren) babes maila altua bermatzea dute helburu. Orotara, historial klinikoa babesteko asmoz DBEk oinarrizko, maila ertaineko eta goi mailako segurtasun neurriak

titularraren baimena salbuetsi daitezkeen kasuak arautzerako orduan (ABERASTURI GORRIÑO, 2011: 367-368)

¹⁷⁵² Ikus DBLO, 7.6 art.

¹⁷⁵³ PAL, 2.7 art.

¹⁷⁵⁴ Unai Aberasturiren esanetan, DBLO 7.6 eta 8. artikuluen desberdintasuna horretan datza. 7.6 artikulua osasun-datuen tratamendua osasun zentroetatik kanpo egiten den kasuei egiten die erreferentzia eta 8. artikulua ostera, osasun zentroetan (publiko edo pribatuek) egindakoei. Hala eta guztiz ere, bi artikulua horien desberdintasunaren inguruan bestelako interpretazio doktrinalak egin dira. Eztabaida doktrinal horri buruz, ikus ABERASTURI GORRIÑO, op. cit, 369-373.orr.

¹⁷⁵⁵ PAL, 3. art.

¹⁷⁵⁶ PAL, 16.1 art.

¹⁷⁵⁷ DBLO, 9.1 eta 9.2. art.

hartzea exijitzen du¹⁷⁵⁸. Bestalde, pazienteen historial klinikoen segurtasunaren gaineko erantzukizuna partekatua¹⁷⁵⁹ da, pazientea artatzen duen profesional sanitarioaren eta zentro sanitariooko zuzendaritzaren artekoa.

Osasun-datu zer kontsideratzen den edo ez zehazterako orduan, aitzitik, ez DBLOk ezta PALEk ere ez dute estatus normatibo berezia duen kategoria horretan zein nolako datuak barneratu erabakitzeko argibide normatiborik eskaintzen. Izan ere, lege horiek ez dute osasun-datuen kontzeptu edo definizio zehatzik aurreikusten. Ondorioz, arauketa nazionalak eragindako zehaztugabetasun kontzeptual horren aurrean eta DBEk 2007an behingoz definitu zituen arte, osasun-datuak zer kontsideratu interpretatu ahal izateko datu pertsonalen inguruan Europar Kontseiluak onartutako arauketaren zentzuari jarraitu behar izan zaio. Zehazki, Europako Kontseiluaren 108. Konbentzioaren azalpen memoriak¹⁷⁶⁰ bere 45. atalean osasun-datuak “iragan, orainaldi eta etorkizuneko osasun fisiko eta mentalari buruzko informazioa” bezala definitzen ditu, hamarkada batzuk beranduago DBEk *ex novo* definitu dituen modu berdintsuan¹⁷⁶¹. Bestalde, 108. Konbentzioaren 45. atal horrek “alkoholaren gehiegizko kontsumoari eta drogak hartzeari buruzko informazioa” ere osasun-datuak direla interpretatzen du.

Osasun-datuen kontzeptuari argitasun normatibo pixka bat eskaintzen badio ere, Europako Kontseilu mailan egituratutako definizio horrek ez du osasun-datu bezala zeintzuk kontsideratu behar diren edo ez zehazteko erantzun erabakigarriarik eskaintzen. Legeak bereziki babesten dituen datu pertsonalen kategoria baten aurrean gaudela kontuan hartuz, ikuspegi juridikotik osasun-datuak zeintzuk kontsideratzen diren zehaztea garrantzitsua da. Izan ere, osasun arloan pazientearen eta jarduera horretan lan egiten duten pertsonal mediku eta administratiboaren arteko informazio fluxua ugaria da. Pazienteari asistentzia egokia emateko helburuz, izaera heterogeneoa duten datu pertsonalen tratamendua gertatzen da: pazientearen osasunari buruzko datuez gain, osasunarekin harreman estua duten datuak (adibidez, drogen kontsumoari buruzkoa) edota osasunarekin zirikusi zuzenik ez duten datu administratibo eta ekonomikoak ere tratatzen dira.

Osasun arloan maneiatzen den informazio fluxu ugari hori aintzat hartuta, Europar Kontseilu¹⁷⁶², EB¹⁷⁶³ eta Espainia mailan¹⁷⁶⁴ orokorrean osasun-datuen kontzeptua modu

¹⁷⁵⁸ DBE 81.3.a) art. Maila desberdineko segurtasun neurri horiek erregelamenduaren 3. kapituluan 89-104 artikulua bitartean (fitxategi eta datuen-tratamendu automatizatuen kasuan) eta 4. kapituluan 105-114 artikulua bitartean arautzen dira.

¹⁷⁵⁹ PAL, 17.3, 17.4 eta 17.5 art.

¹⁷⁶⁰ *Explanatory Report to the Convention for the Protection of Individuals with regard to Automatic Processing of Personal Data*

¹⁷⁶¹ DBE 5.1.g) art: *las informaciones concernientes a la salud pasada, presente y futura, física o mental, de un individuo. En particular, se consideran datos relacionados con la salud de las personas los referidos a su porcentaje de discapacidad y a su información genética.*

¹⁷⁶² Europar Kontseiluko Ministroen Komiteak 1997. urtean emandako R5 (97) Gomendioaren arabera, pazientearen osasunari buruzko datuez gain, osasunarekin harreman estua duten datuak ere osasun datuen kategoria juridikoan barneratzen dira: “*todos los datos de carácter personal relativos a la salud de una persona, datos manifiesta y estrechamente relacionados con la salud, así como las informaciones genéticas*”.

zabalean interpretatzen da: pazientearen osasun egoera eksklusiboki adierazten duten datuez gain, osasunarekin harreman estua duten datuak ere osasun-datuak kontsideratzen dira. Historial klinikoan jasotzen diren pazienteen datu administratibo edo ekonomikoek osasunarekin zuzeneko loturarik ez badute ere, zenbait kasutan datu horien tratamendutik pazientearen osasunarekin zerikusia duen informazioa deduzitu daiteke¹⁷⁶⁵. Alde horretatik, “29. Artikuluko” Lan-taldeak¹⁷⁶⁶ eta doktrinaren zati batek¹⁷⁶⁷ osasun arloan tratatzen diren pazienteen datu administratibo eta ekonomikoak, pazienteen historial-klinikoan barneratzen diren heinean, osasun-datuen kontsiderazioa izan behar dutela arrazoitzen dute.

VII.2.C.b. Pazienteen osasuna monitorizatzeko helburuz erabilitako *Verichip* inplanteak

Teknologia berrien erabilerak osasun zerbitzu eroso eta azkarragoa emateko bitartekoak eskaintzen dituela zalantzan jartzen ez bada ere, beren erabilerak aldi berean intimitate eta autodeterminazio informatiborako eskubideetan negatiboki eragin dezakete. Kontsekuenteki, mehatxu berri horien aurrean legediak osasun-datuak babesteko aurreikusten dituen neurri normatiboak aproposak diren berrikusi, eta dagokion kasuetan berregokitu egin behar dira¹⁷⁶⁸. Medikuntza arloan erabiltzen diren teknologia anitzen artean, azken urteotan RFID teknologian oinarritutako dispositiboek gorakada nabarmena¹⁷⁶⁹ izan dute osasun-datuak jaso eta gordetzeko eskaintzen dituzten abantailengatik. Azpi-atal honen hasieran aipatu den legez, pazienteen osasunaren monitorizazioa hobetzeko asmoz RFID etiketak erabiltzen dituen eta nanomaterialez eginda dauden *Verichip* izeneko gorputz-inplanteak erabili diren kasu batzuk dokumentatu dira. *Verichip* horrek pazientearen baimen informaturako oinarrizko eskubidearen ikuspegitik planteatzen dituzten erronkekin batera (kapitulu honen VI. atalean aztertzen direnak), intimitate eta autodeterminazio informatiborako eskubideen prismatik ere kezka ugari eragiten ditu.

¹⁷⁶³ EBJAk 2003ko azaroaren 6an emandako sententzian (C-101/01), datuen babeserako 95/46 Zuzentarauaren objektua aintzat hartuta osasun-datuak (zuzentarauaren 8.1 artikuluan arautuak) modu zabalean interpretatu behar direla adierazi zuen.

¹⁷⁶⁴ Auzitegi desberdinek emandako ebazpen eta AEPD Agentziaren informeak. Besteak beste, ENE, 2005-04-27 (rec. 305/2003), ez-gaitasun datuak osasun-datuak kontsideratu zituena; Madriliko JANE, 2000-08-12 (rec. 1691/1997) eta ENE, 2005-09/21 (rec. 1171/2003), aseguru enpresek beren bezeroen osasun-datuen tratamendu desegokiari buruzkoak edota AEPDren 0129/2005 informea, erretzaileen datuak duen izaerari buruzkoa.

¹⁷⁶⁵ Pazienteen datu ekonomikoak tratatuz osasunaren ikuspegitik izan ditzakeen gaitzen inguruko informazioa lortu daiteke, adibidez, pazienteak egindako protesi erosketaren fakturaren kasuan (ikus AEPD agentziaren 0625/2009 informea).

¹⁷⁶⁶ Datuen babeserako 95/46 Zuzentarauaren 29. artikulua sortutako organo aholku-emaile independente honek 2007an emandako informe batetan dokumentu medikuetan historial mediku elektronikoetan jasotako datu oro “datu sentibera” kontsideratzea gomendatu zuen. ARTICLE 29 Data Protection Working Party, 2007: 7.

¹⁷⁶⁷ ABERASTURI GORRIÑO, op. cit, 143. orr; LARIOS RICO, 2009: 163.

¹⁷⁶⁸ ENE, 2010-02-11, 3. o.j.

¹⁷⁶⁹ Besteak beste irakurri MARTÍNEZ PÉREZ, 2012; PORTILLO GARCÍA et al, 2008.

Esan bezala, profesional sanitarioek osasuna babesteko helburupean gauzatutako osasun-datuen tratamenduak ez du beren titularraren baimenik eskatzen. Arau horri jarraiki, *Verichip* izeneko inplante horren bitartez pazientearen osasun-datuak bere baimenik gabe lortu eta tratatu daitezkeela ulertu daiteke. Osasun-datuak tratatzeko pazientearen baimena lortzea beharrezkoa ez bada ere, pazienteak aldeztatik *Verichip* hori bere gorputzean txertatzeko interbentzio medikoa modu informatuan baimendu behar izan du. Alegia, txip hori bitarteko bezala erabiliz osasun-datuak tratatzen hasi aurretik, pazienteak baimen informaturako oinarritzko eskubidea egikaritu izana ezinbesteko baldintza da.

Pazienteak txip hori gorputzean inplantatzeko baimena eman edo ez modu kontzientean erabaki ahal izateko, txip hori gorputzean inplantatzeko egin behar den ebakuntza medikoari buruzko informazioz gain, pazienteari *Verichip* horren helburua zein den eta hori erdiesteko erabiltzen den RFID etiketak zertan datzan osotasunez eta egokitasunez informatu behar zaio¹⁷⁷⁰. Osasuna hobeto monitorizatzeko helburupean, txip horrek osasun-datuak jaso eta internet bidez interkonektatuta dagoen sare digital batera bidaltzen dituela azaldu behar zaio pazienteari, osasun-datuen babesaren ikuspegitik RFID sistemaren segurtasun maila baxuak planteatu ditzakeen arazoei buruzko informazioa barne. Ondorioz, nahiz eta baimen informaturako eskubidearen egikaritzaren bitartez izan, *Verichip* horren ebakuntza medikoa baimendu edo ez erabakitzerako momentuan, pazienteak faktikoki bere osasun-datuak RFID sistemaren bidez tratatzea baimentzen duen edo ez erabakitzen du.

Pazienteak txip horren bidez bere osasun-datuak tratatzeko baimena ematen badu, pazientearen osasuna hobeto monitorizatzeko helburupean txipak egiten duen osasun-datuen tratamendua proportzionala izan behar. Beste modu batera esanda, helburu hori gauzatze aldera tratatzen diren pazientearen datu pertsonalak ezin dira gehiegizkoak izan¹⁷⁷¹ (*datos no excesivos para el fin perseguido*). Nanoteknologiak medikuntza arloan duten garapenaren abiadura ikusirik, nanomaterialen hurrengo belaunaldien bidez osasunaren eta gorputzeko fisiologiaren datu gero eta gehiago eta gero eta zehatzagoak lortu ahalko direla pentsa liteke, norbere gorputzari buruzko sakoneneko elementuei buruzko informazio sofistikuagoa alegia. Osasuna monitorizatzeaz harago, RFID etiketak helburu sanitarioaz gaindiko beste helburu batzuetara desbideratzea gerta daiteke: lan arloan pertsona bat kontratatu edo kaleratzeko, edota seguru-etxeen kasuan, seguru bat eman edo ez erabakitzeko irizpide bezala.

Verichip inplanteen erabilerak datu pertsonalen babesaren ikuspegitik planteatzen duen beste arazoetako bat osasun-datu horiek biltzen diren fitxategiaren segurtasuna da, hots, RFID etiketarena. Etiketa horrek osasun-datuak jaso eta irriti bidezko seinaleak emitituz internet bidez interkonektatuta dagoen informazio sare digital batera transmititzen ditu. Legediak osasun-datuen segurtasuna babesteko arautzen dituen segurtasun-neurri zorrotzen aurrean, RFID etiketa segurtasun maila baxua eskaintzen duen fitxategia da.

¹⁷⁷⁰ PAL, 4.1. eta 5.2 art.

¹⁷⁷¹ 15/1999 Lege Organikoa, 4.1. art.

Alde batetik, osasun-datuak transmititzeko erabiltzen den irrati bidezko seinaleen emisioa seinale horiek irakurtzeko gai den edozein dispositiboren bidez izan daiteke atzema. Gainera, osasun-datueta sarrera ez legitimoa gertatzen den kasu horietan, RFID sistemak ez du sarrera ez legitimo hori erregistratzeko gaitasunik. Alegia, RFID sistemaren bidez datu pertsonalak transmititzean osasun-datuak modu ez legitimoan eta inolako arrastorik utzi gabe eskuratzea teknikoki posible da¹⁷⁷². Bestetik, RFID sistemak datuak transmititzeko internet erabiltzen duenez eraso zibernetiko ugariren¹⁷⁷³ objektu izan daiteke, gordeta dituen osasun-datuak kaltetu, aldatu eta suntsitzeko gaitasuna dutenak.

Arauketak exijitzen duenaren aurka¹⁷⁷⁴, RFID etiketek ez dute jasotzen dituzten datu pertsonalen osotasuna eta segurtasuna bermatzeko gaitasun tekniko nahikorik erakusten. Etiketa horiek ez dira gai osasun-datuen fitxategiek konplitu behar dituzten erregelamendu bidezko maila goreneko segurtasun neurriak¹⁷⁷⁵ betetzeko. Segurtasun maila baxu hori aintzat hartuta, ez dute fitxategi bezala osasun-datuen kalitatea bermatu eta pazienteen autodeterminazio informatiborako eskubidea babesteko balio. Ondorioz, RFID etiketak ezin dira osasun-datuak (ezta bestelako datu pertsonalak) erregistratzeko fitxategi bezala erabili, arau-hauste larria¹⁷⁷⁶ suposatuko lukeen egitatea.

VII.2.D. Askatasun gabetze egoeran dauden pertsonak

Kapitulu honen V.2.C. azpi-atalean honako egoeraren azterketa egin da: espetxeko bizikidetzat ordenatua eta barne segurtasuna mantentzeko helburuz, drogen kontsumoa kontrolatzeko *Verichip* izeneko nanotxipa presoaren gorputzean bere baimenik gabe inplantatzeak osotasun fisikorako eskubidearen ikuspegitik planteatzen zituen arazoak. Azpi-atal honen helburua, baldintza berberetan presoari horrelako nanotxipik inplantatzeak intimitaterako eskubidearen eta bereziki autodeterminazio informatiborako eskubidearen prismatik suposatu ditzakeen erronken analisisa egitea da. Aipatu berri den azterketan murgildu aurretik, lehenik eta behin pribatutasun esfera babestea xede duten eskubideek espetxe erregimenean jasaten dituzten mugapen normatiboak azaltzea beharrezkoa da.

¹⁷⁷² MILLER eta KEARNES, 2012: 29.

¹⁷⁷³ INTECO eta AEPD, 2010: 31-35. Eraso zibernetiko batzuk aipatzearen: *malware, spoofing, man in the middle* edota seinale faltsuen emisioa.

¹⁷⁷⁴ DBLO, 9.2 art.

¹⁷⁷⁵ DBE 81.3.a) artikularen arabera, osasun-datuak biltzen dituzten fitxategiek oinarritzko, maila ertaineko eta goi mailako segurtasun neurriak bete behar dituzte. Segurtasun neurri horiek DBEren 89-104 artikulatu bitartean jasotzen dira.

¹⁷⁷⁶ DBLO, 44.3.h) art.

VII.2.D.a. Intimitate eta autodeterminazio informatiborako eskubideak, espetxe erregimenean

Askatasun gabetze egoerak oinarritzko eskubideen ikuspegitik dakartzan mugapenen artean ondorio mingarrienetako bat presoek beren pribatutasun esferan jasaten duten murrizketa da¹⁷⁷⁷. Kartzelen berezko funtzionamenduaren ondorioz, presoek intimitaterako eskubidea¹⁷⁷⁸ beren barne bizitzaren eremurik erreserbatuenera murrizten da: espetxe erregimenetik at norbere bizitza pribatuaren esfera barneko elementua kontsideratzen diren asko, askatasun gabetze egoeran jakintza publikoko elementu bihurtzen dira¹⁷⁷⁹, espetxeko bizikidetzatza ordenatua eta barne segurtasuna mantentzeko beharrezkoak diren aldetik.

Askatasun gabetze egoeran presoek beren pribatutasun esferan sufritzen duten murrizketa horrek eskubide desberdinei eragiten die, esate baterako, bizilekuaren bortxazintasun, gorputz intimitate eta komunikazioen sekretutasunari. Alde batetik, Espetxeen Lege Organiko Orokorrak (ELOO) preso bakoitzari arau orokor bezala zelda bat bermatu behar zaiola ezartzen du¹⁷⁸⁰. Espainiako kartzelek egun bizi duten gainpopulazioaren ondorioz arau orokor hori salbuespen bihurtu da eta AK-k zelda partekatuek presoek intimitatea urratzen ez dutela interpretatu du¹⁷⁸¹. Bestetik, kapitulu honen V.2.C.a azpiatalean aztertu den bezala, preso batek bere edo 3. Pertsona baten osasun edo osotasun fisikoan kalteak eragin ditzakeen edota espetxeko segurtasun edo bizikidetzatza aztoratu dezakeen objekturik ezkutatzen duela arrazoi indibidual eta kontrastatuak existitzen diren kasuetan, espetxe erregelamenduak baimen judizialik lortu beharrik gabe preso hori biluzarazi eta gorputz osoko miaketa egiteko ahalmena aintzatesten die kartzelako funtzionarioei; ahalmen horrek presoak bere gorputzarekiko duen intimitatearen mugapen esanguratsua eragite du¹⁷⁸². Azkenik, arau orokor bezala idatzizko edo ahozko komunikazioak esku-hartzeko aurretiaz epailearen baimen judiziala lortzea ezinbestekoa bada ere, askatasun gabetze egoeran berme judizial horren murrizketa gertatzen da: epailea izan beharrean, espetxeko zuzendaria da ebazpen motibatu bidez komunikazioak eten eta esku-hartzeko eskumena daukana, epaile eskudunari betiere horren berri emanez¹⁷⁸³.

Autodeterminazio informatiborako eskubidearen prismatik aztertuta, presoek datu pertsonalen tratamenduari legedi orokorra zaie aplikagarri, hots, DBLO eta DBEK

¹⁷⁷⁷ REVIRIEGO PICÓN, 2004: 92-93, 2006: 461; LÓPEZ MELERO, 2011: 256-257.

¹⁷⁷⁸ EE, 4.2.b) art.

¹⁷⁷⁹ AKE 89/1987.

¹⁷⁸⁰ ELOO, 19.1 art.

¹⁷⁸¹ AKE 195/1995.

¹⁷⁸² Presoaren gorputz intimitatearen mugapen neurri horren egikaritzea ezin da edonolakoa izan, proportzionaltasun printzipioaren arabera baizik. Bilatzen den helbururako beharrezkotzat jotzen denean soilik egikaritu daitekeen segurtasun neurria da eta bere egikaritzak presoaren intimitatea helburua lortzeko beharrezkoa den heinean mugatu dezake, ez gehiago. Kontrako kasuan, presoaren intimitaterako eskubidea urratu egiten dela ulertu behar da (ikus AKEE 57/1994, 207/1996; 218/2002).

¹⁷⁸³ ELOO, 51.5 art; EE, 43-44. art. Komunikazio mota desberdinen etete edo esku-hartzeek izan behar duten motibazioaren inguruan, ikus AKEE 73/1983, 127/1996; 170/1996; 58/1998; 175/2000; 106/2001). Presoek komunikazio sekretutasunari buruzko analisi sakonagorako, REVIRIEGO PICÓN, 2006: 468-474; REVIRIEGO PICÓN eta BRAGE CAMAZANO, 2010.

egituratzen duten marko juridikoa¹⁷⁸⁴. Administrazio publikoek legean aurreikusitako funtzioen egikaritzan ez dute beren titularren baimen behar bere datu pertsonalak tratatzeko¹⁷⁸⁵. Legeak espetxe administrazioari presondegiko segurtasuna eta bizikidetzaren ordenatu eta baketsua mantentzeko funtzioa¹⁷⁸⁶ aurreikusten dion neurrian, funtzio horren egikaritzan ez du preso baimenik behar bere datu pertsonalak jasotzeko, presoaren ideologia, erlijio edo sinesmenei buruzko datuen kasuan salbu¹⁷⁸⁷ (kontrako kasuan EK-ko 16.2 artikulua urratuko litzateke¹⁷⁸⁸).

Bestalde, espetxe administrazioak beste administrazio publiko batzuei presoaren datu pertsonalak lagatzeko, arau orokor bezala, ez da datuen titularren baimenik behar. Zerbitzu militarrean errekrutatzeko, zerbitzu sozialetarako, Gizarte Segurantzarako, adingabeen zaintzarako eta analogoak diren gaietan, eskudunak diren administrazio publikoek presoaren datu pertsonalak beren baimenik gabe laga dakizkieke¹⁷⁸⁹. Arau berbera aplikatzen da Herri Defendatzaileari edo horren analogoa den erakunde bati (Arartekoari esaterako) presoaren datu pertsonalak espetxe-gaiekin zerikusia duten betearazpen-eskumenen egikaritzarako lagatzen zaizkienean, edo Ministerio Fiskalari, epaileei edo Auzitegiei beren eskumenpeko gaietarako, edo presazko arrazoiak direla medio azterketa epidemiologikoak egiteko osasun-datuak lagatzen zaizkienean¹⁷⁹⁰, eta azkenik, nazioarteko justizia kasuetan¹⁷⁹¹. Espetxe administrazioaren eta beste administrazio publikoen artean presoaren baimenik gabeko datu pertsonalen lagapen arau horiek ez zaizkie honako datu pertsonalei aplikatzen: izaera politiko, erlijioso edo filosofikoa duten, edo arraza, etnia-jatorri eta osasun zein bizitza sexualari buruzko datu pertsonalei. Kasu horietan arau orokor bezala beren lagapenerako aurretiaz presoaren esanbidezko baimen idatzia lortu behar da, lagapen hori interes orokorreko arrazoiak direla medio lege batean aurreikusten denean izan ezik¹⁷⁹².

Datu pertsonalen tratamenduari buruzko marko normatibo orokorrak eskatzen duen bezala, presoaren datu pertsonalak biltzen diren fitxategien osotasuna eta segurtasuna bermatzeko ardura duten espetxe-agintariek beharrezkoak diren neurri teknikoak eta antolakuntzakoak onartu behar dituzte. Datu pertsonalak tratatzen dituzten pertsonekin batera, legediak espetxe-agintariei datu horiei buruzko sekretu profesionala gordetzeko mandatua ezartzen die¹⁷⁹³.

¹⁷⁸⁴ EE, 6.2 art.

¹⁷⁸⁵ DBLO, 6.2 art; DBE, 103.a) art.

¹⁷⁸⁶ ELOO, 41.1 art.

¹⁷⁸⁷ EE, 7.1 art.

¹⁷⁸⁸ EK 16.2 art: “*Nadie podrá ser obligado a declarar sobre su ideología, religión o creencias*”.

¹⁷⁸⁹ EE, 7.2 art.

¹⁷⁹⁰ EE, 7.3 art.

¹⁷⁹¹ EE, 7.4 art.

¹⁷⁹² EE, 8.1 art.

¹⁷⁹³ EE, 6.3 art.

VII.2.D.b. Nanotxip inplanteen erabilera, presoen drogen kontsumoa detektatzeko intimitate eta autodeterminazio informatiborako eskubideei eragiten dien segurtasun neurri bezala

Kapitulu honen V.2.C.b. atalean aipatutakora bueltatuz, drogen kontsumoa espetxearen barne-segurtasunari eragin diezaiokeen faktore esanguratsua da, drogak kontsumitzen dituen presoen osotasun fisikoa eta osasuna kaltetzeaz gain. Espetxe eremuan drogen trafikoa eta kontsumoa murriztea helburu duten neurri desberdinen artean, dagoeneko aztertu den bezala, presoen baimenik gabe bere gorputzean inplantatutako nanotxipak bere osotasun fisikorako eskubideari eragiten dion mugapena ezin daiteke proportzionala kontsideratu. Osotasun fisikorako eskubideaz gain, presoek drogarik kontsumitzen duten detektatzea xede duen nanotxip horrek presoen pribatutasun esferari modu zuzenean eragiten dio, intimitaterako eskubidea eta batez ere autodeterminazio informatiborako eskubidea kolokan jartzen baititu. Hurrengo lerroetan arrazoitzen den gisan, presoen drogen kontsumoari buruzko datu pertsonalak osasun-datuak kontsideratu behar dira, legeak bereziki babesten dituenak. Osasun-datuen jasotze eta lagapenari baldintza normatibo zorrotzagoak aplikagarri zaizkiela kontuan izanik, nanotxipen erabileraren kasuan espetxe administrazioak datu horiek jaso eta lagatzeko eragozpen normatibo garrantzitsuak izan ditzake.

Osasun-datuen inguruan DBEk egiten duen definizioak kategoria horren barnean zein nolako datuak barneratu behar diren argitzeko irizpide nahikorik eskaintzen ez badu ere¹⁷⁹⁴, instantzia desberdinek¹⁷⁹⁵ kontzeptu normatibo hori modu zabalean interpretatu dute: pazientearen osasun egoera eskusiboki adierazten duten datuez gain, osasunarekin harreman estua duten datuak, legeari begira, osasun-datuen kontsiderazioa izan dezakete. Kontzeptu normatibo zabal horren barnean, drogen kontsumoari buruzko datuak ere osasun-datuak kontsidera daitezke. Izan ere, datuen tratamenduari buruzko Europar Kontseiluaren 108 Konbentzioaren azalpen memoriak¹⁷⁹⁶, bere 45. atalean, “alkoholaren gehiegizko kontsumoari eta drogen hartzeari buruzko informazioa” osasun-datu bezala kalifikatu zituen. Ikusi daitekeen bezala, azalpen memoriak bi datu bereizten ditu, alde batetik alkoholaren gehiegizko kontsumoari buruzko datuak, eta bestetik, drogen kontsumoari buruzkoak. Lehenengo kasuan osasun-datua kontsideratzeko *alkoholaren gehiegizko kontsumoa* adierazten duen datua izan behar da, alkoholaren neurritz gaineko kontsumo-kantitatea islatzen duen datua alegia. Beraz, pertsona batek alkoholik kontsumitzen duen edo ez islatzen duen datu soila (kontsumoaren kantitaterik aipatu gabe) ez da osasun-datua kontsideratzen. Bigarren kasuan ordea, *drogen hartzeari* buruzko datuari egiten dio erreferentzia. Kontsekuenteki, osasun-datua kontsideratzeko ez da pertsona batek kontsumitu duen drogaren kantitatea adierazten duen datua izatea eskatzen, drogarik hartu izana islatzen duen datu hutsa (inolako kantitaterik agertu gabe beraz)

¹⁷⁹⁴ DBE, 5.1.g) art: “*las informaciones concernientes a la salud pasada, presente y futura, física o mental, de un individuo. En particular, se consideran datos relacionados con la salud de las personas los referidos a su porcentaje de discapacidad y a su información genética*”.

¹⁷⁹⁵ Osasun-datuen interpretazio zabalari buruz, ikus kapitulu honen VII.2.C.1 azpi-atalean azaldutakoa.

¹⁷⁹⁶ Gogoratu, *Explanatory Report to the Convention for the Protection of Individuals with regard to Automatic Processing of Personal Data*

nahikoa baita hura osasun-datutzat jotzeko. Hamarkada batzuk beranduago, AEPD agentziak ere irizpide berbera jarraitu du 0129/2005 informean¹⁷⁹⁷.

Azaldu berri diren irizpideak kontuan izanik, Verichip horien erabilerarekin presoaren droga kontsumoari buruz jasotzen diren datuak osasun-datuak direla onduzatu daiteke, kontsumoaren kantitatea agertzen den edo ez independenteki (alkoholaren kontsumoaren kasuan, kantitate zehatza agertu behar da osasun-datuak kontsideratzeko). DBLOren 7.3 artikulua gogora ekarriz, osasun-datuak tratatu ahal izateko, tratamendua hasi baino lehen titularraren berariazko baimena lortzea ezinbesteko baldintza da, interes orokorreko arrazoiren bat dela medio lege batean kontrakoa espresuki adierazten den kasuetan izan ezik. Kasu horietako bat DBLOren 7.6 eta 8. artikuluan aurreikusten da, asistentzia medikoa emateko helburuz profesional sanitarioek ez baitute pazientearen baimenik behar beren osasun-datuak tratatzeko. Arau hori espetze eremuan ere aplikagarria da, presoari asistentzia medikoa emateko helburuz espetxeetako osasun zerbitzuek ez baitiote presoari baimenik eskatu behar bere osasun-datuak tratatu ahal izateko¹⁷⁹⁸.

Esku artean dugun kasuan, aitzitik, presoaren droga-kontsumoari buruzko osasun-datuak ez da asistentzia medikoa emateko helburuz jasotzen, presondegiko bizikidetzaren ordenatua eta baketsua mantentzea helburu duen segurtasun neurri bezala baizik. Espetze erregelamenduaren 7.1 artikulua gogora ekarriz, presondegiko administrazioak legeak aurreikusten dizkion funtzioen egikaritzan presoaren datu pertsonalak jasotzeko ez du beren baimenik behar, presoaren ideologia, erlijio edo sinesmenei buruzko datuen kasuan salbu. Hala ere, xedapen normatibo hori DBLOren osasun-datuaren tratamendurako 7.3 artikuluan aurreikusten dituen baldintza normatiboekin batera interpretatu behar da.

Horren arabera, datu pertsonalak presoari osasun asistentzia ematea ez den beste helburuetarako jasotzen direnean, espetze administrazioak osasun-datuak jaso ahal izateko bere titularraren baimena beharrezkoa dela interpretatu behar da. Izan ere, kasu honetan ez dira titularraren baimena salbuesteko DBLOren 7.3 artikulua eskatzen dituen baldintza normatiboak betetzen: alde batetik, presoaren osasun-datuaren tratamendua interes orokorreko arrazoiren batean oinarritua egotea, eta bestetik, tratamendu hori lege mailako arau batean aurreikusia egotea¹⁷⁹⁹. EEko 7.1 artikulua presondegiko administrazioaren alde egiten duen habilitazioa orokorregia da; ez du osasun-datuak titularraren baimenik gabe jasotzeko DBLO 7.3 artikulua eskatzen duen zehaztasun normatibo nahikorik eskaintzen. Alegia, xedapen horrek ez dio espetze administrazioari osasun-datuak jasotzeko berariazko habilitaziorik egiten, isilbidezkoa baizik. Bestalde, DBLO 7.3 artikulua eskatzen duen

¹⁷⁹⁷ Ikus AEPD, 2005: 2. Tabakoaren kontsumoaren kasuan AEPDk alkoholaren kontsumoaren irizpide berbera aplikatzen du, alegia, osasun-datuak kontsideratzeko kontsumitutako tabakoaren kantitate zehatza agertu behar da.

¹⁷⁹⁸ Espetxeetako osasun zerbitzuei DBLOren 8. artikulua aplikagarri zaie, 16/2003 Legeak bere 6. xedapen gehigarrian espetxeetako osasun zerbitzuak Osasun Sistema Nazionalaren parte direla ematen baitu aditzera.

¹⁷⁹⁹ Interpretazio horren alde: ARMENTA GONZÁLEZ-PALENZUELA eta RODRÍGUEZ RAMÍREZ, 2006: 82-83.

interes orokorreko arrazoirik ere ez da esanbidez argudiatzen EE 7.1 artikuluan. Azkenik, beren eskumenpeko gaitan datu pertsonalak tratatzeko presondegiko administrazioaren alde egiten den habilitazio orokor hori ez da, DBLO 7.3 artikulua eskatzen duen moduan, lege mailako arau batetan jaso¹⁸⁰⁰, erregelamendu izaera duen arau batean baizik (Espetxeen Erregelamendua 190/1996 Errege Dekretuak arautzen du).

DBLOren 22.2 artikulua Segurtasun Indarrei helburu polizialeterako datu pertsonalak beren titularren baimenik gabe jaso eta tratatzeko aukera irekita uzten die. Hori posible izan dadin, datuon tratamendua segurtasun publikorako arrisku erreal bat saihesteko edo arau-hauste penalen errepresiorako beharrezkotzat jo behar da. Aipatu berri diren baldintzak ematen diren kasuetan, araudiak ez dio Segurtasun Indarrei edonolako datu pertsonalak jaso eta tratatzeko ahalmen orokorrik aintzatesten, kasu horietan beharrezkoak diren datu pertsonalak besterik ez baitituzte tratatu behar. DBLO 22.2 artikuluan jasotako arauketa, ordea, ez da orri hauetan zehar aztergai dugun kasuan aplikagarri, hainbat arrazoi direla medio. Lehenik eta behin, ez da aplikazio eremu subjektiboaren baldintza betetzen; espetxeko barne segurtasuna mantentzeko eskumena duten funtzionarioak ez dira Segurtasun indarrak kontsideratu behar, 2/1986 Lege Organikoaren zentzuari jarraiki¹⁸⁰¹. Bigarrenik, ez dira artikulua hori aplikatzeko eskatzen diren baldintza objektiboak betetzen. Alde batetik, drogen kontsumoa ez da arau-hauste penala, bide administratibotik zigortzen den egitatea baizik. Bestetik, drogen kontsumoak kartzelako bizikidetzan eragin negatiboak izan baditzake ere, eragin horien entitatea nekez kontsideratu daiteke segurtasun publikorako arrisku erreala, xedapenak eskatzen duen bezala.

Funtsean beraz, presoaren osasun-datuak segurtasun neurri bezala jaso eta tratatzeko espetxe administrazioarentzat presoaren aurretiazko eta berariazko baimena lortzea ezinbesteko baldintza kontsideratu behar da. Presoaren osasun-datuak jaso eta tratatu ahal izateko azaldutakoarekin lotuta, kartzelako pertsonal sanitarioek ezin diote presondegiko barne diziplina mantentzeko eskumena duten funtzionarioei segurtasun funtzioen egikaritzarako titularraren baimenik gabe bere osasun-datuen lagapenik egin. Izan ere, esku artean dugun kasua ez da osasun-datuak titularraren baimenik gabe lagatzeko legediak aurreikusten dituen kasuen artean barneratzen. Profesional sanitarioek 3. pertsonen pazienteen historiala laga ahal izateko, lagapenak helburu judizial, epidemiologiko, osasun publiko, ikerketa edo irakaskuntzarekin zerikusia izan behar du eta datu pertsonalak disoziatu egin behar dira identifikagarriak izan ez daitezen (ikerketa judizialerako datuak disoziatu gabe mantentzea ezinbestekoa den kasuetan salbu)¹⁸⁰². Aztergai dugun kasuan beraz, presoaren osasun-datuen lagapen hori ezin liteke gauzatu, osasun-datuen preso titularrak aurretiaz eta espresuki horretarako baimena eman ezean.

¹⁸⁰⁰ Presoen oinarritzko mugapenen kasuan hori bai, AK-k lege erreserbaren baldintza hori "leundu" eta mugapen horiek erregelamendu bidez "zehazteko" aukera aintzatesi du (ikus AKE 2/1987, 2. o.j.).

¹⁸⁰¹ Espetxeetako funtzionarioak ezin dira segurtasun indarrak kontsideratu, ez 2/1986 Lege Organikoaren 2. artikuluan (Segurtasun Indarrak zerrendatzen dituen) ezta 9. artikuluan ere (Estatuko Segurtasun Indarren zerrenda) ez baitira aurreikusi.

¹⁸⁰² PAL, 16.3 art.

Azkenik, *Verichip* inplanteak drogen kontsumoari buruzko datuak jaso eta bidaltzeko erabiltzen duen RFID sistema osasun-datuaren osotasuna eta segurtasuna bermatzeko gaitasunik tekniko nahikorik ez duen fitxategia dela gogorarazi behar da. RFID sistemak ez ditu osasun-datuak gordetzen diren fitxategiek bete behar dituzten maila goreneko segurtasun neurriak betetzen¹⁸⁰³ eta ondorioz, osasun-datuak RFID sisteman erregistratuz gero arau-hauste larri¹⁸⁰⁴ baten aurrean egongo ginateke.

VII.2.E. Intimitaterako eskubidea, autodeterminazio informatiborako eskubidea, mugimendu askatasuna eta nanoteknologiak: ondorio moduan

Datu pertsonalak norbanakoen identitate eta pertsonalitatearen alderdi konkretuak dira. Beraz, autodeterminazio informatiborako oinarritzko eskubideak (intimitaterako eskubidearen egikaritzea eraginkorrerako “berme institutua” dena) informazio pertsonalaren gainean bere titularrari autonomia eta kontrol gaitasuna ematen dio: arau orokor bezala, edozein datu pertsonal tratatu baino lehen titularraren baimen informatua lortzea ezinbesteko baldintza da, lege mailako arau batek salbuetsitako kasu justifikatuetan izan. Titularrak bere datu pertsonalekiko duen autonomia eta kontrol gaitasun horretan, DBLOk autodeterminazio informatiborako eskubidea eduki positibo eta negatiboz hornitu du.

Alde batetik, titularrak bere datu pertsonalen gainean ahalmen multzo bat dauka (eskubidearen eduki positiboa), “*habeas data*” deritzona: tratamenduaren objektu diren norbere datu pertsonaletara sartu, zuzendu, ezabatu eta datuon tratamenduak aurkatzeko eskubidea dauka, betiere DBLOn eta DBEn ezarritako baldintza normatiboek jarraiki. Bestetik, datu pertsonalen tratamendua kalitatezkoa izatea xede duten kontrol neurriek eskubidearen dimentsio negatiboa osatzen dute, hiru printzipio nagusitan oinarrituak: helburuzko printzipioa, egokitasun printzipioa eta egiazkotasun printzipioa. Helburuzko printzipioaren arabera, datu pertsonalak helburu zehatz, esanbidezko eta legitimo baterako jaso behar dira. Egokitasun printzipioaren arabera, jaso diren datu pertsonalak beren tratamendua motibatzen duen helburu hori betetzeko aproposak, egokiak eta ez-gehiagizkoak izan behar dira, hots, datu pertsonalen tratamendua proportzionaltasun printzipioaren arabera izan behar da. Azkenik, egiazkotasun printzipioak tratatzen diren datu pertsonalak zehatzak izatea eta momenturo eguneraturik egotea eskatzen du.

Prisma juridikotik aztertuta, datu pertsonalak zentzu zabalean ulertu behar dira; alegia, norbere pertsonalitatearekin zerikusia duen edozein informazio datu pertsonala da. Zentzu horretan, norbanakoen mugimenduei buruzko informazioa ere datu pertsonala kontsideratu behar da. Mugimendu askatasunaren¹⁸⁰⁵ dimentsio klasikoaz hitz egitean

¹⁸⁰³ Gogoratu, DBEren 89-104 artikuluko bitartean jasotakoak.

¹⁸⁰⁴ DBLO, 44.3.h) art.

¹⁸⁰⁵ Mugimendu askatasunarekin zerikusia duten oinarritzko eskubideak EKren 17. eta 19. artikuluan jasotzen dira. 17. artikuluan aurreikusitako askatasun pertsonalerako eskubideak mugimendu askatasun orokorra babesten du. 19. artikulua zirkulazio askatasuna aintzatesten du, mugimendu askatasunaren adierazpen zehatza den oinarritzko eskubidea.

askatasunez mugitzeko “gaitasun fisikoari” erreferentzia egiten badiogu ere, pertsonen etengabeko geolokalizazioa posible egiten duten dispositiboen erabilerak norbere pribatutasun esferaren babesarekin zerikusia duen dimentsioari eragiten dio; hots, norbere mugimenduei buruzko informazioa 3. pertsonen ezagutzatik kanpo mantentzeko norbanakoak duen arrazoizko itxaropenari. Zentzu horretan, mugimendu askatasun, autodeterminazio informatiborako eskubide eta intimitaterako eskubidearen arteko konexio puntu komun baten aurrean gaude, EAEko Justizia Auzitegiak lehenik eta AGk ondoren¹⁸⁰⁶ aintzatetsi duten harremana.

Atal honetan RFID etiketak (nanomaterialen erabileraren bidez beren ezaugarri eta prestazioetan hobekuntza jasaten dutenak) arlo komertzialean, lan eremuan, arlo sanitarioan eta espetxe erregimenean erabiltzean intimitaterako, autodeterminazio informatiborako eta mugimendu askatasunerako eskubideen prismetatik planteatu ditzaketen mehatxuen analisia egin da. Esparru horietan RFID etiketaren bidez egiten den datu pertsonalen tratamenduak legedian aurreikusitako helburu desberdinen konplimendua zuen xede: publizitate edo prospekzio komertzialerako, lan-jarduera kontrolatzeko, asistentzia sanitarioa hobetzeko eta espetxeko barne segurtasuna mantentzeko. Helburuak legitimoak izanik ere, horiek asebetetzeko RFID etiketek jasotzen duten informazio pertsonal kopurua gehiegizkotzat jo daiteke, kasuan kasu balantzaren beste aldean dauden eskubideak modu ez-proportzionalean mugatzen baitira.

Bestalde, kasu guztietan errepikatzen den beste arazo bat RFID etiketek datu pertsonalak gordetzeko fitxategi bezala duten segurtasun maila baxua da. RFID etiketek seinale irriak erabiltzen dituzte informazioa transmititzeko, oso modu errazean eta inolako arrastorik utzi gabe atzeman daitezkeenak. Alde horretatik, RFID etiketek ez dute gaitasun tekniko nahikorik datu pertsonalen osotasuna eta segurtasuna mantentzeko DBLOK eta DBEK aurreikusten dituzten seguratsun neurriei konplimendua emateko. Datu pertsonalen segurtasun gabezia horrek are garrantzi gehiago eskuratzen dute RFID etiketak osasun arloan edota kartzelan presoek drogen kontsumoa detektatzeko erabiltzen direnean, kasu horietan RFID etiketek osasun-datuak gordetzen baitituzte, legeak bereziki babesten dituen datu-pertsonalak. Jarraian RFID etiketak erabili diren lau eremu desberdin horien analisitik eratorritako ondorio nagusiak azaltzen dira.

Ikuspegi logistiko batetik aztertuta RFID etiketak abantaila komertzial esanguratsuak ditu, produktuen uneoroko geolokalizazioaren bidez beren horniketa, antolakuntza, segurtasuna edota identifikazioa nabarmen hobetzen baita. Hala ere, etiketa horiek kontsumitzaileei buruzko informazio pertsonala lortzeko erabiltzen direnean sortzen da arazoa. Ikuspegi komertzial batetik kontsumitzaileen profilak osatzeko oso interesgarria den informazio pertsonal hori, kasu askotan autodeterminazio informatiborako eskubidearen bermeak errespetatu gabe tratatzen da. Legediak publizitate edo prospekzio komertzial helburuetarako kontsumitzaileen datu pertsonalak tratatzea ahalbidetzen du, besteak beste, aurretiaz kontsumitzaileak horretarako baimen informatua ematen duenean.

¹⁸⁰⁶ Ikus EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren (Lan Arloko 1. Sailaren) 2011ko maiatzaren 10eko ebazpena (AS\2012\2277) eta AGren (Lan Arloko 1. Sailaren) 2012ko ekainaren 21eko ebazpena (RJ\2012\7627).

RFID etiketak interes komertzialdun informazio pertsonala tratatzeko erabili diren kasu dokumentatuetan, ordea, ez zaio datuon titularrari horretarako baimenik eskatu, ezta datu horien tratamendua ezagutzera eman ere. Bestalde, nahiz eta legediak ahalbidetzen duen helburu horren harira (publizitate edo prospekzio komertziala) datu pertsonalak tratatu aurretik bere titularraren baimen informatua lortu, RFID etiketa bidezko datuen tratamendu horrek ez du egokitasun printzipio legala errespetatzen. RFID etiketen bidez informazio pertsonal kopuru handia lortu daiteke, besteak beste, etiketa gainean daraman pertsonaren mugimenduen etengabeko eta uneoroko monitorizazioa. Informazio pertsonal hori helburu komertzialak asebetetzeko gehiegizkoa eta ez proportzionala da. Arrazoi horiek direla medio, AEPD eta INTECO erakunde administratiboek produktua kontsumitzaileari saltzean RFID etiketak desaktibatzea eta etiketetan kontsumitzaileen datu pertsonalik ez biltzea eskatu dute¹⁸⁰⁷.

Lan eremuan, RFID etiketak alde batetik langileen lan sartze-irteerak eta bestetik langileen mugimenduak kontrolatzeko erabili diren kasu batzuk dokumentatu dira. Lehenengo kasuan, kontrol neurri hori printzipioz Lan Estatutuaren arabera (20.3 eta 20.4 art.) enplegatzaileak langilearen gainean egikaritu dezakeen kontrol gaitasunaren muga barnean kokatzen da. Hori bai, langileen datu pertsonalak tratatzen dituen kontrol neurri bat izanik, langileei datuen tratamendu horren berri eman behar zaie (kontrako kasuan, beren autodeterminazio informatiborako eskubidea urratu egiten da). Bigarren kontrol neurriak ordea, enplegatzaileak duen kontrol ahalmen horren mugak gainditu eta kontsekuenteki langileen pribatutasun esfera modu ez-proportzionalan erasaten du. Lan eremuan langileen mugimenduak kontrolatzeko helburuz beren uniformeetan RFID etiketa aktiboak eransteak enplegatzaileak duen kontrol ahalmen legitimoa gainditu eta langilearen autodeterminazio informatiborako eskubidea, intimitaterako eskubidea eta mugimendu askatasuna urratzen ditu. Enplegatzaileak duen kontrol ahalmenaren eta langileen eskubidearen arteko ponderaketa egitean, kontrol-neurri horrek proportzionaltasun printzipioaren beharrezkotasun eta zentzu hertsiko proportzionaltasun azpi-printzipioak ez ditu errespetatzen. RFID etiketa aktiboak langileen uneoroko kokapena eta bere mugimenduen etengabeko monitorizazioa posible egiten du, lanarekin zerikusia izan dezaketen eta zerikusirik ez duten (komunera noiz doan eta zenbat denbora pasatzen duen) portaeren artean inolako bereizketarik egin gabe. Bestalde, langileen oinarrizko eskubideak intentsitate baxuagoan mugatzen dituzten bestelako kontrol-neurrien bidez (lantokian jarritako kamerak adibidez) zaintza helburu berbera eraginkortasunez asebite daiteke.

Arlo sanitarioan, RFID etiketadun nanotxipak pazienteen osasuna hobeto monitorizatzeko helburuz beren gorputzean inplantatu den kasu bat dokumentatu da dagoeneko. Osasun-datuak legeak bereziki babesten dituen datu pertsonalak dira, eta beraz, beren tratamendu irregularrek autodeterminazio informatiborako eskubidea larriki urratzen dute. Arau orokor bezala, pazienteen osasun-datuak tratatu ahal izateko beren titularrak aurretiaz eta berariaz horretarako baimena eman behar du (DBLO, 7.3 art.). Salbuespen nagusi bezala, ordea, pazientearen osasuna babesteko helburuz profesional sanitarioek bere

¹⁸⁰⁷ INTECO eta AEPD, 2010: 47-48.

osasu-datuak tratatzeko ez dute pazientearen baimenik behar (DBLO 7.6 eta 8. art.). RFID etiketadun nanotxipen kasuan beraz, autodeterminazio informatiborako eskubidearen ikuspegitik ez zaio pazienteari bere osasu-datuak tratatzeko baimenik eskatu behar. Aitzitik, nanotxipa gorputzean inplantatzean pazienteak bere gorputzarekiko duen bortxa-ezintasuna eraginda geratzen denez, txipa inplantatu aurretik paziente gisa duen baimen informaturako oinarriko eskubidea egikaritu behar du: operazioari eta nanotxipari buruzko informazioa osotasunean eta modu ulerkorrean jaso ondoren (inolako informaziorik ez jasotzeko eskubidea ere badu), pazienteak askatasunez eta kontzienteki operazioa baimendu edo ez erabaki behar du.

Pazienteak nanotxip hori bere gorputzean inplantatzeko baimena ematen badu ere, datu pertsonalen babesaren ikuspegitik zenbait arazo legal planteatzen ditu. Nanomedikuntzaren garapen azkarra ikusita, datu pertsonalen tratamenduan aplikagarri den egokitasun printzipioa kolokan geratu daiteke, nanotxiparen bidez eskuratuko pazientearen osasu-datuak gehiegizkoak eta beraz ez-proporzionalak izan baitaitezke. Pazientearen osasuna monitorizatzeo helburu legitimoa asebetetzeko orduan, txip horiek norbere gorputzari buruz orain arte eskuragarri ez zeuden sakoneneko elementuei buruzko informazioa lortzeko gaitasun teknikoa lortu dezakete, etorkizunera begira gero eta sofistikatuagoa bihurtuko dena. Bestalde, datu pertsonalen tratamenduaren helburuzko printzipioa urratzen duten erabilera desbiderapenak gertatu daitezke, RFID sistemek datu-fitxategi gisa eskaintzen duen segurtasun maila baxua dela eta (osasu-datuak biltzen dituzten fitxategien segurtasun neurri normatibo zorrotzen aurka doana) osasu-datu horiek “lapurtu” eta beste erabilera batzuen artean, pertsona bat kontratatu/kaleratzeko edo seguru bat onartu/ukatzeko irizpide gisa erabili daitezke. Erabilera ez-legitimo horiek norbanakoen gisa duintasuna urratzen duten osasu-arrazoietan oinarritutako 1. mailako diskriminaziotzat kalifikatu daitezke.

Azkenik, espetxeko bizikidetza ordenatua eta barne segurtasuna mantentzeko helburupean, drogen kontsumoa detektatzeko presoen gorputzean nanotxipik inplantatu daitekeen edo ez aztertu da. Europar Kontseiluaren 108 Konbentzioaren azalpen memorian¹⁸⁰⁸ eta AEPD agentziaren 0129/2005 informean¹⁸⁰⁹ drogen kontsumoari buruzko informazioa osasu-datuen kategorian barneratzen da. Aztertu dugun kasuan, osasu-datuak (drogen kontsumoa) osasu asistentzia ematea ez den beste helburu baterako erabili nahi dira, espetxeko bizikidetza ordenatua eta barne segurtasuna mantentzeko kontrol neurri gisa alegia.

DBLOren 7.3 artikuluari jarraiki, osasu-datuak bere titularraren berriazko baimena lortu ostean tratatu daitezke, interes orokorreko arrazoiren bat dela medio lege mailako arau batean baimen-emate hori salbuesten den kasuetan izan ezik. Espetxe Erregelamenduaren (EE) 7.1 artikulua administrazio penitentiarioaren berezko funtzioen pean (barne segurtasunaren mantentzeko helburua barne beraz) presoen datu-pertsonalak

¹⁸⁰⁸ *Explanatory Report to the Convention for the Protection of Individuals with regard to Automatic Processing of Personal Data*

¹⁸⁰⁹ AEPD, 2005: 2.

beren baimenik lortu gabe jasotzeko habilitazio orokor bat egiten du. Habilitazio legal horrek, aitzitik, ez ditu DBLOren 7.3 artikuluko presupuesto normatiboak betetzen: EEren 7.1 artikulua presondegiko administrazioaren alde egiten duen habilitazioa orokorregia da, xedapen horrek ez du osasun-datuak preso baimenik erabili ahal izateko interes orokorreko arrazoi zehatzik zehazten. Bestalde, habilitazio orokor horrek ez du DBLOren 7.3 artikuluan eskatzen den lege mailako izaerarik, erregelamendu mailako habilitazio normatibo baten aurrean baikaude (espetxe erregelamendua 190/1996 Errege Dekretuak onartu zuen).

Espetxeetako funtzionarioek beraz ezin dituzte preso osasun-datuak (kasu konkretu honetan drogen kontsumoa) kartzelako barne segurtasuna mantentzeko helburuz beren titularraren baimen gabe jaso. Bestalde, profesional sanitarioek ezin diote espetxe administrazioari osasun-datu horiek lagapen bidez transmititu, PALen 16.3 artikuluan osasun-datuak lagatzeko aurreikusten diren arrazoiak ez baitira betetzen: osasun-datuak lagapena posible izan dadin, lagapenak helburu judizial, epidemiologiko, osasun publiko, ikerketa edo irakaskuntzazkoak izan behar ditu eta osasun-datuak betiere modu disoziatuan transmititu behar dira, datu horiek identifikagarriak izan ez daitezzen (ikerketa judizialerako datuak disoziatu gabe mantentzea ezinbestekoa den kasuetan salbu). Funtsean, presoaren berriazko baimenik lortu ezean ezin dira bere osasun-datuak presondegiko barne segurtasuna mantentzeko helburupean jaso, laga edo tratatu.

VIII. IKERKETA ZIENTIFIKORAKO ASKATASUNA

Azken hamarkadetan bizitako etengabeko iraultza teknozientifikoak eta berri lotutako arrisku potentzialen berritasun, larritasun eta ziurgabetasunak, ikerketa zientifikorako askatasun eskubidea eztabaidaren erdigunean kokatu du. Izatez, kezka guzti horien oinarria ez da aztergai dugun eskubidea, bere egikaritzaren bidez lortutako ezagutza zientifikoetatik teknozientzia antolatuak¹⁸¹⁰ egiten duen aprobetxamendu tekniko edo teknologikoa baizik, interes komertzialen arauen arabera funtzionatzen duena. Bestela esanda, arazoaren muina ez da ikerketa zientifikorako askatasunaren jardueraren bidez bilatzen den ezagutza zientifikoa, jakintza horren okerreko instrumentalizazioa baizik. Nanoteknologien ikerketa ereduak orain arte azaldu berri den ildo horri jarraitzen dio. Nanoteknologien eta ikerketa zientifikorako askatasunaren arteko analisian murgildu aurretik, eskubide horren aspektu juridiko nagusiak ulertu behar dira.

¹⁸¹⁰ Teknozientiaren oinarri filosofikoei buruz, ikusi ECHEVARRÍA, 2010. Bestalde, teknozientzia antolatuak ikerketa zientifikorako askatasunean eta zuzenbidean duen eraginaren inguruan, ESTEVE PARDO, 2009.

VIII.1. Ikerketa zientifikorako askatasunaren aspektu normatibo nagusiak

VIII.1.A. Ikerketa zientifikorako askatasunaren bilakaera historikoa

Ikerketa zientifikoa¹⁸¹¹ askatasunez egikaritzeko lehenengo aldarrikapenak Berpizkunde garaian kokatzen dira, mendeetan zehar eratuz joan den zientzia modernoaren hastapenetan hain zuzen ere. Mendebaldeko Europan garai hartan kulturalki, artistikoki eta orokorrean intelektualki bizitako garapenak, zientziaren sofistikazio eta norabide aldaketa substantziala eragin zuen, Kopernikar Iraultza bezala definitu izan dena (XVI-XVII mendeetan datatua). Naturaren behaketa zientifikotik etengabe eskuratzen ziren ezagutza berriek autoritate erlijiosoaren dogma eta egia absolutuen monopolioa kolokan jartzen zuenez, zientziatik ondorioztatutako “egia” arrazional horien aurka Elizak mendeetan zehar mantendutako zentzura jarrerari aurre egin eta ikerketa zientifikoari autonomia esfera bat erreserbatzeko etengabeko aldarrikapenek¹⁸¹² aztergai dugun eskubidearen bilakaeran eragin zuzena izan zuten.

Ikerlariak botere publikoen interbentziotik salbuetsitako autonomia esfera bat mantentzeko zuten borroka jarrai horretan, eskubideen lehenengo Adierazpenek ez zuten ikerketa zientifikorako askatasuna esanbidez positibatu. Izan ere, historikoki ikerketa zientifikoa beste askatasun-eskubide batzuen edukien parte kontsideratzen zen: adierazpen askatasunarena¹⁸¹³ nagusiki, baita katedra askatasun (unibertsitateak ikerketa zientifikoaren faktoria handiena izan dira mendeetan zehar) edo askatasun artistikorako eskubidearena ere. Hautu juridiko hori ikerketa zientifikorako askatasuna babesteko helburuagatik justifikatu badaiteke ere, ikuspegi juridiko-teoriko batetik aztertuta, ikerketa zientifikorako askatasunaren eta beste askatasun-eskubide horien objektu, eduki eta mugen artean desberdintasun eta bateraezintasun esanguratsuak daude¹⁸¹⁴. Gaur egun, nazioarteko giza eskubideen tratatu batzuek¹⁸¹⁵ eta ordenamendu konstituzional¹⁸¹⁶ desberdinek ikerketa

¹⁸¹¹ Gaur egungo gizartean ikerketa zientifikoa zentzu zabalean ulertu eta beraz komunki zientzia “gogor” eta “bigunak” bezala ezagutzen diren zientziaren adar guztiak kontuan hartu behar dira. Zientzia, teknologia eta berrikuntzari buruzko 14/2001 Legearen hitzaurreak ikerketa zientifikoa horrela definitzen du: “*el trabajo creativo realizado de forma sistemática para incrementar el volumen de conocimientos*”.

¹⁸¹² Ikerketa zientifikoak izan behar duen askatasun esfera horri buruz zientzialari eta filosofo desberdinek arrazoitu zuten Kopernikar Iraultzan eta hurrengo mendeetan zehar. Garrantzitsuen artean, Giordano Bruno, Galileo Galilei, Tomasso Campanella, John Milton, Baruch Spinoza, John Locke, Pierre Bayle edo John Stuart Mill. Autore horien ekarpenei buruz, ikus AHUMADA CANABES, op. cit, 33-75. orr; WONG RAMÍREZ, 2012: 51-107.

¹⁸¹³ Espainiako AK-k ikerketa zientifikorako askatasunaren inguruan eman zuen lehenengo ebazpenean izaera autonomoa ukatu eta adierazpen askatasun eskubidearen zehaztapena zela kontsideratu zuen, AKE 153/1985, 5. o.j: “(...) *En efecto, el derecho a la producción y creación literaria, artística, científica y técnica, reconocido y protegido en el apartado b) del mencionado precepto constitucional, no es sino una concreción del derecho -también reconocido y protegido en el apartado a) del mismo- a expresar y difundir libremente pensamientos, ideas y opiniones (...)*”. Urte batzuk beranduago ordea AK-k 90/1992 ebazpenean irizpide jurisprudenzial hori aldatu eta ikerketa zientifikorako eta teknikorako askatasuna adierazpen askatasunetik desberdindu egin zuen (5. o.j.).

¹⁸¹⁴ Ikerketa zientifikorako askatasunaren eta beste askatasun eskubideen elementu komunen eta desberdintasunei buruzko analisia, AHUMADA CANABES, op. cit, 294-323. orr.

¹⁸¹⁵ Nazioarte mailan, ikusi GEAU (27. art) eta EGKANI (15. art.). Europar Batasunean, EBOEG-ko 13. artikuluan jaso da, askatasun artistikoarekin batera.

zientifikorako askatasun eskubidea esanbidez aurreikusten dute. Beste kasu batzuetan ez da hori gertatu¹⁸¹⁷ eta besteak beste, ikerketa zientifikorako askatasuna adierazpen askatasun eskubidean isilbidez txertatzen da¹⁸¹⁸.

VIII.1.B. Ikerketa zientifikorako askatasunaren egiturapen Konstituzionala

VII.1.B.a. Dimentsio desberdinez osatutako eskubide konstituzionala

Espainiako Konstituzioaren 20.1.b)¹⁸¹⁹ eta 44.2 artikuluetan aurreikusten den oinarrizko eskubidea da ikerketa zientifikorako askatasuna. Konstituzioaren logika normatiboari jarraituta, aipatu bi xedapenek babes juridiko desberdina eskaintzen diote eskubide horri. Lehenengo xedapenaren kasuan (20.1.b) art.) askatasun zientifiko eta teknikoa oinarrizko eskubide subjektibo bezala egituratzen da. Botere publikoek zientzia eta ikerketa zientifiko eta teknikoa interes orokorraren mesedetan sustatzeko duten betebeharrak konstituzionalak (EK 44.2 art.), aitzitik, gizarte eta ekonomia politikaren printzipio zuzentzaileen artean kokatu da. Ikerketa zientifikorako askatasuna Konstituzioak babes juridiko desberdinak eskaintzen dien bi prezeptu horien egikaritzea bateratura baldintzatuta dago, 20.1.b) artikuluan jasotako eskubidearen dimentsio subjektiboa ezin baita 44.2 artikuluko dimentsio objektiboa (botere publikoek ikerketa zientifikoa sustatzeko duen betebeharrak konstituzionalak) bermatu gabe ulertu.

Beraz, ikerketa zientifikorako askatasuna eskubide konstituzional bat eta bakarra¹⁸²⁰ dela interpretatu daiteke, elkarrekiko osagarriak eta menpekoak diren dimentsio indibidual (negatibo eta objektiboa) eta kolektiboaz osatuta dagoena. Dimentsio indibidualak, alde

¹⁸¹⁶ Beste eskubide batzuekin gertatu den antzera, Weimarreko Konstituzioa (1919) goiztiarra izan zen eta ikerketa zientifikorako askatasuna bere 142. artikuluan jaso zuen. Askatasun eskubide bezala, Alemaniako Oinarrizko Legean (5.3 art.), Espainiako Konstituzioan (20.1b) artikuluan, 44.2 artikuluekin batera ulertuta, Greziakoan (16. art.), Portugalekoan (77. art.) eta Hungariakoan (70. art.) aurreikusi da.

¹⁸¹⁷ Mendebaldeko gizarteko konstituzio gehienetan esanbidez aurreikusi gabe jarraitzen du ikerketa zientifikorako askatasunak, batzuk aipatzearen: Frantzia, Italia, Irlanda, AEB edo Kanada.

¹⁸¹⁸ Ahumada Canabesek interpretazio hori egiten du AEBtako eta Frantziako Konstituzioek (hurrenez hurren, AHUMADA CANANES, op. cit, 83-84 eta 97-101 orr.) zentzu horretan gordetzen duten isilunearen aurrean. Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren (GEEH) kasuan ere, Díez-Picazo autoreak interpretazio berbera egiten du, ikerketa zientifikorako askatasuna GEEH-ren 10. artikuluan isilbidez barneratzen dela baiteritzo (DÍEZ-PICAZO, 2008: 359). Beste ekarpen bat: ESCAJEDO SAN EPIFANIO, 2008.

¹⁸¹⁹ EK-ko 20. artikuluan beste askatasun eskubideekin batera arautzen da, hots, askatasun artistiko, adierazpen askatasun, informazio askatasun eta katedra askatasunarekin. Zentzu horretan, 20. artikuluko horrek askatasun guzti horientzako erregimen konstituzional komuneko xedapen batzuk jasotzen ditu, (artikuluen 2-5 ataletan) eta horietako batzuk ikerketa zientifikorako askatasunaren izaerarekin ez datoz bat. Konstituziogileak askatasun guzti horiek batera arautzearen erabakiaren zergatia “iritzi publiko eta libre bat sortzeko” zuen grina izan daiteke (CHUECA RODRÍGUEZ, 2008: 6-7).

¹⁸²⁰ Ahumada Canabes (2006: 334; 2012: 419), Cabrera Rodríguez (2014a:484; 2014b: 139-141) eta Rodríguez de Santiago (2012: 230) autoreek egindako interpretazio juridikoaren alde beraz. Kontran, Chuega Rodríguezek (op. cit, 7. orr.) Konstituzioaren bi artikuluko horien interpretazio exegetikoan oinarrituz estuki loturik dauden “bi gauza desberdin” bailitzan kalifikatzen ditu, alde batetik “sorpen eta ekoizpen zientifikoa” (20.1.b) art.) eta “ikerketa zientifikoa eta teknikoa” (44.2 art.).

batetik, botere publikoei ikerlariak¹⁸²¹ bere jarduera aurrera eramateko beharrezkoa duen autonomia esfera edo autodeterminazio indibiduala¹⁸²² errespetatu eta errespetaraztean datza (eduki negatiboa). Bestetik, botere publikoek autonomia esfera hori babestu eta bere garapen osorako beharrezkoak diren bitartekoez hornitzeko betebeharrak konstituzional objektiboa dute (eduki positiboa). Ikerketa zientifikoaren egikaritzaren produktua den jakintza zientifikoa ondare publikoaren parte bihurtzen den aldetik, eskubidearen dimentsio kolektiboaren titularra ez da ikerlaria, gizartea baizik. Gizarteak jakintza zientifikotik eratortzen diren onurez gozatzeko eskubidea du. Dimentsio horiek ordea ez dira autonomoak, beren eraginkortasun osoa bermatzeko batak bestearen laguntza ezinbestekoa baitute. Beraz, ikerketa zientifikorako askatasunaren kasuan ezin daiteke eskubideez (pluralean) hitz egin, eskubide berberaren dimentsio ezberdinez baizik.

Datozen lerroetan beraz, eskubide honen inguruko bi aspektu nagusi aztertzen dira. Alde batetik, eskubidearen dimentsio bakoitzaren izaera, edukia eta dimentsiook elkarren artean duten harremana. Bestetik, ikerketa zientifikorako askatasunaren objektua zein elementuk osatzen duten eta EK-ko 20.1 b) artikulua aurreikusten duen “ekoizpen eta sortze teknikorako” askatasuna objektu horren parte kontsideratu daitekeen edo ez hausnartzen da.

VIII.1.B.b.Eskubidearen dimentsio desberdinen izaera, edukia eta elkarren arteko harremana

Ikerketa zientifikorako askatasuna osatzen duten dimentsio indibidual eta kolektiboaren artean, eskubide horren jatorrizko dimentsioa lehena da: ikerlari zientifikoek mendeetan zehar aginte publikoarekin eta erlijiosoarekin izandako borrokatik konkistatutako dimentsio indibiduala, bere eduki negatiboan. Aurreratu bezala, eduki negatibo hori ikerlariari autonomia eremu bat bermatzean datza. Botere publikoek askatasun esfera horretan esku-sartzetik abstenitzeko betebeharrak dute. Ikerketa zientifikorako askatasunaren dimentsio indibidual eta negatibo hori, halaber, eskubidearen dimentsio subjektiboa da, EK-ko 20.1.b) xedapenean aurreikusi den neurrian oinarritako eskubidearen izaera eta ondorioz babes judizial indartua aitortzen baitzaio. Ikertzaileari bere jarduerak aurrera eramateko askatasun esfera bat bermatzen bazaio ere, ikertzaileak ez du bere ikerketak aurrera eramateko eskubide absoluturik. Beste oinarritako eskubideen

¹⁸²¹ Eskubidearen dimentsio negatibo horren titulartasuna ez da ikerlarietara mugatzen. Alde batetik, gizabanako guztien titulartasuneko eskubidea da, inolako mugapenik egin gabe: pertsona orok du, izaera zientifikodun ikerketak aurrera eramateko ahalmena, nahiz eta praktikan eskubide hori gutxi batzuek egikaritzen duten. Bestalde, azken hamarkadetan ikerketa zientifikoak jasan duen instituzionalizazio prozesua medio pertsona fisikoez gain pertsona juridikoak (ikerketa erakunde publiko eta pribatuek) ere eskubide honen titularrak dira (AHUMADA CANABES, op. cit, 344. orr; DÍEZ-PICAZO, op. cit, 360; ESTEVE PARDO, op. cit, 90-91. orr.).

¹⁸²² CABRERA RODRÍGUEZ, 2014a: 483.

antzerak, ikerketa zientifikorako askatasunaren egikaritzak beste balio, eskubide konstituzional eta interes legitimoetan aurkitzen baitu bere muga¹⁸²³.

Mendeetan zehar ikerketa zientifikorako autonomia esfera horren funtsa botere publikoaren (eta erlijiosoaren) erasoez babestea izan bada ere, gaur egun esfera horren mehatxurik esanguratsuen ez dute botere publikoen injerentziek eragiten, ikerketa zientifikoaren ildo nagusiak erabakitzen dituen teknozientzia antolatuen atzean dauden interes ekonomiko indartsuek baizik. Izan ere, ikerketa zientifikoak azken hamarkadetan jasan duen instituzionalizazio prozesuak eta zientzia zein teknologiaren arteko konbergentziaren emaitza den teknozientzia antolatuen etengabeko botere areagotzeak, erabateko paradigma aldaketa eragin dute¹⁸²⁴. Alde batetik, ikertzaile indibidualari bere ikerketa ildoan gainean tradizionalki izan duen erabaki gaitasuna erabat murriztu zaio, lan egiten duen erakunde zientifikoaren mesedetan. Bestetik, teknozientziaren garaian bizi garen honetan, ikerketa zientifikorako askatasuna egikaritzearen produktua den jakintza zientifikoa ez da azkeneko helburu bezala ulertzen, jakintza horren aprobetxamendu eta ustiapen teknologikora bideratutako bitarteko soil bezala baizik¹⁸²⁵.

Ezagutza zientifikoaren ekoizpenak beraz, teknozientzia antolatuen interes pribatu komertzialen gidaritzapean jarduten du, ikerketa zientifikoaren erabilgarritasun tekniko, inbertsioen amortizazio eta errentagarritasun ekonomikoaren irizpideen arabera funtzionatzen duena. Jakintza zientifikoa ardatzezko helburu zuen ikerketa zientifiko libretik bere irabazizko aprobetxamendu teknologikoan euskarritzen den modelo batera egin da salto. Paradigma aldaketa hori, besteak beste, ikerketaren eta berrikuntzaren inguruan eraikitzen joan den marko juridikoari esker izan da posible; jabetza intelektuala eskubidearen eta patenteen sistemaren inguruan egituratu den arau legal zurrinak ezagutza zientifikoaren difusio publikoaren oztipo normatibo garrantzitsu bezala dihardute¹⁸²⁶.

Teknozientzia antolatuen interesen azpian funtzionatzen duen ikerketa ereduak, ikerketa zientifikorako askatasunean eragin negatibo bikoitza du: ikertzaileak bere ikerketekiko izan beharko lukeen autonomiaren murrizketa esanguratsuz gain (dimentsio indibidual negatiboa), ondare soziala den ezagutza zientifikoak gizartearen garapenean duen funtzio sozialaren hutsaltzea ere badakar (eskubidearen dimentsio kolektiboa). Ikerketa zientifikoak interes ekonomikoaren alde pairatu duen autonomia galera hori ez da eremu pribatura mugatzen. Ikerketa erakunde publikoaren alde industriak ekarpen ekonomiko pribatuak egitean, entitate publikoek ikerketa zientifiko horien lerro nagusiak erabakitzeko izan beharko luketen gaitasuna industriaren interesen ondorioz baldintzatuta

¹⁸²³ EK 20.4 art.

¹⁸²⁴ Botere ekonomiko pribatuaren mesedetan ikerketa zientifikorako askatasun eskubide horrek sufritutako galeraren inguruan Esteve Pardo autoreak egindako analisisia nabarmendu daiteke (ESTEVE PARDO, op. cit, 72-81. orr.). Analisi horrez gain, ikus: AHUMADA CANABES, op.cit, 372. orr; PECES-BARBA, 1993: 324.

¹⁸²⁵ ALONSO PUELLES eta ECHEVERRÍA ESPONDA, 2014: 22-23.

¹⁸²⁶ Ikusi ESTEVE PARDO, op. cit, 75-76. orr; WONG RAMÍREZ, 2012. Azken hori, patenteen sistema normatiboak ikerketa zientifikorako askatasunean eragiten duen interferentziari buruzko doktorego tesia da.

geratzen da. Mota horretako akordioak unibertsitate eremuan gertatzen direnean, ikerketa zientifikorako askatasun eskubideaz gain autonomia unibertsitarioa¹⁸²⁷ (EK 27.10 art.) eta katedra askatasuna (EK 20.1.c) art.) ere eraginda geratu daitezke¹⁸²⁸.

Ikerketa zientifikoak jasan duen paradigma aldaketa horren aurrean, ikertzaile indibidualak galdu duen autonomia esfera hori babestea funtsezkoa da. Askatasun eremu hori errespetatzeko botere publikoek duten betebeharrak konstituzionalarekin batera, EK-ko 53.1 artikulua zentzuari jarraiki, botere publikoek esfera hori babestera zuzendutako mekanismo normatiboak aurreikusteko betebeharrak positiboak dute. Teknozientzia antolatutako ikerketa zientifikoko lerroen gainean gauzatzen duen presioaren aurrean, botere publikoek duten mandatu konstituzional hori eskubidearen dimentsio negatiboaren (eta zeharka dimentsio kolektiboaren) egikaritzea errespetarazteko ezinbestekoa bihurtu da¹⁸²⁹.

Ikerlariaren autonomia esfera hori babestera zuzendutako neurri juridikoak onartzeaz gain, ikerlariaren autonomia eremua osoa izan dadin, EK-ko 44.2 artikulua botere publikoari ikerketa zientifikoaren sustapenean aktiboki parte hartzea eskatzen die, eskubidearen dimentsio prestazional¹⁸³⁰ edo instituzional¹⁸³¹ gisa kalifikatu daitekeena. Izan ere, ikerkuntza zientifikoaren etengabeko garapenak (zientzia esperimentalen kasuan nagusiki) bitarteko gero eta garestiago eta sofistikuagoen premia ekarri du, inbertsio ekonomiko gero eta garrantzitsuagoetan ondorioztatzen ari dena. Ikerketa zientifikoaren etengabeko garapen horrek Estatua ikerketa zientifikoaren sustapenean subjektu aktibo bihurtzea eragin du.

Espainiako Konstituzioan duen kokapena kontuan izanik (EK 44.2 art.), printzipio zuzentzaile baten aurrean gaude. Hots, eskubidearen dimentsio prestazional horrek, dimentsio negatiboak ez bezala, ez die beren titularrei botere publikoen partetik ikerketa zientifikoa sustatzeko egintza zehatzik judizialki eskatzeko ahalmen subjektiborik aitortzen. Botere publikoek ikerketaren sustapen eginkizun hori aurrera eramateko modu desberdinak erabili ditzakete: zuzenean, ikerketa zentro publikoen sortze eta antolakuntzaren bidez, edo zeharka, sektore pribatuko ikerketa lerroei laguntza ekonomikoa emanez. Sustapen zeregin publiko hori, aitzitik, ez da ikerketa zientifikoaren

¹⁸²⁷ José Rodríguez Cabrera autorearen planteamenduari jarraiki autonomia unibertsitarioaren berme konstituzionalak unibertsitate mailan gauzatutako ikerketa zientifikoren egikaritzea arautzeko boterea ematen die eskumen normatiboak dituzten unibertsitateko organoei. Unibertsitate eremuan beraz, ikerketa zientifikorako askatasunak autonomia unibertsitarioan funtsa duten mugapenak jasan ditzake. Unibertsitateko estatutu batzuek esate baterako, helburu militarra duten ikerketa zientifikoak aurrera eramatearen debekua ezartzen dute (ikus RODRÍGUEZ CABRERA, 2014a).

¹⁸²⁸ ESTEVE PARDO, op. cit, 74. orr.

¹⁸²⁹ ESTEVE PARDO, op cit, 90-93. orr; FRANCIONI, 2007: 4-5. Esteve Pardok ikerlari indibidualaren autonomia babesteko mekanismo normatibo subjektiboaren proposamen zehatza egiten du. Informazio askatasunerako eskubidearen dimentsio subjektiboa (kazetariarena) eta objektiboa (informazioaren jasotzailea den gizartearena) babesteko helburuz kazetarien alde aurreikusten diren mekanismo normatibo desberdinak (kazetarien kontzientzia klausula kasu), ikerlariaren askatasun esfera (dimentsio subjektiboa) eta ezagutza zientifikoak berezkoa duen funtzio soziala (dimentsio objektiboa) babesteko mekanismoen eredu izan daitezke.

¹⁸³⁰ AHUMADA CANABES, op. cit, 2006: 216. orr; CHUECA RODRÍGUEZ, 2008: 11; GARCÍA FERNÁNDEZ, 1996: 225.

¹⁸³¹ GÓMEZ PUENTE, 2007: 243.

sostengu ekonomikora mugatzen. Alde batetik, Auzitegi Konstituzionalak ikerketetatik eratorzen diren emaitzen dibulgazioa ere mandatu konstituzional horren parte dela ulertu du¹⁸³². Bestetik, 44.2 artikuluko prezeptu konstituzionalak ez die botere publikoei edonolako ikerketa zientifiko eta tekniko sustatzea ahalbidetzen, interes orokorraren mesedera bideratutako ikerketak baizik, jakintza zientifikoak izan behar duen funtzio sozial eta publikoaren ideiarekin bat etorriz. Manu konstituzional horren zentzuari jarraiki, botere publikoek ez lukete interes pribatuak publikoen gainetik lehenesten dituzten ikerketa zientifiko edo teknikoak finantzatu behar¹⁸³³.

Ikerketa zientifikorako askatasunaren dimentsio prestazionala dimentsio negatiboaren egikaritza osorako ezinbesteko baldintza izanik ere, botere publikoek ikerketa zientifikoaren sustapen moduak erabakitzeko duten diskrezionaltasunak ikerlarien askatasun esferarekiko errespetuan aurkitzen du muga. Bestela esanda, botere publikoek ikerlarien autonomiarekiko gorde behar duten errespetuak, zientziaren sustapenerako jarduera publikoaren kontrapisu¹⁸³⁴ bezala dihardu. Ondorioz, ikerketa zientifikoaren sustapen zereginen Estatu neutraltasun ideologikoa gordetzera behartua dago, EK-ko 16. artikulutik eratorzen den printzipio¹⁸³⁵ bezala ulertuta. Sustapen funtzio hori ikertzaileen autonomia esfera baldintzatu gabe eraman behar da aurrera, ikerketa ildo batzuk jarraitzea edo beste batzuk alde batera uztea agindu gabe, edota ikerketa zientifikoaren ildoak finkatu gabe. Errealitatean, hala ere, botere publikoen partetik neutraltasun printzipio horri eragiten dioten dirigismo jarrerak eman ematen dira, askotariko interesak direla medio, ikerketa ildo batzuk subentzionatzen baitira beste ildo batzuen kaltetan¹⁸³⁶.

Ikerketa zientifikorako askatasunaren dimentsio indibidual horren egikaritzak beraz, dimentsio horren eduki negatibo eta positiboaren arteko elkarrekikotasunean aurkitzen du funtsa. Bestalde, dimentsio indibidual horren egikaritzari esker ekoizten den jakintza zientifikoa ondare kolektiboaren parte bihurtzen da, zientziak berezkoa duen funtzio sozialaren emaitza bezala. Hortaz, orain arte azaldu den dimentsio indibidualarekin batera eskubideak dimentsio kolektiboa ere baduela arrazoitu daiteke, gizarteak ondare komunekoa den jakintza zientifiko horretatik eratorzen diren onurez gozatzeko eta garapen zientifikoan parte hartzeko duen eskubidean ondorioztatzen dena. Nazioarte Mailan GEAUk (27.1 art) eta EGKENik (15.1.b) art.) gizarteak duen eskubide hori espresuki jasotzen dute; EK-ko 44.2 artikulua, ordea, botere publikoei interes orokorraren mesedetan ikerketa zientifiko nahiz tekniko bultzatzeko mandatu orokorra egiten die, baina esanbidez ez du eskubidearen dimentsio kolektibo hori aurreikusten. Hala eta guztiz ere, Espainiar Estatu giza eskubideen nazioarteko adierazpen horien Estatu-kidea izanik, EK-ko 44.2 artikulua hori nazioarteko xedapen horien edukiarekin batera interpretatu behar

¹⁸³² AKE 53/1988, 1. o.j: “(...) *sin que quepa tampoco restringir en modo alguno el concepto de «fomento de la investigación» al apoyo de actividades directamente conducentes a descubrimientos científicos o a avances técnicos, pues también la divulgación de los resultados obtenidos es, sin duda, un medio de fomentar y coordinar la investigación*”.

¹⁸³³ GÓMEZ PUENTE, 2007: 243-244.

¹⁸³⁴ AHUMADA CANABES, op. cit, 218. orr.

¹⁸³⁵ DÍEZ-PICAZO, op. cit, 360. orr.

¹⁸³⁶ Horri buruz, RUIZ-RICO RUIZ eta PÉREZ SOLA, 2002.

denez (EK-ko 10.2 artikulua eskatzen duenari jarraiki), inplizituki bada ere EK-ko 44.2 artikulua eskubidearen dimentsio kolektibo hori barneratzen duela arrazoitu daiteke¹⁸³⁷. Eskubidearen dimentsio kolektibo hori aitzitik, inplizituki EK-ko 44.2 artikuluan barneratzen den neurrian, jardura publikoaren printzipio zuzentzaile bezala konfiguratu da. Beraz, ikerketa zientifikorako askatasunaren dimentsio juridiko-objektiboaren aurrean gaude beste behin, beren titularrei (gizartea bere kolektibitatean ulertuta) ez baitzaie inolako ahalmen subjektiborik ematen eskubide horren sustapenean botere publikoei inolako egintza zehatzik eskatzeko.

NBEko Giza Eskubideen Kontseiluak, giza eskubideen sustapen eta babeserako duen mandatuaren egikaritzan, aztergai dugun eskubidearen dimentsio kolektibo horren edukari buruzko interpretazioa egin zuen 2012. urtean argitaratutako informe batean¹⁸³⁸. Dokumentu horren arabera eskubidearen dimentsio kolektiboaren edukia honako aspektuek egituratzen dute¹⁸³⁹:

- a) *Pertsona orori, inolako diskriminaziorik egin gabe zientziara eta bere onuretara sarbidea bermatzea.* Jakintza zientifikoen transmisioa informazio askatasun, informaziorako sarbide eskubide eta hezkuntza eskubidearekin lotuta dago. Bestalde, Estatu-kideek zientziaren aprobetxamenduaren ondorioz lortutako onurak herritarrentzat fisikoki eskuragai egoteko eta ekonomikoki eskuragarriak izateko baldintzak ahalbidetu behar dituzte.
- b) *Ikerketa lerro nagusiei buruzko erabaki publikoetan norbanakoen eta komunitateen parte hartzeari merezi duen pisua aitortzea.* Gizartean eragin esanguratsua izan dezaketen ikerketa lerroei buruzko erabaki garrantzitsuetan, zenbait teknologia berrirenak kasu, parte hartzeko publikorako mekanismoak aurreikustea eskatzen du.
- c) *Zientziaren kontserbazioa, bere garapena eta ezagutza zientifikoaren hedapena bermatzen duen “ingurune mesedegarri” baten beharra.* Estatu-kideek garapen zientifiko eta teknologikoa gizakiaren mesedetan aurrera eramateko konpromiso esplizitua dute. Bestalde, jakintza zientifikoari eta bere aplikazioei buruzko informazioaren hedapen zabal eta irekia ahalbidetzea gizarteak erabakietan parte hartu ahal izateko ezinbesteko baldintza da.

VIII.1.B.c. Ikerketa zientifikorako askatasunaren objektua

Ikerketa zientifikorako askatasunaren egikaritzaren bidez bilatzen den ezagutza zientifikoaren ekoizpenak, eskubidearen objektua zehazterako orduan, elementu zentral bezala jarduten du. Alegia, eskubidearen objektua osatzen duten elementuak ezagutza zientifikoaren bilaketa horren inguruan egituratzen dira eta ekoizpen zientifikoaren

¹⁸³⁷ Zentzu horretan, AHUMADA CANABES, op. cit, 226-241. orr.

¹⁸³⁸ Zehazki, eskubide kulturalen Errelatore Bereziak egindako informea da: Consejo de Derechos Humanos de la ONU, 2012.

¹⁸³⁹ Ibid, III. B atala.

prozesua bere osotasunean hartzen dute kontuan: ezagutza zientifikoaren bilaketa horretan *ex ante* burutzen den ikerketa zientifikoa, baina baita lortutako emaitza eta ondorio zientifikoaren *ex post* dibulgazioa. Izan ere, eskubidearen objektua ez da ezagutza zientifiko horren bilaketan aurrera eramandako ikerketa zientifiko librearekin agortzen, ikerketatik ondorioztaturiko ezagutza zientifikoaren dibulgazioa ere eskubidearen objektuaren parte baita. Jakintza zientifikoaren hedapenak funtzio sozial bat betetzen du (botere publikoek ondorioz dibulgazioan laguntza eskaintzeko betebeharra dute¹⁸⁴⁰) eta eskubidearen dimentsio kolektiboaren eraginkortasunerako ezinbesteko elementua da, informazio askatasunarekin¹⁸⁴¹ (ikerlariak ezagutza transmititu eta gizarteak jaso) eta adierazpen askatasunarekin¹⁸⁴² harreman estua gordetzearekin batera. Beraz, ikerketa zientifikorako askatasunaren objektuak honako ahalmen eta jarduerak barnerbiltzen ditu:

- a) Ikerketa ildoak aukeratzea.
- b) Informazioa bilatu eta ikerketa zientifikoan aplikatuko diren metodologiak erabakitzea.
- c) Ikerlariak maneiatzen dituen datu edo hipotesiak frogatzeko helburupean egindako esperimendazio jarduerak.
- d) Ikerketa zientifikotik lortutako emaitzen inguruan ondorioak ateratzean ikerlariak egiten dituen balorazio subjektiboak ere eskubidearen objektuaren parte kontsideratu behar dira¹⁸⁴³.
- e) Ikerketa zientifikoetatik eratorritako ezagutza zientifikoaren dibulgazioa.

Orain arte azaldutakoak ez du aparteko arazorik planteatzen. Aztergai dugun eskubidearen dimentsio negatiboaren enuntziatu konstituzionala (20.1.b) art.) aitzitik, ekoizpen eta sortze zientifikorako *eta teknikorako* askatasunaz mintzo dela azpimarratu behar da. Xedapen normatibo horretan bata bestearen segidan aurreikusten diren ikerketa zientifikorako eta teknikorako askatasun hori (edo horiek) interpretatzean, doktrina juridikoak ondorio desberdinak atera ditu, jarraian azaltzen direnak:

- a) Izaera desberdina duten bi oinarritzko eskubide dira¹⁸⁴⁴. Ikerketa zientifikorako askatasunak ezagutza zientifikoaren bilaketan funtsa duen bitartean, teknika askatasuna beste espazio baten inguruan egituratzen da: teknika askatasunaren funtsezko helburua ezagutza zientifikoaren aprobetxamendu praktikoa da.

¹⁸⁴⁰ Aurretiaz aipatua, AKE 53/1988, 1.o.j.

¹⁸⁴¹ Consejo de Derechos Humanos de la ONU, op. cit, 21. puntua.

¹⁸⁴² AK-ren esanetan, ikerketa zientifikorako askatasunak babesten duen emaitzen dibulgazio hori adierazpen askatasunerako eskubidearen zehaztapena da (AKEE 153/1985, 5. o.j; 43/2002, 5. o.j.).

¹⁸⁴³ AK-k emandako jurisprudenzian oinarrituz, ikerketa zientifikorako askatasun eskubideak ikerlariaren parte hartze subjektiboa ere bermatu egiten du, ikerketa zientifikotik eratortzen diren emaitzen balorazio, hipotesi edo suposizioen gainekoa (AKE 43/2004, 5.o.j.).

¹⁸⁴⁴ Chueca Rodríguezek (op. cit, 14-15. orr.) defendatutako tesia.

- b) Bi askatasunez (zientifikoa eta tekniko) osatutako eskubide bat eta bakarra da¹⁸⁴⁵, ezagutza zientifikoaren ekoizpena eta bere aprobetxamendu tekniko barne hartzen dituen, inolako ñabardurarik egin gabe.
- c) Ikerketa zientifikorako askatasunean sustraitzen den oinarritzko eskubide bakarren aurrean gaude. Aitzitik, eskubide horren egikaritzaren helburuak, hots, ezagutza zientifikoaren bilaketak, askatasun tekniko eskubidearen objektuaren barnean noiz sartzen den edo ez erabakitze elementu erabakigarri bezala dihardu¹⁸⁴⁶. Askatasun tekniko eskubide horren objektua kontsideratuko da ezagutza zientifikoaren bilaketarako beharrezko bitarteko bezala erabiltzen denean; hots, ezagutza zientifikoaren aprobetxamendu tekniko horren funtsezko helburua beste ezagutza zientifiko berri batzuk lortzea denean. Kontrako kasuan, azkeneko helburua ezagutza zientifikoaren aprobetxamendu tekniko lortzea denean, askatasun tekniko ikerketa zientifikorako askatasun eskubidearen eremutik kanpo kokatzen da eta izaera ekonomikodun eskubideen bidez babesten da, enpresa askatasunaren edo jabetza intelektualeko eskubide desberdinen bitartez.

Interpretazio horien artean, ikerketa zientifikorako eskubidearen benetako esentzia jasotzen duena azkenekoa da. Izan ere, ezagutza zientifikoaren aprobetxamendu tekniko xede komertzialetara bideratuta dagoenean ezin da oinarritzko eskubide horren barnean gotortu, enpresa askatasun edo jabetza intelektualeko eskubide ekonomikoaren inguruan egituratu den marko normatiboaren barnean baizik. Ikerketa zientifikorako askatasun eskubideak babesten duen jarduera (ikerketa zientifikoa) eta jarduera horren bidez bilatzen den helburua (ezagutza zientifikoaren ekoizpena eta dibulgazioa) dira eskubidearen objektu nagusiak. Ezagutza zientifikoaren aprobetxamendu tekniko ezagutza zientifiko berriak lortzeko bitarteko bezala erabili ezean beraz, ezin da eskubidearen objektu kontsideratu.

VIII.2. Ikerketa zientifikorako askatasuna eta nanoteknologiak

Materiak nano-eskalako tamainan azalerazten dituen ezaugarrien singularitasunaz erakarrita, XXI. mendearen hasieratik aurrera bere aprobetxamendu teknologikoaren industrializazio eta globalizazioa erabatekoa izaten ari da. Nanozientzia eta nanoteknologiak duten elkarrekotasun harremanean, lehenengoak bigarrenaren logikari jarraitzen dio, eta ez alderantziz.

¹⁸⁴⁵ Alzaga Villaamil autoreak egindako interpretazioa da. Lucas Verdu-k askatasun tekniko askatasun zientifikoaren dimentsioaren barnean kokatzen du, teknologiak ezagutza zientifikoaren menpekotasun izaera duenaren arrazoipean. Funtsean hala ere, bai Alzaga Villaamil-ek baita Lucas Verdu-k ere eskubide bat eta bakarraren aurrean gaudela defendatzen dute. Autore horien iritzien iturria, AHUMADA CANABES, op. cit, 327. orr.

¹⁸⁴⁶ Ahumada Canabes egileak bere doktorego tesian defendatutako interpretazioa (AHUMADA CANABES, op. cit, 328-329. orr).

VIII.2.A. Nanoteknologiaren gaineko interes ekonomikoak ikerketa zientifikorako askatasunaren dimentsioetan sorrarazitako ondorio negatiboak

Materialak nano-eskalan manipulatzetik lortu daitekeen aprobetxamendu teknologikoak, botere ekonomiko antolatu eta indartsuen erabilgarritasun tekniko eta errentagarritasun ekonomikoen maximizazioa bezalako irizpideez gidatuta, ikerketa-eremu horretan aurrera eramaten diren ikerketa lerroen norabidea erabat baldintzatzen du. Alde horretatik, esparru komunitarioan nanozientzia eta nanoteknologiaren ikerketa arduratsua gidatzea xede duten printzipio nagusiak (2008ko borondatezko portaera kode komunitarioan zehaztuak¹⁸⁴⁷) ez dira inolaz ere betetzen.

Nanoteknologiari buruzko ezagutza zientifikoaren ekoizpena abiadura bikoitzekoa da. Nanomaterialen fabrikatzearen ustiapen teknikoaren ezagutza zientifikoa azkar hazten ari da; ez, ordea, ustiapen tekniko horrek osasunean edota ingurumenean eragin ditzakeen arrisku potentzialei buruzko ezagutza, alor konkretu horretan ziurgabetasun zientifikoa nagusi izaten jarraitzen baitu. Egoera horrek, ordea, ez dio nanoteknologiaren ustiapen teknologikoari galga handirik suposatu. Nanomaterialen fabrikatze bidez osasunean edo ingurumenean sorraza ditzaketen kalteen arrazoizko zantzu zientifikoa gero eta ugariagoak badira ere, hori ez dira oztopo izaten ari material zehatz horiek erabili eta produktuetan komertzializatzeko, aplikagarri zaizkien marko juridiko desberdinek horretarako bide ematen baitute.

Ikerketa zientifikorako askatasun eskubidearen ikuspegitik, nanoteknologiaren gaur egungo ikerketa eremuan nabarmendu daitekeen abiadura bikoitz horrek eskubidearen dimentsio indibidual eta kolektiboari negatiboki eragiten die. Ikerlari indibidualek beren ikerketen ildoak erabakitzeko duten autonomia murriztarekin batera (“ordaintzen duenak erabakitzen du”¹⁸⁴⁸, irizpidea da nagusi), botere publikoek zientzia sustatzeko duten eginbeharrean ez dute segi behar luketen neutraltasun printzipioaren arabera jokatzeko. Ikerketa zientifikoaren sustapen publikoaren ikuspegitik, bai maila komunitarioan¹⁸⁴⁹ baita Espainiar estatu mailan ere¹⁸⁵⁰, botere publikoek interes orokorraren mesedetan jarduteko mandatua dute: gizartearentzat eragin positibo zabalenak ekar ditzaketen ikerketa lerroak bultzatu eta herritar, kontsumitzaile, langile eta ingurumena babestera zuzendutako ikerketari lehentasuna eman behar diote. NBEko Giza Eskubideen Kontseiluak eskubidearen dimentsio kolektiboaren edukiei buruz 2012an argitaratutako informea oinarri hartuta, nanoteknologiaren garapenean ez dira premisa horietako batzuk betetzen ari.

Izan ere, Europar Batasunak nanoteknologiaren ikerketa arduratsua bultzatzeko onartu zuen portaera kode komunitarioa urratzen duen lehena, Europar Batasuna bera da. Portaera kode horrek, nanoteknologiaren ikerketa finantzatzeko duten entitate publiko eta pribatuei

¹⁸⁴⁷ EBko Komisioaren 2008/345/CE Gomendioa.

¹⁸⁴⁸ Ikerketa zientifikoaren ildoetan “ordaintzen duenak erabakitzen du” irizpidez mintzo da Díez-Picazo, eta beraz, ikertzaileek ildo horiek “kritikatze eskubidea” besterik ez zaie geratzen (DÍEZ-PICAZO, op. cit., 360. orr.).

¹⁸⁴⁹ 2008/345/CE Gomendioa, 4.1.13 atala.

¹⁸⁵⁰ 2008/345/CE Gomendioa, 4.1.12 atala.

beren finantziazioaren proportzio egoki bat nanomaterialen arriskuen ebaluaketarako metodologiak ikertzeraz bideratu dezatela eskatzen die. Europar Batasunak, aitzitik, urtero batz besterik ez da nanomaterialek osasun, ingurumen edo segurtasunean eragin ditzaketen arriskuen ikerketara bideratzen¹⁸⁵¹.

Nanoteknologiaren ikerketa zientifikoaren atzean dauden interes ekonomiko garrantzitsuek eskubidearen dimentsio indibiduala askatasunez egikaritzea oztopatu egiten dute eta horrek, era berean, gizartearen titulartasuneko den eskubidearen dimentsio kolektiboari eragiten dio: dimentsio horri jarraiki gizarteak nanoteknologiaren garapen zientifikoan parte hartzeko eskubidea du, bai beren onuretan, baina baita ikerketa lerro nagusien erabaki publikoetan¹⁸⁵² ere.

Nanoteknologiak beren hastapenetan gaur egun munduak bizi dituen gaitz askoren aurkako panazea teknologiko¹⁸⁵³ bezala saldu izan badira ere, egungo errealitatek bestelako irakurketa bat egin daiteke. Orain arte merkaturatu diren nanoproduktu eta aplikazioen ezaugarriak ustezko onura potentzial horietatik urrun geratu eta kezka askoren objektu izaten ari dira. Bestalde, nanoteknologiak gizartean duten eragina esponentzialki haziz badoa ere, teknologia horien erabakien egokitzapenean herritarrei ez zaie hitza eskatu, ez zaie parte-hartze prozesuetan inolako pisurik aitortu¹⁸⁵⁴, kasu bakan batzuetan izan ezik (Frantziako kontsulta publikoan esaterako¹⁸⁵⁵). Gizarteak nanoteknologiaren ikerketa zientifikoan parte hartu eta bere onurez gozatzeko duen eskubidea egikaritu ahal izateko, ezagutza zientifikoaren hedapena bermatzen duen “ingurune mesedegarri” baten existentzia¹⁸⁵⁶ beharrezkoa da. Nanoteknologiaren kasuan aitzitik, ez da informazioaren hedapen zabal eta irekia bermatzen duen “ingurune mesedegarririk” existitzen, kontrakoa baizik. Botere publikoari ahalik eta informazio gutxien transmititzeko helburuz, industria nanoteknologikoa jabetza intelektualeko eskubideetan gotortzen da behin eta berriz

VIII.2.B. Nanoteknologiaren testuinguruan ikerketa zientifikorako askatasunaren dimentsioak babesteko neurri publikoaren oinarriak: erantzukizun, arreta, gardentasun eta parte hartze printzipioak

Funtsean, nanoteknologiaren ezagutza zientifikoa partziala eta osatugabea izanik, beren onura potentzialen hartzailerik den gizartearen informatu gabe eta erabaki publikoetan

¹⁸⁵¹ OECD eta NNI, 2013: 22.

¹⁸⁵² Nazio Batuen Erakunde mailan, Consejo de Derechos Humanos de la ONU, 2012, III.B.3 atala. Europar Batasunean, 2008/345/CE Gomendioa, 4.1.8 atala.

¹⁸⁵³ Nanoteknologiak gaixotasun larri askoren, munduko gosetearen, ingurumen kutsadura iturri desberdinen eta lehengaien eskasiaren aurkako konponbide teknologiko bezala aurkeztu dira. Onura potentzialei buruz, tesiaren 1. Kapituluko III.3.A atala kontsultatu.

¹⁸⁵⁴ Nanoteknologiaren garapenari buruzko erabakien egokitzapenean Europar Batasunak bere herritarrekiko azaldu duen jarrera, arazo horren adibide garbia da (tesiaren 4. kapituluko III.2 atala kontsultatu).

¹⁸⁵⁵ Frantziak 2009-2010 bitartean nanoteknologiari buruz ospatutako eztabaida publikoari buruz, tesiaren 4. kapitulua, II.3 atala.

¹⁸⁵⁶ Consejo de Derechos Humanos de la ONU, 2012, III.B.4 atala.

herritarrei parte hartzeko aukera eman gabe garatzen ari dira. Hala ere, ikerketa zientifikorako askatasun eskubidearen dimentsio indibidual eta kolektiboaren egikarritza oztopoz josita dagoen testuinguru horretan, zuzenbideak egoera horri buelta ematea posible egin dezaketen mekanismo juridikoak izan baditu. Etengabeko garapen teknozientifikoan bizi garen garai honetan, nanoteknologien ezagutza zientifikoaren ekoizpenean eta horren aprobetxamendu teknologikoan parte hartzen duten aktore pribatu eta publiko desberdinek gizateriarekiko erantzukizun garrantzitsua dute, bai orainaldiari baita etorkizunari begira ere¹⁸⁵⁷, erantzukizun printzipio bezala kalifikatu izan dena¹⁸⁵⁸. Printzipio hori garapen teknozientifikoan parte hartzen duten aktoreek duten erantzukizun moralaz (ez ordea legalaz) mintzo bada ere, esparru juridikoan printzipio horren zentzua eta oinarriak uztartzen dituzten beste printzipio batzuk existitzen dira, zehazki: arreta, gardentasun eta parte hartze printzipioak. EBren oinarriko tratatuetan eta kasuan kasuko arauketa sektorialetan aurreikusten diren printzipio orokor horiek, halaber, nanoteknologien ikerketarako portaera kode komunitarioak ere espresuki aurreikusten ditu¹⁸⁵⁹.

Ezagutza zientifiko eta teknologikoak garapen sozialean jokatzeko duen rol garrantzitsua presente edukita, nanoteknologien kasuan jokoan dauden eskubide, balio eta interes legitimoak aintzat hartzen dituen jardura zientifiko orekatua bultzatzen duten neurri juridikoak adostu behar dira. Zientzialariek askatasunez ikertzeko ezinbestekoa duten autonomia esfera errespetatu eta babestearekin batera, gizartearen garapenerako benetan lagungarria izan daitekeen ikerketa ereduak uztartu behar da. Aldaketa hori posible egin dezakeen giltza botere publikoen eskuetan dago, arreta, gardentasun eta parte hartze printzipioetan funtza duten neurri juridikoen diseinuan. Datozen lehenetan proposatzen diren neurriak, bestalde, tesiaren beste kapitulu batzuetan proposatu eta sakondu dira dagoeneko.

Botere publikoek ikerketa zientifikoa eta teknika interes orokorraren mesedetan sustatzeko duten betebeharrak konstituzionalaren (EK 44.2 art.) eta portaera kodearen zentzutik eratorritzen den erantzukizun printzipioaren arabera¹⁸⁶⁰, nanoteknologien ikerketak finantzatzen dituzten entitate publiko eta pribatuek, ikertzaileekin batera, ikerketa proiektuen lehenengo faseetan etorkizunera begira izan ditzakeen aprobetxamendu teknikoen ondorioak aztertu behar dituzte. Egin behar horrek botere publikoek ikerketaren arriskuen ikerketan aktiboki parte hartzea eskatzen die beraz.

Jada azaldu den bezala, nanoteknologien ezagutza zientifikoaren ekoizpenean desoreka nabaria hauteman daiteke: nanomaterialen fabrikatzearen ustiari teknikoen

¹⁸⁵⁷ Nanozientzia eta nanoteknologien ikerketa arduratsurako portaera kode komunitarioak (gogoratu, 2008/345/CE Gomendioa) ikerketak garapen sostengarria bultzatu eta izaki zein ingurumenarentzat mehatxu biologiko, fisiko edo moralik ez eragitea eskatzen du, ez orainaldiari ezta etorkizunari begira ere (3.2 atala).

¹⁸⁵⁸ Printzipio etiko horren idealizatzaile nagusia Hans Jonas filosofoa izan zen (JONAS, 1997). Nanoteknologien ikerketaren baitan, erantzukizun printzipio hori aplikatzearen aldeko planteamendua, CAMPILLO VÉLEZ eta ZULETA SALAS, 2014: 68-69.

¹⁸⁵⁹ 2008/345/CE Gomendioa, 3.3 eta 4.1.9 atalak (arreta printzipioa), 3.4 eta 4.1.8 atalak (parte hartze eta gardentasun printzipioak).

¹⁸⁶⁰ 2008/345/CE Gomendioa, 4.1.9 atala.

ezagutza maila azkar ari da hasten, baina ez ordea ustiapen tekniko horretatik ondorioztatzen diren arriskuei buruzko ezagutza zientifikoa. Kontsekuenteki, botere publiko eskudunek nanoteknologiaren arriskuei buruzko ezagutza zientifikoaren ekoizpena bultzatu behar dute. Nanomaterialen manufakturatuen arriskuak edo beren erabilera segurua ikertzea objektu duten ikerketa ildoen sustapenaren aldeko hautu publiko hori, ez da botere publikoek mantendu behar duten neutraltasun ideologikoaren printzipioaren aurka doanik ulertu behar, sustapen politika horrek interes orokorraren defentsan eta erantzukizun printzipioan aurkitzen baitu bere funtsa.

Nanoteknologiaren arriskuen ezagutza zientifikoaren ekoizpenean, botere publikoekin batera, industria nanoteknologikoak aktiboki parte hartzea ere ezinbestekoa da. Arriskuen ikerketa zientifikoa sustatzen duten ekimen publikoek gain, nanoproduktuen erabilera edo komertzializaziorako baimen administratiboaren ematea beren erabilera seguruaren frogapenera baldintzatuta geratu beharko litzateke, arreta printzipioan funtsa duen arriskuaren *iuris tantum* presuntzioaren aplikazioaren bitartez¹⁸⁶¹. Baimen administratibo hori lortzeko, presuntzio horrek frogaren zama industria nanoteknologikoari transmititzen dio eta kontsekuenteki, nanoproduktuen arrisku posibleen eta beren erabilera seguruaren ikerketa zientifikoa bultzatzen du. Nanoproduktuen erabilera edo komertzializazioa segurua dela frogatu ezean, produktu horrek ez luke baimen administratiborik lortuko.

Bestalde, ikerketa zientifikorako askatasun eskubidearen dimentsio kolektiboak ezagutza zientifiko horren hedapen eta elkartruckerako “ingurune mesedegarri” bat egituratzea eskatzen du, gizarteari teknologia horien erabaki garrantzitsuetan parte hartzeko mekanismo juridikoak aurreikustearekin batera.

Gardentasun printzipioaren harira, nanoteknologiaren garapenean parte hartzen duten aktore desberdinen arteko informazioaren elkartrukea eta herritarren informazio sarbide eraginkorra bermatzen duten mekanismo administratibo publikoak beharrezkoak dira. Alde batetik, komunitate zientifikoaren artean informazio elkartrukea ahalbidetzen dutenak, nanomaterialen buruzko ebaluaketa zientifikoaren informazio esanguratsua (erabilitako ebaluaketa metodologiak, emaitzak edo ondorioak) biltzen dituen inbentarioa kasu¹⁸⁶². Bestetik, nanoteknologiaren onuren hartzailea den gizarteari eta eraginda geratzen diren beste kolektiboek (kontsumitzaile eta langileak) informazio sarbidea bermatzen dieten mekanismoak¹⁸⁶³: nanomaterialen erregistroak, nanoproduktuen inbentarioak, produktuetan erabilitako nano-osagaien etiketapen unibertsala edota hornikuntza katean zehar nanomaterialen informazioaren transmisioa bermatzen duten instrumentuak, besteak beste.

Azkenik, nanoteknologiaren garapenak gizarteari bere osotasunean eta kolektibo batzuei partikularki (kontsumitzaile, langile eta pazienteek) eragiten diela aintza hartuta,

¹⁸⁶¹ Kontzeptu horri buruz, RENN and ELLIOTT, 2011: 242.

¹⁸⁶² Izaera horretako inbentarioa proposatzen dute: SCENIHR, 2009) and PONCE del CASTILLO, 2010a: 22.

¹⁸⁶³ Teknika administratibo horien azalpena, tesiko 5. kapituluaren (V.2. atala) eta 11. kapituluaren (II. eta III. ataletan zehar).

teknologia horien norabideari buruzko erabaki garrantzitsuenak (esate baterako, lehenetsi edo alde batera utzi beharreko ikerketa lerroak edo beren finantziazioa) gizartearen parte hartzea bermatuz hartu behar dira¹⁸⁶⁴: EBko Komisioaren kontsulta publikoek gain, eztabaidarako elkarguneak, herritarren epaimahaiak, tailerrak, kontsentsua bilatzeko konferentziak, arau osatze negoziatua edota mediazio teknika bezalako parte-hartze mekanismoak erabili daitezke xede horretarako.

VIII.2.C. Ikerketa zientifikorako askatasuna eta nanoteknologiak: ondorio moduan

XXI. mende hasierarekin batera, nanoteknologiak munduan egun bizi ditugun arazo garrantzitsu askori aurre egiteko gai diren teknologiak bailiran aurkeztu zitzaizkion gizarteari. Teknologia horiek urte hauetan zehar izan duten bilakaerari kasu eginez gero, aitiztik, promestutako onura sozial horietatik urrun daude. Nanomaterialek osasun eta ingurumenean eragin ditzaketen arriskuei buruzko ziurgabetasun zientifikoek eta oinarritzko eskubideen ikuspegitik planteatu ditzaketen kezkek nagusi izaten jarraitzen badute ere, nanoteknologiaren ustiapen tekniko eta komertzializazioa abiadura azkarrean ari da hazten.

Nanoteknologiaren garapen “ez sozial” horren arrazoi garrantzitsuetako bat azken hamarkadan zehar bultzatu den ikerketa zientifikoaren eredu da. Esparru komunitarioan, nanoteknologiaren ikerketa ereduak ez ditu EBko Komisioak 2008an onartutako nanoteknologiaren ikerketa arduratsurako portaera kodearen printzipio orokorrak betetzen. Horren orde, nanoteknologiaren ikerketak bere atzean dagoen teknozientzia antolatuaeren interes ekonomikoek markatutako irizpideen arabera dihardu, ikerketak finantzatzen dituzten botere publikoen konplizitatearekin gainera. Nanoteknologiaren ikerketa bezalako gai konprometitu batean, loteslea den arau bat onartu beharrean borondatezko izaera duen portaera kode bat onartzearen hautu politikoaren okertasuna begi-bistakoa da, arauak indarrean daramatzen urte hauetako esperientziatik egiaztatu daitekeen bezala.

Ikerketa zientifikorako askatasunaren ikuspegitik aztertuta, eredu horrek ez ditu oinarritzko eskubide horren dimentsio indibiduala (negatiboa eta positiboa) eta kolektiboa errespetatzen. Azken hamarkadetan ikerketa zientifiko esperimentalek izan duten joerari jarraituz, ikerlari indibidualek beren ikerketa lerroak erabakitzeko izan beharko luketen autonomia edo autodeterminazio gaitasuna falta dute, “ordaintzen duenak erabakitzen du” irizpidearen mesedetan. Nanoteknologiaren ikerketa ereduak industria nanoteknologikoaren interesen arabera funtzionatzen duenez, ikerketa eredu horrek ezagutza zientifiko desorekatua eragin du: nanoteknologiaren ustiapen teknikoaren gaineko ezagutza zientifiko bultzatu da, ustiapen tekniko horrek osasun eta ingurumenean eragin ditzakeen arriskuei buruzko ezagutza zientifikoaren ekoizpena bigarren plano batean utziz.

¹⁸⁶⁴ Tesiko 3. Kapitulu II.2.C atala kontsultatu.

Interes pribatuek bultzatuta jarduten duten inbertsiogileekin batera, botere publikoek ere nanoteknologiaren ezagutza zientifikoaren abiadura bikoitz horretan zuzeneko erantzukizuna izan dute. Portaera kode komunitarioaren eta Espainiako konstituzioaren irakurketa bateratua eginda, botere publikoek ikerketa zientifikoa interes orokorraren mesedetan finantzatu beharko lukete. Nanoteknologiaren kasuan, gizartearentzat onura zabalena ekar ditzaketen eta herritar, kontsumitzaile, langile eta ingurumena babestera zuzendutako ikerketen finantziakoa lehenetsi beharko litzateke. Dimentsio prestazional horren azkeneko helburua ikerketa zientifikorako askatasunaren dimentsio kolektiboa babestea da; alegia, gizarteak nanoteknologiaren ikerketa arduratsurik eratorritako onura teknikoek gozatu ahal izateko eskubidea.

Dagoeneko salatu den bezala, nanoteknologiaren ikerketaren sustapen publiko komunitarioa mandatu horren aurka doala arrazoitu daiteke, urteko 600 milioi euroko batz besteko inbertsio komunitariotik nanoteknologiaren osasun, ingurumen edo segurtasun arriskuak ikertzera %5a besterik ez baita bideratzen¹⁸⁶⁵. Bestalde, portaera kodeak eskatutakoaren kontrari, nanoteknologiaren ikerketa lerro nagusiak maila komunitarioan aurretiaz lerro horiei buruzko eztabaida eta parte hartze publikoko prozesurik aurrera eramane gabe erabaki dira. Botere publiko komunitario eskudunek ez dute eskubidearen dimentsio prestazional horrek agintzen dien interes orokorra kontuan hartu, ezta herritarrei ikerketa lerro nagusien erabakietan parte hartzeko aukerarik eman ere. Beraz, nanoteknologiaren onurez gozatzeko gizarteak izan beharko lukeen eskubidearen egikaritzea eraginkorretik urrun, teknologia horien arriskuen ziurgabetasun zientifikoak eta oinarriko eskubideei buruzko kezkek esanguratsuak izaten jarraitzen duten testuingurua da nagusi.

Nanoteknologiaren ikerketa eredu horrek daraman okerreko norabidearen aurrean, botere publiko eskudunek eta nanoteknologiaren atzean dagoen teknozientzia antolatutak ikerketa eredu arduratsu bat aurrera eramateko erantzukizuna dute, prisma juridiko batetik aztertuta, hiru printzipioen egikaritzean oinarritu behar dena: arreta printzipioan, parte hartze publikorako printzipioan eta aurreko bien egikaritzarako funtsezkoa den gardentasun printzipioan.

Arreta printzipioan oinarritutako neurri juridikoak nanoteknologiaren ezagutza zientifikoaren ekoizpenean egun dagoen desorekari aurre egiteko eraginkorrak izan daitezke. Printzipio horretan oinarritutako mekanismo juridikoen aktibazioaren bidez (arriskuaren *iuris tantum* presuntzioa esate baterako), industria nanoteknologikoari bere produktu eta aplikazioen segurtasuna frogatzeko karga transmititu eta kontsekuenteki produktuen segurtasunaren inguruko ikerketa zientifikoak intentsifikatu egingo direla pentsa daiteke. Parte hartze publikorako printzipioa ikerketa zientifikorako askatasunaren dimentsio kolektiboarekin elkarlotuta dago: nanoteknologiaren onura potentzialen hartzaila gizarteak izanik, herritarrei nanoteknologiaren ikerketaren norabideari buruzko erabaki garrantzitsuetan berariaz eta eraginkortasunez parte hartzeko formatuak eskaini behar zaizkio. Azkenik, gardentasun printzipioak interes orokorrekoa den ezagutza zientifikoaren difusioa eta alderdi desberdinen (nagusiki, industria nanoteknologiko, botere publiko,

¹⁸⁶⁵ Gogoratu, OECD eta NNI, 2013: 22.

langile, kontsumitzaile, paziente eta hiritar xumeen) arteko informazio elkartrukea xede duten neurri administratiboak onartzea eskatzen du, nanoteknologiaren ezagutza zientifikoaren baitan egun dagoen defizit informatiboa gutxiarazten eta herritarrek orain arte arrotzak zaizkien teknologia horiekiko jakintza maila handiagotzen lagundu dezaketenak.

IX. NANOTEKNOLOGIAK ETA GIZA ESKUBIDEAK: LABURPEN MODUAN

IX.1. Gizakia, natura eta teknologiaren arteko harremanaren bilakaera historikoa

Gizakiak, bere existentziaren hastapenetatik hasita, bere bizigunea den natura ulertu eta kontrolatu nahi izan du. Historian zehar ingurumenak planteatu izan dizkion peril naturalak identifikatu, tratatu eta kontrolatzeko eskuratu duen jakintza zientifiko eta gaitasun tekniko progresiboak, gizakia *homo faber* bilakatzea eragin du. Mendeetan zehar garapen teknologikoaren helburua naturaren mehatxu eta arriskuak kontrolatzea eta horiei aurre egitea izan bada ere, bere jakin-min ase-ezinaz gidatuta, azken hamarkadetan gizakia naturaren elementurik ezezagunenetan murgildu da. Esponentzialki haziz joan den ezagutza zientifikoari eta aprobetxamendu teknologikoaren sofistikazioari esker, orain gutxirarte ezezagunak ziren jakintza arlo berriak estalgabetu eta zientzia eta teknikari jarduera eremu berriak ireki zaizkio.

Gizakiak mendeetan barrena natura ulertu eta kontrolatzeko garatu duen ezagutza zientifiko eta teknikoaz harago, duela hamarkada batzuk gertatutako ADNaren aurkikuntzaren eta hura manipulatzeko gaitasuna duten bioteknologiaren sorreraren ondorioz, gizaki, natura eta teknologiaren arteko harremanean pausu berri bat eman da: gizakia *homo faber* izateaz gain, *homo creator* eta *homo materia* bihurtu da. Organismo naturalen genetika artifizialki manipulatu eta genetikoki eraldatutako organismo berriak sortzeko gaitasunarekin batera (*homo creator*), gizakiaren ezaugarri genetikoak, giza espeziearen ondare komuna eta aldi berean gizaki bakoitzaren banakotasunaren eta errepika-ezintasunaren isla diren ezaugarriak, ikerketa zientifikoaren eta aprobetxamendu teknikoaren objektu izatera pasa dira. Ondorioz, gizakia bera gizakiaren manipulazio objektua bihurtu da; gizakia *homo materia* bilakatu da. Teknologia berriei esker, beraz, gizakia gero eta ezagutza eta gaitasun teknozientifiko handiagoa eskuratzen ari da, inguratzen duen kanpo dimentsioari buruz (gizakia bizi den ingurunea), baina baita bere barne dimentsioari (gizakia jaio, bizi eta hiltzeko moduak eta bere natura biologikoa) buruz ere.

IX.2. Nanoteknologiaren eta nanomaterialen fabrikatzearen ezaugarri nagusiak

Nanoteknologiak, materia nano-eskalan (10^{-9} metro) manipulatzetik beren propietate berezi eta teknikoki probetxugarriak bilatzen dituzten teknologien multzoak, hazkuntza nabarmena izan dute XXI. mendearen hasiera honetan. Nanoteknologiaren ustiapenetik eratortzen diren material berriak, nanomaterialen manufakturatutakoak, gero eta produktu eta aplikazio gehiagotan ikertu, erabili eta komertzializatzen dira. Nanomaterialen manufakturatutakoak aniztasun, heterogeneotasun, sofistikazio eta konbergentziaren sinonimo dira. Ekoizten diren nanomaterialen manufakturatutako moten kopurua gero eta anitzagoa da; gaur egun gutxienez 2.500 mota dokumentatu dira. Nanomaterial bakoitzak propietate fisiko-kimiko desberdinak eta heterogeneoak ditu (nanomaterial bakoitza mundu bat da). Denbora igaro ahala, gainera, gero eta sofistikatuagoak dira eta etorkizunera begira garatu dezaketen sofistikazio mailaren arabera, material horien lau belaunaldi desberdin iragarri dira. Bestalde, nanoteknologiak beste teknologia berri batzuen (bioteknologiak edo informazio eta komunikazioaren teknologiak) “ahalbidetze teknologia” bezala funtzionatzen dute; hots, nanomaterialen manufakturatutakoak beste teknologia berri batzuen gaitasunak eta funtzioak potentziatzeko erabiltzen dira.

Nanoteknologiari buruzko ezagutza zientifiko eta tekniko berrien ekoizpena, alabaina, erabat asimetrikoa izaten ari da. Nanomaterialen manufakturatutako ustiapen komertzialari buruzko ezagutza abiadura bizian hazten ari da; ez, ordea, material berri horiek osasunean eta ingurumenean eragin ditzaketen kalte potentzialena, jakintza eremu zientifiko horrek ziurgabetasun elementuz josia egoten jarraitzen baitu. Europar Batasuneko komite zientifikoak (SCENIHR eta SCCS) eta agentzia komunitarioak (ECHA, EFSA, EU-OSHA eta EEA) antzeko ondorioetara iritsi dira nanomaterialen arriskuei buruz argitaratu dituzten informen aniztetan. Nanomaterialen ezaugarri konplexu eta desberdinak direla eta, arrisku ebaluaketarako metodologia eta testapen konbentzionalek ez dute nanomaterial askoren propietate berezitasunak identifikatu, karakterizatu eta egokitasunez ebaluatzeko balio. Nanomaterialak ebaluatzeko gabezia tekniko horien ondorioz, nanomaterialen askapen, helmuga, propietate edota (eko)toxikotasunari buruzko ezagutza maila oso baxua da.

Nanomaterialen manufakturatutakoak erabiltzen dituzten produktu gero eta gehiago komertzializatzen diren bitartean, nanomaterialen batzuen esposizioak osasunean edo ingurumenean eragin ditzakeen kalteen larritasun eta atzerazintasunari buruzko zantzu zientifikoak gero eta ugariagoak dira. Halaber, nanoteknologiaren garapenarekin zerikusia duten kezka ekonomiko, sozial eta etikoak eta giza eskubideen ikuspegitik planteatu ditzaketen erronkak ere nabarmendu behar dira. Hala eta guztiz ere, nanomaterialen arriskuen gaineko tratamendu juridikoak erabateko protagonismo eskuratu duen bitartean, nanoteknologiaren eta giza eskubideen arteko harremanak orain arte ez du botere publikoen partetik arreta berezirik jaso.

IX.3. Teknologia berrien eta giza eskubideen dimentsio sozialaren arteko harremana

Teknologia berrien bilakaerari esker jarduera eremu zientifiko eta tekniko berriak irekitzen diren bezalaxe, beren erabilera desberdinek juridikoki babesten diren balio, ondasun edota interesei eragiten dieten neurrian, zuzenbideari ere eremu berri horietan jarduteko betebeharra sorrarazten diote, teknologia berri horiek garatu eta erabiltzen hasi aurretik arauketa juridikoaren objektu izateko premiarik ez zuten eremuak. Tesi honen beste kapituluetan, nanoteknologiak osasun eta ingurumena bezalako oinarrizko ondasun juridikoei eragiten dizkieten arrisku ziurgabeen tratamendu juridikoan zentratu gara. Kapitulu honetan, aitzitik, ikuspegi juridikotik arreta berezirik jaso ez duen beste ikerketa-eremu garrantzitsu baten analisiari heldu zaio: giza eskubideen sistema normatiboaren eta nanoteknologiaren arteko harremanetik eratortzen diren erroka garrantzitsuen azterketari.

Giza eskubideen jatorri, oinarri eta ezaugarri teorikoak korrante desberdinetatik luze aztertu eta eztabaidatu dira. formulatu diren teoria desberdinen artean, kapitulu honetan giza eskubideen dimentsio hirukoitzaren interpretazioarekin bat egin dugu. Interpretazio horri jarraiki, giza eskubideek beren izate-arrazoia duintasun, askatasun, berdintasun eta solidariotasuna bezalako balio moraletan aurkitzen badute ere (dimentsio morala), beren babes eraginkorrerako zuzenbideak positibatu eta mekanismo normatiboak aurreikustea ezinbestekoa dute (dimentsio juridiko-positiboa). Oinarrizko balio horien hausnarketa eta interpretaziotik juridikoki babesteko premia duten ondasunak positibatzen dira eta giza eskubideek ondasun juridiko horien babesa instrumentalizatzen duten kategoria juridiko gisa jarduten dute. Giza eskubideen dimentsio moral eta juridiko-positiboarekin batera, beren kontzepzio integral batek beste hirugarren dimentsio bat kontuan hartzea eskatzen du, giza eskubideen dimentsio soziala hain zuzen ere. Horren arabera, giza eskubideak ezin dira momentu historiko bakoitzeko faktore sozial, ekonomiko eta kulturalen eragin-eremutik at kokatzen diren kategoria normatibo estatiko eta atemporalak bailiran ulertu, faktore horien aurrean erreakzionatu egiten duten eta berregituratzen doazen kategoria juridiko dinamiko bezala baizik.

Azken hamarkadetan zehar faktore teknologikoek giza eskubideen dimentsio sozial horren ikuspegitik berebiziko protagonismoa eskuratu dute. Zenbait kasutan, teknologia berrien erabilerek giza eskubide batzuen egikaritzan efektu positiboak sorrarazte dituzte. IKTen erabileraren bidez, besteak beste, adierazpen askatasuna (EK 20.1.a) art.), informazioa jaso zein transmititzeko eskubidea (EK 20.1.d) art.), hezkuntzarako eskubidea (EK 27. art.), babes judizial eraginkorrerako eskubidea (EK 24. art.), biltzeko eta elkartzeko eskubideak (EK 21. eta 22. art. hurrenez hurren), parte hartze politikorako eskubidea (EK 23.1 art.) edota fitxategi eta erregistro publikoetara sarbide eskubidea (EK 105.b) art.) egikaritzeko formatu berri eta erosoagoak egituratzen doaz. Funtsean, IKTek giza eskubide horien eta beste batzuen egikaritzaren eraginkorreraz gozatzeko elementu instrumental gisa jarduten dute, giza eskubideak dimentsio fisikoaz harago doan dimentsio digital global batetan egikaritzeko aukera berri eta ezezagunak irekiaz.

Beste hainbat kasutan ordea, teknologia berrien erabilera batzuek oinarrizko balio eta ondasun juridiko desberdinei negatiboki eragiten diete. Zentzu horretan teknologia berriek oinarrizko balio eta ondasun juridiko horien babesa instrumentalizatzen duten giza

eskubideen egikaritzea eta berme eraginkorrerako oztopo elementu bezala ere jarduten dute. Bioteknologiaren kasuan teknologia berri horren erabilpenak osasunaren ikuspegitik eta ikuspegi komertzial batetik abantaila eta aurrerapen ugari eskaini baditzake ere, giza genomaren (ADNaren) aprobeixamendu tekniko horiek aldi berean giza duintasun, autonomia pertsonal, askatasun eta berdintasuna bezalako oinarritzko balioei eta balio horietatik eratortzen diren ondasun juridiko batzuei negatiboki eragin diezaiakete. Alde horretatik giza bioteknologiaren aprobeixamendu teknikoak eragiten dituen ondasun juridikoen errespetura makurtu behar dira. Eginkizun horretarako, ondasun juridiko horien babesa instrumentalizatzen duten osotasun pertsonal, intimitate, autodeterminazio informatibo, pazientearen autonomia edota berdintasun eskubideak berrinterpretatu eta babes mekanismoak berregituratzea beharrezkoa da, eskubide horien dimentsio sozialak eskatzen duen babes dinamikoaren harira.

IKTak giza eskubide askoren egikaritzaren sustapen elementu instrumental garrantzitsuak izatearekin batera, ondasun juridiko, interes legitimo eta giza eskubide batzuen aurkako erasoen efektuak eta irismen maila multiplikatzeko ere badakarte, pribatutasuna bezalako ondasun juridikoaren aurka bereziki. Ondorioz IKTen erabilera batzuek norbanakoen pribatutasun esfera desberdinak babesten dituzten intimitate eta irudi eskubide (EK 18.1 art.) edota autodeterminazio informatiborako eskubidearengan (EK 18.4 art.) negatiboki eragin dezakete, baita mugimendu askatasunean (EK 19. art.) edo ohore eskubidearengan (EK 18.1) ere.

IX.4. Teknologia berriek giza eskubideengan eragindako efektuen ondorioak: giza eskubideen espezifikazio prozesu “sendoa” eta “leuna”

Giza eskubideen teoria orokorraren ikuspegitik aztertuta, teknologia berriek eskubide baten egikaritzari eragindako efektu onuragarri edo kaltegarrien intentsitate mailaren arabera, eskubide horrek espezifikazio prozesu “sendo” edo “leun” bat jasan dezake. Prozesu “sendo” edo “leun” baten aurrean gauden erabakitze hurrengo azterketa egin behar da: inguruabar teknologiko horrek giza eskubideen ikuspegitik ordura arte juridikoki babesten ez zen ondasun bati, edo aitzitik, dagoeneko juridikoki babesten den ondasun bati eragiten dion. Lehenengo kasuan espezifikazio prozesu sendoa gertatzen da, ondasun juridiko berri baten positibazioak bere babesa instrumentalizatzeko giza eskubide berri baten aintzatespen eta egiturapena eskatzen baitu. Espezifikazio prozesu leuna gertatzen denean aitzitik, ez da juridikoki ondasun berririk positibatzen eta ezin da hortaz giza eskubide berri baten sorreraz hitz egin. Azken kasu horretan inguruabar teknologikoak juridikoki dagoeneko babesten den ondasun bati eragiten dioenez, dagoeneko existitzen den eskubide baten titular, eduki material edo berme mekanismoei eragiten dien espezifikazio prozesua gertatzen da: ez da juridiko eskubide berririk aintzatesten, existitzen den eskubide baten adierazpen berrien sorrera baizik.

Doktrinaren zati batek bioteknologia eta IKTak bezalako teknologia berrien eta giza eskubideen arteko harremanetik eskubide berriak sortzen direla aldarrikatu badu ere, azaldu berri den eskubideen espezifikazio prozesuan oinarritutako azterketari kasu eginez gero, kasu gehienetan ez da eskubide berririk sortzen, existitzen diren eskubide desberdinen subjektu, eduki material edo berme mekanismoen adierazpen berriak baizik (espezifikazio prozesu leuna alegia).

Nanoteknologien erabilera desberdinek giza eskubideen ikuspegitik dakartzaten efektu onuragarri eta batez ere kaltegarrien kasuan, logika berdinak agintzen du: ez da juridikoki ondasun berririk babesteko eta beraz eskubide berririk aintzatesteko premiarik sortzen. Aurrerago azaltzen den bezala, nanoteknologien eragin negatiboek dagoeneko juridikoki aintzatesten diren zenbait eskubideren egikaritzea eraginkorra baldintzatu eta oztopatu egiten dute, kasu askotan eskubide horien berme mekanismoak nanomaterialen manufakturatuen inguruabar berriei aurre egiteko ez baitaude prestatuak. Nanoteknologien erabilera batzuen aurrean beraz kasu konkretu horietan eraginda geratzen diren giza eskubideen berme mekanismoak aztertu, birpentsatu eta berregituratzen dituen espezifikazio prozesu leuna aurrera eramatea ezinbesteko zeregina bilakatu da.

IV.5. Nanoteknologien eta giza eskubideen arteko harremana arautzen duten testu normatiboaren ez-existentzia

Nanoteknologien komertzializazioaren hastapenetatik hamarkada bat inguru igaro da dagoeneko. Hamarkada honetan, nanoteknologien gobernantzan arriskuen tratamendu juridikoak erabateko protagonismoa eskuratu du; ez, ordea, giza eskubideen sistema normatiboaren prismetatik aztertuta. Zuzenbide komunitarioan, “Nanoteknologien Ikerketa Arduraturako Portaera Kodeak” (Komisioaren 2008/345 Gomendioa) giza eskubideen errespetuarekiko aipamen solteren bat egiten du. Zehazki, giza eskubideak edota oinarritzko printzipio etikoak urratzen dituzten ikerketak finantzatzea debekatu egiten du. Hala eta guztiz ere, portaera kode horrek *soft law* arauaren forma duenez, bere edukiaren ez-betetzeak ez du inolako zehapen edo zigorrik sorrarazten; hartatik, portaera kodea errealitatean nanoteknologien ikerketa arautua dagoen itxura emateko eta legitimotasunez hornitzeko instrumentu bezala erabiltzen dela arrazoitu daiteke.

Zuzenbide komunitarioan araututako portaera kode horrez gain, Europar Kontseilua izan da nanoteknologien eta giza eskubideen arteko harremanaren analisiari heldu dion erakunde publiko bakarra. Erakunde horren Asanblada Parlamentarioak, 2013an emandako 2017 (2013) Gomendioaren bidez, Europar Kontseiluko komite desberdinei beren eskumenpeko gaietan nanoteknologien eta giza eskubideen arteko harremana aztertu, eta egokia zeritzoten kasuetan, gomendioak edo instrumentu lotesleak onartzeko prozedurak abiaraztea eskatu zien. Eztabaida eta lanketa-prozesu instituzional horri, aitzitik, ikuspegi integrala falta zaio: nanoteknologien erabilerak biomedikuntzarekin lotutako eskubideetan (Oviedoko Konbentzioan aurreikusiak) izan ditzakeen efektuen azterketara mugatu da, eta

besteak beste, nanoteknologiak erabiltzen dituzten dispositibo elektroniko sofistikatuek bizitza pribatuan eragiten dituzten mehatxu potentzialen analisisa azterketa horretatik kanpo geratu da. Funtsean, Europar Kontseiluan abian jarritako berrikuspen normatibo hori bere hastapenetan dago, ez du ikuspegi integralik eta prozesu horren emaitza gisa gomendio edo instrumentu loteslerik onartuko den ez dago batere garbi. Europar Kontseiluaz harago, nanoteknologiaren eta giza eskubideen harremanari buruzko bestelako ekimen normatiborik ez da dokumentatu.

Kapitulu honen xede nagusia beraz, nanoteknologiaren garapen eredu desorekatua (abiadura bikoitzeko ekoizpen teknozientifikoan oinarritua) eta nanomaterialen ezaugarri nagusiak ardatz hartuta, nanoteknologiaren eta giza eskubideen arteko harremanaren nondik norakoak aztertu, erroka desberdinak identifikatu eta konponbide posibleak proposatzea izan da. Alde batetik, giza duintasunaren oinarritzko balioaren, autonomia pertsonalaren eta nanoteknologiaren arteko harremana (IX.7. atala). Bestetik, nanoteknologiaren eta Espainiako Konstituzioan aurreikusten diren eskubide baten arteko harremana: ikerketa zientifikorako askatasuna (IX.8), osotasun fisikorako eskubidea, osasuna babesteko eskubide eta ingurumen osasuntsu batez gozatzeko eskubidea (IX.9), pazientearen baimen informaturako eskubidea (IX.10) eta azkenik, intimitaterako eskubidea, autodeterminazio informatiborako eskubidea eta mugimendu askatasuna (IX.11). Nanoteknologiaren eta giza eskubideen arteko harremanean murgildu aurretik ordea, esparru komunitarioan nanomaterialen ezaugarriak osasun eta ingurumenaren eragin ditzaketen arriskuei zein nolako tratamendu juridikoa eskaintzen zaien azaltzea garrantzitsua da.

IX.6. Nanomaterialen ezaugarrien arriskuaren tratamendu juridikoaren erradiografia, Europar Batasunaren dimentsiotik aztertuta

Nanomaterialen ezaugarriak aplikagarri zaizkien marko normatibo komunitarioek EBko oinarritzko tratamenduetan exijitzen duten osasun eta ingurumenaren babes maila altua (EBFT 168 eta 191. art.) eta langile eta kontsumitzaileen osasun, segurtasun eta informazio eskubideak (EBFT 153 eta 169. art.) bermatzeko gaitasuna izan behar dute. Nanomaterialen ezaugarriak aplikagarri zaien corpus normatibo hori momentu bakoitzean eskuragarri dagoen ezagutza zientifiko eta tekniko onenean oinarritu behar da (EBFT 191.3 art.); material berri horien arrisku potentzialei buruz existitzen den ziurgabetasun zientifikoko testuingurua kontuan hartuta, arreta printzipioak (EBFT 191.2 art.) corpus normatibo horren egiturapenean erreferente printzipio bezala funtzionatu beharko luke, doktrinaren gehiengoak eta mundu osoko GKE, sindikatu eta kontsumitzaileen elkarteek defendatzen duten bezala.

EBko Komisioak nanomaterialen ezaugarrien arriskuak kudeatzeko 2008an abian jarri eta 2012an berretsi zuen estrategia normatiboak, ordea, ez du gaitasun normatibo ezta tekniko nahikorik erakusten EBko oinarritzko tratamenduetan exijitutako oinarritzko helburu horiei konplimendua emateko. Komisioaren esanetan, nanomaterialen ezaugarriak aplikagarri zaien corpus

normatiboak orokorrean mekanismo juridiko aproposak aurreikusten ditu nanomaterialen arrisku potentzialen aurrean osasun, segurtasun eta ingurumenaren babes maila altua bermatzeko. Beraz, enborrezko aldaketa normatiboen ordez, Komisioak hurrengo defendatzen du: nanomaterialen arriskuak kudeatzeko aldaketa normatibo azalekoak eta puntualak egitea eta gomendio forma duten *soft law* instrumentu malguagoak erabiltzea. EBko Legebiltzarrak, aitzitik, Komisioak defendatu eta gidatutako estrategia normatibo hori gogor kritikatu eta nanomaterialei aplikagarri zaizkien arauketa sektorial desberdinetan enborrezko aldaketa normatiboak egin behar direla argudiatzen du.

Komisioaren estrategia eztabaidagarri horren ondorioz, nanomaterialen arriskuak kontrolatzeko neurri administratibo espezifikoko marko normatibo batzuetan besterik ez dira onartu; zehazki, kontsumo produktu kategorian batzuen arauketetan: produktu kosmetiko (1223/2009 Erregelamendua), biozida (528/2012 Erregelamendua), aparatu elektriko eta elektroniko (2011/65 Zuzentaraua) eta elikagaien arau espezifikoko batzuetan (batzuk nabarmentzearren, 1333/2008 Erregelamendua eta 1169/2011 Erregelamendua). Salbuespen kasu horiez harago, nanomaterialei aplikagarri zaizkien beste marko normatiboetan ez da inolako aldaketarik onartu. Produktu kimikoen arauketa komunitarioa (1907/2006 Erregelamendua eta 1272/2008 Erregelamendua), substantzia kimikoen bizitza ziklo osoan zehar beren trazabilitatea eta erabilera segurua bermatzea helburu duen kontrol sistema administratibo integrala aurreikusten duena, ez da nanomaterialen berezitasunetara normatiboki egokitu; ondorioz, marko normatibo horrek ez du nanomaterialen trazabilitatea eta erabilera segurua bermatzeko gaitasun tekniko-juridiko nahikorik erakusten. Bestalde, lan osasun eta segurtasunari buruzko marko juridiko komunitarioan ere ez da nanomaterialekin zerikusia duen inolako aldaketa normatiborik egin. Ingurumena babestea xede duten arauketa sektorialen kasuan ere, inguruabar normatibo berbera errepikatzen da; ondorioz, erabat konplexua da nanomaterialek ingurumenean dituzten emisio foku eta hondakin fluxuak identifikatu, monitorizatu eta kontrolatzea.

Nanomaterialei aplikatzen zaien corpus normatibo komunitarioa bere osotasunean kontuan hartuz gero, nanomaterialen kontrol mekanismo espezifikoko aurreikusi dituzten eta ez dituzten araudiak barne, corpus normatibo hori ez da gai, nanomaterialen arriskuen ziurgabetasun testuinguruan, esparru komunitarioan ekoitzi, erabili eta komertzializatzen diren nanomaterial eta nanoproduktuen izaera eta kantitatea kalkulatzeko, ezta beren segurtasun maila altua bermatzeko ere. Nanomaterial eta nanoproduktuen informazio publikoa transmititzeko mekanismoak (erregistroak, inbentarioak, etiketapena) mugatuak direnez, langile eta kontsumitzaileek kasu askotan nanomaterialen esposizio ez-informatua eta beraz inkontzientea jasaten dute.

IX.7. Giza duintasuna (EK 10.1. art.), autonomia pertsonala eta nanoteknologiak

Ikuspegi juridiko-teoriko batetik aztertuta, giza duintasuna ordenamendu juridiko-konstituzional baten oinarritzko balioen artean oinarritzkoena da, Zuzenbidezko Estatu

Demokratiko ororen ezinbesteko legitimazio elementua. Gizaki orori gizaki izate hutsagatik berezkoa zaion ezaugarria da duintasuna, beste oinarrizko balioen eta giza eskubide guztien existentziaren funtsa eta izate-arrazoia. Bestalde autonomia indibidualaren balioak norbanakoek beren pertsonalitatea libreki garatu ahal izateko beren bizitzarekiko izan behar duten autodeterminazio gaitasuna bermatzea du xede, beren bizitza proiektua askatasunez, aukera berdintasunean eta besteekiko errespetuan garatzeko ahalmen bezala ulertuta. Pertsonalitatearen garapen dinamiko eta askedun prozesu horretan, norbanakoak berezkoak zaizkien eskubideen egikaritzaz baliatzen dira. Alde horretatik, giza eskubideen egikaritze autodeterminazio prozesu pertsonal horren isla da eta azken horrek, giza eskubideek bezala, bere izate-arrazoia eta oinarrizko nukleoa giza duintasunean aurkitzen du halaber.

Giza duintasuna hortaz berezkoak zaizkien eskubideen hazi edo nukleo gisa ulertu behar da, bizitza eskubidearekin batera, beste eskubideen existentzia eta espezifikaziorako “*prius*” logiko eta ontologikoa (AKE 53/1985, 8. o.j.). Duintasunarekin duten konexio genetikoaren harira, giza eskubideek duintasun balioaren esentzia beren oinarrizko nukleo mugaezinean aurkitzen dute, eskubidearen oinarrizko eduki absolutuan alegia. Giza eskubideak beste balio, eskubide edo interes legitimoekin talkan sartzen direnean horiekin ponderagarriak badira ere, ponderazio jarduera horretan eskubide bakoitzaren gutxieneko eduki hori (giza duintasunaren isla zuzena dena) betiere errespetatu egin behar da. Ondorioz, giza duintasuna edozein estatutu juridikok errespetatu behar duen minimum-bortxaezin bezala jarduten duen balio absolutua da (AKE 120/1990, 4. o.j.), inolako ponderaketarik onartzen ez duena eta gizakion berezko elementu aldaezin, xedaezin eta uko ezina. Giza duintasunaren balioak duen garrantzi juridiko eztabaidaezina nazioarteko esfera desberdinetan aurreikusitako giza eskubideen tratatuek eta Estatu askoren arauketa konstituzionalek aitortzen dioten tratamendu pribilegiatuan atzeman daiteke. Espainiar Estatuaren kasuan Konstituzioaren 10.1 artikuluan aurreikusten den oinarrizko balio konstituzionala da.

Esan bezala, nanoteknologiak gaur egun medikuntzan eta kontsumo produktu kategoria desberdinetan “ahalbidetze teknologia” bezala erabiltzen dira eta kasu batzuetan giza duintasun eta autonomia pertsonalaren ikuspegitik erronka garrantzitsuak planteatzen dituzte. Medikuntzaren eremuan esate baterako, nanoteknologiak giza materia eskala molekularrean identifikatu, monitorizatu eta manipulatzeko orain arte ezinezkoak ziren teknika berriei ateak ireki dizkiete, nanomedikuntza, edo bioteknologiak konbergentzian, nanobiomedikuntza bezalako diziplinen garapen azkarrari esker. Biomedikuntzarekin erkatuz gero, diziplina berri horiek gaur egun giza duintasun eta autonomia pertsonalaren ikuspegitik antzeko erronkak planteatzen dituzte. Etorkizunera begira aitzitik, diziplina horiei pazienteen gorputzeko elementu sakonenetan eragiteko erabateko potentzialtasuna aurreikusten zaie: nanomaterial pasiboetatik adimen propioa duten nanomaterial aktiboetara salto egingo da. Ondorioz, giza duintasun eta autonomia pertsonalari buruz biomedikuntzaren eremuan aurreikusi diren nazioarteko marko moral-normatiboak (Giza Genomari buruzko UNESCOren Adierazpen Unibertsala eta Oviedoko Hitzarmena) motz geratu daitezke nanomedikuntza eta nanobiomedikuntzaren erronka berriei aurre egiterako

orduan. Alde horretatik, diziplina berri horietan oinarritutako praktika sanitarioek duintasun eta autonomia pertsonalaren ikuspegitik sortu ditzaketen arazoak tentuz aztertu, eta horren arabera, nazioarteko testu normatibo horiek berrikusi eta berregituratzea beharrezkoa izan daiteke.

Bestalde, nanoteknologiak zerikusia duten aplikazio militarrei buruzko sekretutasuna nagusi bada ere, argitaratutako informazio datu urrien arabera nanoteknologiak soldaduen baldintza fisikoak indartzea eta beren gaitasun sentsorial eta mentalak hobetzea xede duten aplikazio militarretan erabili eta ikertuak izaten ari dira. Aplikazio potentzial horiek gizakion gaitasun fisiko eta psikikoak giza naturaz harago hobetzea helburu duten neurrian, aplikazio militar horiek giza duintasuna urratzen duten aplikazio eugenetikoak kontsideratu behar dira.

Nolanahi ere, nanoteknologiak giza duintasun eta autonomia pertsonalaren perspektibatik planteatzen dituzten erronkak ez dira soilik diziplina eta aplikazio konkretu batzuetara mugatzen. Izan ere, Europar Batasunak nanoteknologiaren arriskuak kudeatzeko egituratu duen estrategia juridikoa, bere osotasunean kontuan hartuta, oinarritzko balio juridiko horiekin bateraezina dela argudiatu daiteke. Nanomaterialak aplikagarri zaien corpus normatibo komunitarioak ez du gaitasun juridiko-tekniko nahikorik erakusten nanomaterialak identifikatu, monitorizatu eta beren arriskuak kontrolatzeko, hots, oinarritzko tratatu komunitarioek exijitzen duten osasun eta ingurumen babes maila altua bermatzeko. Nanomaterialen fabrikatuek osasunean eta ingurumenean eragin ditzaketen efektuei buruzko ezagutza zientifikoa hutsunez bete da badago ere, corpus normatibo horrek nanomaterial eta nanoproduktuen ekoizpen, erabilera eta komertzializazioa ahalbidetu egiten du. Hautu normatibo hori, arreta printzipioaren aurka joateaz gain, herritarrak (bereziki langile, kontsumitzaile eta pazienteak) nanomaterialen esposizioa jasatera kondenatu egiten ditu, nahiz eta esposizio hori osasunarentzat segurua den zientifikoki frogatu gabe egon. Testuinguru horretan, nanomaterialen efektuei buruzko laborategian egiten diren ikerketa zientifikoekin batera, herritarrak ere nanomaterialen efektu posibleak ikertzeko esperimentu erraldoiaren behaketa-objektu bihurtu dira. Funtsean, nanoteknologiaren arriskuen gobernantza komunitarioak gizakiaren instrumentalizazioa bultzatzen du eta, beraz, giza duintasunaren aurka doa.

Bestalde, herritarrek nanoteknologiakiko duten jakintza mailak oso baxua izaten jarraitzen du. Zuzenbide komunitarioan, produktu kosmetiko, biozida eta elikagaien kasuan besterik ez da derrigorrezkoa kontsumitzaileak nanomaterialen presentziaz ohartaraztea (produktuen etiketan nanomaterial formak dagoen osagaiaren ondoan “nano” atzizkia erantsiz). Langileei eta pazienteei eskaini behar zaien informazioaren kasuan, legedi komunitarioak ez du nanomaterialak buruzko informazioa transmititzeko inolako mekanismo administratibo espezifikorik aurreikusten. Nanoteknologiari buruzko informazio publiko defizitarioak bultzatuta, kontsumitzaileek nanoproduktuak kontsumitzeko, langileek nanomaterialak lan egiteko eta pazienteek nanomaterialak tratamendu mediko bat onartzeko erabakia, kasu gehienetan, honako egoeran hartzen dute: nanomaterialak zer diren ulertu gabe eta beren efektu arriskutsuen inguruan existitzen den

ziurgabetasun zientifikoari buruzko kontzientziarik eduki gabe. Defizit informatibo horrek langile, kontsumitzaile eta pazienteen autonomia pertsonala hutsaldu egiten du, gizatalde horiek ez baitute nahikoa gaitasunik modu informatu, arrazoitu eta kontzientean nanomaterialekiko esposizioan sartu edo ez erabakitzeke.

IX.8. Ikerketa zientifikorako askatasuna (EK 20.1.b) eta 44.2 art.) eta nanoteknologiak

Ikerketa zientifikorako askatasuna (EK 22.1.b) eta 44.2 art.) dimentsio indibidual eta kolektibo batez osatzen den oinarrizko eskubidea da. Alde batetik, dimentsio indibidual klasikoak ikertzaileari 3. pertsonen esku-sartzeetatik babesteko autonomia esfera bat bermatzea du xede. Bestetik, askatasun zientifikoaren dimentsio kolektiboa Nazio Batuen Erakundeak (NBE) giza eskubideei buruz onartu dituen oinarrizko tratatuetan izan da aintzatetsia (GEAU 27.1 art; EGKANI 15.1.b) art.). NBEko Giza Eskubideen Kontseiluak, 2012an argitaratutako informe batean, dimentsio kolektibo horren eduki desberdinak interpretatu egin zituen. Askatasun zientifikoaren dimentsio kolektiboaren titularra ez da ikertzaile indibiduala, gizateria (etorkizuneko belaunaldiak barne) baizik. Ezagutza zientifikoak gizartearen garapenean funtzio sozial garrantzitsu bat betetzen duenez, ikerketa zientifikoari esker lortzen den jakintza zientifikoa ondare kolektiboaren parte bihurtzen da. Gizateriak, ondare komuneko den ezagutza zientifiko horretatik eratorzen diren onurez gozatzeko eta garapen zientifikoan parte hartzeko eskubidea dauka. Azkenik NBEko Giza Eskubideen Kontseiluak dimentsio kolektibo hori egikaritu ahal izateko “ingurune mesedegarri” baten beharra azpimarratu du, informazio zientifikoa modu zabal eta garden batetan hedatu eta transmititzen den ingurune bezala ulertuta. Espainiar Konstituzioak, ez 22.1.b) artikuluan ezta 44.2 artikuluan ere, ez du ikerketa zientifikorako askatasunaren dimentsio kolektibo hori espresuki aintzatesten (dimentsio indibiduala besterik ez). Hala ere, EK-ko 10.2 artikulua agindutakoari jarraiki, xedapen konstituzional horiek Espainiak berretsi dituen nazioarteko giza eskubideen tratatuen arabera interpretatu behar dira. Ondorioz, Espainiar Konstituzioan ikerketa zientifikorako askatasunaren dimentsio kolektibo hori inplizituki barneratzen dela interpretatu behar da.

Industria nanoteknologikoaren interes komertzial boteretsuek nanoteknologien ikerketa eredu erabat baldintzatzen dute. Ikerketa lerroek ia eskusiboki erabilgarritasun tekniko, inbertsioen amortizazio eta errentagarritasun ekonomikoa bezalako irizpideen arabera funtzionatzen dutenez, nanoteknologien ezagutza zientifikoaren ekoizpena erabat asimetrikoa izaten ari da. Nanoteknologien ustiapenaren ikerketara inbertsio ekonomikoaren portzentaje oso altua bideratzen da; ez, ordea, ustiapen horrek osasunean edo ingurumenean izan ditzakeen efektu kaltegarrien ikerketara. Interes ekonomikoen harira jarduten duten entitate pribatuek ez-ezik, botere publikoek, ongizate komunaren aldeko ikerketa lerroak sustatzeko mandatu normatiboa dutenak, egoera horretan ere badute erantzukizunik: Europar Batasunak urtero batz bestea 600 milioi euro inbertitzen ditu nanoteknologieta, baina kopuru horretatik %5a soilik bideratzen du teknologia horiek osasun, ingurumen edo segurtasunean eragin ditzaketen efektuei buruzko ikerketak finantzatzera. Bestalde, EBko Komisioak 2008an dagoeneko aipatu den “Nanoteknologien

Ikerketa Arduratsurako Portaera Kodea” argitaratu zuen. Nanoteknologiari buruz deskribatu berri den ikerketa ereduak portaera kode horretan aurreikusitako zenbait printzipio orokor urratzen baditu ere, portaera kode hori efektu juridikorik sortzen ez duen *soft law* instrumentu normatiboa denez, urrapen horiek ez dute inolako zehapen edo zigorrik sorrarazten. Beraz, nanoteknologiaren benetako ikerketa arduratsua bultzatzeko baino, portaera kodea iritzi publikoari begira onartu den araua dela ondorioztatu daiteke.

Nanoteknologiaren ikerketa eredu horrek, ikerketa zientifikorako askatasunaren dimentsio indibiduala eta kolektiboa urratu egiten dituela esan daiteke. Nanoteknologiaren ikerketa ereduaren, ikerketa zientifiko garaikidean finkatu den finantziario ereduaren postulatuak errepikatu egiten dira. Ikerkuntza zientifikoaren etengabeko garapenak (zientzia esperimentalen kasuan nagusiki) ikerketa-instrumentu gero eta garestiago eta sofistikatuagoen premia ekarri duenez, ez da ikertzailea bere ikerketa lerroak erabakitzen dituen, ikerketak aurrera eramateko finantzamendua ipintzen duen entitate publiko edo pribatua baizik. Ondorioz, ikertzaile indibidualak bere ikerketa lerroak erabakitzeko izan beharko lukeen autonomia eta autodeterminazio gaitasuna galdu egin du erabat, “ordaintzen duenak erabakitzen du” irizpidearen mesedetan.

Bestalde, nanoteknologiaren ikerketa eta ustiapen ereduak ez da eskubide horren dimentsio kolektiboarekin bateragarria. Alde batetik, nanoteknologiak legitimatzeko helburuz beren garapenaren hasierako urteetan “saldu” ziren onura potentzialetatik urrun gaude oraindik. Onurak baino, gizarteari momentu honetan nanoteknologiaren arrisku potentzialen mehatxuak gertukoagoak zaizkio. Nanomaterialen arriskuei buruzko ziurgabetasunak esanguratsua izanik, Europar Batasunak nanoteknologiari eskaintzen dien inbertsio publikoak (%5a soilik beren arriskuak ikertzera) ongizate komunaren aldeko ikerketa zientifikoa bultzatzen duen zalantzan jarri daiteke. Bestetik, Europar Batasunean ez da nanoteknologiaren ikerketa lerro nagusiak eztabaidatu eta erabakitzen diren parte hartze publikorako prozesu integralik aurrera eraman. Azkenik, nanoteknologiaren kasuan ez da informazio zientifikoa modu zabal eta garden batetan hedatu eta transmititzeko “ingurune mesedegarririk” existitzen, industria nanoteknologikoak orokorrean jabetza intelektualeko eskubideek eskaintzen dioten babesean gotortu eta agintari publiko eskudunei zein herritarrei ahalik eta informazio gutxiena transmititzeko jarrera egokitu baitu.

Hala eta guztiz ere, zuzenbideak ikerketa zientifikorako askatasunaren dimentsio indibidual eta kolektiboa hutsaltzen dituen egoera horri buelta ematen lagundu dezaketen mekanismo juridiko-administratiboak izan baditu, Europar Batasuneko oinarritzko tratatuetan eta kasuan kasuko arauketa sektorial komunitarioetan aurreikusten diren arreta, gardentasun eta parte hartze publikorako printzipioetan euskarritu behar diren neurriak hain zuzen ere.

Nanomaterialen arriskuei buruzko ziurgabetasun juridikoa nanomaterialak erabiltzen diren produktu kategoriatan guztiei horizontalki eragiten dien arazo komuna da. Ondorioz, nanomaterialdun produktuen arauketa sektorial guztietan arreta printzipioan funtsean duen

arriskuaren *iuris tantum* presuntzio normatiboa aktibagarria izan beharko litzateke. Produktu batean erabili nahi den nanomaterialaren esposizioak osasun edo ingurumenean arrisku potentzialak eragin ditzakeenaren arrazoizko zantzu zientifikoak daudenean, *iuris tantum* presuntzio normatiboa aktibatu eta frogaren kargaren inbertsioa eman behar da: nanoproduktu horren baimen administratiboa ematea edo ez bere erabilera seguruaren frogapenera baldintzatuta geratzen da, produktu horren fabrikatzaile edo arduradunak frogatu behar duen inguruabarra. Produktuaren arriskuen arrazoizko zantzuen aurrean presuntzio hori aktibatuz, industria nanoteknologikoak produktu horren erabilera seguruan ikertu eta frogatzearen zamari aurre egin behar dio. Presuntzio normatibo horrek, nanoteknologiaren ustiapenari buruzko efektu kaltegarri posibleak ikertzera baliabide gehiago eskaintzera behartzen du industria nanoteknologikoa. Hartatik, neurri horrek nanoteknologiaren ezagutza zientifikoaren ekoizpenak egun bizi duen abiadura bikoitz eta desorekatuaren arazoari zuzenean heltzen dio.

Bestetik, parte hartze publikorako printzipioaren arabera (printzipio demokratikoarekin lotura estuan), nanoteknologiaren ikerketa lerro nagusien eztabaida eta erabakietan alderdi interesdun guztiei (herritar xumeak barne) parte hartzeko aukerak ahalbidetzen dizkieten prozesuak habian jarri behar dira, hori posible egiten duten parte hartze formatuak hausnartu eta egituratu ostean. Azkenik, gardentasun printzipiotik eratorritako mekanismo administratiboek, ikerketa zientifikorako askatasunaren dimentsio kolektiboak eskatzen duen “ingurune mesedegarria” ahalbidetzea izan behar dute xede. Alegia, agintari eskudun, industria teknologiko eta beste alderdi interesdunen artean nanomaterialen inbentarioak buruzko informazio sare zabala osatzea izan behar dute helburu. Beste instrumentu normatibo batzuen artean, hurrengoak nabarmendu daitezke: nanomaterialen erregistroak, nanoproduktuen inbentarioak, nanomaterial formen erabilitako osagaien etiketapen unibertsala eta hornikuntza katean nanomaterialen informazio espezifikoren transmisioa bermatzen duten segurtasun fitxak.

IX.9. Osotasun fisikorako eskubidea (EK 15. art.), osasuna babesteko eskubidea (EK 43. art.), ingurumen osasun batez gozatzeko eskubidea (EK 45. art.) eta nanoteknologiak

Oinarrizko eskubideak Estatuaren goreneko araua den Konstituzioan aintzatesten diren neurrian, ordenamendu juridiko guztiaren oinarrizko balio-objektiboak bihurtzen dira. Inguruabar hori oinarrizko eskubideen “dimentsio objektibo” bezala kalifikatzen da, eta eskubideen dimentsio subjektibo klasikoa (eskubideen titularrei egoera konkretuetan ahalmen eta pretentsio zehatzak aurrera eramanez eta exijitzea ahalbidetzen dien dimentsioa) gainditzea dakar. Alemaniako Auzitegi Konstituzionalak “Kalkar” izeneko zentral nuklearrari buruz 1978an emandako ebazpenean (*BverfG 49, 89*) erabilitako argudioei jarraiki, botere publikoek eskubide konstituzionalen dimentsio objektiboari babes dinamikoa emateko mandatu konstituzionala dute. Alegia, eskubide konstituzional baten egikaritzea arriskuan jartzen duen inguruabar berririk sortuz gero (kasu judizial hartan,

ezaugarri berriak zituen zentral nuklear bat zen), botere publikoek legedia zirkunstantzia berri horietara egokitzeko betebeharrak konstituzionalak dute.

Eskubide konstituzionalen dimentsio objektiboaren interpretazio judizial hori oinarri hartuta, nanomaterialei aplikagarri zaien corpus normatiboak (analisi honen 2. atalean azaldua) ez du osotasun fisikorako eskubide (EK 15. art.), osasuna babesteko eskubide (EK 43.art.) eta ingurumen osasuntsu batez gozatzeko eskubidearen (EK 45. art.) kasuan azaldu berri dugun babes dinamiko hori bermatzen. Alde batetik, nanomaterialei aplikagarri zaien corpus normatiboak ez die langile eta kontsumitzaileei nanomaterialen esposizioa onartu edo ez erabakitzeko aukerarik ematen; hots, osotasun fisikorako oinarriko eskubidearen harira, beren gorputzaren gainean izan beharko luketen autonomia esfera ez die errespetatzen. Bestetik, botere publikoek osasun publikoa eraginkortasunez babesteko mandatu normatiboa dute; nanomaterialen corpus normatiboaren kasuan, botere publikoek erakutsi duten pasibotasun normatiboa mandatu horren aurka doa. Ingurumena babestea xede duten arauaketa sektorialen kasuan ere, inguruabar normatibo berbera errepikatzen da: nanomaterialen esposizioaren aurrean, corpus normatibo horrek ez du ingurumen babes maila altua bermatzeko oinarriko mandatuarekin konplizitu, eta norbanakoek ingurumen osasuntsu batez gozatzeko duten eskubide konstituzionala kolokan jartzen du. Funtsean, EBko eta Espainiako agintari eskudunek gai honetan pasibotasun edo zuhurtzia-gabekeria normatiboa erakutsi dute, eta jarrera horren ondorioz, aztergai ditugun eskubideen dimentsio objektiboa ez-egite normatibo bidez urratu dute: botere publikoek ez dute eskubide konstituzional horien babesa nanomaterialen arrisku berrietara normatiboki berregokitu.

Testuinguru horretan, jatorrizko zuzenbide komunitarioaren organo bermatzaile gorenaren den Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak (EJJA), eta Espainiako Konstituzioaren kasuan Auzitegi Konstituzionalak (AK), legitimazioa dute nanomaterialen arrisku potentzialen aurrean aztergai ditugun eskubideen dimentsio objektiboaren babes dinamikoa bermatzen ez duten lege mailako arauak (esparru komunitarioan, erregelamendu eta zuzentarauak) ordenamendu juridikotik kanporatzeko. Alegia, aipatu organo judizialek, arau horien xedapen normatiboek “arautzen ez dutenarengatik” (ez-egite normatiboarengatik) xedapenok jatorrizko zuzenbide komunitarioaren edo Espainiako Konstituzioaren aurkakoak deklaratzeko eskumena dute. Zeregin horretarako, arau horien kontrol abstraktua eta orokorra posible egiten duten mekanismo judizialak aktibatu behar dira. Ibilbide judizial horren azkeneko helburua EJJAk edo Espainiako AK-k ebatzen judizial bat ematea da, non oinarriko eskubide horien dimentsio objektiboa urratzen duten xedapen normatiboak jatorrizko zuzenbide komunitarioaren edo Espainiako Konstituzioaren aurkakoak deklaratu dituzten. Kontsekuenteki, horrelako ebatzen judizial batek EBko eta Espainiako botere legegileak xedapen normatibo horiek nanomaterialen arriskuareta egokitzera judizialki behartuko lituzke.

Ordenamendu komunitarioan, kontrol judizial hori “ez-egitearengatik helegitea” izenekoaren bidez aktibatu daiteke. Hala ere, EJJAk emandako jurisprudentzia ildoak ikusita, aztergai dugun kasu konkretu honetan organo judizial horren aldeko ebatzena

lortzea konplexua izan daiteke. Espainiar ordenamendu juridikoan, konstituzio kontrakotasun helegitea, legeen kontrol konstituzional abstraktu eta orokorra zuzenean aktibatzea posible egiten duen mekanismoa, ez da ez-egite normatiboen kasuan aplikagarri. Inguruabar normatibo horrek, ordea, ez du esan nahi ordenamendu espainiarrean nanomaterialen corpus normatiboaren kontrol abstraktu eta orokorra aktibatzeke bide judiziala ixten denik. Zuzenean ez bada ere, legeen kontrol konstituzional abstraktu eta orokor hori zeharkako moduan aktibatzea posiblea da, Auzitegi Konstituzionalaren Lege Organikoak (AKLO) araututako babes helegitea edo konstituzio-kontrakotasun zalantza bezalako mekanismo judizialen aktibazioaren bidez.

Hori posible izan dadin, partikularrek bide judizialera jo behar dute, nanomaterialekin zerikusia duten oinarritzko eskubideen urrapen kasuen aurrean, eskubide horien erreparatze indibidual eta konkretua eskatuz. Behin prozesu judizialean, kasua aztertzen duen epaileak konstituzio-kontrakotasun zalantza aurkezten badu, edo instantzia judizialak agortu ostean partikularrak babes helegitea aurkeztu eta tramitera onartzea lortuz gero, kasu judiziala AKren azterketaren objektu bihurtzen da. Kasu horietan, partikularri ustez urratu zaion oinarritzko eskubidearen erreparatze konkretu eta indibidualerako pretentsioa aztertzearekin batera (eskubidearen dimentsio subjektiboa), Espainiako AKri kasu judizial horri aplikagarri zaizkion lege mailako arauen konstituzionaltasunaren kontrol abstraktu eta orokorra egiteko aukera zabaltzen zaio (eskubidearen dimentsio objektiboarena alegia).

Aztergai ditugun eskubideen artean, osotasun fisikorako eskubidea da (EK 15. art.) bide judiziala aktibatu eta zalantza-konstituzional edota babes-helegitearen objektu izan daitekeen eskubide bakarra, Konstituzioak aurreikusten dion eraginkortasun zuzen eta babes judizial indartuari esker. Hala ere, beste bi eskubideak (osasuna babesteko eskubidea eta ingurumen osasuntsu batez gozatzeko eskubidea) osotasun fisikorako eskubidearen bidez judizialki babestea posible izan daiteke, hiru eskubide horien edukien artean jurisprudentzia konstituzionalak onartu dituen parekotasunak oinarri hartuta. Partikularrek oinarritzko eskubide baten ustezko urrapena bide judizialek salatu ahal izateko, ordea, urrapen hori erreala, zehatza, efektiboa eta egiazkoa izan behar da. Nanomaterialen manufakturatuen kasuan, eskubide-urrapenak izan behar duen entitate hori frogatzea zinez zaila izan daiteke, gaur egun material horien efektu kaltegarriak ez baitaude zientifikoki erabat frogatuta, nahiz eta horietako batzuen arriskuei buruzko zantzu zientifikoak gero eta esanguratsuagoak izan. Hala ere, osotasun fisikorako eskubidearen kasuan, jurisprudentzia konstituzionalak baldintza horiek (urrapen hori erreala, zehatza, efektiboa eta egiazkoa izatea) leundu egin dituen aurrekari jurisprudentzialik existitzen da: osasuna arriskuan jartze hutsarekin osotasun fisikorako eskubidea lesionatua gerta daiteke, arrisku potentzial hori lesioa eragiteko esanguratsua eta benetakoa izanik, arrisku hori ekiditeko ardura duenak inolako saihespen neurririk hartu ez duen kasuetan.

Lerro jurisprudentzial hori erabat baliagarria da atal honetan proposatzen dugun estrategia judiziala sostengatzeko. Nanomaterialen batek osasunean kalte esanguratsuak eragin ditzakeenaren zantzu zientifikoak daudenean, langile edo kontsumitzaile batek

nanomaterial horrekiko esposizioa jasaten duen kasuetan, enplegatzaileak edo produktuaren fabrikatzaileak nanomaterial horren esposizioa mugatzeko neurriak hartu beharko lituzke. Esposizio hori saihesteko neurririk hartu ezean, kontsumitzaile edo langilearen osotasun fisikorako eskubidea urratua gera daiteke eta beraz, urrapen hori bide judizialek salatzeko bidea irekitzen da. Dagoeneko azaldu den bezala, urrapen horren sustraia edo benetako jatorria, nanomaterialei aplikagarri zaien corpus normatiboan egon daiteke: araudi horrek enplegatzailea edo produktuaren fabrikatzailea saihespen neurri horiek hartzera legalki ez behartzea gerta daiteke. Nanomaterial arriskutsuen esposizioa jasaten duen langileak edo kontsumitzaileak bide judizialera jotzea erabakitzen badu, aitzitik, ezin du bere osotasun fisikorako eskubidea urratzen duen lege izaerako xedapen normatiboen aurka zuzenean jo, zeharka baizik: langilearen kasuan, bere osotasun fisikorako eskubidea bermatzen ez duten lan-segurtasun neurriak judizialki aurkatu behar ditu; kontsumitzailearen kasuan, nanoproduktua (potentzialki arriskutsua den nanomateriala erabiltzen duena) baimendu duen egintza administratiboa.

Prozesu judizialean barrena, auzi-jartzaileak epaile eskudunari kasu judizial horretan aplikagarri diren lege mailako arauen aurka konstituzio-kontrakotasun zalantza aurkeztu dezala eska diezaioke. Epaile eskudunak AKri konstituzio-kontrakotasun zalantza aurkeztea erabakiz gero, AKri lege mailako arau horien gainean kontrol konstituzional abstraktu eta orokorra egiteko atea irekitzen zaio; alegia, AK-k eskubidearen dimentsio subjektiboarekin batera, dimentsio objektiboa ere urratu den aztertze eskumena dauka. Inguruabar berbera errepikatzen da, instantzia judizial guztiak agortuta, partikularrak AKri babes helegitea aurkeztu eta horrek onartu egiten badu. AK-k, gatazka judizial konkretu batean aplikagarri den lege mailako arau baten konstituzio-kontrakotasuna deklaritzen duen ebazpen judizialik emango balu, botere legegileak arau hori berrikusi eta (osasunari edota ingurumenari zor zaien babes maila altuarekin bat datorren moduan) berregokitzeko mandatu judiziala izango luke. Gaur egun arte, AKren jurisprudenzian ez da ebazpenik dokumentatu ez-egite normatibo baten ondorioz lege mailako arau bat konstituzio kontrakoa deklaratu izan denik. Hala ere, atal honetan AKri horrelako ebazpen deklaratorik emateko atea ireki diezazkiokeen estrategia judizial posiblea proposatu da, hain zuzen ere, arrisku teknologiko berrien aurrean oinarritzko eskubideen dimentsio objektiboari babes legal dinamikoa eskaintzea xede duen estrategia.

IX.10. Pazientearen baimen informaturako eskubidea (inplizituki EK 15. art) eta nanoteknologiak

Produktu komertzialetan ez-ezik, nanomaterialak beste eremu batzuetan erabiltzen hasiak dira dagoeneko, medikuntza bezalako diziplinan esaterako. Nanoteknologiaren propietate eta ezaugarri berriek gaixotasunen diagnostiko, terapia eta birsorpen medikuntzari onura potentzial garrantzitsuak ekarri badiezaiekete ere, praktika mediku berri eta ezezagun horiek giza duintasun eta eskubideen ikuspegitik hainbat zalantza pizten dituzte. Nanomedikuntza eta nanobiomedikuntza bezalako diziplinen praktika berriak giza

duintasunaren oinarrizko balio-juridikoaren errespetura makurtu behar dira eta praktika horiek gainditu ezin ditzaketen mugak zehaztu behar dira, orri batzuk lehenago dagoeneko adierazi den bezala.

Edozein medikuntza tratamenduren antzera, nanomaterialdun tratamendu berritzaileek ere pazientearen gorputzaren bortxa-ezintasunean eragiten dute. Tratamendu horietako bat aurrera eramateko, pazienteak bere gorputzarekiko duen erabaki autonomia errespetatzea ezinbesteko baldintza da, pazientearen baimen informaturako oinarrizko eskubidearen egikaritzaren bidez bermatu behar dena. Eskubide hori ez da EKⁿ esanbidez aurreikusten; bere hastapenetatik garapen legegilearen bidez egituratuz joan den eskubidea da. Inguruabar hori, aitzitik, ez da oztopo izan jurisprudentziak pazientearen baimen informaturako eskubideari oinarrizko eskubide konstituzionalaren izaera aitortzeko, osotasun fisiko, kontzientzia askatasun eta askatasun pertsonalerako eskubideen adierazpen partikular eta beharrezko ondorio bezala (AGE 2001-1-12, 1. o.j.). Medikuntza tratamenduek pazientearen gorputzaren bortxa-ezintasunean eragiten dutela kontuan izanik, baimen informaturako eskubidea osotasun fisikorako eskubidearen eraginkortasuna bermatzea helburu duen garrantzi konstituzionaleko institutua da, eta bere urrapenak edo akastun egikaritzak osotasun pertsonalerako oinarrizko eskubidearen (EK 15. art) lesioa eragin dezake (AKE 37/2011, 3. o.j.).

Pazientearen baimen informaturako eskubideak, pazienteari tratamenduari buruzko informaziorik osoena modu ulergarrian ematea exijitzen du, pazienteak ondoren tratamendu medikoari baimena eman edo ez modu libre, kontziente eta autonomia osotasunean erabakitze gaitasuna izan dezan. Nanomaterialdun tratamendu medikoen kasuan, pazientearen erabakitze autonomia hori baldintzatu dezaketen bi faktore garrantzitsu existitzen dira. Alde batetik, hiritar xumeek nanomedikuntza eta nanobiomedikuntza bezalako diziplina berritzaileekiko oso jakintza maila baxua izaten jarraitzen dute. Bestetik, praktika mediko horiek pazientearen osasunean eragin ditzaketen alboko efektuen eta epe luzerako arrisku posibleen inguruan ziurgabetasun zientifikoak nagusi izaten jarraitzen du.

Therefore, in all cases where nanomaterials are used directly or indirectly in a food product²⁵⁹⁰ consumers should be made aware of this using the appropriate mechanisms. In addition to communicating the presence of nanomaterials, certain other information about nanomaterials should be provided to consumers on product labels: a nanomaterial symbol, colour-coding reflecting the risks and uncertainties concerning the nanomaterials used in the food, a description of these risks and uncertainties, the maximum acceptable daily intake, a description of the aims and functions of the nanomaterials used in the food, and an address or internet link for any consumers wanting further information about nanomaterials.

²⁵⁹⁰ Nanomaterials may be used directly or indirectly in products, directly by using nanomaterials in food ingredients (including additives and enzymes) or indirectly in the case of food coming from animals raised on feed containing nanomaterial ingredients (products such as eggs, milk or meat).

11. KAPITULUA

LANGILE ETA KONTSUMITZAILEEN BABESERAKO ARAUKETA KOMUNITARIOA

I. LANGILEAK, KONTSUMITZAILEAK ETA NANOMATERIAL MANUFATURATUEN BIZITZA ZIKLOA: KONTROL SISTEMA KOMUNITARIOAREN GABEZIAK

I.1. Nanomaterial manufaturatuak “jaiotzen direnetik hil arte” kontrolatzeko sistema normatibo baten beharrezkotasuna

Langile eta kontsumitzaileak (eta medikuntza arloan pazienteak) nanomaterial manufaturatuek beren bizitza zikloan zehar bereziki eragiten dituzten taldeak dira, horiekiko esposizio-bide desberdinen ondorioz (arnas, larruazal, digestio aparatuen bidezkoak). Lehenik eta behin industria mota desberdinetako langileak dira nanomaterialekin kontaktuan sartu daitezkeenak, besteak beste material horien ekoizpen, manufaturazio, ontziratze, biltegiatze eta garraioaren bidez. Bigarren instantzian, nanomaterialdun produktuak komertzializatzearekin batera, kontsumitzaileak ere material horiekiko esposizioan sartu daitezke. Nanomaterialdun produktuak erabili ondoren beren hondakinak kudeatzeko prozesu desberdinetan langileak beste behin nanomaterialekiko kontaktuan sartu daitezke. Beren bizitza zikloko fase guzti horietan zehar nanomaterialak ingurumenarekin ere esposizioan sar daitezke, aire, ur edo lurrera emititutako isurpenen bidez. Ingurumen esposizio horren ondorioz herritar xumeek ere zeharka nanomaterialen esposizioa (inkontzienteki) jasan dezakete.

Produktu kimikoen marko normatibo komunitarioarekin koherentzian, nanomaterial manufaturatuen arriskuak kontrolatzeko egituratu behar den sistema normatiboak ere izaera integrala izan behar du. Kontrol sistema horrek nanomaterialek beren bizitza ziklo osoan duten trazabilitatea identifikatzeko, eragin ditzaketen esposizioak eta arriskuak ebaluatzeko eta horiek kudeatzeko gaitasuna izan behar du, nanomaterialak “jaiotzen” direnetik (ekoizpena) “hiltzen” diren artekoa (hondakinen tratamendua). Material mota horiei gaur egun aplikatzen zaien corpus normatibo komunitarioa bere osotasunean kontuan hartuz gero ordea, nanomaterialen arriskuen kontrol sistemari integritasuna eta koherentzia falta zaizkio²⁵⁹¹. Izan ere nanomaterialen arriskuak ebaluatu eta kudeatzeko neurri normatibo espezifikokoak produktu kategoria batzuen arauketa komunitario sektorialetan (pieza normatibo gutxi batzuetan) besterik ez dira onartu. Langileen osasuna eta segurtasuna babestera bideratutako arauketa komunitarioaren kasuan (beste sektore

²⁵⁹¹ Nanomaterialen corpus normatiboan detektatutako gabeziei eta horiek gainditzeko oinarri bezala hartu behar diren printzipioei buruz, tesiaren 5. kapituluko I. eta II. atalak ikusi.

normatibo askorekin gertatzen den bezala) nanomaterialekin zerikusia duen aldaketa normatibo espezifikorik ez da onartu eta ondorioz, nanomaterialei kontrol mekanismo konbentzionalak zaizkie aplikagarri. Nanomaterialen corpus normatiboak bizi duen inguruabar normatibo horrek langileen eta kontsumitzaileen osasun, segurtasun eta interes legitimoen babesa hutsaltzea dakar, kapitulu honetan zehar aztertzen den bezala.

I.2. Nanomaterialen manufakturatuen erabilerari eta nanoproduktuen komertzializazioari buruzko datu ofizialen falta

Alde batetik, nahiz eta nanomaterial manufakturatuekiko esposizioan dauden langileen kopurua handituz doan, nanoteknologiak erabiltzen dituzten industria moten eta enpresa eta langile kopuruaren zenbatekoa den ez dago argi, datu horiek zehaztasunez biltzen dituen erregistro publikorik ez baita existitzen. Datu publikoen falta horren aurrean nanomaterial manufakturatuekin kontaktuan dauden langileen zifrarik kalkulatzeko lan eskergea izan daiteke. AEBko lan departamenduaren estimazioen arabera, 2000. urtean (nanoteknologiaren ustiapenaren iraultzaren hasierako momentuan) Estatu horretako 2 milioi langile inguru zeuden nanomaterialekin kontaktuan²⁵⁹².

Bestetik, produktuetan erabilitako nanomaterialen kasuan horien erabilera jakinarazteko erregistro komunitariorik ez da existitzen, Estatu-kide gero eta gehiagok nanomaterialen erregistro nazionalak onartzea eragiten ari den inguruabarra²⁵⁹³. Produktu horiek merkatu komunitarioan komertzializatzen direnean, nanomaterialen esanbidezko etiketapena elikagai produktu, kosmetiko eta biozidetan besterik ez da derrigorrezkoa. Nanomaterialen erregistro komunitario publikorik eta nanomaterialdun produktuen derrigorrezko etiketapen unibertsalik ez existitzeak zenbat nanomaterial manufakturu mota zenbat produktutan erabiltzen diren kalkulatzeko oztopatu egiten du.

Nanomaterial manufakturatuen erabileraren gaineko ziurgabetasun testuinguru horretan, EBko agintari publiko eskudunek identifikatutako nanomaterial kopuruaren eta errealitatean erabiltzen den benetako kopuruaren artean zifra desberdintasunak esanguratsuak dira. Substantzia kimikoen erregistroan (REACH Erregelamenduan arautua) lortutako informazioari esker ECHA Agentziaren datu basean guztira 9 nanomaterial besterik ez dira zerrendatzen²⁵⁹⁴. Frantziako Erregistroan ordea nanomaterialdun forman guztira 243-422 substantzia bitartean izan dira notifikatuak²⁵⁹⁵. REACH Erregelamenduen kasuan substantzia kimikoen fabrikatzaile eta inportatzaileek nanoforman erabili nahi dituzten substantziei buruz informazio espezifikoa jakinaraztea gomendatzen die ECHA Agentziak (ez da derrigorrezkoa), Frantziako erregistro nazionalen jakinarazpen hori derrigorrezkoa den bitartean.

²⁵⁹² EU-OSHA, 2005:24.

²⁵⁹³ Erregistro nazionalen buruzko 7. kapituluaren VI.8 atala kontsultatu.

²⁵⁹⁴ EEB, CIEL, FOE and BUND, 2015: 3.

²⁵⁹⁵ Ibid.

Bestalde, datu ofizialik ezean erakunde publiko eta pribatu desberdinek merkatuan dauden nanoproduktuen inbentario desberdinak landu dituzte. Beste batzuen artean AEBko PEN inbentarioa²⁵⁹⁶ (*Project on Emerging Nanotechnologies*), RIVM erakunde holandarrak argitaratutakoa²⁵⁹⁷ eta Danimarkako ingurugiro eta kontsumitzaileen babeserako GKEek egindakoa²⁵⁹⁸ aipatu daitezke. Lerro hauek idatziak diren unean²⁵⁹⁹, PEN inbentarioan 1827 nanoproduktu zerrendatzen dira eta Danimarkako inbentarioan aldiz, 2280. EBko Komisioak COM (2012) 572 Komunikazioan onartzen duen bezala, merkaturatzen diren nanoproduktuen kopurua seguruenez inbentario horietan kalkulatu diren zifrak baino askoz ere altuagoa da²⁶⁰⁰. PEN inbentarioak esate baterako ez ditu merkatuan momenturo eskuragarri dauden nano-produktuen inguruko informazio sistematiko eta eguneraturik jasotzen²⁶⁰¹. Bestalde, fabrikatzailearen eskuetan dago ekoizten dituen nanoproduktuak borondatezko inbentario horietan erregistratu edo ez. Inbentario horiek bestalde amaierako produktuak bakarrik zerrendatzen dituzte, ez ordea nanomaterialez osatutako bitarteko produktuak²⁶⁰².

I.3. Nanomaterialen arnas bidezko esposizioaren ondorioz langile eta kontsumitzaileen artean dokumentatu diren ezbehar kasu goiztiar batzuk

Esparru komunitarioan ez-ezik, lan osasun eta segurtasunerako kontrol sistema normatiboaren egokitzapen ezak munduko Estatu gehienetan agintzen jarraitzen duen logika da. Lan eremuan nanomaterialen esposizioa eta arriskuak kontrolatzeko sistema normatibo egokien faltaren aurrean, dagoeneko langileen osasuna eta segurtasuna kolokan jarri dituzten egitate batzuk dokumentatu dira. Txinan duela urte batzuk nanomaterial formadun poliakrilatoarekin lan egiteagatik 7 langile gaixotu eta horietatik 2 hil egin ziren²⁶⁰³. Zientzialari talde txinatar batek 7 langileen birika ehunak aztertu ondoren nanomaterial batzuen epe luzerako esposizioak biriketako gaixotasun larriekin zerikusi zuzena izan dezaketela ondorioztatu zuten²⁶⁰⁴, *European Respiratory Journal* izeneko aldizkarian 2009an argitaratu zuten ikerketan. Argitalpen horrek komunitate zientifikoaren baitan nanomaterialen arnasteak osasunean izan ditzakeen arriskuen inguruko eztabaida piztu zuen.

Nanomaterial manufacturatuekin esposizioan lan egiten duten langileen segurtasun ezaz oharturik, munduko langile erakunde garrantzitsuetako batzuek nanoteknologiekiko

²⁵⁹⁶ Inbentario horretara online sarbidea [2015-12-22]:

<http://www.nanotechproject.org/cpi/>

²⁵⁹⁷ RIVM, 2011.

²⁵⁹⁸ Datu base horren egokitzapenean Danimarkako Kontsumitzaileen Kontseiluak, Danimarkako Ekologisten Kontseiluak eta Danimarkako Unibertsitate Teknikoak (DTU) parte hartu dute. Datu base horren web orrialdea [2015-12-22]: <http://nanodb.dk/en/>

²⁵⁹⁹ 2015-12-22.

²⁶⁰⁰ EBko Komisioaren COM (2012) 572 final, Staff Working Paper, 34. orr.

²⁶⁰¹ Client Earth, CIEL, BUND, 2012: 7.

²⁶⁰² ETC Group, 2010: 9.

²⁶⁰³ SONG, LI DU, 2009: 559-567

²⁶⁰⁴ Ibid.

duzen mesfidantza publikoki adierazi dute. UITA erakundeak (Hostalaritzan, Nekazaritza eta Elikaduran Jarduten duten Langileen Nazioarteko Batasuna), sindikatu desberdinetako 12 milioi langile biltzen dituenak, 2007. urtean nekazaritza eta elikadura alorrean nanoteknologiaren erabilera eta komertzializazioaren berandutzea eskatu zuen, material horiek kaltegarriak ez zirela frogatu artean²⁶⁰⁵. AEBko Burdingintza Langileen Nazioarteko Sindikatuak (ingelesez, *United Steelworkers Internacional*) partikula nanometrikoekin esposizioan zeuden langileei mediku inspektzio erregularrak egitea eskatu zuen. Lan eremuaz gain nanoproduktuen arnas bidezko esposizioaren bidez gaixotu diren kontsumitzaileen kasuren bat ere dokumentatu da. 2006. urteko apirilean Alemanian *Kleinmann* enpresak *Nano Magic* izeneko garbiketarako spray bat atera zuen merkatura. Produktu horren kontsumitzaileen artean 78 pertsona intoxikatu egin ziren eta ezbehar horren aurrean enpresak produktu hori merkatutik erretiratzea erabaki zen²⁶⁰⁶.

II. NANOMATERIALAK ETA LANGILEEN ARAUKETA KOMUNITARIOA

II.1. Nanomaterialekin lan egiten duten langileen osasun eta segurtasuna babesteko erakunde publiko eta pribatuek onartu dituzten ekimenak

Nanoteknologiak langileen osasunean izan ditzaketen ondorioez hitz egitean nanomaterialen manufakturatuen ekoizpen eta manipulazioan lan egiten duten langileez gain, material horien garraioa, mantenua, garbiketa, biltegirapena edo hondakinen tratamendua bezalako prozesuetan parte hartzen duten langileak ere kontuan hartu behar dira, nanomaterialen ikerketan jarduten duten pertsonak ahaztu gabe. Hurrengo lerroetan beraz nanomaterialekin lan egiten duten pertsonen segurtasuna eta osasuna babestea xede duen marko normatibo komunitarioa nola egituratzen den azaltzen da, hurrengo ataletan sakontzen dena. Marko normatibo horretan aitzitik ez da orain arte nanomaterialekin zerikusirik duen inolako aldaketa normatibo espezifikorik aurreikusi. Inguruabar normatibo horren aurrean instantzia desberdinetako erakunde publiko eta pribatuak izan dira eginkizun hori tradizionalki bere gain hartu dutenak.

II.1.A. Marko normatibo komunitarioaren egiturapena eta erakunde komunitarioen ekimenak

EBko Funtzionamendu Tratatuari kasu eginez gero (EBFT), Europar Batasunak Estatu-kideek lan osasun eta segurtasun arloan onartzen dituzten akzioen laguntza eta

²⁶⁰⁵UITA erakundea, *The IUF Resolution*, 2007, interneten eskuragarri [2012-04-20]: www.reluita.org/nanotecnologia/resolucion_uita_nano_eng.htm

²⁶⁰⁶ DELGADO, 2006: 37.

osatze lanetan jarduteko mandatua dauka²⁶⁰⁷. Historikoki beraz EBk zuzentarauen tresna normatiboa baliatuz lan osasun eta segurtasunaren oinarritzko baldintza normatiboak egituratu eta Estatu-kideek zuzentarauen gutxieneko eduki normatiboak errespetatuz garapen legegilea ematen dute.

EBko Komisioak COM (2012) 572 Komunikazioan beste aspektu normatibo batzuen artean langileen osasun eta segurtasunaren ikuspegitik nanomaterialek planteatzen dituzten erronka normatiboak aztertu zituen. Komunikazio horren arabera nanomaterial natural eta intzidentalek lan esparruan izan dezaketen esposizio eta arriskuei buruzko ezagutza maila handia bada ere, nanomaterialen manufakturatuen kasuan dagoen jakintza maila oso urria da. Izan ere nanomaterialen manufakturatuen monitorizatzeko gabezia teknikoak existitzen dira eta kasu batzuetan beren kontrolerako aplikatzen diren metodoak oraindik baliozkotzeke daude²⁶⁰⁸.

Ondorioz, Lan Arloko Osasun eta Segurtasunari buruzko Komite Kontsultiboaren baitan (ingelesez, *Advisory Committee on Safety and Health at Work*) azpi-talde bat sortu zen, lan esparruan erabiltzen diren nanomaterialen manufakturatuen ebaluaketa eta kudeaketa neurrien inguruan ikertzeko mandatua zuena. Ikerketa horretatik lortutako jakintzetan oinarrituz, Komisioak 2014. urtean zehar lan osasun eta segurtasunari buruzko arauaketa komunitarioaren berrikuspena egiteko beharrik zegoen edo ez ebaluatuko zuela adierazi zuen²⁶⁰⁹.

Lan osasun eta segurtasunari buruzko marko juridiko komunitarioa bere osotasunean kontuan hartuz gero, orain arte ez da nanomaterialekin zerikusia duen inolako aldaketa normatibo espezifikorik onartu. Arau orokor bezala beraz, nanomaterialei 89/391 Zuzentarauaren²⁶¹⁰ kontrol neurri konbentzionalak zaizkie aplikagarri, hots, marko komunitario sektorial horren oinarritzko baldintza normatiboak. Nanomaterial bakoitzak duen kasuan kasuko arrisku profilararen arabera, material horiek 89/391 Zuzentaratik eratortzen diren beste pieza normatibo desberdinen aplikazio eremuan erori daitezke. Horien artean 98/24 Zuzentara²⁶¹¹ eta 2004/37 Zuzentara²⁶¹² nabarmendu daitezke. 98/24 Zuzentara²⁶¹¹ agenten kimikoekin lan egiten duten langileen segurtasun neurriak arautzen ditu, CLP Erregelamenduaren arabera arriskutsu bezala sailkatzen diren substantzia eta nahasketei aplikagarri zaizkienak (nanomaterilak barne). Bestalde CLP Erregelamenduaren arabera kartzinogeno edo mutageno bezala sailkatzen diren substantzia eta nahasketei 2004/37 Zuzentara²⁶¹² aurreikusitako kontrol neurriak aplikatu behar

²⁶⁰⁷ EBFT, 153.1.a) art.

²⁶⁰⁸ EBko Komisioaren COM 2012/572, 4.orr, 4.1. atala.

²⁶⁰⁹ Ibid, 8.orr, 6. atala.

²⁶¹⁰ Council Directive 89/391/EEC of 12 June 1989 on the introduction of measures to encourage improvements in the safety and health of workers at work (OJ L: 29/06/1989).

²⁶¹¹ Council Directive 98/24/EC of 7 April 1998 on the protection of the health and safety of workers from the risks related to chemical agents at work (fourteenth individual Directive within the meaning of Article 16(1) of Directive 89/391/EEC). (OJEC: 5/5/98).

²⁶¹² Corrigendum to Directive 2004/37/EC of the European Parliament and of the Council of 29 April 2004 on the protection of workers from the risks related to exposure to carcinogens or mutagens at work (Sixth individual Directive within the meaning of Article 16(1) of Council Directive 89/391/EEC). (OJEU: 29/06/2004).

zaizkie. Langileen osasuna eta segurtasuna babesteko eginkizun horretan produktu kimikoen marko normatiboa egituratzen duten REACH eta CLP erregelamenduen zenbait aspektu normatibo ere kontuan izan behar dira, besteak beste, substantzia, nahasketa eta artikuluen sailkapen, ontzirapen eta etiketapena nola egin behar den eta beren hornikuntza katean zehar zein informazio nola transmititu behar den jakiteko.

Langileen osasun eta segurtasunaren marko normatiboan inolako aldaketarik aurreikusi ez bada ere, EBko Komisioak eta langileen segurtasun eta osasunaz arduratzen den EU-OSHA Agentzia komunitarioak izaera loteslerik ez duten ekimen normatibo desberdinak onartu dituzte. EBko Komisioak 2008an Nanoteknologiaren Ikerketari Buruzko Portaera Kodeari buruzko 2008/345 Gomendioa²⁶¹³ argitaratu zuen. 2014. urtean erakunde komunitario horrek alde batetik nanomaterialen diharduten langileei eta bestetik enplegatzailerak eta lan segurtasunaz arduratzen diren profesionalei zuzendutako bi orientazio gida argitaratu zituen. Ekimen normatibo horietan aurreikusten diren lan segurtasun neurriak gomendio forman onartu direnez (“soft law” arauak dira) eta beraz borondatezko izaera dutenez, beraien konplimendu ezak ez du erantzukizun legalik sortzen. Bestalde, EU-OSHA Agentziak lan esparruan nanomaterialei buruz dagoen pertzepzioari eta arriskuen ebaluaketa eta kudeaketa neurriei buruzko hiru informe desberdin argitaratu ditu²⁶¹⁴.

II.1.B. Estatu-kideen ekimenak

Lan segurtasun eta osasunaren ikuspegitik nanomaterialen erabilerak sorrarazi ditzaketen arriskuez kezkatutik, urte hauetan zehar Estatu-kide batzuek EBk baino askoz ere jarrera aktiboagoa erakutsi dute. Aurrera eraman diren ekimenak Estatu-kideetako gobernu erakundeek, agentzia nazional desberdinek eta langileen segurtasun eta higienerari buruzko institutuek bultzatu dituzte. Ekimenen izaera anitza izan da, besteak beste, alderdi interesdunen eztabaidarako guneak, inkestak eta nanomaterialen manufakturatuek lan arloan eragin ditzaketen arriskuen ebaluaketa eta kudeaketarako akzio planak onartu dira. Ekimen aniztasun horretatik honakoak aipatu daitezke²⁶¹⁵:

- a) Austriako agintari eskudunen, industriaren eta langileen erakundeen artean nanomaterialen erabilerari buruzko kontsentsu zabala lortu dute. Kontsentsu horren bidez 2009. urtean Austriako Nanoteknologiaren Akzio Plana argitaratu zen, nanomaterialen inguruko 50 neurri espezifiko aurreikusten dituena. Bestalde, Austriako Osasun eta Janariaren Segurtasunerako agentziak (AGES) eta Lan Ministerioak (*Bundesministerium für Arbeit*) lan eremuan nanomaterialen arriskuak ebaluatu eta kudeatzeko beste gida batzuk ere argitaratu dituzte.

²⁶¹³ Commission Recommendation of 07/02/2008 on a code of conduct for responsible nanosciences and nanotechnologies research. C(2008) 424 final.

²⁶¹⁴ Ikus EU-OSHA, 2009, 2012 eta 2013.

²⁶¹⁵ Datu horien iturriak: EU-OSHA, 2012: 45-48; EBko Komisia, 2014a: 9-12; 2014b: 49-55 eta PONCE del CASTILLO, 2010: 26-28.

- b) Alemaniako Gobernu Federalak 2006. urtean *Nanodialogue* ekimena martxan jarri eta *NanoKommission* plataforma osatu zuen, komunitate zientifikoaren, agintari politikoen, industriaren eta GKEen arteko eztabaida gunea hain zuzen ere. Bestalde Alemaniako Lan Osasun eta Segurtasunerako Institutu Nazionalak (BAuA) Alemaniako industria kimikoaren elkartearekin (VCI) elkarlanean gida bat argitaratu zuen 2012. urtean. Alemaniako Lan eta Gai Sozialetarako Ministerioak (BMAS) ere 2013. urtean gida bat argitaratu zuen.
- c) Danimarkako Ingurugiro Agentziak (DEPA) 2011. urtean nanomaterialen arriskuak ebaluatu eta kudeatzeko *NanoRiskCat* izeneko gida argitaratu zuen, *control banding* sisteman oinarritzen dena.
- d) Italian langileen osasun eta segurtasunari buruz alderdi interesdunen mantendu dituzten eztabaida guneetatik eratorritako ondorioei esker zazpi akzio programa argitaratu ziren 2008 eta 2010 urte bitartean. Italiako Lan Osasun eta Segurtasunerako Institutu Nazionalak (INAIL) 2011an nanomaterialen lan arriskuen ebaluaketa eta kudeaketarako gida argitaratu zuen.
- e) Holandan, Lan eta Gai Sozialetarako Ministerioak, Institutu Nazionalak (RIVM) eta Holandako Kontseilu Sozial eta Ekonomikoak (SER), bakoitzak gai honetan gida bat argitaratu du.
- f) Espainian mota honetako ekimenak oso eskasak izan dira. Dokumentatu diren ekimen bakarrak Lan Segurtasun eta Higienarako Institutu Nazionalak (INSHT) nanomaterialen segurtasun eta ebaluaketa irizpideei buruz argitaratu dituen bi nota tekniko izan dira: NTP 797 eta NTP 877.
- g) Erresuma Batuko Osasun eta Segurtasun Exekutiboak (HSE) karbonozko nanotutuen arrisku kudeaketari buruzko gida aipagarria argitaratu zuen 2011. urtean, nanomaterial mota horiek lan esparruan nola manipulatu behar diren informazio zehatza eta argia eskaintzen duna. 2013. urtean HSEk nanomaterialei buruzko lan gida orokor bat ere argitaratu zuen.
- h) Suediako Lan Ministerioak (*Arbetsmiljöverket*), Erresuma Batuko HSEk bezala, karbonozko nanotutuek lan esparruan eragin ditzaketen arriskuen ebaluaketa eta kudeaketarako gida argitaratu zuen 2011. urtean.
- i) Frantziaren kasuan, nanoteknologien inguruko ekimenak ugariak izan dira. Lan osasun eta segurtasunari dagokionez, alde batetik Elikagai, Ingurumen eta Lan Osasun eta Segurtasunerako Agentzia frantsesak (ANSES) *control banding* metodoan oinarritutako gida bat argitaratu zuen 2008an. Bestetik, Frantziako lan segurtasuna eta osasuna babesteko ardura duen INRS erakunde publikoak nanomaterialekin zerikusia duten hiru gida argitaratu ditu (2011-2012 bitartean). Frantziako Gobernuaren Lan Zuzendaritza Orokorrak bestalde 2008an ohar bat argitaratu zuen, lan esparruan erabiltzen ziren nanomaterialei substantzia arriskutsuen tratamendu juridikoa ematea gomendatuz²⁶¹⁶.

²⁶¹⁶ DRIGUEZ, 2010 (dokumentu horren 51. oin-azpia).

II.1.C. Nanomaterialekin lan egiten duten enpresa eta sindikatuen ekimenak

Instantzia publikoekin batera, nanomaterialak erabiltzen dituzten konpainia handiek ere nanomaterialen manipulazio, esposizio eta arriskuekin zerikusia duten segurtasun neurriei buruzko gida propioak egituratu dituzte, besteak beste, BASF, SOLVAY, Bayer, EVONIC, Nanocyl eta COLLOROBIA izeneko enpresek²⁶¹⁷. Nanomaterialekin lan egiten duten enpresa txiki eta ertainen kasuan ordea (enpresa handiekin erkatuta duten gaitasun ekonomiko txikiagoaren ondorioz) ez da nanomaterialen arriskuen kudeaketarako gida dokumentaturik aurkitu. Enpresen gidekin batera, Europar Sindikatuen Konfederazioak (ETUC) ere nanomaterialekin zerikusia duten lan segurtasun neurri desberdinak proposatu ditu 2008an eta 2010an argitaratutako bi informetan²⁶¹⁸.

II.2. Badago nondik ikasi: amiantoaren arriskuen ebaluaketa eta kudeaketa

Nanomaterial manufakturatuek lan esparruan eragin ditzaketen kalteen inguruko ezagutza mailak osatugabea izaten jarraitzen du eta nanomaterial batzuen arrisku potentzialen inguruko zantzu zientifikoak aldiz, gero eta nabarmenagoak dira. Ezjakintasun egoera horren aurrean, nanomaterialekiko esposizioan egon daitezkeen langileen osasun eta segurtasuna (eta zeharka, ingurugiroaren babesa) bermatzera zuzendutako arreta neurriak hartzea premiazkoa da. Arreta neurri horiek nola egituratu behar diren eztabaidatu eta erabakitzerako orduan amianto edo asbesto izeneko mineralak XX. mendean zehar langileen osasun eta segurtasunari eragindako tragediaren esperientziatik ikastea lagungarria izan daiteke. Hurrengo lerrootan beraz alde batetik amiantoaren propietateak, bere erabilerari buruzko datuak eta ikerketa zientifikoak eta bestetik langileei eragindako kalteak saihesteko historian zehar egituratu den *corpus* normatiboaren ezaugarriak aztertzen dira.

II.2.A. Amiantoaren propietateak, erabilerak eta bere arriskuei buruzko ikerketa zientifikoak

Amiantoa edo asbestoa iraunkortasun handiko eta koste baxuko minerala da, elkarrekiko irmoki loturik dauden zuntz mineralez osatutakoa²⁶¹⁹. Guztira amiantoaren mineral zuntzak sei motatakoa izan daitezke: crisolitoa, crocidalita, amosita, antofilita, tremolita eta actinolita. Mineral honen propietate probetxugarriak direla eta XX. mendean zehar asbestoaren ustiapenak hedadura mundiala izan du eta industria sektore askotan

²⁶¹⁷ Enpresa horien eta beste batzuen gidei buruzko informazio gehiago kontsultatzeko, CEFIC, 2012: 6-8.

²⁶¹⁸ ETUC, 2008; 2010.

²⁶¹⁹ Agência de Salut Pública, 2007: 1.

erabili izan da, besteak beste autogintzan, ehungintzan eta eraikuntzan. Guztira asbesto mineralaren 3000 erabilera desberdin inguru dokumentatu dira²⁶²⁰.

Amiantoa osatzen duten zuntzek gero eta finagoak diren zuntzetan banatzeko erraztasuna dutenez, zuntz mikroskopikoak bihurtu eta horiekiko esposizioan sartzen diren pertsonengan gaixotasun desberdinak eragiteko gaitasuna duela zientifikoki frogatuta dago, besteak beste, mesotelioma, biriketako fibrosia eta biriketako kantzerra²⁶²¹. Mineral horren esposizio-biderik arriskutsuena arnas bidezkoa da eta eraginik handiena lan esparruan izan badu ere, amiantodun emisio puntuetatik hurbil dauden bestelako lekuetan ere izan ditu efektuak, etxeetan edota ingurugiroan. Amiantodun zuntzen ezaugarriak ikusirik eta azken hamarkadan zehar eginiko ikerketa zientifiko anitzen emaitzei kasu eginez gero, karbonozko nanotutu mota batzuek amiantodun zuntzen antzeko kalteak sortzeko gaitasuna izan dezaketaren zantzu zientifikoak gero eta nabarmenagoak dira. Izan ere nanotutuek amiantodun fibren antzeko forma eta ezaugarriak dituzte eta arratoietan eginiko laborategi ikerketetan kantzerraren sustatzaile izateko gaitasuna dutela frogatu da²⁶²².

Gizakia asbestoa duela 4500 urte inguru erabiltzen hasi bazen ere (besteak beste, lanparen metxak egiteko edota errausketa labeen estalki gisa), mineral horren erabileraren hazkuntza XX. mendearen hasieran kokatzen da. 1901an Ludwig Hatschek izeneko ingeniari batek Hatschek izenez ezagutzen den makina diseinatu zuen, amianto zementudun piezak egiteko gaitasuna zuena²⁶²³. Momentu horretatik aurrera mineral horren ekoizpen industrialaren gorakada nabarmena izan zuen. Hurrengo hamarkadetan zehar amiantoaren erabilera industrial aplikazio askotara hedatzeaz gain globalizatu egin zen. Hazkuntza progresibo horretan amiantoaren eskaera maximoa 1977. urtean erregistratu zen: urte hartan munduko 25 Estatu 4,8 milioi tona ekoitzi zituzten eta amiantoz eginiko produktuak 85 Estatu desberdinetan ekoizten ziren²⁶²⁴. OIT eta OMS erakundeek eskaintako datuen arabera, 2006. urtean lan esparruan 125 milioi langile inguru zeuden amiantoarekin kontaktuan²⁶²⁵ eta bere gaixotasunekin erlazionaturik urtero 100.000 langile hiltzen direla estimatzen da²⁶²⁶.

Amiantoaren kaltegarritasunari buruzko susmoak 1920. hamarkadan jada existitzen baziren ere, bere ekoizpenaren atzean zeuden interes ekonomiko boteretsuek mineral horrek osasunean eragin zitzakeen efektuei buruzko eztabaida estaltzea lortu zuten. Hamarka batzuk beranduago, 1964-65 urteetan Irving Selikoff mediku Estatu Batuarrak asbestoari buruz argitaratutako bi ikerketa epidemiologikori esker komunitate

²⁶²⁰ VOGEL, 2009: 105.

²⁶²¹ WHO, 2006: 1.

²⁶²² Ikerketen artean aipagarrienetarikoa NIOSH erakundeko zientifikoek berriki egindako esperimntua izan da, pareta anitzeko karbonozko nano-tutuek arratoietan biriketako kantzerraren sustatzaile gisa jarduten dutela frogatzen duena. Nano-tutuei buruz egin diren ikerketen datu gehiago jakiteko, ikusi MILLER, 2008: 3 (Friends of the Earth Australia).

²⁶²³ VOGEL, op. cit, 105. orr.

²⁶²⁴ VIRTÀ, 2006: 3.

²⁶²⁵ WHO, 2006: 1-2.

²⁶²⁶ ILO, *Resolution Concerning Asbestos (...)*, 2006.

zientifikoaren baitan mineral horren kaltegarritasuna frogatutzat jo zen²⁶²⁷. Inguruabar horrek amiantoaren inguruko jarreran aldaketa progresiboa eragin zuen. Nazioarte mailan 1973. urtean Osasunaren Mundu Erakundeak (ingelesez, WHO) asbestoak mesotelioma eta biriketako kantzerra sortzeko gaitasuna zuela onartu zuen²⁶²⁸. 1986. urtean, Lanaren Nazioarteko Erakundeak amiantoaren crocidolitoa, bere azpiproduktu guztiak eta amiantoaren haustutzea debekatu egin zituen²⁶²⁹. Bi hamarkada beranduago, 2006an, Lanaren Nazioarteko Erakundeak bere Estatu-kideei amianto mota guztien erabilera debekatzea eta instalazioetan zeuden amiantodun materialen kudeaketa egokia egitea eskatu zien²⁶³⁰.

II.2.B. Amiantoaren arriskuen ondorioz esparru komunitarioan eta Espainiar Estatuan onartutako marko normatiboaren bilakaera historikoa

Esparru komunitarioan langileak amiantoaren lan esposiziotik babestera zuzendutako lehenengo araua 1983/477 Zuzentaraua²⁶³¹ izan zen. Amianto mota desberdinen gehieneko lan esposizio baloreak ezartzeaz gain, amianto erabiltzen zuten enpresek bere negozioa ustiatzen zuten Estatu-kideetako agintari eskudunei datu batzuk jakinarazteko beharra ezartzen zuen, besteak beste, erabilitako amianto mota, kantitatea eta mineral hori erabiltzen zuten produktuen identitatea. Urte batzuk beranduago, 1999/77 Zuzentarauak²⁶³² esparru komunitarioan amianto mota guztien komertzializazioa eta produktuetan erabiltzea debekatu egin zuen, crisolitoaren erabilpen zehatz batzuk izan ezik.

1983/477 Zuzentaraua onartu ostean langileen osasuna amiantotik babestera zuzendutako beste arau komunitario batzuk argitaratu ziren eta 2009. urtean corpus normatibo horren konpilazioa egiteko asmoz 2009/148 Zuzentaraua²⁶³³ onartu zen. Zuzentarau horrek EBen amiantoaren eta amiantodun produktuen ekoizpen eta manufakturazioa debekatu zituen, amiantodun produktuen eraispen eta suntsiketa jarduerak izan ezik. Debeketik salbuetsi ziren jarduera konkretu horietan enplegatzaileak bere langileek amianto kontzentrazio muga batzuetatik beherako esposizioa jasaten duela ziurtatzeko eginkizuna dauka eta dagokion Estatu-kideari amiantoarekin kontaktuan dauden langileen identitatea notifikatu behar dio.

²⁶²⁷ AZAGRA eta GILI, 2005: 9. Amiantoari buruz 1920-1960. hamarkadetan zehar eginiko ikerketa zientifikoen informazio gehiago, VIRTÀ, 2006:3.

²⁶²⁸ IARC-WHO aldizkarian, 1973, 2. bol, 17.orr.

²⁶²⁹ ILO, Convention concerning Safety in the Use of Asbestos, *Convention C162, 1986-06-24*.

²⁶³⁰ ILO, *Resolution Concerning Asbestos (...)*, 2006.

²⁶³¹ Council Directive 83/477/EEC of 19 September 1983 on the protection of workers from the risks related to exposure to asbestos at work (second individual Directive within the meaning of Article 8 of Directive 80/1107/EEC). (OJ L: 24/09/1983).

²⁶³² Commission Directive 1999/77/EC of 26 July 1999 adapting to technical progress for the sixth time Annex I to Council Directive 76/769/EEC on the approximation of the laws, regulations and administrative provisions of the Member States relating to restrictions on the marketing and use of certain dangerous substances and preparations (asbestos) (OJEU: 06/08/1999).

²⁶³³ Directive 2009/148/EC Of The European Parliament and of The Council of 30 November 2009 on the protection of workers from the risks related to exposure to asbestos at work (OJEU: 16/12/2009).

Espainiar Estatuaren kasuan aztertu berri diren zuzentarauez gain, amiantoarekin zerikusia duten lan osasun eta segurtasun neurri normatiboen bilakaera kronologikoa honakoa izan da²⁶³⁴:

- a) 1947an, asbestosia gaixotasun profesionalen koadroan barneratu zen (1947ko urtarrilaren 10eko Dekretua).
- b) 1957an, 18 urtetik beherako gizon eta 21 urtetik beherako emakumeei amiantoarekin lanean ibiltzeko debekua ezarri zen (1957ko uztailearen 26ko Dekretua). 1961ean amiantoaren lan esparruko kontzentrazio maila maximoak ezarri ziren (2414/1961 Dekretuaren 2. Eranskinean).
- c) 1978an, asbestoarekin zerikusia zuten beste gaixotasun batzuk gehitu ziren gaixotasun profesionalen koadrora, biriketako kantzerra, mesotelioma pleurala eta peritoneala (1995/1978 Dekretua). 1982an amiantoaren lan esposizio muga berriak arautu ziren (Ministerioaren 1982ko uztailearen 21eko Agindua). 1983an asbestoa elikagai eta elikagai produktuetan erabiltzea debekatu zen (1351/1983 Errege Dekretua).
- d) 1985ean amiantoaren erabilpenaren debekua ehungintza produktuetara eta jostailuetara hedatu zen (2330/1985 Errege Dekretua).
- e) 1989an crocidoliten eta material hura erabiltzen zuten produktuen debekua onartu zen (1406/1989 Errege Dekretua).
- f) Amiantoaren debeku progresiboaren ostean, 2001ean amiantodun edozein erabilera eta komertzializazio debekatzea erabaki zen, 1999/77 Zuzentarauren transposizioaren bidez (Presidentetza Ministerioaren 2001eko abenduaren 7ko Agindua).
- g) EBko marko normatiboaren transposizioaren bidez 2006an amiantoa erabiltzen zuten lan gehienak debekatu egin ziren eta bere kontzentrazio maila 0,1 zuntz zm^3 -ra jaitzi zen (396/2006 Errege Dekretua).

Esparru komunitarioan eta Espainiar Estatuan amiantoarekin zerikusia duen lan osasun eta segurtasunari buruzko arauketak azken hamarkadetan izan duen bilakaera aztertuta, asbestoaren erabilera kontrolatu eta mugatzeko onartuz joan diren neurriak mineral horrek sortu dituen kalteen atzetik joan da beti. Nahiz eta amiantoaren kaltegarritasunari buruzko aztarna zientifikoak 1920. hamarkadarako jada existitzen baziren ere, interes ekonomikoen presioen ondorioz asbestoaren kontrol neurrien bilakaera berantiarra, geldoa, eta mailakatua izan da. Alerta neurri goiztiarrik ez onartzearen ondorioz, mundu mailan urtero amiantoarekin zerikusia duten milaka eta milaka pertsona hiltzen dira (urtero 100.000 baino gehiago), batik bat amiantoarekin esposizioan egon diren langileak.

Amiantoak langileen osasun eta segurtasunean eragin duen mundu mailako tragedia ikusirik, egindako akatsetatik ikasi eta nanomaterialen manufakturatuen kasuan antzeko egoerarik ez errepikatzea bermatu behar da. Lan esparruan nanomaterialak erabiltzearen

²⁶³⁴ Zerrendatutako arau horien iturria, AZAGRA eta GILI, 2005: 10-15.

ondorioz sortu daitezkeen arriskuen inguruko jakintza zientifiko osatugabearen aurrean, arreta printzipioari jarraiki, langileak babestera zuzendutako neurri goiztiarrak egituratzea funtsezkoa da beraz. EBn langileen osasuna eta segurtasuna bermatzea helburu duen marko normatiboan ordea ez da nanomaterialen kontrol espezifikorako inolako aldaketa normatiborik aurreikusi.

II.3. Langileen osasun eta segurtasunaren babesa eta nanomaterialak

II.3.A. Testuinguru normatibo orokorra

Esparru komunitarioan lan osasun eta segurtasunari buruzko enborrezko arauketa 89/391 Zuzentarauaren inguruan egituratzen da. Lan eremuan arlo zehatzetarako arauketa osagarria emateko esanbidezko ahalbidepena egiten duenez²⁶³⁵, maila komunitarioan oinarrizko arauketa horren eduki normatibo desberdinak zehazteko beste 20 zuzentarau inguru onartu dira²⁶³⁶. Substantzia eta nahasketa kimiko bakoitzak duen arrisku profilaren arabera 1272/2008 Erregelamenduan (CLP) modu baten edo bestean sailkatzen dira eta sailkapen horrek beraz, nanomaterial bakoitzari aplikatzen zaizkion lan osasun eta segurtasun neurrien intentsitatea baldintzatzen du.

Kasu gehienetan ordea substantzia baten nanomaterialdun formei nukleo kimiko berdina duen eskala konbentzionaleko substantziaren sailkapen irizpide berberak aplikatzen zaizkie, nahiz eta makro-eskalan eta nano-eskalako forma bakoitzean substantzia horrek duen arrisku profila desberdina izan daitekeen. Ondorioz arrisku profil zehatz baten azpian sailkatu diren substantzia eta nahasketa kimikoen kasuan (nanomaterialdun forma barne) 89/391 Zuzentarauaren oinarrizko arauketarekin batera beste zuzentarau batzuk aplikagarri zaizkie.

CLP Erregelamenduaren sailkapen irizpideen arabera arriskutsu bezala sailkatu diren substantzia eta nahasketa kimikoak 98/24 Zuzentarauaren aplikazio eremupean sartzen dira. Bestalde, CLP Erregelamenduaren arabera kartzinogeno edo mutageno bezala sailkatu diren substantzia eta nahasketa kimikoei 2004/37 Zuzentaraia zaie aplikagarri. Zuzentaraia horiek (89/391 Zuzentaraia barne) 2008an CLP Erregelamendua onartu baino lehen substantzia eta nahasketa kimikoak sailkatzeko erabiltzen diren irizpide normatibo zaharren arabera funtzionatzen zuten, 2014/27 Zuzentaraiak²⁶³⁷ CLP Erregelamenduaren baldintza normatibo berrietara egokitu zituen. CLP Erregelamenduaren sailkapen irizpideekin batera, nanomaterial manufakturatuen kasuan substantzia, nahasketa eta

²⁶³⁵ Ibid, 16.art.

²⁶³⁶ DOUCET, 2011: 176.

²⁶³⁷ Directive 2014/27/EU Of The European Parliament and of the Council of 26 February 2014 amending Council Directives 92/58/EEC, 92/85/EEC, 94/33/EC, 98/24/EC and Directive 2004/37/EC of the European Parliament and of the Council, in order to align them to Regulation (EC) No 1272/2008 on classification, labelling and packaging of substances and mixtures. (OJEU: 5/3/2014).

artikuluen hornikuntza katean zehar transmititu beharreko informazioak berebiziko garrantzia du, 1907/2006 Erregelamenduan (REACH) arautzen dena.

Zerrendatu berri diren arau komunitarioetatik bat ere ez da nanomaterialen berezitasun normatiboetara egokitu. Testuinguru normatibo horrek enplegatzailari nanomaterialen erabileraren aurrean langileen osasuna eta segurtasuna eraginkortasunez babesteko buruhausteak besterik ez dizkio eragiten, izan ere, EHU-OSHA Agentzia komunitarioak ohartarazi duen bezala²⁶³⁸:

- a) Hornikuntza katean zehar nanomaterialei buruzko informazio espezifikoa transmititzeko betebeharrak normatiborik ez dago. Ondorioz, lan arloan nanomaterialdun substantzia, prestakin eta artikuluen presentziari buruzko informazioa falta da.
- b) Nanomaterialen propietate arriskutsuei buruzko informazio datuak oso urriak dira.
- c) Nanomaterialen esposizioa egokitasun identifikatu eta neurtzeko metodologiak garatze bidean daude oraindik.
- d) Nanomaterialen arriskuak kudeatzeko neurri eraginkorrei buruzko informazio hutsuneak existitzen dira.

Datozen atalean beraz alde batetik 89/391 Zuzentarauaren, 98/24 Zuzentarauaren eta 2004/37 Zuzentarauaren ezaugarri orokorren analisia egiten da. Nanomaterialen esanbidezko arauketarik aurreikusten ez dutenez, bestetik instantzia publiko eta pribatu desberdinek lan eremuan nanomaterialak identifikatu, beren esposizioa neurtu eta beren arriskuak ebaluatzeko proposatu dituzten neurriak aztertzen dira.

II.3.B. Langileen segurtasun eta osasuna babesteko marko normatibo komunitarioaren ezaugarri nagusiak

II.3.B.a. Langileen segurtasun eta osasuna babesteko 89/391 Zuzentarau Orokorra

Dagoeneko azpimarratu den bezala, 89/391 Zuzentarauak langileen osasuna eta segurtasuna babesteko estrukturatu den corpus normatibo komunitarioaren bizkarrezurra osatzen du eta lurralde komunitarioan lan eremu guztiei (sektore pribatu eta publikoetakoak) zaie aplikagarri²⁶³⁹. Zuzentarau horrek enplegatzailak eta langileak lan eremuan osasun eta segurtasunarekin lotuta dituzten betebeharrak aurreikusten ditu, hurrenez hurren pieza normatiboaren II. eta III. ataletan. Espainiaren kasuan, 89/391 Zuzentarauaren transposizioa arau hori argitaratu eta sei urtetara gertatu zen, 31/1995

²⁶³⁸ EU-OSHA, 2013: 2-3.

²⁶³⁹ 89/391 Zuzentaraua, 2.1.art.

Legearen²⁶⁴⁰ bitartez. EBko Komisioak bestalde COM (2006) 366 Komunikazioan zuzentarau hori nanomaterialei erabat aplikagarri zaiela azpimarratu zuen²⁶⁴¹.

EBFTren 153.1.a) artikulua Europar Batasunari lan osasun eta segurtasun eremuan Estatu-kideei laguntza eskaini eta beren ekimen normatiboak osatzeko eskumena aurreikusten diola kontuan izanik, Estatu-kide bakoitzak 89/391 Zuzentarauaren oinarriko edukiak barne zuzenbidera transposatu eta interpretatzean irizpide normatibo eta judizial desberdinak aplikatzen ditu. Alemania, Herbehereek eta Espainiak lan osasun eta segurtasunerako betebeharrak normatiboak “bitarteko betebeharrak” gisa interpretatu dituzte²⁶⁴². Alegia, betebeharrak horien konplimenturako egokiak diren bitartekoak jartzeko obligazioa dago, baina enplegataileak ikuspegi ekonomiko batetik aztertuta koste neurrigabeak dakartzaten neurriak onartzeko betebeharrak ez dute. Frantziar Estatuak ordea lan eta osasunaren babesaren ikuspegitik bermatzaileagoa den interpretazioa egiten du, 89/391 Zuzentarauaren neurriak “emaitzako betebeharrak” gisa ulertzen baititu²⁶⁴³.

Interpretazio horren harira garrantzitsuena neurri horien bidez lortu behar den emaitza da (langileen osasuna eta segurtasuna eraginkortasunez babestea) eta beraz, emaitza hori lortzeko erabili diren baliabide kopuruaz independenteki. Nanomaterialen erabileraren kasuan “emaitza betebeharrak” interpretazio hori lagungarria izan daiteke. Aztergai dugun zuzentarauak enplegataileei orotako izaera duten betebeharrak ezartzen dizkie. Jarraian betekizun garrantzitsuenak zerrendatzen dira:

- a) Enplegataileek lan esparruan sortu daitezkeen arriskuak saihesteko betebeharrak orokorra dute²⁶⁴⁴. Saihestea ezinezkoak diren arriskuen kasuan enplegataileak horiek ebaluatu egin behar ditu eta ahal den kasuetan, arrisku gutxiago eragiten duten jardura edota materialengandik ordezkatu.
- b) Enplegataileek lan segurtasun eta osasunari eragin diezaieketen arriskuen inguruko informazioa transmititu behar diete langileei, baita arrisku horien saihaspen eta babes neurriei buruzko informazioa ere²⁶⁴⁵.
- c) Lan arloko osasun edota segurtasunari eragin diezaieketen gairik egonez gero, enplegataileek langileen parte hartze orekatua bermatu behar dute²⁶⁴⁶. Enplegataileak langileak gai horren inguruan kontsultatu eta egiten dituzten proposamenak entzun beharko ditu. Nanomaterialen erabilera lan arloko osasun eta segurtasunari eragiten dien gaia izanik, kasu horretan enplegataileak langileak kontsultatu eta entzun behar dituela interpretatu daiteke.

²⁶⁴⁰ Ley 31/1995 de 8 de noviembre, de prevención de riesgos laborales, (BOE: 1995-11-10), 1995-10-08.

²⁶⁴¹ EBko Komisioaren COM (2008) 366 final, 5.orr.

²⁶⁴² Kontsultatu DOUCET, 2011: 178-179. Estatu-kide horietan botere judiziala izan da 89/391 Zuzentarauak “bitarteko betebeharrak” edo “emaitza betebeharrak” eragiten dituen interpretatu dutenak.

²⁶⁴³ Ibid.

²⁶⁴⁴ 89/391 Zuzentaraua, 6.art.

²⁶⁴⁵ 10.art.

²⁶⁴⁶ 11.art.

- d) Enplegatzailleak langile guztiei lan heziketa egokia eta nahikoa eman behar die, besteak beste, lan eremuan teknologia berri bat barneratzen den kasuetan. Beraz, enpresa batean nanoteknologia erabiltzen hasi aurretik, enplegatzailleak langileei material horiekiko heziketa egokia bermatzeko betebeharra du.
- e) Enplegatzailleek langileen osasunaren aldizkako zaintza egin behar dute. Zaintza hori derrigorrezkoa (jarduera arriskutsuak burutzen dituztenean) edo borondatezkoa izan daiteke²⁶⁴⁷. Nanomaterialek langileen osasun eta segurtasunean eragin ditzaketen arriskuen potentzialtasuna eta horien inguruan existitzen den ziurgabetasun zientifikoa kontuan hartuta, nanomaterialekin kontaktuan sartzerazuzenduta dauden langileen osasunaren aldizkako zaintza derrigorrezkoa izan behar dela interpretatu daiteke

II.3.B.b. Agente kimiko arriskutsuen aurrean langileen osasuna eta segurtasuna babesteko 98/24 Zuzentaraua eta 2004/37 Zuzentaraua

98/24 eta 2004/37 zuzentarauak 89/391 Zuzentaratik eratorzen diren arau espezifikokoak dira. Espainiar Estatuaren kasuan 98/24 Zuzentaraua 374/2001 Errege Dekretuak²⁶⁴⁸ transposatu zuen eta 2004/37 Zuzentarauak agente kartzinogeno eta mutagenoei buruz indarrean zegoen arauketa komunitarioaren kodifikazioa egiten duenez (zehazki 90/394, 97/42 eta 1999/38 zuzentarauna) Espainiar Estatuan gai konkretu hori arautzen duen pieza normatiboa data hori baino lehenagokoa da, 665/1997 Errege Dekretua²⁶⁴⁹ hain zuzen ere.

CLP Erregelamenduaren arabera arriskutsu bezala sailkatu diren substantzia eta nahasketa kimikoei 98/24 Zuzentarauko lan eta osasun segurtasun neurriak zaizkie aplikagarri²⁶⁵⁰ eta substantzia edo nahasketa kartzinogeno edo mutageno bezala sailkatzen direnean, 2004/37 Zuzentaraurenak²⁶⁵¹. Dagoeneko azaldu den bezala, substantzia eta nahasketa kimikoen arrisku profil desberdina izan dezakete, baita substantzia berberaren makro-eskalaren eta nano-eskalaren forma desberdinen artean ere.

REACH Erregelamenduan nanomaterialdun substantzia kimikoei ez zaie tratamendu juridiko bereizirik aintzatesten eta arau orokor bezala beraz nukleo kimiko berdina duen substantziaren erregistro berberean barneratzen da, nahiz substantzia kimikoen nanomaterialdun forman arrisku profil desberdina izan dezaketen. Erregistro berberean erregistratzen diren kasuetan CLP Erregelamenduaren sailkapen irizpideek ez dute substantzia horren makro-eskala eta nano-eskalaren artean bereizten. Kasu horietan substantzia kimikoak makro-eskalan dituen propietateak dira kontuan hartzen direnak

²⁶⁴⁷ 89/391 Zuzentaraua, 17.art. eta 31/1995 Legearen 22.art.

²⁶⁴⁸ Real Decreto 374/2001, de 6 de abril, sobre la protección de la salud y seguridad de los trabajadores contra los riesgos relacionados con los agentes químicos durante el trabajo. (BOE: 1/5/2001).

²⁶⁴⁹ Real Decreto 665/1997, de 12 de mayo, sobre la protección de los trabajadores contra los riesgos relacionados con la exposición a agentes cancerígenos durante el trabajo. (BOE: 24/05/1997).

²⁶⁵⁰ Ikus 98/24 Zuzentarauren 2.b)iii) art.

²⁶⁵¹ Ikus 2004/37 Zuzentarauren 2. artikularen a) eta b) atalak.

substantzia horien sailkapena egitean eta nanomaterialdun formak nahiz eta arrisku profil desberdina duten kasuetan beste modu batera sailkatu beharko liratekeen, substantzia kimikoen makro-eskalaren sailkapena aplikatzen zaie. Lan eremuan egon daitezkeen agente kimiko arriskutsuek langileen osasuna eta segurtasunari eragin ez diezaieten aztergai ditugun zuzentarauek beren kontrolerako mekanismo desberdinak aurreikusten dituzte. Hurrengo lerroetan 98/24 Zuzentarauren eta 2004/37 Zuzentarauren analisi bateratua egiten da, kasu gehienetan enplegatzaileak bete behar dituen baldintza normatiboak antzekoak baitira.

Lan osasun eta segurtasun neurrien analisisian murgildu aurretik, langileek agente kimiko arriskutsuekiko izan dezaketen Gehienezko Esposizio Baloreak (aurrerantzean ingelesezko laburdura erabiliko da, OEL, *Occupational Exposure limits*) edo Gehienezko Balore Biologikoak (aurrerantzean, BLV, ingelesezko *Biological Limit Values*) zer diren azaldu behar da. Lehenengo baloreek gizakion esposizioari egiten diote erreferentzia eta bigarrenek aldiz, ingurumen esposizio baloreei. 98/24 Zuzentaraun OEL eta BLV baloreak hurrenez hurren arauaren I. eta II. eranskinean zerrendatzen dira. 2004/37 Erregelamenduaren kasuan ordea OEL baloreak besterik ez dira aurreikusten, pieza normatibo horren III. Eranskinean.

Lehenik eta behin enplegatzaileek lan esparruan dauden agente kimiko arriskutsuak identifikatu, esposizio-bideak eta esposizio maila ebaluatu eta esposizio horren ondorioz langileengan eragin ditzaketen arriskuak ebaluatzeko eginkizuna dute²⁶⁵². EBko Komisioak 2014an lan osasun eta segurtasunari buruz argitaratu zituen bi orientazio gidetik enplegatzaileei eta langileei nanomaterialen presentzia identifikatzeko gomendioak erabat aldrebesak dira. Nanomaterialen identifikazio lanetan SDS fitxetan eta produktuen kasuan beren etiketapenean begiratzea gomendatzen die²⁶⁵³. Tesi honen beste kapitulu batzuetan dagoeneko azpimarratu den bezala, nanomaterialen esanbidezko etiketapena produktu kosmetiko, biozida eta elikagai produktuetan besterik ez da derrigorrezkoa. Bestalde SDS fitxetan nanomaterialen presentziaz ohartarazteko derrigortasun normatiborik ere ez dago, EBko Komisioaren estrategia normatiboaren ondorioz REACH Erregelamenduan ez baita zentzu horretan inolako aldaketa normatiborik onartu.

SDS fitxetan nanomaterialen informaziorik aurreikusten ez bada ere, Komisioaren orientazio gidetik hornikuntza katean gora dauden hornitzaileei galdetzea eskatzen dio enplegatzaileari. Azken errekurtso bezala ECHA Agentziaren datu basean kontsultatzea gomendatzen du. Substantzia kimikoen erregistroan ECHAri substantzia horiek nanomaterialdun forman erabiliko diren jakinaraztea derrigorrezkoa ez denez (ECHAren 2014ko orientazio gidan egindako gomendioa baizik) gaur egun ECHAren datu basean 9 nanomaterial besterik ez dira zerrendatzen. Funtsean, EBko Komisioak langile eta enplegatzaileei nanomaterialen presentzia identifikatzeko praktikan nanomaterialen berezitasunetara egokitu ez diren mekanismo administratiboetan kontsulta dezatela gomendatzen die, nanomaterialen presentziaz informatu baino, desinformatu egiten

²⁶⁵² 98/24 Zuzentaraun, 4.art; 2004/37 Zuzentaraun, 3.2.

²⁶⁵³ EBko Komisioa, 2014a: 5-6; 2014b: 16.

duinak. Mekanismo administratibo horiek nanomaterialetara ez egokitu izanaren erantzukizuna gainera EBko Komisioarena da, testuinguru normatibo hori nanomaterialen arauketa juridiko komunitariorako Komisioak defendatzen duen “hutsuneak bete” estrategia normatiboaren ondorio zuzena baita.

Substantzia eta nahasketa kimiko arriskutsuen ebaluaketa eta karakterizazioa egitean, enplegatzaileak agente kimiko arriskutsuen lan erabilpen baldintzak, agente kimiko mota bakoitzari ezarritako kasuan kasuko OEL eta BLV baloreak eta arrisku mailaren arabera onartu beharreko saihaspen neurriak kontuan hartu behar ditu. EBko Komisioak nanomaterialen manufakturatuei buruz enplegatzaileei zuzendutako orientazio gidan nanomaterial formadun substantzien kasuan arrisku ebaluaketa berri bat egitea eskatzen die²⁶⁵⁴, nukleo kimiko berdina duen makro-eskaladun substantzia kimikoaren arrisku ebaluaketarekiko desberdina. Bestalde nanomaterialen manufakturatutako bakoitzaren propietate heterogeneotasunaren ondorioz beren ebaluaketarako metodologia edo testapen unibertsalik existitzen ez denez, Komisioak nanomaterial bakoitza kasuz kasu ebaluatzea gomendatzen du²⁶⁵⁵.

Nanomaterialen arriskuen karakterizazio horretarako Komisioak enplegatzaileei *Control Banding* izaera duen mekanismo bat erabiltzea proposatzen die, nanomaterial bakoitzaren larritasuna (kalte potentzialen arabera) eta probabilitatea (esposizio mailaren arabera) konbinatzen dituen parametro desberdinen bidezko kontrol banda. Kalteen entitatearen eta esposizio mailaren arteko konbinazio horretan nanomaterialen propietate desberdinak hartzen dira kontutan, zehazki, beren forma, disolbagarritasuna eta iraunkortasuna. Komisioak nanomaterialen arnas bidezko esposizioan jartzen du arreta gehien eta arreta printzipioari jarraiki, enplegatzaileei ebaluaketan “aurreikusitako daitezkeen eskenatokitik okerrenaren” ikuspegia (*worst case scenario approach*) aplikatzea eskatzen die²⁶⁵⁶.

Nanomaterial bakoitzak eragin dezakeen larritasun eta probabilitatearen arabera, 4 kategoriatan banatutako kontrol bandak zaizkie aplikagarri. Lehenengo eta bigarren kategorietan erotzen diren nanomaterialen manufakturatuen kasuan beren arriskuen kudeaketa neurri estandarrak proposatzen ditu²⁶⁵⁷. Aitzitik hirugarren eta laugarren kategoriatan baneratzen direnean, Komisioak enplegatzaileari nanomaterial horien arrisku ebaluaketa osagarri eta zehatz bat egitea gomendatzen die²⁶⁵⁸. Besteak beste, substantzia horientzat aurreikusitako OEL eta DNEL balio konbentzionalak nanomaterialdun forman egokiak diren ebaluatzea eskatzen die eta komunitate zientifikoak nanomaterialen manufakturatutako batzuentzat proposatutako OEL eta DNEL balioak zerrendatu egiten ditu²⁶⁵⁹.

²⁶⁵⁴ EBko Komisioa, 2014b: 7. orr.

²⁶⁵⁵ Ibid, 7-8. orr.

²⁶⁵⁶ Ibid, 20. orr.

²⁶⁵⁷ Orientazio gidaren 4.6 taulakoak.

²⁶⁵⁸ Ibid, 29-30.

²⁶⁵⁹ Gidaren 4.9 taulan.

Enplegatzailleak bestalde lan eremuko agente kimikoen arriskuen desagertzea izan behar du helburu²⁶⁶⁰. Arrisku horiek erabat desagertzea teknikoki posible ez den kasuetan, arriskuak minimora murrizten direla ziurtatu behar du. Horretarako, lehen aukera agente kimiko arriskutsuaren ordezkapena egitea da, arrisku profil txikiagoa duen beste agente kimiko baten ordezkapena ezinezkoa bada, orduan bai, enplegatzailleak agente kimiko horren arriskuak minimora murrizten direla ziurtatzeko neurri kolektibo edota indibidualak aktibatu behar ditu²⁶⁶¹. Langileek, beren osasuna eta segurtasuna bermatze aldera, alde batetik lan eremuko agente kimiko arriskutsuen inguruko informazio eta lan heziketa egokia eta jarraitua jaso behar dute²⁶⁶² eta bestetik, beren osasuna zaintzeko aldizkako errebisioak pasa behar dituzte²⁶⁶³. Eginkizun honetarako, langileei hornitzaileek eskaintako informazio fitxa teknikoetara sarrera eskaini behar zaie.

Arriskutsu bezala sailkatu diren nanomaterialen manufakturatuen kasuan EBko Komisiaoak nanomaterialen esposizioa murrizteko programak eta emergentzia planak aurreikustea, nanomaterialen eta langileen arteko kontaktu zuzena eragozten duten instalazio itxiak erabiltzea, babes indibidualerako ekipamenduak erabiltzea eta langileen heziketa espezializatuan eta osasunaren zaintzan berebiziko arreta jartzea gomendatzen du²⁶⁶⁴.

II.3.C Nanomaterialen manufakturatuen arriskuak identifikatu, ebaluatu, kudeatu eta komunikatzeko entitate publiko eta pribatu desberdinek proposatutako mekanismoak

Aurreko azpi-atalean azaldu den bezala, lan osasuna eta segurtasuna babestera zuzendutako arauketa juridiko komunitarioek ez dute nanomaterialen inolako arauketarik aurreikusten. Ekimen arautzaileen faltaren eta nanomaterialen propietate berezitasunek planteatutako zailtasunen aurrean, izaera publiko erakundeek, ikerketa taldeek, sindikatuek edota nanomaterialak erabiltzen dituzten enpresa handi batzuek azken urteotan nanomaterialen esposizioaz babesteko neurri proposamen desberdinak egin dituzte. Nanomaterialen esposizioa neurtu, ebaluatu eta sortu ditzakeen arriskuak kudeatzeko dauden hutsune eta zalantzak direla eta, lan osasuna eta segurtasuna babesteko planteamenduaren ardatza arreta printzipioa izan behar da.

Nanomaterialen segurtasunari buruzko ikerketaren garapenaren bitartez entsegu eta ebaluaketa metodo fidagarriak egituratu artean, langileak nanomaterialen arrisku potentzial posibleetatik modu eraginkorrean babestu behar dira. Arreta printzipioarekin zerikusi zuzenean eta REACH erregelamenduko *no data, no market* printzipioan inspiraturik, hainbat erakunde eta egilek lan esparruan *no data, no exposure* printzipioaren aplikazioa

²⁶⁶⁰ 98/24 Zuzentaraua, 6.art; 2004/37 Zuzentaraua, 5. art.

²⁶⁶¹ Neurri horiei buruz, ikus 98/24 Zuzentarauaren 6.2 artikulua a), b) eta c) atalak eta 2004/37 Zuzentarauaren 5. artikulua 2. eta 3. atalak.

²⁶⁶² 98/24 Zuzentaraua, 8.art; 2004/37 Zuzentaraua, 11. art.

²⁶⁶³ 98/24 Zuzentaraua, 10.2 art; 2004/37 Zuzentaraua, 14. art.

²⁶⁶⁴ EBko Komisiaoren gidaren 4.10 taulan.

proposatzen dute²⁶⁶⁵. Alegia, nanomaterialen esposizioari buruzko datu fidagarriak egon ezean, langileak ez dira nanomaterialekiko kontaktuan egon behar.

Hurrengo azpi-ataletan egiten den analisia hiru ataletan banatzen da. Lehenenik eta behin, lan arloko esposizioa neurtu eta ebaluatzeko mekanismoak aztertzen dira. Bigarrenik, esposizio neurketa eta ebaluaketa mekanismoetatik ondorioztatutako emaitzak kontuan hartuz, arriskuen kudeaketarako erabilitako neurrien azalpena egiten da, langileen heziketa eta osasunaren zaintza barne. Azkenik, hornikuntza katean zehar transmititu beharreko informazioa eta SDS izeneko mekanismoak eginkizun horretan duen garrantziaren analisia egiten da.

II.3.C.a. Lan arloko esposizioa neurtu eta ebaluatzeko mekanismoak: OEL baloreak eta control banding mekanismoak

Agente kimikoen esposizioa neurtu eta ondorioz lan arloan sortu ditzaketen lesio eta gaixotasunak ekiditeko metodo eta balore desberdinak erabiltzen dira. Horien artean *Occupational Exposure Limit* izeneko balorea (OEL) nabarmendu daiteke. Metodo horren bitartez lan arloan dauden agente kimikoen esposizio maila maximoak ezartzen dira, hots, langileek agente kimiko bakoitzarekiko jasan ditzaketen gehienezko esposizio mailak. OELen jatorria XIX. mende amaieran eta XX. mende hasieran kokatu daiteke eta metodo horren oinarria oso toxikoak ziren zenbait substantzien esposizioen ikerketa izan zen, karbono monoxidoarena besteak beste²⁶⁶⁶.

Gaur egun, OEL neurketa metodoa mundu osoan zehar dago hedaturik. EBen lan arloko agente kimiko arriskutsuei buruzko arauketa komunitario eta nazionalek hainbat agente kimikoei buruzko OEL balore maximoak ezartzen dituzte, lotesleak edo indikatiboak izan daitezkeenak. Arau komunitarioek OEL indikatiboak ezartzen dituzten kasuetan, Estatu-kideek arauketa komunitarioaren transposizioa egitean bestelako balore muga batzuk ezartzea erabaki dezakete. Aldiz, arau komunitarioek OEL balore loteslea ezarriz gero, arauketa nazionalek balore hau bere horretan mantendu beha dute, ezin dute aldatu. Gaur egun, 98/24 Zuzentarauaren I. Eranskinean ezarritako OEL balore bakarra da loteslea (berun ez-organikoa eta bere deribatuak), zuzentarau horren esleipen bitartez onartutako bestelako arauketa komunitarioek OEL indikatiboak ezarri baitituzte.

Gaur egun, lan osasun eta segurtasunari buruzko marko komunitarioan ez da nanomaterialen manufakturatuen lan esposizio mugen balore espezifikorik aurreikusten. Nanomaterialen propietate berezitasunak direla medio, OEL neurketa metodoarekin hainbat bateraezintasun sortu daitezke, nanomaterialak detektatu eta kontrolatzea zailduz.

²⁶⁶⁵ Printzipio horren aldeko jarrera azaldu dute, besteak beste, EBeko sindikatuen konfederazioak (ETUC Executive Committee, 2010: 5), Holandako Ekonomia eta Gizarte Kontseiluak (Netherlands Social and Economic Council, 2012: 7,13) edota Van Broekhuizen zientzialari holandarra (Van Broekhuizen, 2012: 169).

²⁶⁶⁶ SCHULTE et al, 2010: 1973.

Alde batetik, OELak agente kimikoen arriskuen ebaluaketa oso bat egin ostean eratoritzen diren baloreak dira; nanomaterialen manufakturatuen kasuan, beren arrisku eta efektuen inguruko jakintza hutsuneak direla medio erabateko ebaluaketa egitea zaila izan daiteke. Bestetik, OEL baloreak agente kimikoen toxikotasuna neurtzeko “masen kontzentrazioa” izeneko metrika erabiltzen du, nanomaterialentzat baliagarria ez den parametroa²⁶⁶⁷. Arauketa komunitarioan nanomaterialen OELen balorerik aurreikusi ez bada ere, nanomaterialak erabiltzen dituzten enpresa pribatu batzuek edota hainbat erakunde publiko eta pribatuk nanomaterial batzuentzako OEL baloreak aurreikusi dituzte, besteak beste, pareta sinple eta konplexudun karbonozko nano-tutuentzat eta nanotinaniodun dioxidoarentzat²⁶⁶⁸.

Lan esparruko agente kimikoen esposizio maila neurtzeko OEL baloreez gain, entitate desberdinek nanomaterial manufakturatuen esposizioa, toxikotasuna eta arrisku maila ebaluatzeko aurreko atalean azaldu dugun *control banding* eskeman oinarritutako proposamen desberdinak egin dituzte:

- a) NIOSH erakundeak *Naporticule emission assessment technique* (NEAT) izeneko metodoa garatu du, nanopartikulen emisioa ebaluatzeko balio dezakeena²⁶⁶⁹.
- b) Zenbait erakundek nanomaterialen lan esposizioa ebaluatzeko metodologia sinplifikatu batean oinarritutako *COSHH Essentials* izeneko metodoa proposatzen dute, arriskuaren probabilitatea kalkulatzeko balio duena. Alegia, metodo horren bidez ez da agente kimikoen arrisku errealaren maila zehazten, baizik eta nanomaterialek izan dezaketen arrisku potentzialen maila kalkulatzeko balio du. Nanomaterialen arrisku errealak zehazteko zailtasunak egonik, *COSHH Essentials* izeneko metodoa nanomaterialen arrisku potentzialen estimazioa egiteko aproposa izan omen daiteke. Agente kimikoek sortu ditzaketen arrisku potentzialen arabera, 4 segurtasun maila desberdin ezartzen dira eta maila bakoitzean intentsitate desberdineko babes neurriak ezartzen dira²⁶⁷⁰.
- c) Erresuma Batuko Estandarizazio Institutuak (BSI) substantzia arriskutsuen marko juridikoaren baitan nanomaterialen arriskuei buruzko kategorizazio proposamena egin zuen. Suitzarrek aldiz, arreta printzipioan oinarritutako *Swiss Precautionary Matrix* izeneko metodoa egituratu dute, lan arloaz gain nanomaterialek kontsumitzaileengan eta ingurugiroan sortu ditzaketen arriskuak ere kontuan hartzen dituenak. Aurreko bi metodoen (eta beste batzuen) esperientzian oinarrituz, Danimarkak *Nanoriskcat* izeneko metodoa diseinatu zuen, koloreen bidezko sistema batean oinarritua²⁶⁷¹.

²⁶⁶⁷ HANSEN, 2009: 25.

²⁶⁶⁸ Nanomaterial manufakturatutako batzuentzat aurreikusitako OEL baloreak, besteak beste, NIOSH, OCDE eta IFA nazioarteko erakundeek, Erresuma Batuko estandarizazio institutuak (BSI), Alemaniako laneko osasun eta segurtasun institutuak (BAuA) edota nanomaterialekin jarduten duten BASF, Bayer eta Nanocil bezalako enpresek proposatutakoak dira. Nanomaterialen OEL baloreak kontsultatzeko, ikus, besteak beste: SCHULTE et al, 2010: 1981 edo Instituto Riojano de Salud Laboral, 2011: 33-34.

²⁶⁶⁹ WHO, 2012: 5.

²⁶⁷⁰ *COSHH Essentials* metodoaren funtzionamendua eta nanomaterialekin duen aplikagarritasuna ulertzeko, ikusi, TANARRO GOZALO, 2010 (NTP 877).

²⁶⁷¹ Metodo guzti hauen iturria: HANSEN, et al, 2011: 22-34.

II.3.C.b. Nanomaterialen arriskuak kudeatzeko lan segurtasun neurriak

Lan esparruan erabilitako agente kimikoen esposizioa neurtu eta esposizio horrek sortu ditzakeen arriskuen ebaluaketatik eratorritako emaitza eta ondorioak oinarri hartuta, agente kimikoen arriskuen kudeaketarako neurriak onartzen dira. Aurreko azpi-atalean ikusarazi den bezala, nanomaterialen propietate berezitasunak direla medio beren esposizioa neurtu eta arriskuak ebaluatzeko metodologia adostuen falta dago. Ondorioz, lan esparruan erabilitako nanomaterialen esposizioa neurtu eta arriskuak ebaluatzeko dagoen informazio gabezia eta zailtasun tekniko-zientifikoez oharturik, arriskuen kudeaketa neurriek arreta printzipioan eta *no data, no exposure* printzipioan izan behar dute oinarri.

Nanomaterialekiko esposizioak langileei eragin diezazkiekeen arriskuen jakintza osatugabea den aldetik, kudeaketa neurriek beraz nanomaterialekiko kontaktua eragozteko izan behar dute helburu. Hainbat erakundek (EBko Legebiltzarrak eta EBko Komisioak barne²⁶⁷²) nanomaterialen manufakturazio prozesuak sistema itxietan burutzeko gomendioa egin dute, langileek beraiekiko kontaktu zuzena saihesteko helburuan oinarrituz. Nanomaterialak sistema itxietan manipulatu ezin diren kasuetan, berauekiko kontaktuan sartzen diren langileen kopurua eta esposizio denbora zein kantitatea ahalik eta murriztenak izan behar dira²⁶⁷³.

Nanomaterialekin kontaktuan sartzen diren langileen babes pertsonalerako baliabideak ere bereziak izan behar dira. Hots, arropa, eskularruak edota arnas maskarek nanomaterialen esposizio dermikoa eta arnas bidezkoa ekiditeko eraginkorrak eta erresistenteak izan behar dira²⁶⁷⁴. Bestalde, nanomaterialek langileen osasun eta segurtasunean sortu ditzaketen arriskuen informazio faltaren aurrean, osasunaren zainketaekin lotutako planteamendu goiztiarra eta jarraikakoa adostu behar da. Alegia, nanomaterialekiko kontaktuan dauden langileen osasunaren jarraipena egitea beharrezkoa da, nanomaterialek sortu ditzaketen efektuak zeintzuk diren jakin ahal izateko. Gaur egun, tamalez, nanomaterialekin kontaktuan dauden langileen osasunaren zaintza egiteko metodologia zehatz eta berezirik ez da existitzen²⁶⁷⁵.

Babes pertsonalerako eta osasunaren zaintzarako neurriez gain, nanomaterialekiko esposizioan sartzera bideratutako langileei nanomaterialei buruzko lan heziketa

²⁶⁷² Nanomaterialak sistema itxietan manipulatzeko gomendioak kontsentsu handia duela esan daiteke. EBko Legebiltzarrak 2008/2208(INI) ebazpenean (gaztelaniako bertsioa 7.orr, 15.atala) Komisioari lan arloko arauketa komunitarioa berrikusi eta nanomaterialak, beren esposizioa neurtu eta kontrolatu ezin daitekeen artean, sistema itxietan bakarrik enplegatzeko gomendioa egiten dio. EBko Komisioak ere 2014an argitaratutako orientazio gidetan enplegatzailerei neurri hori onartzea proposatzen die (EBko Komisioa, 2014b: 33-34). Erakunde komunitarioez gain neurri hori beste erakunde batzuek ere gomendatzen dute: ETUC Executive Committee, 2010: 4; BASF, 2007 (BASF); Instituto Riojano de Salud Laboral, 2011: 44; ROSSELL FARRAS eta PUYOL SENOVILLA, 2008:4 (INSHT).

²⁶⁷³ EBko Komisioa, 2014b: 33-34; Health and Safe Executive 2013: 11.

²⁶⁷⁴ Nanomaterialen esposizioa ekiditeko proposatu diren babes pertsonalerako neurri batzuk: Ibid, 13-15; Instituto Riojano de Salud Laboral, 2011: 45-46 eta ROSSELL FARRAS eta PUYOL SENOVILLA, 2008:5 (INSHT).

²⁶⁷⁵ Health and Safe Executive 2013: 18.

espezializatua eta jarraitua eman behar zaie. Alegia, langileei nanomaterialen manipulazioari edota esposizioaren arriskuei eta kontrol neurriei buruzko ezagutza baliabideak eskaintzea ezinbestekoa da. Langileei nanomaterialei buruzko heziketa emateaz gain, enpresek langile bakoitzak jasotako instrukzioari eta informazioari buruzko barne erregistro bat mantentzea egokia izan daiteke²⁶⁷⁶.

Enpresa barneko erregistro horrez gain Europako Sindikatuen Konfederazioak (ETUC) edota Erresuma Batuko lan osasun eta segurtasunerako erakundeak (HSE) nanomaterialekiko esposizioan sartzen diren langileen erregistro bat egiteko proposamena luzatzen diete Estatu-kideei²⁶⁷⁷. Erregistro horren bitartez, esposizioan dauden langileak eta nanomaterial motak identifikatzeaz gain, bestelako datu batzuk eskatu daitezke, besteak beste, esposizio denbora eta intentsitatea, aplikatutako babes neurri pertsonalak edota airean dauden nanopartikulen kontzentrazio maila.

II.3.C.c.Hornikuntza katea eta Segurtasun Datuen Fitxa (SDS)

Produktu kimikoen kapituluan aztertu den bezala, produktuen ekoizpen fasetik hasi eta berorren jarraikako inportazio eta horniduren bidez azken kontsumitzailearengana iristen den arteko fase guztietan zehar, hots, hornikuntza katean zehar, produktuari buruzko zenbait informazio transmititzea garrantzitsua da. Izan ere, informazio transmisio horren bitartez produktuen erabilera eta propietateak ezagutarazteaz gain, langileek hornitzaileek transmititutako informazio eta fitxa teknikoak kontsultatzeko eskubidea dutela gogorarazi behar da²⁶⁷⁸. Nanomaterialak manufakturatutako REACH Erregelamenduaren substantzia kimikoen definizioan inplizituki barneratzen direnez, REACHen egituratzen den hornikuntza katearen arauketa juridikoa aplikagarri zaie. Hornikuntza kateko arauketak aitzitik nanomaterialen berezitasunetara egokitu gabe jarraitzen duenez, nanomaterialdun substantzia edota nahasketa kimikoak (indibidualki edota produktu batean erantsita) hornikuntza katean zehar transmititzen direnean ez da nanomaterialei buruzko propietate edota arriskuen informaziorik eskaintzeko inolako obligazio juridikorik existitzen.

Hornikuntza katean zehar substantzia eta nahasketa kimikoei buruzko informaziorik osoena transmititzeko aukera eskaintzen duen mekanismoa segurtasun datuen fitxa dela esan daiteke (ingelesez, *safety data sheet*, SDS). REACH Erregelamenduaren arabera SDS fitxak propietate arriskutsuak dituzten substantzia edo nahasketen inguruko informazio xehetasunak transmititzeko mekanismo zentralak dira²⁶⁷⁹. NBERen baitan egituratutako produktu kimikoen nazioarteko sailkapen eta etiketapenari buruzko sistema

²⁶⁷⁶ Ibid, 17. orr.

²⁶⁷⁷ ETUC Executive Committee, 2010: 7.

²⁶⁷⁸ 98/24 Zuzentaraua, 8.1.art.

²⁶⁷⁹ Zehazki, substantzia, nahasketa edota artikulu kimikoek REACH erregelamenduko 31.1 edo 31.4.artikuluetak baldintzaren bat betetzen dituzten kasuetan hornikuntza katean zehar informazioa transmititzeko SDS mekanismoa erabili behar da (besteak beste, substantzia kartzinogeno, mutageno, ugalketarako toxiko eta PBT edo mPmB propietateak dituztenetan).

harmonizatuaren arabera (GHS), SDS fitxek substantzia arriskutsuei buruzko informazioak honako datuak jaso behar dituzte²⁶⁸⁰:

- a) Substantziaren identifikazioa.
- b) Arriskuen identifikazioa.
- c) Osagaien konposaketa eta horiei buruzko informazioa.
- d) Lehenengo sorospenerako neurriak.
- e) Suteen aurkako neurriak.
- f) Nahigabeko isurpenik gertatuz gero hartu beharreko neurriak.
- g) Substantziaren manufakturazioa eta biltegiatzea.
- h) Esposizio kontrolak eta babes pertsonalerako neurriak.
- i) Substantziaren propietate fisiko-kimikoak, erreaktibotasuna, egonkortasuna, toxikotasuna eta ekotoxikotasuna.
- j) Substantziaren deuseztatze neurriak.
- k) Garraioari buruzko informazioa.
- l) Arauketari buruzko informazioa.
- m) Interesgarria izan daitekeen bestelako edozein informazio.

SDS fitxetan zerrendatutako informazioaren hedadura ikusita mekanismo hori hornikuntza katean zehar nanomaterialei buruzko informazioa transmititzeko tresnarik egokiena dela pentsa daiteke. Zentzu horretan ISO estandarizazio erakundeak²⁶⁸¹, Australiako Lan segurtasun eta Osasunerako Erakundeak²⁶⁸² eta Suitzako departamendu federal batzuek²⁶⁸³ azken urteotan nanomaterialei egokitutako SDS proposamen desberdinak egin dituzte. Nanomaterial manufakturatuen arriskuen inguruan gaur egun dagoen ziurgabetasun testuinguru honetan, arreta printzipioan oinarritutako SDS fitxak nanomaterialen hornikuntza kateko informazioa transmititzeko derrigorrezko mekanismo gisa egituratu beharko lirатеke, arriskuaren *iuris tantum* presuntzioarekin²⁶⁸⁴. Alegia, nanomaterial manufakturu bat osasunarentzat edota ingurugiroarentzat arriskutsua ez dela behar bezala frogaturik geratuz gero, hornikuntza katean zehar nanomaterial manufakturu horri buruzko informazioa transmititzeko ez da SDS mekanismoa erabiltzeko beharrik egongo²⁶⁸⁵.

SDS fitxak hornikuntza katean zehar nanomaterialei buruzko informazioa transmititzeko erabili ahal izateko lehenik eta behin nanomaterialen berezitasunetara

²⁶⁸⁰ NBE, 2009: 406.

²⁶⁸¹ ISO/TR 13329: 2012 *Nanomaterials -- Preparation of material safety data sheet (MSDS)*, 2012. urtekoa. Dokumentua ez dago dohan eskuratzetik.

²⁶⁸² Safe Work Australia, 2010.

²⁶⁸³ Federal Department of (...) DEA, SECO eta ABCH, 2012.

²⁶⁸⁴ Kontzeptu horri buruz, RENN and ELLIOTT, 2011: 242.

²⁶⁸⁵ Safe Work Australia, 2010: 3.

egokitu behar dira. Izan ere Australiako lan Osasun eta Segurtasun Erakundeak 50 SDS fitxei buruz egin zuen analisisian mekanismo horrek nanomaterialei buruzko informazio nahikorik eskaintzen ez zuela ondorioztatu zuen. Inguruabar hori gainditzeko SDS fitxetan nanomaterialekin zerikusia duten honako parametro espezifikoak aurreikustea proposatu zuen²⁶⁸⁶: partikularen tamaina, tamainaren banaketa, forma eta aspektuaren arteko erlazioa, kristalinitatea, hauts bihurtzeko gaitasuna, partikulen agregazio maila eta bioiraunkortasuna.

III. NANOMATERIALAK ETA KONTSUMITZAILEEN BABESERAKO ARAUKETA KOMUNITARIOA

III.1. Europar Batasuneko Funtzionamendu Tratatuak kontsumitzaileei eskainitako tratamendua

Kontsumitzaileen interesak sustatzeko eta babes maila altua bermatzeko helburuz, Europar Batasuneko Funtzionamendu Tratatuak (EBFT) Europar Batasunari talde horren osasuna, segurtasuna eta interes ekonomikoak babesten laguntzeko eta beren informazio eskubidea, hezkuntza eskubidea eta elkartzeko eskubidea sustatzeko mandatua ezartzen dio²⁶⁸⁷. Kontsumitzaileen babes helburu hori barne merkatu komunitarioaren ezarpen eta funtzionamenduaren helburuarekin elkarlotzen du EBFTk. Izan ere kontsumitzaileen babes helburu hori erdiesteko EBFTk bi aukera normatibo aurreikusten ditu. Alde batetik, kontsumitzaileen babesa EBFTren 114. artikularen arabera onartutako neurrien bidez bultzatu daiteke, barne merkatu komunitarioa lortzeko Estatu-kideen barne zuzenbidezko xedapenen hurbilpena helburu dutenak²⁶⁸⁸. Bestetik, Estatu-kideek kontsumitzaileen babeste zeregin horretan aurrera eramaten dituzten politikak lagundu, osatu eta gainbegiratzeko helburuz EBk bestelako neurri batzuk onartzeko eskumena dauka²⁶⁸⁹.

Neurri normatibo horiek betiere EBko Legebiltzarrak eta Kontseiluak prozedura legegile arruntaren bidez onartu behar dituzte, Komite Ekonomiko Soziala aldez aurretik kontsultatu ostean²⁶⁹⁰. Prozedura legegile arrunt horrez gain, EBFTren 114. artikularen aktibazioaren bidez onartzen diren neurriak EBko Kontseiluak prozedura legegile berezi baten bidez (EBko Legebiltzarra eta Komite Ekonomiko Soziala aldez aurretik kontsultatu ostean) ere onartu daitezke²⁶⁹¹. Kontsumitzaileen babes zeregin horretan EBk eta Estatu-kideek eskumen partekatuak dituzte²⁶⁹².

²⁶⁸⁶ Ibid, 15. orr.

²⁶⁸⁷ EBFT, 169.1. art.

²⁶⁸⁸ 169.2.a) art.

²⁶⁸⁹ 169.2.b) art.

²⁶⁹⁰ 114.1 eta 169.3 art.

²⁶⁹¹ EBFT, 115. art.

²⁶⁹² EBFT, 4.2.f) art.

EBk kontsumitzaileen babeserako (barne merkatu komunitarioaren ezarpen eta funtzionamenduaren helburuarekin batera) esparru desberdinen harmonizazio normatiboa aurrera eramán badu ere (zuzentarauen bidez gutxieneko baldintza normatiboa eta erregelamenduen bidez, intentsitate handiagoko harmonizazioa), Estatu-kideek babes maila altuagoa bermatzen duten barne zuzenbideko xedapenak mantendu edo onartu ditzakete²⁶⁹³. Neurri horiek EBko Oinarrizko Tratatuarekin bateragarriak izan behar dira eta Estatu-kideek Komisioari euren berri eman behar diote. Bestalde EBFTren 114. artikulua bidez onartu diren arauaketa komunitarioek, egokia deritzoten kasuetan, Estatu-kideek “babes-klausula” aktibatzeak aukera aurreikusi behar dute²⁶⁹⁴, tesi honen beste kapitulu batzuetan²⁶⁹⁵ dagoeneko azaldu den klausula.

III.2. Nanomaterialdun produktuak eta kontsumitzaileak: testuinguru normatibo orokorra

Materialak nano-eskalan manipulatu eta diseinatzetik lortzen diren nanomaterialen fabrikatzearen ezaugarriak oso probetxugarriak izan daitezke produktu komertzial gaitasunak potentzializatzeko. Kontsekuenteki substantzia eta nahasketa kimiko gero eta gehiagotan nanomaterial fabrikatuak erabiltzen dira, besteak beste, produktu kosmetikoetan, plagizidetan, elikagaietan, medikamentuetan, aparatu elektronikoetan eta arropagintzarekin zerikusia duten produktuetan txertatzen direnak. EBko Komisioak nanoteknologiaren inguruan martxan jarri zuen estrategia komunitarioan nanomaterialdun produktuen gaineko arauaketa beregain hartu zuen. Nanomaterialak erabiltzen diren produktu komertzial kategorian guztien artean, produktu kosmetikoen, bioziden eta elikagai produktuen marko normatibo sektorialetan besterik ez dira nanomaterialekin zerikusia duten baldintza normatibo espezifikoak onartu. Beste produktu kategorian guztien kasuan nanomaterial fabrikatzei baldintza normatibo konbentzionalak zaizkie aplikagarri.

Arauaketa komunitario sektorialik ez duten produktu kategorien kasuan, Estatu-kideek produktu horien erabilera, komertzializazio eta segurtasun baldintza propioak egituratzeko eskumena dute. Arauaketa komunitarioerik ez duten produktu kategorian horien kasuan, Estatu-kide bakoitzak egituratutako marko normatiboen heterogeneotasunaren ondorioz, kontsumitzaileen osasunari eskaintutako babes maila, kontsumitzaileen eskubideak eta produktu kategorian horien erabilera eta komertzializazio baldintzak desberdinak izan

²⁶⁹³ Kontsumitzaileak babeste kohelburuz EBFTren 114. artikulua aktibazioaren bidez onartutako neurri komunitarioen kasuan, Estatu-kideek kontsumitzaileen osasunari babes maila altuagoa bermatzea helburu duten kasuetan soilik daude legitimatuta barne xedapen normatiboak onartu edo mantentzeko (EBFT 114.4 artikulua, 36. artikuluaekin harremanean). EBFTren 169.2.b) artikulua bidez aktibatutako neurri komunitarioen kasuan, Estatu-kideek 169.1 artikuluan zerrendatutako edozein helbururi babes maila altuagoa bermatzeko neurri nazionalak mantendu edo onartu ditzakete, hots, kontsumitzaileen osasun, segurtasun, interes ekonomiko, informazio eskubide, hezkuntza eskubidea edo elkartzeko eskubideari babes maila altuagoa eskaintzen dioten neurri nazionalak.

²⁶⁹⁴ Babes-klausularen oinarrizko arauketari buruz, ikus EBFTren 114. artikulua 5-10 atalak.

²⁶⁹⁵ Kontsultatu tesiko 7. Kapituluaren VI.8.A. atala (produktu kimikoen marko komunitarioan) eta 9. kapituluaren IV.1.B. atala (produktu kosmetikoen marko komunitarioan).

daitezke Estatu-kide batetik bestera. Testuinguru normatibo horrek kontsumitzaileei eta barne merkatuari eragin diezazkiekeen ondorio negatiboak eragozteko helburuz EBk 2001/95 Zuzentaraua²⁶⁹⁶ onartu zuen, produktuen segurtasunari buruzko baldintza orokorrak ezartzen dituen.

Orain arte azaldutakoa kontuan izanik, datozen ataletan egiten den analisisia hiru ataletan banatzen da. Lehenik eta behin, produktuen segurtasunari buruzko baldintza normatibo orokorrak egituratzen dituen 2001/95 Zuzentarauaren eduki nagusiak laburki aztertzen dira. Ondoren, nanomaterialak erabiltzen dituzten produktuen kasuan aplikatzen zaien marko normatibo desberdinek kontsumitzaileen osasunari babes maila altua bermatzeko eta beren informazio eskubidea eraginkortasunez egikaritzeko gaitasunik ez dutenez, gabezia normatibo horiek gainditzeko ardatz bezala ulertzen diren mekanismo administratibo batzuk proposatzen dira: produktu komertzialetan erabilitako nanomaterialen erregistroa eta horien etiketapena. Analisi honekin amaitzeko, nanoproduktu akastunek sortutako kalteen kasuan kontsumitzaileek erantzukizun zibila eskatzeko bete behar diren baldintza normatiboak aztertzen dira, 85/374 Zuzentarauaren arabekoak.

III.3. Produktuen segurtasunari buruzko arauketa komunitario orokorra: 2001/95 Zuzentaraua

Merkatu komunitarioan komertzializatzen diren produktuei buruzko marko juridikoa oso zabala eta anitza dela esan daiteke. Produktu kategoria batzuen erabilera eta komertzializaziorako baldintza normatiboak maila komunitarioan arauturik badaude ere, produktu komertzial batzuk Estatu-kideek emandako barne arauen bidez erregulatzen dira. Produktu komertzial horien kasuan Estatu-kideen arauketa heterogeneotasunak kontsumitzaileen osasunari, informazio eskubideei eta orokorrean merkatu batasunari negatiboki eragin diezaiokenez, desberdintasun normatibo nazional horien aurrean EBren 2001/95 Zuzentarauak produktuen segurtasunari buruzko baldintza normatibo orokorren harmonizazioa du helburu.

Zuzentzari horrek merkatu komunitarioan komertzializatzen diren produktu oren segurtasuna bermatzeko arauketa horizontala aurreikusten du. Produktu ekoizleen, hornitzaileen eta Estatu-kideen betebeharrak orokor eta espezifikoak, aktore desberdinen arteko informazio elkartruckerako mekanismoak, merkatuaren zaintzarako mekanismoak eta larrialdi egoeretan produktuen komertzializazioaren gaineko esku-hartze azkarreko RAPEX sistema²⁶⁹⁷ aurreikusten ditu. Neurri normatibo horien aplikazio eremuan arau

²⁶⁹⁶ Directive 2001/95/EC of The European Parliament and of The Council of 3 December 2001 on general product safety. (OJEU: 15/1/2002).

²⁶⁹⁷ RAPEX sistema 2001/95/CE Zuzentarauaren II. Eranskinean arautzen da. Europar Batasunean kontsumitzaileentzat arriskutsuak izan daitezkeen produktuei buruzko alerta sistema bateratua da RAPEX. Sistema horren oinarri normatiboak elikagaiak ez diren produktu komertzial guztiei zaizkie aplikagarri,

orokor bezala arauketa komunitario espezifikorik ez duten produktuen kategoriak barneratzen dira. Aitzitik, neurri horiek arauketa komunitario sektorialak dituzten produktu kategoriei aplikagarri izan dakizkie, arauketa sektorial horiek produktuen segurtasuna bermatzeko eginkizunean izan ditzaketen hutsune juridikoak saihesteko. Zehazki, zuzentarau horretako xedapenak arauketa komunitario espezifikoek aurreikusi ez dituzten aspektu, arrisku eta arrisku-kategoriei zaizkie aplikagarri²⁶⁹⁸.

Produktuen ekoizleek²⁶⁹⁹ merkaturatzen dituzten produktuak seguruak direla bermatzeko betebeharra dute. Produktu bat segurua dela kontsideratzen da produktuaren erabilera baldintza normaletan edota arrazoiz aurreikusi daitezkeenetan gizakion osasun eta segurtasunari arriskurik eragiten ez dietenean edota arriskurik eraginez gero, arriskuak minimoak eta produktuaren erabilerarekin bateragarriak izateaz gain, gizakion osasun eta segurtasunaren babes maila altuaren baitan arrisku hauek onargarriak izatea²⁷⁰⁰. Produktuak baldintza horiek betetzen dituen edo ez zehazteko hainbat elementu aztertu behar dira, besteak beste, produktuaren ezaugarriak, ontzirapena, garraioa, etiketapena eta beste produktuekin erabiltzean izan ditzakeen efektuak. Behin merkaturatzen daudenean, ekoizleek beren produktuek sorrarazi ditzakeen arriskuez informatuta mantentzeko betebeharra dute²⁷⁰¹. Produktuak kontsumitzaileen osasun edo segurtasunerako arriskutsuak izan daitezkeenean, beren ekoizleek produktua merkatutik atera, kontsumitzaileak arrisku horiez modu egoki eta eraginkorrean ohartarazi edo produktu arriskutsua kontsumitzailearengandik berreskuratu behar dute.

Merkaturatzen diren produktuak seguruak diren zehazte aldera, beren segurtasun baldintzen inguruan kasuan kasu aplikagarri zaien arauketa bete behar dute. Arau orokor bezala produktu kategoria bakoitzak bere segurtasun baldintzak arautzen dituen kasuan kasuko marko komunitario sektorialari egin behar dio kasu. Arauketa komunitario espezifikorik aurreikusten ez zaien produktu kategorien kasuan Estatu-kideen barne zuzenbidean izaera horretako araurik dagoen aztertu behar da. Erantzuna ezezkoa den produktu kategorien kasuan beren segurtasuna aztergai dugun 2001/95 Zuzentarauak aurreikusitako honako oinarritzko irizpideen arabera ebaluatu behar da²⁷⁰²: produktua ekoitzi edo komertzializatzen den Estatu-kideak transposatutako borondatezko arau nazionalak, Estatu-kideen bestelako arauketa, EBko Komisioaren gomendioak, osasun eta segurtasun alorrean onartutako borondatezko kodeak, momentu horretako teknikaren edo ezagutzaren jakintza maila eta kontsumitzaileak arrazoiz espero dezaketen segurtasun maila.

produktu farmazeutikoei ezik. Sistema horren helburua Estatu-kideen eta agintari komunitarioen artean arriskutsuzat jo den produktu bati buruzko informazio elkartruke azkarra ahalbidetzea da.

²⁶⁹⁸ 1.2. art.

²⁶⁹⁹ Zuzentarauak produktu ekoizleen kontzeptu juridikoa zentzu zabalean interpretatzen du. Zuzentarauaren 2.e) artikularen arabera ekoizleak kontsideratzen dira produktuen fabrikatzaileak, horien ordezkariak eta produktuaren komertzializazioan parte hartzen duten profesionalak (azken horien kasuan, aurrera eramaten dituzten jardueretan produktuaren segurtasun ezaugarriak eragiteko gaitasuna dutenean).

²⁷⁰⁰ 2.b) art.

²⁷⁰¹ 5.1 .art.

²⁷⁰² 3.3. art.

Lehenago aipatu den bezala, 2001/95 Zuzentarauan aurreikusitako mekanismoak arauketa komunitario espezifikorik ez duten produktuen kategoriez gain, arauketa komunitario espezifikoa duten produktu kategoriei ere aplikagarri izan dakieke arauketa horiek aurreikusten ez dituzten aspektu, arrisku eta arrisku-kategorien kasuan. Gaur egun arte, produktuen marko juridiko zabalaren baitan nanomaterialen egokitzapen juridikoa partziala izateaz gainera (kosmetiko, biozida eta elikagai produktu batzuen baldintza normatibo espezifikoak besterik ez dira onartu), produktuetan erabiltzen diren nanomaterialen segurtasuna espezifikoki kontrolatzea helburu izan beharko luketen mekanismo administratibo batzuk ez

Barne merkatu komunitarioan komertzializatzen diren nanoproduktuen segurtasuna bermatzea helburu duen marko komunitarioa nanomaterialen berezitasunetara partzialki egokitu dela kontuan hartuta, 2001/95 Zuzentaruak merkatu komunitarioan komertzializatzen diren nanomaterialdun produktu ororen gutxieneko segurtasun estandar batzuk ezartzeko instrumentu juridiko aproposa izan daiteke. EBko Komisioak 2001/95 Zuzentaruak aplikatzeko beharrezkoak diren neurriak onartzeko eskumena duen aldetik²⁷⁰³, exekuzio erregelamendu bidez edozein produktu kategoriatan erabilitako nanomaterialen segurtasuna bermatzeko oinarritzko baldintza normatibo espezifikoak (nanomaterialen ezaugarrien berezitasunetara egokituak) 2001/95 Zuzentarauan txertatu daitezke. Modu horretan produktuetan erabiltzen diren nanomaterialen segurtasuna bermatu behar duen corpus normatiboa gutxieneko berme batzuek hornituko litzateke, merkatu komunitarioan komertzializatu aurretik nanomaterialdun produktu guztiek bete beharreko segurtasun neurri edo estandar minimoez alegia.

III.4. Kontsumitzaileen babesari begira nanomaterialdun produktuen kontrolerako proposatutako kontrol neurri batzuk

Gaur egun produktu kategoriatan batzuen pieza normatibo batzuetan nanomaterialen manufakturatuen esanbidezko mekanismo espezifikoak aurreikusi badira ere (kosmetiko, biozida, elikagai produktu batzuetan eta aparatu elektriko eta elektronikoen aspektu konkretu batzuetan), beste kasu askotan ez da horrelako izaerarik duen neurri normatiborik onartu. Funtsean, produktuen komertzialen marko normatibo desberdinen egokitzapen prozesu hori geldoa eta partziala izaten ari da eta egun nanomaterial manufakturatuei aplikatzen zaien kontrol sistema bere osotasunean hartuz gero, agintari eskudunei ez die merkaturatzen diren nanomaterialdun produktuei buruzko informazio datu nahikorik biltzeko mekanismo nahikorik eskaintzen. Inguruabar hori merkatuan dauden nanoproduktuen trazabilitatean eta larrialdi kasuetan produktu horien esku-hartze gaitasunean negatiboki eragiten duen faktorea da, kontsumitzaileen informazio eskubidearen egikaritza eraginkorra oztopatzearekin batera.

²⁷⁰³ 33. kontsiderazioa.

Nanomaterialen kontrolerako neurri normatibo espezifikoak aurreikusi dituzten produktu kategorien analisia tesi honen beste kapitulu batzuetan egiten denez, atal honen helburua beste bat da: EBFTk eskatzen duen bezala, nanoproduktuen kasuan kontsumitzaileen osasunaren babes maila altua bermatzeko eta informaziorako duten eskubidearen egikaritza eraginkorrerako oinarritzko mekanismo administratibo batzuk proposatzea, instantzia publiko eta pribatuetakako erakunde desberdinek eta doktrinaren zati batek egindako ekarpenetan oinarrituta.

III.4.A. Produktu komertzialetan erabilitako nanomaterialen erregistroa

Komertzializatzen diren produktuek nanomaterialez osatuta dauden neurrian, agintari eskudunek eta kontsumitzaileek material horien inguruko oinarritzko informazioa eskuragarri izatea garrantzitsua da. Produktu kimikoen arauketa komunitarioan substantzia kimikoen erregistroaren kasuan aplikatzen den “daturik gabe, merkaturik ez” printzipioa produktuetan erabiltzen diren substantzia guztiei aplikatu beharreko printzipioa izan beharko balitzateke ere²⁷⁰⁴, nanomaterialei aplikagarri zaizkien mekanismo komunitarioek ez dute hori posible egiten. Tesi honetan produktu kimikoei buruzko kapituluaren VI.8.B. atalean dagoeneko azaldu den bezala, produktu komertzialetan erabiltzen diren nanomaterialak identifikatzeko mekanismo komunitarioen faltaren aurrean Frantziak, Norvegiak, Danimarkak eta Belgikak nanomaterialen derrigorrezko erregistro nazionalak martxan jarri dituzte. EBko Komisioak gai horretan azaldu duen pasibotasunaren aurrean, hurrengo lerroetan zehar maila komunitarioan funtzionatu beharko lukeen nanomaterialdun produktuen erregistro zentralizatu baten aldeko planteamendua egiten da, besteak beste, Alemaniako Ingurumen Agentzia Federalak²⁷⁰⁵ (*Umweltbundesamt* — *UBA*) eta GKE desberdinek²⁷⁰⁶ babestu duten aukera normatiboa.

III.4.A.a. Nanomaterialen “substance based notification” eta products based notification erregistroen azalpena

Agintari eskudunek erregistro administratiboetan eskatutako datuen izaerari erreparatuz gero, substantzien informazio edo produktuaren informazioaren jakinarazpenean arreta jartzen duten erregistroak bereizi daitezke, hurrenez hurren, *substance based notification* edo *product based notification* bezala definitzen direnak. Lehenengo erregistro motak substantziaren ezaugarri eta propietateei buruzko informazioaren jakinarazpenean jartzen du bereziki arreta, ez hainbeste substantzia hori erabiltzeko asmoa dagoen produktuen ezaugarrietan. Bigarren erregistro motak ordea

²⁷⁰⁴ ANEC-BEUC, 2009: 6.

²⁷⁰⁵ UBA, 2012.

²⁷⁰⁶ EEB, CIEL, FOE and BUND (2015).

komertzializatu nahi den produktuaren ezaugarrietan jartzen du arreta, produktu horretan erabilitako substantzien propietate eta ezaugarriak barne.

Zerrendatu berri diren nanomaterialen erregistro nazionalek eta maila komunitarioan funtzionatzen duen REACH Erregelamenduaren erregistroak *substance based notification* izaera dute²⁷⁰⁷. REACHen erregistroaren kasuan mekanismo horren aplikazio eremupean²⁷⁰⁸ barneratzen diren substantzia kimikoen (substantzia soil gisa, nahasketa forman edo artikuluetan erabiltzen direnean) propietate fisiko-kimikoak, erabilera posibleak, erabilpen segururako jarraibideak, beren sailkapena (CLP Erregelamenduaren irizpideei jarraiki) eta beste datu batzuk eskaini behar dira²⁷⁰⁹, ez ordea substantzia kimiko horiek txertatzen diren produktu komertzialari buruzko datuak. Produktu kimikoen kapituluan aztertu dena gogora ekarriz, erregistro horren baldintza normatiboak ez dira nanomaterialen berezitasunetara egokitu eta ondorioz substantzia kimikoak erregistratzen dituzten ekoizle eta inportatzaileek arau orokor bezala ez diote ECHAri nanomaterialdun forman erabili nahi dituzten substantziei buruzko informazio daturik transmititzen. Kontsekuenteki ECHA Agentziaren datu basean 2011ko ekainerarte 18 substantzia besterik ez ziren erregistratu nanomaterialdun forman²⁷¹⁰. EBko GKE garrantzitsuek 2015an ateratako informe baten arabera kopurua are txikiagoa da: ECHAren erregistroan 2014rarte nanomaterial forman erregistratuta soilik 9 substantzia kimiko zeudela salatu zuten²⁷¹¹.

Product based notification izaera duten erregistroei dagokionez, esparru komunitarioan gaur egun kosmetikoen komertzializazioari buruzko 1223/2009 Erregelamendua da produktu kategoria horretan erabilitako nanomaterial manufakturatuei buruz agintari eskudunei jakinarazteko betebeharra esanbidez aurreikusten duen arau bakarra, merkaturatu baino 6 hilabete lehenago Komisioari zenbait datu jakinaraztea exijituz. Produktu kosmetikoen erregelamenduan aurreikusitako jakinarazpen sistema espezifiko horren bidez lortutako informazio datuetan oinarrituz. Komisioak 2014ko urtarrilaren 11a baino lehen merkaturatzen diren kosmetikoetan erabilitako nanomaterialen katalogoa egiteko ardura zuen, nahiz eta momentu arte²⁷¹² ez den oraindik katalogo hori argitaratu. Katalogo horretan nanomaterial manufakturuak (1223/2009 Erregelamenduan nanomaterialei egiten zaien definizioaren aplikazio eremuan barneratzen direnak) zein produktu kosmetiko kategoriatan erabiltzen diren eta beren erabileraren arazoizko esposizio baldintzak adierazi behar dira.

²⁷⁰⁷ Ikus UBA, op. cit, 7. orr.

²⁷⁰⁸ Medikamendu, biozida eta elikagaietan erabiltzen diren substantzia kimikoen arauaketa sektorial propioa dutenez ez zaie REACH Erregelamenduko erregistroa aplikagarri (REACH, 15. art.). Horiez gain, REACHen arrazoi desberdinak direla medio beste substantzia kimiko batzuk ere erregistroa egiteki salbuetsita geratzen dira.

²⁷⁰⁹ REACH 10.a) art.

²⁷¹⁰ ECHA, 2012: 16.

²⁷¹¹ EEB, CIEL, FOE and BUND, 2015: 4.

²⁷¹² 2015-09-10.

III.4.A.b. Produktuetan erabilitako nanomaterialen erregistro komunitariorako proposamena

Agintari eskudunek merkatu komunitarioan komertzializatzen diren nanomaterialdun produktuen identitatea, propietate eta ezaugarriak ezagutu eta horien trazabilitatea behar bezala egin ahal izateko, produktu horiei merkaturatu aurretik erregistro komunitario bat aplikatu beharko litzaieke, zentralizatu, publikoa eta *product based notification* izaera duena. Nanoproduktuen erregistro komunitario horrekin batera, nanomaterialdun substantzia kimikoei aplikagarri zaien REACH Erregelamenduaren erregistroa (*substance based notification* izaera duena) ere nanomaterialen berezitasunetara egokitu beharko litzateke.

Kokapen normatiboari dagokionez, nanoproduktuen erregistro hori egituratzeko pieza normatiborik aiposena 2001/95 Zuzentaraua izan daiteke, hain zuzen ere produktuen segurtasunari buruzko baldintza normatibo orokorrak aurreikusten dituen arauketa²⁷¹³. Nanoproduktuen erregistro komunitario zentralizatu horren eta nanomaterialen baldintza normatibo espezifikoak aurreikusten dituzten produktu kategorien arauketen artean jakinarazpen bikoizketak gertatu ez daitezten (esate baterako, produktu kosmetikoen 1223/2009 Erregelamenduko nanomaterialdun produktuen jakinarazpen sistemarekin), nanoproduktuen erregistro komunitarioak izaera osagarria izan behar du: nanomaterialei buruzko informazioa jakinarazteko betebeharrak normatiborik aurreikusita ez duten produktu kategoriei izan behar zaie aplikagarri²⁷¹⁴.

Nanomaterialen berezitasunetara egokitutako REACHen erregistroari eta nanoproduktuen erregistro komunitario zentralizatuari esker agintari eskudunek lortuko luketen informazio datuek onura anitz izango lituzke. Alde batetik, agintari eskudunek merkatu komunitarioan komertzializatzen diren nanoproduktu guztien ikuspegi orokor bat izatea posible egiten du, larrialdi kasuetan (produktu batek kontsumitzaileen osasunean edo segurtasunean kalterik eraginez gero) aktibatzen diren esku-hartze sistemen eraginkortasuna nabarmen areagotzen duen inguruabarra. Nanomaterialdun produktuen informazio datuen hazkuntzak nanomaterialen arrisku ebaluaketari buruzko informazio gehiago eskuragarri egotea ere badakar.

Bestetik, kontsumitzaileen osasun babes maila altua bermatzeko mekanismo positiboa izatearekin batera, nanoproduktuen erregistroak kontsumitzaileen beren informazio eskubidea egikaritzeko mekanismoa ere izan daiteke. Ekoizleek beren produktuekiko dituzten jabetza industrialeko eskubideen ondorioz produktuetan erabilitako nanomaterialei buruzko datu batzuen konfidentzialtasuna errespetatu behar bada ere, konfidentzialtasun baldintza hori kontsumitzaileek duten informaziorako eskubidearekin uztartu behar da. Ondorioz erregistro horrek biltzen dituen informazio datuen artean nanomaterialdun produktuen ekoizle edo hornitzaileen interes komertzialak babesteko hertsiki beharrezkoa den informazioa bakarrik izango da komertziala. Beste datu guztiak

²⁷¹³ Alemaniako Ingurumen Agentzia Federala horren alde azaldu da (UBA, op. cit, 10-11.orr).

²⁷¹⁴ Ibid.

publikoak izan behar dira eta kontsumitzaileei horiek kontsultatzea posible zaien formatuan egon beha dira (formatu elektronikoan esate baterako). Erregistro horretan produktuen ekoizleei honako informazio datuak eskatzea proposatu da²⁷¹⁵:

- a) Erregistroa egiten duen pertsonaren izena eta helbidea.
- b) Produktuaren izen komertziala
- c) Produktuan erabilitako nanomaterialen identifikazioa.
- d) Nanomaterial bakoitzak produktuan duen kontzentrazio maila.
- e) Nanomaterialak produktuan duen funtzionaltasunaren azalpena.
- f) Nanomaterialari aurreikusi dakizkiokeen esposizio baldintzak.
- g) Nanomaterialaren karakterizazioari buruzko informazioa.

III.4.B. Nanomaterialdun produktuen derrigorrezko etiketapen unibertuala

Kontsumitzaileek norbere osasunaren babeserako eta segurtasunerako daukaten oinarrizko eskubidea bermatzeko helburuz, kontsumitzen dituzten produktuekiko informazio eskubidea eraginkortasunez egikaritzeko aukera izan behar dute. Eskubide horren egikaritzarako nanoproduktuen erregistro komunitarioa mekanismo lagungarria izan badaiteke ere, kontsumitzaileari produktuei buruzko informazioa transmititu eta haren inguruan erabaki arrazoitu eta kontziente bat hartzeko mekanismorik gertukoena produktuen etiketapenarena da.

Esparru komunitarioan, produktu kategoriatan batzuen arauketetan nanomaterialen esanbidezko etiketapen baldintza batzuk arautu dira, zehazki, produktu kosmetiko, biozida eta elikagai produktuen kasuan. Etiketapen betebeharrak hori ordea merkatu komunitarioan komertzializatzen diren produktu kategoriatan guztientzat derrigorrezko baldintza normatibo gisa egituratu beharko litzateke (borondatezko etiketapen sistemen eraginkortasun eza dela medio²⁷¹⁶). Produktu kimikoen etiketapenaren kasuan CLP Erregelamenduaren etiketapen baldintza normatiboak nanomaterialen berezitasunetara egokitu beharko lirateke. Bestelako produktu kategorien kasuan nanomaterialen derrigorrezko etiketapen hori beren arauketa komunitario sektorialetan aurreikusi beharko litzateke. Azkenik, kontrol neurri hori produktuen segurtasunari buruzko oinarrizko baldintza normatiboak egituratzen dituen 2001/95 Zuzentarauan ere aurreikusi beharko litzateke, arauketa komunitarioak ez duten produktu kategorien kasuan ere nanomaterialen etiketapen baldintza derrigorrezkoa izan dadin.

²⁷¹⁵ ANEC-BEUC, 2009: 13; UBA, op. cit, 9. orr.

²⁷¹⁶ Nanomaterialdun produktuen borondatezko erregistroei buruz, tesiko 4. kapituluaren V.2.A.a atala kontsultatu.

Produktuetan erabilitako nanomaterialen etiketapen unibertsal eta derrigorrezkoaren aldeko ahotsen oihartzuna handia bada ere (besteak beste, nazioarteko, Europar Batasuneko, AEBko eta Australiako hainbat erakundek babestua²⁷¹⁷), industriak eta agintari eskudun batzuek neurri horren kontrako jarrera adierazi dute. AEBko eta EBko industria ordezkari batzuen ustez etiketapen horrek kontsumitzailea informatu beharrean nahasmena besterik ez lieke eragingo²⁷¹⁸. Supermerkatuetako ordezkariak hala ere etiketapen baldintza horren aldeko jarrera azaldu dute orokorrean, kontsumitzaileei (beraien zuzeneko bezeroei) saltzen dizkieten produktuen arrisku erreal edo potentzialik ez ezkutatzeko²⁷¹⁹ mekanismo bezala ulertzen baitute.

Merkatu komunitarioan komertzializatzen diren produktu kategorია guztietan nanomaterialen esanbidezko etiketapen unibertsala eta nahitaezkoa egituratzerako orduan kontsumitzaileei eskaini beharreko informazioa ulertteraza eta zuzena izan behar da, kontsumitzaileak etiketa begiratze hutsarekin nanomaterialak dituela ohartarazteko modukoa. Zeregin horretarako aitzitik produktu kosmetiko, biozida eta elikagai produktuen kasuan beren arauketa komunitarioek aurreikusten duten etiketapen baldintza bakarra (nanomaterialdun osagaiaren ondoan “nano” atzizkia eranstea) ez da nahikoa, kontsumitzaileei informazio datu gehiago transmititu behar zaizkio²⁷²⁰.

Erresuma Batuko Elikagaien Segurtasunerako Agentziak (FSA) 2011. urtean herrialde honetako hiritar desberdinek parte hartu zuten tailer batzuk antolatu zituen nano-elikagaien etiketapenaren inguruan. Atal honetan proposatzen den nanomaterialen etiketapen unibertsal eta derrigorrezko horretan agertu beharko lirakekeen informazio datuei begira, FSAk antolatutako tailer horietan egin ziren ekarpenak interesgarriak izan daitezke²⁷²¹:

- a) Produktuen osagaien zerrendan, nanomaterialdun osagai bakoitzaren ondoan *nano* atzizkia ezartzea.
- b) Produktu kategoría guztietan erabili beharreko nanomaterialen ikur unibertsala²⁷²².
- c) Nanomaterialen arrisku edota ezjakintasunen maila adierazten duen kolore bidezko kodifikazioa.
- d) Produktuan erabilitako nanomaterialen arrisku edota ezjakintasunen azalpena.
- e) Produktuaren erabilera segururako gomendioak.

²⁷¹⁷ Besteak beste, honako dokumentuetan adierazia: EBeko kontsumitzaileen erakunde nagusiak (ANEC-BEUC, 2009: 14); Nanokommission elkarguneko partaide batzuk (Working Group 3 of the NanoKommission, 2010: 61-63); Australiako sindikatuen ACTU erakundea (ACTU, 2009) edota langileen EU-OSHA erakundea (EU-OSHA, 2012: 36-37).

²⁷¹⁸ PENDERGRASS et al, 2010: 2

²⁷¹⁹ Ibid.

²⁷²⁰ STOKES, 2011: 191.

²⁷²¹ TNS BMRB, 2011: 29.

²⁷²² Erresuma Batuko elikagaien segurtasunerako FSA agentziak eginiko kontsultan elikagaietan erabilitako nanomaterialen ikurraren proposamena egin zen. Ikurra tesiko 10. kapituluaren irudikatzen da, IV.5.B.e. azpiatalean.

- f) Nanomaterialek produktuan duten funtzionaltasunaren azalpena.
- g) Kontsumitzaileek nanomaterial horien informazio gehiago nahi izatekotan, informazio hori lortu daitekeen helbide edo web orrialdea.

Nanomaterialen esanbidezko etiketapen baldintza horiez gain, nanomaterialdun produktuek EBen egituratutako etiketa ekologikoaren sistemara atxikitzeko irizpideak betetzen dituzten edo ez aztertu behar da, 66/2010 Erregelamenduan²⁷²³ arautzen dena. Etiketa ekologikoaren bitartez ingurugiroari, osasunari, klimari eta baliabide naturalei sortutako eragin negatiboen murrizpen helburuak sustatu nahi dira. Ondorioz, helburu horiek betetzen dituzten produktuek etiketapen ekologikoaren eskaera egin dezakete. Eskaera aurkeztu duten produktuek eko-etiketapena lortzeko zenbait irizpide bete behar dituzte (oinarri zientifiko eguneratuen arabera), produktu kategoria bakoitzari aurreikusten zaizkionak²⁷²⁴.

Produktuek aipatutako irizpideak betetzen dituzten aztertzeko, eskaera aztertu behar duten agintari eskudunek produktuaren bizitza ziklo osoa hartu behar dute kontuan. Alde batetik, 66/2010 Erregelamendua CLP erregelamenduaren arabera arriskutsu bezala sailkatzen diren substantziarik edo REACHen arabera komertzializatzeko baimena behar duten substantziarik (erregelamendu horren XIV. Eranskinean zerrendatutakoak) erabiltzen duten produktuei etiketa mota hori lortzeko debekua ezartzen die²⁷²⁵. Bestetik etiketapen ekologikoa lortzeko irizpideen artean, 66/2010 Erregelamendua produktuetan zenbait substantzia erabiltzea debekatu edo beren kontzentrazio maila murriztea eskatzen du. Nanomaterialen manufakturatuen esposizioak ingurumenean izan ditzakeen efektuen arriskugarritasunari buruzko jakintza mailak oso urria izaten jarraitzen duen momentu honetan, 66/2010 Erregelamendua etiketapen ekologikoaren sistemarekiko aldarrikatzen duen arreta printzipioan oinarrituz²⁷²⁶, nanomaterialdun produktuei eko-etiketapen sistemara egokitzeko mugapen neurriak aurreikusi beharko litzaiekeela defendatu daiteke²⁷²⁷.

III.5. Produktu akastunen ondorioz kontsumitzaileei sorrarazitako kalteen erantzukizun zibila arautzen duen 85/374 Zuzentaraua

Merkatu komunitarioan komertzializatzen diren produktu akastunen inguruko erantzukizuna zehazteko, 85/374 Zuzentarauak²⁷²⁸ ezarritako arauketari erreparatu behar

²⁷²³ EBeko Legebiltzarraren eta Kontseiluaren (CE) 66/2010 Erregelamendua, *relativo a la etiqueta ecológica de la UE*, (DOUE: 2010-01-30), 2009-11-25.

²⁷²⁴ Produktu kategoria bakoitzari aurreikusitako irizpideak 66/2010 Erregelamenduaren exekuzio arauen bidez egituratzen dira, Komisioaren erabakien bidez.

²⁷²⁵ Ibid, 6.6.art.

²⁷²⁶ 66/2010 Erregelamendua, 3. kontsiderazioa.

²⁷²⁷ GANZLEBEN et al, 2011: 191-192 (MILIEU eta AMEC).

²⁷²⁸ Council Directive 85/374/EEC of 25 July 1985 on the approximation of the laws, regulations and administrative provisions of the Member States concerning liability for defective products (OJ L: 07/08/1985).

zaio. EBk eta Estatu-kideek kontsumitzaileen babesean dituzten eskumen legal partekatuen logikari jarraiki, zuzentarau honek arautzen dituen aspektu normatibo batzuen kasuan Estatu-kideei baldintza normatibo propioak onartzeko ahalmena aintzatesten die. Kontsekuenteki datozen lerroetan aztertzen diren baldintza normatibo batzuek Estatu-kide batetik bestera tratamendu juridiko desberdina jasotzen dute.

Nanomaterial manufakturuak erabiltzen dituzten produktuen kasuan material horien, propietate, portaera eta efektu kaltegarrien inguruko ziurgabetasun zientifikoak kalte posible horien erantzukizun zibila lortzea zaildu egin dezake²⁷²⁹. Zentzu horretan, nanoproduktuen kalte posible horien kasuan 85/374 Zuzentaruako xedapenak nola interpretatzen den giltzarria izan daiteke. Izan ere, xedapen normatibo horietako batzuen egitatezko supostuek interpretazio juridikorako tarte handia uzten dute eta 85/374 Zuzentaruak Estatu-kideei konfigurazio normatiborako ahalmena aurreikusten dieten xedapen normatiboen kasuan, Estatu-kide batetik bestera heterogeneotasun normatiboa da nagusi. Hurrengo azpi-ataletan beraz, zuzentarau horren eduki normatibo garrantzitsuenak nanoproduktuen testuinguru normatibo konkretuari arreta berezia ipiniz aztertzen dira.

III.5.A. 85/374 Zuzentaruaren eduki nagusien analisia

85/374 Zuzentaruak produktu akastunek pertsoneri beren osasun edo ondasunetan eragindako kalteen ondorioz produktu horien ekoizleek duten erantzukizun zibil objektiboa arautzen du, (kasu konkretu batzuetan erantzukizun hori salbuetsita geratu daiteke²⁷³⁰). Zuzentarau horren aplikazio eremu objektiboan industrialaki ekoiztutako ondasun higikorak barneratzen dira eta beraz inolako tratamendurik jaso ez duten nekazaritza eta ehiza produktuak aplikazio eremu horretatik kanpo daude²⁷³¹.

Zuzentarau horren arabera, produktuaren erantzulea haren ekoizlea da, hots, produktu amaitua, produktuaren lehengaiak edo tarteko elementuak ekoizten dituen edo produktuan bere izena jartzen duen pertsona²⁷³². Ekoizleen erantzukizunaz gain produktuen inportatzaileak ere ekoizleak kontsideratzen dira zuzentarau honen efektuetarako, inportazio horren helburua produktu horien salmenta, alokairua, errentamendu finantzarioa edo bere jarduera komertzialarekin zerikusia duen bestelako distribuzio jarduera bat burutzea denean²⁷³³. Produktuaren ekoizlea edo inportatzailea identifikatzea ezinezkoa den kasuetan zuzentarau honen efektuetarako produktu horren hornitzaileak ere ekoizleak kontsideratzen dira, hornitzaileak kaltetua izan den kontsumitzaileari produktuaren ekoizle edo inportatzailearen identitatea ezagutarazten dion kasuetan izan ezik²⁷³⁴.

²⁷²⁹ CASSOTTA, 2012: 8.

²⁷³⁰ Zehazki, zuzentaruaren 7. artikuluan zerrendatzen diren kausetako bat ematen denean.

²⁷³¹ 2. art.

²⁷³² 3.1.art.

²⁷³³ 3.2. art.

²⁷³⁴ 3.3. art.

Kontsumitzaileak produktuaren ekoizleari erantzukizunik eskatu ahal izateko lehenengo premisa produktua “akastuna” izatea da, hots, pertsona batek produktu horrekiko legitimoki duen eskubidea ez bermatzea²⁷³⁵. Segurtasun legitimorako eskubide hori betetzen den eta beraz produktu akastun baten aurrean gauden edo ez erabakitzeo produktuaren inguruabar guztiak hartu behar dira kontuan, eta bereziki honakoak: produktuaren aurkezpena (besteak beste, etiketapena, ontzirapena edo ohartarazpenak), modu arrazoituan aurreikusi daitekeen produktuaren erabilera eta komertzializatzen hasi zen momentua.

Inguruabar horiek kontuan izanik, kaltetua izan den pertsona da produktuaren akatsa, akats horrek sorrarazi dion kaltea eta akatsaren eta kalteren arteko kausalitate harremana frogatzeko karga duena²⁷³⁶. Zuzentarauak frogapen jarduera hori nola egin behar den argitzen ez duenez, Estatu-kideek diskrezionaltasun maila handia²⁷³⁷ dute barne xedapen normatiboen bidez elementu horiek (frogapen estandarrak, exijitutako frogapen maila eta kaltea ebaluatzeko irizpideak²⁷³⁸) zehazteko. Kaltetuarentzat produktuaren segurtasunaren aldeko presuntzio normatibo hori apurtzea, hots, akatsa, kaltea eta bi elementuen arteko kausalitate harremana frogatzea kasu batzuetan oso garestia izan daiteke, frogaren karga horrek aditu desberdinen peritu lana kontratatu behar izatea eskatzen baitu. Alde horretatik Estatu-kide batzuek frogaren karga hori inbertitu eta produktuaren ekoizlearengan ezartzea proposatu dute²⁷³⁹.

Nanoproduktuen kasuan nanomaterialen propietate berezien ondorioz pertsona kaltetuak duen frogapen karga hori are konplikatuagoa bilakatu daiteke. Nanomaterialen arrisku potentzialei buruzko zantzu zientifikoak gero eta ugariagoak izanik ere, nanomaterialen arriskuen ebaluaketarako egun aplikatzen diren metodologia eta testapenak ez dira gai kalte posible horiek zientifikoki erabat frogatzeko. Beste modu batera esanda, nanomaterialen arrisku zantzuak egonik ere, horien kalteen errefusa ezinezko frogak zientifikoak falta dira oraindik. 85/374 Zuzentarauaren interpretazio zurrunik beraz nanomaterialdun produktuen eta sortutako kalteen arteko kausalitate harremana frogatzeko zailtasun nabarmenak eragin ditzake²⁷⁴⁰. Horrekin batera Estatu-kideek produktuaren akatsaren, sortutako kaltearen eta bi elementu horien arteko kausalitate harremanaren frogapen jarduera konfiguratzeko duten ahalmenaren ondorioz (frogapen estandarrak, exijitutako frogapen maila eta kaltea ebaluatzeko irizpideak) Estatu-kideen artean dagoen irizpide normatibo heterogeneotasuna faktore negatiboa²⁷⁴¹ izan daiteke nanoproduktuek sorrarazitako kalteen erantzukizuna argitzeko irizpide komunitario normatibo komunen erdiespenean.

²⁷³⁵ 6.1. art.

²⁷³⁶ 4. art.

²⁷³⁷ CASSOTTA, op. cit, 8. orr.; VAN CALSTER et al, 2011: 107.

²⁷³⁸ 85/374 Zuzentarauaren aplikazioari buruzko EBko Komisioaren COM (2011) 547 final informea ikusi, 7.orr.

²⁷³⁹ COM (2011) 547 final, 8. orr.

²⁷⁴⁰ WARE eta KELLY, 2009: 213-214.

²⁷⁴¹ CASSOTTA, op. cit, 8. orr.

Nanomaterialei buruzko ezagutza mailak osatugabea izaten jarraitzen duen momentu honetan beraz, arreta printzipioaren harira kaltetuari exijitu behar zaion frogapen mailaren gradua nanomaterialen ziurgabetasun testuinguru horretara egokitu behar da²⁷⁴². Alegia, nanoproduktu akastun baten eta ustez sortu duen kalteen arteko kausalitate harremanik dagoela zehazte aldera, komunitate zientifikoaren baitan nanomaterialen manufakturatutako horren arrisku potentzialen inguruko arrazoizko zantzuak existitzen badira, zantzu horiek nahikoak izan beharko lirateke kausalitate harreman hori ematen dela frogatzeko.

Aseguru konpainien ikuspegitik ere, nanoproduktuak bezalako produktu berritzaileen arriskuak aseguratzeak erronka garrantzitsuak planteatzen dizkie. Erronka horren zergatia nanoproduktu berriek epe luzera begira izan ditzaketen arriskuei buruz nagusi den ziurgabetasuna da. Testuinguru horretan, aseguru konpainia batzuek arrisku ziurgabe horiek esanbidez aseguratzen dituzte (batzuetan aseguru klausula espezifikoaren bidez), beste batzuek esanbidez beren aseguru kontratuen koberturatik kanpo uzten dituzte eta azkenik, beste aseguru kontratu batzuek ez dute esanbidez zehazten arrisku mota horiei kobertura ematen dioten hala ez²⁷⁴³. Bestalde, kobertura ematen dieten aseguru kontratuen kasuan arriskuen ziurgabetasun elementuak aseguruaren prezioak altuagoak izatea dakar²⁷⁴⁴.

III.5.B. 85/374 Zuzentarauan araututako erantzukizun zibil objektibotik salbuesteko "garapen klausula" eta nanoproduktuak

Produktua akastuna izanik ere, zuzentarauak ezarritako kasu konkretu batzuetan²⁷⁴⁵ bere ekoizlea produktuak sortutako kalteen erantzukizunetik salbuespen geratzen da. Nanoproduktuei dagokionez erantzukizun salbuespen klausula horien artean batek atentzio berezia pizten du, zehazki zuzentarauaren 7. artikularen (e) letran zerrendatzen denak. Salbuespen klausula horren arabera produktu akastunaren ekoizlea hark sortutako kalteen erantzukizunetik salbuespen geratuko da, produktua komertzializatzen hasi zen momentuan zegoen jakintza zientifiko eta teknikoaren ezagutza maila kontuan hartuta (ingelesezko *state of the art*) kaltea sortu duen akatsaz jabetzea ezinezkoa zenean.

Zuzenbide zibilaren esparru juridikoan ez-ezik, "garapenaren arriskuen" salbuespen klausula gisa izenpetzen den erantzukizun objektiboaren salbuespen hori beste eremu normatibo batzuetara hedatu den formula da. 2004/35 Zuzentarauan ingurumenean sorrarazitako kalteen erantzukizun objektibotik salbuesteko antzeko klausula egituratzen da, hurrengo kapituluan aztertzen dena. Bestalde, Espainiar Estatuan administrazioaren erantzukizun kasuetan 30/1992 Legearen 141.1 artikulari esker (4/1999 Legeak barneratutako aldaketa normatiboa) garapenaren arriskuen klausula hori aktibatzea posible da. Salbuespen klausula berri horrek administrazioak sortutako kalteen aurrean

²⁷⁴² WARE and KELLY, op. cit, 215.

²⁷⁴³ GERGELY and GARCÍA AGUADO, 2012: 20.

²⁷⁴⁴ Ibid.

²⁷⁴⁵ 85/374 Zuzentaraua, 7.art.

tradizionalki izan duen erantzukizun objektibo ia absolutuaren (erantzukizunetik salbuesteko zirrikitu bakarra ezinbesteko kausan edo ingelesez *case of force majeure* izenekoan zuen) nolabaiteko erlatibizatzea ekarri du²⁷⁴⁶.

Akastun nanoproduktuaren eta hark sortutako kaltearen arteko kausalitate harremana ezartzeko kaltetuak izan ditzakeen frogapen zailtasunekin batera, atal honetan aztertzen den “garapenaren arriskuen” salbuespen klausula honen ondorioz kalteak jasan dituen pertsona ahulezia posizio batetan aurkitzen da nanoproduktu akastunaren ekoizlearen aurrean. Hurrengo atalean beraz salbuespen klausula honen elementuak nola interpretatzen diren aztertzen da, jarraian nanoproduktuen kasu konkretuan planteatzen diren erronken analisisian klausula horrek nola funtzionatu lezakeen aztertu aurretik.

III.5.B.a. “Garapenaren arriskuen” salbuespen klausularen zergatia ulertzen

Garapenaren arriskuek sortutako kalteen erantzukizunetik aske geratzea posible egiten duen klausula horren izatezko kausa azken hamarkadetan hedatu den berrikuntza teknologikoaren eredia da. Lehiakortasun ekonomikoa itzela den mundu globalizatu honetan sektore produktiboek bere irabazi ekonomikoen hazkuntza produktu berritzaileetan bilatzen dute.

Produktu berritzaile horien ekoizpena posible egiten duen garapen teknologikoaren sofistikazioaren atzean, ordea, maiztasunez ezagutza zientifikoaren garapen ez orekatua gertatzen da: teknologia berri baten ustiapen tekniko berritzaileei buruzko ezagutza zientifikoa abiadura bizian haziz badoa ere, ustiapen tekniko berri horiek osasun edo ingurumenean sortu ditzaketen efektuei buruzko ezagutza zientifikoa eta efektu horiek ebaluatzeko metodologiak ez dira abiadura berberean hazten. Zentzu horretan abiadura bikoitzeko berrikuntza teknologiko batez hitz egin behar da. Berrikuntza zientifiko eta tekniko horren sofistikazio gero eta handiagoaren ondorioz gizakiak ordura arte irekitzeko gaitasunik izan ez duen ate ezezagun eta misteriotsuak zabaltzeko gaitasuna eskuratuz doa, nahiz eta ate horien atzean dauden arriskuak ezagutu, ebaluatu eta kontrolatzeko gaitasunik izan.

Testuinguru horretan beraz, aztergai dugun erantzukizun salbuespen klausula horrek eredu produktibo berritzaile eta sofistikatu honetan produktu berritzaileen arrisku ezezagunek sorrarazi ditzaketen kalte posibleen aurrean produktuaren ekoizlea erantzukizun posibleetatik salbuestea du helburu. Salbuespen klausula horren jatorria zehazki 80. hamarkadaren amaieran kokatzen da, ihesaren eta hepatitis “c” birusdun odol transfusioen inguruan. Momentu horretan komunitate zientifikoaren baitan birus horien existentziari buruzko lehenengo ezagutza zientifikoak lortu, nahiz eta birus horiek teknikoki detektatu eta kontrolatzeko tresnen garapenerako urte batzuk gehiago itxaron

²⁷⁴⁶ Administrazio erantzukizunaren baitan egituratutako “garapen arriskuen salbuespen klausula” horri buruzko analisi interesgarria: LÓPEZ MENUÑO, 1999.

behar izan zen. Odol transfusio horiek pazienteengan sorrarazitako kalteei buruz Estatu-kide desberdinetako auzitegiek emandako ebazpen judizial batzuetan²⁷⁴⁷ oinarri hartuta 85/374 Zuzentarauak maila komunitarioan aztergai dugun salbuespen klausula hori lehenbizikoz aurreikusi zuen.

III.5.B.b. “Produktua komertzializatzen hasi zen momentuan zegoen jakintza zientifiko eta teknikoaren ezagutza maila” egitatezko supostuaren interpretazioa

Dagoeneko aipatu den bezala, 85/374 Zuzentarauaren 7. artikulua (e) letraren arabera, akastun produktuaren ekoizleari hark sorrarazitako kalteen erantzukizun objektibotik salbuestea ahalbidetzen dion klausula aktibagarria izateko, “produktua komertzializatzen hasi zen momentuan” kaltea sortu duen arrisku horretaz jabetzeko “jakintza zientifiko eta teknikorik ez egotea” exijitzen du araudiak. Hurrengo lerrootan beraz egitatezko supostu hori osatzen duten bi elementuak nola interpretatzen diren aztertzen da, hurrengo hurrenkeran zehazki:

- a) “Zegoen jakintza zientifiko eta teknikoaren ezagutza maila” elementua.
- b) “Produktua komertzializatzen hasi zen momentua” elementua.

Egitatezko supostu horren lehenengo elementuak akastun produktuaren kaltea sortu duen arriskuari buruzko ezagutza zientifiko eta teknikoaren jakintza mailari egiten dio erreferentzia, hots, *state of the art* kontzeptuari. Arrisku horretaz jabetzea posible egingo lukeen jakintza zientifiko eta teknikoaren existentziari baino, elementu horrek momentu horretan komunitate zientifikoaren zirkuitu informatiboan “eskuragarri” zegoen informazio zientifiko eta teknikoari (bere osotasunean kontuan hartuta) erreferentzia egiten diola interpretatu behar da²⁷⁴⁸.

Izan ere, sekretu industrialaren eta jabetza intelektualeko eskubideen ondorioz arriskuari buruzko informazio zientifikoa eta teknikoa existituta ere, informazio horretara sarbide publikoa edukitzea posible ez izatea gertatu daiteke, produktu akastunaren ekoizleak arriskuaren informazioari buruzko existentziaz jakitea eragozten dion inguruabarra. Beraz produktuaren ekoizleak informazio horren existentziaz ezagutzeko aukera zuen edo ez hartu behar da kontuan, informazio horren sarbidea publikorik zegoen edo aitzitik, informazio hori pribatua eta sekretu industrial eta jabetza intelektualeko eskubideen ondorioz ezagutza publikoaren esferatik kanpo egotea.

Komunitate zientifikoaren baitan eskuragarri zegoen ezagutza zientifiko eta teknikoa bere osotasunean kontuan hartzen dela ulertu behar da. Produktuaren ekoizleak ez du soilik

²⁷⁴⁷ Ihesa eta hepatitis “c” odol transfusioek pazienteengan sorrarazitako kalteen inguruan Estatu-kide desberdinetako auzitegiek emandako ebazpen judizialei buruz, beste autore batzuen artean, ikus LÓPEZ MENUDO, op. cit, 80-81. orr.; WARE and KELLY, op. cit, 214. orr.

²⁷⁴⁸ LÓPEZ MENUDO, op. cit, 93. Orr. SALVADOR CODERCH et al, 2001: 9-10.

komunitate zientifikoaren baitan guztien adostasuna duten edo gehiengoak sostengatzen duen informazioa kontuan hartu behar. 2001/95 Zuzentarauaren arabera produktuen ekoizleek komertzializatzen dituzten produktuen segurtasuna bermatzeko duten oinarriko betebeharraren konplimenduak ekoizleari zaintza egoera batetan mantendu behar izatea dakarkio, alegia, bere produktuarekiko arrisku posibleen inguruan hipotesi guztiak kontuan hartzea (komunitate zientifikoaren baitan gutxiengoak ontzat hartzen duen informazio eta hipotesi zientifikoak ere) eta horien egiaztagarritasuna ebaluatzea (gutxieneko oinarri zientifikoak dituen ikerketa izan behar da)²⁷⁴⁹.

Egitatezko supostuaren bigarren elementuak produktuaren arriskuen eskuragarritasuna erabakitzeko unea “produktua komertzializatzen hasi zen momentuan” kokatzen du. Prezeptu hori ordea ezin da zertsu hertsian ulertu, maila komunitarioan produktuen segurtasunari buruzko oinarriko baldintza normatiboak aurreikusten dituen 2001/95 Zuzentarauak²⁷⁵⁰ eta Espainiako Kode Zibileko “kulpa edo arduragabekeriarengatiko” erantzukizun zibilari buruzko arauketak²⁷⁵¹ merkatuan zirkulazioan dagoen produktuaren ekoizleari harekiko zaintza betebeharr objektiboak²⁷⁵² eragiten baitizkiote.

Zentzu horretan beraz, ekoizleak produktua behin merkatuan zirkulazioan jarri ostean harekiko diligenzia ardurarik izateari uzten diola ezin da interpretatu. Ekoizleak produktuaren segurtasunarekiko duen zaintza-betebeharr hori oinarri hartuta, produktua behin komertzializatzen jarri ostean baina arriskuak kaltea sortu baino lehen arrisku horri buruzko informazio zientifiko eta tekniko eskuragarri bazegoen, ekoizleak informazio hori kontuan hartu eta kalte posible horien sorrera eragoztera bideratutako diligenzia akzioak aurrera eramateko obligazio legala du²⁷⁵³. Horrela egin ezean ekoizleak bere produktu akastunak sorrarazitako kalte horien aurrean “*culpa in vigilando*” edo “arduragabekeriaren” ondoriozko erantzukizun zibilari erantzun behar izatea gerta dakiok.

III.5.B.c. Estatu-kideek “garapenaren arriskuen” salbuespen klausulari emandako tratamendu juridikoaren heterogeneotasuna

Estatu-kideei 85/374 Zuzentaria beren barne ordenamendu juridikoetara transposatzean “garapeneko arriskuen” erantzukizun salbuespen klausula hori mantendu edo kentzeko, eta klausula hori mantenduz gero horren aplikazio eremuaren hedadura zehazteko ahalmen normatiboa dute. Ahalmen normatibo hori baliatuz, Finlandia eta Luxenburgok beren ordenamendu juridikoetan erantzukizun salbuespen klausula hori

²⁷⁴⁹ Ibid.

²⁷⁵⁰ Zuzentarauaren 5.1.a) artikulua, 3.1 artikuluekin harremanean.

²⁷⁵¹ KZ 1902 artikulua, 1905-1906 artikuluekin harremanean.

²⁷⁵² Kode Zibilaren eta 2001/95 Zuzentariaren arabera zaintza betebeharr objektibo horiek ekoizleari exijitzen dioten diligenzia mailari buruz, ikus CAVANILLAS MÚGICA, 2012: 444-446.

²⁷⁵³ SALVADOR CODERCH et al, op. cit, 13-14. orr.

aplikagarri ez izatea erabaki dute²⁷⁵⁴. Bestalde, klausula horren gainean Estatu-kideek duten moldagarritasunaren ondorioz Estatu-kideen artean interpretazio normatibo heterogeneotasuna da nagusi²⁷⁵⁵. Espainiar Estatuaren kasuan esate baterako 85/374 Zuzentarauaren transposizio arauketa egiten duen 1/2007 Errege Dekretu Legegileak medikamendu eta elikagai produktuen kasuan “garapen arriskuen” klausula hori aplikagarri ez izatea erabaki du²⁷⁵⁶. Bestalde, Estatu-kide bakoitzean honen inguruan agintzen duten jurisprudentzia ildoak kontuan hartuta auzitegiek orokorrean salbuespen klausula horren interpretazio murriztailea egiten dute²⁷⁵⁷. Alegia, auzitegien partetik klausula horren onarpena salbuespena izan da arau orokorra baino²⁷⁵⁸.

III.5.B.d. “Garapenaren arriskuen” salbuespen klausula aplikatzeak edo ez aplikatzeak dakartzan ondorioak

Salbuespen klausula hori aplikagarri izan edo ez, ez da kontu hutsala. Logikoki industria eta aseguru enpresak klausula horren aldeko jarrera dute, beren esanetan klausulak kontsumitzaileen babesaren eta merkatuan lehiakorrak izateko enpresek sustatzea beharrezkoa duten berrikuntzaren artean oreka mantentzen baitu²⁷⁵⁹. Klausula horren existentzia ezak berrikuntza zientifiko eta teknikoari neurritz gaineko mugapena eragin eta blokeo egoera batetara eramango gintuela eta aseguru konpainiek arrisku ziurgabe horien aurrean aseguru-estaldurarik ez ematea edo prezio oso altua eskatzea eragingo lukeela arrazoitzen baitute²⁷⁶⁰.

Salbuespen klausula horren existentziak ordea berrikuntzaren sustapenaren izenean dakartzan ondorioak are esanguratsuagoak dira, xedapen normatibo horrek ekoizleek beren produktuen segurtasuna bermatzeko duten oinarritzko betebeharrak normatiboari negatiboki eragiten baitio. “Ezjakintasun klausula” horrek produktuen ekoizleei eskaintzen dien babes estaldura baliatuta, ekoizten dituzten produktu berritzaileek osasun edo ingurumenean izan ditzaketen efektu posibleen ikerketan izan beharko luketen diligentzia mailaren erlaxatzea eta arriskuen saihezpenean behar adina ez ikertzea eragin dezake²⁷⁶¹, “ezjakintasun klausula” horrek produktuaren ekoizleari arriskuen gaineko ezjakintasun egoera batetan mantentzea babestu egiten baitu²⁷⁶².

Produktu berritzaile eta gero eta sofistikatuagoen efektu kaltegarrietan ikertzeak ekoizleei eragiten dieten kostu ekonomiko altuen ordeztu, ekoizleek arriskuen ezagutza zientifiko hori produktu horiek kontsumitzaileengan sorrarazitako kalteen bidez lortzen

²⁷⁵⁴ COM (2011) 547 final, 9. orr.

²⁷⁵⁵ Ibid.

²⁷⁵⁶ 1/2007 Errege Dekretu Legegilearen 140.3 artikuluan zehazki.

²⁷⁵⁷ Análisi jurisprudenzial horri buruz, ikus GERGELY and GARCÍA AGUADO, op. cit, 19. orr.

²⁷⁵⁸ Ibid.

²⁷⁵⁹ COM (2011) 547 final, 10. orr.

²⁷⁶⁰ Ibid.

²⁷⁶¹ CAVANILLAS MÚGICA, op. cit, 450. orr.

²⁷⁶² ESTEVE PARDO, 2003c: 61.

dute, “salbuespen klausula” horren aktibazioari esker ekoizleari inolako kosterik eragiten ez dion inguruabarra²⁷⁶³ (komunitate zientifikoan arrisku horri buruz informazioarik eskuragarri ez badago betiere). Salbuespen klausula horren aplikazioak beraz, kontsumitzaileek garapen eta berrikuntza teknologikoaren efektu kaltegarri aurre-ikusiezin horiek bere bizkar gainean eramatera kondentatzen ditu²⁷⁶⁴, kalte horien ondorioz inolako erantzukizun eskatzea posible izan gabe. Kontsumitzaileen osasunaren babesaren ikuspegitik salbuespen klausula horrek dakartzan ondorio negatiboak aintzat hartuta Estatu-kide batzuek (beste batzuen artean Maltak eta Bulgariak²⁷⁶⁵) klausula hori 85/374 Zuzentarautik kentzearen aldeko jarrera azaldu dute.

Salbuespen klausula horren aplikazioak kontsumitzaileen babesean eragiten duen murrizpenaren aurrean beraz, salbuespen klausula horren aktibazioaren interpretazio murriztailea egin behar da. Kontsekuenteki, produktu berritzaileen ekoizleek haren segurtasunaren gainean duten zaintza betebeharrak legala arreta printzipioaren postulatuarekin batera interpretatu behar da. Ezagutza zientifiko eta tekniko berritzaileen aprobetxamendu ekonomikoaren aldeko apustua egiten duten produktuen ekoizleek, aprobetxamendu horrekin batera produktu horiek sorrarazi ditzaketen efektu kaltegarri buruz diligentzia gradu altuagoa izan behar dute, komunitate zientifikoaren baitan ezagutza zientifiko eta teknikoari buruz eskuragarri dagoen informazioa gainbegiratzearekin batera, efektu ziurgabe horien gainean are sakontasun handiagoz ikertzera behartzen dituen (ezagutza zientifiko eta teknikoaren ekoizpenean parte hartze aktiboa izan behar dute²⁷⁶⁶).

III.5.B.e. “Garapenaren arriskuen” salbuespen klausula, nanoproduktuen ezaugarrien ikuspegitik aztertuta

Nanomaterialen manufakturatuen gaur egungo jakintza zientifikoa kontuan hartuta, beren ezaugarri espezifiko, berezi eta konplexuen ezjakintasun zientifikoak handia izaten jarraitzen du. Nanomaterial manufakturatuen ustiapen teknikoari buruz ezagutza, eta nanoproduktuen komertzializazioa etengabe haziz doa, ez ordea material horiek osasunean edota ingurumenean sorrarazi ditzaketen efektu kaltegarri buruzko ezagutza zientifikoa, ezta efektu horiek ebaluatzeko metodologia aipatzen ezagutza tekniko ere. Azken ikerketa eremu horien hazkunde abiadura askoz ere motelagoa da.

Nanomaterial manufakturatuei buruzko ezagutza zientifiko eta teknikoaren abiadura bikoitzeko hazkuntza testuinguru horretan, “garapen arriskuen” klausula elementu giltzarria da. Salbuespen klausula horrek nanoproduktuen ekoizleei horiek sortutako efektu aurre-ikusiezinen aurrean beren erantzukizun zibiletik salbuesteko estaldura legala eskaini diezaiekete. Klausula horren desagertzea hipotetiko batek (Estatu-kide batzuek eskatu duten bezala) estaldura legal hori desagerrarazi eta aseguru konpainien partetik

²⁷⁶³ Ibid, 63. orr.

²⁷⁶⁴ CAVANILLAS MÚGICA, op. cit.

²⁷⁶⁵ COM (2011) 547 final, 9. orr.

²⁷⁶⁶ LÓPEZ MENUDO, op. cit, 78. orr.

nanoproduktuen arrisku potentzial ziurgabe horiei aseguru-estaldurarik ez emateko jarrera egokitzea, edo arriskuak aseguratzekotan, estaldura horren kostua altua izatea eragingo luke ziurrenik.

“Garapen arriskuen” salbuespen klausula horren interpretazioaren arabera nanoproduktuen aurrean izan dezakeen aplikagarritasuna kasuz kasu aztertu behar da. Interpretazio eginkizun horretan ordea bi inguruabar kontuan hartu behar dira. Alde batetik, “garapen arriskuen” klausularen egiturapen normatiboan Estatu-kideen hautu normatiboak eta beren auzitegien interpretazio judizialak orokorrean murriztaileak izan dira, hots, klausula horren aktibaziorako elementuak zorroztasunez interpretatu eta erantzukizun salbuespen klausula hori, praktikan, salbuespen bihurtu dute. Bestetik, nanomaterial manufakturatuen arriskuen ziurgabetasun testuinguruak salbuespen klausula horren elementuen interpretazioan arreta printzipioa kontuan hartzea eskatzen du.

Nanomaterial manufakturatuen propietate fisiko-kimiko, portaera eta efektuen inguruko ziurgabetasun zientifikoak handiak badira ere, ezjakintasun zientifiko hori zenbait aspektutan ez da absolutua. Izan ere komunitate zientifikoaren baitan eskuragarri dagoen jakintza mailari erreparatuz gero, ikerketa zientifiko desberdinek nanomaterial manufakturatuen ezagutza hutsune horiek detektatu egin dituzte²⁷⁶⁷. Kontsekuenteki, nanoteknologiak inguratzen dituzten ziurgabetasun elementu askori buruzko “inkognostibilitate abstraktua” baino (efektu kaltegarriak sorrarazi dituen arriskuak inolaz ere aurre-ikusiezinak diren ezjakintasuna bezala ulertuta), “inkognostibilitate zehatza”²⁷⁶⁸ existitzen da: nanomaterial manufakturatuen arrisku potentzialei buruzko ziurgabetasun zientifikoa da nagusi, baina nanoproduktuen ekoizleek arriskuen ziurgabetasun testuinguru horretaz jakin badakite, inguruabar horretaz kontzientzia badute. Kasu horretan beraz nanoproduktuen segurtasunaren gainean beren ekoizleek duten zaintza betebeharr objektiboak arreta printzipioaren harira ulertu behar dira.

Interpretazio horri jarraiki ekoizleak komertzializatzen dituen nanoproduktuen efektu kaltegarrietan diligenza maila altudun ikerketa zientifikoa eraman behar du aurrera eta arrisku potentzialak minimizatzeko arreta neurriak martxan jarri behar ditu. Produktuan txertatutako nanomaterial manufakturatuen arriskuei buruzko zantzu zientifikoak eskuragarri dauden kasuetan, nanomaterial manufakturu hori bere bizitza ziklo osoan zehar (ekoizpenetik bere hondakinen tratamendu arteko fase guztietan zehar²⁷⁶⁹) gizakiekin eta ingurumenarekin esposizioan ez sartzea bermatzen duten neurrietan ikertu behar du, arreta printzipiotik eratorzen den *no data no exposure* printzipioaren harira. Nanomaterial manufakturatuen arriskuen ziurgabetasun testuinguru honetan, beren esposizioari buruzko ezagutza zientifiko eta teknikoaren hazkuntzak nanoproduktuen segurtasuna bermatzen

²⁷⁶⁷ WARE and KELLY, 2009: 215.

²⁷⁶⁸ Inkognostibilitate abstraktu eta zehatzari buruz, ikus SALVADOR CODERCH et al, op. cit, 9. orr.

²⁷⁶⁹ Nanomaterial manufakturatuen bizitza ziklo osoan zehar mantendu beharreko diligenza betebeharr horrekin lotuta, hondakinen marko normatibo komunitarioan (2008/98 Erregelamendua oinarritzko araua duena) aplikatzen den “erantzukizun hedatuaren printzipioa” ekoizleek beren nanoproduktuekiko dituzten diligenza betebeharreri eta erantzukizunei argitasuna eman diezaiekeen printzipioa da (CASSOTTA, 2012: 22). Azterketa hori ordea tesiaren hurrengo kapituluan egiten da.

lagundu dezaketen neurrien garapenean lagundu dezake²⁷⁷⁰, nanomaterialek kontsumitzaileengan duten esposizio-bideen mugapenera bideratuak. Nanomaterialen manufakturatuen esposizioa mugatzeko neurriekin batera, nanoproduktuen ekoizleak kontsumitzaileari produktu horren erabilera egokiari buruzko argibideak eta arrisku posiblei buruzko ohartarazpenak ezagutarazteko betebeharra dauka²⁷⁷¹.

Nanoproduktua behin merkatuan zirkulazioan jarri ostean, nanomaterialen manufakturatuen erabilera horren efektuei buruz eskuragarri dauden jakintza zientifiko eta teknikoekin jakinaren gainean egoten jarraitzeko betebeharrak legalak dira eta produktuak kontsumitzaileengan kalteak sortzeko arrisku zantzuak dauden kasuetan, kalte posible horien sorrera eragoztera bideratutako diligentsia akzioak aktibatzeko obligazioa du. Kontrako kasuan “garapeneraren arriskuengatik” erantzukizun salbuespen klausula horren egitatezko supostua betetzen ez dela ulertu behar da, ekoizleari bere nanoproduktuaren segurtasunaren gainean “arduragabekeria” jokatu izanaren ondoriozko erantzukizuna sorrazten baitaio.

IV. NANOMATERIALAK ETA LANGILE ZEIN KONTSUMITZAILEEN BABESERAKO ARAUKETA KOMUNITARIOA: LABURPEN MODUAN

IV.1. Nanomaterialen manufakturatuen erabilera eta langile eta kontsumitzaileen osasun, segurtasun eta eskubideen babesa: pasibotasun normatibo komunitarioaren ondorioz Estatu-kide batzuek aurrera pausu bat eman dute

Nanoteknologiak materialengan eragiten dituzten propietate aldaketei etekina ateratzeko asmoz, izaera askotako industriek euren aldeko inbertsio garrantzitsua egin dute. Garapen bidean dagoen teknologia berri horrek etorkizuneko sistema produktibo, ekonomiko eta soziala eraldatzeko potentzialtasuna duela ohartuta, nanoteknologiak industria sektore desberdinetako ekoizpen kateko faseetan zehar eta izaera orotako produktu komertzialetan erabiltzen dira eta ondorioz, denbora aurrera joan ahala nanomaterialekin kontaktuan sartzen diren langileen eta kontsumitzaileen kopurua gero eta handiagoa da.

Europar Batasuneko Funtzionamendu Tratatuak langile eta kontsumitzaileen osasun eta segurtasunaren babeserako eta beren eskubideen sustapenerako marko normatiboa egituratzeko orduan, EBren eta Estatu-kideen arteko eskumen legegile partekatuak aurreikusten ditu. Bitariko eskema horretan, EBko Komisioak nanomaterialen manufakturatuen erregulaziorako defendatzen duen “hutsuneak bete” estrategia

²⁷⁷⁰ GERGELY and GARCÍA AGUADO, op. cit, 20. orr.

²⁷⁷¹ Ibid.

normatiboak aitzitik ez du EBFTren arabera langile eta kontsumitzaileei eskaini behar zaien babes maila altua bermatzeko balio.

Alde batetik, nanomaterial manufacturatu bakoitzaren arrisku profilaren arabera aplikagarri zaizkien langileen osasun eta segurtasunerako oinarrizko neurri komunitarioak arautzen dituen 89/391 Zuzentarauaren, agente kimikoen lan segurtasun neurriei buruzko 98/24 Zuzentarauaren eta propietate kartzinogeno edota mutagenodun agente kimikoen lan segurtasun neurriei buruzko 2004/37 Zuzentarauaren kasuan, pieza normatibo horietako batean ere ez da nanomaterial manufactuen berezitasunetara egokitze aldaketa normatiborik aurreikusi.

Horren ordez EU-OSHA Agentziak (2013an) eta EBko Komisioak (2014an) orientazio gida batzuk argitaratu dituzte, enplegatzaileari lan eremuan erabiltzen diren nanomaterial manufacturatuaren inguruan segurtasun kontrol neurri desberdinak gomendatzen dituztenak. Bestetik, kontsumo produktu kategorien marko komunitarioaren baitan produktu kosmetikoen, bioziden eta elikagai produktuen pieza normatibo batzuek nanomaterialen kontrol espezifikoa helburu duten neurri normatibo batzuk onartu badituzte ere, kontsumo produktuen marko komunitarioa bere osotasunean hartuz gero aldaketa horiek partzialak izan dira eta orokorrean ez dute kontsumitzaileen osasunaren babes maila altua bermatzeko ezta beren informaziorako eskubidea eraginkortasunez egikaritzeko balio.

Funtsean, EBk (Komisioaren estrategia normatiboak bultzatuta) nanomaterial manufacturatuaren aurrean azalerazi duten pasibotasun normatibo horrek ez du EBFTk langile eta kontsumitzaileen kasuan exijitzen duen babes maila bermatzeko balio. Kontrol sistema komunitarioaren gabezien ondorioz gaur egun maila komunitarioan ekoitzi, inportatu eta erabiltzen diren nanomaterial manufacturatuaren eta komertzializatzen diren nanoproduktuen izaera eta kantitateari buruzko datu ofizialen falta nabarmena da. Kontsekuenteki, testuinguru horretan nanomaterial manufacturatuekin esposizioan sartzen diren langile eta kontsumitzaileen identifikazio eta kuantifikazioa egitea ezinezkoa da.

Pasibotasun normatibo komunitario horren aurrean Estatu-kide batzuek aurrera pausu bat eman dute. Alde batetik, lan segurtasun eta osasunarekin lotutako eskumenak dituzten erakunde publiko estatal desberdinek (besteak beste, ministerio, agentzia publiko eta institutu nazionalak) azken hamarkadan zehar nanomaterial manufacturatuaren arriskuen ebaluaketa eta kudeaketarako sistema desberdinak diseinatu eta gomendatu dituzte, EU-OSHA Agentzia komunitarioak eta EBko Komisioak esparru horretan eman dituzten orientazio gida berantiarak (2013 eta 2014. urteetan hurrenez hurren) baino askoz ere lehenago. Ekimen publiko horiez gain industria nanoteknologikoan diharduten enpresa handiek ere nanomaterialekin zerikusia duten lan segurtasun neurri espezifikoei buruzko gida propioak landu dituzte, besteak beste, BASF, SOLVAY, Bayer, EVONIC, Nanocyl eta COLLOROBIA izeneko enpresek. Bestetik, merkatu komunitarioan ekoitzi, inportatu eta erabiltzen diren nanomaterial manufacturatuaren identitate eta kantitateari buruz

existitzen den ezjakintasun egoeraren aurrean Frantziak, Norvegiak, Danimarkak eta Belgikak nanomaterialen derrigorrezko erregistro nazionalak martxan jarri dituzte.

Nanomaterialen manufakturatuen propietate, portaera eta efektuei buruz gaur egun existitzen den ezagutza maila baxua kontuan hartuz, nanomaterialen bizitza zikloan zehar bereziki eragindako arrisku taldeak diren langileen eta kontsumitzaileen osasuna, segurtasuna eta informazio eskubidea babestera zuzendutako neurri normatibo espezifikoak onartzea funtsezkoa da. Neurri horiek nanomaterialak “jaiotzen” direnetik “hil arteko” fase guztietara hedatu behar dira, arreta printzipioan oinarri izan behar dute eta nanomaterial manufakturatuen identifikapena, monitorizazioa, esposizio eta arriskuen ebaluaketa eta arriskuen kudeaketa hobetzera bideratu behar dira.

IV.2. Nanomaterial manufakturatuen aurrean langileen osasun eta segurtasunaren babes maila altua eta informazio eskubidea bermatzeko arreta printzipiotik eratortzen den *no data, no exposure* printzipioak gidatutako kontrol sistema

Nanomaterial manufakturatuen esposizioak eragin ditzakeen arriskuen ziurgabetasun zientifiko handia kontuan hartuta, langileen osasun eta segurtasuna babestea helburu duen kontrol sistemaren egiturapenean arreta printzipioarekin harreman estua gordetzen duen *no data, no exposure* printzipioa giltzarri izan behar da.

Enplegatzaileak lan esparruan erabiltzen dituen nanomaterial manufakturatutako guztien segurtasun ebaluaketa espezifikoak eraman behar ditu aurrera, hots, nanomaterialen identifikazio, esposizio eta arriskuen ebaluaketa espezifikoak. Arriskuen karakterizazio zeregin horretan Estatu-kideek, EU-OSHA Agentziak eta EBko Komisioak *control banding* izaera duten mekanismoak aplikatzea gomendatzen diete enplegatzaileari, arrisku ziurgabeen aurrean parametro desberdinak kontuan hartuta nanomaterial bakoitzaren larritasuna (kalte potentzialen arabera) eta probabilitatea (esposizio mailaren arabera) konbinatzen duen instrumentua. Bestalde, lan arriskuen kudeaketa neurriek, *no data, no exposure* printzipioaren harira, langileek nanomaterial manufakturatuekiko duten esposizioa mugatzea izan behar da helburu:

- a) Nanomaterial manufakturatuentzat agente kimikoen lan esposizio segurua neurtzen duten OEL eta DNEL balore normatibo espezifikoak onartu behar dira. Nanomaterial manufakturatutako batzuen kasuan doktrina zientifikoak dagoeneko balore batzuk proposatu ditu.
- b) Arau orokor bezala nanomaterial manufakturatutako sistema itxietan ekoitzi eta manipulatu behar dira, langileen esposiziotik kanpo. Esposizio hori ekidin ezin daitekeen kasuetan, nanomaterialekiko duten esposizioa mugatzeko langileek PPE (*personal protective equipment*) lan arropa erabili behar dute eta nanomaterialekin kontaktuan dauden langileen eta lan orduen kopurua ahalik eta murriztena izan behar da.

- c) Langileek lan eremuan erabiltzen diren nanomaterialen manufakturatuei buruzko informazio eta lan heziketa espezifikoa, egokia eta jarraitua jaso behar dute. Horrez gain beren osasuna zaindu eta monitorizatzeko aldizkako errebisio medikoak egitea ere ezinbestekoa da.
- d) Lan eremuetan erabilitako nanomaterialen manufakturatuen arrisku kudeaketa neurri horiekin batera, langileen osasuna eta segurtasuna bermatzeko hornikuntza kate osoan zehar parte hartzen duten aktore desberdinen artean nanomaterialei buruzko informazioa komunikatzea ezinbestekoa da. Zentzu horretan nanomaterialen berezitasunetara egokitutako SDS fitxak informazio horren komunikazioa bermatzeko mekanismo egokia izan daitezke. Horrez gain, Estatu-kideek beren lurralde eremuan nanomaterialekin lan egiten duten langileak identifikatu eta beren kopurua zenbatzeko gaitasuna duten erregistro nazionalak martxan jarri beharko lituzkete, langileen osasun eta segurtasunaren izenean enplegatzaileei datu horiek bildu eta agintari eskudunei transmititzera behartuz.

IV.3. Nanomaterialen manufakturatuen aurrean kontsumitzaileen osasun babes maila altua eta beren informazio eskubidea bermatzeko arreta printzipiotik eratorritako *no data, no market* printzipioak gidatutako kontrol sistema

Dagoeneko azpimarratu den bezala nanomaterialak erabiltzen dituzten produktu kategorien marko normatibo komunitarioa partzialki besterik ez da egokitu. Testuinguru normatibo horren ondorioz merkatu komunitarioan ekoitzi, inportatu eta erabiltzen diren nanomaterialen eta komertzializatzen diren nanoproduktuen izaera eta kantitate osoari buruzko datu ofizialik ez da existitzen. Inguruabar horrek agintari eskudunen zaintza eginkizunei eta kontsumitzaileen informazio eskubideari negatiboki eragiten die eta Estatu-kide batzuk nanomaterialen erregistro nazionalak martxan jartzeko erabakia hartzera bultzatu ditu.

Nanomaterialen manufakturatuen propietate, portaera eta bereziki beren efektu kaltegarriari buruzko ziurgabetasun zientifikoa kontuan hartuta, kontsumitzaileen osasun eta informazio eskubideak babesteko asmoz nanomaterialen eta nanoproduktuen kontrol sistema komunitarioak arreta printzipiotik eratorritako *no data, no market* printzipioak giltzarri izan behar du. Alegia, nanomaterialen manufakturatuen ekoizpen eta inportazioaren eta nanoproduktuen komertzializazioaren arduradunek agintari eskudunei eta kontsumitzaileei nanomaterial horiei buruzko informazio datu espezifikoa transmititzeko betebeharra izan behar dute, datu horiek transmititu ezean nanomaterial horiek erabiltzen dituzten produktuaren komertzializazioari hasiera ematea debekatuz. Zentzu horretan, kapitulu honetan *no data, no market* printzipioan inspiratutako bi mekanismo normatibo komunitario desberdin proposatu dira. Alde batetik nanomaterial eta nanoproduktuen jakinarazpena helburu duten erregistro sistema komunitarioa, hurrenez hurren *substance based notification* eta *product based notification* izaera duten bi erregistro desberdinez egituratua.

Lehenengo erregistro motak (*substance based notification*) nanomaterialdun substantzien ezaugarri eta propietateei buruzko informazioaren jakinarazpenean jarri behar du arreta, ez hainbeste substantzia hori erabiltzeko asmoa dagoen produktuen ezaugarrietan. Gaur egun nanomaterial manufakturatuei izaera hori duen substantzia kimikoen erregistroa aplikatzen zaie, REACH Erregelamenduan arautzen dena. *Substance based notification* izaera duen erregistro komunitario hori nanomaterialei aplikagarri izanik ere beren berezitasunetara egokitu gabe jarraitzen duenez, REACH eta CLP Erregelamenduek produktu kimikoen kontrolerako egituratzen duten mekanismo administratiboen multzoa ez da gai nanomaterial manufakturuak behar bezala identifikatzeko, ezta tratamendu juridiko berezi eta espezifiko emateko ere. Lehenengo aldaketa normatiboa beraz REACHen erregistroan zentratu behar da, jakinarazpen baldintza normatibo berrien onarpenaren bidez agintari eskudunek ekoizle eta inportatzaileen partetik nanomaterial manufakturatuen behar adina informazio datu espezifiko jasotzen dutela bermatzeko.

Product based notification erregistro motak ordea komertzializatu nahi den produktuaren ezaugarrietan jartzen du arreta, produktu horretan erabilitako substantzien propietate eta ezaugarriak barne. Agintari eskudunek eta kontsumitzaileek merkatu komunitarioan komertzializatzen diren nanoproduktuen identitate eta kantitatearen ikuspegi orokor eta ofizial bat edukitzeko, maila komunitarioan mota horretako derrigorrezko erregistro zentralizatu bat aurreikustea ezinbestekoa da (Alemaniako Ingurumen Agentzia Federalak proposatu duen bezala). Erregistro mota horren kokapen normatiborik aiposena 2001/95 Zuzentaraua izan daiteke, produktuen segurtasunari buruzko baldintza normatibo orokorrak aurreikusten dituen arauketa hain zuzen ere. Nanoproduktuen erregistro komunitario horren eta produktu kategoriatzuen arauketa sektorialetan aurreikusitako jakinarazpen sistemen artean bikoizketak ekiditeko helburuz, lehenengo erregistroak bigarrenetik izaera osagarria izan behar du. Alegia, nanoproduktuen erregistro komunitarioa nanomaterialei buruzko informazioa jakinarazteko betebeharrak normatiborik aurreikusita ez duten produktu kategoriei izan behar zaie aplikagarri.

REACH Erregelamenduko erregistroarekin eta proposatu berri den nanoproduktuen erregistro komunitarioarekin batera, kontsumitzaileen informaziorako eskubideak ere nanoproduktuen etiketapenaren egiturapenean arreta jartzea eskatzen du. Gaur egun nanomaterial manufakturatuen presentziaz kontsumitzaileei informatzea produktu kosmetikoen, bioziden eta elikagai produktuen etiketan besterik ez da derrigorrezkoa, nano-osagaiaren ondoan “nano” atzizkia jarritz. Egoera normatibo horren aurrean kontsumitzaileen informazio eskubidea bermatzeak *no data, no market* printzipioa aplikatzea eskatzen du, etiketapenaren inguruan bi betebeharrak normatibo eragiten dituenak.

Alde batetik nano-osagaiak etiketan esanbidez adieraztea nanomaterialak erabiltzen dituzten produktu guztietara hedatu behar den betekizun normatiboa izan behar da, hots, merkatu komunitarioan komertzializatzen diren nanoproduktuen kasuan nano-etiketapenak izaera unibertsala eta derrigorrezkoa izan behar du. Bestetik, kontsumitzaileek

nanoproduktuak kontsumitu edo ez modu informatu eta arrazoitu batetan erabakitzeko duten eskubidearen egikaritza bermatzeko, etiketan nano-osagaiaren ondoan “nano” atzizkia beste informaziorik ez agertzea ezin da neurri nahikoa kontsideratu. “Nano” atzizkiarekin batera produktuaren ekoizleak kontsumitzaileari bestelako informazio datu gehigarri batzuk transmititu beharko lizkioke, besteak beste, nanomaterialen ikurra, nanomaterialak elikagaien betetzen duen helburu edo funtzioaren azalpena, erabilera segururako argibideak eta ohartarazpenak eta kontsumitzaileak informazio gehigarria nahi izatekotan, etiketapenean helbide edota *link* bat adieraztea.

IV.4. Nanoproduktu akastunen kalteengatiko erantzukizun zibila eta 85/374 Zuzentarauaren xedapen normatiboen interpretazioa: beste behin, arreta printzipioa giltzarri da

Kapitulua honetan egin den azkeneko analisiaren objektua 85/374 Zuzentarauaren arauketa juridikoa izan da, produktu akastunek kontsumitzaileei eragindako kalteen ondorioz produktu horien ekoizleek duten erantzukizun zibil objektiboaren arauketa komunitarioa alegia. Europar Batasunak eta Estatu-kideek kontsumitzaileen osasun eta eskubideen babesean dituzten eskumen legal partekatuen logikari jarraiki, zuzentarauak Estatu-kideei bere xedapen normatibo batzuen gainean konfigurazio legalerako ahalmen zabalak eskaintzen dizkie, Estatu-kideen artean erantzukizun zibil objektibo horren heterogeneotasun normatiboa nagusi izatea eragin duen inguruabarra. Besteak beste Estatu-kideek diskrezionaltasun normatibo handia dute, bai erantzukizun zibila eskatzeko frogapen jardunbidearen elementuak (frogapen estandarrak, exijitutako frogapen maila eta kaltea ebaluatzeko irizpideak) zehazterako orduan, baita erantzukizun zibil horretatik salbuestea ahalbidetzen duen “garapeneko arriskuen” klausularen elementuak normatiboki konfiguratzerako orduan ere.

Instantzia judizialean erantzukizun zibil objektibo hori onartua izan dadin 85/374 Zuzentarauak kaltea jasan duen pertsonari egokitu dio frogapenaren zama, hots, produktuaren akatsa, akatsak sortu dion kaltea eta bi elementu horien arteko kausalitate harremana frogatzearen karga. Kontsumitzaileari berez konplexua eta garestia gertatu dakiokeen frogapen jardunbide hori (frogaren kargak kontsumitzaileari aditu desberdinen peritu lana kontratatu behar izatea eragin diezaioke) nanoproduktuen kasuan are nekezagoa izan dakioke. Nanomaterialen manufakturatuen propietate, portaera eta efektuei buruz existitzen den ziurgabetasun zientifikoak eta beren arriskuen ebaluaketarako metodologia tekniko egokien faltak frogapen jarduera hori ia ezinezkoa bihurtu dezakeela kontuan hartuta, arreta printzipioaren harira kontsumitzaile kaltetuari exijitu behar zaion frogapen gradua nanomaterialen ziurgabetasun testuingurura egokitu behar da. Nanoproduktuaren akatsaren eta kontsumitzaileari sorrarazi dion kaltearen arteko kausalitate harremanean beraz, komunitate zientifikoaren zirkuitu informatiboan ustez kaltea eragin duen nanomaterial manufakturatuen arriskuen inguruko arrazoizko zantzuak dauden kasuetan, zantzu horiek nahikoak izan behar dira kausalitate harreman horren existentzia frogatzeko.

Azkenik, produktu akastunek sorrarazitako kalteen erantzukizunetik salbuetsita geratzeko 85/374 Zuzentarauak aurreikusten duen “garapeneko arriskuen” klausulak nanoproduktuen kasu konkretuan arreta berezia pizten du. Salbuespen klausula hori aktibatu ahal izateko, produktua komertzializatzen hasi zen momentuan kontsumitzaileari kaltea sortu dion arriskuaz jabetzeko jakintza zientifiko eta teknikorik eskuragarri ez egotea exijitzen du araudiak. Beste behin Estatu-kideek klausula horren gainean duten diskrezionaltasun normatibo handiaz baliatu eta heterogeneotasun normatiboa ezaugarri duen klausula egituratu dute. Estatu-kide batzuek beren barne zuzenbidean ez dute salbuespen klausula hori aurreikusten, eta klausula aplikatzen duten Estatu-kideen kasuan ere klausularen elementuen arauketa oso heterogeneoa da, nahiz eta orokorrean bere interpretazioa murriztailea egiten den: ebazpen judizialetan “garapenaren arriskuen” salbuespen klausularen onarpena, arau orokorra baino, salbuespena dela esan daiteke.

Nanomaterial manufacturatuei buruzko ezagutza zientifikoaren bi martxadun abiadura kontuan hartuta (material horien aprobetxamenduari buruzko ezagutza azkar haziz doa, sortu ditzaketen efektu kaltegarriak buruzko ezagutza ordea motel), arreta printzipioak nanoproduktuen kasuan “garapen arriskuen” salbuespen klausula hori modu murriztailean interpretatzea eskatzen du. Nahiz eta epe luzera begira nanoproduktu berritzaile batek sortu ditzakeen arriskuen inguruko ezjakintasun zientifikoa nagusi izan, inkognitibitate hori ez da abstraktua, zehatza baizik. Alegia, nanomaterial manufacturatuen arriskuak ez dira modu absolutuan aurreikusi ezinak, komunitate zientifikoak dagoeneko nanomaterial manufacturatuen propietate, portaera eta efektuei buruzko ziurgabetasun elementuetako asko dagoeneko identifikatu, mugarriztatu egin baititu.

Nanoproduktuen ekoizleak inkognitibitate zehatz horren errealitateaz jakin badakitela kontuan izanik, ekoizten dituzten nanoproduktuen segurtasunaren gainean 2001/95 Zuzentarauaren arabera dituzten zaintza betebeharrak objektiboak arreta printzipioaren harira ulertu eta ekoizlearen diligenzia maila areagotu egiten dela interpretatu behar da. Produktuaren ekoizleak komunitate zientifikoaren baitan bere produktuak erabiltzen duen nanomaterialari buruz eskuragarri dauden azkeneko informazio zientifiko eta teknikoak gainbegiratzeko ardura izatearekin batera, ikerketa jardueren bidez ezagutza zientifiko eta tekniko horren ekoizpenean modu aktiboan parte hartzeko betebeharra ere badu.

As stated previously in this chapter, there exists significant uncertainty regarding the potential effects of environmental exposure to engineered nanomaterials. It could be said that this uncertainty is a result of a number of factors. Firstly, there are underlying scientific reasons for this uncertainty, due to the fact that suitable scientific methods and technical mechanisms to identify, monitor, assess and control this exposure and its possible effects are yet to be developed.

²⁹⁹⁹ Listed in Directive Annex I

³⁰⁰⁰ Commission Communication COM (2012) 572, final page 11

Secondly, due to this scientific and technical uncertainty and as a result of the European Commission-driven questionable regulatory strategy of “fill in the gaps”, from a legal perspective the issues are not being dealt with. Instead of focusing on and adopting the most suitable legal measures to deal with the challenge presented by the scientific and technical uncertainty concerning engineered nanomaterials, the regulatory approach followed has been one of regulatory stagnation. As a result, this inadequate regulatory response to the challenges of this scientific and technical uncertainty has only led to a situation of legal uncertainty.

The REACH and CLP Regulations and the sector-specific products regulations analysed in the previous chapters have, as a general rule, still not been legally adapted to the specific nature of engineered nanomaterials³⁰⁰¹. Due to this, the administrative mechanisms applicable in the regulations on a case-by-case basis are not valid to control the full life-cycle of engineered nanomaterials and nanoproducts. In this sense, the lack of information on the volume and nature of nanoproducts on the market is of the greatest concern.

The legal effectiveness of the EU environmental regulatory framework is, to a certain extent, constrained by these upstream regulations (REACH, CLP and the sector-specific product regulations). This means that the effectiveness of the regulatory measures set out in the different sector-specific environmental regulations applicable to engineered nanomaterials, depend on the effectiveness of the upstream regulatory control measures applicable to these materials in the pre-life-cycle phases. In view of the significant legal deficiencies in the upstream regulations, the regulatory framework on the environment has inherited these legacy deficiencies. As a result, the identification, monitoring and control of the sources of emissions and waste streams of engineered nanomaterials in the environment become a more complex task.

In addition to these legacy regulatory deficiencies passed down from upstream regulations, no specific regulatory measures to control engineered nanomaterials have been adopted within the broad EU environmental legal framework. Despite engineered nanomaterials coming under the material scope of the sector-specific environmental regulations, the administrative mechanisms and conventional techniques set out in them are in most cases not suited to engineered nanomaterials. In fact, these conventional mechanisms have significant deficiencies regarding the detection, monitoring, evaluation and control of the sources of engineered nanomaterial emissions, for instance in terms of the quality standards, emissions values and minimum thresholds set out in each of the different sector-specific regulations.

³⁰⁰¹ In fact, the sector-specific regulations on cosmetic products, biocidal products, food and EEE (electrical and electronic equipment) DO contain specific provisions concerning nanomaterials. These regulations adopt different administrative mechanisms on a case-by-case basis: notification systems, specific nanomaterial assessment procedures, inventories and specific labelling.

III.2. In view of the use of engineered nanomaterials, to protect the environment the regulatory strategy established should be based on the precautionary principle: the “no data, no exposure” principle, the EPR principle and the BATs

As a result of the significant scientific uncertainty and an inadequate legal strategy, the EU legal framework does not manage to extend to the specific nature of engineered nanomaterials. In an aim to both reverse this situation and to ensure a high level of protection to the environment and health, the precautionary principle should be the driving force behind a different type of regulatory framework on engineered nanomaterials. First of all, given that engineered materials might have different properties and behaviour, from a legal perspective they need to be treated as autonomous substances. That is to say, they should be considered different to conventional size materials, in order for a specific administrative control system to be set up for them.

The aim of the regulatory framework on the environment, given that it is based on the precautionary principle, should be to follow a regulatory strategy of restricting whenever possible the exposure of nanomaterials to the environment, that is to say, the “no data, no exposure” principle. One of the regulatory options to achieve this aim could be to legally treat engineered nanomaterials as hazardous substances. In fact, a stricter control system is applied to substances classified as hazardous substances, precisely a control system which could enable the separate safe treatment of nanomaterials.

Accordingly, engineered nanomaterials should be applied the *iuris tantum* presumption of risk: they should be treated as potentially hazardous until the contrary is proved, on a case-by-case basis. For this to happen, it is essential to adapt the hazardous substance classification and labelling criteria set out in CLP Regulation Annex VI to the specific nature of nanomaterials. In addition to the CLP Regulation, REACH Regulation also needs to be amended. The different administrative mechanisms set out in this regulation to control the life-cycle of chemical substances and mixtures (registration, evaluation, authorisation, use and commercialisation restrictions and SDSs) are a key regulatory element to gather data on the risks presented by engineered nanomaterials in their life-cycle.

In line with the “no data, no exposure” principle deriving from the precautionary principle, it needs to be underlined that engineered nanomaterial emissions into the environment should be restricted whenever possible. In order to achieve this objective two legal figures set out in the EU environmental legal framework could be useful. The first is the “extended producer responsibility” principle (the EPR principle) set out in the EU waste framework and the second is the legal figure known as “best available techniques” (BAT).

Based on the EPR principle, Member States should pass regulations which encourage smart nanoproduct design and manufacturing through sector-specific product regulations. This way, the aim should be to design such that most nanoproduct constituents can be

reused into other products or be returned to their biological life-cycle on condition that this is done in safely. The nanowaste produced, as stated above, should be considered hazardous waste to enable it to be treated safely and separately.

Furthermore, close attention should be paid to the major sources of emissions into air, water and soil from different economic and business activities working with engineered nanomaterials. Industrial and agricultural establishments coming under the scope of Industrial Emissions Directive 2010/75 have to apply the BATs set out for their specific sector of activity. These BATs are laid out according to the type of production sector or manufacturing process and are set out in the BREF documents. These documents are adopted and reviewed by the European Commission, in line with new scientific knowledge and technological breakthroughs. As agricultural and industrial establishments are required to consider BREF documents as technical references applicable to them on a case-by-case basis, these BREF documents could be an appropriate way of setting out BATs for engineered nanomaterials. These BREF documents should aim to restrict and control engineered nanomaterial emissions, based on the precautionary principle, establishing safe maximum emissions values. However, at present there is no known BREF document setting out express technical measures for engineered nanomaterials.

The aforementioned legal figures of the EPR principle and the BATs, in addition to helping to encourage safer, cleaner and more efficient nanoproduct design and to reduce engineered nanomaterial emissions into the environment, might also provide more regulatory clarity from the legal perspective of environmental liability set out in Directive 2004/35. In the event of any potential environmental damage produced as a result of exposure to engineered nanomaterials, it could be more complicated for the economic or business activities producing the damage to invoke the “development risks” exemption clause. In fact, in cases where in accordance with the EPR principle and BATs there were specific measures to be adopted regarding the engineered nanomaterials which caused the damage, the economic and business activities which caused the damage are obliged to find out about and comply with these measures.

ONDORIOAK

1.- Nano-eskalan (10^{-9}) manipulatzean, materialek izan ditzaketen propietate desberdinen ikerketa zientifikoak —nanozientiak— eta horren aprobetxamendu teknologikoek —nanoteknologiak— hazkuntza nabarmena izan dute XXI. mende hasiera honetan. Diziplina zientifiko askoren prismetik (medikuntza, biologia, fisika, kimika edo ingeniartzaren ikuspuntutik) behatu eta esperimentatzen den ikerketa-eremu multidiziplinarra da eta nanoteknologiaren ustiapenetik eratortzen diren material berriak —nanomaterialen manufakturatuen— aniztasunaren, heterogeneotasunaren, sofistikazioaren eta konbergentziaren sinonimo dira. Ekoizten diren nanomaterialen manufakturatuen desberdinen kopurua gero eta anitzagoa da. Gaur egun gutxienez 2.500 mota dokumentatu dira. Nanomaterial horietako bakoitzak propietate fisiko-kimiko desberdinak eta heterogeneoak ditu (nanomaterial bakoitza mundu bat da); gainera, denbora igaro ahala, gero eta sofistikatuagoak bilakatzen ari dira (nanomaterialen manufakturatuen lau belaunaldi desberdin iragartzen dira) eta nanoteknologiaren jardura eremuaren horizontaltasuna dela medio, beste teknologia berri batzuekin (bioteknologia, IKT edo teknologia kognitiboak) konbergentzia harremanak sakontze bidean daude.

2.- Ezaugarri horiek aintzat hartuta, nanoteknologiak gero eta sektore produktibo eta industrial gehiagoren arreta bereganatu dute eta hurrengo iraultza industrialaren bailiran iragarriak izan dira. Izan ere, nanomaterialen manufakturatuen produktu kosmetikoetan, plagizidetan, arropagintzan, elikagaietan, medikamenduetan, aparatu elektronikoetan edota industria militarrean gero eta intentsitate handiagoz ikertu, ekoitzi eta komertzializatzen dira eta egun bizi ditugun arazo garrantzitsu askori (kutsadura, gaixotasun larriak, lehengaien eskasia edo gosea) aurre egiteko potentzialtasuna duten teknologiak bailiran aurkeztu zaizkio gizarteari. Nanoteknologiaren onura potentzial horiek zein puntutaraino errealitatea edo marketin estrategia diren ikusteke dagoen momentu honetan, balantzaren beste aldean, teknologia horien ustiapenak osasunean edo ingurumenean eragin ditzaketen arrisku potentzialen zantzu zientifikoak, beren garapenarekin zerikusia duten kezka ekonomiko, sozial eta etikoak eta giza eskubideen ikuspegitik planteatu ditzaketen erronkak nabarmendu behar dira. Erronka guzti horiek gaur eguneko eta etorkizuneko belaunaldiei eragin diezaiekete. Bestalde, pertzepzio publikoari dagokionez, herritarren artean nanoteknologiakiko ezjakintasunak arau orokorra izaten jarraitzen du (Europar herritarren erdiak baino gehiagok ez du inoiz beraietaz entzun) eta nanoteknologiak ezagutzen dituztenen artean jarrera anibalenteak nagusi dira.

3.- Nanoteknologiaren garapenean planteatzen diren erronka horiek arrisku teknologiko berrien testuinguruan kokatzen dira. Mendeetan zehar garatutako ezagutza zientifiko eta teknologikoari esker, gizakiak perillu naturalei aurre egiteko gero eta kontrol gaitasun handiagoa eskuratu badu ere, garapen zientifiko-teknologiko horren ondorioz gizakiak arrisku kategoria berri baten sorrera eragin du, arrisku teknologikoena hain zuzen ere.

Sofistikazio zientifiko eta teknologikoan aurrerapausoak eman ahala, eta, batez ere, azken hamarkadetan zehar, arrisku teknologikoen osasunean eta ingurumenean izan ditzaketen efektu kaltegarrien potentzialtasunak dimentsio global, difuso eta kolektiboa eskuratu du, arrisku “klasikoen” puntualtasun, banakotasun eta zehaztasunarekin kontrastean. “Arriskuaren gizartean” bizi garen garai historiko honetan, arrisku teknologikoen ez dute muga geografikoez ezta denbora mugaz ulertzen (gaur egungo arrisku teknologikoen efektu kaltegarriak hurrengo belaunaldietara hedatu daitezke) eta arriskuaren kausa eta efektuen arteko harremana ulertzea zeregin erabat konplexua bilakatu da zientzialarientzat, besteak beste plurikausalitatea (kausa anitzek sorrarazitako efektua) eta berrelikadura (efektu kaltegarria halaber beste arrisku baten kausa bihurtu daiteke) bezalako egoerak gertatzen baitira. Inguruabar horiek direla medio, teknologia berrien ustiapenak aurrera egin ahala, esplotazio horren efektu kaltegarriari buruzko ziurgabetasun zientifikoak esanguratsua izaten jarraitzea gero eta ohikoagoa bihurtzen ari den egoera da.

4.- Nanoteknologiaren kasuan, ezagutza zientifiko eta teknikoaren garapena erabat asimetrikoa izaten ari da. Nanomaterialen manufakturatuen ustiapen komertzialari buruzko ezagutza zientifiko eta teknikoa abiadura bizian hazten ari den bitartean, material berri horiek osasunean eta ingurumenean eragin ditzaketen kalte potentzialen ezagutza ziurgabetasun elementuz josia dagoen jakintza eremua da. Testuinguru horretan, nanomaterialen manufakturatutako batzuen esposizioak osasunean edo ingurumenean eragin ditzakeen kalteen larritasun eta atzeraezintasunari buruzko zantzu zientifikoak gero eta ugariagoak dira. Ezagutza zientifiko-teknikoaren asimetria hori azaltzen duten hiru kausa desberdin identifikatu dira.

Lehenik eta behin, nanomaterialen manufakturatuen propietate, portaera eta efektuak zientifikoki ulertzea konplexutasun handiko zeregina da. Ulermen hori posible egin dezaketen metodologia zientifikoak oraindik garatzeke daude. Bigarrenik, instantzia publiko eta pribatuak nanoteknologiaren ikerketari eskaintzen dioten inbertsioa erabat desorekatua da. Nanoteknologiaren ustiapen potentzialen ikerketara inbertsio publiko eta pribatuaren portzentaje oso altua bideratzen da; ez, ordea, nanoteknologiaren ustiapenak osasunean edo ingurumenean izan ditzaketen efektu kaltegarrien ikerketari. Hirugarrenik, ordenamendu juridikoetan aurreikusten diren instrumentu normatibo batzuek oztopatu egiten dute nanomaterialen efektu kaltegarriari buruzko ezagutza zientifikoaren ekoizpena eta bere hedapen publikoa, besteak beste, sekretu industrialak, jabetza intelektualeko eskubideak eta “garapenaren arriskuen” salbuespen klausula normatiboak.

5.- XX. mendearen azken herenean Europar Batasunak arrisku teknologiko berriei eskaintutako tratamendu juridikoan, ziurgabetasun elementuekiko “intolerantzia jarrerak” gertatu dira. Arrisku-analisiaren prozeduran (arrisku ebaluaketa, kudeaketa eta komunikazioa izeneko faseez osatua) parte hartzen duten aditu eta agintari eskudunek, arrisku teknologiko baten ziurgabetasun zientifikoak modu sistematiko eta kontzientean ikertu, ebaluatu eta juridikoki tratatu beharrean, ziurgabetasun elementuak onartu ez, analitiko kanpo utzi edo hutsalak bailiran tratatu dituzte. Horren adibide aipagarrienetako bat Erresuma Batuko “behi eroen” krisian agintari eskudunek hartu zuten jarrera izan zen.

Ziurgabetasun elementuekiko intolerantzia jarrera horiei aurre egiteko helburuz, zuzenbide komunitarioan aldaketa batzuk gauzatu ziren.

Lehenik eta behin, EBko Komisioak arriskuen ebaluaketa zientifikoko prozedurak erreformatu egin zituen. Alde batetik, Komite zientifiko eta agentzia komunitario desberdinei arriskuen ebaluaketa zientifikoa egitean irizpide komunak aplikatzeko betebeharra ezarri zitzairen. Bestetik, ebaluaketa prozedura berriek arriskuen ziurgabetasun zientifikoekiko intolerantzia jarrerekin amaitzea zuten helburu. Horren orde, komite zientifiko eta agentzia komunitarioei ziurgabetasun zientifikoak ahalik eta hobekien identifikatu, aztertu eta ebaluatu ditzatela eskatzen zaie. Bigarrenik, ziurgabetasun zientifiko inguratutako arrisku teknologiko berriek zuzenbidea arretaren paradigma berria aktibatzen behartzen dute. Arreta printzipioa, ziurgabetasun zientifiko inguratutako arrisku larriak kudeatzeko diseinatuta dagoena, zuzenbide komunitarioaren printzipio orokorra bihurtu da. Arreta printzipioak ondorengo eskatzen du: arrisku batek osasun edo ingurumenen kalte esanguratsuak eragin ditzakeela arrazoizko zantzuak daudenean, baina eskuragarri dagoen informazio zientifikoa arrisku hori frogatzeko nahikoa ez denean, arrisku potentzial horiek ekiditeko edo mugatzeko neurri juridikoak hartzea, ezagutza zientifikoa osatu eta zantzu horiek erabat frogatuta geratu arte itxaron beharrean.

6.- Agintari eskudunek, arrisku teknologiko berrien ziurgabetasun zientifikoek zuzenbidearen ikuspegitik planteatutako erronken aurrean, desafio horien erantzun juridikoak ezagutza zientifiko eta tekniko adituan bilatu eta sostengatu dituzte. “Zuzenbidearen norabide zientifista” edo “zientzia arautzailea” bezala definitu den jarrera hori zuzenbidearen funtzionamenduaren ikuspegitik erabat okerra izan da. Estrategia horrek ez du ziurgabetasun zientifikoaren gainean ziurtasun juridikoak eraikitze balio izan, eta zuzenbidea ahulezia posizio batean utzi du teknozientzia antolatuen interes ekonomikoen aurrean. Funtsean, instantzia politiko eta juridikoen eskumenpekoak diren erabakien translazioa gertatu da: erabakiak formalki instantzia publikoek hartzen badituzte ere, erabakien eduki materiala errealitatean instantzia zientifiko eta teknikoek zehazten dute. Forma juridikoa duten erabaki zientifiko-teknikoak dira, beraz.

7.- Arrisku teknologiko berrien tratamendu juridikoaz haratago, XX. mendearen amaieran EBko instituzio komunitarioen funtzionamendu tradizionalak ere hondoa jo zuen. Agintari komunitarioek gizarteari eragin ziezaieketen erabaki garrantzitsuak onartzerako orduan, ez zioten gizarteari informazioa gardentasunez transmititzen, ezta erabakitze-prozesuan parte hartzeko mekanismo formalik eskaintzen ere (“defizit demokratiko” edo “legitimazio hutsunea” bezala deskribatu den egoera). Horren ondorioz, herritarren artean Europar Batasunarekiko ezjakintasuna, hurbiltasun eza eta konfiantza falta nagusitu ziren. Krisi politiko horrek bultzatuta, XXI. mendearen hasieran Europar Batasunak “governantza” izeneko estrategia politiko-juridiko berria martxan jarri zuen. Estrategia horrek ondorengo helburua zuen: funtzionamendu komunitarioak irekitasun, gardentasun, parte-hartze publiko eta kontu ematea bezalako aspektuetan zituen gabeziak gainditzea. Governantza berriaren estrategiak martxan daramatzen urte hauetan aldaketa normatibo garrantzitsuak izan dira, bai jatorrizko zuzenbide komunitarioan (EBT, EBFT eta EBOEG oinarrizko

tratatu komunitarioetan), baita zuzenbide komunitario osagarrian ere. Aldaketa normatibo horiek hiru norabidetan gertatu dira bereziki.

Alde batetik, gobernantza komunitario berriak araugintza prozedura malguago baten aldeko apustua egin du. Izaera juridiko loteslea duten *hard law* instrumentu normatibo tradizionalak erabiltzeaz gain, beste instrumentu batzuen erabilera areagotu egin da, hala gomendio izaera duten *soft law* arauena, nola aktore publiko eta pribatuen arteko elkarlana uztartzen duten ko-arauketena.

Bestetik, informazio publikorako sarbide eskubideak garapen normatibo esanguratsua izan du, batez ere ingurumen informazio publikoaren kasuan. Eskubide hori instituzio komunitarioaren funtzionamenduaren gardentasuna eta kontrol demokratikoa egikaritzeko ezinbesteko bermea da.

Azkenik, instituzio komunitarioen funtzionamendu demokratikoagoa lortzeko helburuz, erabaki politiko eta juridikoen onartze prozeduretan parte-hartze publikoko mekanismo juridikoak aurreikusi dira. Parte-hartze publikoko mekanismo horien egikaritzak ordea, bereziki gizarte zibil antolatuari, ez dio benetako parte-hartze materiala bermatzen. Alegia, parte-hartze mekanismo horiei esker, gizarte zibilak ekimen politiko eta legegileen erabakitze-prozeduretan parte hartzeko eta beren ahotsa agintari eskudunei entzunarazteko gaitasun formala badu ere, agintari eskudunek ondoren hartzen dituzten erabaki politiko eta legegileetan gizarte zibilaren ekarpenak ez dituzte maiztasunez kontuan hartzen: *nothing but consultation* (kontsultatua, baina ez kontuan hartua). Funtsean, instituzio komunitarioek (bereziki EBko Komisioak) parte-hartze publikoko mekanismo formal horiek azken erabaki politiko eta legegileak legitimotasun faltsu batez hornitzeko erabiltzen dituzte, era horretan, erantzukizun politiko posibleetatik salbuetsiz.

8.- Nanoteknologien ikerketa, ekoizpen, erabilera eta komertzializazioak ordenamendu juridikoetan babesten diren oinarriko ondasun juridiko, giza eskubide, balio eta interes legitimo desberdinei eragiten die. Beraz, zuzenbidea behartuta dago erabakiak hartzera, hots, nanoteknologien ziurgabetasun zientifikoaren gainean ziurtasun juridikoak eraikitzen eta etorkizunari begira teknologia horiek planteatzen dituzten erroka desberdinei erantzun juridiko aproposak ematera. Nanoteknologien arriskuen gobernantza komunitarioaren eraikuntzan hainbat elementu hartu behar dira kontuan, beste teknologia berrien arriskuen onargarritasuna (edo “arrisku legalizatua”) erabakitzeko prozesuetan gertatu diren akatsak errepikatu ez daitezkeen.

Alde batetik, nanoteknologien arriskuen onargarritasuna eraikitzekeo prozesua ez da teknologia horren onura eta arrisku potentzialen analisi eta eztabaidara soilik mugatu behar. Arrisku teknologiko berrien tratamendu juridikoaren “norabide zientifista” gaintu egin behar da eta arriskuen ebaluaketa fasean, arriskuen ebaluaketa zientifikoaz gain, beste elementu osagarri batzuk ere ebaluatu behar dira: nanoteknologien garapenak sorrarazitako kezka sozio-ekonomiko eta etikoak, baita giza eskubideen ikuspegitik sortu daitezkeen erroka berriak ere. Beraz, nanoteknologien arriskuen onargarritasuna erabakitzeko prozesua ez da *how safe is safe enough?* (zein segurtasun maila da nahikoa seguru?)

galderari erantzutera mugatu behar. Egin beharreko galdera hurrengoa da: *how fair is safe enough?* (zein justua izan behar da nahikoa segurua izateko?).

Bestetik, nanoteknologien gobernantza komunitarioa dagoeneko aipatu diren hiru oinarritzko printzipio komunitariotan sustraitu behar da: gardentasun, parte-hartze publiko eta arreta printzipioetan, hain zuzen ere.

Gardentasun printzipioan oinarritutako mekanismo normatiboek informazio fluxu publikoa ahalik eta zintzoen, zabal, gardenen eta objektiboena izatea bermatu behar dute. Neurri horien helburua laukoitza da. Lehenik eta behin, nanoteknologien ezagutza zientifiko-tekniko asimetrikoari (4. ondorioan azaldu dena) buelta ematen laguntzea. Bigarrenik, gizarte zibilak nanoteknologiekiko duen ezagutza maila areagotzea, gaur egun oso baxua baita. Hirugarrenik, langileek, kontsumitzaileek eta medikuntza eremuan pazienteek nanoteknologiekiko duten informazio eskubidearen egikaritzea errespetaraztea. Laugarrenik eta azkenik, botere publikoek nanoteknologien “arrisku legalizatuaren” parametro normatiboak errespetatu eta errespetarazten dituztela publikoki kontrolatu ahal izatea, informazio publikorako sarbide eskubidearen egikaritzea bermatzailearen bidez.

Parte-hartze publikorako printzipioak eskatzen du nanoteknologien “arrisku legalizatu”, legala izateaz gain, legitimoa ere izatea. Nanoteknologien garapenak sorrarazi ditzakeen onura eta kalte potentzialek gizarte osoari —gaur egungo eta etorkizuneko belaunaldiei— eragin diezaieke. Beraz, gizartea beste alderdi interesdunekin batera —besteak beste industria nanoteknologikoa, GKEak, langile eta kontsumitzaileen elkarteak edo adituak— nanoteknologien garapen prozesuaren funtsezko elementua bihurtzen da. Erabaki horien azken hitza agintari publiko eskudunek badute ere, *nothing but consultation* jarrerak saihestu behar dituzte. Nanoteknologien “arrisku legalizatuak” behar adinako legitimotasuna izan dezan beraz, agintari eskudunek nanoteknologien erabaki politiko eta juridikoak hartzean, parte-hartze publikoko prozesuetatik eratorritako ondorio nagusiei eta adostasun puntuei zor zaien pisua aintzatetsi behar diete.

Arreta printzipioak berebiziko papera jokatu behar du nanoteknologien arriskuak kudeatzeko eraiki behar den kontrol sistema normatiboan. Esan bezala, nanomaterialen manufakturatuen esposizio eta efektu kaltegarrien inguruan existitzen den ziurgabetasun zientifikoa esanguratsua da. Bestalde, material horietako batzuek osasunean eta ingurumenean kalte larriak eta atzerazineki buruzko arrazoizko zantzu zientifikoak daude. Zirkunstantzia horietan arreta printzipioa aktibagarria da eta, beraz, nanomaterialen inguruan egituratu beharreko arreta neurrien helburua bikoitza izan behar da. Alde batetik, nanomaterialen arrisku potentzialen aurrean osasunaren eta ingurumenaren babes maila altua bermatzea eta, bestetik, nanoteknologien ezagutzaren garapen asimetrikoaren egoerari buelta ematen laguntzea.

9.- Nanoteknologien arriskuen gobernantzak etengabeko bilakaera normatiboa izan du XXI. mende hasieran. Gobernantza horren erradiografia orokor bat eginez gero, eremu, aktore eta instrumentu normatiboen heterogeneotasuna nabarmendu daiteke. Alde batetik, nanoteknologien arauketa ekimenak nazioarte mailan, Europar Batasunean, Estatu mailan eta maila erregional eta lokalean eraman dira aurrera. Bestetik, botere publikoek ez-ezik

sektore pribatuetako aktore desberdinek ere arauketa prozesu horretan zeresana izan dute. Alde horretatik, nanoteknologiaren arriskuen gobernantzaren osaketan izaera anitzeko instrumentu normatiboak erabili dira. Jatorri publikoa eta izaera loteslea duten *hard law* arau juridiko tradizionalak harago, iturburu publikoa eta izaera ez-loteslea (gomendio izaera) duten *soft law* arau malguagoen erabilera esanguratsua izan da. Botere publikoek *soft law* arau horiek industria nanoteknologikoaren borondatezko lankidetzara sustatzeko erabili dituzte. *Hard* eta *soft law* mekanismo normatibo publikoekin batera, ko-arauketa ekimenak eta sektore pribatuak onartutako *self regulation* instrumentuak ere azpimarratu behar dira.

10.- Oinarrizko tratatu komunitarioetan aurreikusitako eskumenak baliatuz, Europar Batasunak, Komisioaren gidaritzapean, 2004. urtetik aurrera nanoteknologiaren garapenaren estrategia politiko-juridiko komunitarioari hasiera eman zion. EBko Komisioak, nanomaterialeri aplikagarri zaizkien marko normatibo desberdinen berrikuspena egin ostean [COM (2008) 366 final Communication], doktrinak “hutsuneak bete” izenarekin bataiatu duen estrategia normatiboa martxan jarri zuen. Komisioak lau urte geroago egin zuen bigarren berrikuspen normatiboan [COM (2012) 572 final Communication] estrategia normatibo hori berretsi egin zuen. Komisioaren aburuz, nanomaterialeri aplikagarri zaizkien arauketa konbentzionalek orokorrean mekanismo juridiko aproposak eskaintzen dituzte nanomaterialen arrisku potentzialen aurrean osasun, segurtasun eta ingurumenari babes maila altua bermatzeko. Hortaz, enborrezko aldaketa normatiboak egikaritu behar diren arauketa komunitarioa nanomaterialen berezitasunetara egokitze egin behar diren aldaketa normatiboak azalekoak eta puntualak izan behar dira. Bestalde, Komisioak nanomaterialen arriskuen gobernantzan *soft law* instrumentu malguagoak erabiltzea defendatzen du.

EBko Legebiltzarrak, ordea, Komisioak defendatu eta gidatutako estrategia normatiboa gogor kritikatu du. Legebiltzarraren ustez, “hutsuneak bete” estrategia normatiboak ez du gaitasunik nanomaterial eta nanoproduktuen erabilera eta segurtasunari buruz dagoen informazio hutsunearen arazoari aurre egiteko. Estrategia horren ordez, nanomaterialeri aplikagarri zaizkien arauketa sektorial desberdinetan enborrezko aldaketa normatiboak egin behar direla defendatzen du Legebiltzarrak. Industria nanoteknologikoa orokorrean Komisioak defendatutako strategiaren alde azaldu da. Estatu-kide, GKE, kontsumitzaile eta langileen elkarte eta adituen artean, berriz, Legebiltzarraren proposamenen aldeko iritziak nagusi dira.

11.- Jatorrizko zuzenbide komunitarioak EBko Legebiltzar eta Kontseilu eta Komisioari eskumen normatibo desberdinak aurreikusten dizkie. EBko Legebiltzarrak eta Kontseiluak funtzio legegile komunitario partekatua dute, baina ez dute prozedura legegilerik martxan jartzeko eskumenik. Izan ere, EBko Komisioa da ekimen legegileak aurkezteko ia eskumen eksklusiboa duena. Ondorioz, nanomaterialeri aplikagarri zaizkien marko sektorialen enborrezko aldaketa normatiboak martxan jartzeko giltza Komisioaren eskuetan dago. Komisioak, ordea, nanomaterialeri aplikagarri zaizkien arauketa sektorial batzuk erreformatzeko proposamen legegileak aurkeztu dituen ia kasu gehienetan, ez du

nanomaterialen arauketa proposamenik egin. Komisioaren ordezkari Legebiltzarra izan da, prozedura legegilean, nanomaterialen kontrolerako xedapen normatibo espezifikoak proposatu dituen. Kontseiluarekin adostasuna izan duten kasuetan, EBko Legebiltzarraren emendekin legal horiek behin betiko testu normatiboetan onartuak izan dira. Zehazki, produktu kosmetiko, biozida, elikagai eta aparatu elektriko eta elektronikoaren testu normatibo batzuetan.

Komisioak, ordea, bere estrategia normatiboari irmoki jarraitu dio eta *soft law* izaera duten borondatezko neurri desberdinak onartu ditu. Alde batetik, bi gomendio onartu ditu; bata, nanomaterialen definizio komunitario orokorra (2011/696 Gomendia) eta bestea, nanozientzien eta nanoteknologiaren ikerketa arduraturako portaera kodea (2008/345 Gomendia). Bestetik, EBko Komisioak eta ECHA, EFSA eta EU OSHA Agentzia komunitarioek orientazio gida batzuk argitaratu dituzte, nagusiki industria nanoteknologikoari zuzenduta. Gida horien helburua hau da: nanomaterialei aplikagarri zaizkien marko normatiboaren betearazpena argitu eta erraztea.

12.- EBko Komisioak gidatutako “hutsuneak bete” estrategiaren ondorioz, nanomaterialen arriskuen gainean orain arte eraikitako gobernantza komunitarioak gabezia garrantzitsuak islatzen ditu lehenago aipatu diren gardentasun, parte-hartze publiko eta arreta printzipioaren prisma aztertuta.

Gardentasun printzipioaren ikuspegitik aztertuta, nanomaterialen industrien inguruan existitzen den informazio publikoaren defizitak esanguratsua izaten jarraitzen du. Industria nanoteknologikoak agintari eskudunei nanomaterialei buruz ahalik eta informazio gutxien transmititzeko jarrera hartu du. Testuinguru horretan, EBko Estatu-kide diren Frantziak, Belgikak, Danimarkak eta Suediak nanomaterialen derrigorrezko erregistro nazionalak abian jartzea erabaki dute, defizit informatibo hori beren lurralde eremuan gerta ez dadin. Maila komunitarioan gabezia informatibo horri aurre egiteko, nanomaterialen erregistro komunitario zentralizatu bat martxan jartzea aukera normatibo eraginkorra izan daiteke. Hala ere, EBko Komisioa instrumentu normatibo horren aurka azaldu da orain arte, industria nanoteknologikoaren lehiakortasunari behar baino kalte gehiago eragingo liokeen neurria dela argudiatuz.

Parte-hartze publikorako printzipioaren prisma aztertuta, alderdi interesdunentzat nanoteknologiaren gobernantza komunitarioaren eraikitze-prozesuan parte hartzeko aukerak eskaini zaizkie, bereziki, Komisioak egin dituen kontsulta publiko ugarietan. Alderdi interesdun guztiek (gizarte zibilak barne) parte hartzeko aukera izan badute ere, Komisioak aipatu alderdien aldarrikapenei tratamendu desorekatua eman die hartu dituen erabaki politiko eta juridikoetan. Industria nanoteknologikoaren interes ekonomikoek oihartzun handia dute erabaketan. Beste alderdi interesdunen aldarrikapenak (bereziki GKE, kontsumitzaile eta langileen elkarteak), berriz, ez dira orokorrean kontuan hartuak izaten ari. Beraz, nanoteknologiaren gobernantza komunitarioan ere *nothing but consultation* jarreraz hitz egin behar da.

Nanomaterialei aplikagarri zaizkien marko normatibo komunitario desberdinek arreta printzipioa espresuki aurreikusten dute. Marko normatibo horiek, ordea (gehienak

nanomaterialen berezitasunetara juridikoki egokitu gabeak), nanomaterialak identifikatu, beren esposizioa neurtu eta funtsean beren arriskuak kontrolatzeko gabezia juridiko-tekniko garrantzitsuak islatzen dituzte. Ondorioz, marko komunitario horiek nanomaterialeri aplikatzen dizkieten kontrol sistema normatiboak, orokorrean, ez datoz arreta printzipioarekin bat. Gabezia horien ondorioz, esparru komunitarioan nanomaterial eta nanoproduktu gehienak osasunarentzat edo ingurumenarentzat seguruak direla behar bezala frogatu gabe ekoitzi, erabili eta komertzializatzen ari dira, beren hondakinen tratamenduaz ahaztu gabe.

13.- Nanomaterialen definizio juridikoa nolakoa izan, beren arriskuak kudeatzeko kontrol sistemaren aplikazio eremu materiala halakoa da. Arriskuaren tratamendu juridikoaren ikuspegitik aztertuta, definizio horren helburua ondorengoa litzateke: makro-eskalarekin erkatuz gero, nano-eskalan arrisku profil desberdin eta larriagoa duten materialak barne hartzea. Nanomaterialeri buruz komunitate zientifikoak duen ezagutza maila baxuaren ondorioz, gaur egun arriskuan oinarritutako horrelako definizio juridikorik egituratzea ez da batere erraza izaten ari. Nazioarteko ISO estandarizazio erakundeak, 2008an, nanomaterialak definitzeko partikulen tamainaren irizpidea erabiltzea erabaki zuen. ISOren definizioaren arabera, material bat nanomateriala da bere partikulen kanpo dimentsioetako batek edo barne estrukturak 1-100 nanometroko tamaina duenean. Partikulen tamaina tarte horren (1-100 nm) eta nanomaterialen propietate fisiko-kimiko berri eta bereizgarrien artean lotura-harreman zuzenik existitzen ez bada ere, ISOk erabilitako partikulen tamaina tarte hori nanomaterialak juridikoki definitzeko irizpide nagusia bihurtu da.

Zuzenbide komunitarioan, produktu kosmetikoen, elikagaien eta bioziden marko normatiboek, bakoitzak bere nanomaterialen definizio juridiko propioa aurreikusi dute. Bestalde, EBko Komisioak, 2011/696 Gomendioaren bidez, nanomaterialen definizio komunitario orokorra proposatu du. Definizio bakoitzak irizpide desberdinak erabiltzen ditu eta beraz, marko normatibo horietako bakoitzak nanomaterialen definizioaren aplikazio eremu material zabalagoa edo murriztagoa aurreikusten du. Denbora igaro eta ezagutza zientifiko-tekniko berriak eskuratu ahala, nanomaterialen definizioan bilakaera normatibo bat nabari da. Definizio guzti horietan 1-100 nanometroko tamainaren irizpideak ardatzeko elementu izaten jarraitzen badu ere, 1-100 nanometroko tamaina tarte irizpide absolutua izatetik (kosmetikoen 1223/2009 Erregelamenduaren definizioan) erlatiboa izatera pasa da. Definizio batzuk arreta ipintzen hasiak dira, tamaina tarte horretatik kanpo egonda ere, nano-eskalaren berezko propietateak izan ditzaketen materialetan. Arriskuaren tratamendu juridikoaren ikuspegitik aztertuta, onartu diren definizio juridikoen artean aproposena kontsumitzaileen elikadura informazioari buruzko 1169/2011 Erregelamenduan aurreikusitakoa da (Legebiltzarrak proposatutako definizioa hain zuzen ere). Izan ere, tamainaren irizpidez gain, definizio horrek nanomaterialen propietate espezifikoak nanomaterialak definitzeko irizpide erabakigarri bezala egituratzen ditu.

14.- Produktu kimikoen marko komunitarioak, 1907/2006 Erregelamenduaren (REACH) eta 1272/2008 Erregelamenduaren (CLP) bidez arautua, substantzia kimikoen bizitza ziklo

osoari (ekoitziak direnetik beren hondakinak tratatzen diren arteko fase guztiei) eragiten dien kontrol sistema integrala egituratzen du. Kontrol sistema horrek substantzia kimikoen erregistro, ebaluaketa, baimena, erabilera edo komertzializazio mugapenak, sailkapena, etiketapena eta ontzirapena bezalako neurri administratiboen bidez funtzionatzen du. Nanomaterial manufakturuak izatez substantzia kimikoak direnez, kontrol sistema integral hori aplikagarri zaie. Nanomaterial manufakturatuen arrisku potentzialen aurrean, produktu kimikoen marko normatiboak neurri administratibo aproposak aurreikusten ditu nanomaterialek beren bizitza zikloan zehar dituzten esposizio-eskenatokiak identifikatu, beren trazabilitatea egin eta beren arrisku potentzialen gainean osasun eta ingurumenaren babes maila altua bermatzeko.

Ezagutza adituaren esanetan (EBko Legebiltzarra eta prestigiodun erakunde publiko eta pribatu anitz barne), nanomaterialen kontrol espezifikoko hori aurrera eramateko REACH eta CLP Erregelamenduetan enborrezko aldaketa normatiboak egitea ezinbestekoa da. EBko Komisioak, ordea, REACH eta CLP Erregelamenduen berrikuspen normatiboaren prozesua hasteari ateak itxi egin dizkio orain arte. Jarrera normatibo inmobilita horri egin zaizkion kritikek bultzatuta, Komisioa azkenaldian erregelamendu horien eranskinetan azaleko aldaketa normatibo puntualak egiteko aukera aztertzen ari da. Enborrezko aldaketa normatiboaren ordez, Komisioak borondatezko orientazio gidaren alde egin du eta ECHA Agentzia Komunitarioak 2014an orientazio gida bat argitaratu zuen. Gida horren helburua industria nanoteknologikoari REACH eta CLP erregelamenduen kontrol sistemaren betearazpena argitu eta erraztea da.

Komisioak defendatutako estrategia horrek industria nanoteknologikoaren interes ekonomikoari mesede egiten dien bitartean, ez da gai osasun eta ingurumenaren babes maila altua bermatzeko. Industria kimikoarentzat, nanomaterial forman ekoizten dituen substantzia kimikoari buruzko informazio datu espezifikokoak agintari eskudunei transmititzea gomendio hutsa besterik ez da. Ondorioz, agintari komunitarioek nanomaterialen erabilera eta komertzializazioari buruz eskuragarri duten informazioak oso eskasa izaten jarraitzen du, industria nanoteknologikoak ahalik eta informazio gutxien transmititzeko jarrera hartu baitu. Informazio defizit horrekin batera, REACH eta CLP Erregelamenduetan aurreikusitako mekanismo administratiboek hutsune nabarmenak islatzen dituzte nanomaterialen berezitasunak identifikatu, beren trazabilitatea egin eta beren arriskuak egokitasunez ebaluatu eta kudeatzeko.

Gabezia normatibo horiek gainditzeko, alde batetik, REACH eta CLP Erregelamenduetan nanomaterialak esanbidez definitu egin behar dira eta, bestetik, erregelamendu horien mekanismo administratiboetan arreta printzipioarekin bat datozen enborrezko aldaketa normatibo ugari egin behar dira. Aldaketa normatibo horien artean batek duen garrantzia nabarmendu behar da. REACH Erregelamenduan aurreikusitako “substantzia bat, erregistro bat” printzipioari jarraiki, nukleo kimiko berdina baina propietate fisiko-kimiko desberdinak dituzten makro eta nano-eskalako substantziei tratamendu juridiko berezia eman behar zaie. Bi modutan eraman daiteke aurrera. Lehenengo aukera, nanomaterialak substantzia kimiko berri bezala tratatzea izan daiteke. Bigarrena, nanomaterialak nukleo kimiko berdina duten makro-eskaladun substantzien forma zehatz bat bezala tratatzea izan daiteke (substantzia berri bezala ez beraz).

15.- Plagizidak, funtzio konkretu batzuetarako erabiltzen diren produktu kimikoak dira. Zehazki, landare, animalia edo gizakientzat kaltegarriak diren organismoak suntsitu, indargabetu, beren efektuak saihestu edo kontrolatzeko erabiltzen dira. Landareak (bereziki nekazaritza lurrak) babesteko erabiltzen diren plagizidak “produktu fitosanitarioak” dira eta 1107/2009 Erregelamenduak produktu horiek merkatu komunitarioan komertzializatzeko baldintzak arautzen ditu. Produktu fitosanitarioez aparte plagizida funtzioetarako erabiltzen diren beste produktu kimikoei “biozida” deritze eta beren komertzializazio baldintzak 528/2012 Erregelamenduan arautzen dira. Nanomaterialei bi erregelamendu horiek aplikagarri bazaizkie ere, nanomaterialen arriskuak espezifikoki kontrolatzeko xedapen normatiboak bioziden 528/2012 Erregelamenduak soilik aurreikusi ditu.

Bioziden 528/2012 Erregelamenduak mekanismo administratibo espezifikoki batzuk aurreikusten ditu nanomaterial osagaiak erabiltzen dituzten biozidak merkaturatu aurretik osasun eta ingurumenarentzat seguruak direla bermatzeko. Nanomaterialen arriskuen tratamenduari dagokionez ordea, erregelamendu horren arazo nagusia mekanismo administratibo espezifikoki horiei aurreikusten zaien aplikazio eremu material murrizta da. Izan ere, bioziden erregelamenduak nanomaterial definitzeko EBko Komisioaren 2011/696 Gomendioan proposatutako “granulometria numerikoa” izeneko irizpidea erabiltzen du, eta berez, nanomaterialen arriskuen tratamendu juridiko arretatsuen aurka doa. Irizpide eztabaidagarri horren arabera, substantzia baten partikulen kopuru osoaren %50ak gutxienez nanometro 1 eta 100 arteko tamaina izan behar du, efektu legalei begira, substantzia hori nanomateriala kontsideratua izan dadin. Irizpide horren ondorioz, nano-eskalaren berezko efektuak dituzten material ugari nanomaterialen definizio juridikotik kanpo geratzen dira eta kontsekuenteki, baita nanomaterialei aplikagarri zaien mekanismo administratibo espezifikokoaren aplikazio eremutik kanpo ere. SCENIHR komite zientifiko komunitarioak, ordea, %50eko portzentaje hori kritikatu eta %0,15ekoa izan beharko litzatekeela defendatu du.

Produktu biozidek, komertzializatzen hasi aurretik, kontrol bikoitza gainditu behar dute. Alde batetik, biozidetan erabiltzen diren substantzia aktiboek baimen prozedura bat gainditu behar dute. Bestetik, biozidek ere beste baimen prozedura bat gainditu behar dute komertzializatu ahal izateko. 528/2012 Erregelamenduak bi baimen prozedura horietan nanomaterialei aplikagarri zaizkien kontrol neurri espezifikoki aurreikusten ditu. Substantzia aktibo bat nanomaterial forman erabili nahi izanez gero, baimen eskatzaileak agintari eskudunei inguruabar hori jakinarazi behar die baimen prozeduran zehar. Baimen eskatzaileak, gainera, nanomaterialari aplikatu dizkion entsegu metodoen egokitasun zientifikoa justifikatzeko karga dauka. Substantzia aktiboak prozedura gainditu eta baimena lortzen duen kasuetan, agintari eskudunek substantzia hori nanomaterial forman erabiltzea espresuki baimendu behar dute. Kontrako kasuan, substantzia aktibo hori nanomaterial forman erabiltzea debekatu egiten du erregelamenduak. Bestalde, biozidek komertzializatzeko eskuratu behar duten baimenari dagokionez, nanomaterial osagairik erabiltzen duen biozidari baimen sinplifikatuko prozeduraren ateak itxi egiten zaizkio. Ondorioz, nanomaterialdun biozidak prozedura arruntaren bidez soilik izan daiteke baimenduak, informazio eskakizun zorrotzagoak eta segurtasun ebaluaketa bat gainditu

behar izatea exijitzen duen baimen prozeduraren bidez hain zuzen ere. Nanomaterialdun biozidek komertzializatzeko baimena lortzen duten kasuetan, produktuaren etiketapenaren bidez kontsumitzaileari nanomaterialen presentzia ezagutaraztera eman behar zaio. Zentzu horretan, produktuaren etiketan nanomaterial osagaiaren ondoan “nano” atzizkia idatzita agertu behar da eta nanomaterial horrek izan ditzakeen arrisku posibleen ohartarazpenak egin behar dira.

16.- Nanomaterialak produktu kosmetikoen osagai bezala ere erabiltzen dira. Zuzenbide komunitarioan, produktu kosmetikoen 1223/2009 Erregelamenduak nanomaterialei kontrol sistema espezifiko bat aurreikusi die, neurri administratibo desberdinez osatua: nanomaterialen ezaugarriei buruzko informazio jakinarazpen gehigarria, produktu kosmetikoetan erabilitako nanomaterial baten segurtasun zalantzen aurrean EBko Komisiaoak aktibatu dezakeen prozedura, produktu kosmetikoetan erabilitako nanomaterialen katalogo publikoa (oraindik argitaratu ez dena nahiz 2014ko uztaileko prest egon behar zen) eta azkenik, kosmetikoetan erabilitako nanomaterial osagaien derrigorrezko etiketapena. Horrez gain, kosmetikoetan erabiltzeko mugapenak dituzten substantziak (III. Eranskinean zerrendatuak) eta kosmetikoetan koloratzaile, kontserbagarri eta filtro ultramore bezala erabiltzeko baimenduta dauden substantziak (IV-VI Eranskinean zerrendatuak) arau orokor bezala nanomaterialdun forman erabiltzea debekatu egiten du erregelamenduak. Eranskin horietan zerrendatutako substantziak nanomaterialdun forman erabili ahal izateko, nanomaterial horiek aldeztetik eranskin horietan barneratu behar dira eta, horretarako, SCCS komite zientifikoak aldeztetik beren arriskuak ebaluatu eta kosmetikoetan erabiltzeko seguruak direla frogatuta geratu behar da. SCCS komite zientifikoak 2012an orientazio gida bat argitaratu zuen, azaldu berri den kontrol sistema espezifiko horren betearazpena argitu eta errazteko helburuz.

Kontrol sistema horren aplikazio eremu materiala, ordea, murriztegia da. Alde batetik, 1223/2009 Erregelamenduan nanomaterialen definizioa 1-100 nanometro dundun partikula tamaina eta propietate disolbaezin edota bio-iraunkorrak dituzten materialen manufakturatuei soilik zaie aplikagarri. Bestalde, azaldu berri diren mekanismo administratibo batzuk ez zaizkie 1223/2009 Erregelamenduaren arabera nanomaterialak kontsideratzen diren material guztiei aplikatzen. Salbuespen normatibo horietako batzuk, nanomaterialen arriskuen tratamenduaren ikuspegitik aztertuta, justifikatuak egon daitezke. Beste salbuespen batzuek, ordea, ez dute horrelako justifikaziorik aurkitzen eta, beraz, arreta printzipioaren aurka doaz.

17.- Elikadura industriak ere ez die nanoteknologiaren iraultza hotsei entzungor egin. Nanomaterialak elikagai eta pentsu produktu desberdinetan erabiltzen eta komertzializatzen dira dagoeneko: elikagaien konposaketa aldatzen duten prozesamendu teknikan, elikagaien funtzioak hobetzea xede duten elikagai-gehigarrietan edota elikagaien edukiontzietan (FCM). Zuzenbide komunitarioan, elikagai eta pentsu produktuen marko normatiboa arauketa sektorial anitzetan banatzen da. Hala ere, kontrol azpi-sistema normatibo guzti horiek sistema normatibo global eta integral baten parte dira, 178/2002 Erregelamenduaren inguruan orbitatzen baitute. Nanomaterialen arriskuen

kontrolerako neurri espezifikoak, ordea, erregimen komunitario horren esparru sektorial batzuetan eta modu partzialean bakarrik aurreikusten dira.

Nanomaterialei buruz berriazko arauketa onartu ez duten sektore normatiboen artean, elikagai berrien arauketa komunitarioa nabarmendu behar da, elikagaien marko komunitarioan nanomaterialen oinarritzko baldintza normatiboak egituratzeko arauketa sektorial aiposena baita. Izan ere, elikagai bati nanomaterialik nahita erantsiz gero, efektu legalei begira elikagai berri baten aurrean gaude, eta, beraz, 258/97 Erregelamenduan aurreikusitako kontrol sistema aplikagarri zaie. Elikagai berrien 258/97 Erregelamendua nanomaterialen berezitasunetara egokitzeko helburuz 2008an berrikuspen prozedura normatibo bat martxan jarri bazen ere, EBko Komisioaren, Kontseiluaren eta Legebiltzarraren artean zeuden desadostasunen ondorioz, prozedura hori bertan behera geratu zen. Elikagaien sistema normatibo komunitarioan nanomaterialen oinarritzko arauketarik onartuta ez egotea osasunaren babes maila altua bermatzeko zereginean faktore erabat negatiboa da.

Hala ere, elikagaien marko normatibo sektorial batzuen arauketa konkretu batzuetan nanomaterialen berriazko kontrol neurri batzuk aurreikusi dira, zehazki, elikagai gehigarri, FCM produktu eta kontsumitzaileen elikadura informazioari buruzko arauketetan.

Elikagai gehigarri batzuen (elikagai osagarri, aroma eta entzimak) eta FCM produktu batzuen (material eta objektu plastiko, aktibo eta adimentsuak) kasuan, produktu horietan nanomaterialik erantsi nahi izatekotan, araudiak arau orokor bezala nanomaterialen erabilera espresuki ebaluatu eta baimentzea exijitzen du. Baimendutako substantzien eranskinean dagoen substantzia bat nanomaterialdun forman erabili nahi izatekotan ere, substantzia horrek EFSA Agentzia komunitarioaren berrebaluaketa zientifikoa jasan behar du. Bestalde, EFSAk 2014an inbentario publiko bat argitaratu zuen, nanomaterialak erabiltzen dituzten elikagai, pentsu eta FCM produktuak biltzen dituen. Haatik, inbentario publiko horrek ez du gaitasunik merkatu komunitarioan komertzializatzen diren nano-elikagai produktuen osotasuna barne hartzeko, inbentarioaren lanketarako informazio-iturri ez ofizialak erabili baitziren.

Azkenik, kontsumitzaileen elikadura informazioa arautzen duen 1169/2011 Erregelamendua, elikagaien sistema normatibo komunitario osoan nanomaterialak espresuki definitzen dituen arau bakarra da. 1169/2011 Erregelamenduaren arabera, nanomaterial osagaiak erabiltzen dituzten elikagai produktuek inguruabar hori beren etiketan esanbidez adierazi behar dute, osagaiaren ondoan "nano" atzizkia erantsiz. Zuzenbide komunitarioan nanomaterialei buruz onartu diren definizio juridiko guztien artean, arriskuaren tratamendu juridikoaren ikuspuntutik aztertuta, hura da definiziorik bermatzaileena.

18.- Azken atal hauetan aztertu den bezala, produktuen marko normatibo komunitarioa nanomaterialen berezitasunetara partzialki bakarrik egokitu da. Marko normatibo horri gaitasun juridiko-teknikoa falta zaio merkatu komunitarioan ekoitzi, erabili eta komertzializatzen diren nanomaterial eta nanoproduktuei buruzko informazioa industria

nanoteknologikotik agintari eskudunetara, eta azken horietatik kontsumitzaileengana transmititzen dela bermatzeko. Defizit informatibo horrekin lotura estuan, marko normatibo zabal horrek ere ez du merkatu komunitarioan komertzializatzen diren nanoproduktuak kontsumitzaileen osasunarentzat seguruak direla bermatzeko gaitasun nahikorik erakusten.

Nanomaterialen informazioa industria nanoteknologikotik agintari eskudunetara, eta horietatik kontsumitzaileengana transmititzen dela bermatzeko, mekanismo administratiboek arreta printzipiotik eratortzen den *no data, no market* (daturik gabe, merkaturatzerik ez) printzipioan izan beharko lukete oinarri, produktu kimikoen marko komunitarioan aurreikusten den printzipioa, alegia. Printzipio hori nanomaterialen kasu partikularrari aplikatuz gero, industria nanoteknologikoak ezingo luke nanoprodukturik komertzializatu agintari eskudunei nanomaterialei buruzko informazio espezifikorik transmititu ezean. Zentzu horretan, *no data, no market* printzipioaren harira egituratu daitezkeen mekanismo administratibo desberdinen artean, bi nabarmendu daitezke: nanomaterial eta nanoproduktuen erregistro komunitario zentralizatua eta nanoproduktu guztien derrigorrezko etiketapena.

Informazio publikoaren defizitari aurre egitea xede duten bi mekanismo horiekin batera, neurri desberdinak jarri behar dira martxan nanoproduktuak merkatu komunitarioan komertzializatzen direnean kontsumitzaileen osasunarentzat seguruak direla bermatzeko. Neurri horien artean batek duen garrantzia nabarmendu behar da: arrisku zantzuak dituzten nanomaterial eta nanoproduktuen kasuan, beren erabilera edo komertzializazioaren baimen prozeduretan arriskuaren *iuris tantum* presuntzio normatiboa aktibatzea. Formula juridiko horri jarraiki, nanomaterial edo nanoproduktuaren baimen eskatzailea da arriskuaren *iuris tantum* presuntzioa hausteko zama duena; alegia, produktu hori arriskutsua ez dela frogatu edo bere erabilera segururako proposamenak aurkeztu behar dituen. *Iuris tantum* presuntzio hori haustea lortu ezean, agintari eskudunek ez lukete nanomaterial edo nanoproduktu hori baimendu beharko. Presuntzio normatibo horrek, beraz, nanoteknologiaren industriari transmititzen dio frogaren karga, nanomaterial eta nanoproduktuen segurtasunari buruz ikerketa arduratsua aurrera eramatera eta lortutako emaitzen informazioa agintari publikoekin partekatzerara bultzatuz.

19.- Nanoteknologiak industria sektore eta produktu komertzial gero eta gehiagotan erabiltzen direnez, kontsumitzaileez gain, nanomaterialekin esposizioan egon daitezkeen langileen kopurua ere gero eta handiagoa da. Kontsumitzaileekin gertatzen den bezala, nanomaterialei beren bizitza zikloan zehar aplikagarri zaien corpus juridiko komunitarioak ez du langileen osasuna eta segurtasuna babesteko ezta langileen informazio eskubidearen egikarritza bermatzeko adina gaitasunik ere erakusten.

Langileen osasun eta segurtasuna babestea xede duten arau komunitarioak (89/391 Zuzentaraua, 98/24 Zuzentaraua eta 2004/7 Zuzentaraua) ez dira nanomaterialen berezitasunetara egokitu. Enborrezko aldaketa normatiboen ordez, nanomaterialen lan-segurtasun neurri espezifikoak gomendio forman onartu dira. Zehazki, gai horretan EU OSHA Agentzia komunitarioak (2013an) eta Komisioak (2014an) enplegatzaile eta langileei zuzendutako orientazio gida batzuk argitaratu dituzte. Bestalde, Estatu-kide askok

aurrerapauso bat ematea erabaki dute eta lan eremuan nanomaterialen arriskuak ebaluatu eta kudeatzeko segurtasun sistema desberdinak diseinatu eta gomendatu dituzte. Nanomaterialen manufakturatuen esposizioak osasunean eragin ditzakeen kalte potentzialen inguruan ziurgabetasun zientifiko handia existitzen den momentu honetan, agintari eskudunek arreta printzipioan oinarri duen *no data, no exposure* (daturik gabe, esposiziorik ez) printzipioa jarraitu beharko lukete lan arriskuen kudeaketa neurriak hartzerakoan. Neurri horien oinarritzko helburua nanomaterial manufakturatuekiko langileek duten esposizioa mugatzea izan beharko litzateke.

Langileen osasun eta segurtasunaren babesarekin lotura estuan, langileek ere lantzen dituzten nanomaterial eta nanoproduktuen inguruan informatuak izateko eskubidea dute. Nanomaterialdun substantziak manipulatu, biltegiatu, garraiatu edo beren arrisku posibleak nola kudeatu jakiteko, hornikuntza katean langileei material horiei buruzko informazio datu aproposak transmititzen zaizkiela ziurtatu behar da. Zuzenbide komunitarioan, produktu kimikoen REACH Erregelamendua da hornikuntza katean informazioa nola transmititu behar den arautzen duena. Dagoeneko azaldu den bezala, REACH Erregelamendua ez da nanomaterialen berezitasunetara egokitu. Hornikuntza katean substantzia edo produktu arriskutsu baten inguruan zein informazio datu transmititu behar diren erabakitzeke beraz, REACH Erregelamenduan aurreikusten diren instrumentu normatiboek parametro konbentzionalak erabiltzen dituzte. Nolanahi ere, parametro horiek ez dituzte nanomaterialen parametro espezifikoak kontuan hartzen eta, beraz, ez dira aproposak hornikuntza katean nanomaterialen arriskuen informazio berezitasunak transmititzeko.

20.- Nanomaterial manufakturuak beren bizitza zikloan, gizakiekin ez-ezik, elementu natural desberdinekin ere esposizioan sartzen dira. Nanomaterialei beraz ingurumen arauketa sektorial desberdinak ere aplikagarri zaizkie; ondorengo hauek, bestek beste: hondakinen tratamendua, ura eta airearen babesa, kutsaduraren kontrol eta prebentzio integratua (ingelesez IPPC) eta substantzia arriskutsuen ondoriozko istripuak arautzen dituzten marko normatibo sektorialak. Nanomaterial manufakturatuek ingurumenean duten esposizioari, beren hondakinen tratamenduari eta horrek eragin ditzakeen efektuei buruz, ordea, ezjakintasun zientifikoak oso garrantzitsuak izaten jarraitzen du. Nanomaterialek elementu naturaletan duten esposizio eta efektu posibleak identifikatu, monitorizatu, ebaluatu eta kontrolatzeko metodologia zientifiko eta tekniko egokiak oraindik garatzeke daude. Hala ere, ziurgabetasun zientifikoko egoera horren aurrean, arauketa sektorial horietako batean ere ez da nanomaterialekin zerikusia duen aldaketa normatiborik aurreikusi. Ondorioz, nanomaterialek ingurumenean eragin ditzaketan efektuei buruz existitzen den ziurgabetasun zientifikoarekin batera, ordenamendu komunitarioan gai horretan ziurgabetasun juridikoak ere nagusi izaten jarraitzen du.

Ingurumen arauketa sektorialek nanomaterial manufakturuak kontrolatzeko zereginean izan dezaketan eraginkortasun maila, nanomaterialei beren bizitza zikloko aurreko faseetan aplikatzen zaizkien *upstream* (goitik beherako) arauketeetan aurreikusitako kontrol mekanismoetara baldintzatuta dago. Ingurumen arauketa sektorialen eraginkortasuna, beraz, produktu kimikoen (REACH eta CLP Erregelamenduak) eta

produktu komertzialen marko normatiboetan aurreikusitako kontrol sistemen araberakoa da. Nanomaterialen berezitasunetara partzialki egokitu diren *upstream* arauketa horiek, dagoeneko azaldu den bezala, nanomaterialak identifikatu, beren bizitza zikloan zehar monitorizatu eta kontrolatzeko gabezia juridiko garrantzitsuak dituzte. Ondorioz, ingurumen arauketa sektorialek *upstream* arauketa horien gabezia normatiboak herentzian jaso dituzte.

Ingurumen arauketa komunitarioak, beraz, ez die nanomaterialen manufakturatuek ingurumenean duten esposizio eta arriskuei buruzko ziurgabetasun zientifikoei erantzun juridiko aproposik eskaintzen. Egoera horri buelta emateko ingurumen arauketa komunitarioan egin beharreko aldaketa normatiboek arreta printzipioarekin bat datorren *no data, no exposure* izeneko printzipioan izan behar dute oinarri. Hots, nanomaterialek beren bizitza zikloan zehar ingurumenean duten esposizioa ahalik eta gehien mugatzen duen estrategia normatiboa egituratu behar da. Abian jarri behar diren mekanismo normatibo desberdinen artean, hiru nabarmendu daitezke. Alde batetik, trantsizio neurri bezala, nanomaterialen manufakturatuek juridikoki sustantzia arriskutsu bezala sailkatu beharko lirateke. Izan ere, substantzia arriskutsuei beren bizitza zikloan zehar aplikatzen zaien kontrol sistema zorrotzak nanomaterialen tratamendu juridiko bereziagoa eta ingurumen eta osasunaren ikuspegitik seguruagoa ahalbidetu ditzake. Bestetik, ingurumen arauketa sektorialean aurreikusten diren bi figura juridiko baliagarriak izan daitezke nanomaterialen erabilera arretatsuagoa, nanoproduktuen diseinu garbiagoa eta beren hondakinen tratamendu efizienteagoa bultzatzeko. Alde batetik, hondakinen marko komunitarioan errotutako “ekoizlearen erantzukizun hedatua” printzipioa eta bestetik, “eskuragarri dauden teknika onenak” izeneko figura juridikoa.

21.- Nanomaterialek kontsumitzaileengan edo ingurumenean sorrarazi ditzaketen kalte hipotetikoaren aurrean, “garapenaren arriskuak” izeneko klausula normatiboak kalte horien arduradunei erantzukizun zibil eta ingurumen erantzukizun posibleetatik salbuetsita geratzeko atea ireki egiten die. Ordenamendu komunitarioan “garapenaren arriskuen” klausula normatiboa 85/374 Zuzentarauan eta 2004/35 Zuzentarauan aurreikusten da. Lehenengo zuzentarauak produktu komertzial akastunek sortutako kalteen aurrean kontsumitzaileek eska dezaketen erantzukizun zibilaren baldintza normatiboak arautzen ditu, eta bigarren zuzentarauak ingurumen kalteen saihespen eta erantzukizun neurriei buruzko arauketa komunitarioa egituratzen du. Arau orokor bezala, bi zuzentaru horiek kalteengatiko erantzukizun objektiboa aurreikusten badute ere, “garapenaren arriskuen” klausula erantzukizun objektibo horren salbuespen kausa bezala egituratzen da. 85/374 Zuzentaruaren arabera, klausula hori aktibagarria izan dadin, kontsumitzaileengan kaltea eragin duen produktua komertzializatzen hasi zen momentuan, kaltea sortu duen arriskuaz jabetzeko jakintza zientifiko eta tekniko nahikorik ez egotea exijitzen du. Zentzu berean, 2004/35 Zuzentaruak klausula horren aktibazioarako baldintza berberak aurreikusten ditu: ingurumen kaltea sortu duen jarduera burutu, emisioa gertatu edo produktua erabili zen momentuan eskuragarri zegoen jakintza zientifiko eta teknikoa nahikoa ez izatea kaltea eragin duen arriskua ezagutzeko.

Nanomaterialen fabrikatzei buruz existitzen den ezagutza zientifiko eta tekniko erabat asimetrikoa dela kontuan hartuta, industria nanoteknologikoa nanomaterialen efektu kaltegarrien inguruan “ezjakintasun egoera” batean mantentzea bultzatu eta saritu egiten du “garapenaren arriskuen” salbuespen klausulak. Nanomaterialen fabrikatzearen kalte potentzialei buruz existitzen den ziurgabetasun zientifikoak, aldiz, ez da absolutua, komunitate zientifikoak dagoeneko nanomaterialen inguruan kezka sortzen dituzten elementuetako batzuk identifikatu eta mugarrizatu baititu. Nanomaterialen kalte potentzialei buruz existitzen den “ezjakintasun egoera” hori erlatiboa da, ez guztiz absolutua. Horren ondorioz, kontsumitzaileen eta ingurumenaren babesarentzat salbuespen klausula horren aplikazioak dakartzan ondorio negatiboak kontuan hartuta, arreta printzipioari jarraiki, nanomaterialen kasuan “garapen arriskuen” salbuespen klausula hori modu murriztailean interpretatu behar da. Alde batetik, industria nanoteknologikoak nanomaterialeri buruz eskuragarri dagoen azken informazio zientifiko eta teknikoak diligenziaz gainbegira dezala exijitu behar zaio. Bestetik, mekanismo normatibo desberdinak onartu behar dira industria nanoteknologikoak ezagutza zientifiko eta tekniko horren ekoizpenean modu aktiboan parte hartzera bultzatzeko. Mekanismo normatibo horiek aurreko ondorioetan azaldu diren *no data, no market* eta *no data, no exposure* printzipioetan oinarritu behar dira.

22.- Nanoteknologiak, teknologia berriak izanik, jarduera-eremu zientifiko eta tekniko berriak irekitzen dituzte. Zentzu horretan, nanoteknologiaren erabilera desberdinek juridikoki babesten diren balio, ondasun edota interes desberdinei eragiten dieten neurrian, zuzenbideak eremu berri horietan jarduteko betebeharra du. Nanoteknologiaren garapenak, osasun eta ingurumen arriskuez gain, giza eskubideekin zerikusia duten arronka garrantzitsuak ere planteatzen ditu.

Giza eskubideen jatorri, oinarri eta ezaugarri teorikoak korrante desberdinetatik luze aztertu eta eztabaidatu badira ere, formulatu diren teoria desberdinen artean giza eskubideen dimentsio hirukoitzaren interpretazioarekin bat egin dugu. Interpretazio horri jarraiki, giza eskubideek beren izate-arrazoia duintasun, askatasun, berdintasun eta solidariotasun balio moraletan aurkitzen badute ere (dimentsio morala), beren babes eraginkorrerako zuzenbideak positibatu eta mekanismo normatiboak aurreikustea ezinbestekoa dute (dimentsio juridiko-positiboa). Giza eskubideen dimentsio moral eta juridiko-positiboarekin batera, beren kontzeptzio integral batek beste hirugarren dimentsio bat kontuan hartzea eskatzen du, giza eskubideen dimentsio soziala hain zuzen ere. Horren arabera, giza eskubideak ezin dira momentu historiko bakoitzeko faktore sozial, ekonomiko eta kulturalen eragin-eremutik at kokatzen diren kategoria normatibo estatiko eta denbora-gabeak bailiran ulertu, faktore horien aurrean erreakzionatu egiten duten eta berregituratzen doazen kategoria juridiko dinamiko bezala baizik.

Azken hamarkadetan, faktore teknologikoek giza eskubideen dimentsio sozial horren ikuspegitik berebiziko protagonismoa eskuratu dute. Zenbait kasutan, teknologia berrien erabilerek giza eskubide batzuen egikaritzan efektu positiboak sorrarazte dituzte; beste hainbat kasutan ordea, giza eskubideen egikaritzea eta berme eraginkorrerako oztopo elementu bezala jarduten dute. Teknologia berriek eskubide baten egikaritzari eragindako

efektu onuragarri edo kaltegarrien intentsitate mailaren arabera, eskubide horrek espezifikazio prozesu “sendo” edo “leun” bat jasan dezake. Prozesu sendo edo leun baten aurrean gauden erabakitze hurrengo azterketa egin behar da: inguruabar teknologiko horrek giza eskubideen ikuspegitik ordura arte juridikoki babesten ez zen ondasun bati, edo aitzitik, dagoeneko juridikoki babesten den ondasun bati eragiten dion. Lehenengo kasuan espezifikazio prozesu sendoa gertatzen da, ondasun juridiko berri baten positibazioak bere babesa instrumentalizatzeko giza eskubide berri bat juridikoki aintzatestea eragiten baitu. Espezifikazio prozesu leuna gertatzen denean aitzitik, ez da juridikoki ondasun berririk positibatzen eta ezin da hortaz giza eskubide berri baten sorreraz hitz egin, eskubide horren titular, eduki material edo berme mekanismoei eragiten dien espezifikazio prozesua baizik. Ez da juridikoki eskubide berririk aintzatesten, existitzen den eskubide baten adierazpen berrien sorrera baizik.

Doktrinaren zati batek bioteknologia eta IKTak bezalako teknologia berrien eta giza eskubideen arteko harremanetik eskubide berriak sortzen direla aldarrikatu badu ere, azaldu berri den eskubideen espezifikazio prozesuan oinarritutako azterketa eginez gero, kasu gehienetan ez da eskubide berririk sortzen, existitzen diren eskubide desberdinen subjektu, eduki material edo berme mekanismoen adierazpen berriak baizik (espezifikazio prozesu leuna). Nanoteknologien erabilera desberdinek giza eskubideen ikuspegitik dakartzaten efektu onuragarri eta batez ere kaltegarrien kasuan logika berdinak agintzen du: ez da juridikoki ondasun berririk babesteko eta beraz eskubide berririk aintzatesteko premiarik sortzen. Nanoteknologien eragin negatiboek juridikoki aintzatesten diren zenbait eskubideren egikaritza eraginkorra baldintzatu eta oztopatu egiten dute, kasu askotan eskubide horien berme mekanismoak nanomaterialen manufakturatuen inguruabar berriei aurre egiteko ez baitaude prestatuak.

23.- Nanoteknologien gobernantzan arriskuen tratamendu juridikoak erabateko protagonismoa eskuratu du; ez, ordea, giza eskubideen sistema normatiboaren prismatik aztertuta. Zuzenbide komunitarioan, Nanoteknologien Ikerketa Arduraturako Portaera Kodeak (Komisioaren 2008/345 Gomendioa) giza eskubideen errespetuarekiko aipamen solteren bat egiten du. Zehazki, giza eskubideak edota oinarritzko printzipio etikoak urratzen dituzten ikerketak finantzatzea debekatu egiten du. Hala eta guztiz ere, portaera kode horrek *soft law* arauaren forma duenez, bere edukiaren ez-betetzeak ez du inolako zehapen edo zigorrik sorrarazten.

Zuzenbide komunitarioaz aparte, Europar Kontseilua izan da nanoteknologien eta giza eskubideen arteko harreman loturen analisi juridikoa martxan jarri duen erakunde publiko dokumentatu bakarra. Europako Kontseiluaren Asanblada Parlamentarioak 2013an emandako 2017 (2013) Gomendioaren bidez, erakunde horren komite desberdinei beren eskumenpeko gaietan nanoteknologien eta giza eskubideen arteko harremana aztertzea, eta egokia zeritzoten kasuetan, gomendioak ematea edo instrumentu lotesleak onartzeko prozedurak abiaraztea gomendatu zien. Prozedura hori martxan jarri zenetik bi urte baino gehiago igaro badira ere, ez da aurrerapauso nabarmenik eman. Ondorioz, ikusteke dago oraindik Europar Kontseiluan nanoteknologien eta giza eskubideen arteko harremanak arautzen dituen instrumentu juridikorik (lotesle edo ez-loteslea) onartuko den.

24.- Denbora igaro ahala, nanoteknologiaren sofistikazio maila haziz doa eta bioteknologiarekin, IKTeekin eta teknologia kognitiboekin dituzten konbergentzia harremanak gero eta estuagoak bihurtzen ari dira. Nanoteknologiak “ahalbidetze teknologia” bezala funtzionatzen dute; hots, nanomaterialen manufakturatutako beste teknologia berri batzuen gaitasunak potentzializatzeko erabiltzen dira. Nanoteknologiaren erabilera konkretu batzuek giza duintasunaren eta autonomia pertsonalaren oinarritzko balio juridikoekin zerikusia duten erronkak planteatzen dituzte eta etorkizunera begira gero eta garrantzitsuagoak izan daitezke. Nanomedikuntza eta nanobiomedikuntza bezalako diziplina berriek giza materia eskala molekularrean identifikatu, monitorizatu eta manipulatzeko teknika berriei atak ireki dizkiete. Ondorioz, gerta daiteke biomedikuntza arloan giza duintasuna, autonomia pertsonala edo intimitatea babesteko indarrean dauden nazioarteko marko normatiboak (Giza Genomari buruzko UNESCOren Adierazpen Unibertsala eta Oviedoko Hitzarmena), nanomedikuntza eta nanobiomedikuntzaren erronka berriei aurre egiteko gaitasun normatibo nahikorik ez izatea. Horren ondorioz, nanoteknologiaren erronka berrien aurrean testu normatibo horiek berrikusi, eta behar den kasuetan, berregokitu egin behar dira. Nanoteknologiaren eta industria militarren arteko harremanak ere giza duintasunarekin zerikusia duten kezkek planteatzen ditu. Nanoteknologiak erabiltzen dituzten aplikazio militarrek gizakion gaitasun fisiko eta psikikoak giza naturaz harago hobetzea helburu duten kasuetan, giza duintasuna urratzen duten aplikazio eugenetikoak kontsideratu behar dira.

Nanoteknologiak giza duintasun eta autonomia pertsonalaren perspektibatik planteatzen dituzten erronkak ez dira bakarrik sektore eta aplikazio konkretu batzuetara mugatzen. Europar Batasunak nanoteknologiaren arriskuak kudeatzeko egituratu duen estrategia juridikoa, bere osotasunean kontuan hartuta, oinarritzko balio juridiko horiekin bateragarria den zalantza jarri daiteke.

Nanomaterialen manufakturatuek osasunean eta ingurumenean eragin ditzaketen efektuen inguruan gaur egun nagusi den ziurgabetasun zientifikoko testuinguruan, nanomaterialen aplikagarri zaien corpus normatiboak ez du oinarritzko tratatu komunitarioek exijitzen duten osasun eta ingurumen babes maila altua bermatzeko gaitasun juridiko-tekniko nahikorik. Testuinguru horretan, Europar Batasunak nanomaterialen ekoizpen, erabilera eta komertzializazioa ez mugatzearen aldeko hautu normatiboa egin du. Erabaki horrek herritarrak (bereziki langile, kontsumitzaile eta pazienteak) nanomaterialen esposizioa jasatera kondenatu egiten ditu, nahiz eta esposizio hori osasunarentzat segurua den zientifikoki frogatu gabe egon. Testuinguru horretan, laborategian nanomaterialen efektuei buruz egiten diren ikerketa zientifikoekin batera, herritarrak ere nanomaterialen efektu posibleak ikertzeko esperimentu erraldoiaren behaketa-objektu bihurtu dira. Funtsean, nanoteknologiaren arriskuaren gobernantza komunitarioak gizakiaren instrumentalizazioa bultzatzen du eta, beraz, giza duintasunaren aurka doa.

Bestalde, herritarrek nanoteknologiakiko duten jakintza mailak oso baxua izaten jarraitzen du, nanoteknologiari buruz eskaintzen zaien informazio publiko defizitarioak bultzatuta. Zuzenbide komunitarioan, nanomaterialen presentziaren eta arrisku posibleen

informatzeko mekanismo administratiboak sektore normatibo batzuetara mugatu dira. Funtsean, langile, kontsumitzaile eta pazienteek ez dute gaitasunik modu informatu, arazoitu eta kontzientean nanomaterialekiko esposizioan sartu edo ez erabakitzeko. Ondorioz, defizit informatibo horrek beren autonomia pertsonala hutsaldu egiten du.

25.- Dagoeneko azaldu den bezala, nanoteknologien ezagutza zientifiko eta teknikoaren ekoizpena erabat asimetrikoa izaten ari da, beste arrazoi batzuen artean, industria nanoteknologikoak (botere publikoen konplizitate eta laguntza ekonomikoarekin) bultzatu duen ikerketa eredu arbitrario eta desorekatuaren ondorioz. Nanoteknologien kasuan ere beste teknologia berri batzuen ikerketa ereduaren ezaugarri nagusiak errepikatu egiten dira. Teknozientzia antolatuaren interes komertzial boteretsuek nanoteknologien ikerketa eredu erabat baldintzatu dute. Ikerketa zientifikoek erabilgarritasun tekniko, inbertsioen amortizazio eta errentagarritasun ekonomikoen irizpideen arabera funtzionatzen dute. Ikerketa eredu horrek ikerketa zientifikorako askatasunaren dimentsio indibiduala eta kolektiboa urratu egiten ditu, Espainiako Konstituzioaren 22.1b) artikuluan eta 44.2 artikuluan arautzen den oinarritzko eskubidea.

Alde batetik, eskubidearen dimentsio indibidual klasikoaren arabera, ikertzaile indibidualak bere ikerketa lerroak erabakitzeko izan beharko lukeen autonomia erabat galdu egin du, “ordaintzen duenak erabakitzen du” irizpidearen mesedetan. Ikertzaile indibidualak ez du bere ikerketa lerroak erabakitzeko gaitasunik, erabaki ahalmen hori ikerketa horiek finantzatzen dituen erakunde publiko edo pribatuetara igaro baita. Bestetik, askatasun zientifikoaren dimentsio kolektiboaren titularra ez da ikertzaile indibiduala, gizateria (etorkizuneko belaunaldiak barne) bere osotasunean baizik. Izan ere, ikerketa zientifikoaren emaitza den ezagutza zientifikoa ondare komun kolektiboaren parte da, gizartearen garapenean ezagutza zientifikoak funtzio sozial garrantzitsu bat betetzen baitu. Askatasun zientifikoaren dimentsio kolektiboak gizateriari jakintza zientifiko horretatik eratortzen diren onurez gozatzeko eta garapen zientifikoan parte hartzeko eskubidea aitortzen badio ere, nanoteknologien garapen eredu guztiz bestelakoa izaten ari da.

Lehenik eta behin, ikerketa zientifikorako askatasunaren dimentsio kolektiboa egikaritu ahal izateko, NBEk beharrezkotzat jotzen duen “ingurune mesedegarria” ez da nanoteknologien garapen ereduaren ematen, alegia, informazio zientifikoa ez da modu zabal eta gardenean hedatu eta transmititzen. Horren ordez, industria nanoteknologikoa jabetza intelektualeko eskubideek eskaintzen dioten babes legalean gotortu da eta agintari publiko eskudunei eta herritarrei ahalik eta informazio gutxien transmititzeko jarrera hartu du. Bigarrenik, EBko herritarrek ez dute nanoteknologien ikerketa lerro eta erabaki komunitario nagusien erabaki-hartze prozeduretan eraginkortasunez parte hartzeko aukerarik izan. Azkenik, nanoteknologien garapenaren hastapenetan iragartzen ziren onura potentzialetatik urrun, orain arte nanoteknologiak gizarteari onura baino arrisku potentzial askoz gehiago sorrarazi dizkietela ondorioztatu daiteke.

26.- Alemaniako Auzitegi Konstituzionalak “Kalkar” izeneko zentral nuklearrari buruz emandako ebazpenean (BverfG49,89), botere publikoek eskubide konstituzionalen dimentsio objektiboari babes dinamikoa emateko betebeharrak konstituzionala zutela aditzera

eman zuen. Alegia, eskubide konstituzional baten egikaritza arriskuan jartzen duen inguruabar berririk sortuz gero (nanomaterialen arriskuak kasu), botere publikoek legedia zirkunstantzia berri horietara egokitzeko mandatu konstituzionala dute. Eskubideen dimentsio juridiko-objektiboaren interpretazio judizial hori nanomaterialen corpus normatiboari aplikatuz gero, EBko eta Espainiako agintari eskudunek gai horretan erakutsi duten pasibotasun normatiboak ez du osotasun fisikorako eskubide, osasuna babesteko eskubide eta ingurumen osasuntsu batez gozatzeko eskubidearen babes dinamikoa bermatzen. Alde batetik, nanomaterialei aplikagarri zaien corpus normatiboak ez die langile eta kontsumitzaileei nanomaterialen esposizioa onartu edo ez erabakitzeko aukerarik ematen; hots, osotasun fisikorako oinarritzko eskubidearen harira, beren gorputzaren gainean izan beharko luketen autonomia esfera ez die errespetatzen. Bestetik, botere publikoek osasun publikoa eraginkortasunez babesteko mandatu normatiboa dute; nanomaterialen corpus normatiboaren kasuan, botere publikoek erakutsi duten pasibotasun normatiboa mandatu horren aurka doa. Azkenik, ingurumena babestea xede duten arauketa sektorialen kasuan ere inguruabar normatibo berbera errepikatzen da: nanomaterialen esposizioaren aurrean, corpus normatibo horrek ez du ingurumen babes maila altua bermatzeko oinarritzko mandatuarekin konplitzen eta norbanakoek ingurumen osasuntsu batez gozatzeko duten eskubide konstituzionala kolokan jartzen du.

Ondorioz, agintari komunitario eta estatalen pasibotasun normatibo hori ez-egite normatibo bezala kalifikatu daiteke eta aztergai ditugun eskubideen dimentsio objektiboa urratu dezake. Testuinguru horretan, jatorritzko zuzenbide komunitarioaren organo bermatzaile gorena den Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak (EJJA), eta Espainiako Konstituzioaren kasuan Auzitegi Konstituzionalak (AK), legitimazioa dute nanomaterialen arrisku potentzialen aurrean aztergai ditugun eskubideen dimentsio objektiboaren babes dinamikoa bermatzen ez duten lege mailako arauak (esparru komunitarioan, erregelamendu eta zuzentarauak) ordenamendu juridikotik kanporatzeko. Zeregin horretarako, arau horien kontrol abstraktua eta orokorra posible egiten duten mekanismo judizialak aktibatu behar dira. Ibilbide judizial horren azkeneko helburua EJJAk edo Espainiako AK-k ebazpen judizial bat ematea da, non oinarritzko eskubide horien dimentsio objektiboa urratzen duten xedapen normatiboak jatorritzko zuzenbide komunitarioaren edo Espainiako Konstituzioaren aurkakoak deklaritzen den. Kontsekuenteki, ebazpen judizial horrek EBko eta Espainiako botere legegileak xedapen normatibo horiek nanomaterialen arriskueta egokitzena judizialki behartuko lituzke.

EJJAk edo Espainiako AK-k lege horien kontrol judizial abstraktua eta orokorra egiteko aukera izan dezaten, ez-egite normatiboen kasuan aktibagarriak dien mekanismo judizialekin jarri behar da arreta. Ordenamendu komunitarioan, kontrol mota hori “ez-egitearengatik helegitearen” bidez aktibatu badaiteke ere, helegite hori onartua izateko bete behar diren baldintza normatiboak ikusita, judizialki konplexua izan daiteke EJJAk lerro hauetan zehar planteatzen den ebazpenik ematea. Espainiar ordenamendu juridikoan, ez-egite normatiboen kasuan ez da mekanismo judizialik aurreikusten AKren aurrean legeen kontrol konstituzional abstraktu eta orokorra zuzenean aktibatzea posible egiten duenik (konstituzio-kontrakotasun helegitea egite normatiboen kasuan soilik da aktibagarria). Zuzenean ez bada ere, legeen kontrol konstituzional abstraktu eta orokor hori

zeharkako moduan aktibatzea posiblea da, babes helegitea edo konstituzio-kontrakotasun zalantza bezalako mekanismoen bidez. Nanomaterialei aplikagarri zaizkien lege mailako arauen kontrol konstituzional abstraktu eta orokorra zeharka aktibatzea posible izan dadin, nanomaterialekin zerikusia duten oinarrizko eskubideen urrapen konkretuen aurrean partikularrek bide judizialera jo behar dute, ustez urratu zaizkien eskubideen erreparatze indibidual eta konkretua eskatuz. Prozesu judizialean barrena, auzi-jartzaileak epaile eskudunari kasu judizial horretan aplikagarri diren lege mailako arauen aurka konstituzio-kontrakotasun zalantza aurkeztu dezala eska diezaioke. Epaile eskudunak AKri konstituzio-kontrakotasun zalantza aurkeztea erabakiz gero, AKri lege mailako arau horien gainean kontrol konstituzional abstraktu eta orokorra egiteko atea irekitzen zaio; alegia, AK-k eskubidearen dimentsio subjektiboarekin batera, dimentsio objektiboa ere urratu den aztertzeko eskumena dauka. Inguruabar berbera errepikatzen da, instantzia judizial guztiak agortuta, partikularrek AKri babes helegitea aurkeztu eta horrek onartu egiten badu.

Aztergai ditugun eskubideen artean, osotasun fisikorako eskubidea da bide judiziala aktibatu eta zalantza-konstituzional edota babes-helegitearen objektu izan daitekeen eskubide bakarra, Konstituzioak aurreikusten dion eraginkortasun zuzen eta babes judizial indartuari esker. Hala ere, osasuna babesteko eskubidearen eta ingurumen osasuntsu batez gozatzeko eskubidearen pretentsioak osotasun fisikorako eskubidearen aktibazioaren bidez instrumentalizatzea ere posible izan daiteke, eskubide horien edukien artean jurisprudentziak onartu dituen parekotasunei esker.

Partikularrek beren oinarrizko eskubideen ustezko urrapena bide judizialek salatu ahal izateko, ordea, urrapen hori erreala, zehatza, efektiboa eta egiazkoa izan behar da. Nanomaterial manufakturatuen kasuan, eskubide-urrapenak izan behar duen entitate hori frogatzea zinez zaila izan daiteke, gaur egun material horien efektu kaltegarriak ez baitaude zientifikoki erabat frogatuta, nahiz eta horietako batzuen arriskuei buruzko zantzu zientifikoa gero eta esanguratsuagoak izan. Hala ere, osotasun fisikorako eskubidearen kasuan, jurisprudenzia konstituzionalak baldintza horiek (urrapen hori erreala, zehatza, efektiboa eta egiazkoa izatea) leundu egin dituen aurrekari jurisprudenzialik existitzen da: osasuna arriskuan jartze hutsarekin osotasun fisikorako eskubidea lesionatua gerta daiteke, arrisku potentzial hori lesioa eragiteko esanguratsua eta benetakoa izanik, arrisku hori ekiditeko ardura duenak inolako saihaspen neurririk hartu ez duen kasuetan. Lerro jurisprudenzial hori erabat baliagarria da proposatu den estrategia judiziala sostengatzeko.

27.- Nanomaterial manufakturatuen erabilerak gaixotasunen diagnostiko, terapia eta birsorpen medikuntzari ate berriak ireki dizkie. Osasunaren ikuspegitik tratamendu mediko berritzaile horiek ekar ditzaketen onura potentzialez harago, giza duintasuna (23. ondorioan azaldu den bezala) eta pazienteak bere gorputzarekiko duen erabaki autonomia errespetatu behar dute. Erabaki autonomia hori pazientearen baimen informaturako oinarrizko eskubidearen egikaritzaren bidez bermatu behar da. Pazienteari tratamendu medikoari buruzko informaziorik osoena modu ulergarrian ematea exijitzen du oinarrizko eskubide horrek, pazienteak ondoren tratamenduari baimena eman edo ez modu libre, kontziente eta autonomia osotasunean erabakitzeko gaitasuna izan dezan.

Nanomaterialak erabiltzen dituzten tratamendu medikoen kasuan, pazientearen erabakitze autonomia hori bi faktorek baldintzatu dezakete. Alde batetik, gizarteak nanomaterialei buruz duen ezjakintasun maila altuak. Bestetik, tratamendu mediko berritzaile horiek sorrarazi ditzaketen alboko efektuei eta epe luzera begirako arrisku posibleei existitzen den ziurgabetasun zientifiko esanguratsuak. Bi faktore horiez jakitun, EBko agintari publiko espezializatuek nanomedikuntzaren informazioaren hedapen publikoan eta profesional sanitarioen heziketan sakontzea ezinbestekotzat jo dute. Bestalde, doktrinak neurri espezifiko batzuk proposatu ditu, pazientearen baimen informaturako eskubidearen egikaritzan lagundu dezaketenak. Haatik, ekarpen horiek gaur egun oraindik ez dira praktikan jarri. Ondorioz, herritarrei zuzendutako nanomedikuntzari buruzko informazio publikoaren hedapenak oso eskasa izaten jarraitzen du eta nanomaterialak erabiltzen dituzten tratamendu medikoei buruzko heziketa-programa edo jarduera protokolo espezifikorik ez da dokumentatu.

Kontsekuenteki, pertsonal sanitarioek pazienteei tratamendu berritzaile horiei buruzko informazioa legediak aurreikusten dituen mekanismo konbentzionalak erabiliz transmititzen diete. Alegia, nanomaterialdun tratamendu medikoei, tratamendu mediko konbentzionalen berme eta irizpide berberak aplikatzen zaizkie, nahiz eta tratamendu berritzaile horien ezaugarrien ondorioz “neurri konbentzional” horiek ez diren nahikoak pazientearen erabaki autonomia bermatzeko. Pazienteak ez du gaitasunik nanomaterialak erabiltzen dituen tratamendu mediko batek izan ditzakeen ondorioez jabetzeko, eta beraz, bere erabakia modu informatu, kontziente eta libre batean hartzeko.

28.- Informazio eta komunikazioaren teknologiek (IKT) bilakaera esanguratsua izan dute azken hamarkadan. Nanoteknologiak, “ahalbidetze teknologia” gisa, IKTen funtzio eta prestazioak potentzializatzeko erabiltzen dira. Tesian zehar irrati frekuentzia bidezko identifikazio txipen (RFID) eta nanoteknologien arteko konbergentzia harremanean ipini da arreta. RFID etiketa elektronikoa gai dira, txertatuak diren produktu edo pertsonen buruzko informazio datuak formatu digitalean jaso, gorde, eta inolako kontakturik gabe dispositibo elektronikoa hartzaile batera transmititzeko. Nanomaterialen manufakturatuen erabiliz, RFID etiketen prestazioak potentzializatu egiten dira. Etiketa horiek informazio bolumen handiagoa eta zehatzagoa jaso, bildu eta transmititzeko gaitasuna eskuratzen dute, RFID etiketaren eta dispositibo hartzailearen arteko gero eta distantzia handiagoan gainera.

RFID etiketak batez ere produktu komertzialen trazabilitatea egiteko erabiltzen badira ere, etiketa elektronikoa horiek norbanakoen informazio pertsonala eskuratzeko ere erabili diren kasu batzuk dokumentatu dira: RFID etiketa helburu komertzialetarako erabili izan da, produktu komertzial hori gainean daraman norbanakoaren informazio pertsonala eskuratzeko; lan-zaintza helburuetarako, lan uniformeetan irismen luzeko RFID etiketak erantsi eta langileen kokalekua uneoro kontrolatzeko; pazienteen osasuna monitorizatzeko, RFID etiketa erabiltzen duten nanotxip inplanteen bidez. Kasu dokumentatu horiez gain, RFID etiketak, nanotxip inplante formak, presoen droga kontsumoa detektatzeko espetxe-segurtasun neurri bezala erabiltzea ere teknikoki posiblea da.

Funtsean, esparru desberdin horietan RFID dispositiboak kontsumitzaile, langile, paziente edo presoen datu pertsonalak tratatzeko erabiltzen dira. Alde horretatik, datu

pertsonal horien titularren autodeterminazio informatiborako eskubidea (EK 18.4 art.) eraginda geratzen da. RFID etiketen bidezko datu pertsonalen tratamendu horiek, autodeterminazio informatiborako eskubideaz harago, norbere esfera pribatua dimentsio desberdinetatik babesten dituzten beste bi eskubideri ere eragin diezaieke. Alde batetik, intimitaterako eskubideari (EK 18.1 art.), norbere bizitzaren zenbait eremu hirugarren pertsonen ezagutzatik kanpo mantentzeko defentsa eskubide generiko bezala ulertuta. Bestetik, RFID etiketak pertsonen mugimenduak monitorizatzeko erabiltzen diren kasuetan, mugimendu askatasuna (EK 19. art.) ere eraginda geratzen da, norbanakoek beren mugimenduei buruzko informazioa hirugarren pertsonen ezagutzatik kanpo mantentzeko duten arazoizko itxaropen bezala ulertuta. Mugimendu askatasunaren dimentsio hori autodeterminazio informatiborako eskubidearen jarduera-eremuan kokatzen da, pertsonen mugimenduei buruzko informazioa, funtsean, datu pertsonalak baitira. Bestalde, RFID etiketa horiek nanotxip inplante gisa erabiltzen direnean, txip hori inplantatzeko egin behar den ebakuntza medikoak norbanakoak bere gorputzaren gainean duen bortxa-ezintasunari ere eragiten dio. Ondorioz, gorputzean egindako esku-sartze hori legitimoa izan dadin, pazienteak aurretiaz baimen informaturako eskubidea egikaritu behar du (EK 15. art.), aurreko ondorioan aztertu den eskubidea.

Aztergai diren datu pertsonalen tratamendu kasu horiek beren titularren esfera pribatua errespetatzen duten aztertzeko, analisi hori autodeterminazio informatiborako eskubidearen prismatik eraman da aurrera. Datu pertsonalen tratamenduari buruzko arauketa baldintza orokorrez gain (15/1999 Lege Organikoan eta 1720/2007 Errege Dekretuan arautuak), baldintza normatibo espezifikokoak ere kontuan hartu behar dira: lan eremuan, Langileen Estatutukoak (1/1995 Dekretu Legegilea); osasun eremuan, Pazientearen Autonomia Legearenak (41/2002 Legea) eta espetxe erregimenean, Espetxe Erregelamenduan aurreikusitakoak (190/1996 Errege Dekretua). Kasu horietako bakoitzean datu pertsonalen tratamenduaren bidez bilatzen den helburua eta inguruabarrak desberdinak badira ere, kasu guztietan autodeterminazio informatiborako eskubidearen aurka doazen zenbait zirkunstantzia errepikatu egiten dira.

Alde batetik, tratamendu horiek ez dira bateragarriak datu pertsonalen kalitatezko tratamendua bermatzea xede duen egokitasun printzipio legalarekin. Aipatu printzipioaren arabera, jasotako datu pertsonalak beren tratamendua motibatzen duen helburu legitimoa betetzeko aproposak, egokiak eta ez-gehiegizkoak izan behar dira. Funtsean, datu pertsonalen tratamenduarekin bilatzen den helburua betetzeko, tratamendu horrek autodeterminazio informatiborako eskubidean duen eragina proportzionala izan behar da. Aztergai diren kasu horietako bakoitzean, datu pertsonalen tratamenduaren bidez lortzea bilatzen den helburuaren eta autodeterminazio informatiborako eskubidearen artean ponderaketa analisia egitean, datu pertsonalei egiten zaien tratamendua ez-egokia eta gehiegizkoa da egokitasun printzipioaren ikuspegitik aztertuta. RFID etiketaren bidez lortzen diren datu pertsonalen kopurua gehiegizkoa izan daiteke tratamendu horren bidez bilatzen den helburua egokitasunez betetzeko. Bestalde, kasu bakoitzean bilatzen den helburuari konplimendua emateko bestelako metodo eraginkorrak eskuragarri daude, autodeterminazio informatiborako eskubidearen prismatik aztertuta RFID etiketak bezain intrusiboak ez direnak eta beraz, eskubide hori intentsitate baxuagoan mugatzen dutenak.

Bestetik, kasu guztietan horietan errepikatzen den beste arazo komun bat RFID etiketek datu pertsonalak gordetzeko fitxategi bezala duten segurtasun maila baxua da. RFID etiketek gordeta duten informazioa transmititzeko irrati-seinaleak erabiltzen dituzte; oso modu errazean eta inolako arrastorik utzi gabe antzeman daitezkeen seinaleak dira. Datu pertsonalak gordetzen dituzten fitxategien kasuan, legediak beren osotasuna eta segurtasuna bermatzeko neurri zorrotzak aurreikusten ditu. RFID etiketak, ordea, normatiboki exijitzen den segurtasun maila altu horretatik urrun geratzen dira. Segurtasun gabezia horiek are eta garrantzi handiagoa dute RFID etiketak nanotxip moduan gorputzean txertatuta erabiltzen direnean. Kasu horietan RFID etiketek osasun-datuak biltzen dituzte, alegia, legediak bereziki babesten dituen datu pertsonalak.

CONCLUSIONS

1.- By manipulating materials at nano-scale (10^{-9}) nanoscience, scientific research into the different properties adopted by materials, and nanotechnology, its technological application, have experienced significant growth in the early years of the 21st Century. This is a multi-discipline research field involving observation and experimentation from the perspective of many scientific disciplines (from medical, biological, chemical or engineering perspectives) and the new materials resulting from the use of nanotechnologies, known as engineered nanomaterials, are synonymous with diversity, heterogeneity, sophistication and convergence. A growing number of engineered nanomaterials are being produced every year and at present at least 2500 types have been documented. Each one of these nanomaterials has different heterogeneous physico-chemical properties (each nanomaterial is a world in itself). Moreover, they are gradually becoming increasingly sophisticated (there are presently four generations of engineered nanomaterials) and as nanotechnologies are implemented horizontally they are beginning to converge with other new technologies (biotechnology, ICT or cognitive technology).

2.- Given these characteristics, manufacturing and industrial sectors have been paying close attention to nanotechnologies which in turn have been presented as if they were the next industrial revolution. Engineered nanomaterials are being increasingly researched, manufactured and commercialised in the cosmetic products, pesticides, textile, food, medicine, electrical and electronic equipment and defence sectors and this technology is currently being presented to society as the potential solution to many important issues (pollution, serious illnesses, scarcity of raw materials or hunger). At a time when it is yet to be proved to what extent these potential benefits of nanotechnology are real or mere marketing ploys, on the opposing side there are scientific evidences concerning their potential risks to health and the environment. Moreover, nanotechnologies present significant challenges from an economic, social and ethical and human rights perspective. Both present and future generations are affected by these challenges. Furthermore, as far as the public perception is concerned, there remains a public lack of knowledge regarding this technology (over half of EU citizens have never heard of them) and those who have show an ambivalent attitude.

3.- The challenges presented by nanotechnology development come within a context of new technological risks. Due to the scientific and technical knowledge accrued over centuries, despite humans having an increasing capacity to prevent natural hazards, as a result of these scientific and technological developments a new type of risk has emerged, known as technological risk. Science and technology have become increasingly sophisticated, and above all the potential harmful effects technological risks might have to health and the environment have taken on a global, diffuse and collective dimension in recent decades, in contrast with the specific, singular and precise nature of “classic” risks.

At a time when we are living in the “risk society” when there are no geographical borders or time limits for technological risks (the negative effects of the current technological risks may spread over to the next generation), understanding the cause-and-effect relationship between the risks has become a highly complex task for scientists given that there occur among other situations such as multi-causality (the effect is produced by many different causes) and feedback (the harmful effect could become the cause of another risk). In these circumstances, as the use of new technologies advances, the existence of scientific uncertainties regarding the harmful effects of this use of technology is becoming increasingly common.

4.- In the case of nanotechnologies, there tends to be a completely asymmetrical development of scientific and technical knowledge. Whereas scientific and technical knowledge regarding commercial exploitation for engineered nanomaterials is growing fast, knowledge about the potential effects these exploitation might have on health and the environment is still an area plagued by uncertainty. In this scenario, there is also growing scientific evidence regarding the serious and irreversible effects that exposure to certain engineered nanomaterials might have on health and the environment. There are three different causes for this imbalance in scientific and technical knowledge.

Firstly, from a scientific perspective understanding the properties, behaviour and effects of engineered nanomaterials is a complex task. Scientific methods which could enable this understanding have not yet been developed. Secondly, there is a significant imbalance regarding the public and private investment available for nanotechnology research. A high percentage of public and private investment is being channelled towards researching the potential uses of nanotechnology; yet, this is not the case for research into the potential harmful effects of the uses of nanotechnology on health and the environment. Thirdly, certain regulatory instruments set out in current legislation, such as industrial confidentiality, intellectual property rights and regulatory "development risks" exemption clauses, hinder the elaboration and public dissemination of scientific knowledge regarding the harmful effects of nanomaterials.

5.- In the late 20th Century, in legislation passed by the European Union concerning the risks of new technologies, there have been cases of “intolerant approaches” regarding elements of uncertainty. Instead of the competent experts and authorities participating in the risk analysis procedure (made up of stages known as risk assessment, risk management and risk communication) and analysing, assessing and dealing legally with the scientific uncertainty of a technological risk in a systematic thorough manner, they have left elements of uncertainty out of their analysis and as such treated them as if they were irrelevant. This approach is exemplified by the approach adopted in the United Kingdom by the competent authorities during the BSE ("mad cow disease") crisis. In an aim to curtail this intolerant approach to elements of uncertainty, certain changes were made to EU law.

First of all, the European Commission reformed the scientific procedures used in risk assessment by requiring the different EU scientific committees and agencies carrying out

scientific risk assessment to apply common criteria. In addition, the new assessment procedures also aimed to bring an end to the intolerant approach to scientific uncertainties regarding risk. EU scientific committees and agencies were also required to as effectively as possibly identify, analyse and assess scientific uncertainties. Secondly, the new technological risks plagued by scientific uncertainties required a new precautionary legal paradigm to be implemented. The precautionary principle, designed to manage the serious risks resulting from scientific uncertainty, became the core principle of EU law. The precautionary principle requires the following: that when there is reasonable proof that a risk could cause significant damage to health or the environment but when there is not yet sufficient scientific data available to prove this risk, to adopt legal measures to prevent or restrict this potential risk, to complete the scientific knowledge base and to wait until this evidence has been fully proved.

6.- When faced with the challenges of scientific uncertainties concerning new technological risks from a legal perspective, the competent bodies have sought out and implemented expert scientific and technical knowledge to find solutions to these challenges. This legal approach, called as “scientific legal approach” or “scientific regulating”, is completely misleading. This strategy has not been effective in building legal safety concerning scientific uncertainties and has left the legal system in a weak position against the economic interests of organized technoscience. Essentially, there has been a transfer of the decisions made under political and legal procedures. Despite the decisions being taken within formal public procedures, in reality the material content of the decisions is of scientific and technical nature. Hence, these are scientific and technical decisions with a legal format.

7.- Beyond the legal treatment of new technological risks, in the late 20th Century the traditional functioning of EU Institutions reached a low point. When crucial decisions were taken by EU authorities on issues potentially affecting society, they failed both to disseminate information to society in transparent way and to provide formal instruments for society to engage in the decision-making process (a situation also known as “democratic deficit” or “legitimacy gap”). Consequently, there was a feeling of lack of knowledge, distance and mistrust among EU citizens. In the early years of the 21st Century this political crisis was to lead the European Union to set in motion a new political and legal strategy known as governance. The aim of this strategy was as follows: for the functioning of the European Union to overcome its deficiencies in terms of openness, transparency, public engagement and accountability. There have been significant regulatory changes in the years the new governance strategy has been in force both in terms of the founding legislation of the EU (in the EU founding treaties: the TEU, the TFEU and the CFREU) and in the contents of EU legislation in general. These regulatory changes have gone in three directions.

Firstly, the new EU governance has opted for a more flexible regulatory procedure. In addition to employing traditional regulatory legally-binding *hard law* instruments, there

has been an increasing use of other type of instruments such as *soft law*-type regulations, *co-regulations* resulting from cooperation between both public and private stakeholders.

Secondly, there have been significant regulatory developments concerning the right for public access to information, in particular in terms of the provision of environmental information to the public. This right provides guarantees for transparency and the exercise of democratic control within the functioning of EU Institutions.

